



EUSKAL GRAMATIKA

LEHEN URRATSAK-VII

(PERPAUS JOKATUGABEAK)

2011

**“Gramatikak” bilduman
argitaratutako zerrenda**

1. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I (1985)*
2. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I (Eraskina) (1987)*
3. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - II (1987)*
4. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I-II (Gai aurkibidea)
(1988)*
5. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - I
(eranskina eta gai aurkibidea bilduz)
(1991)*
6. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - III (Lokailuak) (1990)*
7. *Euskal Gramatika Laburra:
Perpaus Bakuna (1993)*
8. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - IV
(Juntagailuak) (1994)*
9. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - V
(Mendeko perpausak - 1) (1999)*
10. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - VI
(Mendeko perpausak - 2) (2005)*
11. *Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak - VII
(Perpaus jokatuabeak) (2011)*



EUSKALTZAINDIA



EUSKAL GRAMATIKA. LEHEN URRATSAK - VII
Perpaus jokatuabeak

EUSKALTZAINDIA

EUSKALTZAINDIA

**EUSKAL
GRAMATIKA**
LEHEN URRATSAK-VII
(PERPAUS JOKATUGABEAK)

**Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - VII:
Perpaus jokatuabeak**

Sail honetako aurreko gramatiketan perpaus bakunaren egitura, aditza, testua antolatzeko lokailuak, perpaus juntatuak eta mendeko perpaus jokatuak landu ondoren, oraingo honetan mendeko perpaus jokatuabeak aztertzeari lotu zaio Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea.

Menderakuntzari eskaini dizkion hiru liburuetatik azkena da *EGLU VII* liburuki hau. Honako honetan, aditz jokatuabedun perpaus mendekoak ditugu hizpide. Zalantzarik gabe esan daiteke aztertutako perpaus jokatuabe hauek (denborazkoak, kausazkoak eta helburuzkoak, baldintzazkoak, kontzesiozkoak, moduzkoak, erlatiboak, osagarriak) orain arteko euskal gramatiketan nekez ikus daitekeen zehaztasun eta xehetasunarekin deskribatu direla liburuki honetan.

EUSKAL GRAMATIKA

LEHEN URRATSAK - VII:

(PERPAUS JOKATUGABEAK:

*denborazkoak, kausazkoak eta helburuzkoak, baldintzazkoak,
kontzesiozkoak, moduzkoak, erlatiboak eta osagarriak)*

GRAMATIKA BATZORDEA

EUSKALTZAINDIA

2011

**EUSKALTZAINDIA
GRAMATIKA BATZORDEA**

**EUSKAL GRAMATIKA
LEHEN URRATSAK - VII:**

(PERPAUS JOKATUGABEAK:

*denborazkoak, kausazkoak eta helburuzkoak, baldintzazkoak,
kontzesiozkoak, moduzkoak, erlatiboak eta osagarriak)*

2011

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: www.euskaltzaindia.net/azkue

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque / Royal Academy of the Basque Language
Plaza Barria, 15 - 48005 Bilbo

Inprimategia: Composiciones RALI, S.A.
Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

ISBN: 978-84-95438-79-9
L.G.: BI-2986/2011

GRAMATIKA BATZORDEA

Burua: Salaburu, Pello

Idazkaria: Makazaga, Jesus Mari

Kideak:

Amundarain, Iñaki

Azkarate, Miren

Charritton, Pierre

Fernandez, Beatriz

Garzia, Juan

Goenaga, Patxi

King, Alan

Laka, Itziar

Lasarte, M^a Pilar

Mounole, Céline

Mujika, Jose Antonio

Oyharçabal, Beñat

Rekalde, Paskual

Rotaetxe, Karmele

EGLU-VII

Txostengileak:

Amundarain, Iñaki

Garzia, Juan

Goenaga, Patxi

Laka, Itziar

Makazaga, Jesus Mari

Mujika, Jose Antonio

Oyharçabal, Beñat

Rekalde, Paskual

Salaburu, Pello

Laguntzaileak:

Azkarate, Miren

Charritton, Pierre

Fernandez, Beatriz

King, Alan

Lasarte, M^a Pilar

Mounole, Céline

Rotaetxe, Karmele

Azken moldatzaileak:

Rekalde, Paskual

Salaburu, Pello

AURKIBIDEA

LABURTZAPENAK	1
ZEINUA K	3
AURKEZPEN A	5
0. ATARIKOA	11
1. DENBORAZKO PERPAUSAK	27
1.0. SARRERA	27
1.0.1. Funtzioa: denboraren erreferentzia ematea.....	27
1.0.2. Forma. Oinarria eta menderatzaileak.....	30
1.0.2.1. Adizkiak	30
1.0.2.2. Denbora-morfemak	32
1.0.3. Sailkapena.....	35
1.1. ALDIBEREKOTASUNA	36
1.1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra	36
1.1.1.1. <i>-TZEAN</i>	36
1.1.1.2. <i>-TZERAKOAN</i>	38
1.1.1.3. <i>-TZEKOAN</i>	40
1.1.1.4. <i>-TZEAREKIN</i>	42
1.1.1.5. <i>-TZEARI, -TZERAT</i>	44
1.1.1.6. <i>-TU(K)ERAN</i>	44
1.1.2. Aldiberekotasun estua.....	46
1.1.2.1. <i>-TZERAKO</i>	47
1.1.2.2. <i>-TU ORDUKO</i>	50
1.1.2.3. <i>-TU BEZAIN LASTER</i>	52
1.1.2.4. <i>-TU BEZALA</i>	55
1.1.2.5. <i>-TU ETA BEREHALA, -TU ETA LASTER</i>	55
1.1.2.6. <i>-TU AZ BATERA, -TZEAREKIN BATEAN</i>	59
1.1.2.7. <i>-TU BERRI(T)AN</i>	61
1.1.2.8. <i>-TU AHALA</i> eta <i>-TU ARAU</i>	63

1.1.3. Aldiberekotasun errepikatua	63
1.1.3.1. <i>-TU ALDIRO, -TU BAKOITZEAN</i>	63
1.1.3.2. <i>-TU AHALA, -TU ARAU</i>	64
1.2. ALDI DESBERDINTASUNA	66
1.2.1. Aurrekotasuna	67
1.2.1.1. <i>-TU BAINO LEHEN</i>	67
1.2.1.2. <i>-TU AURRETIK</i>	71
1.2.1.3. <i>-TU AITZINEAN</i>	73
1.2.1.4. <i>-TU GABE</i>	75
1.2.1.5. <i>-TZERAKO</i> eta <i>-TU ORDUKO</i> formen aurreko- tasun-balioa	77
1.2.2. Ondokotasuna	77
1.2.2.1. <i>-TU ETA</i>	78
1.2.2.2. <i>-TU ETA GERO</i>	80
1.2.2.3. <i>-TUTA</i>	83
1.2.2.4. <i>-TUTAKOAN</i>	85
1.2.2.5. <i>-TU ONDOAN</i>	86
1.2.2.6. <i>-TU OSTEAN</i>	91
1.2.2.7. <i>-TU(A)Z</i>	91
1.2.2.8. <i>-TUZ GERO</i>	92
1.2.2.9. <i>-TURIK</i>	97
1.3. IRAUPENA	98
1.3.1. Iraupenaren aurreko muga	100
1.3.1.1. <i>-TUZ GERO</i>	100
1.3.2. Iraupenaren azken muga	101
1.3.2.1. <i>-TU ARTE</i>	103
1.3.2.2. <i>-TU ARTINO</i>	105
1.3.2.3. <i>-TU ARTIO</i>	106
1.3.2.4. <i>-TU ARTEAN</i>	107
1.3.2.5. <i>-TU ARTEKAN</i>	108
1.3.2.6. <i>-TU ARTEKO</i>	109
1.3.2.7. <i>-TU BITARTEAN</i>	109
1.3.2.8. <i>-TZERAINO</i>	111

1.3.3. Iraupenaren tarte osoa.....	113
1.3.3.1. <i>-TU BITARTEAN</i>	115
1.3.3.2. <i>-TU ARTEAN</i>	116
1.3.3.3. <i>-TU AZ BATERA, -TU AHALA</i> eta <i>-TU ARAU</i> ...	117
LABURPENA	119
2. KAUSAZKO ETA HELBURUZKO PERPAUSAK	135
2.1. KAUSAZKO PERPAUSAK	135
2.1.1. Forma.....	135
2.1.2. <i>-TZEAGATIK</i> helburuzko nahiz kausazko	136
2.1.3. Noiz kausazko eta noiz helburuzko?	139
2.1.3.1. Helburuzko adiera egiletasunarekin lotua ageri da	140
2.1.3.2. Kausa-adierak jasailea eskatzen du.....	141
2.1.4. Perpaus nagusiko argumentuak eta mendeko perpaus- seko subjektua.....	142
2.1.5. <i>-TZEAGATIK</i> perpausa eta gainerako kausa-perpausak	146
2.1.5.1. <i>-TZEAGATIK</i> , perpaus barneko kausal	146
2.1.5.2. <i>-eLAKO</i> vs <i>-TZEAGATIK</i>	148
2.1.6. Aspektua: <i>-TZEAGATIK</i> vs <i>-TU(IZAN)AGATIK</i>	150
2.1.7. <i>-TZEAREN</i>	153
2.1.8. Kausa adierazteko beste bide batzuk: <i>-TURIK</i> eta <i>-TUTAKOAN</i>	155
2.2. HELBURUZKO PERPAUSAK	156
2.2.1. Helburuzko perpausen funtsezko ezaugarriak	156
2.2.2. Zalantza batzuk	158
2.2.3. Erlazio semantikoak helburuzko perpausetan eta beste perpaus batzuetan	159
2.2.4. Perpaus hauen “bazterreko” izaera	161
2.2.5. Helburuzko perpausak aditz-izenaren gainean osatzen dira	164
2.2.5.1. <i>-TZEKO</i>	164
2.2.5.1.a. <i>-TZEKO</i> eta helburua	164
2.2.5.1.b. <i>-TZEKO</i> atzizkiaren beste balio batzuk	165

2.2.5.2. –TZEAGATIK eta –TZEAREN	171
2.2.5.3. –TZEKOTZAT	172
2.2.5.4. –TZE ALDE, –TZE ALDERA	173
2.2.5.5. –TZEKOTAN (eta –TZEKO ASMOTAN, INTEN- TZIOTAN, –TZEKO INTENTZIOAREKIN)	174
2.2.5.6. –TZEKOTZ.....	176
LABURPENA	179
3. BALDINTZA-PERPAUSAK	185
3.0. SARRERA	185
3.1. BALDINTZADUN PERPAUSEN EZAUGARRI BATZUK	187
3.1.1. Kausa eta kausa-ondorio erlazioa	188
3.1.2. Hipotesia.....	190
3.1.3. Aldiberekotasuna	191
3.1.4. Semantikaren eta pragmatikaren jokoak.....	192
3.2. –TUZ GERO	194
3.2.1. Forma.....	194
3.2.2. Aldaerak.....	195
3.2.3. Balioa.....	197
3.2.4. Ordena	200
3.2.5. –TUZ GERO baldintzazko perpausen adierak.....	202
3.2.5.1. Baldintza errealaren adiera	203
3.2.5.2. Baldintza irrealaren adiera	208
3.3. –TU EZIK	210
3.3.1. Baldintza erreala	211
3.3.2. Baldintza irreala.....	212
3.3.3. Salbuespena	213
3.4. –TU EZEAN	215
3.5. –TZEKOTAN	218
3.6. –TZEKOTZ	227
3.7. –TZEZ GERO	229
3.8. –TZERA(T)	230

3.9. <i>-TUENEAN</i>	232
3.10. <i>ZER + ADITZOINA + ERE (zer(nahi) gerta (ere), zer hel ere</i>	233
LABURPENA	235
4. KONTZESIO PERPAUSAK	245
4.0. <i>SARRERA</i>	245
4.1. KONTZESIO-PERPAUS JOKATUGABEEN EZAUGARRI OROKORRAK	253
4.2. <i>NAHIZ ETA ...-TU</i>	258
4.3. <i>-TU ARREN</i>	263
4.4. <i>-TUAGATIK (ERE)</i>	268
4.5. ERE LOKAILUA DUTEN MOLDEAK	275
4.5.1. <i>-TUTA ERE / -TURIK ERE</i>	276
4.5.2. <i>-TUZ GERO ERE</i>	280
4.6. BANAKARITZA-EGITURAK	282
4.7. KONTZESIO-PERPAUS JOKATUGABEEN TAULA LABURPENA	284
5. MODUZKO PERPAUSAK	301
5.0. <i>SARRERA</i>	301
5.1. ADITZ-PARTIZIPIOA (-TU) OINARRI DUTEN MODUZKO MOLDEAK	306
5.1.1. <i>-TURIK eta -TUTA</i>	307
5.1.1.1. <i>-TURIK</i>	307
5.1.1.2. <i>-TUTA</i>	310
5.1.2. <i>-TUA(K)</i>	313
5.1.3. <i>-TUZ (-TUAZ)</i>	321
5.1.4. <i>[-TU + postposizioa]</i>	328
5.1.4.1. <i>Luzatzen eta errepikatzen diren egoerak: -TU AHALA, -TU ARAU</i>	328
5.1.4.1.a. <i>-TU AHALA</i>	328
5.1.4.1.b. <i>-TU ARAU</i>	331

5.1.4.2. Aditz-partizipioa + postposizio modalak	332
5.1.4.2.a. <i>-TU BEHARREAN</i>	332
5.1.4.2.b. <i>-TU NAHIRIK</i> (<i>nahian, nahizik</i>); <i>-TU GURARIK</i> (<i>guran</i>)	335
5.1.4.2.c. <i>-TU EZINDA, -TU EZINEAN, -TU EZINIK</i> ...	338
5.1.4.3. Ezezkoak: <i>-TU GABE, -TU BARIK, -TU EZTA</i> ...	340
5.1.4.4. Konparaziozkoak: <i>-TU BEZALA</i> eta <i>-TU LEGEZ</i> ..	345
5.1.4.5. <i>-TU AGINEAN, aginik</i>	345
5.1.4.6. <i>-TU ORDE, -TU ORDEAN, -TU ORDEZ</i>	347
5.2. ADITZ-IZENA OINARRI DUTEN MOLDEAK	349
5.2.1. <i>-TZEKE, -TZAKA</i>	349
5.2.2. [<i>-TZEKO</i> + modu-postposizioa]: <i>-TZEKO MODUAN / ERAN / GISAN / MANERAN</i>	351
5.2.3. <i>-TZEKO ZORIAN</i>	353
5.2.4. <i>-TZEAREKIN, -TZEAGAZ</i>	354
5.2.5. <i>-TZEKOTAN</i>	355
5.3. ADITZOINA OINARRI DUTEN MOLDEAK	356
5.3.1. Aditzoin juntatuak edo enumeraziozkoak (<i>xuti eta eror</i>)	356
5.3.2. Aditzoina + <i>AHALA</i> + aditzoin bera (<i>higi ahala higi</i>)	357
5.3.3. Aditzoina + <i>-KA</i> atzizkia (<i>gaizki esaka</i>)	357
5.3.4. Aditzoina + <i>-KI</i> atzizkia (<i>jakinki</i>)	358
LABURPENA	361
6. PERPAUS ERLATIBOAK	381
6.0. SARRERA	381
6.1. PERPAUS ERLATIBO JOKATUGABE ARRUNTAK.	383
6.1.1. Perpaus erlatibo jokatugabe arruntan aldaerak	383
6.1.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagozkienak	388
6.1.2.1. Perpaus erlatibo arruntetan aditzak behar duen tokia	389
6.1.2.2. Perpaus erlatibo jokatugabeen juntaketa eta metaketa	389

6.1.2.3. Perpaus erlatiboaren tokia.....	391
6.1.2.4. Perpaus erlatibo jokaturgabeek lagun ditzaketen izen motak	393
6.1.2.5. Perpaus erlatibo jokaturgabe generikoak	394
6.1.3. Perpaus erlatibo jokaturgabeen berezko ezaugarriak....	395
6.1.3.1. Ezezkoa perpaus erlatibo jokaturgabeetan	395
6.1.3.2. Aspektu-murritzapenak perpaus erlatibo jokaturgabeetan	397
6.1.3.3. Zein izen-sintagma erlatibatzen den perpaus erlatibo jokaturgabe arruntetan (erlatibatzeko eskala)	399
6.2. KORRELAZIOZKO PERPAUS JOKATURGABEAK...	401
6.3. EZ DAUKAGU [NON LO EGIN]: GALDERAZKO IZENORDAINA DAUKATEN PERPAUS ERLATIBO JOKATURGABEAK	403
LABURPENEA	415
7. PERPAUS OSAGARRIAK	425
7.1. PERPAUS JOKATURGABEEN EZAUGARRI OROKORRAK OSAGARRIETAN	427
7.1.1. Aditz jokaturgabeek ez dute pertsona- eta denbora-markarik	427
7.1.2. Erreferentziakidetasuna eta kontrol-egiturak.....	429
7.1.3. Predikatu gobernatzaileak sailkatzea.....	433
7.1.4. Perpaus osagarri jokaturgabeen morfosintaxi berezia ..	434
7.1.4.1. <i>-TZE</i> atzizkiaz osaturikoak: aditz-izen egiturak eta itxura bereko izen-sintagma arruntak	434
7.1.4.2. Aditz-izenez osaturiko perpaus jokaturgabeen izen-joskera murrizta.....	436
7.1.4.3. Perpaus osagarri jokaturgabe burutuak (<i>-TUA</i> nahiz <i>-TU IZANA</i>)	442
7.1.4.4. Objektua genitiboz (<i>uren hartzera</i>).....	444

7.2. PERPAUS OSAGARRI JOKATUGABEAK ZEIN DIREN ETA NOLAKOAK	448
7.2.1. Osagarriak bestelakoetatik bereiztea	448
7.2.2. Perpaus osagarri jokatugabeek perpaus nagusiaren argumentuen artean duten lekuaz	451
7.2.3. Perpaus osagarri jokatugabeek joskeran duten garrantzia	457
7.2.4. Aditzen osagarriak eta izenkien osagarriak	458
7.2.5. Aditz-predikatuek gobernaturiko perpaus osagarri jokatugabe motak	462
7.2.6. Osagarri jokatugabezko antolaerak eta aditz-perifraziak..	464
7.2.7. <i>-TU BEHAR/NAHI/AHAL/EZIN IZAN</i> perifrasi-egiturak	467
7.3. PERPAUS OSAGARRI JOKATUGABEEN EGITURAK BANAKA.....	468
7.3.1. <i>-TZEN</i> perpaus osagarriak.....	468
7.3.1.1. Forma eta esanahia.....	468
7.3.1.1.a. Predikatu motak, esanahiaren arabera.....	469
7.3.1.1.b. Datiboa tartean denean.....	473
7.3.1.1.c. <i>Utzi (du)</i> eta <i>utzi (dio)</i> (eta <i>lagundu</i>).....	473
7.3.1.1.d. <i>ari izan</i> eta <i>aritu</i> (eta <i>hasi</i> eta <i>jarraitu</i>).....	476
7.3.1.1.e. <i>-TZEN hasil/jarraitu</i> aspektu-perifraziak	478
7.3.1.1.f. <i>Zertan</i> perpausak eta <i>zer</i> perpausak predikatu berekin (ikus 7.4.3. ere)	479
7.3.1.1.g. <i>Joan</i> predikatuaren erabilera berezi batzuk (<i>galtzen doa</i>)	481
7.3.1.1.h. <i>-TZEN EGON</i>	483
7.3.1.1.i. <i>-TZEN AKABATU/AMAITU/BUKATU</i>	484
7.3.1.1.j. Prozesu/jarduera nozioen gorabeherak (egilea, jasailea eta eragilea)	485
7.3.1.2. Kontrola <i>-TZEN</i> perpausetan	488
7.3.1.3. <i>-TZEN</i> perpausak hartzen dituzten predikatuen sailkapen formala	489

7.3.2. –TZERA(T) perpaus OSAGARRIAK	492
7.3.2.1. –TZERA perpausen ezaugarriak –TZEN perpausen kin erkaturik.....	492
7.3.2.2. –TZERA perpausak gobernatzeko dituzten predikatuak	494
7.3.2.3. –TZERA JOAN aditz-perifrasia.....	499
7.3.2.4. –TZERA EMAN aditz-perifrasia.....	501
7.3.3. –TZEKO perpaus osagarriak.....	501
7.3.3.1. –TZEKO perpaus-motak bereizten.....	501
7.3.3.2. –TZEKO perpausen oinarritzeko adiera.....	502
7.3.3.3. Kontrola –TZEKO (zerta(ra)ko) perpaus osagarrietan	506
7.3.3.4. Kontrola –TZEKO (zer) perpaus osagarrietan	507
7.3.3.5. –TZEKO perpausak hartzen dituzten aditz-pre- dikatuaren sailkapena	508
7.3.3.6. –TZEKO perpaus izenlagunak	512
7.3.3.6.a. –TZEKO perpaus izenlagunak egituraren aldetik	513
7.3.3.6.b. –TZEKO perpaus izenlagunak esanahiaren aldetik.....	517
7.3.3.7. –TZEAREN perpaus izenlagunak	523
7.3.4. [–TZE(A) + atzizkia] perpaus osagarriak	525
7.3.4.1. –TZETIK perpaus osagarriak (eta –TZETIK –TZERA perpaus osagarri ezkonduak).....	526
7.3.4.2. –TZEAN perpaus osagarriak	531
7.3.4.3. –TZEAREKIN/-TZEAGAZ perpaus osagarriak	533
7.3.4.4. –TZEAZ perpaus osagarriak	536
7.3.4.5. –TZEARI perpaus osagarriak	543
7.3.4.6. –TZEAK perpaus osagarriak	549
7.3.5. –TZE(A) perpaus osagarriak (eta –TZERIK)	553
7.3.5.1. –TZE(A) perpausen predikatu gobernatzailerak (haien sintaxi-testuinguruak)	553
7.3.5.2. EZIN IZAN + –TZE(A) perpausen forma (ezin egin izatea / *ezin egitea)	559
7.3.5.3. –TZERIK	559
7.3.6. Zehar-galdera jokatu gabeko perpaus osagarriak	561

7.4. PERPAUS OSAGARRI MOLDE BATZUEN BEREZITASUNAK	565
7.4.1. <i>-TZEN/-TZERA</i> eta <i>-TZEKO</i> alternantzia	565
7.4.1.1. <i>Saiatu/enseiatu</i>	565
7.4.1.2. <i>Prest izan/egon</i>	566
7.4.1.3. <i>Zail(a)/erraz(a) izan</i>	566
7.4.1.4. <i>Trebe/abil izan</i>	567
7.4.2. <i>-TZEA/-TZEKO</i> alternantzia.....	567
7.4.2.1. [aditza + <i>-TZEA/-TZEKO</i>] eta [izena+aditza + <i>-TZEKO</i>].....	567
7.4.2.2. <i>-TZEA ESKATU</i> eta <i>-TZEKO ESKATU</i>	569
7.4.3. <i>-TZEA</i> eta <i>-TZEN</i> predikatu berarekin.....	578
7.4.4. <i>-TZEA (nahi/gura izan)</i> eta <i>-TU (nahi/gura izan)</i> (eta <i>nahiago/gurago izan</i> eta <i>hobe izan</i>)	580
7.4.5. Osagarri jokatu gabeen eta jokatu en arteko baliokidetasunak	585
7.4.6. Osagarri jokatu gabeak eskuineratzea eta perpaus-muga kanonikoa gainditzea	588
ERANSKINA	593
LABURPENA	609
BIBLIOGRAFIA	615
GAI-AURKIBIDEA	645

LABURTZAPENAK

ad.	aditza
ap.	apud
arg.	argitalpena
ed.	edizioa
B	burutua
Bizk.	bizkaiera
c	<i>circa</i>
cf	<i>confer</i>
vs	<i>versus</i>
d.	datiboa
egil.	egilea
Ek.	Ekialdea
Gen.	generikoa
Gip.	gipuzkera
ik.	ikus
Ipar.	Iparraldea
itzul.	itzultzailea
itzulp.	itzulpena
K	kontrola
Kd	kontrola - datiboa
Ks	kontrola - subjektua
lor.	lorkizuna
Mend.	Mendebaldea
o	objektua

ZEINUAK

- # Zeinu hau daraman adibidea berez gramatikala da, baina testuinguruan ez da egokia.
- * Zeinu hau daraman adibidea ez da gramatikala.
- ? Zeinu hau daraman adibidearen gramatikaltasuna zalantzazkoa da.
- Ø Gramatika-osagai tazitu edo hutsa.
- [...] Zeinu hauek adierazten dute testua ezabatu dela zita batean.
- / Morfemen eta bestelako gramatika-unitateen aldaerak bereizten ditu.
- Implikazioak edo inferentziak markatzen ditu.

AURKEZPENA

PERPAUS JOKATUGABEAK

Orain aurkezten dugun liburuki honek ematen dio amaiera 1984ko irailean Euskaltzaindiak Iruñean egin X. Biltzarrean aurkeztu zuen *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izeneko bildumari. Han eztabaidatu ziren bilduma osatzen duten lehenbiziko liburuari zegozkion gaiak. Pierre Lafitte zen orduan batzordeburua, eta Patxi Goenaga idazkaria. Biltzar hartan aurkeztu baziren ere langaiak lehenbiziko aldiz jende aurrean, Gramatika batzordeak bazeramatzan aurretik zenbait urte lanean gai horiek guztiak aztertzen. Hasierako batzorde hartatik zortzi lagunek segitzen dute oraindik batzordean lanean, geroago ikusiko den gisan. Orain aurkezten dugu, bada, *EGLU VII* hau, bildumaren azkena.

Lehenbiziko bi liburukietan izen-sintagma (*EGLU I*, 1985) eta aditz-sintagma (*EGLU II*, 1987) aztertu genituen. *EGLU III*-an (1990) diskurtso edo testu mailako loturak izan genituen aztergai. *EGLU IV*-an (1994), juntagailuak. Azkeneko bi liburukietan (*EGLU V*, 1999 eta *EGLU VI*, 2005) mendeko perpaus jokatuak aztertu ditugu. Hona hemen adibide batzuk:

- (1) Esan *zenuen* egunean etorri zen.
- (2) Beste aldera begira *zegoelarik* erori zitzaion telefonoa eskuetatik.
- (3) Hondartzara joango *dela* esan digu.

Perpau horiek erakutsian uzten dute aditz laguntzaileak biltzen duen pertsona-denbora jokia (“zenuen”, “zegoelarik”, “dela”) eta horregatik esaten dugu perpau jokatuak direla. Oraingo liburukian, *EGLU* saila osatzen dutenen azkeneko honetan, ordea, perpau jokatuak aztertzen ditugu:

- (4) Zuk *esandako* egunean etorri zen.
- (5) Beste aldera *begiratu* ondoren erori zitzaion telefonoa.
- (6) Hondartzara *joateko* esan digu.

Horiek guztiak perpau jokatuak dira: aditza bai baina aditz jokorik ez dutenak (“esandako”, “begiratu”, “joateko”), hain zuzen ere.

Aurreko liburukietan, perpau jokatuak aurkezteko orduan segida hau erabili genuen:

1. Perpau osagarriak: [*Etorriko dela*] *esan du*.
2. Perpau erlatiboak: [*Etorri den*] *gaztea aspalditik ezagutzen dut*.
3. Konparazio-perpauak: [*Esan duen bezala*] *egingo dugu*.
4. Ondoriozko perpauak: *Hain goxo zegoen ohean, [non ez baitzen eskolara joan]*.
5. Baldintza-perpauak: [*Hurbilduko bazina*] *berehala konturatuko zinateke*.
6. Denborazko perpauak: [*Etortzen zarenean*] *konponduko dugu hori*.
7. Helburuzko perpauak: *Errieta egin zien [ikasten has zitezen]*.
8. Kausazko perpauak: [*Eri delako*] *gelditu da etxean*.
9. Kontzesio-perpauak: [*Nahiz hori esan duen*] *ez da egia*.
10. Moduzko perpauak: [*Zure anaia ibiltzen den eran*] *ibiltzen zara zu ere*.

Diogun gisan, horiek mendeko perpau jokatuak dira. Oraingo liburu honetan, berriz, jokatuak ditugu aztergai. Baina bi ohar egin nahi ditugu aurretik:

- Esan dezagun, batetik, ez dagoela konparaziozko eta ondoriozko perpaus jokatu gaberik euskaraz.
- Bigarrenik, perpausak beste hurrenkera batean aurkeztu ditugu orain-goan, eta arrazoiak ematen ditugu segidan:
 1. Denborazko perpausak
 2. Kausazko eta helburuzko perpausak
 3. Baldintza-perpausak
 4. Kontzesio-perpausak
 5. Moduzko perpausak
 6. Perpaus erlatiboak
 7. Perpaus osagarriak

Ikusten denez, lehenbiziko multzo bat egin dugu esanahia dela eta, errazen identifika daitezkeen perpausekin: *denborazkoak*, *kausazkoak* eta *helburuzkoak*, *baldintza-perpausak*, *kontzesio-perpausak* eta *moduzkoak*. Perpaus horiek guztiak adjuntuak dira. Bigarren sail batean daude *perpaus erlatiboak*, izenlagunen funtzioa betetzen dutenak. Hirugarrenean daude, azkenik, *perpaus osagarriak*, adjuntuak ez bezala, aditzaren argumentuak direnak.

Esan beharra da, halaber, perpaus mota bakoitzaren xehetasunak aztertzekeo garaian hiru forma hauek izan ditugula beti gogoan: aditzoina (gutxienetan), aditz-izena edo aditz-partizipioa. Hurrenez hurren:

- (7) Ez dugu [zertaz *mintza*].
- (8) [Noraezean *ibiltzea*] ez da batere gomendagarria izaten.
- (9) [Hori *aitortu* arren] ez zuen agindu zuena bete.

Kapitulua antolatzekeo era bereizkuntza horretan oinarritzen da: perpaus sail bakoitzean ikusiko da nola eratzen diren sail horretako perpaus motak aditzoina, aditz-izena eta partizipioa kontuan hartuz. Urrundik, aditzoina da gutxien erabiltzen dena euskaraz.

Beraz, *EGLU VII* honekin amaitzen du Gramatika batzordeak ziklo bat, aurrerantzean lanean segitzeko asmoa baldin badu ere. Asko aldatu dira gauzak azkeneko hogeita hamar urte honetan: gehiago dakigu gramatikaz, datu gehiago ditugu hizkuntzaz, euskara gehiago erabiltzen da, eta filologo eta hizkuntzalari asko sortu dira unibertsitateek egin duten lanari esker. Berriz ere *EGLU* guztietako material hori aztertu, berrantolatu, behar denean berridatzi... orain, azkeneko argazkiaren antzeko zerbait badugula, garaia iritsi da guztia berriz ere beste begi batzuekin birformulatzeko. Hurrengo urteetan horixe ekiteko asmoa dugu.

Gramatika batzordearen lehenbiziko burua Pierre Lafitte gramatikaria izan zen. Hura zendu zenean Patxi Altunak hartu zuen ardura, eta ondoren ni aritu naiz azken urte hauetan lan horretan. Batzordearen idazkaria, hasieran, Patxi Goenaga zen, *EGLUV*-ean Jesus Mari Makazagak postua hartu zuen arte. Urte hauetan guztietan kide asko izan ditu Gramatika batzordeak, ondoko zerrendan ikusten ahal den gisan. Batzuk hasieratik egon dira, eta beste batzuk epe jakin batzuetan. Honako ikertzaile hauek osatu dute, historian zehar, Gramatika batzordea:

Akesolo, Lino (hasieratik-1991n zendua)
Altuna, Patxi (hasieratik-2006an zendua)
Amundarain, Iñaki
Azkarate, Miren (hasieratik)
Baraiazarra, Luis
Charritton, Piarres
Eguzkitza, Andolin (2004an zendua)
Fernandez, Beatriz
Garzia, Juan
Goenaga, Patxi (hasieratik)
Haritschelhar, Jean
Iriarte, Nora
King, Alan (hasieratik)
Laffite, Pierre (hasieratik-1985ean zendua)

Laka, Itziar
Larrarte, Jose Mari (hasieratik-2005ean zendua)
Lasarte, M^a Pilar (hasieratik)
Makazaga, Jesus Mari
Mounole, Céline
Mujika, Jose Antonio (hasieratik)
Ondarra, Francisco (2005ean zendua)
Oyharçabal, Beñat (hasieratik)
Rekalde, Paskual
Rotaetxe, Karmele (hasieratik)
Salaburu, Pello (hasieratik)

Gramatika batzordeak bere lana bete du, denen eskura jarritz material hauek. Denek ikusteko, aztertzeko, eta eztabaidatzeko ere, nahi izanez gero. Baliagarria izango ahal da hau guztia! Horixe da, bederen, gure nahia.

Bilbon, 2011ko uztailean

Pello Salaburu
Gramatika batzordeburua

0. ATARIKOA: IRAKURLEARI ARGIGARRI GERTA LEKIOKEENA

Ondoko lerro hauetan aurkeztu nahi ditugu kontu hauek lantzerakoan behin eta berriz gertatu zaizkigun zenbait zailtasun, irakurleak nahi baldin badu go-goan izan ditzan. Paragrafo hauek irakurri gabe ere joan daiteke irakurlea lehenbiziko kapitulura zuzenean, gaien azterketa sistematikoarekin han hasten baikara. Hasierako hemengo hauek, azalpen batzuk baizik ez dira.

Hurrengo orrialdeetan ikus daitekeen materialak ordu askoko eztabaidak ditu atzean. Kapituluak idazketa anitz izan dituzte, hemen aurkezten ditugun moduan batzordekideek onartuak izan aurretik. Gramatika batzordeak eztabaidan segituko balu, seguru gaude aurkituko liratekeela esan nahi diren gauzak esateko beste modu batzuk, bazterrean utzitakoak berriz ere biltzeko bideak, edo egin diren baieztapen batzuk zalantza puntuan jartzeko adibideak ere. Bada arrazoi bat aski garbia hori gertatzeko: zaila da gaia, euskal gramatiketan ez da horrenbeste landu. Baina badugu uste, batzuetan ia-ia hutsetik abiatu behar izan badugu ere, perpaus jokatugabeekin zerikusia duten gaiak gutxienez ordenaturik utzi ditugula. Ezin da ukatu –hau da gure gramatikaren ezaugarri nagusietako bat–, perpaus jokatugabeek gure hizkuntzaren erabileran eta joskeran duten garrantzi handia, asko erabiltzen baitira, liburuan zehar ikusiko dugunez.

0.1. PERPAUSAK AZTERTZEKO IRIZPIDEAK DIRELA ETA

Hasierako *EGLU* bietan izen-sintagma eta aditz-sintagma aztertu ziren. Euskal izenaren eta aditzaren morfologia hain aberatsa izanik, ez da harri-

tzekoa haietan formak hain garrantzi handia izatea. Baina formarekin batera, funtzioaz eta erabileraz ere hitz egiten genuen, ahalik eta modu sistematikoenean. Gero etorri zen perpausen azterketa: lokailuak, *EGLU III*-an eta perpaus juntatuak *EGLU VI*-an. Mendeko perpausei dagokienez, *EGLU V* eta *EGLU VI* liburukietan aztertu zituen Gramatika batzordeak mendeko perpaus jokatuak nola eratzen diren.

Liburu horietan, perpaus moten sailkapenak egiteko orduan, bide desberdinak, eta elkarren artean osagarriak, erabili ditugu:

- Batzuetan *forman* oinarritu gara: horrela bereizten dira lokabeak eta elkartuak. Eta elkartuen barnean, juntatuak eta mendekoak, eta mendekoen sailean, jokatuak eta jokatugabeak (hauek, gainerakoek ez bezala, adizki jokatugabea dute, esaterako).
- Beste batzuetan perpausok betetzen duten *funtzioa* izan dugu gogoan: bada osagarritasun-erlazioan oinarritzen direnak (konplementazio-erlazioan, nahiago bada, perpaus osagarriak alegia), baditugu erlatiboak (adjektiboen funtzioetako bat betetzen dutenak) eta baditugu adjuntuak (denborazkoak, moduzkoak, eta abar, bestetik). Lehenbiziko sailean aditzak argumentutzat hartzen ditu perpaus horiek: *Bihar etorriko dela esan du*. Bigarrenean daude osagarriak ez direnak, aditzak berez eskatzen ez dituenak, beste modu batera esateko: *Zuk hala agintzeagatik bihar etorriko dela esan du*. Hauek “adjuntu” izena ere hartzen dute gramatiketan. Erlatibozkoak ere betetzen duten funtzioagatik bereizten dira batez ere.
- Perpausen *esanahian* ere oinarritu gara sailkapenak egiteko orduan. Hau gertatzen da batez ere adjuntuekin: horregatik bereizten ditugu, demagun, denborazkoak eta kausazkoak, esanahian oinarrituz, berehala azalduko dugun gisan.

Irizpide horiek behin eta berriz gurutzatzen dira: perpaus erlatiboak, funtzioa hartzen badugu kontuan, sail bakarrekoak dira, izenlagunaren lana egiten baitute; forma hartzen badugu kontuan, ordea, jokatuena nahiz jokatuga-

been artean sailkatu behar ditugu. Bestetik, kausazkoek, helburuzkoek, denborazkoek..., denek funtzio adberbiala dute, nolabait ere esateko, baina esanahian oinarritzen gara haien arteko bereizketak egiteko. Areago: sailkapena dela eta, lerroan eman ditugu *EGLU V* eta *EGLU VI*-n, osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, baldintzazkoak edo helburuzkoak, denak multzo berekoak balira bezala, baina bistan da betetzen duten funtzioa hartzen badugu kontuan hori ez dela horrela gertatzen. Horregatik antolatu dugu hemen perpausen aurkezpena beste modu batera.

Gure azterketa egitean, *EGLU V* eta *EGLU VI* liburukietako perpaus adjuntuen kasuan batez ere esanahian, nahiz ez esanahian bakarrik, oinarritu gara. Horrela, adibide bat emateagatik, jo dezagun kontzesio-perpaus jokatuak zer diren azaldu nahi dugula. Hau izan da argudioak emateko bidea: “p” eta “q” proposizioak baldin baditugu, eta dugun mundu ikuspegian bi proposizio horien artean inferentzia erlazio bat dagoela ontzat ematen badugu, ondorio bat ateratzen dugu hortik. Jo dezagun “p” proposizioa dela “gaixorik dago” eta “q”, berriz, “ohean gelditu da”. Bi proposizio horiek bata bestearen ondoan jartzen ditugunean, ondorioztatzen dugu norbait gaixorik baldin bada (p) ohean geratzen dela (q) arruntean, eta ez, jo dezagun, Everestera joateko gogo bizia pizten zaiola, hain zuzen ere, gaixorik dagoela aprobetxatuz. Bada, esango dugu gure aurkezpenean, kontzesio-perpausek berez arruntean espero ez denaren aurkaritza-erlazio baten berri ematen dute, alegia, proposizio horietatik atera litekeen inferentzia ez dela betetzen: perpaus nagusian predikatzen da gauza bat, eta horren aurrean mendeko perpausak (kontzesio-perpausak) halako oztopo edo oposizio zerbait kontrajartzen dio. Hola sortzen ditugu kontzesio-egiturak.

Konturatu gaitzen orain beste puntu honetaz: gramatikaren aldetik, berdin sor genezake “nahiz gaixorik egon, ohean gelditu da” bezalako zerbait, baina hori ez da munduaz dugun esperientziak erakusten diguna, eta oso arrunta ez den kasuetan bakarrik erabiliko genuke holako esaldi bat, betiere testuinguru markatu batean: esate baterako, medikuak esaten dio gaixo bati sendatzeko modu bakarra ohetik jaikitzea dela, eta gaixoak erabakitzen du han gelditzea,

mugitu gabe. Egoera horretan izango luke zentzua, izatekotan ere, sortu dugun bigarren perpaus horrek, guztiok dugun senaren kontra, nolabait ere, joango litzatekeen horrek.

Holako argumentu semantikoak erabiliz bereizi ditugu lehenik, sailkapen orokorra egiteko orduan, perpaus adjuntuak (osagarriak eta erlatiboak ez direnak, lehen esan bezala) elkarren artean: hau denborazko perpausa da, beste hura baldintzakoa edo kausazkoa. Behin bereizketa horiek egin ondoren, multzoka banatu ditugun perpaus mota horiek dituzten marka formalak zein diren zehazten saiatu gara. Kontzesio-perpauak “nahiz”, “arren”, “-gatik”, “... ere” bezalako formekin osatzen ditugula esan dugu.

Ohart gaitezen alderantziz ere egiten ahal genuela: ez egin kasurik esanahiari, perpauak duen semantikari, sailkapenak egiteko orduan, eta forman bakarrik oinarritu. Gramatikaren ikuspuntutik agian egokiago litzateke, eta beharbada zuhurragoa, hain segur ere. Hola, “nahiz” forma hartu eta esango genuke forma horrek zer perpaus motari ematen dion bide, eta gauza bera “arren”, edo “-gatik” postposizioarekin ere. Gramatikan formak agintzen du, eta forma bakarrik kontuan hartzea zuhur jokatzeko litzateke, besteak beste, esanahiaren kontuak aztertzen ditugunean gauzak biziki lanbrotzen hasten baitira, eta argudiobideak askotan ahuldu. Goian ikusi dugu hori: behin tes-tuinguru egokia aurkitu ondoren, ezinezkotzat jo ditzakegun perpauak ego-kiak direla ikusten dugu, azken horrekin gertatu den gisan.

Egia da, gainera, batzuetan, forma bera (zentzurik zabalenean erabiltzen dugu termino hau hemen) aski dela interpretazio kontuetan muga argiak jar-tzeko (neurri batean bederen):

- (1) Mirenek ez zuen ikusi Bartzelonara joaten.
- (2) Mirenek ez zekien Bartzelonara joaten.

Hain antz handia duten bi perpaus horietan –azken batean, aditza besterik ez dugu aldatu– badakigu, perpausak duten egitura formalagatik bakarrik

(edo, hobeki esan, segur aski ere aditz horiek dituzten propietate formalengatik), lehenbizikoan, “Bartzelonara joaten” perpausaren subjektua Miren ez den beste norbait dela, baina alderantziz gertatzen dela bigarrean, non, nahitaez, Miren baita Bartzelonara joaten ez dakiena. Hortaz, itxuraz bederen, badirudi forman oinarritzea, eta forman oinarrituz euskal gramatikak erakutsian uzten dituen perpaus moten berri ematea, egokiago litzatekeela, perpausak elkarren artean bereizteko semantika kontuetara jotzea baino. Hala ere, gauzak ez dira hain sinpleak. Ikus dezagun, kontzesio-egiturak aipatu ditugunez hasieran, ondoko adibide hau:

- (3) Nahiz Mirenek ikusi ez duen, Patxi Bartzelonara joan da.

Hori azal genezake forma bakarrik kontuan hartuz: esan beharko genuke holako egituretan “nahiz” forma mendeko perpausaren hasieran doala (hala baldin badao), indikatiboko formekin (hala baldin bada), perpaus horren aditzak “-n” (“dueN”) behar duela amaieran, eta abar. Baina horretan geratuz gero, ez genuke emango beharrezkoa den informazioa perpaus horrekin hizkuntzak zer adierazi nahi duen ulertzeko: adibidez, bi proposizio ditugun perpaus horretan, inferentzia bat egiten duela hiztunak, inferentzia hori munduaz duen ezagutzan oinarritzen dela, eta abar. Esan nahi baita, behin ezinbestekoak ditugun azalpenak ematen hasi bezain laster, forma hutsetik haratago joanez, berehala sartuko ginatekeela, beldur, ez hain erosoak ditugun semantika kontuetan, edo funtzioen kontuetan. Pentsa dezagun, adibidez, forma bat hartu, *-turik*, eta horren erabileran: perpaus *moduzkoak*, *denborazkoak*, *kontzesiozkoak*... osatzeko balio digu.

- (4) Leher eginik ailegatu ginen Baigurako tontorrera.
(5) Gure udako itzulia eginik, hemen gaude berriz ere.
(6) Hitz laburtxoak izanik ere, horiek jakin behar dira noiz eta nola esan.

Formak bakarrik ez digu ematen informazio nahiko azalpen gramatikal egoki bat emateko orduan. Edo euskaraz baldintza nola adierazten den jakiteko, adibidez, kapitulu askotan barrena ibili beharko genuke baldintzazko perpausen

bila. Eta azalpenak ematen ez baditugu, nekez egingo dugu baliagarri den zerbait, azken batean gramatikak zertako, noiz eta zergatik erabiltzen ditugun, erabiltzen ditugun formak, azaldu behar baitu, zerbaiterako balio izatekotan.

Ikus dezagun beste adibide hau:

- (7) Lagunak agurtu eta etxera itzuli gara.

Perpaus juntatua izan arren, aski sinplea dirudi, aparteko eragozpenik gabekoa ulertzeko orduan. Forma aldetik bi perpaus osatua, tartean “eta” juntagailua dutela. Eta bi aditz arrunt, batean laguntzailea isildu dugula. Gutxi esan beharko genuke perpaus horretaz, hain oinarrizkoa denez geroztik. Baina horren barrua ardura pixka batekin aztertzen badugu, berehala onartu beharko dugu kontuak ez direla itxurak ematen duen bezain sinpleak. Hasteko, tartean ageri den “eta” hori juntagailua izan daiteke, bi perpaus beregain elkartzen eta lotzen dituen juntagailua: “lehenik lagunak agurtu ditugu, eta hori egin ondoren etxera itzuli gara”, esan nahiko bagenu bezala. Baina esaldiaren beste irakurketa bat ere egin daiteke, nolako doinua ematen diegun hitz horiei: “lagunak agurturik, etxera itzuli gara”. Bigarren kasu horretan enklitikoa da “eta”, eta lehenbiziko perpausari lotuago dago bai ahoskeran, bai eredu idatzian ere, dela marra bat jarritz aurreko hitzaren eta juntagailuaren artean (“agurtu-eta”), dela aldaera laburtua aukeratuz eta zuzenean partizipioari erantsiz (“agurtuta”), dela bere horretan utziz, baina, hori bai, koma bat jarritz (“agurtu eta,”). Horrela, doinuarekin egiten dugun bereizketa horren berri emateko, eta perpaus itxuraz sinple horren propietate batzuen berri emateko, bi idazkera hauek, gutxienez, erabili beharko genituzke:

- (8) Lagunak agurtu, eta etxera itzuli gara.

- (9) Lagunak agurtu eta, etxera itzuli gara.

Bigarren kasu horretan, aurrekoan ez bezala, aurrean ditugunak ez dira pareko diren bi perpaus “eta” juntagailuarekin lotuak, baizik mendeko perpaus bat (“lagunak agurtu eta”) eta perpaus nagusi bat.

Adibide horiek “Denborazko perpausak” izeneko kapituluan aztertzen dira, eta ez ditugu bereizketak egiteko xehetasunak emango hemen. Azpimarratu nahi dena beste zerbait da: ohartu gabe ere, azalpen sinpleenak ematen hasten garenean, egiturarik sinpleenean, zerbait esan behar dugu ezinbestean esanahiari buruz. Hau ez bide dute gogoko gramatikariek, baina ezinbesteko gertatzen da azkenean, hizkuntza kontuez zerbait esan nahi izaten dugunean, eta horretara jotzen dute gramatika guztiek azkenean.

Perpausen arteko bereizketak egitea ez da lan erraza batere. Kasu batzuetan gauzak argi daude:

- (10) Mikel etxean sartu da.
- (11) Nork egin zuela esan duzu?

Badirudi bi perpaus horien ezaugarrien berri eman nahi badugu, nahiko erraz aurkituko ditugula argumentuak horretarako. Forma aldetik ere aski desberdinak dira. Tartean dago kontua, ordea.

Hizkuntza osatzen duten hotsak, azken batean, eta gramatikak sortzen dituen perpausak, akustikoki continuum bat besterik ez den soinu kate batean oinarritzen dira. Baina gure burmuinak duen kategoriatze-sistemak ezin ditu kategoriak continuum batean antzeman, gure burmuinak erabiltzen dituen kategoriak diskretoak baitira: fonemak diskretoak dira, alegia, hizkuntza kategoria diskretoak. Izan ere, hizkuntzaren atal guztiak diskretoak dira, ez jarriak. Beste kontu bat da esanahiarekin gertatzen dena: esanahia ez da hizkuntza-kategoria bat, oso konplexua baita, dimentsio anitzekoa. Hizkuntzaren atalak zehatzak diren arren, hizkuntzaren bitartez adierazten ditugun esanahiak lau-soak eta muga zehatzik gabekoak dira maiz. Lan joria da, hortaz, bereizketa hauen guztien berri ematea. Eta joriago, liburuki honetan aztergai hartu ditugun perpaus jokaturik ez dutenez, informazio handi bat itzalean geratzen baita, beharrezkoak izan daitezkeen datuak (pertsona, aldia...) agerian utzi gabe. Osaera formala, gainera, oso antzekoa dute perpaus hauek guztiek: partizipioa

+ marka/ postposizioa edo aditz-izena + marka/postposizioa. Eta forma horrek esanahi asko estaltzen ahal ditu azpian.

Nondik datoz, hortaz, perpaus jokatu-gabeak deskribatzeko zailtasun horiek? Sarritan, edo adiera bera modu askotara eta perpaus mota desberdinak erabiliz eman dezakegulako, edo mota jakin bateko perpausak balio askokoak gertatzen direlako. Adibide batzuk emango ditugu segidan (hemen ematen ditugun adibideak, edo horien parekoak, liburua osatzen duten kapitulu-etakoko testuetatik hartuak dira).

0.2. PERPAUSEN EZAUGARRIAK GURUTZATU EGITEN DIRA

Kontzesio-perpausak aipatu ditugu hasieran. Eta kontzesio-perpausetan aurkaritza-erlazio mota bat agerian geratzen dela azaldu:

(12) Nahiz gaixorik egon, lanera joan da.

Baina aurkaritza hori adierazteko beste bide asko ditu euskarak. Batzuetan aski da aurkaritza-lokailuak erabiltzea (ikus *EGLU III*):

(13) Gaixorik dago. *Hala ere*, lanera joan da.

Beste batzuetan juntadura (ikus *EGLU VI*) nahiago dugu:

(14) Gaixorik dago, *baina* lanera joan da.

Biak ere, lokailua eta juntagailua, erabil ditzakegu:

(15) Gaixorik dago, *baina, hala ere*, lanera joan da.

Zenbaitetan, “eta” juntagailu arrunta aski izaten dugu:

(16) Ez du dirurik, *eta* beti tabernaz taberna.

Baldintza perpaus batek ere har dezake kontzesio kutsua, “ere” gaineratuz:

- (17) Gaixorik bada ere, lanera joan da.

Eta berdin gertatzen da moduzko deitutako perpausekin ere:

- (18) Gaixorik zegoelarik *ere*, lanera joan zen.

Ikusten denez, hemen gurutzatzen dira elkarren artean perpaus motak, perpaus hauen semantika, aldi bakoitzean egin dezakegun interpretazioa, eta abar. Ezaugarri horiek horrela gurutzatzeak ate gehiegi uzten ditu zabalik erabakiak hartzeko orduan. Erabakia hartzea deitzen diogu perpausak behar den tokian eta moduan sailkatzeari. Ikus ditzagun, formatik abiatuta, zenbait adibide hurrengo pasarteetan.

–TUZ GERO

Har dezagun, esate baterako, “–TUZ GERO” forma. Zein da horren esanahia? Bada, nolakoa den perpausa, nolakoa den testuingurua, nolakoa den gure munduaren esperientzia... esanahia alde batera edo bestera bidera dezakegu:

- (19) Barazkiak sarriago janez gero, osasuntsuago ibiliko zinateke. (baldintza)
(20) Beka lortuz gero, Parisa joango da. (baldintza)
(21) Etxean sartuz gero aurkituko duzu mahai gainean. (denbora)
(22) Beka hori lortuz gero joan zen Parisa. (denbora)
(23) Onddoak janez gero, ardoa edan behar da. (baldintza eta denbora, biak batera)

Beste batzuetan anbiguo samarrak dira perpaus hauek: “irakurtzen eta idazten hasiz gero, batzuek ez dute ikastetxera joateko beharrik sentitzen”.

Noski, “–TUZ GERO” horri “ERE” eransten baldin badiogu, kontzesioa dugu esku artean, ondoko adibideetan ikusten denez:

- (24) Beka hori lortuz gero ere, ez du inolako asmorik Parisa joateko.
- (25) Indianoa itzain ibili zen Ameriketara, eta handik etorri gero ere, zaldun jantzia edukiarren, itzaina baizik ez zen.

-TZEKOTAN

EGLU VI liburukian baldintza errealak (“joaten bada...”) eta alegiazkoak (“joango balitz...”) bereizi genituen. Baina perpaus jokatu gabeekin hasiz gero (anitzetan “-tzekotan” erabiltzen dugu) baldintzatasun horren ezaugarria, testuinguruak bakarrik argituko digu, aditz laguntzailerik ez dugunez. Hori ikus daiteke hurrengo adibidean:

- (26) Inori laguntzekotan, zuri lagunduko dizut/nizuke.

Kontua da, ordea, forma hori helburuzkoa ere izan daitekeela:

- (27) Auto berria erostekotan naiz.
- (28) Liburua irakurtzekotan eraman dugu hondartzara.

Baina helburuzkoa denean ere berezia da, baldintzarekin mugan baita, honako honetan ikusten den gisan:

- (29) Inesekin ezkontzekotan, jauregi hori erosi behar duzu ezinbestean.

Hor, helburuzko arruntetan ez bezala, perpaus nagusiak dioena bete egin behar da, helburua betetzekotan. Baina hemen “ere” gaineratu arren, perpaus horrek ez du kontzesio-kutsua hartzen, eta horretan bereizten da beste jokatu gabeko askotatik:

- (30) Gainera, hastekotan ere, ez hasi ezkondu batekin, horrek arazoak baizik ez baititu ekartzen.

-TZERA, -TZEAN, -TZERAKOAN

Behin eta berriz gertatzen zaizkigu halako nahasteak, nahasteak badira ere, jokatu gabeen azterketa xehea egiten hasiz gero. Horrela, esate baterako, “-TZERA” formak perpaus osagarri bati eman diezaioke bide, edo baldintzazkoari, hurrengo bi esaldietan ikus dezakegun moduan, hurrenez hurren:

- (31) Zumalakarregik Lizarrara bidali zuen egia jakitera.
- (32) Zumalakarregik, egia jakitera, Lizarrara bidaliko zuen.

Jakina, “-TZEAN” bat ikusi bezain laster denbora-balioan pentsatuko dugu, eta hala gertatzen da anitzetan:

- (33) Etxera iristean, alaitu egin zen Mikel.

Baina kausa edo azalpena ere izan daiteke:

- (34) Lurrikara nabaritzean, lasterka atera ziren etxetik.

Eta beste balio batzuk ere, ez hain gardenak definitzeko, izan ditzake:

- (35) Operazioa egitean arriskua dugu, baina ez egitean askoz ere handiagoa.

Inplikazio-balioa ere izan dezake batzuetan:

- (36) Hori esatean egia baizik ez duzu esan.

-TUAZ BATERA

Korapilo hauek guztiak, eta beste batzuk ere, saiatu gara askatzen liburu honetan. Edo, askatzen ez baditugu ere, gutxienez haien interpretaziorako argibide batzuen ematen ahaleginak egin ditugu. Horrela “-TUAZ BATERA”

bezalako formarekin osatzen den perpaus batek denbora-kutsua izan dezake-ela ohartuko gara:

(37) Hori esanaz batera, lorea hartu eta kanpora bota zuen.

Baina beste batzuetan emendioa gaineratzeko bezalako zerbait besterik ez da:

(38) Bost gizon elkarrekin hizketan ari ziren auto ondoan, eguzkia hartuaz batera.

-TU ETA, -TU ETA GERO, -TUTA(KOAN), -TU ONDOAN/ONDOREN

Guztiak hemen zerrendatuko ez baditugu ere, badira beste hainbeste forma perpaus jokatugabeen zerrenda luze horretan: “*-TU ETA*”, adibidez, denborazko perpausetan aurkituko dugu:

(39) Mendira igo eta, tontorrean geratu ziren basoetara begira.

Baina berdin baldintzakoetan eta azalpen perpausetan, beti hurrenez hurren:

(40) Ahal izan eta, berak eginen zituen.

(41) Zure ondasun eta boterea ikusi eta, harriturik geratu ziren guztiak.

Gauza bera “*-TU ETA GERO*” formaz baliaturik osatzen ditugun perpausen kasuan ere. Denborazkoak, edo kausa/azalpena adieraztekoak izan daitezke:

(42) Ezkondu eta gero ohartu zen etxea ordaindu gabe zegoela.

(43) Nola joango gara berriz ere haren aurrera, agindutakoa hautsi dugun moduan hautsi eta gero?

Bestetik, “-TUTA” formak ere denbora, baldintza, kontzesioa, modua edo kausa adieraz dezake, nahiz batzuetan muga argiak zehaztea zaila den. Hori da hurrengo adibideetan ikusten duguna banan-banan:

- (44) Hara joanda deituko zigula esan zuen.
- (45) Ameriketara joanda, nork kantatuko dit gauero leiho azpitik?
- (46) Goiz guztia onddo bila ibilita, ez duzue ezer ere harrapatu?
- (47) Gauean amets gaiztoekin egonda, erlojuak jo zuenean nekatua esnatu zen.
- (48) Dantzan asko eginda zegoen hankan torpe. (=egin zuelako)

Ez dago oso urrun, esanahia dela eta, “-TURIK” forma ere hemendik: honak ere denbora eta azalpena edo baldintza adierazten digu:

- (49) Andreari agur eginik, mendian goiti joan zen.
- (50) Ezin ukatu dizut hori, zure borondate ona ikusirik.
- (51) Bi taldeak elkaturik, emaitza hobeak eskuratuko genituzke.

Halaber “-TUTAKOAN” formak ere: denbora, kausa edo azalpena, baldintza nahiz kontzesioa adieraz ditzake forma horrek. Horixe ikusten dugu, hurrenez hurren, honako adibide hauetan (nahiz azkenak beste irakurketa bat ere izan dezakeen):

- (52) Txakurra askatutakoan hasi ziren denak lasterka.
- (53) Horrenbeste astakeria ikusitakoan, harritzen naiz haren kontra ez agertzea.
- (54) Gogo onez hasitakoan erraz egiten da lana.
- (55) Ez du egin, baina egindakoan ere, ez da bera errudun.

Berdin gertatzen zaigu “-TU ONDOAN/ONDOREN” formarekin ere: denbora nahiz kausa edo azalpena adieraz dezake. Hona, adibide gisa, honakook:

- (56) Ameriketatik itzuli ondoan erosi zuen etxea.
- (57) Ikusi dudana ikusi ondoren, ez naiz berriz ere sartuko etxe hartan.

–GATIK

Jokatugabeko perpausak osatzen ditu “–GATIK” postposizioak ere, jakina denez. Eta perpaus hauek kausazkoak izan daitezke, helburuzkoak, edo bietakoak:

- (58) Lapurretan egiteagatik giltzapean sartu zuten. (kausazkoa)
- (59) Zu agurtzeagatik etorri naiz. (kausazkoa, edo helburuzkoa)
- (60) Inork ere ez ikusteagatik sartzen zituen umeak bere jostailuak ohepean. (helburuzkoa)
- (61) Zu agurtzeagatik hartu dut trena. (helburuzkoa)
- (62) Auzokoak izutzeagatik zigortu zuten gizona. (kausazko/helburuzkoa)

Urrunago joanez, perpaus batzuetan helburua bera izan daiteke zerbaiten kausa:

- (63) Ohera joan gabe geratu zen lana amaitzeagatik.

Jakina, postposizio hori partizipioari eransten baldin bazaio, kontzesio-perpausak sortzen ditugu:

- (64) Diru-laguntza ukatuagatik, ez ginen alkatearekin haserretu.

Horren parekoa da hurrengo hau ere, kontrako itxura izan arren:

- (65) Diru-laguntza eskuratu izanagatik, eskerrak eman genizkion.

Perpau horren esanahia “eskuratu arren” da, eta ez “eskuratu genuelako”. Hemendik nahasteak sortzen dira azken aldiotan hiztun batzuen artean: “ezagutzeagatik”/“ezagutuagatik” aditz-izen eta aditzoinaren artean dagoen desberdintasuna aspektuari dagokio, “ezagutzen dut”, eta “ezagutu dut” adizkien artean dagoen berbera, hain zuzen ere. Hiztun batzuek desberdintasun hori perpaua jokatu gabe batzuetara hedatu nahi izaten dute eta bereizketa hau egiten saiatzen dira:

- (66) Pozten naiz zu ezagutzeagatik. (= “oraintxe ezagutzen zaitut, eta pozten naiz”)
- (67) Pozten naiz zu ezagutuagatik. (= “ezagutu zaitut, eta horregatik pozten naiz”. Baina adiera hau ez da zuzena)

Baina bereizketa hori horrela egitea ez da batere egokia, hortik sortzen den desberdintasunak ez baitu aspektu-desberdintasuna sortzen, baizik beste zer-bait aski diferentea: aspektua aldatzean kausazko (edo denborazko) esaldia kontzesiozko bihurtzen dugu:

- (68) Pozten naiz zu ezagutuagatik. (= “pozten naiz, zu ezagutu arren”. Adiera zuzena)

Hori da, ikusten denez, interpretazio zuzena, eta ez “pozten naiz ezagutu zaitudalako”. Jakina, “-TZEAREN” postposizio hori partizipioari lotu beharrean aditz-izenari lotzen badiogu, perpaua helburuzko bihurtzen zaigu:

- (69) Hitzaldira joan naiz, Miren ezagutzearren.

Amai dezagun, hortaz, gero liburua osatzen duten kapituluetan argiago ikusiko diren kontu hauekin guztiekin. Hurrengo orrialdeetan azalpen xeheak aurkituko dituzu honetaz guztiaz. Helburua markatzeko erabiltzen dugu “-TZEKO” forma, jakina denez:

- (70) Autoa saldu zuen etxea erosteko.

Baina batzuetan izenlagunaren marka arrunta baizik ez da, izenaren osagarria, edo aditzaren osagarria:

- (71) Lo egiteko pilulak erosi dituzte.
- (72) Oporretan joateko gogoia dute.
- (73) Etxera itzultzeko esan du.

Erlatiboak

Ez dugu deus esan perpaus erlatiboek buruz, eta hor ere aurkitzen ahal ditugu aldaera asko (kasu honetan ez gara esanahiaren kontuaz ari; azpimarratu nahi dugu izenburupe berean forma desberdineko perpausak ditugula):

- (74) Mirenek idatzitako liburua.
- (75) Mirenek idatziriko liburua.
- (76) Mirenek idatzi liburua.
- (77) Mirenek idatziko liburua (gutxiago erabilia)

Ikusiko den gisan, Gramatika batzordekideak arazo hauek argitzen saiatu gara. Sarrera honetan erakutsian utzi nahi izan ditugu arazo horietako batzuk. Ondoko orrialdeetan deskribatzen ditugu horien guztien nondik norakoak, eta jokatu gabeko perpaus hauek guztiak dagozkien multzoetan sailkatu ditugu.

1. DENBORAZKO PERPAUSAK

1.0. SARRERA

1.0.1. Funtzioa: denboraren erreferentzia ematea

Aurreko liburukietan ikusi dugun gisan, modu batean baino gehiagotan egiten da hizkuntzan denboraren adierazpena. Hasteko, aditzak ematen du denboraren erreferentzia, denbora-aspektuei dagozkien morfemen bidez (ik. *EGLU II*). Badira, ordea, beste osagai batzuk gertakariak denboran kokatzeko berariaz erabiltzen direnak: aditzondo eta postposizio-sintagmak –‘bihar izango da partida’ eta ‘joan den udan izan ginen Parisen’, adibidez– (ik. *EGLU I*), eta denborazko perpausak –‘partida amaitu denean, etxera joan da’ edo ‘partida amaitzean, etxera joan da’, esate baterako–.

Modu desberdinean egiten dute denbora-kokapen hori aditzondo nahiz postposizio-sintagmek eta perpausek. Haiek denbora-esanahia dutenak dira, eta, hortaz, berek seinalatzen dute zuzenean perpausean aipatzen den gertakariari dagokion denbora-unea: *atzo, ia, joan den udan, San Fermin egunean...* Beraz, ‘bihar joango da etxera’ bezalako esaldietan gertakari bat bakarra aipatzen da, perpaus bakarrean (‘etxera joatea’). Denbora-erreferentzia perpaus baten bitartez egiten denean, berriz, gertakari bi aipatzen dira: mendeko perpausean bat, erreferentzia ematen duena (‘partida amaitzea’, adibidean), eta perpaus nagusian bestea (‘etxera joatea’).

Adizki jokaturgabea duten denborazko perpausak aztertuko ditugu kapitulu honetan, jokaturgabeak dutenak aurreko liburuan ikusiak ditugunez (ik. *EGLU VI*).

Denborari dagokion erreferentzia horrek ñabardura desberdinak izan ditzake perpaus jokaturgabeetan ere, jokaturgabe bezala. *Aldiberekotasuna* adierazten dute batzuek (a-b); *aurrekotasuna* (c) edo *ondokotasuna* (d) beste batzuek; eta iraupena beste batzuek, *noizdanikoa* (e) edo *noiz artekoa* (f) adieraziz:

- (1) a. *Ikasturtea amaitzean*, Londresa joango naiz ingelesa ikastera.
- b. *Hizketan hasi orduko* igarri diogu zer nahi zuen.
- c. *Ordu biak jo baino lehen*, etxean ziren denak.
- d. *Lan guztia egin ostean*, etxera joan zen.
- e. *Ezkonduz gero* bizi da Durangon.
- f. *Diru guztia xahutu arte*, lagunez inguratua bizi izan zen.

Denbora adierazteko modu diferenteak dira horiek, baina gauza batean datoz denak bat. Mendeko perpausak *denbora-une edo tarte mugatu bat* seinalatzeko du denetan, perpaus nagusirako erreferentzia dena: ikasturtearen amaierako unea, hizketari hasiera eman zaionekoa, etab.

Izan ere, denbora mugatu batean kokaturiko gertakaria aipatzen ez duten predikatuek ezin dute denborazko perpausik eratu. Horrelakoek, denborazko menderatzaileak hartzen badituzte, edo gramatikalak ez diren perpausak eratu dituzte, edota denboraz bestelako balioen bat izango dute, hartarako aukerarik baldin badute.

Hala, esate baterako, egoera iraunkorra adierazten duten perpausiek ez dute balio denborazko perpausak eratzeko. Egoera adierazten duten aditzetan mota bi bereiz daitezke: alda daitezkeenak dira batzuk –‘Mikel nekatur dago’, esate baterako–, eta iraunkorrak besteak, ohiko bidean aldatzen ez direnak –‘Mikel beltzarana da’, adibidez–. Azken hauek dira denbora-erreferentzia emateko balio ez

dutenak, ‘iraunkorra’ den egoera ezin baita denbora-tarte jakin bat mugatzeko erabili. Aurreko liburukian eman genuen adibidea berrituz (ik. *EGLU VI*, 79), Europan jaio eta bere denbora guztian europarra izan denak ez du esango ‘ni europarra izaterakoan’ edo ‘ni europarra izan baino lehen’. ‘Ni europarra izanik’ esan dezake, bai, baina perpaus hori azalpenezkoa izango da, ez denborazkoa.

Gertakaria ukatzen duten ezezko perpaus jokatu gabeek ere ez dituzte denborazko perpausak eratzten –**lana ez egiterakoan*, **etxera ez joan ondoren...*–, gertakari mugaturik ez denean ez baitago perpaus nagusiari erreferentzia emateko modurik. Kontu desberdina da, jakina, ezezkoak une jakin bateko gertakaria aipatzen duenean. Hori da ondoko adibideek egiten dutena:

(2) a. *Minik ez izan arte* ospitalean edukiko dute Mikel.

b. *Minik ez izatean* bidaliko dute Mikel etxera.

‘Mina izatetik minik ez izatera pasatzea’ da adibide horietan adierazi nahi dena, eta hori, jakina, une batean gertatuko den, edo gerta daitekeen, zerbait da, perpaus nagusiko gertakariari erreferentzia emateko balio duena.

Desberdinak dira, halaber, kontu honi dagokionez, iraupena adierazten duten perpausak. Izan ere, *zerbait egin ez artean* moduko esaldiek amaiera izango duen denbora-tarte mugatu bat seinala dezakete, ondoko adibidean ikusten den moduan:

(3) *Debekau egin dausat aborik idegittia geure etxera atzera jua ez artian* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 143).

‘Etxera ez joatea’ esaldiak etxera iritsitakoan amaituko den egoera adierazten du perpaus horretan. Gertakari mugatua da, hortaz, perpaus nagusiak aipatzen duen tarteari erreferentzia emateko balio duena.

Hain edo *hainbeste* bezalako graduatzaileak dituzten perpaus jokatubageek ere ez dute eskuarki denbora adierazten. Kausa edo azalpena adierazteko erabil-

tzen dira maiz horrelakoak. Gertakari baten ‘neurria’ edo ‘gradua’ aipatzean, haren izaerari begiratzen diogu batez ere, ez gertatzeari berari, eta izaera horrek perpaus nagusiko gertakaria ‘azaltzeko’ balio du, ez denboran kokatzeko:

- (4) a. Supitoan artzean aiñ barri tristea, Dazaut erraza dala burua galtzea (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 272).
- b. *Hau hain argi eta garbi aitortzean*, ordea, ez diet nik Orixeren hitz eta esaera guziei berdin txalo egiten (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 92).

Lehen begiratuan, pentsa daiteke azpimarratutako perpaus horiek denbora adierazten dutela, hau da, perpaus nagusiko gertakaria *noiz* gertatu den esaten dutela, *-TZEAN* formak horretara bultzatzen baikaitu. Polikiago aztertuta, ordea, bestelako balio bat dutela ohartzen gara. Horrela, *supitoan* adizlagunak ez du *noiz* adierazten, *nola* baizik; eta horrek are gehiago eramaten gaitu ‘hain berri tristea hartzea’ burua galtzearen azalpen gisa ulertzera. Bigarrenean ere ez da esaten *noiz* ez dion Mitxelenak txalo egiten Orixeren hitzei, perpausak balio inplikatioa baitu; bere aitopenarekin ez diela haren hitz guztiei txalo egiten esan nahi du; aitopen hori egitea ez dela, alegia, Orixeren hitz eta esaera guztiak onartzea. Denboraren lekuan *-edo*, beharbada, denborarekin batera– bestelako balio bat dute horrelako perpausak.

Hitz batean esateko: perpaus nagusiko gertakariari denbora-erreferentzia emango badio, hau da, denborazko perpausa izango bada, denbora-une edo -tarte jakin batean gertatzen den gertakaria adierazi behar du mendeko perpausak.

1.0.2. Forma. Oinarria eta menderatzaileak

1.0.2.1. Adizkiak

Denborazko perpaus jokatu gabeak *-TZE* aditz-izenaren eta *-TU* partizioaren gainean eraikiak dira gehienak, ondotik denbora adierazten duten

morfemak dituztelarik: *etortzean, etortzerako* eta *etorrira, etorri arte*, esate baterako, hurrenez hurren.

Partizipioaren lekuan aditzoina erabiltzen dute inoiz, perpaus hauek eraikitzeke, forma hori duten euskalkietan: *ikus arte, ikus orduko*.

Aipatu behar da, bestalde, adlatiboa ere erabili ohi dela inoiz denborazko perpausotan, euskalki guztietan, partizipioaren lekuan: *etxera baino lehen, eskolara orduko, lanera arte*. Horrelako sintagmek gertakari bat adierazten dute eta perpausari dagozkion osagaiak dituzte.

Perpaus nagusian erreferentziakiderik ez denean, agerian izaten dira osagai horiek mendeko perpausaren:

- (5) a. Gaur ere sartuko dute urdallean pitxar bana gutxienez, ta goizaldea etorriko da *oiek etxera orduko* (Aguirre, *Garoa*, 94).
- b. *arrantzale begi urdiña errira baiño leen*, erabagiren bat artu bear ebal sinistarazi eutsan Zuriñek bere buruari (Erkiaga, *Arranegi*, 177).
- c. *Au [olioa] monjak begietara orduko* bere bista osoarekin, S. Luis alabatzen gelditu zan (Cardaberaz, *Justuen Ispillu arguia*, 67).

Beste zenbaitetan, berriz, isilpean geratzen dira osagaiok, perpaus nagusian erreferentziakidea badutelako, testuinguruak argitzen dituelako edo generikoak direlako.

Perpausaren egiturari dagozkion osagaiak dituztenez, bada, perpaus ditugu adibide horietako sintagmak. Zein da, ordea, perpaus horietako aditza? Ez da zer pentsatu –*RATU* formako aditzen aditzoin direla horrelako adlatiboak –‘etxeratu’ aditzaren aditzoina dela *etxera* adlatiboa, esate baterako–, aditzoinik ez duten euskalkietan ere maiz erabiltzen baita adlatiboa horrelako egituran.

Zail da, halaber, adlatibo horiek hiztegiko partizipio direla pentsatzea, ondoko forma konplexuek erakusten dutenez:

- (6) a. *Onen* [gazteluaren] *eskalleraren lenengo mallara* orduko, Judutzar asko bildu ziran, zerasatela, ‘il ezazu, il ezazu’ (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 522)
- b. Ba’zekin aurki Jaungoikoa’k bere aurrera deituko zuna ta bere utsegiteak zuzendu nai, *ordu larri artara baño len* (Etxaide, *Alos Torrea*, 91).

Ez dirudi erraza denik ‘eskaileraren lehenengo mailara’ eta ‘ordu larri artara’ bezalako sintagma konplexuak hiztegiko partizipiotzat hartzea¹.

Dena dela eta kontu hau argitzeko egin daitezkeen azalpenak gorabehera, honako hau behintzat esan daiteke: modu batera edo bestera partizipioaren lekua betetzen duela horrelakoetan adlatibo-sintagmak; ‘lorpena’ edo ‘irispena’ adierazten duen partizipioaren lekua, hain zuzen ere.

Ez dira horiekin nahasi behar oinarrian denbora-esanahia duen izena dararmaten adlatibo-sintagmak –*gauera orduko* edo *hurrengo egunera arte*, esate baterako—. Horrelakoetan ez dago nahitaez perpausik; sintagman ageri den izenak berak seinalatzen du puntu jakin bat denboraren joanean, eta puntu horrek ematen dio erreferentzia perpaus nagusiari –*gauak*, *egunak*, *etab.*, *alegia*–, ez ezein gertakarik. Beraz, postposizio-sintagma arruntak dira horiek, *gauean*, *hurrengo egunean* eta horrelakoen parekoak. Esan behar da, gainera, adlatiboa bezain erraz, edo are errazago eta maizago, erabiltzen dela absolutiboa horrelako sintagmak eratzeko: *gaua orduko*, *bigarren eguna arte*.

1.0.2.2. Denbora-morfemak

Aurreko atalean aipatu ditugun oinarriek denbora adierazten duten morfemak izaten dituzte ondoan: postposizio-atzizkiak, postposizio gisa erabilitako aditzondoak edo forma konplexuak. Hona, adibide modura, forma nagusien zerrenda:

¹ *Atera*, bai, hiztegiko partizipioa da, erabileraren ondorioz horrela lexikalizatua.

– Aditz-izena:

- a. *–TZEAN, –TZE(RA)KOAN, –TZEAREKIN, –TZERAKO, –TZERAINO*
- b. *–TZE ORDUKO*
- c. *–TZERA ORDUKO, –TZEAZ BAT, –TZEAREKIN BATERA*

– Partizipioa:

- a. *–TURIK, –TUTA, –TU(K)ERAN*
- b. *–TU ORDUKO, –TU AURRETIK, –TU ONDOREN*
- c. *–TUZ GERO, –TU BEZAIN LASTER, –TU BAINO LEHEN*

– Aditzoina:

- a. *–∅ ORDUKO*
- b. *–∅ BAINO LEHEN*

Denborazko menderatzaile gisa gramatikalizaturik dauden formak dira horietako gehienak, denbora-nozio jakin bat adierazten dutenak. Eta ulertu ere, horrela ulertzen ditugu beti –denborazko gisa, alegia–, predikatu nagusiak edo testuinguruak bestelako irakurketa bat eskatzen ez badute behintzat. *Sartzerakoan, sartutakoan, sartu baino lehen, sartu ondoren* eta horrelakoak denborazko gisa ulertzen ditugu eskuarki, zeregin horretarako finkaturiko formak baitira.

Ikus dezagun, adibide modura, *–TZEAN* formarekin gertatzen dena. Forma honek, buruan inesiboko atzizkia duela, denbora adieraztea du berezko zeregin; aldiberekotasuna adieraztea, hain zuzen ere. Eta horixe da *sartzean, irte-tean, amaitzean* eta horrelakoak testuingururik gabe entzutean gogora dator-kigun adiera, gorago eman dugun adibide honetan ikusten den moduan:

(7) *Ikasturtea amaitzean*, Londresa joango naiz ingelesa ikastera.

Inguruaren arabera, ordea, bestelako balioak ere izan ditzake. *Hain* gradua-tzailea daramanean, esate baterako, azalpena adierazten du, ez hainbeste denbora:

(8) *Hain gaizki ikustean*, ospitalera eraman zuten zuzenean.

Eta *etzan* edo horrelako predikatu baten mendeko denean, berriz, *zertan* osagarri gisa ulertzen da:

(9) *Bakoitzari berea ematean datza justizia.*

Modu berean, *-TZEKOAN* forma ere denborazko menderatzailea dela esan dezakegu, bere horretan aldiberekotasuna adierazten duena:

(10) *Armairua garbitzekoan, diruz beteriko zorro bat aurkitu zuen.*

Formari dagokionez, *-KO* morfemaren ondoan isilik utzitako izen bat dagoela pentsa daiteke; *garbitzekoan* formaren azpian *garbitzeko* (*une / garai / ordu...)*an daudela, alegia. Sorrera gorabehera, ordea, bere horretan eta isildutako izen zehatz baten bila ibili beharrik gabe, gramatikalizaturiko forma dela esan dezakegu hori ere, testuinguruak besterik eskatu ezean denbora adierazten duena, *-TZERAKOAN*, eta *-TUTAKOAN* formak bezala.

Desberdinak dira, alde horretatik, izena agerian daramaten *-tzeko unean / orduan / garaian* eta horrelako sintagma. Izena denbora-esanahia duena izaki, denbora adierazten dute sintagma horiek ere, baina adierazten dutena adierazten dutela, ezin esan daiteke zeregin horretarako gramatikalizatutako formak direla horiek guztiak. Ohiko postposizio-sintagma dira, [[(-tzeko) izena] -n] egitura dutenak, *ibiltzeko moduan, erretzeko ohituran, irabazteko asmoan* eta horrelakoen pare.

Izen eta guztiko egitura horiek gramatikalizatuak ez daudela esateko, bada arrazoi bat baino gehiago. Egituran parte har dezaketen izenen zerrenda luzea dago, batetik: gorago aipaturiko *une, garai* eta *ordu* horiez gain beste zenbait ere aipa daitezke, orokorrak *-hala nola, denbora, aldi, tenore, puntu-* edo zehatzagoak *-egun, aste, urte* etab.-. Neke da forma horiek denak gramatikalizatuak direla esatea. Horrezaz gain, bigarren, izenaren ondoan adjektiboa hartzeko aukera dute sintagma horiek, gramatikalizatuak ez bezala: *agur esateko ordu tristean, garbiketa egiteko denbora laburrean*. Pentsa daiteke,

hala ere, erabileraren erabileraz gramatikalizatzeko bidean direla horietako batzuk ere.

Konparaziozko maila-hitza daramaten –*TU BEZAIN LASTER* eta –*TU BAINO LEHENAGO* formei dagokienez, azkenik, perpaus jokatuaren liburukian esaten genuena berritu dezakegu hemen (ik. *EGLU VI, 75* eta *EGLU V, 324-326*): egitura konparatiboa bada ere, gauza gutxi konparatzen dela, alegia, horrelakoe-tan. Perpaus nagusiko gertakaria denboran kokatzeko erabiltzen dira horiek ere.

Alderatu, hori ikusteko, ondoko adibide bi hauek, zeinetan lehena konpara-ziozkoa den eta bigarrena denborazkoa:

- (11) a. *Atzo bezain berandu jaiki arren*, gaur garaiz iritsi naiz eskolara.
b. *Eskolan sartu bezain laster* lanean hasi da.

Lehenbiziko adibidean, konparaziozko perpausa dugu, atzoko eta gaurko jaikitzeak konparatzen baitira, bata bestea bezain berandu izan direla esanaz. Bigarrenean, aldiz, denbora-unea da ‘konparatzen’ dena: eskolan sartzea *noiz*, lanean hastea ere *orduan* izan dela esaten da, biak aldi berean izan direla aditzero emanez.

1.0.3. Sailkapena

Denborazko perpaus hauen sailkapena egiteko, sarreran aipatu ditugun hiru nozio nagusitan oinarrituko gara, perpaus jokatuarekin egin genuen bezala: ‘aldiberekotasuna’, ‘aldi desberdintasuna’ (aurrekotasuna eta ondokotasuna) eta ‘iraupena’ (noizdanikoa eta noiz artekoa).

Ondo ulertu behar da, noski, nozio horiekin zer esan nahi den. Izan ere, ez gara hemen denbora objektiboaz ari –denbora erreala, horrela esan badaiteke–, hizkuntzak duen denboraren ikuspegiaz baizik, hori baita hemen axola zaiguna. Gerta daiteke, esate baterako, denbora errealean bata bestearen on-

doan gertatzen diren bi gertakari hizkuntzaren ikuspegitik aldibereko gisa aurkeztea. Eman dezagun ondoko adibidea:

- (12) Ohean sartu orduko hartu zuen loak.

Denbora errealarari dagokionez, bistan da loak hartzea ohean sartu ondoren gertatzen dela. Hizkuntzaren arabera, ordea, biak une edo aldi batean gertatu dira, estu-estu aldi berean, gainera.

1.1. ALDIBEREKOTASUNA

1.1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra

1.1.1.1. -TZEAN

Aurreko liburukian aztertutako *-eNEAN* formaren parekoa da *-TZEAN* forma hau: aldiberekotasuna adierazteko erabiltzen diren forma nagusiak dira biak, hura adizki jokatua dutenetan (ik. *EGLU VI, 77-82*) eta hau jokatugabe-etan. Zerbait denboran edo lekuan ‘kokatzeko’ balio du *-n* atzizkiak. Horregatik, beherago ikusiko ditugun kasu jakin batzuetan izan ezik, denbora-balioa izan ohi du *-TZEAN* perpausak:

- (13) a. *Ettxera iristean*, alaitu egiten zen Mikelen gogoia.
b. *Oheratzean* amaitzen ziren haren neke eta kezka guztiak.
c. *Gaztetako argazkiak ikustean*, zutaz gogoratzen naiz.

Aldiberekotasuna modu zabalean ematen da aditzera perpaus horietan: mendeko perpausak adierazten duen gertakaria eta perpaus nagusikoa denbora berean gertatzen direla esaten da. Hark ematen dio honi denbora-erreferentzia hori.

Beste ñabardurarik gabeko aldiberekotasuna adierazten da maiz perpaus hauen bitartez. Mendekoaren gertakaria ikuspegi desberdinetatik ikus daiteke,

hala ere, inoiz: haren hasierako –nahiz hasiera doaneko– unea izan daiteke kontuan, edo gauzatzen ari den une edo bitartea bera, edota are haren amaierakoa. Ikus ondoko adibideak:

- (14) a. *Hiltzean*, hitz goxoak izan zituen etxeko guztientzat.
b. *Janariak erostean*, iraingitze-data arretaz begiratzen dut nik beti.
- (15) a. *Denda aurretik pasatzean*, eskuarekin agur egiten genion dendariari.
b. *Hitz egitean*, eskuak gora eta behera mugitzen zituen beti.
- (16) a. Alferrik da damutzea *denbora joatean*.
b. *Filma amaitzean*, kalera irten ginen.

Ikuspegi kronologiko hutsetik begiratuta, esan daiteke lehen multzoko adibideek *aurrekotasuna* adierazten dutela, bigarrenen *aldiberekotasuna*, eta hirugarrenen *ondokotasuna*. Hizkuntza aldetik begiratuta, ordea, –*TZEAN* forma hautaturik, gertakari horiek guztiak aldiberekotzat hartzen dituela adierazten du hiztunak. Aurrekotasuna eta ondokotasuna adierazi nahi balitu, *hil aurretik* eta *denbora joandakoan*, edo horien antzekoak, erabiliko lituzke.

Adberbio-perpasekin maiz gertatzen den bezala, –*TZEAN* formako perpasek ere balio bat baino gehiago izan dezakete, ohiko balioaz beste. Horrela, zenbaitetan, denbora soila adierazi beharrenean, denborarekin batera bestelako ñabarduraren bat ematen dute aditzera. Kausa edo azalpena, esate baterako:

- (17) a. *Lurrikara nabaritzean*, kanpora irten ziren etxeokak.
b. *Hain gaizki ikustean*, ospitalera eraman zuten zuzenean.

Perpaus nagusiko gertakaria ‘noiz’ eta ‘zer dela eta’ gertatu den adierazten da adibide horietako perpausetan.

Beste zenbaitetan, berriz, batere denborazkoa ez den balio bat izaten dute perpausok. Argi ikusten da hori, denborazkoa izateko modurik ez dutenean.

Predikatuak izaera iraunkorra duenean edo gertakaria ukatzen duen ezezko perpausa denean, esate baterako:

- (18) a. Zer ospea duzun, Jauna, *on guzizkoa izatean!* (Duvoisin, *Liburu ederra*, 138).
b. Arriskua dugu operazioan, baina arriskua dugu, ta nere ustez, askotaz ere arrisku gehiago, *operazioa ez egitean* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 50).

Azken adibideak erakusten duenez, *-TZEAN* perpausa *zertan* galderari erantzuten dion osagarria izan daiteke: arriskua *zertan* dagoen esaten da. Osagarri hori da, hain zuzen ere, *dago*, *datza* eta horrelako aditzek hautatzen dutena:

- (19) a. *Bakoitzari berea ematean* datza justizia.
b. *Hutsik ez egitean* dago garaipenaren erdia.

Inplikazio balioa ere izan dezake, azkenik, *-eNEAN* perpausak bezala:

- (20) *Hori esatean* egia baizik ez duzu esan.

1.1.1.2. *-TZERAKOAN*

Aditz-izenen *-TZE* atzizkiari beste hiru atzizki erantsiz eratzen da *-tze-ra-ko-an* forma: *-RA* adlatiboak ‘aurrera begirako’ esanahia eransten dio, nola-bait, formari; *-KO* atzizkiak isilpeko izen bat iradokitzen du formaren jatorrian (‘egiterako *unean / orduan / garaian...*’); eta buruko *-N* lokatiboak denbora-kokapena adierazten du. Zein ere den egitura, ordea, gramatikalizaturiko forma da hau ere, aldiberekotasuna adierazteko erabiltzen dena.

Hori horrela izanik, *-TZEAN* eta *-TZERAKOAN* formek esanahi bertsua dute, neurri batean behintzat. Esan beharra dago, hala ere, *-TZERAKOAN* formak ez dituela *-TZEAN* formaren ñabardura guztiak berdin besarkatzen.

Lehenengo eta behin, agerikoa da, barnean *-RA* adlatibo atzizkia duelarik, ‘gertatzera doanari’ dagokion aldiberekotasuna adierazten duela maiz *-TZE-RAKOAN* formak; gertakariaren ‘hasierari’ dagokiona, alegia:

- (21) a. Ezpaitute eskurik ikuzten *yaterakoan*, ta esku ez-garbiekin yaten dute (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 223).
- b. *Errezetia egiterakoan* konturatu ei zan lapitzik ez eukala (San Martin, *Zirikadak*, 81).
- c. Erabaki gogorragorik hartu beharrea aurkitu ziren bai Cesar *Rubicon hibaia igarotzerakoan* eta bai Cortes ontziak zulatu aurrean (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 325).

‘Zerbaiti ekitean’ egiten dena dute aipagai adibide horiek guztiek. Ikus beste hauek, non aldiberekotasunaren ñabardura diferenteak aipatzen diren esaldi koordinatuetan, eta ‘hastera doaneko unea’ aipatzen dutenak diren, hain zuzen, ez besteak, *-TZERAKOAN* formaren bitartez adierazten direnak:

- (22) a. *Oieratzerakoan* edo oietik jeikitzean lotsarik gabe jantzi edo erantzi zera? (*Argi Done laburra*, 28).
- b. Ahal dukegu esperantza, fidantza eta segurantza bizitze luzea emanen derakula; eta noiz nahi den, zahartzean, eta are *hiltzerakoan* ere, geure bekhatu guztiak barkhatuko derauzkigula (Axular, *Guero*, 88).

Kontrasteak argiak dira adibide horietan: *oheratzerakoan* oheratu aurreko unea da, eta *ohetik jaikitzean*, berriz, jaiki ondokoa, lehen adibidean. Axularrean, berriz, *zahartzean* ‘zahartutakoan’ esan nahi du, eta *hiltzerakoan* formak, berriz, ‘hiltzera goazenean’.

Halaz guztiz ere, erabilera markatuena aurreko adibideetan ikusi dugun hori den arren, esan behar da aldiberekotasuna besterik gabe adierazteko ere erabiltzen dela forma hau, edota are gertakaria gertatzen ari deneko unea seinaltatzeko ere:

- (23) a. Baldin hau badio hain bokhantza eta saindutasun handitako dotor hunek *aphez baten laudorioez mintzatzerakoan*, zer erranen dut bada nik [...]?
(Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 123).
- b. Aizak ez zak orrenbeste soñu atera *jaterakoan* (Labayen, *Su-emailleak*, 208).
- c. *Zu laztantzerakoan*, bera neukala uste nuen nere besoetan (Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 91).

‘Mintzatu zenean’ esan nahi du lehen adibideko mendeko aditzak, gertakariaren aipamen orokorra eginaz. Beste bi adibideetan, berriz, ‘jaten ari haizen bitartean’ eta ‘zu laztantzen ari nintzen bitartean’ esan nahi dute, hurrenez hurren, mendeko aditzek, gertakariaren uneari berari zehatzago lotuta.

Azkenik, formarekin bat ez datorrela dirudien arren, gertakari bururatuarekiko aldiberekotasuna adierazteko ere erabiltzen da inoiz forma hau. Egia esan, adibideak ez dira asko tradizioan, eta direnak ez dira zaharrak. Hona batzuk:

- (24) a. Bai, aita, Jaunak yuzkatu eta sentenziatuko edo erabakituko ditu guziak, *beren bizi bukatzerakoan* (Legaz, *Cristauaren Icasbidea*, 17).
- b. Apaiza *agertzerakoan*, ama semeak altxatu dira (Alzaga, *Ramuntxo*, 24).

Denbora-balioan *-TZEAN* formaren errankide izateko joera badu ere, bes-telako balioetan ez du batere lekurik *-TZERAKOAN* formak. Ez du, alegia, *zertan* osagarri gisa edota azalpen gisa erabilia izateko aukera:

- (25) a. **Bakoitzari berea ematerakoan* datza justizia.
- b. **Hutsik ez egiterakoan* dago garaipenaren erdia.
- c. **Hain gaizki ikusterakoan*, ospitalera eraman zuten zuzenean.

1.1.1.3. *-TZEKOAN*

Erdialde eta mendebaldean *-TZEKOAN* aldaera ere erabiltzen da, *-RA-*adlatiboko atzizkia gabe, aldiberekotasuna adierazteko:

- (26) a. ain da gozoa *aiek kantatzekoan* duan abotsa, txoraturik uzten du (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 75).
- b. Schmitz ezakela aoan orrenbeste ots atera, *jatekoan* (Labayen, *Su-emailleak*, 179).
- c. Hitz elkartze berrietan, eta *orobat zaharren artean hautatzekoan*, bi indar ari zaizkigu beti lanean (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 110).

Gorago esan dugun moduan (ik. 1.0.2.2.), duen sorrera duela gramatikalizaturiko forma da *-TZEKOAN*, *-TZEAN* eta *-TZERAKOAN* bezala, testuinguruak besterik erakutsi ezean denbora-nozioa adierazteko erabiltzen dena. Hiru kasutan gerta daiteke denboraz bestelako balioa izatea. Horrela gertatzen da, hasteko, testuinguruak isilpeko izen zehatza eskuratzeko modua ematen digunean:

- (27) a. Haiek, eskuzabalak izanik *nonnahikoak hartzeko kontuan*, ez dira estuago *ematekoan* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 170).
- b. Futboleak *aritzeko zelaian* bezala errugbian *aritzekoan* ere belarra ondo zaindua dago.

Lehen adibidean, *emateko kontuan* ulertzen da, aurreko *hartzeko kontuan* sintagmak erakusten duenez. Eta bigarrenean, *aritzeko zelaian*, aurreko sintagman bezala.

Bada beste itzuli bat, *-tze*ko osagaia izenaren ondoan duena, eta, inesiboko atzizkia berak hartzen duenez, azalean *-TZEKOAN* forma ageri duena. Hori gertatzen da, adibidez, ohiko segidako *lantzeko lurrean* esan beharrean *lur lantzekoan* esaten denean. Agerikoa da *lur* dela sintagma horretako izena, eta *-tze*koan ez dela aztertzen ari garen denbora adierazten duen gramatikalizaturiko forma.

Azkenik, forma hau erabiltzen da, mendebaldean batez ere, baldintza edo asmoa adierazteko, *-TZEKOTAN* formaren pare (ik. 3.5.):

- (28) a. Ta, *egitekoan be*, iri ez deue ezer egingo demoniñoek, neuri baiño (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 230).
- b. Ikusmiratxoa naz, da bein banaan gizon aldra guztiak ikusi ta zeñ aldetakoak ziran iakiteko gogoia neukan; baiña *geroago ikustekoan* itxi neutsen (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 24).

1.1.1.4. –TZEAREKIN

Aurreko ataletan ikusi ditugun formak ez bezala, –TZEAREKIN atzizkia ez da denbora adierazteko gramatikalizaturiko forma finkoa. Gorago azaldu dugun moduan, *sartzean* hitza entzuten dugunean, esate baterako, denborarekin lotzen dugu berez, eta balio hori ematen diogu, testuinguruak besterik erakutsi ezean (ik. 1.0.2.2.); *sartzearekin* entzuten dugunean, berriz, irekia geratzen da balioa, testuinguruaren arabera zehazteko (postposizio honen beste balio batzuk Perpaus osagarrien kapituluan ikus daitezke: 7.3.4.3.).

Formaren burua –*ekin* sozietiboa denez, moduren bateko edo besteko ‘lotura’ adierazten du forma honek, mendeko perpausean eta perpaus nagusian aipatzen diren bi gertakarien artean.

Hasteko, *zerekin* osagarria hautatzen duten *nahikoa izan*, *poza hartu* eta horrelako predikatuen osagarria izan daiteke:

- (29) *Oietako pare bat moztutzearekin*, naikoa degu urtean (Urruzuno, *Ipui sorta*, 26)

Bigarren, berriz, kausa edo eragina seinala dezake, gertakari batek bestea ekartzen duela aditzera emanaz:

- (30) Eta joko honek, harrigarriro, gaur arte iraun du jendaki guztien artean, *joko legeak zertxobait aldatzearekin* (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 240).

Zenbaitetan, gainera, adberbio-perpauetan maiz gertatzen den moduan, balio bat baino gehiago izan dezake perpausak. Horrela, gertakari batek bestea

ekarri duela esateaz gain, biak aldiberekoak direla ere eman dezakete aditzera. *Horrekin* adierazteaz gain, *orduan* ere adierazten da horrelakoetan:

- (31) a. Aita onari, *semea erreki artan ikustearekin*, biotza erdiratu zitzaion (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 417).
- b. *Sukharrak uztearekin eta indarrak itzultzearekin* khendu zioten zangoko lothura (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 15).
- c. *Gure inguruan sofri arazten dugula ohartzearrekin*, behar bada heiek baino gehiago guhaurek sofritu! (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 73).

Baina, esan bezala, besterik gabe denbora adierazteko ere erabiltzen da inoiz forma hau:

- (32) a. sukhar gaixto batek ereman zuen, *Canton deitzen den itsas-porturat hel-tzearekin* (J. Etchepare, *Beribilez*, 68).
- b. Hor, bet-betan, *Ilitxipiko Haitz Handiaren aldean iragaitearekin*, halako oihu bizi bat entzuten dute (Barbier, *Légendes*, 136).
- c. Hortaz ginuen solasa, *zuek sartzearekin*, eta ez ginen guti erhotuak (Barbier, *Supazter chokoan*, 109).

Ikusten denez, perpaus horietan gertakari biren aldiberekotasuna adierazten da, denboraz bestelako loturarik iradoki gabe. Denbora-balio hori bera izaten dute inoiz *-ekin* atzizkiarekin eginiko postposizio-sintagma arruntek ere. Ikus, esate baterako:

- (33) a. Irailaren 12an, *asteartearekin*, jokatu da partida.
- b. *Igandearrekin* egiten diren festak ditu gustuko.

Berariaz aldiberekotasun estua adierazi nahi denean, berriz, *batean* adberbioa erantsita, *-TZEAREKIN BATEAN* forma konplexua erabiltzen da, beherago ikusiko duguna (ik. 1.1.2.6).

1.1.1.5. *-TZEARI, -TZERAT*

Forma hauek ere denbora adierazteko erabiltzen dira inoiz, erabilera hori ohikoena ez bada ere². Hona adibide batzuk:

- (34) a. *Zahartzeari*, boza galduz geroz, ezin aditua zen, eta halere beti azken egunetaraino kantatzen zuen gizagaixoak, alegia (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 164).
- b. Arratsean jin zen segurtamena biharamunekotzat. *Iluntzeari buruz* bizpahiru jendarme, gero bertze hainbertze, gau guzian heldu [...] (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 169).

1.1.1.6. *-TU(K)ERAN*

Aurreko ataletan ikusi ditugun formak ez bezala, partizipioaren gainean eraikia da Mendebaldean erabiltzen den forma hau. Partizipioaren ondoan *-(k)era* atzizkia eta *-n* lokatiboa dituela, *-TZEAN* formaren antzeko erabilera du.

Partizipioak aldaketa batzuk izaten ditu zenbaitetan egitura honetan. Hala, hondarreko *-n*-a galdu egiten du beti: *urte(k)eran, joakeran, egikeran...*; hondarreko *-i*-a, berriz, inguru fonikoa nolakoa den, edo gorde beharrekoa *-jagieran, itxikeran-*, edo aukerakoa izaten da *-etorrikeran / etorkeran-*; *-tu* amaiera, azkenik, gorde egiten da *-eldueran, agindueran, sartu(k)eran-*.

Bestalde, *sarreran, eskaeran, janzkeran* eta horrelako postposizio-sintagma arruntek ez bezala, *-TU(K)ERAN* formarekin eraturiko sintagmek aditzei dagozkien argumentuak dituzte, ez izenei dagozkienak. Hala, *etxean sartukeran* eta *afaria amaitueran* esaten da, ez *etxeko sartukeran* edo *afariaren amaitueran*:

² Ik. Lafitte, *Grammaire Basque*, 459, non adibide hau ematen baita: *Aita zahartzeari (/ zahartzerat), semeak hartu zituen etxeko giderrak*.

- (35) a. Itxura makala *errian sartukeran* gizonok ekarrena (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 102).
- b. Josetxok, *kortara sartueran*, zeinbatu ebazan beti lez, ta egoan bat gitxiago (Echeita, *Josecho*, 246).
- c. Mutikotxuak barre egingo eben *eskolatik urtekeran* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 31).
- d. *Traturako lenengo berbak egikeran*, orixe erakutsi eutsan Kosmek (Erkiaga, *Batetik bestera*, 32).
- e. orduban be aguriak *aparija amaitueran* esan eban: [...] (Kirikiño, *Abarrak*, 26).
- f. Amarrak zirean *ni Lekeitio-ondora eldueran* (Azkue, *Batxi Guzur*, 136).
- g. Biaramonean, *a etxetik urteeran*, edegi neban neure ogi-zerua (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 45).

Perpausaren osagaiak dituztenez, bada, mendeko perpausen artean sailkatuko ditugu forma hau duten sintagmak ere: *ni herritik irtetean bezala ni herritik urteeran* ere, esate baterako. Adizki jokatugabea duten perpausak dira biak³.

Aldiberekotasuna adierazten du forma honek ere, modu orokorrean, goiko adibideek argi erakusten duten moduan⁴.

³ Ikus *OEH*, s. v. *EGIKERAN*: “Usado como sust. vbal. con ines., no como sust. pleno”.

⁴ Beste egitura bat bada, Hegoaldekoa, idatzietan agerpen gutxi dituena, itxuraz *-TUENEAN* forma duena. Agerpen gutxi horietako gehienetan baldintza adierazten du. *Izan* aditzarekin, bospaseitan:

- a. *Izanenian* izango lizateke gutiz txikin eta beniala (*Oñatiko eskuizkribua*, 223v).
- b. Ez, andre, ez. Ez nazu goizoillanda-azeria. *Izanenean*, azari zarra (Labayen, *Euskal-Eguna*, 72).
- c. *Orrela ez izanenean*, gerora ere motel [...] izango degu asterokoa (Lizardi, *Itz-lauz*, 75).

Eta *egin* edo *iritsi* aditzekin:

- d. *Au ez eginenian*, artu leitekez elde errezkan lelengotik amairano (Uriarte, *Marijaren illa*, 6).

1.1.2. Aldiberekotasun estua

Atal honetan aztertuko ditugun formek ere aldiberekotasuna adierazten dute, aurrekoek bezala, baina hauek modu azkarrago edo enfatikoago batean egiten dute hori, ez modu orokorrean. Ikus, horren erakusgarri, ondoko adibide pareak:

(36) a. *Polizia agertzean*, korrika hasi dira manifestariak.

b. *Polizia agertu orduko*, korrika hasi dira manifestariak.

Esanahi bertsua dute adibide biek, baina ez dira guztiz berdinak. Lehenak modu orokorrean adierazten du ‘polizia agertzea’ eta ‘manifestariak korrika hastea’ aldi berean gertatu direla; bigarrenak, aldiz, modu enfatikoan egiten du hori, gertakari bien arteko lotura estua berariaz azpimarratuz.

Perpauis jokatuena liburukian esan genuen bezala, bi eratara uler daiteke aldi-bereko lotura estua hori (ik. *EGLU VI*, 91-92). Zenbaitetan, gertakari bat gertatzen denean bestea *jadanik* han dela esaten da, egoera edo ariketa moduan:

(37) a. *Hitzaldia hasterako*, betea zegoen aretoa.

b. *Lasterketa hasterako*, euria ari zuen.

Beste zenbaitetan, berriz, gertakari bat gertatu-eta bestea ere orduantxe gertatzen dela adierazten da, aldibereko sekuentzia estuan, guztiz *berehala*:

e. Goizean egiñak dituzte gogozko yaiak. Gu ordea beti, *iñora garai*z iritxienean, soñezkora, sabel-yaiera; ta are ozta-ozta (Lizardi, *Itz-lauz*, 45).

Inoiz, hala ere, badirudi baldintzaz gain denbora ere adieraz dezakeela; aldiberekotasuna ematen du horrelakoetan aditzera, modu generikoan:

e. *Zerbait egiñenean*, dirurik ez galtzeko, porrot ez egiteko ziurtasunez bear da (Lizardi, *Itz-lauz*, 79).

(38) *Lanetik irten orduko*, etxerantz abiatu da Mikel.

Forma bat baino gehiago ditu euskarak nozio horiek adierazteko. Batzuk esandako bi eratan erabiltzen dira. Hala, *-TU ORDUKO*, esate baterako:

(39) a. *Partida amaitu orduko*, ilun zegoen.

b. *Partida amaitu orduko*, etxera joan ziren jokalariaik.

Beste batzuk, berriz, batez ere modu horietako batean, segida estua adierazten duenean, erabiltzen dira. Hala, *-TU BEZAIN LASTER*, adibidez:

(40) *Partida amaitu bezain laster*, etxera joan ziren jokalariaik.

Sekuentzia-adiera hau dela-eta, ondokotasuna adierazten duten perpausen sailean sar daitezke, hala nahi izanez gero, segida estua adierazten duten perpaus hauek. Gure iritziz, ordea, perpaus horietan nabarmentzen dena ez da ondokotasuna, ‘estutasuna’ baizik, hau da, segidaren berehalakoa. ‘Partida amaitzea eta jokalariaik etxera joatea, dena bat’ izango litzateke goiko adibideen parafrasia.

Bestalde, azkenik, gertakaria jadanik gertatua delako nozioaren haritik, *-TZERAKO* eta *-TU ORDUKO* formek bigarren adiera bat ere badute, bizkaieraz batez ere. Zerbait une jakin batean *jadanik* egina dela adierazi ez ezik, *aurretik* egina dela ere adieraz dezakete. Aldiberekotasuna ez, baina aurrekotasuna adierazten dute horrelakoetan.

1.1.2.1. *-TZERAKO*

a. Aditz-izenen *-tze* atzizkiari *-ra* adlatiboa eta *-ko* destinatiboa erantsita eratzen den forma hau Mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da. Perpaus jokatuetakoko *-eNEKO* formaren parekoa da, neurri batean (ik. *EGLU VI*, 91-94).

Formak berak iradokitzen duen moduan, ‘jadanik’ gertatu dena adierazteko erabiltzen da oinarriz menderatzaile hau; ‘orduko’ badena adierazteko, alegia. Mendeko predikatuak une jakin batean gertatzen den gertakaria adierazten du, eta nagusiak, berriz, une horretan dagoen egoera, edo jardunean den ariketa:

- (41) a. *Ni iristerako*, ohean zen haurra.
b. *Ni iristerako*, lanean ari ziren nire lagunak.

Ondoko adibidean, berriz, mendekoaren gertakaria gertatu den unean ‘epe bat’ bururatua dela esaten du predikatu nagusiak:

- (42) *Utzi ditugun toki, mirabe ta gauzak aztutzerako* aldi bat joango da (Irazusta, *Bizia garratza da*, 16).

Ez da ohikoa –TZERAKO forma hau aldiberekotasunaren ikuspegi sekuentziala adierazteko erabiltzea, nahiz ez duen debeku. Hori erakusten dute ondoko adibide bi hauek:

- (43) a. –Eup, yauzi egizu alegin guztian onantzako bazterrera eldu zaitez. *Nik au esaterako*, itsu gizagajoak akerra lez abiada artuta, yo eban buruz arri-mutilla (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 35).
b. –Jende orri utzi zaiozute, etorri dakidan.
c. *Itz oiek esaterako*, soldadu-agintaria, bere soldaduakkin, eta gañerako guziak alderatu zitzaiozkan (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 444).

Agindua eman-eta gertatu zen, adibide bietan, perpaus nagusiak aipatzen duen gertakaria.

b. Forma hau ‘jadanik’ gertatua dena aipatzeko ez ezik, ‘lehenago’ gertatua dena adierazteko ere erabiltzen da inoiz, gorago esan dugun moduan, aurrerotasuna seinalatuz horrelakoetan, ez aldiberekotasuna. Testuingurua lagun, agerikoa izaten da gehienetan perpausaren esanahia, baina ambigua ere gerta daiteke zenbaitetan, modu batera zein bestera uler daitekeena.

Hona zalantza handirik gabe aurrekotasuna adierazten duten adibide batzuk:

- (44) a. liburu baten grafia aldatzea erabakitzen baldin bada, *hasterako* pentsatu noraino egin daitekeen eta nola (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak IV*, 107).
- b. An sartu zan Zubiburu, ta *lanean asterako* katedralera joan zan otoitz egitera (Irazusta, *Bizia garratza da*, 80).

Aurreneko adibidean, ‘zerbait egin aurretik, ondo pentsatu’ gisako aholkua ematen da. Bigarren adibidea are argiagoa da: Zubiburuk ez zuen katedralean lan egiten; beraz, hara egindako bisita lanean hasi aurrekoa zen.

c. Forma honek ere baditu, denborazko perpaus askok bezala, denborarekin zerikusirik ez duten beste erabilera batzuk ere.

Hala, helburua adieraz dezake, *-TZEKO* formaren aldaera gisa (ik. hemen Kausazko eta helburuzko perpausen kapitulua: 2.2.5.1.):

- (45) Au esan-ta, amaitu zuan auntsaiak bere kanta-saioa; beste zerbait geiago kanta-zeko eskatu zion bai Don Kijotek, baiña ez zegon ortarako Santxo Panza; lotarako obeki bait-zegon, *kanta entzuterako* baiño (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 130).

Eta, bestalde, izenlaguna ere izan daiteke, *-TZEKO* formaren aldaera, laguntzen duen izena denbora adierazten duena izan edo ez:

- (46) a. Koipatsu bat gertautu *iaterako asmoan* zengozanean, dsaust sartzen ei zan etxera leiotik barrura, eta sapo bat botate ei eutsun koipatsura (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 64).
- b. Nolazpeit beti pilota partida handi bat segurik egin zen. Ezen *hiltzerako bezperan*, Kaskoinak ohera ekararazten omen zituen, berak galdaturik, partidaren berriak, ponduz pondu, ari zirelarik pilotariak plazan (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 162).

1.1.2.2. *-TU ORDUKO*

a. Forma hau *-eN ORDUKO* formaren parekoa da (ik. *EGLU VI*, 94), hura bezala aldiberekotasun estuaren adiera bietan erabilia, eta hura baino maiztasun handiagoz, gainera.

Aldaera bat baino gehiago du forma honek. Partizipioaren gainean eraikitako *-TU ORDUKO* da erabiliena, ondoko adibideetan ikusiko dugun bezala. Adlatiboa ere erabiltzen da inoiz partizipioaren lekuan, aldiberekotasun estuaren adiera bietan:

(47) a. *Eta barojalariak ahora orduko*, Santiago Aizarna idazle bipil beldurgabea dator gogora (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 401).

b. Amaika ta erdiak zoazen *ni plazara orduko* (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 268).

Erabilera urriagoa dute *-TZERA ORDUKO* eta *-TZE ORDUKO* aldaerek⁵:

(48) a. Ta orduban bere [...] kontubak obeto ateraten badituzu, *auzitan atera orduko*, nekez garbatuko jatzu (Fray Bartolome, *Icasiquizunac II*, 170).

b. Baña *jote orduko amabiterdiak*, neskatillak egozan irurak jagiak (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 417).

Aditzondoari dagokionez, *orduko*-ren lekuan *ordukoxe* eta *ordu* aldaerak ere erabiltzen dira egitura honetako perpausetan:

⁵ Aditzoina ere erabiltzen da inoiz partizipioaren noizbehinkako ordezeko bezala. Hona bi adibide:

a. [Autoan] *Jar-orduko* abiatuak gira, azken behako bat emanik Loiolako komentuari (J. Etchepare, *Beribilez*, 73).

b. *Santa Barbarako eskol-etxean filosofia has orduko*, hogoi eta hemezortzi urthe bazituen gure sainduak (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 109).

- (49) a. eta *apaldu ordukoxe*, oeratu ziran gau artan Dorronsoroko bizidun guztiak (Agirre, *Uztaro*, 72).
- b. *Pausu batzuk oianean barrena eman-ordu*, beor bat ikusi zuan (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 57).

Balioari dagokionez, berriz, esana dugu gorago forma hau aldiberekotasun estuaren adiera bietan erabiltzen dela. Gertakarien segida estua adieraz dezake, predikatu biek, mendekoak zein nagusiak, adierazitako unean gertatzen den gertakari bat adierazten dutelarik:

- (50) a. *Zure diosala aditu orduko*, erraietan daukadan aurra pozez saltoka asi zat (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 364).
- b. *Errian sartu orduko* arritu nintzan ango etxe ta lur gorriekin (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 88).
- c. Eguna nekaturik iragan ondoan, *oheratu orduko* sartu dira loan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 255).

Zenbaitetan, *berehala* edo horren antzeko aditzondo batek agerian uzten du perpausari irakurketa sekuentziala dagokiola. Bide batez, aditzondo horiek areago markatzen dute segida estua:

- (51) a. ikusi orduko, *bereala* ezagutu zuen (Cardaberaz, *Egercicioac II*, 199).
- b. Etzirean nonbaite bere alperrak izan ene zelan-alango lanak; bada argiratu orduko, *beingoan*, arrapaka legez, saldu zirean liburu guztiak (Añibarro, *Escu-liburua 2*, 6).

Aldiberekotasun estuaren beste ikuspegian ere erabiltzen da, ordea, mendekoaren gertakaria gertatzen denean *jadanik* han den egoera adieraziz:

- (52) a. *Auzoak (...)* hara bildu orduko, hil hurrana zen jenerala (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 74).
- b. Goizeko ordu bata bazen *Franzis eta Mayi etxeratu orduko* (Izeta, *Dirua galgarri*, 32).

b. Zerbait une jakin batean ‘jadanik’ gauzatua dela adierazteko ez ezik, une hura ‘baino lehenago’ gauzatua dela adierazteko ere erabiltzen da –*TU ORDUKO* forma hau –aurreko atalean aztertu dugun –*TZERAKO* forma bezala–, bizkaieraz batez ere. Aurrekotasuna seinalatzen du horrelakoetan, ez aldiberekotasuna. Testuingurua lagun, agerikoa izaten da gehienetan perpau-saren esanahia. Hona zalantza handirik gabe aurrekotasuna adierazten duten adibide batzuk:

- (53) a. Emoidazu laztan bat *urten orduko emendi* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 194).
b. *Ezkontzaak egiñ orduko* pensau biar da ondo, ta egiñ ezkeru laster akomodau (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 255).
c. [...] *lotara orduko*, gazta pixka bat jaten zeudela, era onetako jarduna entzun zien (...) (Aguirre, *Garoa*, 250).

Adibide horietako predikatu nagusiak ezin dira ulertu mendekoak adierazitako unean jadanik baden egoera gisa, ez eta, noski, mendeko gertakariaren segida estuan gertatzen direnen moduan. Beraz, perpausak ez badu ez modu bateko ez besteko aldiberekotasuna adierazten, aurrekotasunarena da geratzen den aukera bakarra. Gainerako euskalkiek *irten aurretik*, *irten baino lehen* edo horrelako formak erabiliko lituzkete, esate baterako, lehen adibideko *urten orduko* horren lekuan.

Aurrekotasunaren adiera honetan ordukoxe aldaerak ez du lekurik: kalera orduko(*xe), etxeko lanak egin behar dituzu.

1.1.2.3. –*TU BEZAIN LASTER*

Goiago esan dugun bezala (1.0.2.2.), *bezain* morfemarekin eraturiko perpausak formaz eta egituraz konparaziozkoak diren arren, gertakari biren lastertasuna konparatzeko baino areago haiek *noiz* gertatzen diren esateko erabiltzen dira maiz, bien arteko aldiberekotasun estua adieraziz. Horiek dira hemen aztertuko ditugunak.

Partizipioaren gainean eraikitzen da forma hau, haren lekuan adlatiboa ere erabil daitekeelarik⁶:

- (54) a. *Sutearen berria zabaldu bezain laster*, laguntzera inguratu ziren hiritar guztiak.
- b. *Laster izango dugu egokiera, sorta hau osorik argitara bezain laster*, euskal literaturaren berri zehatzagoa izateko (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak IV*, 133).

Ahal izan, behar izan eta nahi izan aditzak izan osagaia gabe erabiltzen dira egitura honetan: ez da nahi bezain laster iritsi.

Aditzondoari dagokionez, *laster ez ezik, sarri, fite eta agudo* ere erabiltzen dira egitura honetan⁷. *Laster* euskalki guztietan erabiltzen da; *sarri* eta *fite* Iparraldeko euskalkietan dira ohikoak, lehenbizikoa batez ere:

- (55) a. Zohazte, erran zioten, Yerusalemerat: *han sarthu bezain sarri* bathuko duzue gizon bat pegar bat ur daramana (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia II*, 252).
- b. partitzeko prestatu zen *etxera bezain sarri* (Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 48).
- c. eror, eta iaiki dabilta; *garbitu bezain fite* likitsten dira (Axular, *Guero*, 539).

Agudo batez ere gipuzkeraz erabiltzen da:

- (56) a. Abel-sendararia, *ori entzun bezin aguro*, joan zan sendalariaren etxera (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 76).

⁶ Aditzoia salbuespen moduan baizik ez da erabiltzen honelako perpausetan; *has bezain laster* eta horrelakoak ez dira ohikoak.

⁷ Badira, horiez gain, maiztasun gutxiagoko beste forma batzuk ere: *-TU BEZAIN ARIN / AURKI / BERRI / LEHEN / PREST / PRONTO...*

Laster aditzondoaren eraginez, forma hau aldiberekotasunaren ikuspegi sekuentziala adierazteko erabiltzen da, adizki jokatuko *-eN BEZAIN LASTER* bezala (ik. *EGLU VI*, 95-97). Mendeko predikatua irispena edo burutzapena adierazten dutenetakoa izaten da, ez egoera; eta nagusiak, berriz, haren segida estuan gertatzen den gertakaria ematen du aditzera:

- (57) a. *Atzarri bezein laster* ohetik salto egin nuen (Elissamburu, *Piarres Adame*, 66).
- b. Ta *loak artu bezin laster* asi nintzan amesetan (Aguirre, *Garoa*, 208).
- c. *Ara eldu baiizen laster*, neskameak, arren, ortura eroan egiola ugazabari [...] eskatu eutsan (Erkiaga, *Batetik bestera*, 42).

‘Atzarri’, ‘loak hartu’ eta ‘heldu’ une batean gertatzen diren gertakariak dira, ez egoerak. Eta berdin predikatu nagusiak ere: ‘salto egin’, ‘hasi’ eta ‘eskatu’. Azken hau etorkizuneko, ohiturazkoa edo orainaldi narratiboari dago-kiona izan daiteke, baina une bateko gertakaria adierazten duena betiere, ez egoera edo ariketa:

- (58) a. *Nere diruen otsa zabaldu bezin laster*, inguruan Errege-*seme* batek artuko nau emaztetzat onduan (Etxaniz, *Lur berri billa*, 221).
- b. Zomorro batzuk, beren ondorengoak sortu bezain laister, il egiten dira (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 166).
- c. *Etixerat hura ethorri bezin laster*, amak galdetzen dio: [...] (Barbier, *Légendes*, 134).

Eta bestelako inguruetan egoera edo ariketa adierazten duten predikatuek egitura honetan egoera edo ariketa horren hasiera adierazten dute:

- (59) a. Ain egoki eta zuzenbide onean jarriak arkitzen dira, ezik, izena entzun bezin laster *dakigu*, Urliaren jatorriak lendabiziko asiera norgandik eta zein tokitan izan zeban (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 23).
- b. Gai horretan, ordea, itsu itsuan *gabiltza*, nor bere euskalkitik irten bezain laster (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 113).

1.1.2.4. –TU BEZALA

Bezala morfemaren berezko zeregina modu-konparazioa bideratzea bada ere, bestelako zenbait esamolde bideratzeko ere erabiltzen da inoiz, hala nola, esate baterako, denbora adierazten duten perpausak eratzeko. Aldiberekotasun estua ematen du horrelakoetan aditzera⁸:

- (60) a. Gure ahoa hersten duk, *hi agertu bezala* (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa I*, 45).
- b. Ageri zen etzela bertze bat bezala mintzo, gogorat jinak, *jin bezala* emanek (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 87).
- c. *Donibane Gurutzak itz oiek aditu bezala*, miñez samurtu zan erraietaraño (Gaztelu, *Musika ixilla*, 164).

1.1.2.5. –TU ETA BEREHALA, –TU ETA LASTER

a. Ondokotasuna adierazten duen oinarrizko –TU ETA formari *berehala* aditzondoa erantsita sortzen da forma bi horietatik lehena. Hiru egitura badira azalean itxura bertsua izan arren desberdinak direnak. Denbora adiera dute hirurek, baina desberdinak dira, ondoko eskemetan ikus daitekeen moduan. Hirugarrena da gure formari dagokiona:

- a. [...-tu] eta [berehala ...x]
- b. [[...-tu eta], berehala ...x]
- c. [[...-tu eta berehala], ...x]

⁸ Konparazio-perpausak aztertzen diren kapituluan morfema honen denbora balioa berariaz aipatua bada ere (ik. *EGLU V-1*, 379), denborazko perpaus jokatuaren kapituluan ez da haren aipamenik egiten. Esan behar da, ordea, perpaus jokatueta ere izan dezakeela balio hori: *Baña elizako ateetara zan bezala, gizonak negar miñari eman, eta [...]* (Arrue, *Mayetceco illa*, 127).

Lehenbizikoan emendiozko juntadura dugu:

- (61) a. Istripua izan nuenean, ospitalera joan, eta berehala artatu ninduten.
b. Erosketak laster egin eta berehala itzultzeko esan digu amak.

Juntaturari dagozkion eten-elipsiak ditugu perpaus horietan: *ospitalera joan (nintzen) # eta berehala artatu ninduten*. Perpaus biren arteko juntagai-lua da hor *eta*, ez aurreko partizipioari loturiko morfema. *Eta*, bestalde, bistan da *berehala* aditzondoa ez dela lehen perpausari dagokion forma, bigarren perpausaren osagaia baizik.

Bigarren eskeman, aldiz, aurreko partizipioari enklitikoki lotua ematen da *eta*, ondokotasuna adierazten duen *-TU ETA* forma menderatzailea eratuz, zeinaren ondoan egiten den etena:

- (62) Ba, aita, *gure xahakoak hartu eta*, berehala bagoazi (Barbier, *Légendes*, 136).

Ohiko *-TU ETA* forma dugu perpaus horretan (ik. 1.2.2.1.). Gertatzen dena da kasu honetan *berehala* aditzondoa ageri dela perpaus nagusiaren hasieran, haren osagai: *xahakoak hartu eta # berehala bagoaz*. Gauza bera gerta daiteke *-TUTA* edo *-TURIK* formak daramatzaten perpausekin ere:

- (63) a. *Eta aren izekoak dei eginda*, berealakoan agertu zan mutilla (Erkiaga, *Arranegi*, 91).
b. *Ezpata eskuan harturik*, berehala eman dio bakoitzari, zahar eta berrien usuarioari, zor zitzaiena (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak II*, 33).

Hirugarren eskema da atal honetan aztertzen ari garen perpausari dagokiena. Egitura honetan berehala adberbioa *-TU ETA* formarekin doa, *-TU ETA BEREHALA* forma konplexua eratuz:

- (64) a. *Ikasketak amaitu eta berehala hasten dira lan bila gazteak*.

- b. Ez ama eta ez aita geratu zen gaixoa, *jai*o eta *berehala*.
- c. Goizero, *jai*ki eta *berehala* dutxatzen da.

Horrela eraturiko perpausak ere mendekoak dira, bistan da, baina hor *berehala* ez da perpaus nagusiaren osagai, erabiliaren erabiliaz gramatikalizatu den menderatzailearen burua baizik. Eta, goiko adibideetan ikusten denez, perpaus nagusiaren aurrean, haren ondoren eta are haren barruan txertatua joan daiteke.

Beste mendeko baten mendeko ere izan daitezke horrelako perpausak:

- (65) a. Nola deitzen da *hil-eta berehala* izan den jujamendu hura? (Jauffret, *Catichima*, 70).
- b. emagiñai agindu zien, *sabeletik irten, eta bereala* aur-seme guziak il zizatela (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 64).

Mendebaldean maizago erabiltzen da, ohikoa denez, *ta* forma laburtua. Idazleek bereiz idazten dute askotan *ta* hau, atzizkitzat ez dutela iradokiz:

- (66) a. Neugaz errotara etorriko biarko dozulako, *oetik jagi ta beriala*, aletegiko sabaia atonduten (Altuna, *Ipuñak*, 63).
- b. Kontu dagidan, bada, *ill ta bereala*, gorputzarekin zer pasatzen dan (Cardaberaz, *Egercicioac II*, 100).
- c. Adalbaldo, *erregeren iauregitik urten da bereala*, ioan zan etxera (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 152)

Edo marrarekin:

- (67) *Auntzaiak au esan-ta bereala*, araxe bere belarritarra eldu zitzaion rabelaren soiñua (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 126).

Ez gutxitan, hala ere, partizipioari lotuta idazten dute, enklitikoaren lotura areago seinalatuz eta, bide batez beharbada, atzizki izateko bidean ikusten dutela iradokiz (ik. 1.2.2.3.):

- (68) a. *Eliz-jaiia bukatuta bereala*, barruan barrukoak utzirik, besteak zelaira erten ziran (Aguirre, *Garoa*, 343).
- b. *Mandatu au artuta bereala*, ekin zion Jesusek Kafarnaungo bideari (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia I*, 472).
- c. *Herodes ilda bereala*, Aingeruak San Jose'ri esan zion, Aurra eta Ama arturik, Israel'era itzuli zedilla (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 370).

Aditzondoari dagokionez, *berehalakoan* aldaera erabiltzen da inoiz mendeko perpaus hauetan ere:

- (69) [Sakramentu hau] etzaie ematen aurrari, *bataiatu, ta berealakoan*, ezpada, orretarako jakin behar dana, ikasten duenean (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-carlea*, 196).

b. *Laster (lasterrera, lastertxo, lasterxko)* aditzondoarekin ere egiten dira gisa honetako perpausak, *-TU ETA LASTER* forma hartuta, *berehala* aditzondoarekin baino gutxiagotan bada ere. Erabilera bertsua du forma honek ere:

- (70) a. *Bazkaiten hasi eta laster*, hiruetarik batto badoa nausiaren ganat, eta erraiten dio: [...] (Barbier, *Légendes*, 131).
- b. Olatxe egozan Arranondokoak, esan dogun *ekatxaren atzaparretatik urten da laster* (Aguirre, *Kresala*, 19).
- c. [...] bizi az etsirik eritzen ziranak asi ziran *eritu ta laster* Elizako gauzak eskatzen (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 187).

Eta, halaber, *beingoan* erabiltzen da inoiz egitura honetako perpausetan:

- (71) *Euskalerrira utzi ta beingoan* uri nagusi apañak ikusiarren, etzan batere arritu (Aguirre, *Garoa*, 253).

c. Balioari dagokionez, bistan da segida estua edo berehalakoa adierazten dutela –*TU ETA BEREHALA* eta –*TU ETA LASTER* formek ere, aditzondoek esanahi hori dutenez gero. Goiko adibideetan ikusten da argiro hori, bai eta ondoko honetan ere:

- (72) Hemendik aitzina ukha[n] zazu artha maiz sakramenduetarat hurbiltzeko, bainan bethi ere hek *hartu ta berehala, han berean* hil behar bazine bezala (Duhalde, *Meditacioneac*, 223).

‘Han berean’ aposizioak erakusten du ondokotasuna baino areago aldibereko segida estua adierazten dela forma honen bidez.

1.1.2.6. –*TU AZ BATERA*, –*TZEAREKIN BATEAN*

a. Mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da forma hauetako lehena, bizkaieraz batez ere. Bere soilean denean, –*TU AZ* forma esanahi zabalekoa da, modua, kausa, azalpena, denbora, etab. adierazteko erabiltzen dena (ik. Moduzko perpausen kapituluan 5.1.3. atala, esate baterako); denborazko balioa duenean, ondokotasuna ematen du aditzera (ik. 1.2.2.7.). Buruan *batera* aditzondoak duenean, berriz, segida estuaren adiera izaten du, ondoko adibide bi hauen alderaketak erakusten duen bezala:

- (73) a. Eta *au esanaz*, arineketan asi nintzen zubien zear (Azkue, *Batxi Guzur*, 141).
b. *Au esanaz batera* asi zan jantzan, Ankokerren tanbolin soñuan (Echeita, *Josecho*, 89).

Forma hori da maizenik erabiltzen dena; horren ondoan, –*TU AGAZ BATERA* ere erabiltzen da, *horregaz batera*, *diruagaz batera* eta horrelako postposizio-sintagmen pare, maiztasuna txikiagoz bada ere:

- (74) Da *au esanagaz batera*, txilioka ta uluaka iges egin ei eban lamiña orrek (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 65).

Aditzondoari dagokionez, ohiko *batera* adberbioaren lekuan, *bat* soila ere erabiltzen dira inoiz forma honetako perpausetan:

- (75) Zeñek emon al leike edertzat gauzea, Lagun on bat legetxe emen laztantzea, Eta *itzuliaz bat bizkarrak alkarri*, Izen ona galtzea batak besteari? (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 313).

Aditz-izenaren gainean eginiko *-TZEAZ BAT* ere erabiltzen da euskalki horretan, aditzondoak ohiko aldaerak dituela:

- (76) a. Bazijuan artzera, baña mandua, *praillea ikustez bat*, asi zan ostikoka, urreratzen ere utzi gabe Prailleari (Urruzuno, *Euskal Erritik zerura*, 48).
- b. *Auzokuari bere ipoña aittutziaz bat*, gure etxeko-andriori [...] asi zan barrez itxo biarrian (Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 471).
- c. Ta *aizkorak erortzeaz batean* baserritar guztiak, trumoi ikaragarriaren itxurako alarau luze bat egin zuten (Aguirre, *Garoa*, 102).
- d. *Gure neskatillea ikustez batera* negar egieban gurasoak (Aguirre, *Kresala*, 207).

Gainerako euskalkietan, azkenik, *-TZEAREKIN BATEAN* da formarik erabiliena, aditzondoak ohiko aldaerak dituela hemen ere:

- (77) a. eta *hura sartzearekin batean*, hark lehen hitza ahotik athera bezein laster, jauzika abiatu zitzaion haurra Elizabeti (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 38).
- b. *Errosarioa bukatzearekin bat* jarri zuan etxeko-andre gazteak maia zapi zuri batekin (M. D. Zabala, *Gabon gau bat*, 48).
- c. *Elizako ofziuak astiarekin batera*, orra nun sartzen diran, ez nundik eta ez andik, ogei ta bi praile elizan (Beovide, *Asis-co Loria*, 133).

Balioari dagokionez, esana dugu aldiberekotasun estua adierazten dutela forma hauek guztiek. Perpaus nagusiko gertakaria mendekoak aipatzen duenaren segida estuan gertatzen dela ematen dute aditzera:

- (78) a. *Eta ori esanaz batera*, larrosa artu ta kanpora bota eban (Altuna, *Ipuñak*, 40).
b. [Hura] *Etxean sartuaz batera*, agur nire barruko bakea (Azkue, *Bein da betiko*, 42).
- (79) a. *Eta solhas hori entzutearekin batean*, guziak erori ziren, ihurtzuriak jo balitu bezala (Joanateguy, *Sainduen Bizitzea*, 28).
b. *Argia urratzearekin batean*, yustiziaren iguzkia ilkhi izan zen herioaren ilhunbetarik bere bothere bakharraz (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia II*, 285).

b. Zenbaitetan denbora ez ezik, bestelako nozioren bat ere ematen dute forma hauek ere aditzera. Emendio gisakoa, esate baterako, *horrekin batera* esaldiak *horrez gain*-edo esan nahi duelarik:

- (80) a. nasa gañean zutiñik, ondo jantziriko bost gizon egozan, alkarregaz autuan, *eguzki epela artuaz batera* (Aguirre, *Kresala*, 93).
b. ordea irabazten zituzten herriei ere hargatik *irabaztearekin batean*, har-arazten zioten bere hitzkuntza (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak II*, 402).

1.1.2.7. –TU BERRI(T)AN

Ez da erraz erabakitzen *–tu berrian* segidak denborazko perpausak eratzeko forma gramatikalizatua osatzen duen. Egia esan, egitura bat baino gehiago egon daiteke segida horren azpian.

Horrela, postposizio-sintagma arrunta izan daiteke, oinarrian *jaioberri* edo *ezkonberri* moduko adjektiboak dituen. Adjektiboari inesiboko atzizkia erantsita, *jaioberrian* eta *ezkonberritan* sintagmak eratzen dira, *haurrean*, *gaztetan*, *ezkongaietan* eta horrelakoen parekoak.

Oinarrian izen bilakaturiko partizipioa duen postposizio-sintagma ere izan daiteke, ondoko adibide honetan ikusten dena:

- (81) a. San Agustinek dio, *Elizaren asi-berrian* ere mirari oiek egin bear izan zirala (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 477).

‘Elizaren’ izenlagunak erakusten du *-tu berri* sintagma hori izena dela, ondoan *-n* postposizioa duena: ‘Elizaren hasieran’ sintagmaren parekoa da hori, nolabait esan.

Beste zenbaitetan, ordea, perpausari dagozkion osagaiak ditu partizipioak. Garbi ikusten da hori ondoko adibide parean. Lehenbizikoan, partizipioak izen-sintagmari dagozkion izenlaguna du osagai; bigarrenean, berriz, perpausari dagozkion osagaia ageri da:

- (82) a. Onela bada *gure santuaren jaio berrian* iru Aingeru ikusi ziran (Beovide, *Asis-co Loria*, 24).
- b. Antipas zeritzan au zan, *Jesus jaioberrian* hainbeste aurtxo ilerazo zituen Herodes zaharraren, eta Kleopatra Jerusalem’darraren semea (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 452).

Lehenbizikoan, *gure santuaren* izenlaguna ageri da, eta bigarrenean, berriz, *Jesus* absolutiboa. Haren parafraasi zabala ‘gure santuaren jaiotzan’ da, eta honena, berriz, ‘Jesus jaio zenean’.

Horiek horrela izanik, bestetan erabilitako irizpidea erabiliko dugu hemen ere: ohiko postposizio-sintagmatzat hartuko ditugu oinarrian izen-sintagmari dagozkion osagaiak dituztenak *-lagunaren etorri berrian* esate baterako-, eta perpaustzat, berriz, perpausari dagozkion osagaiak dituztenak *-laguna etorri berrian*, adibidez-.

Egia esan, ez da oso emankorra perpaustzat daukagun egitura hori, baina halakotzat har ditzakegu, goiko adibidekoaz gain, ondoko adibide hauetan ageri direnak ere. Aditzera ematen duten nozioa, bistan da, segida estuarena da:

- (83) a. *Gerra amaitu berritan*, larri bizi zen jendea.

- b. *Meza asi berrian* artzai bat eldu zaio Mañañari auntz eder bat erakarki (Etxaide, *Joanak-joan*, 20).
- c. Iruretan gaztienak berriz, Luixik alegia, *amasei urteak bete berritan*, mendiko marrubi xoragarri iduri zun, ain baitziran borobil ta gorristak bere matraitltoak (Etxaide, *Joanak-joan*, 215).

1.1.2.8. –TU AHALA eta –TU ARAU

Aldiberekotasun errepikatuaren sailean aztertzen dira forma hauek. Han esaten den moduan, aldiberekotasun estua adierazteko ere erabiltzen dira inoiz (ik. 1.1.3.2.).

1.1.3. Aldiberekotasun errepikatua

Atal honetan aztertuko ditugun formek honako hau ematen dute aditzera: mendeko perpausoko gertakaria gertatzen den aldi bakoitzean gertatzen dela perpaus nagusiko gertakaria ere. Hura noiz, hau ere orduan, baina ez behin bakarrik, hura gertatzen den aldi guztietan baizik. Aldiberekotasun errepikatua deitzen diogu nozio horri.

Bi modutara eman daiteke aditzera nozio hori. Batetik, –TU ALDIRO, –TU BAKOITZEAN eta –TU GUZTIAN formak ditugu, aldiberekotasun errepikatua zehatzago adierazten dutenak; eta –TU AHALA eta –TU ARAU formak, bestetik, erabilera zabalagoa dutenak.

1.1.3.1. –TU ALDIRO, –TU BAKOITZEAN

Beste ñabardurarik gabe aldiberekotasun errepikatua adierazten duten forma hauek adizki jokatuekin erabiltzen dira batez ere, aurreko liburukian ikusi dugun bezala (ik. *EGLU VI*, 88-90). Hona han emandako adibide batzuk:

- (84) a. *Euskal-Esnalearen sariketan sartu dan aldiro* garai atera dira onen olerkiak (Inza, in *Jautarkol, Biozkadak*, XV).
- b. *Gure herriaz triste nagon bakoitzean* / zertxobait alaitzen naiz zutaz orrhoitzean (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 318).

Partizipioarekin erabiltzea ez da ohikoa. Ez da debeku, ordea, eta, urri bada urri, horrela ere erabiltzen dira.

Hala, esate baterako, *-TU ALDI(O)RO* forma:

- (85) a. *Ikasteko gutun eta bertze ek guziak ikusi aldiro* nigarra eldu zitzaien (Irigaray, *Nafarroako euskal idazlariak*, 132).
- b. Nagosia ostera, barreka nire burutapena gomuta-aldioro (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 89).

Eta berdin *-TU BAKOITZEAN*:

- (86) a. musu ematen niyon / *eldu bakoitzian* (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak*, 138).
- b. Juanbeltzek bi duro artzen zituan *mutil bat uretatik atera-bakoitzean* (Anabitarte, *Poli*, 19).
- c. Ni arrituta gelditutzen naiz / *gogoratu bakoitzian* (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 291).

Baita, azkenik, *-TU GUZTIAN*, bakanago bada ere:

- (87) Hotelera iritxita, orduan konturatu *arpegia garbitu guztian* zergatik nabaritzen nuan nik gazitasuna ezañetan (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 93).

1.1.3.2. *-TU AHALA, -TU ARAU*

Esanahi bertsua dute forma bi hauek. Gertakari bat bestearen ‘neurrian’ edo ‘heinean’ gertatzen dela adierazten dute, modu zabalean. ‘Neurri’ hori

denborari dagokiona denean ere, ñabardura bat baino gehiago izan dezake perpausak, aldiberekotasun errepikatuarena ez ezik, baita beste batzuk ere.

Hona –*TU AHALA* formaren adibideak:

- (88) a. An ezagun zan Birjiña Amak / zenbat on, zenbat mirari / egin oi zitun semeen-alde / *eskatu-ala Berari* (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 93).
b. *Elizaldia bukatu-âla*, mordoka doaz zelaira (Orixe, *Euskaldunak*, 263).
c. Langilleek lana eten-bearrez arriturik, nagusia inguratzen zuten *etorri-ala* (Orixe, *Mireio*, 111).

Lehenbiziko adibidean, aldiberekotasun errepikatua adierazten da: ‘eskatzten zaione(t)an’ esan nahi du ‘eskatu ahala’ horrek. Bigarrenean, aldiberekotasun estua ematen da aditzera: ‘elizaldia bukatu bezain laster’ esan nahi da. Hirugarrenean, azkenean, iraupena adierazten da: ‘zetorren bitartean’.

Eta hona –*TU ARAU* formaren adibideak:

- (89) a. Badira gizonak, beren erran beharrak *gogoratu arau* jendearen aintzinean goraki kantatu behar dituztenak (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 65).
b. lore ondo batek, *lilia idek arau*, ostoa galtzen du (J. Etchepare, *Buruchkak*, 84).
c. *Jendea jin arau*, aita xaharraren oihuak handiago (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 118).

Lehenbiziko adibidean, aldiberekotasun errepikatua adierazten da hemen ere: ‘gogoratzen dituztene(t)an’. Bigarrenean, aldiberekotasun estua: ‘lilia ireki bezain laster’. Eta hirugarrenean, iraupena duen gertakaria aipatzen da: jendearen jitea.

Arabera aldaera:

- (90) Liliatarat dute bere ixuria, / Iresten belhar punta, *sorthu arabera* (Hiribarren, *Eskaldunac*, 236).

1.2. ALDI DESBERDINTASUNA

Perpauus jokatuⁿ liburukian esaten den bezala (ik. *EGLU VI*, 98), bi ikuspegi ditu aldi-desberdintasunak: *aurrekotasuna* eta *ondokotasuna*. Aurrekotasuna adierazten denean, perpauus nagusiko gertakaria mendekoarena baino lehen gertatzen dela esaten da: *ilundu aurretik etxeratu da*. Ondokotasuna adierazten denean, berriz, alderantzizkoa da kontua: perpauus nagusiko gertakaria mendekoan aipatzen denaren ondoren gauzatzen dela esaten da: *ilundu ondoren etxeratu da*.

Nozio hauek adierazteko erabiltzen diren formei dagokienez, esan behar da inoiz perpauus jokatuak erabiltzen diren arren, askoz ohikoago dela partizioarekin eratutako formak erabiltzea:

–*TU BAINO LEHEN*, –*TU AURRETIK*, –*TU AITZINEAN* eta –*TU GABE*, aurrekotasuna adierazten dutenetan;

–*TU ETA*, –*TU ETA GERO*, –*TUTA*, –*TUTAKOAN*, –*TU ONDOAN*, –*TU OSTEAN*, –*TU(A)Z*, –*TUZ GERO* eta –*TURIK*, ondokotasuna adierazten dutenetan.

Mendeko perpauusak une batean gertatzen den gertakaria adierazten du betiere: ‘*etorri* baino lehen’ eta ‘*etxea garbitu* eta gero’, esate baterako. Egoera edo ariketa adierazten dituzten aditzak ere erabil daitezke perpauus hauetan, bai, baina, horrelakoetan, egoera edo ariketa horren une bat hartzen da perpauus nagusiko gertakariari erreferentzia emateko. Hasierako unea seinalatzen da, eskuarki, aurrekotasuna adierazten duten perpauusetan: *musean aritu baino lehen*, *kafe bana hartu dute* perpausean, adibidez, ‘mus jokoan hasi baino lehen’ da mendeko perpauusak esan nahi duena. Eta ondokotasuna adierazten duten perpauusetan, berriz, egoera edo ariketaren azken unea izaten da perpauus nagusiari erreferentzia ematen diona. Horrela, *musean aritu ondoren*, *etxera joan ziren* perpausean, ‘mus joko^a amaitu ondoren’ esan nahi da. Gauza bera gertatzen da *jakin* aditzarekin; aditz honek bi adiera ditu, estatiboa bat –‘zerbaiten jakintza izan’– eta lorpena adierazten duena bestea –‘zerbaiten jakintza

lortu’-; *jakin baino lehen* edo *jakin ondoren* esaten denean, bigarren adiera nagusitzen da, lorpena adierazten duena, alegia.

Perpaus nagusiko aditza, berriz, mota guztietakoa izan daiteke, baita egoera edo ariketa adierazten duena ere:

- (91) a. Argitu baino lehen *joan da lanera*.
b. Lagunetara joan baino lehen *egin ditu etxeko lanak*.
c. Parisa etorri baino lehen, *Londresen bizi zen*.
d. Etxera joan baino lehen, *musean aritu da lagunekin*.

Eta berdin, ondokotasuna adierazten duten perpausetan ere:

- (92) a. Argitu ondoren *jaiki da*
b. Filma amaitu ondoren *afalduko dugu*.
c. Erretiroa hartu ondoren, *lasaiago biziko zara*.
d. Atertu ondoren, *futbolean aritu ziren*.

1.2.1. Aurrekotasuna

1.2.1.1. –TU BAINO LEHEN

a. Gorago esan dugun bezala (ik. 1.0.2.2.), forma honekin eraturiko perpausak konparaziozkoak dira, formaz eta egituraz. Aurrekotasuna adierazten duten neurrian, ordea, denborazko perpausen artean ere sailka daitezke, eta guk hala egiten dugu, forma gorabehera.

Adizki jokatua eta guzti era daitezke perpaus hauek, jakina:

- (93) (...) *gertatuko dan baño lenago*, esaten dizutet (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 439).

Hori baino ohikoagoa da, ordea, aditz jokatua isiltzea eta partizipio soila uztea agerian. Goiko perpausa, esate baterako, *gertatu baino lehen* esango genuke, aditz laguntzailearekin baino errazago.

Adlatiboa ere erabil daiteke, partizipioaren lekuan:

- (94) a. Berriz ere, *i lanera baño len*, joko dik ordua (Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 17).
b. *arrantzale begi urdiña errira baiño leen*, erabagiren bat artu bear ebalan sinistarazi eutsan Zuriñek bere buruari (Erkiaga, *Arranegi*, 177).

Uste izan, nahi izan, gura izan eta *behar izan* aditzetan, *izan* osagaia ezabatua gertatzen da partizipioan (ik. *EGLU V*, 305): *uste baino lehen, nahi baino lehen*, etab. dira ohiko formak.

Mendeko perpausak eta perpaus nagusiak aditz bera dutenean, partizipioa isilpean utzi ohi da mendekoan, eta perpausa murriztua gertatzen da (ik. *EGLU V*, 306). Agerian geratzen diren osagaiak, bistan da, perpausan dagozkien markak eta guzti ematen dira:

- (95) a. Apaiza eta praillea bazkaltzera etorri ziranean, praillea eseri zan maian *apaiza baiño leen* (Anduaga, *Aitonaren uzta*, 43).
b. Aretariko batek *ik baiño leenago* jakingo yon, errira nor etorri dan eta nor eztan (Erkiaga, *Arranegi*, 24).

Ez da ohikoa partizipioaren lekuan aditzoina erabiltzea. Zubereraz ageri da inoiz, bakan eta modu berezian bada ere:

- (96) *espusa beno lehen* behar dizü batheiatü (*Xarlemaña*, 623).

Aditzondoari dagokionez, *lehen* bezala *lehenago* ere erabiltzen da perpaus hauetan, goiko adibideetan ikus daitekeen moduan, maiztasunean hura nagusi delarik. Hurbiltasuna adierazteko, berriz, *lehentxeago* eta *lehentxoago* ere erabiltzen dira, azkena bizkaieraz batez ere:

- (97) a. Deadarka ari ziren errietan, atso batek dioenez, *gizona gorputz erori baino lehentxeago* (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 180).
- b. Orrelako egibideak ezarten ditu Sokratek, *il baino lentxeago* (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 105).
- c. Afalduta, zuk, *nik baiño leentxoago* urten dozu emendik (Erkiaga, *Arranegi*, 73).

Lehenago aldaeraren gainean izenlaguna era daiteke:

- (98) a. Eta entzungo ahal dute (...) *Europako bazter honen historia hasi baino lehenagoko* aldietara garamazkien hizkuntza maitearen [soinu]a (Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 146).
- b. biziaro bat bakarra dago benetan on ta eder: *bizitzen asi baiño lehenagokoa* (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 122).

Eta, azkenik, *-tik* atzizkia hartuta, *noizdanikoa* nozioa adierazten du:

- (99) [...] *nik* ere Medel badazagut eta *zuk baino lehenagotik* eta sakonagorik (Azkue, *Ardi galdua*, 74).

Balioa agerikoa dute perpaus hauek: perpaus nagusiko gertakariaren aurrekotasuna adierazten dute. Esan dugun moduan, mendeko perpausak une bateko gertakaria adierazten du, eta perpaus nagusiko aditza, berriz, mota guztietakoa izan daiteke:

- (100) a. Gaua gautarrentzat; illundu baino leen, *sartu naiz barnera* (Orixe, *Olerkiak*, 522).

- b. A ze nolako sualdia egin bear dun, *negua sartu baño leen*, soroan zuztar aekin eta inguruetan bildutako zaborrekin! (Agirre, *Uztaro*, 291).
- c. *Ollarrak jo baño leen* atzarria nindagon (Irigaray, *Nafarroako euskal idazlariak*, 159).
- d. *Burrukan eldu baiño leenago* itzez luzaro dute ekin (Orixe, *Euskaldunak*, 170).

b. Ohiko balioa hori izanik ere, bestelako lehentasun-mota bat adierazteko ere erabiltzen da inoiz. *Baino lehen(ago)* formak *baino gehiago* edo *baino nahiago* esan nahi du horrelakoetan:

- (101) a. Maite zaitut *gauza guztik baño leenago ta geiago* (Argi Done laburra, 36).
- b. Bestetarikakoak ez zaizkit ahazten, gizon bainaiz *euskaldun baino lehen*, baina neureak datoz aurrenik (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 372).
- c. *Mutilzar geratu baiño leenago* il (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 137).

Agerikoa da, azken adibidearen iruzkina eginez, perpausak ez duela esan nahi ‘lehenbizi hil eta gero mutilzahar geratu’, hau da, ez dela denboraz ari: ‘mutilzahar geratu baino nahiago hil’ esan nahi du.

c. Esan dugun moduan, goiko adibide horietako perpausak itxuraz konparaziozkoak izan arren, zinez denbora-erreferentzia emateko erabiltzen dira. Ondoko adibideko perpausa, ordea, aurrekoak ez bezalakoa da:

- (102) Barri pozgarriak bala bala, *tximistea baiño lehen* zabaldu ziran erri osoan (Erkiaga, *Arranegi*, 164).

Perpaus horretan ez da gertakari nagusia –‘berri pozgarriak zabaltzea’– denboran kokatzen; ez da esaten, alegia, hura *noiz* gertatu den, beste gertakari bat erreferentzia hartuta, *zenbat denboran* gertatu den baizik. Horko *baino lehen* horrek *baino lasterrago* esan nahi du, hau da lastertasun handiagoz. Eta,

hortaz, lastertasunak konparatzen direnez, konparaziozkoen sailean sartu beharrekoa da besterik gabe.

Gaua baino lehen, orain baino lehen eta horrelakoetan, azkenik, ez da nahitaez aditzaren elipsia dagoela pentsatu behar, perpausa barik postposizio-sintagma arruntak izan baitaitezke horiek. Esaldi horietako izenak, edo aditzondoak, denbora-esanahia duenez, berak ematen du denbora-erreferentzia, eta ez du gertakari bat aipatu behar horretarako:

- (103) a. neronek erreko ditut *bihar gaua baino lehen* (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 65).
- b. *Gabonak baiño leen* galdu zonan (Erkiaga, *Arranegi*, 142).
- c. Ibilli naiz ba ni, *orain baiño lehenago* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 76).

‘*Gaua baino lehen*’ esaldiaren azpian pentsa daiteke, bai, ‘*gaua izan baino lehen*’, ‘*gaua iritsi baino lehen*’ edo horrelakoren bat dagoela. Zailago da hori pentsatzea ‘*orain baino lehen*’ bezalako esaldiei dagokienez: ‘*orain izan baino lehen*’ [?]. Bidezkoena dirudi, beraz, horrelakoak eskuarki postposizio-sintagmatzat hartzea, *gauean*, *gauerako* eta horrelakoen pare.

1.2.1.2. –TU AURRETIK

Batez ere Mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da forma hau. *Aurretik* aditzondoak ablatiboko atzizkia daraman arren, aurretotasuna adierazten duen forma gramatikalizatua da hau, *noiz* nozioari dagokiona, ez iraupeneko *noiztik* edo *noizdanik* nozioari:

- (104) a. *Lanean hasi aurretik*, ondo gosaltzea komeni da.
- b. *Ezkondu aurretik*, Bilbon bizi zen.

Forma honetako adizkia partizipioa izan ohi da: *gertatu aurretik, jan aurretik...* Adlatiboa ere erabiltzen da inoiz, partizipioaren lekuan:

- (105) Ta ume nintzanetik [...] urtara niñoiari bakoitzez goiz eta illuntzero, *eskolara aurretik* ta *eskolara ezker* (Gandiaga, *Elorri*, 29).

Aditz-izenaren gainean eraturiko *-TZEKO* forma ere erabil daiteke *aurrean* aditzondoarekin:

- (106) *Zerura igotzeko aurrean* esku hau utzi zien [...] Diszipuluai (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 151).

Aurretik aditzondoak hurbiltasuna adierazten duten *aurretixe* eta *aurretxotik* aldaerak ditu:

- (107) a. berau mintza zitzaionan lenengoz ezkontza au zertzeko *Piarres gudaritzara joan aurretixe* (Etxaide, *Joanak-joan*, 80).
b. Ala ere maizago egin izan det nik joan-etorritxo au, *Adrian il-aurretxotik*, Medel Ameriketatik erriratu zanetik onera (Azkue, *Ardi Galdua*, 100).

Eta, gainera, beste aldaera batzuk ere baditu: *aurrean* eta hurbiltasuna adierazten duen *aurretxoan*, batetik, eta erabilera urriagoa duen gipuzkerazko *aurrez*, bestetik:

- (108) a. *Lazaro piztu aurrean* otoitz egin zuan Jesusek juduak entzunez (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 124).
b. Mateo be *ezkondu aurrian* ez zan peskarako zalia (San Martin, *Zirikadak*, 107).
c. Bazekien txilibitua ioten, eta *il aurretxoan ere* doinu berri bat ikasteko irrikan omen zegoen (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 85).
d. *Esan aurrez*, bi bider gogoratu, *egin aurrez*, hiru bider (Azkue, *Euskalerraren Yakintza III*, apud *OEH*, s. v. *aurrez*).

Izenlagun ere bihur daitezke perpaus hauek, *-ko* atzizkia erantsita:

- (109) a. Zeruko urdiñaren sakona, laiño zurien egoneziña, ostroen *jausi aurretiko* gorritasuna eta [...] (Etxaide, *Joanak-joan*, 103).
- b. *Santa Kruz etorri-aurreko* egunetan iskritu bat azaldu zan (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 120).

Aditzondoa halakoa izaki, aurrekotasuna adierazten du forma honek, bere aldaera guztietan. Mendeko perpausak une batean gertatzen den gertakaria adierazten du hemen ere; perpaus nagusiko aditza, berriz, mota guztietakoa izan daiteke:

- (110) a. nagusia sukaldera jatxi zen bere *arratsalderoko lanak egiten asi aurretik* (Etxaide, *Joanak-joan*, 79).
- b. *Etorri aurretik* batedon-batzuek kontau bihar izan zetsen Eibar'en gorri asko zeuala (San Martin, *Zirikadak*, 104).
- c. Bera ere, *Jondone Jakara joan aurretik* gorrotoz eta iguiñez beterik zegon (Etxaide, *Joanak-joan*, 221).
- d. biek lanean jarraitu zuten, *ezkondu aurretik bezalaxe* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 147).

1.2.1.3. *-TU AITZINEAN*

Batez ere ekialdeko euskalkietan erabiltzen da forma hau, *-TU AITZINETIK* aldaera ere baduelarik. Mendebaldean ez bezalakoa da forma hauen maiztasuna: mendebaldean, *-TU AURRETIK* ablatiboduna da formarik erabiliena, eta ekialdeko euskalkietan, berriz, *-TU AITZINEAN* inesiboduna da maizenik erabiltzen dena.

Adizkiari dagokionez, partizipioa da menderatzaile honetako formarik ohikoena, eta ia bakarra, ondoko adibidetan ikusiko den bezala. Horren aldean erabilera urrikoa da aditzoia:

- (111) Funtsean *ezkont aintzinean* zuten amodio bera eta suhar hura bera zaukaten bihotzean batak bertzearentzat (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 58).

Eta urria, halaber, *-TZE(RA)KO*-ren gainean eginikoa:

- (112) a. *Iguzkia bere arrutan partitzeko aitzinetik*, Alba agertu baiño lehen lebanteko uhartzetik, Ardatz, arrudak zebilltzan yadanik farra, farra baratu gabe zuntza bat bill, bertzea tira (Goyhetche, *Fableac*, 77).
- b. Bada azken urthean, *hiltzerako aitzinean*, falta gabe, falta guztiak erremediatukoit (Axular, *Guero*, 193).

Aditzondoari dagokionez, maizenik erabiltzen den forma *aitzinean* da. *Aitzinexean* eta *aitzinttoan* aldaerek hurbiltasuna adierazten dute:

- (113) a. *Hil aitzinexian*, oraino ari zen bere lanari (*Herria*, 1956-2-23; ik. *OEH* s.v. aitzin).
- b. *Etorri aitzinttoan* pentsatu zuen hori eginen zuela.

Esan bezala, *aitzinetik* aldaera ere erabiltzen da, maiztasun txikiagoz bada ere:

- (114) a. *Eritu aitzinetik* ongi ezagutzen bazuen bere senarra, erituz gero etzakien burutik majurrago othe zagon (Irigaray, *Nafarroako euskal idazlariak*, 185).
- b. *egia hori ezagutu aitzinetik*, gerthatu zitzaiola askotan gogozko othoitzaren hastea, eta gero bere buruaren nonbeit aurkhitzea (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 82).

Goiko aldaera horietan *aitzin-* nahiz *aintzin-* formak ageri dira. Forma soilarekin, ordea, *aitzin* da honelako perpausetan inoiz ageri dena:

- (115) a. Oraiko gazteek [...] ez dute gutiago estimatuko eta maitatuko, *saindutu aitzin* ere, gazte baten bihotzaren berri barne barnetik zakien Saindu bat (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 92).

- b. *Harat joan aintzin ospitalean pasatzeko manatua nintzan* (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 98).

Aurrekotasuna adierazten duten beste perpausen jokabide bertsua erakusten dute forma honekin egindakoek ere. Denbora-erreferentzia ematen duen mendeko perpausak une batean gertatzen den gertakaria adierazten du; erreferentzia hori hartzen duen perpaus nagusiak, berriz, mota guztietako aditzak izan ditzake, ohi bezala:

- (116) a. *Yakindu zituen* [...] bera sorthu aitzinean gerthatu gauzak (Hiribarren, *Eskaraz eguia*, 8).
- b. Ori guzie Mainkerrak *aitortu zuen* il aitzinean (Izeta, *Dirua galgarri*, 77).
- c. Adamek *bazituen* aria handiak Yainkoarekin eta aingeruekin, erori aintzinean (Hiribarren, *Eskaraz eguia*, 43).
- d. Zerura altxatu aintzinean, berrogoi egun *eman* zintuen Dizipuluei zure legea irakasten (Duvoisin, *Liburu ederra*, 18).

1.2.1.4. –TU GABE

Denbora-balioa izaten du zenbaitetan forma honek ere. Bistan denez, aurrekotasuna adierazten du horrelakoetan: perpaus nagusiko gertakaria mendekoak aipatzen duena *gabe* –hau da, ‘lehenago’– gertatzen dela ematen du aditzera. Balio horrekin batez ere Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da.

Ez da beti erraza izaten perpausari denbora-balioa dagokionetz erabakitzen. *Helmugara iritsi gabe*, *besoak altxatu zituen* perpausak, esate baterako, adiera bi izan ditzake: lasterkaria ez zela batere helmugara iritsi eta, hala ere, besoak altxatu zituela, garailearena eginez, edo, bestela, iritsi zela, bai, baina iritsi aurretik hasi zela garaipen keinua egiten. Gehienetan, ordea, ez da dudakoa izaten esanahia, testuinguruak argitzen baitu, zalantzari lekuri utzi gabe.

Ondoko adibidean, esate baterako, agerikoa da perpausaren egilea ez zela mundura ‘sortu gabe’ geratu, bestela perpausak ez bailuke zentzurik izango. ‘Sortu baino lehen’ esan nahi du, eta bestek, hain zuzen, *baino lehenago*, *beno lehen* edo *aurretik* itzuli dute testu hori⁹:

- (117) *nihaur mündiala sorthü gabe*, ezagütü beinündüzün (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia III*, 144).

Balio hori bera dute ondoko adibideok:

- (118) a. *Arbola loratu gabe* nahi lukete fruitua bildu (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 180).
b. *Oilarrak jo gabe* nauk hik gaur ukhatuko (Zalduby, *Obrak*, 212).
c. Askotan, *gu etxeratu gabe*, ahantziak izaiten zitaizken guk han nonbait kantatu pertsuak (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 47).

Partizipioaren gainean egiten da forma hau: *loratu gabe*, *jo gabe*, *etxeratu gabe*... Ohikoaenez, adlatiboa ere erabiltzen da inoiz partizipioaren lekuan:

- (119) a. O gurutze, Probidentzia dibinoak, *ni mundura gabe* enetzat preparatua zadukana! (Haraneder, *Gudu izpirituala*, 106).
b. *Goizean bere aziendetarat gabe*, arratsean aziendetarik ethorri-eta, bethi lanari lotua zen (Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 69).

Argia gabe bezalakoetan, aditza isilpean dela pentsa daiteke:

- (120) Biharamunean, *argia gabe* jeikirik, eske bat egiten du Diegorentzat (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 107).

Aditzondoari dagokionez, *gaberik* aldaera erabiltzen da inoiz:

⁹ Ik. *OEH*, s. v. *gabe*, I. 1. b.

- (121) a. Zuhur bahaiz Ifernuan sar adi *hil gaberik* / Hil ondoan ez sartzeko atsekabez betherik (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa* I, 115).
- b. Egun harzaz orhit giten, othoi, *hara gaberik* (Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 57).

Bestetan bezala, partizipioarekin ez, baina denbora-esanahia duten izenekin eta aditzondoekin eratzen diren sintagmak postposizio-sintagma arruntak izan daitezke:

- (122) a. *Maiatzeko hogoia gabe* egina zatekeela (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 69).
- b. Herriko erretora *eguerdi gabe* etxerat deitu zuen (Zerbitzari, *Azkaine*, 99).
- c. Obedizazu emeki kontra ihardetsi gabe, berehala, *berandu gabe* (Pouvreau, *Philotea*, 248).

Pentsa daiteke, hori ere bai, horrelako sintagmetan isilpean utzitako aditzen bat dagoela, *izan* edo horrelako besteren bat. Baina, esan bezala, zenbaitetan perpausa barik postposizio-sintagma arrunt direla deritzogu. Bigarren adibideko *eguerdi gabe* hori, esate baterako, *eguerdian*, *eguerdirako*, *eguerdia orduko*, *eguerdia arte* eta horrelakoen pareko dugu.

1.2.1.5. *-TZERAKO* eta *-TU ORDUKO* formen aurrekotasun-balioa

Gorago esan dugun moduan, *-TZERAKO* eta *-TU ORDUKO* formak aldi-berekotasun estua ez ezik, aurrekotasuna adierazteko ere erabiltzen dira, bizkaieraz batez ere (ik. 1.1.2.1. eta 1.1.2.2., hurrenez hurren).

1.2.2. *Ondokotasuna*

Perpaus nagusiko gertakaria mendekoak aipatzen duenaren ondoren gertatzen dela adierazten dute atal honetan aztertuko ditugun perpausak. Asko dira nozio hau adierazteko erabiltzen diren formak, partizipioaren gainean eraikiak denak.

Batetik, *-TU ETA*, *-TUTA*, eta *-TURIK* forma ‘soilak’ ditugu. Perpausak aipatzen duen gertakaria burutua dela ematen dute aditzera hiru forma horiek bere soilean, eta haren ondoko denbora seinalatzen dute, gertakari nagusirako erreferentzia modura. *Autoa erosi eta* perpausak, esate baterako, erosketa egin ondoko denborara eramaten gaitu, *eta* horrek aurrera begiratzen baitu, ‘eta gero’ esango balu bezala. Ondotik beste atzizki edo aditzondoren bat duten formak baino irekiagoak dira hauek, ordea, nozio zirkuntstantzial bat baino gehiago adieraz baitezakete. Testuinguruaren arabera, esanahi bat edo bestea izan dezakete, eta, inoiz, bat baino gehiago ere bai perpaus berean: kausa eta denbora, baldintza eta denbora, etab. Are zabalagoa da inoiz-edo denbora ere adieraz dezakeen *-TU(A)Z* forma. Gainerako adierak eta erabilerak bestetarako utzita, denborari dagozkionak aztertuko ditugu atal honetan.

Bestalde, aurrekoen gainean eraikitako *-TU ETA GERO*, *-TUTAKOAN* eta *-TU ONDOAN*, *-TU OSTEAN* eta *-TUZ GERO* formak ditugu, ondokotasunaren nozioa modu agerikoagoan adierazten dutenak.

1.2.2.1. -TU ETA

Partizipioari *eta* enklitikoki erantsita eratutako forma hau Iparraldeko eta Nafarroako euskalkietan erabiltzen da batez ere. Bakoitza bere lekuan aztertzen ditugun *-TU ETA BEREHALA*, *-TU ETA LASTER*, *-TU ETA GERO* eta horrelako forma konplexuen oinarrian dago forma hau (ik. 1.1.2.4.; 1.2.2.2.).

Komeni da, gorago ere aipatu dugun bezala (ik. 1.1.2.4.), azalean itxura bertsua, eta are esanahi bertsua, duten egitura desberdin bi bereiztea. Juntadura dugu batean eta mendekotasuna bestean, ondoko adibideetan ikus daitekeen moduan:

(123) a. Lagunak agurtu, eta etxera itzuli gara.

b. Lagunak agurtu eta, etxera itzuli gara.

Juntaduraren kasuan, partizipioaren eta juntagailuaren artean egiten da –edo, bederen, egin daiteke– etena: *lagunak agurtu # eta etxera itzuli gara*. Perpausa mendekoa denean, berriz, *eta*-ren ondoan egiten da etena, partizipioari lotua baitago hura, enklitikoki, –*TU ETA* forma eratuz: *lagunak agurtu eta # etxera itzuli gara*. Azken honetan *eta* ez da juntagailua, menderatzailearen osagaia baizik. Batzuek, hain zuzen, marratxo bat ipintzen dute horrelakoetan partizipioaren eta *eta*-ren artean, bien arteko lotura seinatzeko: *agurtu-eta*. Enklitiko bilakaturik, bidea egin du *eta*-k juntagailu soil izatetik menderatzailearen osagai izatera (ik., horrelako bilakaeraz, *EGLU VI*, 200-203).

Juntaduran ez bezala, menderakuntzaren kasuan perpausen ordena alda daiteke: nagusiaren eskuinera eraman daiteke mendekoa, edo haren barruan kokatu:

- (124) a. Oherako bidea hartu zuten etxekoek, *gonbidatuak joan eta*.
b. Etxekoek, *gonbidatuak joan eta*, oherako bidea hartu zuten.

Hemen, bistan da, bigarren motako perpausak ditugu aztergai, –*TU ETA* forma menderatzailea dutenak. Partizipioa erabiltzen da, bistan da, egitura honetan: *ikusit eta, joan eta, sartu eta*... Haren lekuan, ohi bezala, adlatiboa ere erabil daiteke:

- (125) a. *Euskal-Herrirat-eta*, han ikusiko dut zer egin! (Larzabal, *Iru ziren*, 104).
b. *Bertzalderat-eta*, kondatu zituzten bideko gora beherak (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 80).

Ezohikoa da egitura honetan aditzoina, olerkietan-eta erabilia:

- (126) Gizona zein triste den *esposa gal eta*, lorikan ezin egin, beti pentsaketa (*Astolasterrak*, 72).

Esan dugun moduan, ondokotasuna adieraz dezake forma honek, perpaus nagusiko predikatua izaera guztietakoa izan daitekeelarik:

- (127) a. Jan-edan eta, / *pestaliarrak badoatzi* (Oxobi, *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, 42).
- b. Dupak bildu-eta, *molde onean antolatu behar* (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 71).
- c. Ezkongaietan zerbait banintzen, *ezkondu-eta ezer ez* (*Euskal kanta*).
- d. Ardi esne xorta bat eginik *edan-eta hari zen beti gasna egiten* (Zerbitzari, *Azkaine*, 39).

Beste denbora-ñabardura batzuk ere ematen ditu inoiz aditzera:

- (128) a. *Ezen Mazedoniara etborri eta*, eztu ukhan gure haragiak pausurik batre (Leiçarraga, *Testamentu Berria*, 2 Cor 7, 5).
- b. *Sorthu eta* hil ginate, hark haz ezpaginitza (Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 119).

Lehen adibideko perpausak *Mazedoniara etborri zenetik* esan nahi duela dirudi. Eta bigarrenak, berriz, *sortu eta berehala*.

Horrezaz gain, *eta*-k duen adiera zabalari esker, denboraz bestelako balioak ere izan ditzake, noski. Baldintza, modua eta azalpena, esate baterako:

- (129) a. *ahal izan-eta*, berak eginen zituen (Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 91).
- b. *Xilintxa hau jo eta*, hunarat ekharraraziko ditiat oro berehala (Barbier, *Supazter chokoan*, 16).
- c. *Zure ontasun, justizia eta botherea ikusi-eta*, beren ahal guziaz ospatzen zaituzte (Duvoisin, *Liburu ederra*, 72).

1.2.2.2. –TU ETA GERO

Batez ere mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da forma hau, eta, bistan denez, *gero* aditzondoak areago seinalatzen du –TU ETA soilak berez adierazten duen ondokotasuna.

Forma soilean bezala, egitura bi bereizi behar dira honetan ere: juntadura (*lanak egin, eta gero etxera joan nintzen*) eta mendekotasuna (*lanak egin eta gero, etxera joan nintzen*). Bigarrena aztertuko dugu hemen, agerikoa denez.

Ondo ikusten dira forma honen erabileran *eta* enklitikotik *-ta* atzizki adberbialera daraman bidearen urratsak. Batetik *eta* enklitiko osoaren erabilera dugu, maiztasun handi-handikoa ez dena:

- (130) a. *Ezkondu eta gero aitzekiak milla* (Soroa, *Anton Caicu*, 116).
- b. Bañan iyo zanian kezketan jarri zan okerreko lekua zitekela izan, *pixka bat duda-mudan egon eta gero* (Bilintx, *Bertso ta lan guziak*, 149).
- c. Zer egin zuen, bada, Fernando otsandiko orrek, bere izena, *urteak joan eta gero ere* aiñ pozik gogora ekartzeko, aiñ biotzez goratzeko? (Mujica, *Fernando Amezketarra*, 18).

Maizago erabiltzen da, mendebaldean ohikoa denez, *ta* forma laburtua. Idazleek bereiz idazten dute askotan *ta* hau, atzizkitzat ez dutela salatuz:

- (131) a. Txanton [...] etxeko bazter batean ikusi genduan, *arrangura-unea gainditu ta gero*, barriro ere itxaropen epelaren gozotasuna milizkatuaz (Erkiaga, *Arranegi*, 93).
- b. Badira urte batzuk Arnegitik Orreagara igon genduala iru autokar aundikin, *mugan ordu-bete edo bi itxaroten egon da gero*, muga-agintari baten larritasunakaitik (Alzola, *Atalak* 121).
- c. Ongi geran orduan obeto nai degu, *galdu ta gero* ona ezagutzen degu (Iturriaga, *Fábulas*, 61).

Edo marrarekin:

- (132) Eta *aitorketa egin-ta gero*, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak zer egingo du? (*Gasteizko Kristau-Ikasbidea*, 71)

Ez gutxitan, hala ere, partizipioari lotuta idazten dute, enklitikoaren lotura areago seinalatuz eta, bide batez beharbada, atzizki izateko bidean ikusten dutela iradokiz:

- (133) a. Ikusi eztabenak eztaki zelan artu oidituen, [...] *itxasoagaz guda ezbarðiñ ikaragarrian ibillita gero* legorrera datozen arrantzale anaiak (Aguirre, *Kresala*, 30).
- b. Jesus'ek bizi zala askotan esan izan zien, *biztuta gero* Galilea'n ikusiko zutela (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 470).
- c. Gura badozu *zartuta gero* luzatutea bizia, ekarriko dot Paradisuti onetarako iakia (Azcue, *Parnasorako bidea*, 123).

Forma honetako adizkia partizipioa da, goiko adibideetan ikus daitekeen moduan¹⁰. Aditzondoari dagokionez, berriz, *geroxe*, *geroago*, *gerotxoago*, *geroz* eta *gerora* aldaerak erabiltzen dira inoiz:

- (134) a. *Zenbait istori alai eman ta geroxe*, eriozkoetara egin dute bide (Orixe, *Euskaldunak*, 115).
- b. *Zartu ta geroago* / bertsoetan asi (*Euskal Jokoak Bertsoetan II*, 132).
- c. Barru ta kanpoko illuntasunean egon ziran gure gazte biak elizan [...] elizaiñtalleak, *arimena jo ta gerotxuago*, atek itxi zituan artean (Aguirre, *Kresala*, 26).
- d. Ekusiko dituzu besteak Elizako atetean pipa, edo zigarroa artzen: batzuek zekorren tatxak, edo alabanzak kontatzen; besteak *Meza asi ta geroz ere* erausian daudela (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 530).
- e. Alako batean, *etsita gerora*, zerbaiten zantzua urrutira (Etzaniz, *Lur berri billa*, 98).

¹⁰ Gaur egun entzuten dira inoiz partizipiorik gabeko [izena *eta gero*] egiturako esaldiak: 'Partida *eta gero* hasi ziren istiluak'. Egitura horrek ez du aintzat hartzeko moduko lekurik tradizioan.

Izenlagun bihurtzen da, ohiko moduan, *-ko* atzizkia hartuta:

- (135) a. *Ilda geroko* Biztutzea nola zitekean, ezin igerri zioten (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 408).
- b. *Ura juanda geroko* presak ez du balio izaten (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 253).

Esan bezala, ondokotasuna adierazten du forma honek, ohiko moduan:

- (136) a. Bertolda, *apalduta gero*, gau atakoz zaldittegira juan zan lotara (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 22).
- b. *Urak joanda gero* errekeari esia egitea, ezta beiñere onuratsu izan (Erkiaga, *Arranegi*, 90).
- c. Ontaz bazkaria bukatuta, *basamortuko aize zabalean atsegiñez janda gero*, oraindik beste puxka batean egon giñan atsedean artzen (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 80).

Denbora-esanahia nahiko zehatza duen arren, denborarekin batera beste balio batzuk iradoki dezake forma honek ere:

- (137) Nongo arpegijaz juango gara gu barriro bakaldun aurrera, *bere aginddubaguk ausi dogun lez ausitta gero?* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 49).

Denboraz gain kausa edo azalpena adieraz dezake perpaus horrek; ‘hautsi dugunez gero’ da hor ulertzen dena.

1.2.2.3. *-TUTA*

Gorago aztertu dugun *-TU ETA*-ren forma laburtua izan daiteke zenbaite-tan, beharbada, *-tu ta* segida, non (*e*)*ta* enklitikoa dagoen. Bestelakoa da, or-

dea, partizipioari –*TA* atzizki adberbiala erantsita mendebaldeko euskalkietan sortu den forma¹¹, beherago ikusiko dugun –*TURIK* formaren baliokide dena:

(138) a. Berandu jaikita eguna laburra izaten da [= jaikirik].

b. *Lan gutxi eginda* ezin da asko irabazi [= *eginik*].

Erabilera eta balio askotara irekia dago forma hau. Hemen, denborazkoa baizik ez dugu aipatuko, labur zurrean. Horrelakoetan, bistan da, ondokotasuna adierazten du, ohiko moduan:

(139) a. *Itzketa onetan luzaro Kafarnaum'en jardunda*, Jesus bere Apostolu eta ikasleakkin Jerusalem'eronz abiatu zan (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 411).

b. alkar jarri zan bere lagunakin *ara joanda* otsegingo ziela (Arana, *San Ignacioren bicitza*, 63).

c. Katamixarrek, *guda amaituta*, asi yakezan jarraika (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 243).

Aurretik *behin* adberbioa duela ere erabiltzen da, mendeko perpausak seinaturaluriko unea areago markatuz:

(140) a. *Baña bein neska maitebidean gainbera irristaka asita*, nork lekike noraño lijoaken? (Agirre, *Uztaro*, 149).

b. *Beñ gatxena esanda*, ostiango guztia Zaldunak erraz azaldu zetsan (Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 483).

Askotan, bistan da, denborakoarekin batera bestelako balioak ere izaten dituzte perpausok, hala nola, baldintza, kontzesioa, modua edo kausa:

¹¹ Bistan da (*e*)*ta*-tik sortu dela atzizki hau: *ikusi-ta* > *ikusita*, *egin-da* > *eginda*. Ik. Trask, *The History of Basque*, 203, 112-113, 216.

- (141) a. *Ameriketara joanda*, nori kanta bear zizkionat ene biotzeko kezka, naigabe ta pozaldiak? (Etxaide, *Joanak-joan*, 58).
- b. Guziak itsasora urreratu, eta ontzian sartu ziran, baña *gau guzian sareakkin ibillita*, ezer ere arrapatu etzuten (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 474)
- c. *Etxeatzeko orma gañetik jauzi bizkorra eginda*, an dijoa zurrunbilloan norabait (Agirre, *Uztaro*, 13).
- d. *Dantzán asko eginda* zeuden ankan torpe (*Jan-Edanaren bertsoak I*, 96).

1.2.2.4. –TUTAKOAN

Forma honetako –ko– atzizkiak jatorrian isilpeko izen bat dagoela iradokitzen du ('lan hori egindakoa' < 'lan hori egindako *denboran / garaian...*', esate baterako); isilpeko izen zehatzik bilatzen ibili gabe, ordea, gramatikalizaturiko forma da hau, perpaus nagusiko gertakaria denboran kokatzeko erabiltzen dena¹² (ik. 1.0.2.2.).

Aurrean behin aditzondoa duela erabiltzen da inoiz:

- (142) *Bein alkar jotakoan* alkar dite ezagun (Orixe, *Euskaldunak*, 29).

Perpaus hauetan ere, mendekoak une batean gertatzen den gertakaria ematen du aditzera, une hartatik aurrera doan denbora seinaltzeko. Perpaus nagusiko predikatua, berriz, izaera guztietakoa izan daiteke:

¹² Ez da nahasi behar, noski, denbora adierazten duen forma gramatikalizatu hau, izen zehatza daraman ohiko erlatiboarekin. Izenlaguna izenaren ondora pasatzen denean gerta daiteke agerian –*tutakoan* forma hori; *erositako autoan* esan beharrean *auto erositakoan* esaten denean, adibidez. Edo izena testuinguruari esker eskura daitekeenean, modu batean edo bestean; *esandakoan gaude* esaldian, adibidez.

- (143) a. Eliz-gauzak egiten zazpi egun igarotakoan, *Nazaret'eronz, gurasoak itzuli ziran* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 370).
- b. Etxera heldutakoan, *amak diruak khendu ta itxulapikoan sartu zizkion* (Oskillaso, *Kurloiak*, 60).
- c. Mutill gazte zeralarik alkandora bat ezpadezu, *ezkondutakoan ez dituzu bi izango* (Urruzuno, *Ipui sorta*, 43).

Esan bezala, batez ere denbora adierazten du forma honek, *-TUTA* soilak ez bezala. Adieraz dezake, ordea, honek ere bestelako ñabarduraren bat edo beste, denborakoaz gain:

- (144) a. Ezta arritzekoa, gizagajo au gerra bukatu baño len nere kontra ari izatea; baño bukatu zanetik, *ainbeste saldukeri ikusitakoan*, arritzen naiz, aurrera ere nere kontra ari izatea (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 140).
- b. *Gogo onakin asitakuan* errez egiten da lana (Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, 294).
- c. Ez, ezeuen jakingo; *baña jakindakoan be*, orduantxe ziarduen legez jardungo euen lanean (Aguirre, *Kresala*, 205).

Kausa edo azalpena adierazten du lehen adibideko perpausak (ik. hemen Kausazko eta helburuzko perpausak, 2.1.8 atala), denboraz gain, maila-adberbioak horretara bideratzen duelarik; ‘hainbeste saldukeria ikusi duenez gero’ da hor iradokitzen dena. Baldintza iradokitzen du bigarrenak, denboraz gain: ‘gogo onez hasten bada...’. Eta kontzesio modukoa da hirugarrena, baldintzari *ere* erantsita: ‘jakingo balute ere’ da hor esaten dena (ik. hemen Kontzesio-perpausak, 4.5.1. atala) eta Baldintza-perpausak, 3.0.).

1.2.2.5. *-TU ONDOAN*

Berezkoa dute *ondo* izenaren gainean eraturiko aditzondoek ‘ondokotasuna’ adieraztea. Hala egiten du haiekin eraturiko mendaratzaileak ere. Hiru

dira aditzondoak forma honetan dituen aldaera nagusiak: *ondoan*, *ondoren* eta *ondorean*, horiez gain, *ondorenean* eta *ondotik* ere aipatu behar direlarik.

Ohiko adizkia partizipioa da: *etorri ondoan*, *egin ondoren*... Adlatiboak ere har lezake haren lekua:

- (145) Alo jaunak presuan behar zütiet zerratü, eta *hara unduan* untsa bürdüñaz kargatü (*Xarlemaña*, 860).

Aditzoina ere erabiltzen da inoiz, zubereraz batez ere:

- (146) a. *Saintien bidia zuñ den ezagüt unduan*, eztüzü behar hantik gibeltü (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia III*, 234).
b. Arauz sinhetsi düzü *ikus ondon obra* (Etchahun, *Bertsoak*, 128).

Aditzondoak, esan bezala, aldaera bat baino gehiago ditu.

a. *Ondoan* aldaera, garai batean erabilera zabalagoa zuena, gaur egun batez ere Iparraldean erabiltzen da:

- (147) a. *Eztai gisako lege au igaro onduan* irten ziraden aizetara (Beovide, *Asis-co Loria*, 33).
b. *Orduan lagun guztiak bere gibelerat igorri ondoan*, jokoia berriz egin zuen denen agerian (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 105).
c. *Xahartu ondoan ere*, pesta zitzaion hetaz orroitzea (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 163).

Aditzondoa –*TU ETA*-ri erantsita ere erabiltzen da:

- (148) a. *Biotza zabaldurik jan eta ondoan*, barrengo atsegiña laster da kanpoan (Echagaray, *Festara*, 152).
b. Dudik gabe lagunek boltsa *ustu eta ondoan*, bota izanzen zuten ugaldera (Izeta, *Dirua galgarri*, 66).

Ohikoa da, bestalde, izenlagun bilakatzea forma hau, *-ko* atzizkia erantsiz:

- (149) a. Hobe da [...] behin ere likitstu gabe egoitea, *likitstu ondoko* garbitasuna baiño (Axular, *Guero*, 550).
- b. Honek *alemanek Frantzia hartu eta ondoko* burrukarako ere balio duela esango nuke (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak VI*, 39).

Besterik da *-KO(TZAT)* atzizki destinatiboa daramanean, zerbait *noizko* den adierazten baitu:

- (150) a. Beretzat bil dezake [...] uztaño bat gorria; utz, *hil ondoko*, zerbeit bere haurrentzat (J. Etchepare, *Buruchkak*, 200).
- b. Eta *hil ondokotzat* zure lur-saindua / izan dadila gure ezurren lekua (Bordel, *Bordel bertsularia*, 58).

b. Ablatiboko *-ren* (< *-rean*)¹³ atzizkia daraman *ondoren* aditzondoak Hegoaldean du erabilerarik maizkoena, gipuzkeran batez ere:

- (151) a. *Musika bukatu ondoren* ostera igo ziran biak, len alkar ikusitako tokira (Anabitarte, Poli, 46).
- b. Jauregi izan omen zen Aristimuñoren kuttuna, *baita Lizardi eta Orixe agertu ondoren ere* (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak IX*, 44).
- c. inguratu zitzaigun beste moja bat, nunbait euskeraz mintzatzen ari giñala nabaituta: eta *baimena eskatu ondoren*, jardun zan gurekiñ batean izketan (Mocoroa, *Damuba garaiz*, 34).

Eta *-TU ETA*-ri erantsita:

- (152) a. Bidean zoazilerik, sartu ziren ostatu batean bermut bat artzera; *an egonaldi labur egin ta ondoren*, goan ziren beren etxera (Izeta, *Dirua galgarri*, 61).

¹³ Ik. *OEH*, s.v. *ondorean* eta *ondoren*.

- b. *Amerikara joan da ondoren* burruka-aldiya Habanan (*Euskal Jokoak Bertsotan II*, 153).

Izenlagun bihurtua, *-ko* atzizkiarekin:

- (153) Gezna zail batek Alostorrera narakar, izan ziran *agurtu ondorengo* bere lenen itzak (Etxaide, *Alos Torrea*, 42).

Hori ez bezalakoa da, hemen ere, destinatiboko *-ko* atzizkia daramana, zerbait *noizko* den adierazten duena:

- (154) *Ni il-ondorengo*, lantxo bat utziko diet gizajoei (Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 109).

Bestalde, forma honen balio nagusia denborazkoa den arren, zenbaitetan kausa edo azalpen adiera ere izan dezake, denborazkoarekin batera edo haren orde:

- (155) a. Eta orretaz itzegiten asi geran ezkeru, ta *sagardotegiko aurrean ikusten dedana ikusi ondoren*, gauza bat esan nai nizuke (Alzaga, *Ramuntxo*, 43).
- b. Tira, tira, gizurra jirudik, *ainbeste denporan eskolan ibilli ondoren* orrenbeste ez jakitzia (San Martin, *Zirikadak*, 84).
- c. Horrenbeste jende, *hain aspaldidanik, ta alferrik*, dirudienez, *horrezaz mintzatu ondoren*, nola nahi duzu nik izkutu sakon hori azaltzea? (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 215)

Adibide horietako mendeko perpausak *noiz* galderari ez ezik, *zer dela-ta* galderari ere erantzuten diotela esan daiteke, hau da, nolabait azalpena ere adierazten dutela.

c. Ablatibo zaharreko *-rean* atzizkia bere horretan daraman *ondorean* forma ere Hegoaldean erabiltzen da batez ere, Iparraldeko testuetan ere inoiz edo behin agertzen den arren:

- (156) a. Gau artan, etxeko maillak aitearen batean igon zituan, *aurrekuari gabon esan ondorean* (Erkiaga, *Arranegi*, 59).
- b. Nai ta nai ez, eraman du tiraka kuarto sokorrora, eta medikuak, *galdera batzuek egin ondorian*, jarri diyo kopetian zapi zuri aundi bat (Iraola, *Oroitzak*, 97).
- c. Itxi eutsen guztiak prankotarrari, inguratu eben euskalduna, ta *abegirik pozgarriena egin ondorean*, Euskalerriko albisteak itanduten asi iakozan (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 146).

Eta *-TU ETA*-ri erantsita:

- (157) a. Eta luzaro burruka alkar ezin benzutuz *jardun eta ondorean*, menderatu zeban noizbaten ere (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 504).
- b. Andra-bazkari ta merienda *bautizatu ta ondorian* (Anduaga, *Aitonaren uzta*, 116).

d. Gorago aztertu dugun *-TU ONDOREN* formari inesiboko atzizkia erantsita eratzen den *ondorenean* forma haren aldaera soiltzat har daiteke. Hura bezala mendebaldean erabiltzen da hau ere, baina hura baino askoz ere bakanago:

- (158) a. Igande goizez, lagun artean, ustez osasun onean, Erio beltza eldu zitzaion *bazkaldu ondorenean* (Basarri, *Kantari nator*, 88).
- b. *Otoi beruak egin Ondorenian* [...], Mutiko bat dakuse Aldamenian (K. Enbeita, *Bertsoak*, 98).

Besteak bezala, *-TU ETA*-ren gainean:

- (159) a. *Vitorin egun batzuk pasa ta ondorenean*, gure batalloi onek izan zituen bajak berriro osatu eta orduantxen erten nintzan ni batalloi ontan (Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 78).
- b. *Kintak jarri ta ondorenian* beste hogeit bat urtian zenbait amaren seme onradu Cuban sartu zan lurpian (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak II*, 84).

Balio destinatiboa du, azkenik, *-TU ONDORENERAKO* formak, zerbait *noizko* den adierazten baitu:

- (160) *kapea artu ondorenerako* ekarriazi ostalariyari ardo-aundiya ta pastelak (Mocoroa, *Damuba garaiz*, 25).

e. Erabilera urria du *-TU ONDOTIK* aldaerak:

- (161) Mintzaroa etorri zitzaidan *mintzul izan ondotik* (Orixe, *Aitorkizunak*, 19).

1.2.2.6. *-TU OSTEAN*

Batez ere bizkaieraz erabiltzen den forma honek ere ondokotasuna adierazten du, ohiko moduan:

- (162) a. guazan etxera ezertan geratu baga, ta *jan ostian* urtengo dogu beste gauza batzuk ikustera (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 136).
b. Ez sarerik eda, *usoak aldegin ostein* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 110).
c. Hunegaitik, *euskaraz hiru edo lau hitz esan ostein*, erderaz hasten zan bethi azkenean (Oskillaso, *Kurloiak*, 218).

Ondotik *-kotzat* atzizki destinatiboa daramala:

- (163) Betor kopea bete beterik, kafetara botateko bat, beste bat gero neuk edateko *kafea artuta ostekotzat* (Azcue, *Parnasorako bidea*, 94).

1.2.2.7. *-TU(A)Z*

Partizipioari *-z* atzizkia erantsita sorturiko formak ere erabilera asko ditu (ik. Baldintza-perpausak, 3.2. atalean, eta Kontzesio-perpausak 4.5.2. atalean, *gero* daramatela ondoren; eta Moduzko perpausak, 5.1.3. atalean). Besteak

beste, denbora adieraz dezake, nolabait, *-TUTA* eta *-TURIK* formek bezala, baina haiek baino are modu lasaiagoan. Ondokotasuna iradokitzen du horrelakoetan, bai forma mugatuan bai mugagabeen:

- (164) a. Erretore-etxeko ateetara eraman zuen, eta, *nik deitu arte ago emen, esanaz*, bera jan-gelara igo zan (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 50).
- b. Eta, an aurkitu zituen *ezagun eta adiskideak agurtuz*, mai-ertzean eseri ziran (Agirre, *Uztaro*, 44).

Ikusten den moduan, ez da zehatza forma honen denbora-balioa. Bera dago, hala ere, denbora-nozioa modu zehatzagoan adierazten duten *-TUAZ BATERA* (1.1.2.6.) eta ondoko atalean ikusiko dugun *-TUZ GERO* formen oinarrian.

1.2.2.8. *-TUZ GERO*

a. Ohikoa da *gero* postposizioak osagarri instrumentala izatea: aditzondoaren edo izenaren gainean eraikia *-atzoz gero* eta *igandeaz gero*, hurrenez hurren-; oinarrian perpaus jokatua duena *-etorri denez gero-* (*EGLU VI*, 106-109); edo *-TU(A)Z* formaren gainean eraikia *-amaituz gero-*, hemen aztergai duguna.

Forma hau partizipio mugatuarekin ere erabili izan da inoiz, batez ere orain baino lehenago, *-TUAZ GERO* aldaeran:

- (165) a. *Ondasunak galdu azkero* dira ezaun (*Refranes y Sentencias*, 433).
- b. Ikusiaz gero zeu, ene eguzkia (Sarasola, *Contribución al estudio de textos antiguos vascos*, 5.1.3., 86).
- c. *Luzaroan inguru-begira ibilliaz gero*, zokondoko seskadiraño aurreratu zan zalantza bizian (Agirre, *Uztaro*, 164).

Gehienetan, ordea, mugagabearekin egin izan da, eta gaur egun hori da erabilera ia bakarra: *galduz gero*, *eginez gero*.

Tradizio bi ditu euskarak forma honen gauzatzean. Iparraldeko euskalkietan bere horretan gordetzen da *-tuz* forma, *-z* atzizkia partizipioari lotuta atxikiz: *-tuz gero*. Hegoaldean, berriz, atzizki hori partizipiotik askatu eta *gero* aditzondoari itsatsi zaio aurretik, *ezkero* forma sortuz. Aurreko *e-* bokala berekin gordetzen du beti hitz horrek, baita *-z* atzizkia lotuta doanean bokalik ez denean ere; *galdu ezkero* esaten da, alegia, atzizkia lotuta doanean *galduz gero* den arren. Kontsonantez amaituen analogiaz den hori (egin *ez gero* > egin *ezkero*), forma mugatuaren eraginez (*galduaz gero* > *galdu azkero*) edo aparteko hitza bilakatzean aurreko bokal protetikoa beharrezkoa duelako (**zkero*), kontua da hitz askea denean beti daramala aurretik *e-* bokala¹⁴.

Forma honetako ohiko adizkia partizipioa da, goiko adibideetan ikusten den moduan¹⁵. Adlatiboa ere erabiltzen da:

- (166) a. Hamar liberaz pisutua naiz, *Maria gure etxeraz geroz* (Barbier, *Supazter chokoan*, 152).
- b. *Lurrera ezkero neure Maria*, Iauna zetako dot nik bizia? (Azcue, *Parnasorako bidea*, 32).
- c. Orduan, *fraiden eskuetaraz geroztik*, adio arthaldea Saratarrentzat (Elissamburu, *Piarres Adame*, 73).

Postposizioa, berriz, hiru aldaera nagusitan erabiltzen da: *gero*, *geroz* eta *geroztik*.

¹⁴ Forma honen idazkera batuari buruz, ik. Euskaltzaindiaren 26. araua: http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0026.pdf.

¹⁵ Salbuespen gisa ageri da inoiz aditzoina, adizki horrek leku askorik ez duen Hegoaldeko testuetan: *buka ezkero*, *itzul ezkero*, *agor-ezkeroz*. Hona adibide pare bat:

- a. *Donostia auspez itzul ezkero*, sortu dezu zero (Etxaniz, *Lur berri billa*, 229).
- b. *Elizkizuna buka ezkero*, zeramatela etxera (Orixe, *Euskaldunak*, 409).

Iparraldean, *-TUZ GEROZ* da formarik erabiliena, bai tradizioan eta baita gaur egun ere, *-TUZ GEROZTIK* duela ondotik; *-TUZ GERO* testu zahar batzuetan ageri da, XVI.-XVII. mendeetan batez ere.

Hegoaldean, alderantziz, *-TU EZKERO* da aldaerarik erabiliena; *-TU EZKEROZ*, berriz, gipuzkeraz eta goi-nafarreraz erabiltzen da batez ere, aurrekoa baino askoz urriago bada ere; eta *-TU EZKEROZTIK* are urriago, hau ere gipuzkeraz batez ere.

Beheragoko adibideetan ikusiko ditugun hiru aldaera nagusi horiez gain, badira, urriago bada ere, han-hemen erabiltzen diren beste aldaera batzuk. Hala, *ezketiño* bizkaierazkoa, *ezkeroan*, *ezkerokoan* eta *ezkeroztandik*:

- (167) a. *etxe ontan sartu ezketiño etxoat gauz onik ikusi* (Orixe, *Tormes-ko itsumutilla*, 79).
- b. Eta ara bere okerrago, *bein ezkontzako berbea emon ezkeitio*, ezkongei biok alkarregaz bazagoze (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 149).
- c. An billatu eban gizonagaz *itz egin ezkerokoan*, pekuan gelditu zan (Aguirre, *Añemendiko lorea*, 84).
- d. esaiek, *ortik aldegin ezkerokoan* nere otoitzetan gogoan iduki ditudala (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 76).
- e. Biotza poz-pezik paratzen zait neri, *edan ezkeroztandik kopatxoren bat* (*Jan-Edanaren bertsoak II*, 147).

Behin adberbioa aurretik dutela erabiltzen dira inoiz forma hauek:

- (168) a. Bein Mollarriko arkaitzaren mugara iritsi ezkeru, txaneltxora jauzi egiteko asmoa zun (Aguirre, *Uztaro*, 135).
- b. Zuhaitz landareak [...] *behin hartuz gero* erroak, eta zainak *hedatu eta egotziz geroztik*, eztute gehiago urezko fraskadura beharrik (Etcheberri Sarakoa, *Gomendiozko gutuna*, 396).

- c. Egia *behin ezagutuz geroz*, begirik ez du haren ikhusteko baizik (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 131).
- d. Baiña *bein konbentura ezker*o, aren libururako ta ikasketarako joerak beti erlijiozkora egiten du (Gaztelu, *Musika ixilla*, 164).

Behin ondotik:

- (169) Zonbaitek uste dute, *sortuz geroz behin*, bihia segur dela hazi onarekin (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 119).

Eta, bestalde, gorago aipaturiko hiru aldaera nagusiak, hau da, *gero*, *geroz* eta *geroztik*, izenlagun bilaka daitezke, *-ko* atzizkia hartuta:

- (170) a. *Ameriketara aldegin-ezkeroko* bi gerrateak gogora zaizka bat-batetan (Mokoroa, *Erraondo-ko azken danbolinteroa*, 14).
- b. Hanitxek *hunialat ütziüliz gerozko* urthiak khuntatzen dütie (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 66).
- c. Xalbat, etengabean maitasun guna zerion iturri garbitik elikatu zen *ezkonduz geroztiko* urtetan (Etxaide, *Joanak-joan*, 162).

b. Balio nagusi bi ditu forma honek: denbora ez ezik, eta hura baino maizago, baldintza adierazteko erabiltzen da gaur egun (ik. Baldintza-perpausetan 3.2. atala). Gehienetan ez da arazorik izaten perpausaren balioa bereizteko. Baldintza da, jakina, denborazkoa izateko modurik ez duenean; aditzak denbora-une bat seinatu beharrean, egoera edo ariketa adierazten duenean, esate baterako: *ahal izanez gero, nahi izanez gero, jakinez gero, edukiz gero, ari izanez gero...* Aditz hauek, denborazko perpausak eratzeko, ‘egoera’ edo ‘ariketa’ horren une bat, hasierakoa edo amaierakoa, seinatu behar dute, horretarako modurik baldin badute.

Perpaus nagusiak ere laguntzen du balioa bereizten. Honek bururaturiko gertakari bat adierazten duenean, mendekoa denborazkoa da: ‘ikasketak amaituz gero *Ameriketara joan zen*’. Baina perpaus nagusian *litzateke, luke* edo horrelako formaren bat ageri bada, argi da baldintzaren aurrean gaudela: ‘ikas-

ketak amaituz gero, *Ameriketara joateko beka lortuko luke*'. Mutur argi bi horien artean bada, ordea, anbiguotasunerako esparru bat. Aditza geroaldian denean, esate baterako, bietara uler daiteke perpausa: 'ikasketak amaituz gero *Ameriketara joango da*'. Testuingururik gabe, 'ikasketak amaitu eta gero' nahiz 'ikasketak amaitzen baditu' uler daiteke perpaus hori. Testuinguruak argitzen du horrelakoetan nolako esanahia ematen dion hiztunak perpausari. Zenbaitetan, hala ere, balio biak izan ditzake:

- (171) a. Orduen, *leiduten da eskribiduten ikesi ezker*o, eztabe nekazarixek gehixa' o ikastetxera joateko biherrik (*Oskillaso, Kurloiak*, 113).
- b. ezta zetan esan-be, nire alabearen zentzuna daukanak, *ezkondu ezker*o, jakingo dabela senarra daukana (*Echeita, Josecho*, 332).

'Ikasten badute' eta 'ikasi eta gero' izan daiteke lehen adibideko perpausaren esanahia; eta 'ezkontzen bada' nahiz 'ezkondu eta gero', bigarrenarena.

Aipatu bi adiera nagusi horiez gain beste ñabardura batzuk ere izan ditzakete perpausok. Horrela, denborazkoak izanik ere, ondokotasuna ez, baina gertakari baten *noizdanikoa* ere adieraz dezakete (ik. 1.3.1.1.):

- (172) *Piarres eta Engrazi ezkondu ezker*oztik ia bost urte igaro dira (*Etxaide, Joanak-joan*, 108).

Ondokotasuna adierazten dutenean perpausok, esan bezala, denbora-une batean gertatzen den gertakaria adierazten dute, eta une horrek ematen dio erreferentzia perpaus nagusiko gertakariari, hau haren ondoren gertatu dela adieraziz. Hiru aldaera nagusiek balio dute ondokotasuna adierazteko:

- (173) a. Ill zen Alexandro Errege hau mundu guzia beretzen zebilela ta *Indiko bazter horduko agertu ziranak ere irabazi ezker*o (*Mendiburu, Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 221).
- b. Egia da, *zahartuz gero, adin batera helduz gero*, odola hotzten da, naturaleza flakatzen da (*Axular, Guero*, 376).

- c. Ezkondu ezkeroz, etxeko alabarik maitagarriena bezela artu zuten aitagi-amagiarrebak (Etxaide, *Joanak-joan*, 98).
- d. Gazetaz bertzerik egin du, bai hartan ari zelarik eta bai *hura utziz geroz* (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 158).
- e. Izendatu dedan mutil Ataungo au, geroztik izan omen zan toreatzallerik oberenetakoa; zeña laurogei ta geigo urterekin ill zatekean *ni jaio ezkerostik* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 250).
- f. *Arratsak bazterrak ilunduz geroztik*, behar zuten haatik guziek laster oheratu (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 63).

1.2.2.9. –TURIK

Forma hau ere adiera asko dituen da (Kausazko eta helburuzko perpausetan 2.1.8. atala; Kontzesio-perpausetan 4.5.1. atala, eta Moduzko perpausetan 5.1.1. atala). Denborazkoa izaten da zenbaitetan, eta orduan ondokotasuna adierazten du, ohiko moduan:

- (174) a. *Eta andreari agur handi bat eginik*, juan zen bere bidean (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 56).
- b. *Gure udako itzulia eginik*, hemen gira berriz, irakurle maiteak (Zubiri, *XX. mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 101)
- c. *Amaiturik festaak*, nok esan lei zer igaroten dan bideetan? (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 131).

Aurretik behin adberbioa duela erabiltzen da inoiz:

- (175) a. Erraz da [...] iltea edozein bizio txar bere asieran; *baña bein andi eginik*, ainbat gatzago (Añibarro, *Lora sorta espiritual*, 106).
- b. Etsaiaren marka berekin daraman irugarren jende mota da, *Jainkoaren itza bein biotzean arturik*, leneko bekatuetara berriz biurtzen dana (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 599).

Askotan, denborarekin batera bestelako balio batzuk izaten ditu forma honen ere, perpaus berean; azalpena edo baldintza, esate baterako:

- (176) a. Eziñ ukatuko dizut bada, *ikusirik zure borondate aiñ ona* (Urruzuno, *Ipui sorta*, 42).
- b. Izanda, lana; *galdurik*, damu; ta ez bein ondo dana (Zavala, *Fábulas*, 532).

1.3. IRAUPENA

Kapitulu honetan aztergai izango ditugun perpausek perpaus nagusiko gertakariaren iraupena adieraztea dute helburu; *noiz* izan den adierazteaz gain, *zenbat irauñ duen* ere ematen dute aditzera, modu batera edo bestera. Perpaus jokatuaren azalpenean ikusi genuen bezala (ik. *EGLU VI*, 102-103), hiru modutara egin daiteke hori: gertakariaren aurreko muga, hau da, *noizdanikoa* seinalatuz (a), haren azken muga edo *noiz artekoa* seinalatuz (b), edo *irauñen osoa* adieraziz (c):

- (177) a. *Ikasketak amaituz geroztik* ari da lanean.
- b. *Ikasketak amaitu arte*, gurasoenean bizi izan zen.
- c. *Eguzkiak jo bitartean*, itzalean egoten gara.

Esan beharra dago hiru motak ez direla maiztasun beraz erabiltzen perpaus jokatugabeetan. Azken muga adierazten duen *-TU ARTE* maiz samar erabiltzen da, *-eN ARTE* jokatua bezain maiz edo are maizago; beste biek, ordea, pareko perpaus jokatuak baino erabilera urriagoa dute.

Perpaus nagusiko aditza, esan den bezala, denboran luzatzen den gertakaria adierazten duena da. Mendeko perpausak iraupena seinalatzen badu eta nagusia, aldiz, iraupenik adierazten ez duena bada, perpausa ez da gramatikala, ondoko adibideetako lehenak erakusten duen moduan:

- (178) a. *Zu etorri arte, giltzak aurkitu ditut.
- b. Zu etorri arte, *giltzen bila ibili naiz*.

Horregatik, perpaus nagusiko aditza ‘egoera’ (*egon, eduki*) edo ‘ariketa’ (*aritu, ibili*) adierazten duena izan ohi da maiz. Eta berez une batean gertatzen den gertakaria adierazten duen aditza erabiltzen bada –hau da, ‘irispena’ (*etorri, irten*) edo ‘burutzapena’ (*egin, aurkitu*) adierazten duena–, beste esanahi bat hartu behar du, iraupena duena, perpausa gramatikala izango bada. Pluraltasunak eta errepikatzeak eman diezaiekete horrelako aditzei iraupen-esanahia:

- (179) a. Ateak itxi arte etorriko dira bezeroak.
b. Beste lanen bat aurkitu arte, *zure lantegira joango naiz goizero.*

Edo perpausa ezezka emateak. Ezezkoak, hain zuzen ere, gertakaria ‘gertatu gabe dagoen’ denbora guztia seinalatzen du, hura gertatu gabeko tartea. Maiztasun handiz erabiltzen dira ezezko perpaus nagusiak, iraupena adierazten duten esaldi hauetan, batez ere azken muga seinalatzen dutenetan:

- (180) a. Zu agertuz geroztik, ez du hitzik esan.
b. Lan guztia egin arte, *ez zarete etxera joango.*
c. *Ta ez da ezegaz bere naikotuten*, Jaungoikoa topau artian (Fray Bartolome, *Icasiquizunac I*, 14).

Ondoko adibide honetan, berriz, ezezkoaren balioa duen galdera erretorikoa dugu perpaus nagusian:

- (181) Pagailleta’ko gaiña artu arte *nor asiko da kezkatzen?* (Orixe, *Euskaldunak*, 232).

Beste batzuetan, testuinguruak ematen dio esanahi hori perpausari. *Atertu arte taberna horretan sartuko naiz* perpausean, esate baterako, ez da ‘sartzea’, hau da, ‘atea pasatzeko unea’, adierazten; ‘taberna horren barruan egongo naiz’ da hor aditzera eman nahi dena.

Kontua da une bateko gertakaria adierazten duten irispen- eta burutzapen-aditzak testuinguru jakinetan iraupena adierazteko gauza diren neurrian izan daitezkeela perpaus hauetako predikatu nagusi.

Aurreko nahiz azken muga adierazten duten mendekoez, bere aldetik, une batean gertatzen den gertakaria adierazten dute, nagusiarentzat mugarri dena. Beraz, hartan egoera-aditz bat ageri bada, egoera horren une bati egiten zaio erreferentzia, hasierakoari, ez egoera osoari. *Izan* eta *jakin* aditzek, esate baterako, estatiboa dute lehen adiera, baina ondoko esaldietan ‘irispena’ adierazten dute, hau da, *izatera* eta *jakitera* iritsitako unea:

- (182) a. Guraso batek duan gutzia dauka seme-alabentzat, egi aundi au *ama izan arte* ezjakiña zan niretzat (B. Enbeita, *Nere apurra*, 182).
- b. Eta zelan izan zan ezekiyenak, ezeben siñistu gura izaten; gauza ezintzat emoten-eben, *zertzeladak jakin arte* (Kirikiño, *Bigarrenko Abarrak*, 167).

‘Ama izatera iritsi arte’ ulertzen da lehen adibideko perpausean; eta ‘zertzeladen berri izatera iritsi arte’, bigarrenekoan.

1.3.1. Iraupenaren aurreko muga

1.3.1.1. –TUZ GERO

Nozio hau adierazteko aditz jokatu *–eNETIK* eta *–eNEZ GERO* formak erabiltzen dira batez ere. Forma jokatugabeek leku gutxi dute horrelako perpausetan. Besterik gabe ondokotasuna adierazten duen *–TUZ GERO* da *noizdanikoa* adierazteko inoiz erabiltzen den forma bakarra (ik. 1.2.2.8.). Perpaus nagusiak iraupena duen gertakari bat adierazten duenean, *–TUZ GERO* perpausak iraupen horren aurreko muga seinala dezake. Horrelakoetan, mendekoak ez du gertakari bat *noiz* izan den, hau da, beste zein gertakariren ondoan gertatu den esaten, baizik eta *noizdanik* dirauen. Testuinguruak laguntzen du perpausaren esanahia zein den jakiten.

Aurreko atalean aipatu ditugun hiru aldaerak erabiltzen dira balio horrekin ere, Iparraldean erabiliena –*TUZ GEROZTIK* aldaera delarik.

- (183) a. *Munduraturuz geroztik* hirian naiz bizi (Iratzeder, *Biziaren olerkia*, 13).
- b. gizona, eta emaztia *loak hartuz geroz*, bere lotik iratzar artino, hilak dira (Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 79).
- c. O Aingeru *iaioz gero* ene begiratzaillea / Premietan zu izatu zaitut neure habea (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa I*, 123).
- d. *ezkondu ezker*o arantza batek ezti e ikutu [...], ezirik ezti ena miazkatzen daude (Aguirre, *Garoa*, 373).
- e. soñean zeraman atorra eta oieko maindirea etzizkioten aldatu *gaixotu ezker*oz (Etxaide, *Alos Torrea*, 54).
- f. Santxo Panza bakarra zan, bere nagusiak esan-ala guzia sinisten zuana, bai bait-zekien nor zan eta *jaio ezker*oztik ezaguna bait-zuan (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 149).

Perpaus horiek iraupenaren aurreko muga zehaztea dute helburu, aise ikus daitekeenez. Azken mugari dagokiona, berriz, irekia geratzen da, tes-tuinguruaren arabera ulertzeko. Hau ere aipa daiteke, noski, *noiz arte*koa adierazten duen sintagma bat erantsiz perpausuan, goiko (b) adibidean egiten den moduan.

1.3.2. Iraupenaren azken muga

Iraupenaren azken muga adierazten duten formek modu batera edo bestera *arte* postposizioa daramate guztiek, eta, aurreko mugakoak ez bezala, adizki jokatu *ko* –*eN ARTE*, –*eN ARTINO* eta horrelako formak bezain maiz, edo are maizago, erabiltzen dira.

Esan dugun moduan, menderatzaile horiek daramatzaten perpausek une batean gertatzen den gertakaria adierazten dute, perpaus nagusiko gertakariaren azken muga, *noiz artekoa*, seinalatzen duena:

- (184) a. *Euria atertu arte*, etxean egon naiz.
b. *Lantegian hasi arteraino*, baserrian aritu zen Jon.

Aldaera asko ditu *arte* postposizioak. Guztiak aztertuko ditugu ondoren, atal banatan. Honela banatuko ditugu atalak, *OEH*-ri jarraiki: *arte* (*arteraino*, *arteino*, *arterano*), *artino*, *artio*, *artean* (*arte guztian*, *arterainokoan*, *arterainoko guztian*), *artekan*, *arteko*, *bitartean* (*bitarteko*, *bizkitartean*).

Perpaus hauen hasieran, bestalde, *harik eta* esaldia erabiltzen da inoiz, Hegoaldean batez ere, *harik eta ... arte* egitura eratuz. *Harik* hori hirugarren mailako erakuslearen ablatiboa da –forma zaharra, bizkaieran izan ezik–. Hortaz, pentsa daiteke iraupenaren *noizdanikoa* seinalatzen duela, modu abstraktuan-edo. Gaur egun, hala ere, –*TU ARTE*, –*eN ARTE* eta horrelako perpausari hasiera emateko gramatikalizatua dagoen esaldia da, besterik gabe:

- (185) a. ez al ditu larogei ta emeretziak basamortuan uzten ta galdu zaionaren billa yoaten, *arik eta ura arkitu arte?* (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 299).
b. Simeon presondegian bere mendean gelditu du, esanaz, ez diola irteten utziko [...] *alík eta Benjamin ari eraman arteraño* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 55).

Perpaus hauek iraupenaren azkena adierazten dute, esan bezala, eta ez dute zertan haren hasiera edo aurreko muga seinalatu. Hori testuinguruak argitu ohi du, baina, nahi izanez gero, berariaz adieraz daiteke, dagokion sintagma erantsiz perpausari:

- (186) *Il zanetik* obira sartu-bitartean, Elizatxoa jendez beterik egon zan egun guziz (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 136).

1.3.2.1. –TU ARTE

Esan dugun moduan, perpaus nagusiko gertakariaren azken muga seinaltzen du –TU ARTE forma daraman perpausak:

- (187) a. *Gaua jin arte nuzu gainez gain ibili* (Iratzeder, *Biziaren olerkia*, 70).
b. *Eta ekin eta ekin, berbazko matasa nastea biribildu arte* (Erkiaga, *Arranegi*, 126).
c. *Sodoma bere egoiliar guziekin suntsitu arte etzen gelditu* (Zerbitzari, *Ichtorio Saindua*, 19).
d. *Ostatu-yabiak artzen zituen eta giltzapian ipiñi, mutillak eldu arte* (Kirikiño, *Bigarrenko Abarrak*, 168).

Partizipioaren lekuan adlatiboa erabiltzen da inoiz hemen ere:

- (188) a. *Etxekoandrea larri izan bear zun, senarra etxera arte* (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 53).
b. *Jaunagana arte ez da poztuko* (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 127).

Honako adibide honetan, berriz, –TZERA ARTE forma dugu, adlatiboa aditz-izenaren gainean eraikia duena:

- (189) *maai-gaiñean nor-geigo apaltzera arte ekin* (Orixe, *Euskaldunak*, 13).

Aditzondoari dagokionez, berriz, maiztasun handiko *arte* soila ez ezik, *arteraino* aldaera ere erabiltzen da –edo *arterano*–, *-raino* atzizkia erantsita sortua:

- (190) a. *Eta erraiten zerauen, Non-ere sarthuren baitzarete etxe batetara, zaudete han handik ilkhi arterano* (Leizarraga, *Testamentu berria*, 71).
b. *Igurikiren dut zure semea erregetu arteraino* (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia I*, 337).
c. *Egun berria zabaldu arteraino orrela iraun omen zuen Sokrate'k* (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 84).

Aurrekoa baino gutxiago erabiltzen da, berriz, *arteino* –edo *arteno*, *artaino*– aldaera. Axularrek erabiltzen du adizki jokatugabeekin, eta bera da, gainera, hori modu sistematikoan egiten duen bakarra. Gainerakoan, bizpahiru autoreren agerpen bakanak besterik ez da aurkitzen testuetan. Axularrek –Ø *ARTEINO* forma hobesten du, aditzoina hautatzen baitu beti forma hori bereizten duten aditzetan:

- (191) a. zeren eritasunetik eskapatzen direnean, iduritzen zaie ezen aldi hartakotz, *berriz eri arteiño*, segur direla eta kito (Axular, *Guero*, 245).
- b. Ihiztari handiak dira begiak, eta bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean, *eztira erdiets arteiño* baratzen (Axular, *Guero*, 392).

Beste agerpen bakanetan partizipioa edo partizipio nahiz aditzoin izan daitezkeen adizkiak erabiltzen dira:

- (192) a. Gero, *amazortzi urte bete arteino*, gimnasi-inarkunetan ziarduten, soinez sendo litezen (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 8).
- b. Biziak diraueiño, hatsa sabelean deiño, *arima gorputzetik iltki arteiño*, [...] baduke bere bekhatuaz behar den urrikimendua, damua eta dolorea (Axular, *Guero*, 196).

Bizkaieraz, berriz, *artegino* aldaera erabiltzen da:

- (193) ekanduzko pekatuak jarraitu oi deutse bakoxtari eriotza giño ta *lur barruan sartu artegiño* (Añibarro, *Guero*, 76).

Aurretik *harik eta* esaldia duela:

- (194) a. Ez, eztautzut baketan utziko, *arik eta nai dodana lortu arte* (Erkiaga, *Arranegi*, 123).
- b. eta are gitxiago plaza agirikoetan ibilli diteke iñor pillotan, palankan, danzan, eta beste edozein jostaketa modutan, *alik eta Elizako eginbideak bukatu arteraño* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 211).

Izenlagun ere bilaka daiteke forma hau, bistan da, *-ko* atzizkia hartuz:

- (195) a. Eskiñiten deitsudaz yaio zanik eta kurutzean *il arteko* bere atsakaba, naibaga, larritasun, ta nekaldi ezin geiagokoak (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 179).
- b. *Onera-artekoa*, ia dana, erri-kanta dezu (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 40).
- c. Fier Santxo benta zala ta benta zala, eta ezetz nagusiak, gaztelua baizik; luzea izan zan eztabaida, eta *bertara eldu arteiñoko* gaia izan zuten eziñ erabakirik (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 171).

1.3.2.2. *-TU ARTINO*

Artino aldaera duen forma zubereraz erabiltzen da batez ere, aditzoinarekin gehienetan:

- (196) a. Apostoliak soz zauzkon, *odei batek hen bistatik idok artino* (Zuberoko *katexima*, 104).
- b. *Biziak gal artino* ezkütük rendatüren (*Xarlemaña*, 850).

Partizipioa ere erabiltzen da inoiz zubereraz, baina batez ere forma hau inoizka erabiltzen dituzten beste euskalkietan:

- (197) a. *Etzian ützi juaitera ontsa sendatü artino* (Constantin, *Haritchabalet Jaun apezaren gainen*, 26).
- b. Piarresek ez dio bakerik emaiten *non zer gaitz duen aithorrazari artino* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 164).
- c. Penen kentzeko trinka dezagun / Hustuz zombait baso arno, / Libertateko egun ederra / *Guri etorri artino* (Bordel, *Bordel bertsularia*, 37).

Adlatiboarekin:

- (198) Haren esküpian ez jar, *bortxala artino* (*Xarlemaña*, 849).

1.3.2.3. –TU ARTIO

Artio aldaerarekin eginiko formak aurrekoak baino erabilera zabalagoa du, zubereraz ez ezik, lapurteraz, behe-nafarreraz eta goi-nafarreraz ere erabiltzen baita, zenbaitetan *arteo* formarekin. Bai partizipioarekin bai aditzoinarekin joan daiteke, eta erabilera ohikoa du.

Maiz, bistan da, partizipioarekin eratzen da:

- (199) a. Nahi bazare ontsa heldu, *zozoek lehen hitza atheratu artio* igurik zazu bethi (J. Etchepare, *Buruchkak*, 38).
- b. Holaxe ebili ziren *etxera heltu artio* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 123).
- c. *edan arteo* utz nezazute bakarrik (Orixe, *Olerkiak*, 514).

Baita, inoiz, aditzoinarekin:

- (200) a. Bazka bustirik bada, ützi behar da *idor artio* (Inchauspe, *Dialogues basques*, 75).
- b. emeki igan zen so zauskola bere diszipüliak, *odei batek hen begier estal artio* (Belapeyre, *Catechima laburra II*, 68).

Perpausaren hasieran *harik eta* esaldia duela:

- (201) Ziraña ezta aterzen txupatus *alikota akabatu arteo* (Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 124).

Eta izenlagun bilakaturik:

- (202) a. Emaiten dügü orano [...] indüljenzia osua, noiz eta bisitatüko edo ikhusiko beütüye urthian behin erran den Konfrariako Eliza [...] lehen Bezperetarik *ekhia sar artioko* denboran (Mercy, *Andere Dona Maria*, 6).
- b. Bere bizi-leku guztiak bein-beiñekoak izan oi dira, *oberik billatu artiokoak* (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 147).

1.3.2.4. –TU ARTEAN

Artean postposizioarekin eginiko forma hau ere erabilera zabalekoa da, *arte* soila duena bezala. Iraupenaren tarte osoa adierazteko ere erabil daitekeen arren, haren azken muga seinatzea izaten du eginkizun gehien-gehienetan. Tarte osoa adierazten duten perpausak gerorako utziz (ik. 1.3.3.2.), azken muga adierazten dutenak aztertuko ditugu hemen:

- (203) a. Itxagon daizu, mutil, itxagon *argia piztu artian / argia piztu artian* eta ikusi zeu nor zarian (*Euskal Baladak*, 57).
- b. zuk lan ta alegin guztiak egin bear dituzu *nik oso-osorik ontasun oiek izan artean* (Barriola, *Goi-Argi*, 27).
- c. Alabainan, nik *eskolan abiatu artean* ez nuen behin ere frantses hitz bat entzun (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 25).

Aditzoinarekin ere ageri da hau erabiltzen duten euskalkietan:

- (204) a. Zenbat arrisku handi *ezkon artean* (Baratciart, *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, 225).
- b. *ezagutza gal artean* ez zen baratu hobendunentzat othoitz egite[t]ik (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 74).

Adlatiboarekin:

- (205) a. Eskopeta kargatuta atian atzian, / anaia an egoten da *ni oiera artean* (Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*, 186).
- b. ez dira sosegatuko *zu mendera artean* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 573).
- c. Samuelek erran zioen igurik zezala halako lekhotan, zazpi egunez, eta etzezala ofrenda sakrifiziorik, *hura harat artean* (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia I*, 267).

Aditzondoari dagokionez, *artean* da forma ohikoa. Inoiz, modu enfatikoan-
edo, *arte guztian* erabiltzen da:

- (206) a. an egoten dira sarri Kantauriko txalopak eta ontzi azitxoagoak be bai, *itxasoari bere amorru ta aserreak joan arte guztian* (Aguirre, *Kresala*, 32).
- b. ta etzituen begitik uzten *andik joan arte guztian* (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 203).

Aipa daiteke hemen, beharbada, *arterainokoan* aldaera ere. Ondoan izena daraman sintagma dago honen oinarrian: *arterainoko (denbora)n*:

- (207) a. Orain asiera eman zion bizimodu lazgarria izango zun geroenean, ia *il arterañokoan*, bere anaitzakoa (Etxaide, *Joanak-joan*, 161).
- b. Ez duzu nahi izan sinhetsi *zerorrek ikhusi arterainokoan* (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia II*, 292).

Ohiko postposizio-sintagmatzat har daiteke hori, bistan da, baina pentsa daiteke, halaber, gramatikalizaturiko forma dela *-TU ARTERAINOKOAN* hori, *-TU ARTEAN* formaren pare, edo, bederen, hartarako bidean dela.

Azkenik, perpausaren hasieran *harik eta* esaldia duela ager daiteke forma hau ere:

- (208) a. Ikuskera negargarri onetan ziñoazan, *arik-eta Beronike Andra errukiorrak garbitu artean bere izaratxoaz* (Añibarro, *Escu-liburua I*, 192).
- b. [...] eta nola etzeban txabolarik eta etzanleku jakinik ere, alper alperrik irtetea zala beraren billa, *alík eta eguna argitu artean* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 247).

1.3.2.5. -TU ARTEKAN

Buruan inesiboaren atzizkia daraman forma hau zubereraz eta behe-nafarreraz erabiltzen denez, aditzoinaren gainean eraikitzen da:

- (209) a. Han present da idüriak *ezezta artekan* (*Akizeko guiristino-doctrina*, 132).

- b. Joan gabe, bihotzeko bortan jarririk egoiten dela, eta igurikitzen *idek artekan*, amorekatik han idiren dezagun (*Alphonsa Rodriguez*, 24).

Baina hona partizipioarekin eraturiko hau:

- (210) Kanaanen zedarriak izan ziren Sidonetik Jerramara heldu den bezala Gazaraino, *sarthu artekan Sodoman* (Duvoisin, *Bible Saindua*, Gen. 10, 19).

1.3.2.6. –TU ARTEKO

–TU ARTEAN formaren parekoa da –ko atzizki destinatiboarekin eraturiko forma hau. Iraupenaren tarte osoa adierazten du adizki jokatuarekin doanean: *bizi zaren arteko*, *hemen nagoen arteko* eta horrelakoetan, alegia. Adizki jokatugabeekin, ordea, azken mugako gertakaria adierazteko erabiltzen da:

- (211) a. Onez aurrera ezer askorik / eztaukagu esateko, / ixildu egin bearko degu / *berriz agindu arteko* (Lasarte in Uztapide, *Noizbait*, 123).
b. *eskatu* zuten Jaungoikuaren izenian legorpe bat *gau ura igaro arteko* (Beovide, *Asis-co Loria*, 108).

Eta adlatiboarekin:

- (212) Adios, bada, dama noblea, *Arantzazura arteko* / Antxe egongo naiz, besoak zabal, zatozenez artzeko (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 193).

Ez da esan behar, noski, forma honetako *arteko* aditzondoa destinatiboa dela, ez izenlaguna; forma honen azpian ez dagoela, alegia, *arteko denbora* edo horrelako sintagmarik.

1.3.2.7. –TU BITARTEAN

Adizki jokatuekin eraturiko –eN BITARTEAN forma iraupenaren tarte osoan gauzatzen den gertakaria adierazteko erabiltzen da, eskuarki. Partizi-

pioarekin eraturiko *-TU BITARTEAN*, berriz, bietarako erabiltzen da, bai tarte osoko gertakaria adierazteko bai azken mugako gertakaria seinatzeko ere. Aditza nolakoa den izaten da hori: une bateko gertakaria adierazten badu, azken muga seinatzeko du *-iritsi bitartean*, esate baterako–; iraupena duen gertakaria adierazten badu, berriz, tarte osoko gertakaria aipatzeko du *perpau nagusi-rako erreferentzia gisa -iraun bitartean*, adibidez–. Tarte osoko hauek eta anbiguo gerta daitezkeenak hurrengo atalerako utziz (ik. 1.3.3.1.), azken mugako gertakaria aipatzeko dutenak aztertuko ditugu hemen. Hona adibide batzuk:

- (213) a. Emen egongo da Pilartxorekin *ni etorri bitartian* (Alzaga, *Bernaiño'ren larriyak*, 64).
- b. Bai poz askorik kantatu ere Getariako partian; / gutxienezko izango nintzan hogeitau hamar urtitan, / juaten asi nintzanetik *gaixo jarri bitartian* (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 143).
- c. Arkaitz lodi bat jarriaz itxi zuten sepultura, *arlosa berri bat bukatu bitartean* (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 162).

Partizipioaren lekuan adlatiboa duela, ohi bezala:

- (214) Portuges zeritzaion baten etxean egon zala *jesuitengana bitartean* (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 130).

Aditzondoari dagokionez, *-ko* destinatiboa duen *bitarteko* aldaera ere erabiltzen da inoiz:

- (215) Baña, dana dala, *eure begiz nexka-mutikook ezagutu bitarteko*, neronek egingo diat, nere eskuz, argazki, ta, ia zine ere esateko *natxegok* (Lizardi, *Itz-lauz*, 15).

Bai eta *bizkitartean* aldaera ere:

- (216) Baitegi nagusira aldatu zuten *juizioa egin bizkitertian* (Izeta, *Dirua galgarri*, 125).

Hona, azkenik, izenlagun bilakatuta:

- (217) Geroztiko, *Italian sartu bitarteko* gauzarik, eztakigu argiro (Beovide, *Asis-co Loria*, 133).

1.3.2.8. –TZERAINO

Aditz-izenarekin eratzen den –TZERAINO forma duten perpausak muga adierazten dute, bistan da, baina ez, eskuarki behintzat, denborari dagokion muga. Ez dute, alegia, gertakari bat *noiz arte* luzatzen den edo *noiz arte* irauten duen adierazten, *noraino* edo zein puntutaraino iristen den baizik. Neurri edo gradu desberdinak onartzen dituen gertakari batek zenbaterainoko gauzaztea izan duen adierazten dute:

- (218) a. *Ia burua zuritizeraño* moztu zion illea (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 25).
b. Badira itomena sortzen diguten bizilekuak; *gaixotzeraino* larritzen gaituzte (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak IX*, 135).
c. *elkar ikusi ta elkarri entzuteraino* edo urbildu ziranean, onela itzegin zion Don Kijotek (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 55).

Ile-mozketaren *zenbaterainokoa* adierazten da lehenbiziko adibidean; larritasunaren maila edo neurria, bigarrenean; eta *noraino* hurbildu ziren, hirugarrenean. Ez, ordea, *noiz arte* iraun zuten gertakari horiek.

Berdin, –TZERAINOKOAN aldaera:

- (219) Jinkoaren semea aphaldu da *ezdeus bat billakatzerañokoan* (Mihura, *Andredena Mariaren Imitacionea*, 94).

Hala ere, muga horiek denboraren mugarekin duten antzagatik-edo, zenbaitetan, forma hori ere denbora-balioarekin erabiltzen da, zenbaitetan, iraupenaren azken muga edo *noiz artekoa* adierazteko. Hona adibide batzuk:

- (220) a. emaiten derauzkitzut zazpi orazino Mezaren hastetik *Gorputz saildua ailtzatzeraino erran* ahal ditzakezunak (Materre, *Doctrina Christiana*, 191).
- b. toki askotan ereiten dutenetik *batutzeraino* [...] bere modu lagatzen diote[...] [gariari] (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 28).
- c. Euskaldun jaio giñan, ta euskaldun azi; euskaldun *iltzeraino* guk nai degu bizi (Etxaniz, *Lur berri billa*, 322).

Argi da azpimarraturiko perpaus horiek denbora adierazten dutela, ez neurria edo maila. Esan behar da, dena dela, egitura hori baino ohikoago dela, denbora-muga adierazteko, *-TU ARTE* gisako formak erabiltzea: ‘altxatu arte’, ‘batu arteraino’, ‘hil artean’, etab.

Beste zenbaitetan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: *-TU ARTE* sailekoak, inoiz, denborari dagokion *noiz artekoa* adierazi beharrean, gertakarien neurri edo mailari dagokion *zenbaterainokoa* adierazteko erabiltzen dira, *-TZERAINO* formaren lekuan. Hori da ondoko adibide hauetan ikusten dena:

- (221) a. *betazalak erre arte* begiak zorroztu bear izan ditun landolaria (Agirre, *Uztaro*, 58).
- b. emon-alean zigortu ei iuen agurea, bizkarra berotu ezeze *odol gorritan ipiñi arteraino be* (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 56).
- c. erakusten deutseezarian bere buru arantzaz inguratuba, esku ta oiñ ultzez josijak, espalda azotez edegijak *azurrak agertu artian* (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 5).
- d. egundainoko zalapartan inarrostean dute ostatua, *karrikako zakurrak erausika arrarazi artio* (Zubiri, *XX. mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 22).

Garbi da horrelakoetan adierazten dena ez dela denbora. Ohiko forma erabilita, ‘betazalak erretzeraino’ zorroztu zituela begiak esango litzateke lehen adibidean; ‘bizkarra odol gorritan ipintzeraino’ zigortu zuela agurea, bigarrenean, etab.

1.3.3. Iraupenaren tarte osoa

Iraupenaren tarte osoa adierazten duten formak bestetan ere erabiliak direnak dira denak. Usuenak, *-TU BITARTEAN* eta *-TU ARTEAN* formak, iraupenaren azken muga seinatzeko erabiltzen dira inoiz, gorago ikusi dugun bezala (ik. 1.3.2.4. eta 1.3.2.7.), baina baita iraupenaren tarte osoa adierazteko ere beste inoiz. Era berean, *-TU AZ BATERA*, *-TU AHALA* eta *-TU ARAU* formek aldiberekotasuna ez ezik, iraupenaren tarte ere adieraz dezakete inoiz (ik. 1.1.2.5. eta 1.1.3.2., hurrenez hurren). Besteak besteetan ikusi ditugunez, iraupen osoa adierazten duten perpausak aztertuko ditugu atal honetan.

Forma horien erabilera bikoitzak anbigutasuna sor dezake inoiz, bistan da, baina badira gehienetan anbigutasun hori saihesteko bideak. Lehena, aditzen izaera bera da. Irispena edo lorpena adierazten duten aditzak azken muga seinatzeko erabiltzen dira eskuarki, ez bitarte osoa adierazteko: *iritsi bitartean*, esate baterako, ‘iritsi dadin arte’ bezala ulertzen da, ez ‘iristen ari den bitartean’ bezala, testuinguruak ‘iritsiera’ prozesu modura ulertzeraz eramanen ez bagaitu behintzat.

Burutzapen-aditzak, ordea, bietara uler daitezke, testuinguruaren arabera. *Egin bitartean*, adibidez, burutzapen gisa edo ariketa gisa uler daiteke. Burutzapen gisa erabiltzen denean, azken mugako gertakaria adierazten du; *azterketa ondo egin bitartean ez duzu kurtsoa gaindituko* perpausa, esate baterako, hala ulertzen da: azterketa ondo egiteak azkena jartzen dio kurtsoa gainditi gabeko egoerari. Bigarren kasuan, berriz, hots, ariketa edo jardun moduan erabiltzen denean, tarte osoko gertakaria da aditzera ematen dena: *azterketa egin bitartean isilik egon behar dute azterketariak* perpausak, ohiko irakurketan, azterketa-garai osoa aipatzen du.

Testuinguruak laguntzen du inoiz, aditz horien kasuan, modu bien artean bereizten. Horrela, *-tik ... artean / bitartean* gisako egiturak muga biak adierazten ditu; *-tik* sintagamak aurreko muga seinatzatzen du, eta *artean / bitartean* forma daraman perpausak hondarreko muga, ez, noski, iraupenaren tarte osoa:

- (222) a. *Il zanetik obira sartu-bitartean*, Elizatxoa jendez beterik egon zan egun guziz (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 136).
- b. Orra ze lagun leijala emoten deuskun Jaungoikuak *sortuten garianetik, eta bere glorijan sartu artian* (Astarloa, *Berbaldiak II*, 287).

Perpauk hasieran *harik eta* esaldia dutenek ere iraupenaren mugako gertakaria ematen dute aditzera beti:

- (223) *Ezteutsut nik itxiko ene arimako ostatu onetarik urteten, arik-eta ni osatu, zoriundu eta aberastu artean* (Añibarro, *Escu-liburua 2*, 177).

Gainerakoan, munduaren ezagutzak argitzen du askotan aditzon erabilera zehatza zein den. Konpara, esate baterako, ondoko adibideak:

- (224) a. Auzokoentzat, i amarengana etorri aiz *aurra izan bitartean* (Etxaniz, *Lur berri billa*, 27).
- b. *Sakel biribilla izan bitartean*, toki dotoreetan ibilli izan da (Erkiaga, *Batetik bestera*, 173).

Munduaren berri dakienak badaki, lehendabiziko perpausean aipaturiko emakumea ez datorrela amarengana ‘erditzen ari den bitartean’; garai hori iritsi dadin arte datorrela, alegia. Bigarren adibidean, berriz, *izan* aditzak egoera adierazten du: aipatu pertsonak ‘sakela biribila duen’ denbora osoari egiten dio erreferentzia, eta denbora horretan guztian gertatzen da perpauk nagusian aipatzen den gertakaria ere. Esan beharra dago, hala ere, bigarren adibide honen moduko erabilera, hau da, egoera aditza duena (*izan bitartean, egon bitartean*), urria dela.

Iraupen osoa adierazten duten perpauk hauek, bestalde, aldiberekotasuna adierazten duten perpauk sailean ere sar daitezke, hala nahi izanez gero, eta gramatikari askok hala egiten dute. Izan ere, horixe da perpauk hauek aditzera ematen dutena: mendeko perpauseko gertakaria gertatzen den aldi edo tarte hartan berean gertatzen dela perpauk nagusikoa ere. Guk, hala ere, iraupena ere tartean

denez, eta perpaus hauetan iraupenaren muga seinalatzen duten perpausetako formak berak erabiltzen direnez, iraupenezkoen sailean sartzea hobetsi dugu.

1.3.3.1. –TU BITARTEAN

Forma hau, esan bezala, perpaus nagusiko gertakariaren iraupen osoa adierazteko erabiltzen da inoiz (azken mugaren adierazpenaz, ik. 1.3.2.7.):

- (225) a. Bentura, *galletak jan bitartean*, ixilik zegoan (Anabitarte, *Poli*, 93).
- b. Umore onez esnatzen da biharamonean eta *garbitu bitartean* txistuka ari da alaikiro (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak IX*, 111).
- c. emakume-aldrak biltzen ditue otartxoetara baba-leka igartuak, gero etxealdean, *umeak zaitu bitartean* edo seaskari eraginka, amonak astiro lekatu ditzan (Agirre, *Uztaro*, 290).

Aditzondoari dagokionez, inesiboko atzizkirik gabeko *bitarte* forma soila erabiltzen da inoiz egitura honetako perpausetan, ohikoa ez bada ere:

- (226) Artzaia udaran mendian dago, bera da ango nagusi, / *gizonak gaztak egin bitarte* andriak babak egosi (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 64).

Gorago esan dugun bezala, batez ere ariketa-aditzak edo ariketa moduan ulertzen diren burutzapen-aditzak erabiltzen dira egitura honetako perpausetan:

- (227) a. Atera nituan bi arraultza egosiak eta ogi puska bat, eta erdi bana asi giñan jaten nere lagun berria ta *ni ibilli bitartean* (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 59).
- b. Bestela baitakoan begiratuten eutsan neskatillari, *onek Nikanor'eri txanponak emon bitartean* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 71).

Irispen-aditzak prozesu moduan ulertzen direnean erabil daitezke perpaus hauetan:

- (228) Gizona ta seme-alabentzako mendi-bide luzetxoa zala-ta, Bergaran utzi zituan, *bere basarrira igo bitartean* (Etxaniz, *Lur berri billa*, 49).

Egoera-aditzak forma jokatueta erabiltzen dira maizago, baina jokatueta-beetan ere erabiltzen dira inoiz, urri bada ere:

- (229) a. *Gudaritzak iraun bitartean* etxean aldatuko zutela etsituta nengon (Etxaide, *Joanak-joan*, 75).
- b. Beste egiteko txarren bat egingo zion, baño ez *Juanbeltz giltzapean egon bitartean* (Anabitarte, *Poli*, 29).

1.3.3.2. *-TU ARTEAN*

Forma hau ere perpaus nagusiko gertakariaren iraupen osoa adierazteko erabiltzen da inoiz (azken mugako adierazpenaz, ik. 1.3.2.4.):

- (230) a. Biltzen dire guziak plazaren erdirat [...]; *Hek mintzatu artean*, gelditzen pilota (Hiribarren, *Eskaldunac*, 215).
- b. atentziyua jarri zazute, *paper au letu artian* (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak I*, 67).
- c. *jan-edan artean* solasta gintezke Janeta eta Mariunekin ea zerbait antolamendu edin ditaken ala ez (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 87).

Aditzoinarekin eratzen dute forma hau adizki horren erabilera ohikoa dutenek:

- (231) a. *Irakur artean* eta biotzak eragiñik, alako batean, intzirika, oberen zana autatu ta erabaki zun (Orixe, *Aitorkizunak*, 196).
- b. Eta horra nun lauetakoa egiten dion *puskak bil artean*: xingar eta arroltze, ardi-gasna gorritu arno on, kafe ta ondoko (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 103).

Aditzondoak maiztasun handikoa ez den *arte* aldaera ere badu:

- (232) a. *trabesak egiñ arte* bentaja artzen utzi (*Euskal Jokoak Bertsotan II*, 24).
b. *Otoi au egin arte gezur-yainko goriari*, norbait dizu sumatu, xee ta bixkorrik, beean, urrats usuz ibiltari (Lizardi, *Umezurtz olerkiak*, 41).

Goiko adibideetan ikus daitekeen moduan, batez ere ariketa-aditzak edo ariketa moduan ulertzen diren burutzapen-aditzak erabiltzen dira egitura honetako perpausetan. Baina egoera aditzekin ere erabiltzen da inoiz:

- (233) a. *Bizi artean*, ondo dakigu, orrek bukatzerik ez du (S. Mitxelena, *Aran-tzazu*, 44).
b. Ama-semeak erruki gabe itxi zizkieten Etxahuniako atea, beretzat, *biziak iraun arte* itxirik iraungo zutela esanda gero (Etxaide, *Joanak-joan*, 247).
c. *Oturuntzak iraun artean* bi anaiak etzioten alkarri itzik egin (Etxaide, *Joanak-joan*, 28)¹⁶.

1.3.3.3. –TU AZ BATERA, –TU AHALA eta –TU ARAU

Forma hauen iraupen balioaz, ik. 1.1.2.5. eta 1.1.3.1.

¹⁶ Bada esaera bat, gertakaria guztiz iraupen txikian gertatu dela adierazten duena: *–tzeo artean* formako esaldia da. Postposizio-sintagma arrunta da hori, ez menderatzaile gramatikalizatua, non *artean* horrek *denboran*, *unean* esan nahi duen:

- a. *Burua itzultzeo artean* gogotik osoki galdua dugu sekula santan orroit atxikiren ginuela iduri zitzaukuna (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 142).
b. *Begien hesteko artean*, berrehun makila altxatu ziren (Barbier, *Supazter chokoan*, 147).

Gauza bera esan nahi du *itzul artean* esaldiak ere:

Gerlari handia hau: berehala lanari eman zen, baina Wellington aintzindu zitzaion eta *burua itzul artean* Larrungo mendiaz jabetu (Zerbitzari, *Azkaine*, 34).

LABURPENA

Perpau nagusiko gertakariari denbora-erreferentzia ematen dion *une edo tarte mugatu bateko* gertakaria aipatzen du denborazko perpausak, adizki jokatu duenak bezala baita jokatu gabea duenak ere:

- a. [Ikasturtea amaitzen denean] / [ikasturtea amaitzean] Londresa joango naiz.

1. ALDIBEREKOTASUNA

1.1. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra

1.1.1. -TZEAN

Hau da aldiberekotasuna modu zabalean adierazteko erabiltzen den forma jokatu gabe nagusia, gertakariaren hasiera, unea bera edo amaiera seinalatuz:

- a. *Janariak erostean*, iraungitze-data arretaz begiratzen dut nik beti.
- b. *Hitz egitean*, eskuak gora eta behera mugitzen zituen beti.
- c. *Filma amaitzean*, kalera irten ginen.

Denbora-balioarekin batera beste ñabardura batzuk ere eman ditzake aditzera, hala nola, kausa edo azalpena:

d. *Lurrikara nabaritzean*, kanpora irten ziren etxeoak.

Denboraz bestelako balioa izan dezake, predikatuak *une edo tarte bat* adierazten ez duenean, *zertan* galderari erantzuten dionean edo inplikazio balioa duenean:

e. Zer ospea duzun, *on guzizkoa izatean*!

f. Bakoitzari *berea ematean* datza justizia.

g. *Hori esatean* egia baizik ez duzu esan.

1.1.2. –TZERAKOAN

Aldiberekotasunaren hiru ñabardurak ematen ditu aditzera forma honek ere, baina batez ere gertakariaren ‘hasiera’ adierazteko erabiltzen da:

a. *Jaterakoan*, eskuak garbitu behar dira.

Baina gertakaria gertatzen ari deneko edo haren ondoko unea ere adieraz ditzake:

b. Ez horrenbeste soinu atera *jaterakoan*.

c. *Irakaslea agertzerakoan*, ikasleak altxatu dira.

1.1.3. –TZEKOAN

Erdialde eta mendebaldean –*TZEKOAN* aldaera ere erabiltzen da:

a. Ez horrenbeste soinu atera *jatekoan*.

Beste balio batzuk izan ditzake. Hala, esate baterako, testuinguruak isilpeko izen zehatza eskuratzeko modua ematen duenean:

- a. Eskuzabalak dira *hartzeko kontuan* bezala baita *ematekoan* ere.

Mendebaldean baldintza edo asmoa ere adieraz dezake forma horrek:

- a. Eta, *egitekoan bere*, hiri ez diate ezer egingo.
b. *Geroago ikustekoan* aldendu nintzen.

1.1.4. -TZEAREKIN

Gertakarien arteko ‘lotura’, modu batekoa edo bestekoa, adierazten du forma honek.

Nahikoa izan eta horrelakoen osagarria izan daiteke, edo kausa nahiz eragina seinatzen duen osagaia:

- a. *Film bat ikustearekin* nahikoa dugu.

Zenbaitetan *horrekin* adierazteaz gain denbora ere eman dezake aditzera:

- a. *Semea estuasun hartan ikustearekin*, bihotza erdiratu zitzaion.

Eta besterik gabe denbora adierazten du zenbaitetan:

- a. Horretaz genuen solasa, *zuek sartzearekin*.

1.1.5. -TZEARI, -TZERAT

Denbora adierazteko erabiltzen dira inoiz, erabilera hori ohikoena ez badute ere:

- a. *Zahartzeari*, boza galdu zuen.

1.1.6. *-TU(K)ERAN*

Mendebaldean erabiltzen den forma honek *-TZEAN* formaren antzeko erabilera du:

- a. Mutikoez barre egingo zuten *eskolatik urtekeran*.

Sarreran, irteeran eta horrelako postposizio-sintagmek ez bezala, *-TU(K)ERAN* formarekin eraturiko sintagmek aditzei dagozkien argumentuak dituzte:

- a. Hamarrak ziren *ni Lekeitio-ondora heldueran*.

1.2. *Aldiberekotasun estua*

Bi eratara uler daiteke aldiberekotasun estua. Gertakari bat gertatzen denean bestea *jadanik* han dela esan dezake, egoera nahiz ariketa moduan; edo hura gertatu-eta bestea ere orduantxe gertatzen dela, aldibereko sekuentzia estuan, guztiz *berehala*.

1.2.1. *-TZERAKO*

Mendebaldean erabiltzen da, *jadanikako* egoera edo ariketa adieraziz:

- a. *Ni iristerako*, ohean zen haurra / lanean ari ziren nire lagunak.

‘Lehenago’ gertatua adierazteko ere erabiltzen da inoiz, aurrekotasuna seinalatuz:

- b. *Lanean hasterako* katedralera joan zen otoitz egitera.

1.2.2. -TU ORDUKO

Aldaerak: *-tu / adlatiboa / -tzera / -tze – orduko*
-tu – orduko / ordukoxe / ordu

Aipatu bi adieretan erabiltzen da, *jadanikakoan* eta *segida estukoan*:

- a. Goizeko ordubata bazen, *haiek etxeratu orduko*.
- b. *Ikusi orduko*, berehala ezagutu zuen.

Orduko aldaera aurrekotasuna adierazteko ere erabiltzen da, bizkaieraz batez ere:

- a. Emadazu laztan bat, *hemendik urten orduko*.

1.2.3. -TU BEZAIN LASTER

Aldaerak: *-tu / adlatiboa / ahal... – bezain laster / sarri / fite / agudo...*

Konparaziozko egitura izan arren, *segida estuko* aldiberekotasuna adierazten du. Mendekoak irispina/burutzapena adierazten du, eta nagusiak ere une bateko gertakaria:

- a. *Loak hartu bezain laster* hasi zen ametsetan.

1.2.4. -TU BEZALA

Konparaziozko egitura honek ere *segida estuko* aldiberekotasuna adieraz dezake:

- a. Gure ahoa hesten duk, *hi agertu bezala*.

1.2.5. –TU ETA BEREHALA, –TU ETA LASTER

Axalean antzekoak diren [...–tu] eta [berehala...] eta [...–tu eta] [berehala...] egiturak ez bezalakoa da hau, adberbioa menderatzailearen burua baita: [...–tu eta berehala] [...].

Segida estuko aldiberekotasuna adierazten du:

- a. Ez ama eta ez aita geratu zen gaixoa, *jaio eta berehala*.
- b. Eritzen zirenak *eritu eta laster* eramaten zituzten ospitalera.

1.2.6. –TU AZ BATERA, –TZEAREKIN BATEAN

Segida estua adierazten dute.

Lehena mendebaldean erabiltzen da: –tua(ga)z / –tzeaz – batera / bat / batean.

- a. *Hau esanaz batera*, dantzan hasi zen.
- b. *Neskatila ikustean bat* negar egin zuten gurasoek.

Bigarrena gainerako euskalkietakoa da: –tzearekin – batera / bat / batean.

- a. *Hura sartzearekin batera*, jautzi abiatu zen haurra.

1.2.7. –TU BERRI(T)AN

Izenari dagozkion osagaiak dituztenak ez bezala –lagunaren etorri berrian–, perpausari dagozkionak dituztenak –laguna etorri berrian– hartzen ditugu perpaustzat. *Segida estuko* aldiberekotasuna adierazten dute:

- a. *Gerra amaitu berrian*, larri bizi zen jendea.

1.3. Aldiberekotasun errepikatua

1.3.1. –TU ALDIRO, –TU BAKOITZEAN

Adizki jokatuarekin egiten dira maizenik, baina jokatugabearekin ere egin daitezke:

- a. *Hori ikusi aldiro*, negarra heldu zitzaien.
- b. Bi duro hartzen zituen, *mutil bat uretatik atera bakoitzean*.

1.3.2. –TU AHALA, –TU ARAU

Gertakari bat bestearen ‘neurrian’ gertatzen dela adierazten dute, modu zabalean, forma hauek. ‘Neurri’ hori denborari dagokionean, aldiberekotasun errepikatua adieraz dezakete:

- a. Mirariak egiten zituen, *eskatu ahala berari*.
- b. *Jendea jin arau*, aita xaharraren oihuak handiago.

2. ALDI DESBERDINTASUNA

Gertakari ‘nagusia’ ‘mendekoa’ baino *lehenago* edo *geroago* gertatzen dela ematen dute aditzera perpaus hauek. Mendekoa une batean gertatzen dena da; nagusia mota guztietakoa izan daiteke.

2.1. Aurrekotasuna

2.1.1. –TU BAINO LEHEN

Konparaziozko forma izan arren, *aurrekotasuna* adierazteko erabiltzen da eskuarki.

Aldaerak: *-tu* (laguntzailea isilduta) / *adlatiboa* / *nahi... – baino lehen(ago)* / *lehentxeago* / *lehentxoago*:

- a. *Oilarrak jo baino lehen* atzarria nengoen.

Perpaus nagusiak eta mendekoak aditz bera dutenean, perpaus murriztua:

- a. *Hik baino lehen* jakin diagu berria.

Bestelako lehentasun-mota bat adierazteko ere erabiltzen da inoiz:

- a. *Mutilzahar geratu baino lehenago*, hil.

2.1.2. *-TU AURRETIK*

Mendebaldeko forma honen aldaerak: *-tu* / *adlatiboa* – *aurretik* / *aurretixe* / *aurretixotik* / *aurrean* / *aurretxoan* / *aurrez*. Eta, urriago, *-tze(a)ko aurrean*.

- a. *Zu etorri aurretik*, triste zegoen.

2.1.3. *-TU AITZINEAN*

Ekialdeko forma honen aldaerak: *-tu* – *aitzinean* / *aitzinexean* / *aitzinttoan* / *aitzinetik* / *aitzin*. Eta, urriago, *-tze(ra)ko aitzinean*.

- a. Guztia aitortu zuen, *joan aitzinean*.

2.1.4. *-TU GABE*

Batez ere Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da forma hau denbora baliorekin. Aldaerak: *-tu* / *adlatiboa* – *gabe(rik)*.

- a. *Oilarrak jo gabe* nauk hik gaur ukatuko.

2.2. Ondokotasuna

Erabilera zabaleko *-tu eta*, *-tuta*, *-turik* eta *-tu(a)z* formek ondokotasuna ere adieraz dezakete. Eta *-tu eta gero*, *-tutakoan*, *-tu ondoan*, *-tu ostean*, *--tuz gero* forma konplexuek ondokotasuna modu agerikoagoan adierazten dute.

Menderatzaile hauetako gehienek denborarenaz gain beste ñabardura batzuk ere adieraz ditzakete: kausa, azalpena, baldintza, kontzesioa, modua...

2.2.1. -TU ETA

Iparraldeko eta Nafarroako euskalkietan erabiltzen da batez ere. Eta enklitiko menderatzailearen osagaia da: [...*-tu eta*] [...], juntaturazko egitura honetan ez bezala: [...*-tu*] *eta* [...]. Aldaerak: *-tu / adlatiboa - eta*.

- a. Oherako bidea hartu zuten etxeok, *gonbidatuak joan eta*.
- b. *Euskal-Herrirat-eta*, han ikusiko dut zer egin.

Ondokotasunaz bestelako denbora-ñabardura batzuk ere adieraz ditzake: *noiztik...*

2.2.2. -TU ETA GERO

Mendebaldeko euskalkietan erabiltzen da batez ere. Egitura: [...*-tu eta gero*] [...]. Aldaerak: *-tu eta / -tu-ta / -tuta - gero / geroxe / geroago / gerotxoago / geroz / gerora*.

- a. *Galdu eta gero* ezagutzen da ona.
- b. *Ura joanda gero*, alferrik da errekarri hesia egitea.

2.2.3. –TUTA

Mendebaldeko euskalkietan erabiltzen den forma hau *-tu* partizipioari *-ta* atzizki adberbiala erantsita sortua da; *-turik* formaren baliokidea da, erabilera eta balio askotara irekia. Denborazko balioa ere izan dezake, ondokotasuna adieraziz.

- a. *Behin irristaka hasita*, nork gelditu hura?

2.2.4. –TUTAKOAN

Gramatikalizaturiko forma honek ere ondokotasuna adierazten du.

- a. *Etxera heldutakoan*, amak diruak kendu zizkion.

2.2.5. –TU ONDOAN

Aldaerak: *-tu* / adlatiboa / (aditzoina) – *ondoan* / *ondoren(ean)* / *ondorean* / *ondotik*.

-tu (eta) ondoan, batez ere Iparraldean:

- a. *Xahartu ondoan ere*, festa zitzaion haietaz oroitzea.

-tu (eta) ondoren, gipuzkeran batez ere:

- a. *Musika bukatu ondoren*, etxera joan ziren denak.

-tu (eta) ondorean, Hegoaldean batez ere:

- a. Etxeko mailak aitaren batean igo zituen, *aurreskuari gabon esan ondorean*.

2.2.6. *-TU OSTEAN*

Batez ere bizkaieraz:

- a. Ez sarerik heda, *usoak alde egin ostein*.

2.2.7. *-TU(A)Z*

Erabilera asko ditu; denbora ere adieraz dezake, baina ez modu zehatzean.

- a. *Adiskideak agurtuz*, mahai ertzean eseri ziren.

2.2.8. *-TUZ GERO*

Aldaerak: (behin) *-tuz / adlatiboa + -z - gero / geroz / geroztik / [ezketiño, bizkaierazkoa / ezkerroan / ezkerokoan / ezkeroztandik]*.

Iparraldean: *-tuz geroz* erabiliena; *-tuz geroztik*, gutxiago; *-tuz gero*, zaharra.

Hegoaldean: *-tuz gero [-tu ezker]* erabiliena; *-tuz geroz*, urriago; *-tuz geroztik*, are urriago, gipuzkeraz batez ere.

Denbora baino maizago baldintza adierazten du. Denborazkoa denean, batez ere ondokotasuna ematen du aditzera:

- a. Gazetaz bertzerik egin du, *hura utziz geroz*.
- b. *Ezkonduz gero*, etxeko alabarik maitagarriena bezala hartu zuten.

Denborazkoa izanik, *noizdanikoa* ere adieraz dezake.

2.2.9. –TURIK

Erabilera asko ditu honek ere. Denborazkoa denean, ondokotasuna adieraz dezake:

- a. *Festak amaiturik*, etxera joan ziren.

3. IRAUPENA

Hiru mugapen izan dezake iraupenak: *noizdanikoa*, *noiz artekoa* edo *bitarteko osoa*. Perpaus nagusiak denboran luzatzen den gertakaria adierazten du. Aurreko nahiz azken muga adierazten duen mendekoak une bateko gertakaria seinalatzen du.

3.1. Iraupenaren aurreko muga

3.1.1. –TUZ GERO

Iraupenaren aurreko muga adizki jokatuko perpausen bidez adierazten da gehienetan. Jokatugabeetan bestetan ondokotasuna adierazten duen *–tuz gero* forma erabil ohi da inoiz horretarako, bere hiru aldaeretan.

- a. *Munduratu*z geroztik hirian naiz bizi.

3.2. Iraupenaren azken muga

Modu batera edo bestera *arte* postposizioa daramate sail honetako forma guztiek. Une bateko gertakaria adierazten dute. Adizki jokatuak bezain maiz erabiltzen dira.

3.2.1. -TU ARTE

Aldaerak: (harik eta) *-tu / adlatiboa / -tzera – arte / arteraino / arteino / artegino.*

- a. Ez dizut bakerik emango, *harik eta nahi dudana lortu arte.*

3.2.2. -TU ARTINO

Zubereraz batez ere: *aditzoina / adlatiboa – artino.* Beste euskalki batzuetan urriago: *-tu – artino.*

- a. *Biziak gal artino, ez gaituk errendatuko.*

3.2.3. -TU ARTIO

Aldaerak: (harik eta) *-tu / aditzoina – artio / arteo.*

- a. Horrela ibili ziren, *etxera heldu artio.*

3.2.4. -TU ARTEAN

Aldaerak: (harik eta) *-tu / aditzoina / adlatiboa – artean / (arte guztian).*

- a. Anaia han egoten da, *ni ohera artean.*

3.2.5. -TU ARTEKAN

Batez ere zubereraz eta behe-nafarreraz erabiltzen da: *aditzoina / -tu – artekan.*

- a. Bihotzaren bortan egoten da, *idek artekan.*

3.2.6. *-TU ARTEKO*

Aldaerak: *-tu / adlatiboa – arteko*.

- a. Aterpe bat eskatu zuten, *gau hura igaro arteko*.

3.2.7. *-TU BITARTEAN*

Aldaerak: *-tu / adlatiboa – bitartean / bitarteko / bizkitartean*. Une bateko gertakaria adierazten duenean, iraupenaren azken muga ematen du aditzera.

- a. Hemen egongo naiz, *zu etorri bitartean*.

3.2.8. *-TZERAINO*

Berez neurria edo *zenbaterainokoa*, adierazten duen forma honek, iraupenaren azken muga adierazteko erabiltzen da inoiz.

- a. Ereiten dutenetik *batzeraino* ez dute ezer egiten.

3.3. *Iraupenaren tarte osoa*

Iraupenaren tarte osoa adieraz dezakete bestetan azken muga adierazten duten *-tu bitartean* eta *-tu artean* formek eta bestetan aldiberekotasuna adierazten duten *-tuaz batera*, *-tu ahala* eta *-tu arau* formek. Testuinguruak eta aditzen izaerak argitzen dute erabilera.

3.3.1. *-TU BITARTEAN*

Aldaerak: *-tu – bitartean / bitarte*. Ariketa edo prozesua adierazten du maizenik perpaus mendeko aditzak:

- a. *Gailetak jan bitartean*, isilik zegoen.

Egoera aditzak forma jokatueta erabiltzen dira maiz, jokatugabeetan inoiz.

3.3.2. *-TU ARTEAN*

Aldaerak: *-tu / aditzoia – artean / arte*. Ariketa eta egoera aditzak maiz.

- a. *Oturuntzak iraun artean*, ez zioten elkarri hitzik egin.

2. KAUSAZKO ETA HELBURUZKO PERPAUSAK

Elkarrekin ematen ditugu atal honetan kausazko eta helburuzko perpaus jokatu gabeak. Ikusiko dugunez, batzuetan bi perpaus-mota hauek gurutzatu egiten dira forma aldetik. Egia da hiztunak argi duela, mintzo denean, zer motatako esaldia erabiltzen duen, eta zer nolako ñabardura eman nahi dion, kausazkoa edo helburuzkoa, baina forma aldetik, zenbait kasutan, itxura bera hartzen dute, eta testuingurua zein den ongi jakin gabe, elkarren arteko bereizketak ez dira erraz egiten. Adibidez, hau da *-TZEAGATIK* atzizkia hartzen duten aditzekin gertatzen dena, berehala ikusiko dugunez. Has gaitezen, lehenik, kausazko perpausekin.

2.1. KAUSAZKO PERPAUSAK

2.1.1. *Forma*

-GATIK postposizioa ezaguna dugu. Gainerako postposizioen artean sartu ohi dugu atzizki hau eta izen-sintagmari ohiko moduan erantsirik, postposizio-sintagma sortzen du:

- (1) a. ni euskarari nago, bihotzez ta gogoz, ez ederraren gatik bakarrik, bainan gurea delakotz (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 28).
- b. Deabrua da gure etsai andia, (...) soberbiagatik, eta bere eskergabetasunagatik (...) enbidiaz begiratzen digu (Guerrico, *Sayaquera* 2, 442).

Azpimarraturiko sintagma horiek –*GATIK* postposizioa dute eskuin buruan. Postposizio hau berau aditz-izenari ere eransten zaio, bien artean –*A* mugatzailea ere txertatuta, eta horrela sortzen dira aztertzen ari garen motako perpausak:

- (2) a. [Bakarrik ibiltze –*a* –*gatik*] gertatu zaio gertatu zaiona.
- b. [Karnetik gabe gidatze –*a* –*gatik*] atxilotu dute.

(1)-ean [PoS ederraren+*gatik*], [PoS soberbia+*gatik*] eta [PoS bere eskergabetasunagatik] ditugun bezala, (2)-an ere postposizio-sintagma berberak ditugu funtsean: [PoS bakarrik ibiltze+*a*+*gatik*] eta [PoS karnetik gabe gidatze +*a*+*gatik*].

2.1.2. –*TZEAGATIK* helburuzko nahiz kausazko

Perpaus hauek *zergatik?* galderari erantzun diezaiokete (*EGLU I*, 433-437):

- (3) – Zergatik zigortu zaitu amonak?
- Mikeli txokolatea ez emateagatik.

Horregatik, ‘motibatibo’ deitura ere eman izan zaio –*GATIK* postposizioari. Kausazko da, nolana ere. Alde horretatik, azpimarragarria da (1a)-ko adibidea, non [*ederrarengatik*] sintagma eta [*gurea delakotz*] perpaus kausala juntaturik ageri diren. Mota bereko osagaiak diren seinale. Kontua da –*ELAKO* atzizkiaz osatzen diren kausa-perpaus jokatuz gainera, hizpide dugun –*GATIK* atzizkiaz horniturik ere ager daitekeela kausa-perpaua. Hona hemen zenbait adibide:

- (4) a. *dirua epetan emateagatik ezer kentzea, ez da zillegi...* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 189).
- b. Egun hunekin Constanceko Konzilioan erre izan zen Ioannes Hus *Ebanjelioko egiaren sustengatzeagatik* (Leizarraga, *Kalendrer*a, 11).
- c. Nereak eta bi entzun ditut *ura puskatzeagatik* (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 88).

- d. Eriak sendatu ta beste mirari oiek egiteko eskubidea utsean, ezer kosta gabe eman zaitzue, ta zuek ere mirari *oiek egiteagatik* eztuzue deus eskatu bear (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 195).
- e. Juanbeltz Onegintza-gurutzea irabazita zegoan uretatik bost mutil koskor, bost txandatan, *bizirik ateratzeagatik* (Anabitarte, *Poli*, 19).
- f. Erakutsi ziran jaungoiko trakets bat, *gezurrak esateagatik* bekatxoak atera azitzen zituna (Barriola, *Goi-argi*, 53).
- g. Eztut uste *500 franko ebasteagatik* burue kenduko digutenik (Izeta, *Dirua galgarri*, 81).
- h. *Lapurretan egiteagatik* giltzapean euki dute (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 45).

Adibideotan zerbaiten zergatia ematen da eta edozeinek interpreta ditzake *kausazko* gisa.

Baina *-TZEAGATIK kausazko* ez ezik *helburuzko* ere izan daiteke. Hala izaten da askotan:

- (5) a. Midas Erregeak omen zituan belarritzar batzuek, astoarenak zirudienak, eta *iñork ez ekusteagatik* estaltzen omen zituan kontuz illearekin (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 490).
- b. Itz oietaz adierazi nai du Yesusek, *bere Aita zerukoaren nahia egiteagatik* gelditu dala yaurretxean (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 34).

Hauk ere *zergatik?* galderaren erantzunak izan daitezke:

- (5') a. – Zergatik estaltzen zituen belarriak?
 - Inork ez ikusteagatik.
- b. – Zergatik gelditu da jauregian?
 - Aita zerukoaren nahia egiteagatik.

Honek erakusten du kausa eta helburua oso hurbileko nozioak direla. Gauzak arreta pixka batekin aztertuz gero, berehala ohartzen gara helburua zerbaiten kausa edo arrazoi izan daitekeela. Eman dezagun nire helburua dela eskuartean dudan lan bat albait arinen amaitzea. Helburu hori izan daiteke, adibidez, ohera berandu arte ez joatearen arrazoa, honako perpaus honetan bezala:

(6) Ohera joan gabe geratu nintzen [lana amaitzeagatik].

‘Kausa final’ deitzen den zerbait bada, hain zuzen. Alegia, kausa bezala interpretatzen den helburu bat. Horixe da (5-6) adibideetan daukaguna. Baita honako hauetan ere:

(7) a. *Berari gustua egiteagatik* atera naiz (Izeta, *Dirua galgarri*, 27).

b. *Txangorako seguruago egoteagatik* galtzen nuan nik loa (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 69).

c. Mutil ura, noski, *diru pixka bat irabazteagatik* zetorren nere atzetik (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 91).

d. Zu, Jauna, *ni salbatzeagatik*, laidoztatua izatu zinen (Duvoisin, *Liburu ederra*, 58).

Hain zuzen, helburuzkotzat ematen ditugun esamolde hauen parafraziak erraz molda daitezke *nahi* hitza tartean sartuz. (7a)-ren pare-pareko gertatzen dira honako hauek:

(8) a. Berari gustua egin nahi niolako atera naiz.

b. Berari gustua egiteko NAHIAGATIK atera naiz.

Azken batean, horixe dira helburuzko *-TZEAGATIK* perpaus hauek: *nahia* (helburua, alegia) barnean daramaten kausazkoak.

Helburuak etorkizunari begiratzen dio. Horrenbestez, *-TZEAGATIK* hori gertakizun den zerbaiti zuzendua da. Helburuzkoa ‘prospektiboa’ da. Perpaus

hauek, kausalak direnean, aldiz, iraganari begiratzen diote edo, hobeki esan, gertatu den zerbaiti edo uneko egoera bati. Helburuzkoa, nolabait gertakizun da. Kausazkoa, aldiz, ‘erreal’, gertatua:

- (9) a. Zu agurtzeagatik etorri naiz. (lehenbizi etorri, gero agurtu)
b. Zu agurtzeagatik galdu dut trena (lehenbizi agurtu, ondoren trena galdu)

Badirudi hau dela *-TZEAGATIK* taxuko kausalaren eta helburuzkoaren diferentzia nabarmen bat.

Horregatik, ez da harritzeko *-eLAKO* kausala eta *-TZEAGATIK*, helburuzkoa nahiz kausazkoa, elkarren ondoan, juntaduran, aurkitzea. (10-n *-eLAKO* kausala eta *-TZEAGATIK* helburuzkoa ditugu juntaduran. (10-n, aldiz, biak dira kausazko):

- (10) a. Rakel'ek ere bere aitaren idoloak isillik artu zituen, *dala asko balio zutelako, dala bere aitaren etxetik jainko gezurrezkoak aienatzeagatik* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 39).
b. Liberalak behin baino gehiagotan salatuak izan ziren antiklerikalak izateagatik eta erlijioaren aurka zihoazelako (Ramirez de Okariz, *Oñati, gure herria*, 118).

Hortaz, *-TZEAGATIK* forma beraren azpian bi adiera ezkututzen dira: batzuetan kausa-balioa izango du eta beste batzuetan helburu-balioa, desberdinak, baina neurri batean, kide.

2.1.3. Noiz kausazko eta noiz helburuzko?

Forma bera modu batera nahiz bestera interpreta badaiteke, kontua da jakitea euskaldunak zer bide duen *-TZEAGATIK* perpausa batzuetan helburuzko gisa interpretatzeko eta beste batzuetan, aldiz, kausazko gisa.

Bietara interpreta daitezkeen, hots, anbiguo izan litezkeen perpausek egin diezagukete argi arazo honetan. Eman dezagun honako adibide hau:

(11) Auzokoak izutzeagatik zigortu zuten gizona.

Perpauk honek bi interpretazio izan ditzake, zein testuinguru edo egoera pragmatikotan esana izan den kontuan hartzen ez bada:

- a) Gizonak auzokoak izutu zituen eta horregatik zigortu zuten.
- b) Gizona zigortu egin zuten eta zigortze honen helburua auzokoak izutzea zen.

Hots: batean zerbait egin duelako zigortu dute eta bestean, zerbait gerta dadin zigortu dute gizona.

Kontua da, normalean, euskaldunak ez duela zalantza handirik izaten perpauk hauek, behar denean kausazkotzat hartzeko eta behar denean, helburuzkotzat. Edo perpauk batek adiera biak izatea ere litekeena da, anbiguo izan liteke, alegia. Perpauk nagusiak, eta bereziki perpauk horretako predikatuak duen esanahiaren arabera izango da *-TZEAGATIK* perpaukaren interpretazioa. Predikatu batzuen aurrean onartzen diren galdera bakarrak *zergatik?*, *zein da motiboa?* eta holakoak dira. Beste batzuetan, berriz, egin daitezkeen galdera honako honen tankerakoa izango litzateke: *zer helbururekin?* Kausa eta helburua oso hurbileko kontzeptuak direla badakigu, baina, antza denez, testuinguruari erreparatuta, perpauk nagusiari bereziki, batzuetan helburu-adiera nagusitzen da batzuetan. Beste batzuetan, aldiz, kausa-adiera. Nolanahi ere, testuinguruan dago azalpena, edo komunikazio egoeraren mende, zeren normalean, esan dugun bezala, ez dugu arazo larregirik izaten perpauk hauei interpretazio zuzena emateko.

2.1.3.1. Helburuzko adiera egiletasunarekin lotua ageri da

-TZEAGATIK perpausa helburuzko denean, perpauk nagusiko subjektua *egile* gisa interpretatzen da, helburu bat ezartzeko borondatea duen norbait

izan ohi da. Hori geroago ikusiko dugu. Aldiz, perpaus hori kausazko gisa interpretatzen denean, ez daukagu holakorik: egile bat egon daiteke, baina mendeko perpausa, batez ere, perpaus nagusiko jasaile bati begira edo egon ohi da. Adibide hauetan hori argi samar dagoela esango genuke:

- (12) a. *Zerbait egiteagatik*, izararen ertza hartu eta malkoak lehortu nizekion.
(Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 440).
- b. Handiki gehienek beren guztia emango lukete *Kattalinen jabe egiteagatik*.
(Lertxundi, *Konpainia noblean*, 13).

Bi adibide hauetan, helburuzko adiera du perpaus mendekoak, honako parafrasi hauek salatzen duten bezala:

- (12') a. Zerbait egiteko helburuarekin, izararen ertza hartu eta malkoak lehortu nizekion.
- b. Handiki gehienek beren guztia emango lukete Kattalinen jabe egiteko helburuarekin.

Mendeko perpausean helburu bat baldin badugu, perpaus nagusian badugu, subjektu gisa, borondate jakin bat duen norbait: (12a)-n NI naiz malkoak norbaiti lehortzen dizkiona eta hori egitean, nire helburua, nolabait, zerbait egitea izan da. Malkoak xukatzea borondate batekin egina izan da. Oso xumea izanik ere, helburu bat izan dut: zerbait egitea. Horregatik, perpaus hori helburuzko gisa eman du idazleak: *zerbait egiteagatik*. (12b)-n ere gauza bera: handikiek beren guztia emateko borondatea dutela esaten zaigu eta emate hori helburu batek gidatua da: Kattalinen jabe egitea. Horregatik eman du idazleak helburuzko gisa: *Kattalinen jabe egiteagatik*.

2.1.3.2. Kausa-adierak jasailea eskatzen du

Errepara diezaiegun honako adibide hauei:

- (13) a. Mila eta mila aldiz merezi izan dut heriotza, baina ez behin baino gehiagotan larunbata hausteagatik, ez behin baino gehiagotan larunbateko jaiari burla eta iseka gaiztoa egiteagatik; baizik eta jaiotako orok heriotza dugulako zor (Juaristi, *Airezko emakumeak*, 20).
- b. Prometeori zigorra ezarri zitzaion, eta hantxe bere haitzari kateaturik egon behar izan zuen, Zeusen legea hautsi eta hari amarru egiteagatik gizakien mesedetan (Juan Garzia, *Sagua, eulia eta gizakia*, 140).

(13a)-ko perpaus nagusian heriotza merezi duena ez da ezeren egile. Izatekotan ere, zerbaiten *jasaile* izango da. Predikatuak adierazten duen ekintza edo gertakaria jasaten duen pertsona edo gauza izango litzateke. Batzuetan, ‘gaia’ deitzen denarekin batera doa. Dena dela, egilerik ez bada, borondaterik ere ez da, ez eta helbururik ere. Hori dela eta, *larunbata haustea* eta *larunbateko jaiari iseka egitea* gertakariak, hiztunak jasaten duenaren arrazoi, kausa, dira. Horrenbestez, kausazko perpausen aurrean gaude.

(13b)-ren arabera, norbaitek Prometeori zigorra ezarri zion. Ez zaigu esaten nork, baina egileren batek, noski. Prometeok, gainera, haitzari kateaturik egon beharra ere nozitu zuen. Ez zuen borondaterik horretarako. Pentsatzekoa da bere borondatearen kontrakoa izan zela hori. Kasu honetan ere mendeko perpausa helburua ez, kausa izango da. Mendeko perpausa Prometeori zuzendua da, ez honi zigorra ezarri zionari. Ez dago egile bati zuzendua, jasaile bati baizik.

2.1.4. Perpaus nagusiko argumentuak eta mendeko perpausoko subjektua

Helburuzko perpausen eta kausazkoen arteko diferentzia nabarmen bat aipatu dugu. Perpaus nagusian egile bat izateak eta egile honen egintza helburu baterantz gidatua izateak markatzen du bidea. Baina gerta daiteke perpaus nagusian egile bat izatea eta, hala ere, perpaus mendekoa helburuzkoa ez izatea, kausazkoa baizik. Goiko (13b) adibidean, esaterako Prometeori zigorra ezarri

ziona, nor izan zen esaten ez bazaigu ere, ekintza baten egile da. Hala ere, Prometeoz ari gara, hau da mintzagaia (honi ezarri zitzaion zigorra eta hau izan zen kateaturik egon behar izan zuena) eta hau da, jasaile den neurrian, *-TZEAGATIK* perpausaren kausazko interpretazioari aukera ematen diona.

Honako adibide hauetan ere gauza bertsua dukegu:

- (14) Hizkuntza eskakizuna ez lortzeagatik egonkortasuna galdu dute irakasleek.

Hemen ere *irakasleak* ez dira *egileak*, egonkortasuna galtzea jasaten dutenak baizik. Hortaz, hemen ere, egiazki, *jasaile* bat daukagu eta kausazko perpausa jasaile honi zuzendua da.

Horixe erakutsiko liguke honako adibide pare honek ere:

- (15) a. [Gehiegi estutzeagatik] apurtu zaio Mikeli gerrikoa.
b. [Lapurreta egiteagatik] apurtu du Mikelek kristala.

Gerrikoa apurtzearen jasailea Mikel da. Ez du nahita apurtu, apurtu egin zaio, besterik gabe. Alderantziz, (15b)-n, *-TZEAGATIK* perpausa helburuzko garbia da, Mikelek helburu jakin batekin, lapurreta egin nahi duelako alegia, apurtu baitu kristala.

Honek guztiak argi uzten du aztergai ditugun perpaus hauetan guztietan perpaus nagusiko osagaien, argumentuen, aktanteen edo direlako horien nolakotasunak eta antolamenduak garrantzia duela: helburuzko perpaus perpaus nagusian egile bat eskatzen dute eta perpaus mendekoa bera egile honi begira dago, nolabait. Ostera, kausazkoetan, egilea gorabehera, axola duena jasaile baten presentzia da. Perpaus mendekoak, oraingoan, jasaile honi begiratzeko dio. Hain zuzen, orain arteko kasu guztietan horixe ikusten da.

Hala ere, kontraadibidetzat har litzake norbaitek, behar bada, honako honen tankerakoak:

- (16) Indianoak barkamena eskatu zion neskari *proposamen lizunak egiteagatik* (Lertxundi, *Konpainia noblean*, 99).

Indianoak eskatzen du barkamena. Barkamena eskatzen duenak zerbait egiten du eta borondatez dihardu, gainera. Baina egile honezaz gainera, perpausetan bada beste parte-hartzailerik ere: *barkamena* osagaia *eskatu*-ren objektutzat hartzen dugu, eskatzearen gaia dela esan ohi da. Horrezaz gainera, badugu *neskari* osagaia ere. Hau eskariaren hartzailea da. Pentsa liteke, hau dela perpaus nagusian dugun jasailea eta, horrenbestez, (16)-an kausazko perpaus bat dugunez gero, gure goiko aldarrikapena egia bada, jasaile honi zuzendua egon beharko luke mendeko perpausak. Hala ere, ematen du ez dela horrela: *indianoak* egileari “begira” dagoela dirudi [proposamen lizunak egiteagatik] perpausa. Baina, gauzak hobeki aztertuta, berehala konturatzen gara perpaus kausala ez dagokiola *eskatu* predikatuari zuzenean, [*barkamena eskatu*]-ri baizik. Eta gauzak oraindik pixka bat gehiago zehaztuz, pentsa dezakegu, barkamena bera dela hor funtsa, ez *eskatzea*. Hori erakutsiko liguke ondoko adibide pare honek:

- (17) a. Auto garesti hura erosteagatik eskatu nion barkamena emazteari.
b. Auto garesti hura erosteagatik eskatu nion mailegua bankuari.

Zergatik interpretatzen dugu bata modu batera eta bestea beste modu batera? Diferentzia *eskatu*-ren objektuan dago: *barkamena* vs *mailegu bat*. Hain zuzen, norbaitek barkamena eskatzea ‘norbaitek barkatzeko eskatzea’ bezainbat da, edo, ‘norbaitek barka diezaioten eskatzea’ bezala. (17a)-n barkamena eskatzen duena eta, horrenbestez, barkatua izango dena, pertsona bera da. Beraz, bieran ere, delako pertsona hori barkatzearen jasailea dela esango dugu. Aldiz, (17b)-n mailegua eskatzea helburu batekin egina da: auto garesti hura erostea. Mailegua eskatzen duenak ez du ezer jasaten, bankuarekin izango duen zorra ez bada, baina barkazioaren hartzailea, barkazio eskatzailea bera izanik, jasailea da.

Honen antzeko zerbait gertatzen da ‘eskerrak eman’ predikatuarekin ere, baina oraingoan gauzak alderantziz gertatzen direla dirudi. Oraingoan munta duena

ez da eskerrak *ematen* dituen eskerrak nork *hartzen* dituen baizik. *Eskerrak eman*-en kasuan, esker horien hartzaileari zuzendua dago mendeko perpausa.

- (18) a. (Nik) (zuri) eskerrak ematen dizkizut [atzo deitzeagatik]
b. (Nik) (zuri) barkamena eskatzen dizut [atzo deitzeagatik]

(18a)-ren arabera, *zuk atzo deitu zenidan eta horregatik eskerrak ematen dizkizut*. Izan liteke, esaterako, atzo deitzea oso garrantzitsua izatea deiaren hartzailearentzat eta hala gertatu izana eskerrak emateko modukotzat hartzea hitzunak. (18b)-n, aldiz, irudika dezakegu egoera bat non prezeski atzo deitzea desegokia zen, beranduegi zelako adibidez. Orduan, ‘nik atzo deitu nizun’ daukagu orain eta ‘nik, horregatik, barkamena eskatzen dizut’:

- (18’) a. (Nik (zuri) eskerrak ematen dizkizut [zuk (niri) atzo deitzeagatik]
b. (Nik) (zuri) barkamena eskatzen dizut [nik (zuri) atzo deitzeagatik]

Perpaus hauek hitzunak, aparteko ahaleginik gabe, ongi bereizten ditu. (18a)-n hitzunak badaki isilpeko subjektu hori perpaus nagusiko *zuri* osagaia-
ren erreferentzia berekoa dela. Aldiz, (18b)-n, perpaus horren subjektu isila ez da *zuk*, *nik* baizik, hots, perpaus nagusiko *nik* osagaiaren erreferentziakide. Perpaus txertatuko subjektu isilak aurrekari bat behar du perpaus nagusian. Kausazko perpausen kasuan, subjektuaren aurrekari hori, oro har, *jasailea* dela esango dugu. Helburuzkoetan, aldiz, *egilea* izan ohi da.

Mendeko perpausoko subjektu hori zehaztugabea ere izan daiteke. Hori gertatzen da, esaterako, zentzu orokorrean hartzen ditugunean perpausok, inolako denbora, aspektu, ez aditzaz gainerako beste perpaus osagaiei buruzko xehetasunik ematen ez dugunean:

- (19) a. Jabeei exigi dakizkiekeen obligazioak ez betetzeagatik konpentsazio sistema lankidetzan sistemagatik ordeztzen denean (GAO, 1990-04-30, 2).
b. Diskriminazioaren debekua, dela arrazagatik, koloreagatik, ... dela guttiengo etniko baten partaide izateagatik (Bengoetxea, *Hamahirugarren izarra...*, 68).

Dena dela, hauetan ere mendeko perpausa jasaile zehazgabe bati lotua da-goela ulertzen dugu: (19a)-n *sistema ordezkatzeara* norbaitek jasaten du. (19b)-n ere beste horrenbeste: *diskriminazioa* norbaitek jasaten du.

2.1.5. –TZEAGATIK perpausa eta gainerako kausa-perpausak

EGLU VI-n, kausazko perpaus jokatuak aztertu genituenean, esan genuen, perpausok perpaus nagusiaren *barnekoak* izan daitezkeela. Hauei *kausal bete* izena ematera ere ausartu ginen (*EGLU VI*, 4.3.3.). Tipikoena –*LAKO* formakoa dugu. Hau galdegai izan ohi da maiz, nahiz eta mintzagai ere izan daitekeen:

- (20) nere nagusiak orain iru egun, bidean utzi ninduen, *gaxotu nintzalako* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 179).

2.1.5.1. –TZEAGATIK, perpaus barneko kausal

EGLU VI-n –*LAKO* kausalaren parean, beste esamolde batzuk ere aztertu genituen: *BAIT*- aurrizkiak baliatzen dena edo –*NEZ GERO* modukoak. Hauek, ordea, beti mintzagai izan ohi dira, ezinbestean. Holakoak azalpenak emateko erabiltzen ditugu, gainera:

- (21) a. Ez gabiltza hezur-haragizko gizakien artean, sinbolo artean baizik eta, *Peru dugunez gero sinbolo nagusia*, Peruren hauzia da aurrenik erabaki beharrekoa (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 337).
- b. Erropa zuritik emango bazenit, eskertuko nizuke, *soiñean daramatana iguingarri baitut* (Etxaide, *Joanak-joan*, 225).

–*TZEAGATIK* tankerako perpausak, –*LAKO* bezala, perpaus barneko osagaiak ditugu gehienetan. Horregatik, mendeko beste perpaus baten barnean txertatuak egon daitezke:

- (22) Irakasleak esan zidan [[hitzaldira etortzeagatik] eskerrak eman zizkiela].

Perpausaren ‘barneko’ osagai izanik, maiz galdegai izango dira, baina mintzagai ere izan daitezke:

- (23) a. Ahoa zabaltzeagatik gertatu zaizu hori.
b. Ahoa zabaltzeagatik, holako gauzak gertatzen dira.

Ez dute balio azalpenak emateko:

- (24) *Isildu zaitez pixka baten, gauza gutxi jakiteagatik. (cf. Isildu zaitez, gauza gutxi dakizu eta)

Horrek esan nahi du, aditz jokatugabeko perpaus hauek *-eLAKO* formaz ordezkia daitezkeela batzuetan, baina *BAIT*-en edo *-eNEZ GERO*-ren bidezko parafrahirik nekez izango dugula. Errepara diezaiegun honako adibide hauei:

- (25) a. Gizon bat atxilotu dute *emaztea jipoitzeagatik*.
b. Gizon bat atxilotu dute *emaztea jipoitu duelako*.
c. Gizon bat atxilotu dute, *emaztea jipoitu baitu*.
d. *Emaztea jipoitu duenez gero*, atxilotu egin dute gizona.
- (26) a. Eskerrak eman dizkirate *gonbita onartzeagatik*.
b. Eskerrak eman dizkirate *gonbita onartu dudalako*.
c. Eskerrak eman dizkirate, *gonbita onartu baitut*.
d. *Gonbita onartu dudanez gero*, eskerrak eman dizkirate.

Perpaus hauek denak zuzenak dira, baina ez dute esanahi bera: pareka daitezkeen bakarrak “a” eta “b” dira. Beste biak azalpenezkoak ditugu. *Zergatik?* galderari erantzuteko balio dutenak, bete-betean, bi lehenbizikoak dira, ez bi azkenak. Hauei dagokien galdera *Zer dela eta?* edo izango litzateke.

2.1.5.2. *-eLAKO* vs *-TZEAGATIK*

Hala ere, *-TZEAGATIK* eta *-eLAKO* neurri batean bakarrik dira elkarren ordain:

a. *-eLAKO* formako perpaus kausala barnekotzat eman genuen, perpaus nagusiaren barneko osagaitzat. Aldiz, azalpenezko diren *-eNEZ GERO* eta *BAIT-* formakoak perpausaren kanpo aldekotzat jo genituen. Alde honetatik, *-TZEAGATIK -eLAKO*-ren pareko litzateke, barneko perpaus kausala alegia. Horregatik, esaterako, biak izan daitezke galdegai eta biek erantzun diezaioke-te *zergatik?* galderari:

(27) Zergatik ordaindu dizute hainbeste diru?

a. Partida garrantzitsua irabazi dugulako (ordaindu digute dirutza hori).

b. Partida garrantzitsua irabazteagatik (ordaindu digute dirutza hori).

Ez dirudi alde handirik dagoenik, hortaz. Diferentzia bakarra da perpausa jokatua denean jokatugabea denean baino askoz ere informazio gehiago ematen zaigula. (27a)-n, adibidez, badakigu partida irabazi dugunak gu izan garela. (27b)-n ere, besterik ezean, horixe izango litzateke interpretazio ohikoa, baina subjektua beste bat dela ere pentsa genezake. Honako hau zilegi da, adibidez:

(27') Realak partida garrantzitsua irabazteagatik ordaindu digute dirutza hori.

Argi dago, nolana ere, zalantzan ezer utzi nahi ez denean, normalena *-eLAKO* erabiltzea dela. Hala ere, gorago interpretazio orokorra dutela esan dugun perpausetan *-(19)-koetan-*, alegia, non ezin den zehaztasun handirik eman ez aditzaren argumentuez ez aspektu-denbora kontuez, ezina gertatzen da *-eLAKO* forma. Adibidez, honako perpaus hau nekez ordezkadaiteke perpaus jokatu batez:

(28) a. EGA titulua izateagatik, bi puntu emango dira.

b. *EGA titulua izaten delako, bi puntu emango dira.

Beste batzuetan, *-TZEAGATIK* formaren aldeko jarrera erakusten dugu hiztunok, arrazoi sintaktikoengatik edo. Hots: batzuetan forma jokatu-gabea erabiltzen da perpaus horren nagusia beste batean txertatua dagoenean. Esate baterako:

- (29) a. Esan zidan [ze suerte ona nuen [hain osasuntsu izateagatik]] (Gonzalez, *Diamantearen plaza*, 162).
- b. Zordunari, (...) eta [[helbide ezezagunean egoteagatik] zuzenean jakinarazi ezin zaien] interesatu guztiei, buletin ofizialaren bidez emango zaie honen berri (*GAO*, 1993-05-25, 4778).
- c. Emakume sendo samarra zela besterik ez zuen gogoratzen, baina baliteke [uste hori bera [orduak askoz txikiagoa izateagatik] edukitzea] (Biguri, *Ateak zabalik dituen presondegia*, 30).

b. Baina, alderantziz, badira kasuak non forma jokatu-gabea (*-TZEAGATIK*) bitxi samarra gertatzen den. Halakoetan naturalago sentitzen dira perpaus jokatuak. Hona hemen horietako adibide zenbait.

- (30) a. ?Perretxiko hau kalitate eskaseko jangarria da, likatsuegia izateagatik.
- b. ?Ezaguna izateagatik, partikula modalen erabilkuntza oraingoz albora uzten dut.
- c. ?Udan, bizitza errazagoa izateagatik, landareak hazi eta animaliak ugaltu egiten dira.
- d. ?Herrialdeetako maparik inon aurkitzen ez baduzu (batzuetan ez dira salgai egoten, kartografia militarra izateagatik), Nazioarteko Instituto Geografikoan eska dezakezu.

Hauen ordean, askoz egokiago beste hauek, adibidez:

- (30') a. Perretxiko hau kalitate eskaseko jangarria da, likatsuegia {baita / ?delako}.
- b. Ezaguna denez (gero), partikula modalen erabilkuntza oraingoz albora uzten dut.

- c. Udan, bizitza errazagoa {baita / denez (gero)}, landareak hazi eta animaliak ugaltu egiten dira.
- d. Herrialdeetako maparik inon aurkitzen ez baduzu (batzuetan ez dira salgai egoten, kartografia militarra delako), Nazioarteko Instituto Geografikoan eska dezakezu.

Eta arrazoia da kausazko adiera izateko, perpaus nagusian behar den jasailerik ez dela. Edo beste arrazoi bat izan liteke azalpeneko perpausa behar dugula, eta horretarako ez da egokia *-TZEAGATIK*.

(30a)-n, [*— likatsuegia izateagatik*] perpausoko subjektua isilpean dago baina honen aurrekari izan litekeen jasailerik ez da perpaus nagusian, [*perretxiko hau*] ezin baita jasaitzat hartu. (30b)-n ere gauza bera: [*partikula modalen erabilkuntza*] litzateke mendeko perpausoko subjektu isilaren aurrekaria, baina hau ere ezin da jasaile izan, hau ere ez baita biziduna. Eta (30c)-n, areago, zeren [*bizitza errazago izateagatik*] perpausaren subjektua agerikoa izateaz gainera, ez dugu jasailerik perpaus nagusian. (30d) perpausaren makurra ere modu berean azal daiteke. Hemen ere ez dugu jasailerik perpaus nagusian. Badugu osagai bat, objektua edo dena, baina jasaile gisa ezin interpreta daitekeena, ez baita biziduna: mapak nekez izango dira jasaile. Beste izen bat balitz, jasaile gisa interpretatzeko gai dena, orduan hobeki pasatuko litzateke *-TZEAGATIK*:

- (31) a. ?Herrialdeetako mapak batzuetan ez dira salgai jartzen, kartografia militarra izateagatik.
- b. Gizaki errukarri haiek salgai jartzen zituzten batzuetan, azal beltza izateagatik.

2.1.6. *Aspektua: -TZEAGATIK* vs *-TU(IZAN)AGATIK*

Perpaus jokatu gabeetan morfologiaz behintzat aspektua bereiz daiteke zenbaitetan: *etortzea* vs *etorri izana*; *egitearen* vs *egin izanaren*, etab. Hala ere, morfologiazko bereizketa hori zenbaitetan neutralizatu egiten da:

- (32) a. Pozten naiz zu ezagutzeaz.
b. Pozten naiz zu ezagutu izanaz.

Biak dira zilegi eta biak izan daitezke, funtsean, baliokide.

–*TZEAGATIK*-en kasuan ere bereizketa hori formalki egin liteke: *etortzeagatik* vs *etorri (izan)agatik* formaz desberdinak dira. Teorian, bata [-burutua] izango litzateke, bestea [+burutua]. Praktikan, ordea, forma [+burutua] perpaus kontzesiboak osatzeko erabiltzen dugu. Kausazkoetan forma [-burutua] erabili ohi dugu:

- (33) a. Gaizki aparkatzeagatik zigortu naute.
b. Gizenegia izateagatik ukatu diote sarrera.

Bi perpaus hauetan, (33a)-n, gertatua den zerbait da kausazko perpausean biltzen dena. [+burutua] litzateke, nolabait. (33b)-n, berriz, ‘gizenegia izatea’ egoera bat da. [-burutua], hortaz. Eta, hala ere, forma bera erabilia, ulertzeko arazorik batere ez dugu. Honako honetan ere ez:

- (34) Eskerrik asko etortzeagatik.

Adizki jokatugabearen forma gorabehera, esaldi horretan, gertatua den zerbait eragin du eskerrak ematea. Baina gerta liteke burutua ez den ekintza batengatik eskerrak ematea ere:

- (35) Eskerrik asko lanean segitzeagatik. (hots: lanean segitzen duzue eta horregatik eskerrak ematen dizkizuet)

Honek esan nahi du perpaus hauetan ez dela aspektu-bereizketarik egiten. Bereizketa hori, egitekotan, perpaus nagusiko aditzaren arabera egiten da. Aspektuaren bereizketa formalak, aspektu-bereizketa ez baizik beste bat egiteko balio digu, hain zuzen kontzesiboen eta kausalen artekoa. Alegia, ohikoa da euskaraz, *etorriagatik*, *etorri izanagatik*, *eginagatik* eta holakoak kon-

tzesiboetarako erabiltzea eta *etortzeagatik*, *egiteagatik* eta abar, aldiz, kausazkoetarako edo helburuzkoetarako gordetztea.

Gauzak gisa honetara izan dira beti. *Etorri izanagatik*, *uste izanagatik* eta holakoak perpaus kontzesiboak dira, *etorri arren* edo *nahiz eta uste izan* bezalaxe. Hori da perpaus horien balioa.

- (36) a. Zorionak eman zizkidan, beka eskuratzegatik (=eskuratu nuelako) [kausala]
b. Beka eskuratu izanagatik, zorionak eman zizkidan (=beka eskuratu arren) [kontzesiboa]

Holako esamoldeak ugaltzen ari direlako susmoa bada, baina bide okerra da:

- (37) a. ?Ezin zitzaion errurik leporatu lehenago ez konturatu izanagatik.
b. ?Haesen eragina begibistakoa da, bai ikuspuntua goizeko argi disdiratsuaren aurrean aukeratu izanagatik, (...) bai okre, urdin eta berdez osaturiko sare itxiaren barruan nagusi den erabilitako kolore nabarragatik.

Alderantzizko lekukotasun batzuk ere, alegia, *-TZEAGATIK* kontzesibo gisa ematen digutenak, bil litezke han-hemenka. Hona hemen horietako adibide bat:

- (38) Alde batetatik gizon gaiztoaren itxura zeukan, iduri txarreko gizona. Ta izugarri izateagatik, ez al zitekean biotz-bera izan...? (Anabitarte, *Poli*, 19).

Bide hau ere, jakina, ez da gomendagarria.

Gauzak horrela, ustezko logika baten eraginez, aspektu bereizketa perpaus hauetara ere eramán nahiak, okerra eta nahastea besterik ez dakar. *-TU (IZAN) AGATIK* formako perpausa ‘gordea’ dago aspalditik kontzesiboetarako. Esparru hori ezin zaio ukatu.

Hortaz, *-TZEAGATIK* eta *-TU (IZAN)AGATIK*-en arteko bereizketa ez da aspektuzkoa –formaz hala den arren– sintaktikoa eta semantikoa baizik. Alegia, lehenbizikoa kausazkoa edo helburuzko izango da, bigarrena, kontzesiboa:

<i>-TZEAGATIK</i>	Kausazkoa (jasaile baten kontrolpean)	Helburuzkoa (borondatedun egile baten kontrolpean)
<i>-TU (IZAN)-AGATIK</i>	Kontzesiboa	
<i>-TZEAGATIK</i>	Kausazkoa (jasaile baten kontrolpean)	Helburuzkoa (bordondatedun egile baten kontrolpean)
<i>-TU (IZAN)-AGATIK</i>	Kontzesiboa	

2.1.7. *-TZEAREN*

Aipatu berri dugun *-TZEAGATIK / -TU(IZAN)AGATIK* bikotearen ondoan, *-TZEAREN / -TUAREN* forma parearen ere hor dugu. Formen artean ikusten dugun parekotasunaz gainera, partizipiodun bi formak (*-TU (IZAN)AGATIK* eta *-TUAREN*) kontzesio-perpausak osatzeko baliatzen ditu euskarak (ik. 4. Kontzesio-perpausak). Modu berean, espero izatekoa litzateke *-TZEAGATIK* eta *-TZEAREN* formen artean ere parekotasun berbera aurkitzea. Baina gauzak ez dira horrela, oro har. Izan ere, *-TZEAGATIK*-en balioa, ikusi dugun bezala, kausazkoa nahiz helburuzkoa izan daitekeen bezala *-TZEAREN*-en balioa helburuzkoa da gehienbat:

- (39) a. Neskaitilla onegaz apurtxo baten egotearren etorten ei dira (Echeita, *Josecho*, 41).
- b. Abadea ioaian lenengo; atzetik Joxepa eta Mikaela, eta azkenengo, amar metro atzeragotik, Luziano, erdi makurrik eta zaratarik ez ataratearren beatz-puntetan (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 273).

- c. Sukaldeko sua ez aitzearren baserri askotan, gauez apalondoan, sua bere txingar eta suautsakin bildu oi da (Barandiaran, *Euskalerriko leen-gizona*, 91).

Ondoko adibide honetan *-TZEAGATIK* eta *-TZEAREN*, biak, juntaturik ematen dira, biak elkarren kide baitira:

- (40) Azkenengo egunean, aren ona eukiteagaitik eta andrearen esanak jarraitzearen, (...) armiñ da keixu, biurtu zan etxera gure gizontxoan (Aguirre, *Kresala*, 178).

Hau da *-TZEAREN* gisako perpausen erabilera ohikoena. Gehienetan heburuzko adiera dute.

Hala ere, ohikoegia ez izan arren, ez hedatuegia, kausazko adierarekin ere erabiltzen da.

- (41) a. Behingoagatik, beraz, milesker, euskaltzain oso, oso euskaltzain jokatzearen (Markuleta, *Milesker...*, 5).
b. Neska areik erderaz egitearren markesak zirala uste eben. (Gallastegi, *Euskerea zertarako?*, 6, 1).
c. Damu eban bulegoko lan atzeratua etxera ez ekartearren (Gorostiza, *Ipuin arinak*, 63).
d. Arro ebillen artz bat, gorpurik ez jatearren, gizakumeak maite ebazala-ta. (Onaindia, *Esoporen ipuiñak*, 105).

Batzuetan, ez da batere erraza helburuzko ala kausazko diren. Honako hauetan bezala:

- (42) a. Zein sari dago hori egitearren? -galdetu zuen Enekok- (Ortiz de Landaluze, *Enekoren soineko arrosa*, 25).
b. Unairen gurasoak okelea emoten eutsen ardiak heuren lurretan edukitearren. (Amondarain, *Non dagoz nire ardiak?*, 17).

Bietara interpreta litezke perpausok. (41b)-ren kasuan, esaterako, pentsa liteke okela ematen ziotela ardiak zain zitzan, edo ardiak zaintzearen ordain gisa. Dena dela, holako interpretazioak *-TZEAGATIK* formarekin ere berdinberdin gerta daitezke. Horrek erakusten du, azken batean, helburua eta kausa, esana dugun bezala, oso hurbileko kontzeptuak direla, zeren helburua ere zerbaiten kausa edo motiboa izan ohi da.

Gainerakoan, *-TZEAGATIK*-i buruz esandako guztiak balio dute *-TZEAREN*-entzat ere. Diferentzia nagusia erabileran dago: *-TZEAREN* ia erabat helburuzko den bitartean, *-TZEAGATIK* gehienbat kausala da, baina helburuzko gisa ere erruz erabiltzen da.

Horrenbestez,

<i>-TZEAGATIK</i>	Kausazko eta helburuzko, biak.
<i>-TZEAREN</i>	Kausazkoa izan daiteke, baina gehienetan helburuzkoa da.

2.1.8. Kausa adierazteko beste bide batzuk: *-TURIK* eta *-TUTAKOAN*

Baditu euskarak beste bide batzuk ere kausa edo azalpena adierazteko, hemen aipatu baizik egingo ez ditugunak. Aski arrunta Ekialdeko euskalkietan, esaterako, partizipioa erabiltzea partitiboan, batez ere, esamolde egin batzuetan:

(43) Eskerrik asko etorririk.

Beste zenbaitetan *-TUTAKOAN* ere erabiltzen da, kausazko balioarekin:

(44) Ezta arritzekoa, gizagajo au gerra bukatu baño len nere kontra ari izatea; baño bukatu zanetik, ainbeste saldukeri ikusitakoan, arritzen naiz, aurrera ere nere kontra ari izatea (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 140).

2.2. HELBURUZKO PERPAUSAK

2.2.1. Helburuzko perpausen funtsezko ezaugarriak

Aurreko liburukian (*EGLU VI*) adierazten genuen gisan, helburuzko perpausak erabiltzen ditugu zerbait egiteko xedea edo helburua adierazi nahi dugunean. Hori dela eta, intuizioz gogora etortzen zaizkigun helburuzko perpausak *ZERTARA* (eta *ZERTAN*, bizkaieraz), eta *ZERTAKO* edo *ZERTARAKO* (bi hauek aldaera hutsak dira) galderei erantzuten dizkietenak dira, horiek markatzen baitute, itxuraz bederen argi eta garbi, aipatu dugun xedearen kontua:

- (45) a. – Zertara/zertan etorri zara? - [Zu ikustera/zu ikusten] etorri naiz.
b. – Zerta(ra)ko ekarri duzu argazki hori? - [zuri erakusteko] ekarri dut.

Hala ere, gure gramatikaren lehen urrats hauetan ez ditugu perpaus horiek multzo berean sailkatzen, *ZERTARA* eta *ZERTAN* (bizkaierazko erabilera horretan, jakina) galderei erantzuten dizkieten perpausak perpaus osagarritzat joko baititugu, eta ez helburuzkotzat. Beraz, “zertara etorri zara?” edo “zertarako erosi duzu?” perpausak bi sailetan sailkatzen ditugu: lehenak osagarri perpausak dira (ik. Perpaus osagarriak, 7.3.2.2. atala), eta bigarrenak bakarrik helburuzkoak. Hauetara mugatuko gara ondoko lerroetan.

EGLU VI liburukian esan zen moduan, helburuzko perpausak jokatuak nahiz jokatugabeak izaten ahal dira:

- (46) a. Liburu hau zuk irakurtzeko ekarri dizut.
b. Liburu hau irakur dezazun ekarri dizut.

Hemen perpaus jokatugabeek ariko gara. Helburuzko perpaus jokatugabeek honako ezaugarriak dituzte:

- Perpaus txertatuak dira, eta *-TZEKO* amaiera hartzen dute.

- Perpaus nagusian borondatea edo nahikaria agertzen da, zerbait gerta dadin.
- Gertatuko den hori perpaus nagusian ageri den aipatu borondatearen ondorioa da. Kausa-ondorio motako perpausak dira, hortaz.
- Aditz nagusiarekin sortzen diren harremani dagokionez, osagarriak ez diren perpausak dira.

Holako perpausak dira, hortaz, helburuzkoak:

- (47)
- a. Pilatok ordutik are eresi geiago artu zuen Jesus libratzeko (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 456).
 - b. Esku emanik izan zeion lurraren lau eretzetan hiltzeko (Duvoisin ap. *DRA*).
 - c. Jainkoak igortzen dauzku eritasunak gure bekhatuen gaztigatzeko (Jauretche, *Meditazioneac*, 130).
 - d. Nork daki Izpurun zer zen “Errekulusa”? Eritegi zahar bat, lepradunen preso bezala gakhotzeko ez bazen, hartaratua (*Egunaria* 6-8-1955 ap. *DRA*).
 - e. Garazi huntan gudukatzeko / hautatu dituzte zortzi [pertsulari] (Etchamendy, *Bertsuak*, 239).
 - f. Zeña [arraina] eskabetsaturik gordetzen duten guriro, ez aldietan saltzeko (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 202).

Ezaugarri hauek dira, hain zuzen ere, ondoren azalduko ditugunak.

Adibideetan ikusten den gisan, funtsezko bi ezaugarri dituzte. Bata, formari dagokio, bestea esanahiari. Honako hauek dira:

- Formaz ari garela, esan behar da helburuzko perpaus jokatu gabeek, adibide horietan guztietan ikusten denez, *-TZEKO* atzizkia hartzen dutela.
- Esanahiari dagokionez, perpaus hauek txertatzen diren perpaus nagusien adierazian zerbait gertatzeko borondatea ageriko da. Ikus dezagun ondoko perpaus hau:

- (48) Liburu hau zuk irakurtzeko ekarri dut.

Hau da helburuzko perpaus garbi horietako bat: *-TZEKO* marka hartzen du aditz-izenak, eta liburua ekarri duenaren borondatea da beste norbaitek liburu hori irakurtzea.

2.2.2. Zalantza batzuk

Hala ere, ohar batzuk egin behar ditugu. Zenbait kasutan, zalantzak sortzen dira, perpausak sailkatu nahi ditugula eta, aipatu borondate horretaz (ik. honetatik *EGLU VI*, 140. or. eta ondokoak). Hau da, batzuetan, *-TZEKO* harturik ere, ez da hor borondaterik mendeko perpausak adierazten duena betetzeko:

- (49) Gure taldekoak denbora guztian aritu ziren beste taldekoak baino hobeki jokatzen, azkenean partida galtzeko.

Bistan da jokalariek ez dutela ongi jokatzen partida galtzeko helburua go-goan izanez, baizik irabazteko. Hemen, partida galdu dute, eta hori haien borondatearen kontra gertatu da. Aurreko liburukian perpaus hauek helburuzkotzat jotzen genituen. Hala ere, badirudi ezin direla multzo honetan sailkatu, forma aldetik helburuzkoak (helburuzkoen ezaugarria baita *-TZEKO* forma) badira ere. Holakoak, esanahiaren aldetik muga lausokoak izaten ahal direnak, badira beste perpaus-mota asko hizkuntzan. Batzuetan, gramatika kontuez baino gehiago beste zerbaitez ari baikara: perpausen zuzentasunaz, zalantzarritasunaz, onargarritasunaz, eta abarrez. Arazo hau ez da helburuzko perpausena bakarrik eta beste zenbait egituratan ere ikus daiteke, eta beste nonbait aipatua da:

- (50) Zu kalean zabilta, ni etxean nagoen bitartean.

EGLU VI liburukian (116. or.) adierazten den bezala, esaldi hori anbigua da: “une honetan etxean nago, eta zu kalean zabilta” (denborazko arrunta izango litzateke), edo balio errepikatzailea eta generikoarekin: “ni etxean nagoenean, zu kalean zabilta beti”. Bigarren kasu horretan bakarrik da grama-

tikala, antza denez, lehengoan ez baitago hain argi kontua. Horren antzeko zerbaiten berri ematen da liburuki horretan berean, 289. orrian:

(51) Leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik.

Jakina, horren esanahia, euskaraz, hau da: “hanka hautsi ondoren, leihotik erori zen”, baina arruntean alderantzizkoa da esan nahi izaten duena esaldi hori erabiltzen duen hiztunak: “leihotik erori ondoren hautsi zuen hanka”. Horregatik esaten dugu badirela muga lausoko perpaus-mota asko euskaraz. Horietako batzuek helburuzkoen itxura dute.

Eta horregatik ez ditugu holako perpausak helburuzkoen artean sailkatuko.

2.2.3. Erlazio semantikoak helburuzko perpausetan eta beste perpaus batzuetan

Nolako erlazioak gertatzen dira, esanahiaren aldetik, helburuzko perpausen eta perpaus nagusiaren artean? Helburuzko perpausen eta perpaus nagusiaren artean jokoan jartzen dira, nolabait ere esateko, gertaera baten kausa eta ondorioa:

(52) Ikasleak ordenagailu bat erosi du Interneten bidez bere adiskideekin harremanak izateko.

Perpaus horretan islatzen dira nolabaiteko kausa bat (ordenagailua erostea, alegia), alde batetik, eta erosketa horrek izan dezakeen ondorioa (adiskideekin erlazionatzea), bestetik. Horregatik diogu holako perpausetan kausa-ondorio motako erlazioak gertatzen direla.

Eta erlazio horiek modu berezi batean adierazten dira: kausa-perpaus nagusian ageri da (*ikasleak ordenagailu bat erosi du*), eta ondorioa txertatuan (*Interneten bidez bere adiskideekin harremanak izateko*).

Hala ere, kausa-ondorio erlazio hauek ez dira helburuzko perpausetan bakarrik ageri, eta beste perpaus-mota batzuetan ere gertatzen dira, ondoren ikusiko dugunez:

- (53) a. Kaleak busti dira, euria egin baitu.
- b. Mirenek errieta egin zien isilik egon zitezen.
- c. Halako euri jasa egin zuen, non karrika guztiak urez beteak heldu baitziren.

Hiru perpaus hauetan (53a) kausazkoa da, (53b) helburuzkoa eta (53c), berriz, ondoriozkoa. Hona ekarri ditugu perpaus-mota hauek, neurri batean segurik, elkarren artean bai baitituzte antzekotasun batzuk. Hain handiak non gramatikari batzuek kausazkoak eta helburuzkoak, esate baterako, elkarrekin sailkatzen dituzten. Hala da: hiru perpaus hauetan gertatzen dira kausa-ondorio erlazioak, baina modu desberdinean.

Kausazko perpausetan, konparazione, bi perpausen arteko erlazio logikoa hartzen badugu kontuan, kausa, azalpena edo dena delakoa (ik. *EGLU VI*, 159) perpaus menderatuak markatzen du:

- (54) Kaleak busti dira [euria egin baitu]MP
(euria egin du, eta, ondorioz, kaleak busti dira)

Baina ondoriozkoetan eta helburuzkoetan alderantziz gertatzen da, ondorioa baita, hain zuzen ere, mendeko perpausak erakusten duena, eta kausa, berriz, perpaus nagusiak:

- (55) Halako euri jasa egin zuen, [non karrika guztiak urez beteak heldu baitziren.]
(Euri jasa handia egin du eta, ondorioz, karrika guztiak urez bete dira.)
- (56) Mirenek errieta egin zien [isilik egon zitezen.]
(Mirenek errieta egin die eta, ondorioz, isilik egon dira. (ondorio hori gertatzea nahi du))

Hor paratu dugun ondoriozko perpausari itzulia eman diezaiokegu:

(57) Isilik egon ziren [Mirenek errieta egin baitziren].

Konparatu azkeneko bi adibideak. Azkeneko perpausa kausazkoa da, eta kausazkoa denez, orain kausa mendeko perpausaren ageri da, ondoriozkoan ez bezala:

- (58) a. Mirenek errieta egin zienkausa [isilik egon zitezten]ondorioa
b. Mirenek errieta egin zienondorioa [isilik egon baitziren] kausa

Badira beste desberdintasun batzuk ere perpaus hauen artean, formari dagozkionak. Kausazko eta ondoriozko perpausetan, mendeko perpausaren adizkiak (jokatua denean) indikatibokoan joan behar du, baina helburuzkoetan ezin da joan indikatiboan:

- (59) a. kaleak busti dira, [euria egin baitu/*euria egin dezan]
b. Mirenek errieta egin zien [*isilik egon ziren/isilik egon zitezten]
c. halako euri jasa egin zuen, [non karrika guztiak urez beteak heldu baitziren/*zitezten]

2.2.4. Perpaus hauen “bazterreko” izaera

Aurreko liburukietan ikusi dugun gisan, perpausaren osagaiak arruntean aditzaren inguruan antolatzen dira. Baina osagai horiek ez dira guztiak maila edo tankera berekoak, batzuk ezinbestekoagoak baitira, aditzak hala eskaturik, eta beste batzuk, ordea, aukerakoak:

- (60) a. Mirenek liburua erosi du.
b. Mirenek gaur erosi du liburua.
c. Miren mendira joan da.
d. Koldo etxetik etorri da.

- e. Koldok margolan bat erosi du etxeko paretan jartzeko.
- f. Antton sarrera batzuk erostera ausartu da.
- g. Antton sarrera batzuk erostera joan da.

Bistan da perpaus horietan ageri diren osagaiak (“liburua”, “gaur”, “mendi-ra”, “etxetik”, “margolan bat”, “etxeko paretan jartzeko”, “sarrera batzuk erostera”) ez direla denak maila berekoak aditzari dagokionez, eta batzuk aditzetik hurbilago ageri direla: adibidez, “liburua” lotuago dago “erosi” aditzarekin “gaur” baino. Edo, gure analisiaren arabera, “sarrera batzuk erostera” lotuago dago “joan” aditzarekin, “ausartu” aditzarekin baino, edo “etxeko paretan jartzeko” sintagma “erosi” aditzarekin baino. Osagai batzuk ezinbesteko bezala ageri zaizkigu. Zergatik gertatzen da hori guztia? Aditzek hiztegian duten argumentu egituragatik. Ikus ditzagun adibide batzuk segidan.

Esate baterako, *ekarri* aditzaren esanahiak “zerbait” ekartzea eskatzen du (osagarri hori beharrezkoa duela dirudi), baina ez “zerbaiterako” ekartzea (hau ez du ezinbestean eskatzen). “Zerbait” hori nahitanahiezkoa da, baina “zerbaiterako” hori, aukerakoa.

- (61) a. [Baso bat ur] ekarri du.
- b. [Baso bat ur] ekarri du] mahaian edateko.

Adibide horietan, [baso bat ur] osagaia hurbilago dago aditzetik [mahaian edateko] osagaia baino, eta azkeneko hau urrunagokoa, “aldamenekoagoa”, “bazterrekoagoa” da. *Ekarri* aditzak zerbait ekartzea nahi du, baso bat ur, baso bat esne edo lore bat, baina betiere zerbait. Hori dela eta, kasu honetan norbaitek baso bat ur ekarri duela baldin badiogu, [baso bat ur] sintagma *ekarri* aditzaren osagarria dela esaten dugu, eta biek, osagai horrek eta aditzak alegia, unitate mota bat osatzen dutela. Nolabait ere esateko: kasu horretan [baso bat ur] sintagmak bete du, edo sintagma horretan gauzatu da, aditzak ezinbestean eskatzen duen argumentua. Ez da hori gertatzen, ordea, [mahaian edateko] osagaiarekin, hau, aukeran dugunez, askea baita alde horretatik: nahi izanez

gero agertzen ahal da, edo ez. “Zulo” hori hutsik azalduz gero ere ez da deus ere gertatzen. Horrela, norbaitek “ekarri du” esaten baldin badu, bada hor, agerian edo isilik, “zer” baten ideia.

Berehala adieraziko den bezala, helburuzko perpausak maila horretakoak dira, aukerakoak, bigarren mailakoak. Eta aukerakoak direnez, ez dute osatzen, aditzarekin elkartzen direnean, osagarriek aditzarekin elkartzen direlarik osatzen duten unitate mota bera. Hain zuzen ere, horregatik dute osagai hauek osagarriek baino askatasun sintaktiko handiagoa perpaus barnean. Egituran, batzuk eta besteak, hola ageriko litzaizkiguke:

(62) [...-tzeko [baso bat ur (hartu)] ...]

Gauza bera gertatzen da beste edozein aditzekin ere: *erosi* aditzak “zerbait” erostea eskatzen du, baina ez “zertarako” erostea, edo “non” erostea, edo “noiz” erostea, edo “norekin” erostea, informazio hori ez baitu ezinbestekoa perpaus batean gauzatzeko. Bada, helburuzko perpausak maila horretakoak dira, esan nahi baita, aukeran dituela beti aditzak, “non”, “noiz” edo “norekin” sintagmak ere aukeran dituen bezala.

Adibide batekin ikusiko da garbiago hau:

(63) Esan zigun sarrerak erosi zituela partida ikusteko.

Adibide horretan badira bi mendeko perpaus: bat, ([sarrerak erosi zituela]) lotuago aditzarekin, bigarrena ([partida ikusteko]) baino. Lehenbizikoa osagarri zuzena da, aditzaren argumentu-sarearen funtsezko osagaia, *esan* aditzak “zerbait” esatea eskatzen baitu. Ez, ordea, “zerbaitetarako” erostea. Hori da bigarren perpausa, urruneko edo aldameneko osagaia duguna:

(64) [Esan zigun sarrerak erosi zituela] partida ikusteko.

Horixe da helburuzko perpausen tokia.

2.2.5. Helburuzko perpausak aditz-izenaren gainean osatzen dira

Oro har, mendeko perpaus jokatu gabeez ari garela, jokatu gabeko aditza hiru modutara ager dakiguke: aditzoina bakarrik, partizipioa eta aditz-izena. Helburuzko perpaus jokatu gabekak aditz-izenaz osatzen dira. Eta aditz-izenak hartzen duen atzizkia *-KO* dela esan badugu ere, *-TZEKO* formari leku eginenez, badira beste forma batzuk ere: aditz-izena + *-KOTAN*; aditz-izena + *-KOTZAT*; aditz-izena + *ALDE(RA)*; aditz-izena + *-AGATIK*; aditz-izena + *-RAINO*; aditz-izena + *-ARREN*, eta abar. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (65) a. Autoa saldu zuen etxea erosteko.
b. Hemen nauk, ez itzultzekotan etorria.
c. Jakitekotzat altxatu zen bere eritasunetik.
d. Andoni agurtzeagatik sar-atera egin dute etxean.
e. Zuekin eztabaidatze aldera ekarri dugu dokumentua.

2.2.5.1. *-TZEKO*

2.2.5.1.a. *-TZEKO* eta helburua

Atzizki honek argi eta garbi markatzen ahal du xede bat, eta horregatik esan dugu atzizki hau dela helburuzkoen marka nagusia. Hiztunak zerbait egin nahi duela adierazi nahi duenean, zerbaitera iritsi nahi duela alegia, helburu bat markatzen duenean, hau da erabiltzen duen moduetako bat, ondoko adibideetan ikusten den gisan:

- (66) Autoa saldu zuen etxea erosteko.

Adibide horretan autoa saltzearen helburu bat markatzen da, etxea erostea. Ondoko adibideak parekoak dira guztiak:

- (67) a. Haren osatzeko, berrikertu ditut Greziako eta Erromako pantheonari buruz Seignobos, Commelin eta Schmidt-en erranak (Lafitte in *CEEN*, 121 s).
- b. berrogei bala, tximista bezala yaurti ditiagu ire erregeontziak zulatzeko, ingelesa! (Orixe, *Mireio*, 8).
- c. Zer ziren Photius, Luther, Kalbin, Henri VIII.na, Ingleterako erregea, eta bertze asko bere urguluaren edo pasione zikinen asetzeko Elizatik urrundu zirenak? (E. Lapeyre, *Credo*, 339, V 155).

Perpau hauen egitura hau da (betiere helburuzko perpausa “kanpoan” utzirik ageri zaigula):

- (68) [[[Autoa] saldu zuen] etxea erosteko.]

2.2.5.1.b. *-TZEKO* atzizkiaren beste balio batzuk

• Hala ere, egia izanik *-TZEKO* dela helburuzko perpauen marka kanonikoa, formari dagokionez ezaugarri funtsezkoa, eta egia bada helburuzko perpauen ezaugarri semantikoa dela borondate baten ondorio izatea, horrek ez du esan nahi *-TZEKO* guztiak helburuzkoak direla, edo borondatea ageri den bakoitzean helburuzko perpauaz baliatuz adierazten dugula beti borondate hori.

Batzuetan, hasteko, *-TZEKO* izenlagunaren marka arrunta besterik ez da:

- (69) Lo egiteko pilulak erosi dituzte.

Bistan da horko egitura posible bat hau dela:

- (70) [Lo egiteko pilulak] erosi dituzte.

Hor, [lo egiteko pilulak] esatea, edo [farmaziako pilulak] esatea, egitura hartzen bada kontuan, antzeko egiturako ISk ditugu, bietan izenlaguna baitugu izenaren ondoan jarria:

- (70') a. [lo egiteko pilulak]
b. [farmaziako pilulak]

Hori da egitura posible bat, *lo egiteko pilulak* hitz-kateari dagokionez. Kontura gaitezen, ordea, beste egitura mota bat ere posible dela, nolakoa den esaldiari ematen diogun hizkera doinua. Hemen jartzen ditugu biak aldamenean:

- (71) a. Lo egiteko pilulak// erosi dituzte.
b. Lo egiteko // pilulak erosi dituzte.

Bigarren kasuan, “pilulak” osagarri zuzena da (“pilulak erosi dituzte”) eta “lo egiteko”, berriz, hautazko osagaia: “Zertarako erosi dituzte pilulak?”. Kasu horretan, helburuzko perpaus baten aitzinean gaude. Beste modu honetara argiago geratzen da, ondoko egitura hauek pare-parekoak baitira:

- (72) a. Pilulak erosi dituzte, hobeki lo egiteko.
b. Liburuak erosi dituzte, gustura irakurtzeko.

• Esan dezagun, bestetik, batzuetan, “asmo”, “gogo” edo “nahi” bezalako izenek (hau da, hain preziski, borondatea adierazteko erabiltzen ditugun izenek) –*TZEKO* markarekin osatutako osagarriak hartzen dituztela:

- (73) a. irakurtzeko asmoa
b. joateko gogoa
c. entzuteko nahia

Horiek ere ez dira helburuzko egiturak, “irakurtzeko”, “joateko” edo “entzuteko” (goiko kasu horietan) izenlagunak “asmo”, “gogo” eta “nahi” izenek hartzen dituzten osagarriak baitira: izenen osagarriak hauek ere, hortaz.

• Egia da, dena dela, batzuetan helburuzko perpausen itxura izan dezakeela zenbait egiturak, batez ere partizipioa + *nahi*, *gura* eta holako perifrasiak baliatzen garelarik. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:

- (74) a. Hemen bainabil, linguistikan agertzen diren bide berriez, urrutitik eta berandu bederen, jabetu nahian eta ez dut sekula horrelako argirik ikusi (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 399).
- b. Zagoz ixillik, biar dan lez saristu gura zattut-eta (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 54).
- c. Bere Agur Miren zurija Schubert'i ostu gura eutsan (Lauaxeta, *Arrats beran*, 47).
- d. Iñoiz baizen goiztarrago, elizarakoago, baztertuago egin zan, da jolasetara ezaban bere bururik agertu gura (Aguirre, *Kresala*, 75).

Esanahia hartzen badugu kontuan hor, badirudi helburua edo xedea markatzen dutela adibide guztiek:

- (74') a. nahia... jabetzeko
- b. guraria... saritzeko
- c. guraria... osteko
- d. guraria... agertzeko

Baina holako egiturak ez ditugu helburuzkotzat hartuko, eta perifrasi egituratzat joko ditugu, *nahi izan* / *gura izan* aditzaren (edo *nahi/gura* izen modalen) osagarritzat. Hain zuzen ere, helburu kutsu hori *nahi/gura* izenak ematen du. Gauza bertsua gertatuko litzaiguke *ospitalera joan beharrean da* edo *ospitalera joateko asmotan* bezalako perpausekin ere. Hortaz, uste dugu horietan *zer nahi* edo *zer behar?* bezalako galderak daudela. Hori horrela azaltzen ez bada, gainera, arazoak izango genituzke zenbaitetan, bai baitirudi batzuetan moduzkoak-edo direla.

Beraz, ondoko bi egitura hauek perifrasi egituratzat hartuko ditugu, esan bezala (ik. 7. Perpaus osagarriak, 7.2.7. eta 7.4.4.):

- (75) a. [Joan] nahi du.
b. [Joan] nahian da.

Helburuzkoak ez diren egiturak ([lo egiteko pilulak], [irakurtzeko asmoa], [nahia jabetzeko]...) osagarrien sailean aztertuko ditugu.

- Beste batzuetan *-TZEKO* ez da izenlagunaren marka, baizik aditzaren osagarria, ondoko adibide hauetan gertatzen den gisan. Adibide hauek ez dira oraintxe ikusi ditugunen sailekoak, itxuraz antz handia baldin badute ere:

- (76) a. Esan du [etxera itzultzeko].
b. Asmoa du [irakurtzeko].
c. Asmotan da [Londresa joateko].
d. Gogoia du [berehala joateko].
e. Nahia du [entzuteko].

Horiek ere ez dira helburuzko perpausak. Oraingoan “itzultzeko”, “irakurtzeko”..., “esan”, “asmoa izan”, “asmotan izan” ... aditzen osagarriak baitira. Beste modu batera esanik: nola “ekarri” aditzak, esaterako, IS bat hartzen duen osagarri gisa, oraingo kasu hauetan “asmoa izan/ukan” aditzak *-TZEKO* amaieraz baliaturiko aditz-izena hartzen du osagarri gisa. Gauzak horrela, “asmoa du etxera joateko” edo “esan du etxera joateko” egitura paraleloak dira neurri batean:

- (77) a. Asmoa du [etxera joateko].
b. Esan du [etxera joateko].

Lehenbizikoa “asmoa izan” aditzaren osagarria da, eta bigarrena “esan” aditzarena. Edo, beste modu batera esanik, bi aditzek, bai “asmoa izan” adi-

tzak nola “esan” aditzak, osagarri bat behar dute, ezinbestean, eta osagarri hori, hautazkoa ez dena, kasu hauetan, “irakurtzeko” da.

Mota berekoak dira beste hauek ere (lehenbizikoa “nahikunde” izenaren osagarria, bigarrena “modu” izenarena, eta hirugarrena “eskatu” aditzarena):

- (78) a. Beldurrak, aholgeak edo zorren petik nolezbait ateratzeko nahikundeak darabiltza (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 68).
- b. Bestela esan, berehala bukatzen zaio [-KO atzizkiari] bere buruaren berretura berritzeko modua (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak VI*, 176).
- c. baño ez degu axekaldi auetatik gu ateratzeko eskatu bear, auek ez dira gure galgarri-eta (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 148).

Hauek, esan bezala, ez dira, hortaz, helburuzko perpausak (ik. Perpaus osagarriak, eta han, besteak beste, 7.2.1.; 7.3.3.2.; 7.3.3.5., eta, bereziki, 7.4.2.2.). Baina ohart gaitezen holako egituretan txerta daitezkeela arazorik gabe egiazko helburuzko perpausak ere:

- (79) a. Irakasleak asmoa du Atxagaren liburua irakurtzeko. [argumentua nola eratu duen ikusteko]
- b. Irakasleak esan du Atxagaren liburua irakurtzeko. [nola idatzi behar den ikasteko]

Bi adibide horietan, kakoen artean dauden perpausak “zertarako” galderari erantzuten diote, eta aukerakoak dira, ez osagarri zuzenak. Eta, noski, subjuntiboarekin ere eman daitezke, perpaus nagusiaren eta mendeko perpausaren subjektuek erreferentzia desberdina baldin badute:

- (80) a. Irakasleak asmoa du Atxagaren liburua guri irakurtzeko [argumentua nola eratu duen ikus dezagun]
- b. Irakasleak esan digu Atxagaren liburua irakurtzeko [nola idatzi behar den ikas dezagun]

• Badira, izan, beste osagarri mota batzuk ere, hauek ere helburuzko perpausak izan gabe *-TZEKO* hartzen dutenak (ik. Perpaus osagarriak, 7.3.2.1. eta 7.4.1.1.):

- (81) a. Saiatu zen gitarra jotzen.
b. Saiatu zen gitarra jotzeko.

“Saiatu” aditzak eskatzen duen osagarri arrunta *-TZEN* da, baina badira *-TZEKO* marka hartuz ere erabiltzen duten idazleak, eta literaturako lekukoetan ageri dira *-TZEKO*-rekin osatutako adibide batzuk, nahiz ez diren gehiegi:

- (82) a. begira, bizitza ateratzeko modua ikasteko ongi saiatu zen (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia II*, 69).
b. zeruko erreñua irabazten dala bortxaz, au da gure gura, griña ta jenio errebesak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezitzeko saiatzen gerala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia III*, 286).
c. Deabruak berriz alde guztietara ekiten digu ta gaiztakeri guztietara gu eramateko saiatzen da (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 149).
d. Miren ikusteko saiatzen dirala ematen du (Txillardegia, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 60).

Gure ustez, adibide hauetan guztietan *-TZEN* ere jar daiteke, perpausaren esanahia aldatu gabe, ondoko adibideetan ikusten den moduan:

- (83) a. Ikasten ongi saiatu zen.
b. Zuzentzen edo hezten saiatzen zirela.
c. Eramaten saiatzen da.
d. Ikusten saiatzen dira.

Hortaz, ematen du kasu honetan *saiatu* aditzaren ezaugarri bat dugula tar-tean, eta horregatik eman daitekeela bietara, baina, esan bezala, maizago ageri da bigarren era honetara.

2.2.5.2. *-TZEAGATIK* eta *-TZEAREN*

Atzizki hauetaz baliaturik osatzen diren egiturek esanahi bat baino gehiago izaten ahal dute, nolakoa den testuingurua. Ikusiko dugunez, *-TZEAGATIK* eta *-TZEAREN* atzizkiak, biak erabiltzen dira: *-TZEAGATIK* erdialdeko eta ekialdeko euskalkietan ageri da mendebalekoetan baino maizago. Zernahi gisaz, bizkaieraz ere ageri dira, *-TEAGATIK* aldaerarekin (Domingo Aguirre, Arrese Beitia, Orixe, eta besteren bat), adibideetan ikusten ahal den bezala.

Arruntean kausazko eta helburuzko perpausak eratzen ditugu *-TZEAGATIK* atzizkiarekin, lehenago ikusi dugunez:

(84) Ahoa zabaltzeagatik gertatzen zaizu hori.

(85) Hortz artatzailearengana joan zen haginak konpontzeagatik.

-TZEAGATIK atzizkiarekin batera, *-TZEAREN* atzizkia ere erabiltzen dugu. Honek ere badu kausazko balioa, baina literaturan maizago erabiltzen da helburuzko esanahia duela. Batzuetan, egia esan, zaila da interpretazio ego-kia ematea:

(86) Zein sari dago hori egitearren? –galdetu zuen Enekok– (Ortiz de Landaluze, *Enekoren soineko arrosa*, 25).

Aurrekoa ez bezala, *-TZEAREN* erdialdetik mendebalera erabiltzen da batez ere, eta ekialdeko euskalkietan gutxitan ageri da (ikus, hala ere, Xalbadorren adibidea beheago). Interpretazio aldetik, bestiak dituen antzeko arazoak ditu, balio anitzekoa baita, esan bezala. Xedezko esaldietan arrunta dugu:

- (87) a. Lana lortzearren edozer egingo luke.
- b. Guri min ematearren esan zituen Iñakik esan zituenak.
- c. Ikusten duzu goizean, gaur ezagunago dalako ta ez luzatzearren utzi dut (Orixe, *Euskaldunak*, 111).
- d. Urten neban bidez-bide, aspaldi nabil kanpotik, gizonak poztutzearren aien miñekin baturik (Gandiaga, *Elorri*, 113).
- e. Ez dut uste, ordea, inor euskalkien etsai denik, are guttiago euskalkiak akabatzearren dabilenik (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 163).
- f. Joan zan zangurrua ixil-ixillik zaratarik ez ataratearren (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 242).
- g. Bakotxari berea emon bear iako, ta bakotxari berea emotearren esaten ditut olango gauzak, ez zueri min geiago emoteagaitik (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 162).

Azkeneko adibide honetan, ikusten denez, *-TZEAREN* eta *-TZEAGATIK* koordinaturik ematen dira.

2.2.5.3. *-TZEKOTZAT*

Egitura hau ez da hainbeste ageri literaturan eta tradizioan, eta ageri deanean ere Iparraldera mugatua da. Ondoko adibideetan ikusten denez, kasu guztietan *-TZEKO* atzizkiaren balioa du:

- (88) a. Azkenean apheztu nahi izan zen haur hori eta huna zertako; Igande egunaz, haren sakrifikatzeko premia handiaz hobeki mintzatzekotzat populu giristinoari (Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 88).
- b. Hasteko, landari ematen diozu arhaldi bat atheratzekotzat ongi zikhinak oro (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 32).
- c. Arren fabora gaitzatu orai gure egunean bizitzekotzat sainduki zurekin zure bakean (Gasteluçar, *Eguia Catholicac*, 25).

- d. Zure amoreagatik gutzaz dela laudatu, gure gobernatzekotzat nor baituzu bidaldu (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa* 2, 105).

Adibideetan ikusten ahal denez, *-TZEKO* eta *-TZEKOTZAT* parekoak dira, eta esanahi bera dute.

2.2.5.4. *-TZE ALDE, -TZE ALDERA*

Helburuzko perpaus gisan, aski bakana da atzizki honen erabilera tradiziozko literaturan. San Martinen lanetan aurkitu ditugu adibide batzuk. Gaurko literaturan maizago ageri dira, eta ez ditugu adibideak falta, Gandiagaren *Denboraren galdu alde* izenburutik hasita. Gaur egun gero eta maizago erabiltzen da, gainera, hizkera mintzatuan, *-TZEKO* soila, eta tradizio handiagoa duena, gutxiegi izan daitekeelakoan edo:

- (89) a. bañan Txirritak beti billatzen eban berari adar-jotze alde ipintzen zetsezen larritasunetatik urtetzeko bidia (San Martin, *Zirikadak*, 58).
- b. Ez dau izan biar tabernazalia, baña iñoiz, lagunekin ibiltze alde edo, txikito bat edo beste edaten ei ditu (San Martin, *Zirikadak*, 111).
- c. Noiz nai jango leuke arek, merendatze alde, idi-anka bat perra ta guzti (San Martin, *Zirikadak*, 70).
- d. Adituek segi dezatela betazalak erretzen euskarazko zaharrena omen den esaldia argitze aldera (Lertxundi, *Berria*, 2006-07-07).
- e. Eta, kontuarekin apur bat tratatua nabilerarik, eta kezkatua ere bai, jakina, bada hona inguratzeko bulkada sentitu dut, egoera in situ ikuste aldera (Linazasoro, *Glosolaliak*, 150).
- f. Bertso “ikusgarriagoa” egite aldera, doinu-neurriak luzeagotu nituen (Egaña, *Hogeita bina*, 182).

Egitura hau bestela ere erabiltzen da:

- (90) Har ezazu hau proba egite aldera.

Euskalki batzuetan horrek ez du “proba egiteko” bakarrik esan nahi, baizik “proba egiteagatik besterik gabe”. Hor badu ñabardura txiki bat, besterik gabe hori alegia, helburuzko hutsetan ageri ez dena.

Azkenekoz, aipatu behar da egitura hau aski hedatua dagoela beste esanahi batekin:

(91) Etxea pintatze aldera 1.000 euro eman zizkion.

Holakoek badituzte lekukotasun franko hizkera mintzatuan, eta “X-en truke” esan nahi dute. Alegia, adibide horretan, etxea pintatzearen truke honenbestekoa eman zitzaiola norbaiti.

2.2.5.5. *–TZEKOTAN* (eta *–TZEKO ASMOTAN*, *INTENTZIOTAN*, *–TZEKO INTENTZIOAREKIN*)

a. *–TZEKOTAN* egitura dela eta, bi multzo bereizi behar dira. Batzuetan, bakarrik ageri da, guztiz lexikalizatua, eta beste batzuetan, berriz, izen baten inguruan, ondoko adibide hauetan ikusten den gisa (Postposizio honen beste balioetarako, ikus Moduzko perpausetan, 5.2.5. atala; Denborazko perpausetan 1.1.1.3. atala, eta Baldintza-perpausetan, 3.5. atala)

(92) a. Liburua irakurtzekotan ekarri dugu hondartzara.

b. Liburua irakurtzeko asmotan ekarri dugu hondartzara.

Perpauk hauek nahiko antzekoak dira esanahiaren aldetik, eta zerbait egiteko intentzioa edo asmoa adierazten dute. Gainera, pentsa liteke bata bestearen jatorrian egon daitekeela. Holako adibideak arruntak dira arras:

(93) a. Etxe berria egitekotan gara.

- b. Lenengoan ezaban Mañasik kutxatxoia edegi be gura izan: nazkatu egiteban Egurbidekoaren opariak, eta, zanlakoa zala, urrango goizean jaubeari biurtekotan ipiñi eban oe gañean (Aguirre, *Kresala*, 165).
- c. Ba, gizona, hemen nuk, eta betikotz, ez itzultzekotan yina (Zubiri, *XX. mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 86).
- d. Bozkarioz beterik atzo jautsi nintzen Hire ikustekotan, Lapurdi urdina. (Iratzeder, *Biziaren olerkia*, 44).
- e. nik dakidan herri batian (...) ezagutu nien mutiko azkar eta gisako bat, Ameriketarat juanik, zalu aberastekotan, urte baten buruko etsitua eta buria apal-apala (Zubiri, *XX. mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 44).
- f. Parisen yakin zutenean, Brunzvikoko printzea, bere prusianoekin, sarthu zela hiri batean eta zela sartzekotan bertze batean, lotsatzeko orde, gaixtoak kolera furian eman ziren, eta hartu zuten xede bat beltzenetarik, Erregen fidel zaudenen hiltzeko (M. Elissamburu, *Framazonak*, 102).

b. Aldiz, *-TZEKO ASMOTAN* bezalako egituretan izenlagun arrunta dugu (*lo egiteko pilulak* bezala), “asmotan” hitzari lotua (ik. Perpaus Osagarriak 7.3.3.6.b.). Egitura hauetaz lehenago mintzatu gara:

(94) liburua irakurtzeko asmotan

Horregatik beste kasu batzuk ere onartzen ditu:

(95) a. Liburua irakurtzeko asmoa ez dio inork ere kenduko.

b. Liburua irakurtzeko asmotik ez du inork ere atera.

Hemen ditugu, *-TZEKO ASMOTAN* bezalako egituren gainean eraikitako adibide batzuk:

(96) a. Orduan urbidu zitzaizkion Farisau batzuek, eta zirikatzekeo asmotan galdegin zioten (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 346).

b. Zarautzerat joan nintzan Patxi Barberoren omenaldian kantatzeko asmotan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 267).

- c. Arrantzale-alaba ezerez bat baiño zeozer geiago izango aunagulakoan, mariñek neska soilla baiño maillatxuren bat gorago iñoiz ikusteko asmotan (Erkiaga, *Arranegi*, 106).
- d. Aitzinatzeke asmotan izan da (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 372).
- e. Liburu honekin planto egiteko asmotan ez dagoela badakigu, eta biziro pozten gaitu hori jakiteak (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 93).

c. Honako hauek ere aski antzekoak dira, baina *-TZEKO KONTUAN* egituraren gainean eraikiak dira:

- (97) a. Andrea dabil tratuan, emanean da artuan, legorrian da portuan; bere bototik salduko luke senarra iru kuartuan, isla batera barkuan, entregatzeko kontuan; ez da prezio altuan (Xenpelar, *Bertsoak*, 277).
- b. Hirugarrena; ezta ez asko, egiaz eta premiaz ere iuramentuaren egitea; baiña egin behar da gauza onaren eta iustuaren gaiñean, eta ez gaizki egiteko kontuan (Axular, *Guero*, 171).
- c. Zenbat inspirazino on eman derautazu Jainkoaren arauaz bizitzeko kontuan (Materre, *Doctrina Christiana*, 294).
- d. Arimaren salbamendua hobeki egiteko kontuan bizitzen manera hau eztela nezesario sinhesten duenak bekhatu mortal egiten du (Haramburu, *Debocino escuarra*, 445).

2.2.5.6. *-TZEKOTZ*

Baldintza-perpausetan ere aipatzen dugu forma hau (ik. Baldintza-perpauzak 3.6.), eta han esaten dugu baldintza balioaz gain batzuetan helburu balioa ere baduela. Noski, Iparraldean erabili izan dira batez ere, eta ez dira adibide ugari aurkitzen. Dena den, hona hemen lekuko batzuk:

- (98) a. Ba zekien aski zuela sakonkixego pentsatzea, berriz ere bihotz-min ezin aitortuzkoa eratortzekotz (Mirande, *Haur besoetakoa*, 8).

- b. Begiak selauara jasorik, uzten zuen emakume irritsua haragi zainildua laztan ziezon, bere buruari gogor eginaz andregai saietsera ez bultzatzekotz (Mirande, *Haur besoetakoa*, 23).
- c. Mintza zakizkit ene arimaren konsolazione- kotz; mintza zakizkit ene biziaren onera ganbia- tzekotz (Chourio, *Imitacionea*, 171).
- d. Goriot isilean egon zen une batez, eginahal guztiak eta bi egiten bide zituela bere indarren biltzekotz minaren jasateagatik (Diez de Ulzurrun, *Goriot zaharra*, 401).

Horietan guztietan, noski, aitortua eratorzeko, saihtsera ez bultzatzeko, biziaren onera kanbiatezeko, edo bere indarren biltzeko ere esan daiteke, inolako arazorik gabe.

LABURTUZ:

Orain laburtzen ahal dugu kontua. Helburuzko perpausen gutxieneko ezaugarriak, hortaz, bistan geratzen ari dira:

- mendekoak dira
- aukerakoak
- *-TZEKO* forma erabiltzen dute
- badute ezaugarri semantiko bat ere borondatearekin lotua dena.

Eta ezaugarri horiek guztiak betetzen direlarik, helburuzko perpausaren nortasuna aski argia da:

- (99) urreratu zitzaion ekusteko zer zan (V. Moguel, *Ipui onac*, 22).
- (100) neke andia da esamina apur bat oera joan aurrean egitea aztertzeko nola igaro degun eguna (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 193).
- (101) Baño Jaunaren aingerua berriz ere agertzen zaio bere kezka guztiak kentzeko (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 59).
- (102) Jesus Jaunak berrogei egünez egin dian baruraren ohoratzeko (Belapeyre, *Catechima laburra I*, 110).

LABURPENA

0. KAUSA ETA HELBURUA, HURBILEKO KONTZEPTUAK

Forma aldetik, batzuetan, kausazko eta helburuzko perpausak biziki hurbil gelditzen dira, eta zaila gertatzen da bereizketak egitea, formaz berdin-berdinak gerta baitaitezke. Betiere, noski, perpaus jokatugabeez ari gara. Hitzunak daki, aldi bakoitzean, nola egin hori. Hona hemen adibide bat:

- (1) Auzokoak izutzeagatik zigortu zuten gizona.

Horrela esaten bada hori, eta bestelako testuingururik ez baldin bada, oso anbigua gertatzen da perpausa, eta bi esanahi izan ditzake, aski desberdinak:

Gizonak auzokoak izutu zituen eta horregatik zigortu zuten.

Gizona zigortu egin zuten eta zigoortze horren helburua auzokoak izutzea zen.

Hor ikusten da, argi eta garbi, esan nahi duguna. Jakina, hori gertatzen da helburua eta kausa aski hurbileko kontzeptuak direlako, esanahi aldetik. Hitzunaren hitzetan, testuinguruaren arabera, perpaus naugusiari helburu-adiera nagusitzen da batzuetan, eta kausa-adiera, beste batzuetan. Edo apropos eratzten da perpausa oso modu anbiguoan.

Helburuzko perpausetan bada borondate argi bat, eta borondatearen bete-tzeak eragiten du hitzunen artean helburuzko perpausak sortzea:

- (2) Ikasleak ordenagailu bat erosi du filmak ikusteko.

Hor ikusten da ordenagailua erosteko borondate argia. Ez da holakorik kausazkoetan:

- (3) Ohean gelditu da, gaixorik dagoelako.

Ez du bilatu, hain segur ere, gaixorik egotea, hori kanpotik etorri zaion zerbait da, eta ezuste horrek eragin du ohean geratzea. Bistan da, dena dela, kausa eta helburua ez direla formalki berdin ageri perpaus batean eta bestean: kausazko perpausetan, kausa mendeko perpausean dago (gaixorik egotea, kasu honetan), eta helburua edo borondatea perpaus nagusian (ordenagailua erosteko borondatea, alegia).

Gauza bera gertatzen da goiko adibidearekin ere: “auzokoak izutzeagatik” horretan ageri da kausa, mendeko perpausean; baina “zigortu zuten gizona” zatian, berriz, helburua. Forma bakarra, baina bi interpretazio, non jartzen den indarra.

1. KAUSAZKO PERPAUSAK

1.1. –GATIK eta –eLAKO

Kausazko perpausak adierazteko, perpaus jokatu gabeetan, –GATIK postposizioa erabiltzen dugu aditz-izenari atxikia. Gutxiagotan –TZEAREN postposizioa ere. Kausazko perpausak “zergatik?” galderari erantzuten diote. Hori da orain arteko adibide guztietan ikusten dena:

- (4) Isilik egoten ez jakiteagatik gertatzen zaizu hori.

EGLU VI-an, mendeko perpaus jokatudunak aztertu genituenean (167. or.) –eLAKO atzizkiarekin osatzen ditugun perpausak barneko perpausak izan daitezkeela esan genuen, kausal hutsak, alegia. Hau da, kausa zuzenaren berri

eman nahi dutenak, kausazkoak maiz aski erabiltzen baititugu azalpen-perpaus gisa ere. Horrela, ikus ditzagun ondoko bi esaldi hauek:

- (5) Istripua izan duelako hautsi du hanka.
- (6) Euria egin du, kaleak bustirik daude eta.

Biak dira kausazko, forma aldetik, baina esanahiari erreparatuz, lehenbikoan badirudi hanka haustearren arrazoi zuzena islatzen duela mendeko perpausak (“zergatik?” galderari erantzuten dio zuzenean). Bigarrenak, ordea, azalpen baten berri ematen du (“zergatik diozu hori?” edo holako zerbaiti erantzuten diola dirudi). Horregatik bereizi genituen barneko perpausak, galdegaiaren tokian daudenak, eta kanpokoak. Zaila baldin bada ere adieraztea zein den kausazkoaren distribuzioa, bistan da kausazko batzuk, “... eta” bezalakoak, adibidez, ez direla inoiz ere kausazko zuzenak. Hori *-ELAKO* atzizkia hartzen dutenekin bakarrik gertatzen da. Bada, arazo hau perpaus jokatugabeetan berdintsu islatzen da, *-TZEAGATIK* hartzen dutenak ere *-ELAKO* hartzen dutenek tokian ageri baitira:

- (7) Ahoa zabaltzeagatik gertatu zaizu hori.
- (8) Ahoa zabaldu duzulako gertatu zaizu hori.

Ikusten den gisan, eta horixe esan dugu, *-GATIK* postposizioa aditz-izenari atxiki zaio hemen ikusi ditugun adibide guztietan. Perpaus jokatugabeetako adizkietan ez da ematen informazio zuzenik pertsonari buruz, jakina denez (nahiz, batzuetan, zeharka atera daitekeen informazio hori). Ez da ematen informaziorik aldiari buruz ere, baina bai aspektuari buruz, batzuetan bederen: “etorri” eta “etortzen” formen arteko desberdintasuna aspektuak markatzen du. Hori dela eta, hiztun batzuek kausazko perpaus hauetan desberdintasun hori markatu nahi izaten dute:

- (9) Eskerrik asko etortzeagatik.
- (10) Eskerrik asko etorriagatik (edo “etorri izanagatik”).

Horrela, teorian, lehenbizikoa [-ez burutua] izango genuke, eta bigarrena [+burutua]

Baina kausazko perpausek nekez onartzen dute bereizketa hori, perpausaren balioa ere aldatzen baita aspektua aldatuz gero: “etorri izanagatik” ez da kausazkoa, baizik kontzesiozkoa. Beraz, “eskerrik asko hona etorri izanagatik” esaeraren esanahia, zerbait izatekotan, “eskerrik asko, nahiz eta hona etorri”, edo holako zerbait esan nahi du. Ez dugu gomendatzen bide hori erabiltzea: “eskerrik asko hona etortzeagatik” aski baita.

Atzizki hau, dena dela, helburuzkoa ere izan daiteke, bi balioak baititu:

- (11) Zurekin egoteagatik etorri naiz hona.

1.2. *-TZEAREN*

Bigarren postposizio honek ere aukera bat baino gehiago eskaintzen digu eta, forma aldetik, *-TZEAGATIK* postposizioaren parekoa da, azken honek bezala, hark *-TU ARREN* eta *-TU IZAN ARREN* ere erakusten baititu. Hala ere, balioari dagokionez, bada desberdintasun nabarmen bat: *-TZEAGATIK* kausazkoa (kausazkoa denean jasaile baten kontrolpean dago) edo helburuzkoa (borondatedun egile baten kontrolpean) izan daiteke. Esan bezala, aspektu burutuaren itxura hartzen duenean (*-TU (IZAN)Agatik*), kontzesiboa da. *-TZEAREN*, aldiz, kausazkoa izan daiteke, baina gehienetan helburuzkoa da. Hona hemen kausazko adiera duen adibide bat:

- (12) Agindutakoa betetzeagatik eta amaren esanak jarraitzeagatik egin du hori.

Aspektu burutuaren markarekin, jakina, kontzesiboa da:

- (13) Etorriko zela esan arren, ez da agertu.

2. HELBURUZKO PERPAUSAK

Perpaus hauek “zertara” eta “zertarako” galderei erantzuten diete (“zertan” mendebaldean, eta “zertako” ere, batez ere hizkera mintzatuan, aski arruntak dira):

(14) Arazoari irtenbidea aurkiTZEKO etorri dira Peru eta Miren.

Badute perpaus hauek beste azaugarri semantiko bat aski nabarmena: perpaus nagusian borondatea edo nahikaria ageri da zerbait gerta dadin, eta nahikari horren ondorio gisa ageri da mendeko perpausetan gertatzen dena. Goiko adibidean ikusten da nola Peruk eta Mirenek etortzeko erabakia hartu duten, horrekin helburua (arazoa konpontzea) beteko dutelakoan. Kausa-ondorio erlazioa ageri da perpaus-mota hauetan, kausazkoetan gertatzen den gisa berean.

Helburuzko perpaus jokatu gabek aditz-izenarekin osatzen ditugu: erosteko, sartzeko, erabakitzeke, eta abar. Ikusten denez, *-TZEKO* da erabiltzen dugun postposizioa, nahiz postposizio honek beste esanahi batzuek ere badituen, izenlagunaren marka arrunta izan baitaiteke batzuetan: lo egiteko pilulak, bezalako sintagmetan gertatzen da hori. Beste batzuetan izenen predikatua besterik ez da: joateko gogoia erakutsi du. Perpaus osagarriak ere izan daitezke: ospitalera joan nahi du lehenbailehen sendatzeko. Aditzaren osagarria ere izan daite marka hori hartzen duen aditz izanea: esan du etxera itzultzeko. Badira holako egitura gehiago ere.

Helburuzko perpausetan erabiltzen ditugun postposizioak honako hauek dira:

-TZEKO

(15) Auto garesti hura erosteko eskatu nuen mailegua.

-TZEAGATIK

- (16) Auto garesti hura erosteagatik eskatu nuen mailegua.

-TZEAREN

- (17) Auto garesti hura erostearren eskatu nuen mailegua.

Horiek dira erabilienak eta gehien ageri direnak historian zehar, eta euskal literaturan, euskalkien arabera banatuak (azkenekoa, adibide bakan batzuk kenduta, mendebaldekoa baita). Baina ez dira horiek helburuzkoetan ageri diren bakarrak:

-TZEKOTZAT

- (18) Ikastaroa egin zuen hobeki mintzatzekotzat.

-TZE ALDE, -TZE ALDERA

- (19) Saltze aldera ekarri dituzte liburu horiek.

-TZEKOTAN

- (20) Lapurreta egitekotan sartu ziren etxean.

Ez dute, jakina, balio eta erabilera bera postposizio horiek guztiek. Haste-ko, *-TZEKOTZAT* ez da gehiegi erabiltzen. Bestetik, *-TZE ALDERA* ikaragarri hedatu da azken urteetan, eta pixkanaka lekua kentzen ari zaio *-TZEKO* forma hutsari. Bestetik, *-TZEKOTAN* horrek beste balio batzuk ere baditu (baldintzazkoa izan daiteke, edo izenlagun arrunta “asmo” edo “kontu” hitzei atxikia).

3. BALDINTZA-PERPAUSAK

3.0. SARRERA

Aditz jokatua duten baldintza-perpausak aztertu genituenean ikusi genuen gehienetan *BA-* aditz-aurrizki menderatzailea agertzen dela holako perpausetan:

- (1) a. Indiarrek sor zezaketen gaurko fisika, *bide horretatik abiatu izan balira*. Bai, eta bizikleta izan zitekeen nere amona, *bi kurpil izan balitu* (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 339).
- b. *Baldin nik esana egiten badezu*, nik zuri jaten billatuko dizut (Beovide, *Asisco Loria*, 52).
- c. *Heldu bazauzku ohoinak, erranez: Bizia ala eskuara, edo: eskuara ala moltsa*, ihardets goraki: Bata ez bertzea! (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 124).

Baina badira maiztasun txikiagoko beste menderagailu batzuk ere (*NON (ETA) EZ ... eN; BA- ... BER*):

- (2) a. Halere, agertu duen poxitik ezagun da zer koblakari den; erran nahi dut hoberenatarik dela, ez baita orobat Euskual-herrian nehor nausitzen zakonik, *non ez diren Elissanburu zena eta Zalduby* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 145).
- b. Arkord gira halaber, lekhu orotan orazoniak hon direla, *onsa egiten badira ber* (Tartas, *Occupatione devotaq*, 15).

Horien guztien berri *EGLU VI* liburukian eman genuen. Oraingoan aditz jokatu-gabea duten baldintzazko perpausaz ariko gara. Hona adibide batzuk:

- (3) a. *Txapelketa irabaziz gero*, herri osoa poztuko da.
b. *Etxeko lanak egin ezik*, eskolan ez da emaitza onik lortzen.
c. *Lana gaur amaitu ezean*, bihar jarraitu beharko dugu.
d. *Datorren asteburuan eskiatzera joatekotan*, arropa egokiak erosi beharko ditugu. // *Irabazi gehiagorik ez izatekotan*, onena denda ixtea.
e. *Araudia aldatzekotz*, guztion adostasuna behar da. // *Inori esatekotz*, zuri esango dizut.
f. *Jatetxean afaltzez gero*, alkandora berria jantziko dut.
g. *Zer gertatuko zen jakitera(t)*, ez nintzen horretan hasiko.
h. *Inor izanenean*, arrantzaleak dira izango itsas kontuetan jakitunak.

Letra etzanean agertzen diren guztiak baldintzazko perpausak dira (eta, noski, *BA-* aditz-aurrizkia duten perpausen bidez ere eman litezke), baina erabilitako menderagailuak aditz jokatu-gabeari erantsi zaizkio: partizipioa hartu dute oinarritzat (3a-b-c-h)-koek (*-TUZ GERO*, *-TU EZEAN*, *-TU EZIK*, *-TUENEAN*), eta aditz-izena (3d-e-f-g)-koek [*-TZEKOTAN*, *-TZEKOTZ*, *-TZEZ GERO*, *-TZERA(T)*]. Nabarmendu behar da hala ere, forma horiek ez direla baldintzazko perpausak osatzeko bakarrik erabiltzen, beste mota batzuetako mendekoak eratzeko ere baliatzen baitira: denborazkoak, helburuzkoak eta osagarriak, adibidez.

Ildo horretan, kontuan izan behar da baldintzazkoei *ERE* lokailua erans-tean askotan kontzesiozko irakurketa egiten dela: horrela gertatzen zen aditz jokatu-ekin (*BA...ERE*), eta horrela gertatzen da sarritan baldintzazko batzuekin (bereziki, *-TUZ GERO*, *-TU EZIK*, *-TU EZEAN* eta *-TZERA(T)*):

- (4) a. *Txapelketa irabaziz gero ere*, herritarrek ez dira poztuko.

- b. *Etxeko lanak egin ezik ere*, eskolan emaitza onak lortzen ditu.
- c. *Lanak gaur amaitu ezean ere*, bihar jai hartuko dugu.
- d. *Ondorioak aurretik jakitera ere*, berdin jokatu nuen.

Bestalde, kontuan izan behar dugu, orain aipatu ditugun forma hauez gain, beste zenbait menderagailurekin ere gerta daitezkeela baldintzazko adierak:

- (5) a. Orain arte bezala jarraituta, garaipena hurbil izango duzu.
- b. Orain arte bezala jarraituz, garaipena hurbil izango duzu.
- c. Gogo onez hasitakoan erraz egiten da lana.

Azken menderagailu hauek bereziki modua, denbora (Ik. Denborazko perpausak 1.2.2.4.) ... adierazteko erabiltzen dira, baina ez dute hainbeste zehazten mendeko perpausak nagusiarekin izango duen lotura semantikoa, eta tarteka baldintza (*Orain arte bezala jarraitzen baduzu...! Gogo onez hasten bada...*) edo beste balio batzuk adieraz ditzakete; zirkunstantzia bat adierazten dute, eta zirkunstantzia hori baldintzazko modura ere interpreta liteke. Izan ere, askotan menderagailuak ez dagozkio zuzenki eta banan-banan gramatikan mendeko perpausak sailkatzeko erabili ohi den perpausmota bakoitzari, eta testuinguruaren arabera, adiera batera edo bestera leerra daitezke. (5)-eko menderagailu hauen azterketa beste atal batzuetan egingo da.

3.1. BALDINTZADUN PERPAUSEN EZAUGARRI BATZUK

Gogora dezagun laburki *EGLU VI*-n baldintza-perpausen ezaugarrien gainean esandakoa. Terminologiari dagokionez, genioen *baldintzadun perpaus*ek bi atal izan ohi dituztela: *baldintzazko perpausa*, mendekoa, eta *ondore perpausa*, perpaus nagusia; *protasi* eta *apodosi* ere deitu izan dira.

Baldintzadun perpausak	
<i>Baldintzazko perpausa</i>	<i>Ondore perpausa</i>
Benetan ahaleginduz gero,	emaitza onak lortuko dituzu.
Ondo ikasi ezik,	ez duzu azterketa gaindituko.

Baldintzadun perpausen izaerari eta ezaugarriari buruz ari garelarik, badira zenbait kontzeptu eta nozio kontuan izan beharrekoak. Lehenik, kausa-ondorio erlazioa dago: mendeko beste perpaus-mota batzuetan ere (kausazkoak, helburuzkoak) badu garrantzia erlazio horrek, eta baldintzazkoen kasuan erlazio horrek agertzen dituen ezaugarrietara jo izan da sarritan perpaus-mota hau definitzeko unean. Bigarren, hipotesiaren kontzeptua: baldintzazkoak dira hizkuntzan hipotesiak egiteko bide nagusia, eta adierazten duten hipotesi-motaren arabera sailkatu ohi dira baldintzazko perpausak. Horien alboan, aldibereketasunaren kontzeptua ere kontuan izan behar da, batzuetan baldintzazkoen eta denborazkoen eremuak hurbil izaten baitira. Eta azkenik, arreta berezia jarri behar zaie baldintzadun perpausetan aurkitzen diren semantika/pragmatika jokoei, hizkuntzan aurkitzen diren baldintzadun perpausak era askotako erlazioak eta nozioak adierazten baitituzte.

3.1.1. Kausa eta kausa-ondorio erlazioa

Kausa eta kausa-ondorio erlazioa bereziki aipatu dira baldintzaren izaera semantikoa agertzeko. Begira diezaiegun ondorengo bi adibide hauei:

- (6) a. *Berandu iritsiz gero*, ez duzu sarrerarik izango.
- b. Ez duzu sarrerarik izango, *berandu iritsi baitzara*.

Lehen adibidean letra lodiz dagoena baldintzazko perpausa da, eta bigarrenean kausazko perpausa. Bietan ere, mendeko perpausak (p) eragiten dute per-

paus nagusiko egoera (q): sarrerarik gabe geratzea berandu iristearen ondorioa izango litzateke ($p \rightarrow q$).

Berandu iritsiz gero, ez duzu sarrerarik izango.

p q

Ez duzu sarrerarik izango, berandu iritsi baitzara.

q p

Baina esaleak mendeko perpausuan adierazten duenaz erakusten duen jarraera desberdina da bi adibideetan: baldintzazkoan adierazten da esan duena (berandu iritea) egia izan daitekeela, hala dela segurtasunik erakutsi gabe; kausazkoan, berriz, ez du dudarik agertzen. Alde horretatik, bada, erraz ikusten da baldintzak kausarekin eta kausa-ondorio erlazioarekin zer lotura duen; baita baldintzadunetako kausa-ondorio erlazioak zer ezaugarri dituen ere. Hona erlazio hori adierazten duten tradiziozko zenbait adibide:

- (7) a. Gisa onetako gogamen itzalakaz ebillen gizajoa, gudu asmoak usmau ebazanean; uste eban, *gudulariak joan ezker bere etxaguntzara*, kalte andiak egingo ebezala (...) (Echeita, *Josecho*, 335).
- b. Ordurartean be bizi zirean da, aurrerantzean be, *lan piskat egiñ ezker*, biziko zirean beintzat (Aguirre, *Kresala*, 188).
- c. *Gogoz saiatu ezker*, arin edo berandu ardietsi oi da billa gabiltzana (Gaztelu, *Musika ixilla*, 154).
- d. Atsegiña, desiragarri zaigu, bai; baiña *ondo neurtu ezik*, atsegiña bere buruaren kaltetan biurtu oi da (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 82).

(7a) adibidean, gudariak bere jabetzetara inguratzeak kalteak sor litzake, (7b)-n lan egitearen ondorioz bizia aterako dela esaten zaigu, (7c)-n benetan saiatuz gero helburuak lortu ohi direla azaltzen da, eta (7d)-n atsegina gaizki neurtzearen ondorioez mintzatzen zaigu. Guztietan ere baldintzan adierazitako kausa-ondorio bati loturik doa.

Kausa-ondorio erlazio horren ezaugarrietatik abiatu izan dira sarritan gramatikariak baldintzazko perpausak karakterizatzeko unean: baldintzadun perpaus osoaren egia-balioa baldintzazko perpausaren egia-balioaren araberakoa da.

3.1.2. Hipotesia

Baldintza-kontzeptuaren eta hipotesiaren artean zuzeneko erlazioa dago. Hipotesiak egiteko, hizkuntzek duten modu nagusietako bat da baldintza. Aditz jokatua duten baldintza-perpausetan, esaleak hipotesiei ematen dien gertakortasun-mailaren arabera, aditz laguntzailearen tempusa desberdina izan ohi da (+/- alegialdia). BA- perpausen sailkapena egiteko unean aditz laguntzaileen irizpide formal horretatik abiatu ginen: esaleak hipotesiak gertakortzat jotzen dituenean, orainaldiko edo iraganaldiko adizkerak erabiltzen ditu (8a, *baldintza erreala*), eta egiazki gertatu ez direnean edo gertagaitz jotzen direnean, berriz, alegialdiko adizkerak (8b-c, *baldintza irreal*):

- (8) a. Bihar Donostiara joaten bagara, ... (-alegialdia; gertakorra)
- b. Bihar ilargiaren bisitatzera joango/joaten bagina, ... (+alegialdia; gertagaitza)
- c. Iaz Donostiara joan izan bagina, ... (+alegialdia; ez da gertatu)

Baina puntu honetan, aditz jokatu gabea duten baldintza perpausak badute desberdintasun garrantzitsu bat: aditz laguntzailerik ez dutenez, adizki jokatu duntako sailkapena egiteko erabili zen irizpide nagusia, aditz laguntzailea (+/- alegialdia) izatearen irizpide formala, ez da agertzen mendeko perpausaren:

- (9) a. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango naiz.
- b. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango nintzateke.
- c. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango nintzen.

Hiru adibide horietan nabarmena da esaleak gertakortasun-maila desberdina duela buruan, eta hautatu dituen ondore perpausak garbi adierazten dute hori, baina hala ere baldintzazko perpausa guztietan berdina da: (+/- alegialdia) izatearen edo oraina/iragana den informaziorik ez dugu mendeko perpausako aditzean, eta aspektu-markarik ere ez zaigu azaltzen.

3.1.3. Aldiberekotasuna

Baldintzadun egituren gainean ari garela, aldiberekotasunaren kontzeptuak, zeharka bada ere, garrantzia izaten du batzuetan, bereziki egoera iteratibo edo errepikatuetan, edo generikotasuna adierazten denean. Begira diezaiegun ondorengo adibideei:

- (10) a. Euria egiten badu, kaleak busti egiten dira.
- b. Euria egiten duenean, kaleak busti egiten dira.
- c. Euria eginez gero, kaleak busti egiten dira.

Hiru adibideak baliokideak izan daitezke. Izan ere, errepikapena adierazten duten denborazkoetan, baldin gertakari edo egoera bat noiz gertatu den edo gertatzen den adierazteko beste egoera bat edo gertaera bat aipatzen badugu, inplizituki adieraz dezakegu kausazko erlazioa ere badela gertakari horien artean. Horregatik, behin baino gehiagotan zalantzak izango ditugu adibide bat baldintzazko modura ulertu behar den, edo denborazko irakurketa behar duen. Begira ondorengo adibideari:

- (11) Eta *presuna bat bixtatik galduz geroz*, galtzen da halaber lauster orhoitzapenetik (Chourio, *Imitacionea*, 68).

Uler liteke “*pertsona bat bistatik galtzen denean/ondoren*” edo “*pertsona bat bistatik galtzen bada*”. Eta ildo horretan, kontuan izanik pertsonarekiko komunztadurarik edo denbora-markarik ez dela agertzen, balio generikoa duten adibideak sarri aurkituko ditugu baldintzazko jokatu gabeen artean. Subjek-

tu edo pertsona zehaztapenik ez da egiten, eta ez da denbora zehaztasunik adierazten:

- (12) a. *Osasuna galduz gero*, gertu izaten dira pentsamendu ilunak.
- b. *Artzain artean ibiliz gero*, gazta jan behar!

3.1.4. Semantikaren eta pragmatikaren jokoak

Aurreko kontzeptuak oso kontuan izan beharrekoak dira, baina baldintzadun egituretan bestelako erlazioak ere agertzen dira. Adibidez, batzuetan baldintzazko perpausak salbuespena adierazten du, zenbaitetan parte hartzen duten aditzen ezaugarri semantikoekin (13a), beste batzuetan menderagailuaren bidez (13b):

- (13) a. Lur onean au berdinduko duan zuaitzik ez da, *eukalptusa kendu ezker*o, ta eukalptusa ez dator ondo gure lurrekin (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 59).
- b. *Aldi bakan batzuetan izan ezik*, etziran ibiltzen Patxi ta bere lagunak Arrigorrieta barneko kaletatik (Oskillaso, *Kurloiak*, 159).

Bi adibide hauetan, perpaus nagusian esaten denaren salbuespena ematen da baldintzazko perpausaren bidez. Alegia, (a) adibidean, lur onerako beste guztiei zuhaitz mota jakin bat gailentzen zaiela adierazten da perpaus nagusian, eta ondoren, baldintzazkoan, salbuespena ematen zaigu, eukalptus zuhaitzari ez baitzaio gailentzen. Nolabait esateko, baldintzadun perpausetako eske-
ma “p” → “q” bada (baldintzazkoa → ondorea), hemen ez da adierazten “p”-k “q” bideratzen duela, edo bidera dezakeela/zezakeela, ez dago kausa-ondorio loturarik: hemen “p”-ren bidez zirkunstantzia bat ematen da, zeinetan “q” ez den betetzen.

Kausa/ondorio loturatik urrundu egiten dira, halaber, hurrengoak bezalako adibideak ere:

- (14) a. *Ondo pentsatzen jarri z gero, bizitzako buruhauste asko huskeriak besterik ez dira.*
- b. *Baiña gaiztakeri kontuan asi ezkeru, nor aurrea artu emakumeari? (Bilbao, Ipuin-Barreka, 122).*

Adibide hauetan, baldintzazko perpausa hizpidea emateko-edo baliatzen da, ondore perpausaren bideratzaile modura: lehenengoan, ondore perpausaren baieztape bat egin nahi da, eta baldintzazkoak ez du inolako kausarik agertzen; bigarrean, ondore perpausa galdera bat da, eta lotura ahula du baldintzazkoarekin. Eta bide honetakoak izaten dira hizkuntzan aurkitzen diren baldintzadun perpausetako asko: baldintzazko perpausaren ez da adierazten kausa bat, baizik eta perpaus nagusia enuntziatzeari zentzua emango dion, edo enuntziatio hori bideratuko duen ‘baldintza’ bat.

Esan liteke, pragmatikaren ikuspuntutik begiratuta, ondorengo molde hau ematen digutela: “pentsa ezazu p, q enuntziatioak zentzua izan dezan”. Ikus ditzagun horrelako adibide batzuk:

- (15) a. *apetitia ederra dauka / izan ezkeru gauz onik, / okel da arrautz jaten ez dago / zu bezelako gizonik (Euskal Jokoak I, 136).*
- b. *Nekatuta egonez gero, denboraz lasai gabiltza.*
- c. *Bazkaltzeko toki on bat ezagutzen dut, goseak izanez gero.*

(15a) adibidean, adierazi nahi da, jangai egokiak badaude, laster jango dituela pertsona horrek; edo besterik gabe, apetitu onekoa dela. Baldintzazko perpausaren eta ondore perpausaren artean ez dago logikako kausa-ondorio erlazioa, baizik eta hizketa egoeraren bidez egiten den lotura.

(15b) adibidean, baldintzazkoaren eta ondore perpausaren arteko lotura eraiki egin behar da: denboraz lasai dabilzala adierazi du hitzunik, eta esan duena esateari nolabaiteko zentzua ematen dio baldintzazko perpausak: alegia, denboraz lasai dabilzala esan du, norbait nekatuta egonez gero, atsedean har-

tzeko arazorik ez dela izango iradoki nahian. Baldintzazkoak perpaus nagusia enuntziatzeko bidea edo arrazoia ematen du.

(15c) adibidean ere gauzak antzekoak dira. Igorleak bazkaltzeko toki on bat ezagutzen duela esan du, eta hori zergatik esan duen azaltzen du baldintzazko perpausean: gerta litekeela taldean bakarren batzuk goseak egotea, eta nora-bait bazkaltzera joan nahi izatea.

Adibide hauetan guztietan baldintzazko perpausetarako iragarri dugun kausa-ondorio erlaziotik urrundu egiten gara. Horrelako kontuak xehetasun handiagoz aztertzen dira *EGLU VI* liburukian (18-21 or.), inferentziazko erabilerak aipatu zirenean.

3.2. –TUZ GERO

3.2.1. Forma

Menderagailu honekin baldintzazko perpausak eta denborazko perpausak egin ohi dira. Osaerari dagokionez, partizipioari –Z atzizki instrumentala eransten zaio, eta ondoren *GERO* postposizioa joaten da. Baina forma hori gauzatzeko unean euskarak bi tradizio idatzi izan ditu: Iparraldeko hizkeretan oraintxe aurkeztu dugun eran agertzen da, atzizkia partizipioari erantsita (–TUZ GERO); Hegoaldean berriz, –Z atzizkia partizipiotik askatu eta *GERO* postposizioarekin bat eginda agertu ohi da, *EZKERO* forma sortuz (*egin ezkerro*); gainera, *E* bokala beti agertzen da hasieran, baita forma lotuan bokalik ez denean ere (*ikusi ezkerro*); eta bai tradizio batean bai bestean, *GERO* adberbioari atzizkiak erantsiz aldaerak sortzen dira. Hona hemen menderagailu hau daramaten baldintzazko perpaus batzuk:

(16) a. *Barazkiak sarriago janez gero*, osasuntsuago ibiliko zinateke.

b. *Autoak debekatuz gero*, airearen kutsadura gutxituko litzateke.

- c. Batzarre bat egin zuten; *banekian nik arontz joan ezker*o, zer aditua ta zer esana izango zala, (...) (Urruzuno, *Ipui sorta*, 129).
- d. Laster erosiko geunskioz tituluok *dirua euki ezker*o (Kirikiño, *Bigarrenko Abarrak*, 126).
- e. Errazago zitziolako eta, batez ere, *euskarazkoa izanez gero* Corominas jaunak bere arrazoiak aiseago eta argiroago adituko zituelako (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 204).

Balioari dagokionez, Iparraldeko *-TUZ GERO* gehienetan denborazkoa izaten da; hegoaldeari dagokionez, *EZKERO* baldintzazko adierarekin XIX. mendean hasten da ugaritzen, eta XX.ean denborazko adiera baino ugariagoa da. Nolanahi ere, zenbait adibidetan denborazko adiera eta baldintzazkoa oso hurbil daude:

- (17) a. Guzien gainetik ordea, erraiten da *ondoetarik ianez gero* edan behar dela mahatz arno preziosetik (Pouvreau, *Philotea*, 372).
- b. *Gaiztoak bekhathuen hosinean sarthuz gero eta hetan luzaro usatuz gero*, eztu antsiarik, eztaduka konturik, gaiñerakoak sentitu gabe egiteintu (Axular, *Guero*, 70).
- c. Ordea, *prometatuz gero* obligatzen dute konseillu hauk (Materre, *Doctrina Christiana*, 151).

Lehenengo adibidean, uler liteke ardoa edan behar dela *ondoak jan ondo-
ren* (denborazkoa), edo *ondoak jaten badira* (baldintzazkoa); eta berdin gertatzen da beste bi adibideetan ere.

3.2.2. Aldaerak

Lehentxeago aipatu dugun bezala, *-TUZ GERO* eta *-TU EZKERO* oinarrien inguruan zenbait aldaera aurki ditzakegu, hizkeraren, mendearen eta autorearen arabera erabilera handiagokoak edo txikiagokoak; aldaera horietan guztietan, balioari dagokionez, askoz ugariagoa da denborazko adiera baldintzazkoa baino.

Aldaeretarako bide nagusia *GERO* adberbioari atzizkiren bat eranstea da. Horrela, elkartu gabeko formari dagokionez, *-TUZ GEROZ* izango genuke aldaera nagusia (18a-b-c-d-e-f), Iparraldean *-TUZ GERO* baino ugariagoa, eta *-TUZ GEROZTIK* duten adibideak ere nahiko sarri agertzen dira (18g-h-i).

- (18) a. *Frantzian aski barna sartuz geroz*, haizu ziren arrotz horiek egoiterat (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 172).
- b. Zerua Jainkorik gabe, *Hura bixtatik galduz geroz*, Infernu bihur laiteke (...) (Monho, *Poèmes basques*, 150).
- c. (...) *jana, edana eta loa izanez geroz*, zer behar duzue gehiago (Larzabal, *Iru ziren*, 48).
- d. *Jaunak manatuz geroz / harat edo hunat*, / Oro ziozkan hartzak / ekhartzen eskurat (Zalduby, *Obrak*, 765).
- e. Gehiagorik ere aurkituko genuke, *ongi bilatuz geroz* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 121).
- f. *Aal izanez geroz*, noiznai jaten zuan, ez zuan otorduetako garai jatorrik (Anabitarte, *Poli*, 14).
- g. *Bidak maitatuz geroztik elgar*, bakarzka zendako bizi? (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 211).
- h. (...) *eroriz geroztik bekhatuen lohira* / Handik laster ilkhitzeko hau duk bide segura (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa*, 21).
- i. Jendiak farra egingo luke / *jarritz geroztik begira* (Txirrita, *Txirritaren bertsoak*, 123).

Bestalde, *EZKERO*-ren moldekoetan gutxiago dira atzizkia erantsita baldintzazko adiera dutenak. Sarri izan gabe, *EZKEROZ*, *EZKEROZTIK* eta *EZKETINO* tarteka idoro litezke, eta *EZKEROAN* eta *EZKEROK* agertzen den adibideren bat edo beste ere bada.

- (19) a. *Ta bakotxai beria emon ezketiño*, Eztau zor-arturenik, danak kittu baño (K. Enbeita, *Bertsoak*, 149).

- b. *Bi jua ezketiño* batek bear galdu (*Euskal Jokoak* 2, 97).
- c. *Au gogo garbiz egiña* izan *ezkeroz*, au da, ez ba-da egitten ikusia izateagatik edo ezerezgabeko gauza batengatik, lenengoa baño obea, ta Jaunaren aurrean indar aundiagokoa da (*Inza, Kristau ikasbidearen azalpena*, 121).
- d. *Lenengo iru eskabideak biotzez egin ezkeroz* Jaunaren grazian edo esker onean gu jartzeko asko litzeke, pekatuz loiturik ba-geunde ere lenagotik (*Inza, Kristau ikasbidearen azalpena*, 142).
- e. Gorputzeko ikarak animako lotsa / zeren egin ditudan amalau eriotza; / *aditu ezkeroztik diruaren otsa*, / bidera irten eta botatzeko poltsa / aterako niola bestela biotza (*Euskal Baladak*, 220).
- f. *Ori egin ezkerotan*, berak bere, ez eukean, ziur asko, letrarik ikasi bearrean zetan jardun, larregian beintzat, eta ain zuzen soldautzea zala ta ez zala (*Erkiaga, Batetik bestera*, 25).
- g. *Ondo pentsau ezkerok eztaok ezkontzerik* (*San Martin, Zirikadak*, 126).

Aldaeretakako beste bidea, instrumentaleko atzizkiaren aurretik artikulua agertzea da, baina horrelako kasuak oso bakanak dira: *-TUAZ GERO* dutenek denborazko adiera dute, eta *AZKERO* erabiliz ere baldintzazko adibide bakanen batean bakarrik aurkitzen da.

- (20) Nok batiatu lei seiña ilteko peligruan dagoanian? Edozeinek, *ondo batiatuten yakin azkero* (*Laudioko katetxima*, 58).

3.2.3. *Balioa*

Agertu dugu dagoeneko *-TUZ GERO* eta bere aldaerak nagusiki baldintza eta denbora adierazteko erabiltzen direla (inoiz kausazko modura ere bai; ik. Denborazko perpausak 1.2.2.8.). Denborazko adieran, ezinezkoa da ezezko perpausak aurkitzea (ik. 1.3.3.1.). Eta baldintzazko perpausen artean ere, *-TUZ GERO* menderagailuaren erabilera guztiz nagusia, euskalki eta garai guztietan, baiezko perpausena da: euskarak beste menderagailu batzuetara jo ohi du (*-TU EZIK*, *-TU EZEAN*...) aditz jokatugabearekin ezezko perpausetan

baldintza adierazteko. Hala ere, erabilera ez-ohiko bezala, tradizioan kasu bakan batzuk agertzen dira:

- (21) a. Beraz, gagozan zur, irazarririk, prest, *ez euki ezkeroko segurantzarik, ziurtasunik* (Añibarro, *Guero*, 51).
- b. Etzegon, beraz, arrazoirik ikaretan egoteko, orain artekoa ukagarri baitzan eta *gerokoan geiago ez nahasi ezkeroko*, laister itzaliko ziran jende arteko marmarioak (Etxaide, *Joanak-joan*, 136).

Baina esan bezala, tradizioan *-TUZ GERO* baiezko perpausetan erabili izan da. Ezaugarri garrantzitsu hori kontuan izanik, garai eta euskalki guztietan aurkituko ditugu denborazko balioa duten adibideak:

- (22) a. Entzunak entzunda gero, *ikasiak ikasi ezkeroko*, ezin dezake arnasarik Zabaletan artu: ito egingo lizateke (...) (Aguirre, *Garoa*, 277).
- b. Gogatu egizue, ze pena errukigarria izango litekean aberats itsasoz datorren batena, *igaro ezkeroko milla gora bera ta pelligru, irunsi ezkeroko eun ekatx bildurgarri*, galduko balitz kaia, edo portuaren aurrez aur, eta ondatuko balitz ondasun ontzi ta guzti (Añibarro, *Lora sorta espiritual*, 9).
- c. Bekhatu egiten hari zarela, eta *eginez gero* hetan zaudela, iragaiten zaitzun denbora, emazu galdutzat (Axular, *Guero*, 107).
- d. Donzella hautatu baten ganikan da sortuko, *zeña erdiz gero* baita Birjiña geldituko (Etcheberri Ziburukoa, *Noelac*, 31).
- e. Bidanikoak Beltranen azkeneko jokabideaz txunditurik zeuden eta *espetetik atera ezkeroko* etziran berarekin egon (Etxaide, *Alos Torrea*, 92).

(22a) adibidean mendeko bi perpaus doaz elkarren jarraian, eta biek ere denborazko adiera dute, ‘entzunak entzun eta ikasiak ikasi ondoren’ zer egoeratan geratuko den adierazten da ondore perpausetan. (22b) adibidean ere, *-TU EZKERO* perpausetik denborazko adiera dute, ez baldintzazkoa: itsaso zabalean hainbeste arrisku eta neke igaro ondoren, lehorrera ia iritsian dagoenean hondatzea zein penagarria izango litzatekeen nabarmendu nahi da. Gauza bertsua (22c), (22d) eta (22e) adibideetan ere. Perpaus nagusiak bururaturiko ger-

takari bat adierazten duenean, mendeko perpausako aditzak denbora-une bat seinalatzen duenean, *behin* bezalako adberbioak mendeko perpausuan azaltzen direnean... errazagoa izaten da denborazko adiera. Esan dugu, gainera, Iparraldeko tradizioan *-TUZ GERO* denbora adierazteko erabili dela ia beti.

Baina baldintza adierazten duten adibideak ere ugari dira, bereziki azken bi mendeotako Hegoaldeko testuetan. Ondorengo hauetan, adibidez, *-TU EZKERO* forma duen perpausa eta aditz jokatua duen baldintzazkoa elkarrekin doaz:

- (23) a. Bear ba'litz, *Usoaren osasuna uste baño gogorragoa gertatu ezker*, edena erabili zezakean Usoak bizia gal zezan (Etxaide, *Alos Torrea*, 39).
- b. Askok *nekezale izan ezker*, edo baserriko modura bizi badira, eurak biarrik egin ez arren, eztabe barurik egiten (Astarloa, *Berbaldiak*, 247).
- c. Oben-nekea bete barik itxi edo betetea asko luzatzen dauanak, pekatu astuna egiten dau, *oben-neke ori astuna izan ezker*; ta ariña oben-nekea be ariña ba-da (*Gasteizko eliz-barrutirako bizkaierazko ikasbidea*, 100).
- d. *Al izan ezker*, iñondik badegu, apukorik bada, ezin gindezke eguneroko babarrunak janda egon (Aguirre, *Garoa*, 347).

Lau adibideetan ere, baldintza bat baino gehiago agertzen da, bat aditz jokatua erabiliz, bestea *-TU EZKERO* erabiliz.

Baina lehen esan bezala, beste askotan ez da erraza autoreak zer adierarekin erabili nahi duen jakiten *-gogoratu* (17-ko adibideak)–, baldintzazkoek eta denborazkoek sarritan antzeko eginkizuna izaten baitute perpaus nagusiari begira: biek ere mintzagai izateko joera dute, eta perpaus nagusia mintzagai horri buruzko iruzkina izan ohi da; gainera, eguneroko solasean, bien adierak oso hurbilekoak gerta daitezke. Begira ondokooi:

- (24) a. Ezinean gertatzen naizenean, laguntza eskatuko dizut.
- b. Ezinean gertatuz gero (=gertatzen banaiz), laguntza eskatuko dizut.

Lehenak denbora-une bat edo seinalatuko luke, eta memento hori iristean laguntza eskatuko dela adierazten da; bigarrenean, egoera batez ariko ginatke. Baina eguneroko solasean, ez da ezohikoa, bata zein bestea erabili, alde nabarmenik gabeko egoerak agertzea; eta orduan, denbora nahiz baldintza adieraz ditzakeen *-TUZ GERO* menderagailua erabili bada, adibide hori sailkatzeko unean zailtasunak izango ditugu. Begira ondorengo elkarrizketari:

(25) - Nahi al duzu badaezpada ni zurekin gelditzea?

Ez; ezinean gertatuz gero, laguntza eskatuko dizut.

(25) bezalako adibideek denbora nahiz baldintza adieraz dezakete. Eta berdin gertatzen zen aldiberekotasun estua zegoenean ere (10-eko adibideak). Hurbiltasun horregatik, bada, zalantza izango dugu zenbait adibide sailkatzeko orduan.

Denborazko eta baldintzazko balio nagusi hauez gain, ondoren *ERE* lokailua daramanean, kontzesiozko adiera hartu ohi du *-TUZ GERO* duen perpausak, beste hainbat menderagailurekin gertatzen den eran:

(26) a. Halaz ere, ahalgeak bultzatuta, zazpi ahaleginak egin nituan ariñ igoteko, baña gibeletik zethorren gizonak nere bildurra igarri ta, Tira gora bildur barik, erran zidan, *jeusi ezkeru be* neuk oratuko zaitut eta (Oskillaso, *Kurloiak*, 125).

b. Ez nuke nik, *ahal izanez gero ere*, inor joatera behartuko (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 171).

3.2.4. Ordena

-TUZ GERO duten perpausak ondore perpausaren aurretik nahiz atzetik joan daitezke. Mintzagai izateko joera dutelarik, maiztasunaren aldetik aurretik sarriago izaten dira (27a), baina ondoren joateko ere ez dute arazorik (27b).

(27) a. *Utzi ezkeru* sartuko litzake baten eztarriko zuloan (Labayen, *Euskal-Eguna*, 91).

- b. Aita Santuak eta Apezpikoak edo Obispoak kendu leike eskintsarien eginbearra, *atarako gauza egokia egon ezker* (Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 87).

Aipatu dugu *-TUZ GERO* duten perpausak normalean mintzagai izaten direla, baina galdegai izateko aukera ere ez dago guztiz baztertua. Adibidez, ondoren *bakarrik* aditzondoa duenean, galdegai ere izan litezke:

- (28) a. Akordioa sinatuz gero bakarrik jasoko dute bi aldeek diru hori.
b. *Akordioa sinatuz gero bakarrik, bi aldeek jasoko dute diru hori.

(28)-ko adibideetan *bakarrik* aditzondoaren aurretik doan baldintzazko perpausa galdegaia da; horregatik, (28b) adibidean, galdegai modura beste osagai bat jarri nahi izan dugunean, adibide okerra lortu dugu. Gainera, adierari dagokionez, erreferentziatzen baldintzadunetako $p \rightarrow q$ eskema hartuz, horrelakoetan ez da esaten soilik p betetzea (akordioa sinatzea) nahikoa dela q gauzatzeko (bi aldeek dirua jasotzea); esaten da, baita ere, p betetzea dela aukera bakarra q lortzeko: *baldintza askikoa eta ezinbestekoa* izango genuke.

Bestalde, baldintzazko perpausari berari dagokionez, aditza+*-TUZ GERO* multzoa gehienetan mendeko perpausaren amaieran agertu ohi da, baina atzetik beste elementu batzuk agertzeko ere ez dago eragozpenik, eta tradizioan aukera horretaz baliatu dira, bereziki baldintzazko perpaus horren mendean beste perpaus batzuk direnean (29a), edo aditz horren mendeko osagarriak luze samarrak edo asko direnean (29b), baina baita atal laburragoekin ere (29c-d):

- (29) a. Baleuke Kristinaubak euren arimeen arduria, *ezagutu ezker gatx pelleburuzkua daukela, edo peleburuzkua izan leitekien bildurra daukala*, ez leuke Medikuben esanetik biarko (Astarloa, *Berbaldiak*, 220).
b. Fededun on bera ere noizbait anitz asaldatu oi da bere gain ekusi ezker beharra, *gabenza, eritasuna, etxeko ta auzoko zenbaiten ta bere humeen mukerz, dollorza ta gaiztaginza edo sulezeko gaiztoaren zirika, sua ta tentanza* (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 228).

- c. era onetan *gogortu ezkeru bekatariaren biotza*, nekez gozatuko da (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac*, 432).
- d. Ekusiko dezu, Kristaia, *jan-edanera itsutu ezkeru bat*, erraz amiltzen dala ordikerian, itzegite loietan, keñada zikiñetan, ixillik egon bear duen gauzak agertzean (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac*, 605).

3.2.5. –TUZ GERO baldintzazko perpausen adierak

Aipatu dugu dagoeneko aditz jokaturia duten baldintzazko perpausetan bi sail nagusi bereizten direla aditz laguntzailearen tempusetik edo alditik abiatuta: baldintza erreala (-alegialdia) eta baldintza irrealia (+alegialdia). Bereizketa formal horrek lotura zuzena du baldintzazko perpausak adierazten duen hipotesiaren gertakortasunarekin; eta horrez gain, aditz nagusiak hartzen duen aspektu-markaren arabera ere aldeak badira baldintzazkoen adieran, hizkera batetik besterako desberdintasunekin.

Aditz jokaturia duten baldintzazko perpausetan, ordea, informazio morfologiko hori ez zaigu agertzen: aditz laguntzailerik ez da, eta kasu honetan –Z GERO marka beti partizipio burutuaren ondoren dator (*Liburua irakurriz gero...*). Hala ere, ohartzen gara baldintzazko jokaturia duten bidez baldintza erreala (30a) eta irrealia (30b), biak adieraz daitezkeela; ondore perpausak laguntzen digu askotan interpretatzeko unean.

- (30) a. Liburua irakurriz gero, zure iritzia aldatuko duzu.
- b. Liburua irakurriz gero, zure iritzia aldatuko zenuke.
- c. Liburua irakurriz gero, zure iritzia aldatuko zenuen.

Baina kontuan izan behar dugu, baita ere, baldintza-ondore komunztadura ez dela beti hertsiki jarraitzen (ik. *EGLU VI*). Orduan, testuingurura jo behar dugu; eta zenbaitetan bi eratara uler litezkeen perpausen aurrean egongo gara. Begira diezaiegun ondorengoari:

- (31) Bai, Zabaletakoak pozik emango zizkon begi biak Dionisiari, *onek eskatu ezker*o, bere biotza oso osorik emanda zeukan bezela (Aguirre, *Garoa*, 125).

Ohartuko gara (31)-ren adiera izan litekeela *honek eskatu izan balizkio* edo *honek eskatzen bazizkion*. Hona hemen zailtasunaren berri ematen digun beste adibide bat:

- (32) Izan ere, badira zenbait gauza, *nai izan ezker*o, uler ditezkeanak, eta *nai izan ezker*o, uler-ezinak lirakenak orobat (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 91).

Baldintza-ondore komunztadura hertsuari jarraituz, lehenengo ondore perpauseko aditzak baldintza errealeko interpretazioa bideratuko luke, eta bigarrenekoak baldintza irrealekoa; baina benetan ez dirudi gertagarritasunari dagokionez alderik dagoenik.

Aditz jokatu gabeko baldintzazkoek adierazten duten hipotesi motaren inguruko anbiguotasunerako bide hori kontuan izanik, sail nagusi bakoitzaren barnean aspektu-balioari dagokionez *-TUZ GERO* baldintzazko perpausek zer motatako erabilera duten aztertuko dugu.

3.2.5.1. Baldintza errealaren adiera

Baldintza errealaren adierarekin, *-TUZ GERO* perpausen bidez maizenik oraindik hasi gabeak diren egoerak, gertakariak edo gertakari-segidak aipatu ohi dira (33a), eta baita ekintza errepikatuak (33b) eta balio generikoa edo gnomikoa izanik denborazko kokapen zehatzik ez dutenak ere (33c).

- (33) a. *Iaz adina saiatuz gero*, aurten ere lortuko duzu helburua.
b. *Egunero otoitz eginez gero*, arimako bakea lortzen da.
c. *Euria eginez gero*, kaleak busti egiten dira.

Tradizioan adibide asko aurkitzen dira, eta ondore perpauseko aditza ere era askotakoa izan daiteke. Horrela, orainaldiko adierarekin ari garela, (34a-b-c) adibideek *-ten* eta *-go* aspektu-markak daramatzate ondore perpausean; (34d)-k *-tu ohi*; (34e-f-g-h) adibideek aditzaren forma trinkoa dute; (34i-j-k) adibideek (+ahal) ezaugarria:

- (34) a. Gose, edo egarri bada, kopau bat baino ez bada bere, *euki ezker*o, borondatez emoten deusagu (Fray Bartolome, *Icasiquizunac*, 89).
- b. Zuk, dana-dala, ni makillatuba ixatia gura dozu; baña, orrattiño, bardin ixango yatzu zein an jo zein emen jo, *makilladak neuk artu ezker*o (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 35).
- c. Bertze alderdiak erakusten dauku kafe eta edari edozer zerbitzaren ohi dutela hemen, egarri ditazkenendako; barnaxago baita etxeke athea, ezagun ere da jatera emaiten dutela berdin, *galdatu*z *geroz* (J. Etchepare, *Beribilez*, 100).
- d. *Mait*e *dogun gau*za *bati miñ emon ezker*o, gizonik epelenak asartu oi dira (Aguirre, *Kresala*, 186).
- e. *Sustraia gelditu ezker*o, garoa egon dan tokian berriz ere garoa dator (Aguirre, *Garoa*, 364).
- f. Munduko gainerako kalte gehienek badute zenbait erremedio, edo kontsolamendu, ordean *arima galdu*z *geroz*, ez da erremediorik, ez da kontsolamendurik (Baratciart, *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, 138).
- g. Zartu naiz, eta laister ill bear det; zugandik aldentzeak bizia laburtuko dit, baña ezagutzen det ondo, gaztearentzat gaur arrisku aundiak daudela, *bakarrik gelditu ezker*o (Urruzuno, *Ipui sorta*, 20).
- h. Iñorena artuten dabeenak, jaubeak gura ez dabela; eta au egiten bada isilean eta ezkutuan, deituten jako ostutea, eta *jaubearen aurrean eta indarrez egin ezker*o, deritxo arrapakeria (Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 105).
- i. Beraz Amerikara jua biarrik eztago diruak eiteko; emen be ein leikez an letxe *gogua orretara ipiñi ezker*o, *diruak eiteko asmuaz alperreko gastu guztiyak kendu ezker*o (Kirikiño, *Bigarrengo Abarrak*, 131).

- j. Onelakoen iritziz, *abere-irudia, gogoa*, berak diotenez, *aztikeriz menperatu ezkerro*, bereala menperatu lezake eiztariak abere berbera ere (Barandiaran, *Euskalerriko Leen-Gizona*, 49).
- k. Zeren *jakinez geroz, nola eginak diren lur onak*, hartarik ezagut baititake nola medea daitekeen lur txarra (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 17).

Lehenaldiko adierarekin ere berdin: (35a-b)-n *-go* marka azaltzen zaigu on-dore perpausean; (35c-d-e-f)n *-ten* marka; (35g-h-i)-ko aditz forma trinkoa da, (35j) adibidean (+)ahal ezaugarria duena:

- (35) a. Oartu nintzan bada, *nik baiño lenago amaitu ezkerro*, lagunduko eustala neure ondarretan (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 69).
- b. Bazter-errietatik ere jendea eri eta gaizkiñak zeuzkatenakekin Jerusalem'era samaldaka zijoan, *Apostoluak ikusi ezkerro*, sendatuko zituzten uste osoan (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 486).
- c. Alde guztietan, *bera aitatu ezkerro*, bere goralbena baño besterik etzan entzuten (Kirikiño, *Bigarrego Abarrak*, 72).
- d. Bertze anitz antolatzeke izanez geroz, etzuen deusere besterik gutizia-tzen, eta han hemenka herriz herri ibiltzea zitzakon bizitze goxoena, bere zuzentasunaz denez ezagutua eta maitatua (Zubiri, *XX.garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 26).
- e. Zioten untzi guziak, *han harat joanez geroz*, ur handi harek iresten zituela (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 50).
- f. Abraham txit biotz andikoa zan, eta etzitzaion iñor, *berak ikusi ezkerro*, arrera ona egin gabe joaten (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 18).
- g. Pazkoa asitzeko ordua bazetorren, eta *zerbait luzatu ezkerro*, etzeukaten Pazkoaren ondorengo zortzi egunetan iltzerik (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 456).
- h. *Su ori zuzen igo ezkerro*, neska beste mutil batengana zegoala zan siñeskeria (Orixe, *Euskaldunak*, 115).
- i. Nik uste nuan bada *ardoari utzi ezkerro* illa nenguala; nere andreak zer poza artuko duan ori aditzean (Soroa, *Baratzan*, 56).

- j. Hegiaphaliara igotzeko azkeneko aldatzan Xalbatek zalditik jauzi egin zun eta onen aurrelari jarri, bidea gaiztoa baitzegen eta *zaldia labaindu ezker*o jausita min ar zezaketen (Etxaide, *Joanak-joan*, 254).

Beraz, *-TUZ GERO* motako baldintzazko perpaus gehienek geroari buruzko baldintzak adierazten dituzte, edo balio generikoa dute eta ez dute denbora zehatzik adierazten, edo aldiberekotasun errepikatua dute.

Ildo horretan, aspektu-balio desberdinez ari garela, aipatu behar da badirela debekatutako aspektu-aukerak ere: *-TUZ GERO* motako baldintzazko perpaus ezin dute ekintza/egoera buruturik adierazi, eta ezta unean bertan jazo-tzen ari denik ere. (36)-n adibidez, *-TUZ GERO* daraman perpausaren bidez ezin da parentesi artekoa adierazi, interpretazioa ezin liteke burutua izan:

- (36) a. Elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango // # (Elurra egin badu...)
b. Miren berandu etorri gero, ez diogu sartzen utziko // # (Miren berandu etorri bada...)

(36a)-ko baldintzazko perpausarekin ez genuke ulertuko *elurra egin badu*, *ez gara Ibañetatik joango*; berdin, (36b) ez genuke erabiliko *Miren berandu etorri bada*, *ez diogu sartzen utziko* adierazteko; alegia, *-TUZ GERO* duten baldintzazkoekin ekintza burutuaren irakurketa debekaturik dugu. (36)-ko baldintza-perpaua era jokatuan ematekotan, aspektu-marka burutugabearekin emango genituzke, eta etorkizunera begirako adiera izango lukete:

- (37) a. Elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango. // = (Elurra egiten badu...)
b. Miren berandu etorri gero, ez diogu sartzen utziko. // = (Miren berandu etortzen bada...)

Are gehiago, irakurketa burutua lortu nahian adibideei aldaketak egiten hasten garenean (*bart* adberbioa erantsi, adibidez), perpaus okerrak sortzen dira:

- (38) *Bart elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango.

Kontuan izan, *EGLU VI*-n adierazi genuen bezala, aditz jokatuarekin, adiera burutu horretarako arazorik ez dela:

- (39) a. Bart elurra egin badu, ez gara Ibañetatik joango.
b. Gaur Miren berandu etorri bada, ez diogu sartzen utziko.

Debekatutako bigarren aspektu-balioa solas unean hasiak diren egoera eta gertakarien ingurukoa da. Ondorengo hauek, adibidez, ezin dira *-TUZ GERO* erabiliz eman:

- (40) a. Egun gure kaleetan etorkin asko ikusten baditugu, gerora ez ditugu gutxiago izango (#... ikusiz gero...)
b. Oraintxe menditik bueltan bazatoz, ederki nekatuta etorriko zara (#Oraintxe menditik bueltan etorritz gero...)

Nolanahi ere, badirudi debekatutako bi interpretazio hauekin (egoera/gertakari burutuak eta solas unean hasiak), baldintzazko jokatuak ere ez dutela benetako hipotesirik agertzen: edo aurretik proposizio horien egiazkotasuna ezaguna dugu, eta horregatik, sarritan inferentzia modukoak adierazteko erabiltzen dira; edo, baldintza ez da protasiak adierazten duena bera, baizik eta protasiak dioena egia izatea, eta egia bada, adierazi nahi da orduan ondore perpausa badagokiola protasi horri. Nolabait esateko, ‘bart elurra egin duela egia gertatzen bada...’, edo ‘menditik zatozela egia gertatzen bada...’; era horretan, mendeko proposizioak dioena burutua edo dagoeneko hasia izan arren, hipotesia bera geroan kokatzen dugu aditz jokatuak ere.

Bestalde, horrelako interpretazioek eragiten duten inferentzia moduko erabilera aipatu dugularik, ohartuko gara *-TUZ GERO* markaren bidez ezin direla eman *EGLU VI*-n aipatu genituen inferentzia moduko erabileretako batzuk:

- (41) a. Axularrek *Guero* idatzi bazuen, orduko irakurtzaileek holako liburuen beharra zutelakoan egin zuen (#Axularrek *Guero* idatiz gero...)

- b. Patxi indartsua bada, bazterretan bada hura baino indartsuagorik (#Patxi indartsua izanez gero...)
- c. Zu kantaria bazara, ni apezpiku (#Zu kantaria izanez gero, ni apezpiku)

Adibide hauetako inferentziatzko erabilerek baieztapenak adierazten dituzte, eta *-TUZ GERO* formaren bidez balio hipotetikoagoa ematen denez, ez da adiera berbera azaltzen.

Azkenik, geroaldiko baldintzen inguruan ere bada kontuan izan beharreko puntu bat: aditz jokatuekin, *BA-* aditz-aurrizkia izan arren, geroaldiko aspektu-marka zutenak ez genituen baldintzazkoen artean aztertu, helburuzkoen artean baizik, beren balioa halakoetatik hurbilago zegoelakoan; bada, *-TUZ GERO* formarekin ezin dira horrelakoak adierazi:

- (42) Jango badugu, gogor lan egin behar // #Janez gero, gogor lan egin behar

Horrelakoak era jokatu gabe emateko aditz-izena oinarritzat hartzen duten marketara jo behar da (jatekotan, jatekotz, jatez gero).

3.2.5.2. *Baldintza irrealaren adiera*

*Baldintza irreal*a deituraren azpian, baldintzazko jokatueta alegialdiko aditza daramaten adibideak bildu ohi dira. Horrelakoak erabiltzean, hiztunak adierazten du bere ustez baldintzazko perpausean esaten denak gertatzeko aukera handirik ez duela (43a), edo, iraganeko baldintza izaki, baldintza hori ez dela gauzatu (43b, kontrafaktuala):

- (43) a. Berandu iritsiko banintz, ez lidakete sartzen utziko.
b. Berandu iritsi banintz, ez zidaten sartzen utziko.

Tradizioko adibiderik gehienetan *-TUZ GERO* marka baldintza erreal adierazteko erabili bada ere, ez dira gutxi baldintza irrealen irakurketa eska-

tzen duten adibideak. Adiera horretan, gehienetan solas unean hastekoak diren egoerak edo gertakariak adierazten dira (44a), baina hasiak izanik burutuak ez diren egoerak ere azaltzen dira (44b), eta baita gertakari segidak ere (44c):

- (44) a. Bihar nire etxera etorritz gero, elkarrekin afuldu ahal izango genuke.
b. Nire banketxeko kontuan diru gehiago izanez gero, oraintxe emango nizuke apur bat.
c. Igandeetan lan eginez gero, ez zenuke diru arazorik izango.

Hona literatura tradizioetik ekarritako adibide batzuk, geroari begira, gertagarritasun gutxiagoko hipotesia adierazten dutenak:

- (45) a. *Tramanak ta Brixek oituten daben izketea bapere gozatu barik ipiñi ezker*o, irudi obeak egingo nituke bear bada, baña gaziegiak, eta gauza gaziegiak eztagoz beñbere ondo (Aguirre, *Kresala*, 10).
b. Gehiagorik ere aurkituko genuke, *ongi bilatuz geroz* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 119).
c. *Gure etxera etorri ezker*o, gorroto aundiagoa artuko liokela bere senarrak, ta ez berari bakarrik, baizik guri ere bai, ta ez du iñola ere besteren kaltegarri izan nai (Barriola, *Goi-Argi*, 68).
d. *Asmatzen asi ezker*o nik ere asmatuko nituke gauztxo batzuk (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 17).
e. *Nere gogoko mutilla izan ezker*o, e'lioike beste ezerk ajola aundirik (Agirre, *Uztaro*, 305).
f. Laster erosiko geunskioz tituluok *dirua euki ezker*o (Kirikiño, *Bigarrenko Abarrak*, 126).
g. Alta, *nausia lanari uko geldituz geroz*, non litake lana, eta lanik gabe, zer bilaka langilea (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 205).

Baina horiez gain, osoki gertatuak edo burutuak diren egoera eta gertakariak buruzko baldintza adierazten duten adibideak ere aurkitzen ditugu (kontrafaktualak):

- (46) a. Bizimodua ona damaki ari danak arakintzan, / ori baño lan oberik asko ezin bailiteke izan; / *nik e gazterik asi ezker*o ikasiko nuen gisan, / zerbaitxo baño naiago nuen lan ortan asi banintzan (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 200).
- b. Nik esan neutson neure aiskidiari: *Zuek be idazkariena entzun ezker*o, kapa andi batzuk eskatuko zenduezan euzkirik-euzki ibilteko (Kirikiño, *Bigarrego Abarrak*, 104).
- c. Leaburuarrak izan balira, sei ez, zinegotziak seireun izanta ere, naikoa lan izango zuten buruzpidetzeko, *batez ere Elgoien ta Elbarren an izan ezker*o (Azkue, *Ardi galdua*, 37).

Guztietan ere burututako gertakariez ari da, eta bete ezinak diren baldintzak azaltzen dira: (46a)-n adierazi nahi da harakintzan gazterik hasi izan balitz (burututako gertakaria), ikasiko zuela; (46b)-n, idazkariak esandakoa entzun izan balu zer egingo zuen; (46c)-n, lehenengo baldintzazko perpausak (*Leaburuarrak izan balira...*) dagoeneko gertakaria noiz kokatzen den adierazten du.

3.3. *-TU EZIK*

Partizipioari *EZIK* erantsita ezezko mendeko perpausak osatzen dira men-debaldeko hizkeretan, gehienetan baldintzazko balioarekin:

- (47) a. *Horrela egin ezik*, ez dugu lortuko aurrera ateratzea.
- b. *Hurrengo egunetan eguraldia hobetu ezik*, turistak haserre ibiliko dira.
- c. *Ezer eio ezik* ezin dau ezer irabazi, eta *irabazi ezik* ezin dau dirurik euki ardauek erosteko, ta ardauek ordez ura edan biar dau (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 153).
- d. Atsegiña, desiragarri zaigu, bai; baiña *ondo neurtu ezik*, atsegiña bere buruaren kaltetan biurto oi da (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 82).
- e. Gure semeak il ziranezkerotik, Aita zarrak zankoa loturik dauka etxean, zu ikustean dauka bere poztasun bakarra, ta eztau etxetik urtetan *zeregiñ andi ta premiñazkoren batek deitu ezik* (Aguirre, *Kresala*, 12).

Adibide hauek aditz jokatua erabiliz emango bagenitu, (47a) horrela egiten ez badugu, (47b) eguraldia hobetzen ez bada, (47c) ezer ehotzen ez badu, (47c) irabazten ez badu, (47d) ondo neurtzen ez bada, (47e) zeregin handi eta premiazkoren batek deitzen ez badu izango genituzke.

Adierari dagokionez, *-TU EZIK* duten perpausetan baldintza erreala (48a) nahiz baldintza irrealak (48b) azal daitezke, eta salbuespena adierazteko ere (48c) erabiltzen dira:

- (48) a. Isunak jarri ezik, debekuek ez dute eraginkortasunik izango ('jartzen ez badira')
- b. Partida irabazi ezik, egoera guztiz okertuko litzaiguke ('irabaziko ez bagenu')
- c. Ez dut egunkaria irakurtzen, igandeetan izan ezik.

3.3.1. Baldintza erreala

Baldintza errealararen adiera duenean, ondore perpausako aditzerako ohiko aukera guztiak aurkituko ditugu tradizioko adibideetan:

- (49) a. Argiro dazaut, *ondu ezik*, betiko galduko nasana (Añibarro, *Escu-liburua*, 61).
- b. Bai, ba-dira gu baitan gogo batzuk gerok bakarrik ezagutzen ditugunak, baiña beste batzuk gordeak bezala aurkitzen dira, eta *billakuntza sakon bat egin ezik* eztira azaltzen (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 140).
- c. *Nere aragia jan eta nere odola edan ezik*, ez dezute zerongan bizirik izango (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 97).
- d. Siniste santuko egiya da, pekatu baga ezin bizi geinteketzala, *grazia berizkoren bat guk zerutik euki ezik* (Iturzaeta, *Azalduera laburrak*, 154).
- e. *Urdalletik bete ezik biar lez estia*, / Motel ibilliko da zar nai gaztia (K. Enbeita, *Bertsoak*, 165).

- f. Egarrri dagon nere biotza, *zuk eman ezik edaten*, berriro ere ibilliko da gogorik gabe nunbaiten (Etxaniz, *Lur berri billa*, 327).
- g. Bekatuaz egin nas bere arerio, ezaindu dot arimea, galdu izan dot zerua, irabazi izan dot infernua, eta betiko eneak egin eban, *zuek ene bitarteko urten ezik* (Añibarro, *Escu-liburua*, 156).

Baldintza errealetako aspektu-balioei dagokionez, *-TUZ GERO* atalean esandakoak balio du honako ere: gehienetan hasi gabeak diren gertakariak aipatzen dituzte (50a), edo balio generikoa dutenak, denboran kokapen zehatzik gabeak (50b).

- (50) a. Gehiago saiatu ezik, ez duzu helburua lortuko.
- b. Euria egin ezik, uztak galdu egiten dira.

Eta aldiz, debekuei dagokienez, ezin da erabili gertakari burutuak adierazteko (51a), une horretan dagoeneko hasiak diren gertakariak baldintza modura emateko (51b), edo geroaldiko aspektu-marka duten baldintzazkoen ordain modura (51c):

- (51) a. Ibañetan elurrik egin ez badu, autoz joango gara. (#Ibañetan elurrik egin ezik, autoz joango gara)
- b. Une honetan lanean ari ez bazara, etorri nirekin zinemara. (#Une honetan lanean aritu ezik, etorri nirekin zinemara)
- c. Goseak hilko ez bagara, gehiago saiatu beharko dugu. (#Goseak hil ezik, gehiago saiatu beharko dugu)

3.3.2. Baldintza irreala

Baldintza irrealaren adiera duenean ere, ondore perpauseko aditzerako ohiko aukera guztiak aurkituko ditugu. Hona hemen tradizioko adibide batzuk:

- (52) a. (...) ori da, noski, soziedadearen iraupenak ala galdetzen duelako, eta *ala egin ezik*, kalte aundiak etorriko liratekelako arentzat (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 105).
- b. Lan honetan eta beste zenbaitetan, zori txarrez gure eskuetara osorik heldu ez direnetan, bildu ditu hamaika gai, *bere arreta izan ezik*, aztarrenik gabe galduko zirenak (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 237).
- c. Orain sarri garbitu arren, bazabiltze ondo loiturik, zer izango litzateke *meatz, ta luzero garbitu ezik?* (Añibarro, *Lora sorta espiritualak*, 36).
- d. Orregaitik euren egikizun guztietarako besteen argibidea ta esana bear izaten dabe geienetan edo beti ta *iñok zirikatu ezik* ezleukee oinkada bat bakarra egingo (Aguirre, *Kresala*, 29).
- e. *Oso ezaguna izan ezik*, etziokkeen iñori aterik zabalduko (Agirre, *Uztaro*, 174).

Mota honetako perpausekin adieraz litezkeen aspektu-balioei dagokionez, *-TUZ GERO* markarentzat aipatu genituen aukera berberak ditugu: ekintza burutuak (53a), hasi gabeak (53b), errepikatuak (53c) edo generikoak (53d):

- (53) a. Ondo prestatu ezik, ez nuen etsamina gaindituko.
- b. Nagusiaren aginduak bete ezik, lana galduko zenukete.
- c. Igandeetan lana egin ezik, ez genuke behar adina diru lortuko.
- d. Jan ezik, ez genuke bizirik iraungo.

3.3.3. *Salbuespena*

Bestalde, *EZIK* askotan *izan* aditzaren ondoren aurkituko dugu, aurretik sintagma bakar bat duela, perpaus nagusian esan denarekiko *salbuespen* bat adierazteko bezala (tradizioan badira *IZAN* isilean duten adibide batzuk, baina *IZAN EZIK* ugariagoa da, eta euskara batuan hori aukeratu da). Horrelakoe-tan, askotan perpaus nagusia ezezkoa izan ohi da, edo nolabaiteko kuantifika-

zioa adierazten duen elementuren bat aurkitzen dugu (*inor, ezer, guzti, beste, oro, dena...*).

- (54) a. Ez Patxi ta ez Peru etzituan urian inok ezagutzen, *jauntxoren batek izan ezik* (Aguirre, *Garoa*, 172).
- b. Baña laster gelditzen ziran gauzak osteraren lehen bezela, ta *belarra jaten zuten ahuntz batzuen arranotsa, edo urrunago asto baten orroa izan ezik*, etzan ezer ere entzuten (Oskillaso, *Kurloiak*, 145).
- c. *Aldi bakan batzuetan izan ezik*, etziran ibiltzen Patxi ta bere lagunak Arrigorrieta barneko kaletatik (Oskillaso, *Kurloiak*, 159).
- d. Ez gara arte-lanean, bertso nahiz liburugintzan, eta are bestelakoetan, bihotz-isuri hutsez aritzen, *inoiz edo behin izan ezik* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 115).
- e. Inor ezta konturatu zu izan ezik (Oskillaso, *Kurloiak*, 177).
- f. Bestetan ez dut aurkitzen hitz hori, *Larramendigan izan ezik* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 66).
- g. Uste izateko da, baina ez oso garbia, 1500 inguruan Ebroz behekaldean ez zela euskararik, *izen berezi batzuk edo sustratozko hitz bakan batzuk izan ezik* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 34).
- h. Baña, plaentxiatarrek konturatu ziran euskeraz tautik pe ez ekila, *asieran Ola lagun, ta amaieran Agur, izan ezik* (San Martin, *Zirikadak*, 40).
- i. Baña, Gertziako ipuinlari arek nun jasoko eban ba *Plaentxian izan ezik?* (San Martin, *Zirikadak*, 119).

IZAN EZIK-en ezkerrean doan sintagmak dagokion atzizkia hartu ohi du, eta salbuespena, batzuetan, ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan *IZAN EZIK*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan (*Euskaltzaindiaren arauak*, 16. araua)¹:

Orixe egingo eban zu izan ezik beste edozeinek (Aguirre)

¹ http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0016.pdf

3.4. -TU EZEAN

Partizipioari *EZEAN* erantsita ere ezezeko baldintzazko perpausak osatzen dira, bereziki Gipuzkoan eta orokorrean mendebaldean, baina egitura honek aurrekoak baino tradizio laburragoa izan du:

- (55) a. *Garaiz joan ezean*, ez duzu partidarako sarrerarik lortuko.
- b. *Guztiok elkartu ezean*, ez dugu ezer aurrera ateratzerik lortuko.
- c. Ezker-eskubi sendoak dauzka, / naiz kolpe batzuk utsegin, / *Oker txarren bat izan ezean* / Orrekin ez da atsegin (Basarri, *Kantari nator*, 89).
- d. Trafikariek mehatxu gogorrek egin zizkieten bere zorrak garbitzeko, eta *hala egin ezean* jipoitu egingo zutela esan zioten (Biguri, *Ateak zabalik dituen presondegia*, 30).
- e. Elurra gauez ari duelarik, malutek itsutu egiten zaituzte guztiz eta errazena galtzea izaten da *aterperen bat laster aurkitu ezean* (Izagirre, *Gauez ate joka datozenean*, 40).

Adibide hauek aditz jokatua erabiliz emango bagenitu, (55a) garaiz joaten ez bazara, (55b) guztiok elkartzen ez bagara, (55c) oker txarren bat izaten ez badu, (55d) hala egiten ez bazuen, (55e) aterperen bat laster aurkitzen ez bada izango genituzke.

Adierari dagokionez, *-TUZ GERO* duten perpausak baldintza irrealak (56a-b) nahiz erreala (56c-d-e-f-g-h-i) adieraz dezakete, eta ondore perpausako aditzaerako ohiko aukerak ditugu:

- (56) a. Egun batez haragi, / arraina bertzean, / ogia harmairuan, / ilarrak eltzean: / guziak diru truke / dituzu etxean; / non bila zinezazke, / *guk sortu ezean* (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 150).
- b. Honelakoak dira, adibidez, Antxieta, Xenpelar edo Victor Hugo etxeak, Kutxak erabat zaharberrituak eta, *hori egin ezean*, ondare kolektiboaren kaltetan desagertuko zirenak (P. Iztueta, *Gizarte-ekintzak*, 54).

- c. Bizibearrak onuntz ekarri / zaituzte zuen erritik, / Danok ederki konpon gindezke / *irten ezean neurritik* (Basarri, *Kantari nator*, 174).
- d. Baiña Praiskuri asko eutson, naiz ta milla egon, *berea aurkitu ezean* (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 222).
- e. (...) gogoan baldin baduzu lehen zer erran izan duzun, *bertzerik gogoratu ezean*, hartarik zerbait kantatuko duzu (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 63).
- f. Gizaki batek ez dezake beste batekin osotara barrena zabaldu, *itzez belarrira, ta andik aren barnera nolabait sartu ezean*. (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 137).
- g. Hura agindua zen, eta bagenekien *agindua bete ezean* zigorra ez zigula Jaungoikoak beste munduan emango, don Manuelen kasuan bezala, baizik eta Txintxetak berak, orduan bertan, laster asko erakutsi zigunez (Mendiguren Elizegi, *Irakasle alu bat*, 14).
- h. Rousseuren esaldia dut buruan, Berriau jaunak goizean irakurri diguna: “Ez dago lur gainean zorionsu izaterik, *gauzetatik urrundu eta norberaren baitara hurbildu ezean*.” (Juaristi, *Ez idolorik uki*, 20).

Aspektu-balioei dagokionez, *-TU EZIK* aztertzean esandakoak balio du honako ere. Adiera erreala dutenetan gehienetan hasi gabeak diren gertakariak aipatzen dituzte (57a), edo balio generikoa dutenak, denboran kokapen zehatzik gabeak (57b).

- (57) a. Gehiago saiatu ezean, ez duzu helburua lortuko.
- b. Euria egin ezean, uztak galdu egiten dira.

Aldiz, ezin da erabili gertakari burutuak dituzten baldintzazko perpausak adierazteko (58a), une horretan dagoeneko hasiak diren gertakariak baldintza modura emateko (58b), edo geroaldiko aspektu-marka duten adibideen ordain modura (58c):

- (58) a. Ibañetan elurrik egin ez badu, autoz joango gara. (#Ibañetan elurrik egin ezean, autoz joango gara)

- b. Une honetan lanean ari ez bazara, etorri nirekin zinemara. (#Une honetan lanean aritu ezean, etorri nirekin zinemara)
- c. Goseak hilko ez bagara, gehiago saiatu beharko dugu. (#Goseak hil ezean, gehiago saiatu beharko dugu)

Bestalde, *-TU EZIK* duten perpausen kasuan, aipatu dugu batzuetan salbuespena-edo adierazteko erabiltzen direla, gehienetan *izan* aditzari erantsita. *-TU EZEAN* duten perpausak ere aurkitzen dira erabilera horretan, baina aurrekoak baino gutxiagotan.

- (59) a. Eta beiak, berriz, bota itzazu emengo mendietara; *betizu txiki oiek izan ezean*, beintzat, ez dago emen mantentzerik (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 348).
- b. Bide hartan ez zihoazen inora, *tristeziaz eta zorigaitzez betetako putzura izan ezean* (Etxeberria, *Arrainak ura baino*, 39).

Partitiboan doan osagai bakar batekin ere sarri joaten da, eta orduan *izan* aditza gabe ere ager daiteke. Askotan zerbaiten gabezia-edo adierazteko erabiltzen da, era orokorrean, eta egoera hori uler liteke baldintzazko modura, moduzko modura... zail gertatzen da zehazki sailkatzen (*besterik ezean*, *beste X-ik ezean*... bezalako esapideak sarri agertzen dira).

- (60) a. *Besterik ezean*, janariaren truk bere etxean morroi aritzeko gertu zegon (Etxaide, *Joanak-joan*, 189).
- b. *Hoberik ezean*, ez bata ez bestea azalez baizik ezagutzen ez ditugunok salbatu beharko ditugu, beraz, gure liberal zaharrak (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 43).
- c. Pintatu nahi badugu, baina *pintzelik eta brotxarik izan ezean*, zer erabil dezakegu? (Mendiguren Bereziartu, *Lana eta jolasa*, 9).
- d. *Borrokarako deirik ezean* borrokak asmatu egin behar ziren (Monasterio, *Atzekoz aurrera*, 129).
- e. Eta seguraski, melodiaren laguntzarik ezean, ez litzateke inprobisatzeko gai izango (Belaxe, *Euskal Herriko Bertsolariak*, 12).

3.5. *-TZEKOTAN*

Aditz-izenarekin osatutako *-TZEKO* formari inesiboko marka eransten zaio (mugagabeko *-TA* morfemarekin), isilean izen bat balego bezala, eta horrelako atzizkiekin askotan gertatzen den bezala, zirkunstantziaren bat adierazten dute, eta ondorioz, balio batean baino gehiagotan ager daitezke (helburuzko, baldintzazko, moduzko...). Hona baldintzazko balioa duten adibide batzuk:

- (61) a. Inori laguntzekotan, zuri lagunduko dizut.
- b. Norbaiti eskerrak ematekotan, Ane ezin dugu alde batera utzi.
- c. Berandu etortzekotan, hobe duzu giltza hartu.
- d. Emango dizut, bihar itzultzekotan.
- e. Kontatuko dizut, inori ez esatekotan.
- f. Lan gehiago ez egitekotan, onena aurrera ez jarraitzea.

Nabarmendu behar da aurreko (a-b-c-d) adibideak ezin direla *-TUZ GERO* markaren bidez eman, eta ezta ezezkoak ere (e-f) *-TU EZIK* edo *-TU EZEAN* erabiliz: *-TZEKOTAN* daramaten perpausen balio-eremua ez dator guztiz bat besteenarekin, eta esan liteke etorkizuneko hipotesiaren kutsua duela. Horrela, ezinezkoa da *-TZEKOTAN* perpausen bidez burututako egoerak edo gertakariak (62a) azaltzea, unean gertatzen ari direnak (62b), errepikapena dakartenak (62c) edo generikoak (62d) (nagusia eta mendekoaren arteko aldiberekotasuna dagoela interpretatzen da).

- (62) a. Bart elurra egin badu, Ibañetatik joango gara. (#Bart elurra egitekotan...)
- b. Orain hizlaria esaten ari dena ulertzen baduzu, ez duzu bat-bateko itzulpenaren beharrik. (#Orain hizlaria esaten ari dena ulertzekotan...)
- c. Igandeetan lan egiten badu, ez du diru arazorik izango. (#Igandeetan lan egitekotan...)
- d. Euria egiten duenean, kaleak busti egiten dira. (#Eurria egitekotan...)

Are gehiago, baldintzazkoa bera etorkizunera begira dagoenean ere, gerta liteke *-TZEKOTAN* erabiltzerik ez izatea:

- (63) a. Bihar partida irabazten badugu / irabaziko bagenu, lehenak jarriko gara/ginateke. (#*Bihar partida irabaztekotan*, lehenak jarriko gara/ginateke)
- b. Gehiago saiatzen bazara, lortuko dituzu zure helburuak. (#*Gehiago saiatzekotan*, lortuko dituzu zure helburuak)
- c. Hauteskundeetan irabaziko banu, liburu guztiak dohainik izango lirateke. (#*Hauteskundeetan irabaztekotan*, liburu guztiak dohainik izango lirateke)

Izan ere, *-TZEKOTAN* daraman perpausean aipatzen dena, ez da ondore perpausa baino lehenago gertatzen, edo gutxienez ez da ondore perpausa zuzenean eragiten duen kausa izaten. Horregatik, ondorengo bezalako perpausak ez ditugu zuzenak izango:

- (64) *Trenbidera ezer erortzekotan, metroko langileei deitzea komeni da.

Adibide hori apur bat eraldatuta, ordea, perpaus zuzenak lor litezke:

- (65) Trenbidean ibiltzekotan, metroko langileei deitzea komeni da.

(65) adibidean, baldintzazko perpausean borondatea azaltzen da, eta helburu kutsua ere badu: trenbidean ibili nahi duelako, edo ibili ahal izateko, aurretik zer egitea komeni den azaltzen da.

Ohartzen gara, bada, *-TZEKOTAN* perpausen balioak eta *-TUZ GERO* formarenak ez datozela bat, eta lehenengoak erabilera-esparru murriztagoa eta espezializatuagoa duela. Jarraian *-TZEKOTAN* daramaten perpausak izan ohi dituzten balioak azalduko ditugu.

a. Helburuzkoen mugan

-TZEKOTAN duten perpausak batzuetan helburuzko balioa izaten dute (ik. 2.2.5.5.).

- (66) a. Auto berria erostekotan naiz.
- b. Guk (...) emaiten diogu Aita Haranburu erran den huni geure konsentimendu errana *Orazino manual erran den hunen inprimitzekotan* (Haramburu, *Debocino escuarra*, 903).
- c. Ez dute beraz jende ongarrria basterrerat uzten; eta ikhusten badute etxe bat priaztegirik gabe, jabeari eskaintzen diote priaztegiak egitea *beren diruz hekietako gozoa berentzat altxatzekotan* (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 172).
- d. Ihintz handiak luzara kalte egiten dio *gizentzekotan* ez den ardiari (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 273).

Horrelakoen berri helburuzkoen atalean ematen dugu (ik. 2.2.5.5.). Baina adibidez, (67)-koak baldintzazko perpausetara gehiago hurbiltzen dira:

- (67) a. Aleia, naita-naiezkoa da *aittortu gendun siñesmenean irautekotan*, zer aittortu gendun jakittea; ta *eman gendun itza ez jatekotan* zer itz emanak geran jakittea (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 18).
- b. (...) *landa erostekotan*, behar zara ezkondu Ruth, zure ahaide zenaren alhargunarekin, haren izena gal ez dadintzat ondoriotan (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia*, 248).
- c. *Bakerik izatekotan*, gizarteko mallak alkarganantz urragotu egin bear dira, goikoak pizka bat jatsiaz eta bekoak beste pizka bat igonaz (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 188).
- d. *Urian abegi ona izatekotan*, janzkera hori aldatu, mutiko dotore eta finaren antza agertu behar ei eban (Baraiazarra, *Kili-kili*, 6).

(67)-koak ez dira (66)-n eman ditugun helburuzkoen guztiz pareko, eta BA-perpausen bidez ere eman litezke (*sinesmenean iraungo badugu, landa erosiko badugu, bakerik izango badugu, urian abegi ona izango badugu*). Baina perpaus jokatuak aztertu genituenean (67)-koak bezalakoak helburuzkoen artean sailkatu genituen, eta esan genuen sarritan *behar, nahi, nahitaez...* azaltzen zela ondore perpausetan.

Izan ere, baldintzadun perpausak deskribatzerakoan esan dugu, askotan ere mendekoak kausa bat adierazten duela, gertagarritasun-maila jakin batekoa, eta kausa horrek ondorio bat eragiten duela, ondore perpausean jasotzen dena ($p \rightarrow q$). Aldiz, (67)-ko perpausetan, egoera edo gertakari bat aurkezten da hipotesi modura (p), eta egoera edo gertakari hori bete ahal izateko, nahitaezko izango da perpaus nagusian aipatzen dena betetzea (q): nolabait esateko, ‘ p gertatu behar badu, nahitaezko dugu q gertatzea’. Horrela, (67a)-n, aitortutako sinesmenean irauteko ezinbestekoa dugu zehazki zer aitortu genuen ondo gogoratzea; (67b)-n esaten da, landa erosi ahal izateko, pertsona konkretu batekin ezkondu beharko duela; (67c)-n, bakera hurbildu nahi badugu, adierazten zaigu gizarteko berdintasuna dugula nahitaezko pausoetako bat; eta (67d)-n, berriz, hirian harrera ona izateko zer baldintza bete behar den aipatzen da.

Beraz, helburuzkoen barnean horretan bereizten dira (67)-ko adibideak (66) bezalako perpausetatik: (66)-n mendeko perpausean aipatzen den xedea lortzeko burutzen da perpaus nagusian dioena, eta askotan nolabaiteko borondate bat ere agertzen da, baina (67)-n adierazten da xede hori lortzeko nahitaezkoa dela perpaus nagusian aipatzen dena egitea; (66) bezalako helburuzkoetan erlazioa askeagoa da edo ez da horrelakorik iradokitzen.

Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko erlazio horretatik datorkie baldintzazkoen eta helburuzkoen arteko mugan ibiltzea (67)-koei. *-TZEKOTAN* marka daramaten perpausen artean asko gisa honetakoak izaten dira, eta ezin dira *-TUZ GERO* markaren bidez eman:

- (68) a. (...) *guztiak gosez ez iltekotan*, lanak banandu ta bakotxari bere lana egiñazoteko ardurea gizabatzak ala estaduak artu bearko leuke (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 115).
- b. *Gauzak ordenatuki egitekotan*, ordea, kontutan hartu behar ditugu puntu hauek (Xarriton, *Etika*, 45).
- c. *Gure gaurko gizarte aurreratu honi erantzun nahi izatekotan*, aspaldiko ipuin zaharkitu horiek ‘egokitu’ eta itxuraldatu beharra baitzegoen (Igerabide, *Bularretik mintzora*, 10).

- d. Ziberoa beste probintzieri loturik atxikitzekotan, suprefetura Maulen behar dela uste dut (Davant, *Euskal Departamenduaz*, 12).
- e. Mundu berri baten oldarrean, *Eskual-Herri berri baten altxatzekotan*, eskualdun jendeak bere gogo bihotzak behar ditu atxiki zabal eta erne (Erdezainzi, *Gure herria*, 338).

Hauetan guztietan, iradokitzen da *-TZEKOTAN* perpausean adierazten dena betetzeko ezinbestekoa dela perpaus nagusian azaltzen dena gauzatzea.

b. Baldintza urruna, etorkizuneko

Beste batzuetan, horien oso hurbileko adibideak aurkituko ditugu, baina agian nahitaezkotasunari hainbesteko indarririk eman gabe: badirudi hipotesia edo baldintza urrunduz bezala egiten dela etorkizunean jarritz, eta modalizazio-kutsu bat ere eransten zaiola, *X gauzatu/gertatu behar bada...* edo *-tzeke asmo/behar/nahi/baldintza* edo horrelako zerbaitek adierazi nahian bezala, eta berriro ere ezin dira *-TUZ GERO* formaren bidez eman:

- (69) a. *Bardeak armadaren menpe gelditzekotan*, onena beraiengandik dirua lortzea dugu.
- b. Benetan egoan ondo, ta *neskame izatekotan*, ezeukean egundo etxe atatik beste batera urtengo (Aguirre, *Kresala*, 117).
- c. *Aien itzak siñistekotan*, eguneko argi ezitia bera zan naikoa gizona zoratzeko ta zorionez mozkortzeko (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 118).
- d. Iñaki Barriolak hitzaurre ederrean dioen bezala, *Euskal-teatroaren kondaira idaztekotan*, ezin aurki zitekean noski Labayen baiño egokiagorik (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 148).
- e. *Goiko bi eskakizun horietariko bakar bati lehentasuna ematekotan* bigarrena gorai patu beharra ere aski zehatz azaltzen digu txostengileak (Zalbide, *Administrazioko hizkera*, 209).

(69a) adibidean, Bardeak alde guztietara armadaren menpe gelditzekoak badira, jokabiderik zuhurrena zein izango litzatekeen azaltzen zaigu; (69b)

adibidean, aurrera neskame izaten jarraitu behar bazuen, etxe hartatik ez zela irtengo; edo (69c)-n, haien hitzak sinistekoak baziren, gizakiontzat zer ondorio zekartzan.

c. Etorkizuneko zirkunstantzia

Etorkizuneko baldintzaren nozio horren ingurukoak izango genituzke ondorengo adibideak ere:

- (70) a. Urrunera ez joatekotan, segi jolasera!
b. Inori ez esatekotan kontatuko dizut.
c. Futbolera joango naiz, gero kafea elkarrekin hartzekotan.
d. Emango dizut, bihar itzultzekotan.

Erabilera honetan, ekintza nagusia burutzeko baldintza bat jartzen da, ge-roan bete behar dena; baina baldintzaren eta perpaus nagusiaren arteko lotura logikorik ez dago, lotura ez da bi perpausen esanahiaren bidez egiten, baizik eta hiztuna bera da baldintza hori ezartzen duena. Are gehiago, baldintzazkoan ez da kausa adierazten, baizik eta zirkunstantzia murriztaile bat: zirkunstantzia hori betetzen bada, edo betetzearen baldintzapean, orduan perpaus nagusian adierazitakoa beteko da. Eta ordenari dagokionez ere, sarritan baldintzazkoa perpaus nagusiaren ondoren joaten da, askotan pausa nabarmenarekin (*baina* juntagailua ere jar liteke tartean, adibidez, (70d)-n), mintzagai-izaera garbirik gabe, hiztunaren eranskin modura edo. Hona tradizioetik bildutako adibide batzuk:

- (71) a. Emanen diat, bainan *zuek ixilik egotekotan*, elizan bezala (Larzabal, *Senperen gertatua*, 106).
b. Gathibuak ihardetsi zion, eginen zuela hark galdetzen zuena, *ez galtzekotan bere bizia, eta ez izatekotan largatua bere nausiaren eskutarat* (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia*, 292).

- c. Izan ere egun batez, aparte hartuta, hilabete bakoitzaren lehen egunean lau peniketako zilarrezko txanpon bat emango zidala agindu zidan, baldin eta egoten banintzen “talaian mariñel hankamotz bat noiz ikusiko”, eta *azaltzen zenarekin batera jakitera ematekotan* (Garikano, *Altxor uhartea*, 21).

d. Errepikapena, korrelazio lexikoa

Beste batzuetan, ohartzen gara aditzaren nolabaiteko errepikapen edo korrelazio lexikoa dagoela perpaus nagusian eta mendekoan: baldintza nagusi bat aurkezten da mendeko *-TZEKOTAN* perpausean ondore perpauseko galdegaia bideratuz *-nolabaiteko kuantifikazioa* ere sarri sumatzen da-, eta baldintza hori betetzen dutenen esparrua edo betetzeko moldea murrizten eta zehazten da perpaus nagusian, ondore perpausean. Edo baita, xehetasunak eransteke edo zuzenketak egiteko erabiltzen dira (72 e-f).

- (72) a. *Inor maitatzekotan*, zu maitatzen zaitut.
- b. Gañera, zuk zerorrek ere *iñori esatekotan*, zure kezkek apaizari agertzea naiago zenduke (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 94).
- c. Zeu zara eskuzabala, *eskuzabalik ixatekotan* (Altuna, *Ipuñak*, 60).
- d. *Maitatzekotan* arraiñak ura lez maitatu edo bapez (Zubikarai, *Itxas-aize*, 75).
- e. jakiñerazten diat, Santxo, oore izan dala zaldun ibiltariena, illabete osoan jateke pasatzea, edo-ta, *jatekotan*, eskuera daukaten artatik jatea (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 121).
- f. AZKATASUNA-ren aurreko zenbaki batean auxe irakurri nuan: “Erderaz idazten dizun euskaldunari ez erantzun edo *erantzutekotan* auxe bakarrik: ez dut ulertzen zure idazkia” (Iketzen, *Euskaldunak euskeraz*, 1).

Horrelakoetan, gertakari burutuei buruz ere ari gaitezke, baina egiaztatu gabeko baldintza bezala agertzen dira:

- (73) Bart Ibañetan elurra egitekotan, ez zuen asko egingo.

e. Hizpidea emateko, proposizioa bideratzeko

–*TZEKOTAN* perpausen artean aurkituko ditugu, halaber, hizpidea emateko-edo erabiltzen direnak ere: horrelakoetan, aipatzen den baldintza ez dago proposizioaren edukiarekin lotuta, baizik eta proposizio hori enuntziatzeko arrazoi bezala ematen zaigu, enuntziatzeari bide ematen dion baldintza da:

- (74) a. Izenak esatekotan, Mitxelenak garrantzi handia izan zuen.
- b. *Egia aitortzekotan*, “Ixaka” hura nor zen ez zekien gutako inork (Txillardegia, *Exkixu*, 212).
- c. *Ekin onetan inor aitatzekotan*, Labaien batek, idazle, argitaltzalle eta laguntzalle lez euskal teatroan txaloa merezi dabela uste dot (*Karmel*, 35).
- d. *Izenak aipatzen hastekotan* asko dira belar hockey taldearen garaipenaren atzean aurki daitezkeenak (*Ikastola aldizkaria*, 16).
- e. *Ikuspegi zehaztuen gogoeta hauen laburbilketa bat egitekotan* esan beharko litzateke (...) bertsozaletasunari buruzko tipologia zehatz baten premia azpimarratzeko balio duela (*Siadeco, Jakin*, 18).

f. *Izatekotan* esapidea

Beste batzuetan, ziurrenera ildo horretan apur bat aurrerago joz, eta *izan* aditzari erantsita, beste elementurik gabe, dagoeneko esapide adberbial modura edo, *izatekotan* perpaus osoa modalizatzeke erabiltzen dela dirudi:

- (75) a. *Izatekotan*, Josunek aipatuko zizkion kontu horiek.
- b. *Izatekotan* errekontotan edo lur eze ta gizenetan etorri liteke beste babesik gabe (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 106).
- c. zigarrua nai al zuen eta / erantzuteke modua: / paperezkorik etzuela nai / *izatekotan* purua (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak*, 261).
- d. *Izatekotan* ere, zibilizazioaren hartzaile eta ez basati hutsak izan garelako seinale da (Villasante, *Euskararen auziaz*, 83).

g. ERE lokailuarekin (–TZEKOTAN ERE)

Baldintzazko perpausak aurkezteko egin dugun sarreran esan dugu *ERE* lokailua eranstea sarritan kontzesiozko balioa lortzen dela. –*TZEKOTAN* atzizkiarekin, ordea, ohikoena baldintzazko adiera da:

- (76) a. Gaiñera, *astekotan ere*, ez ezkonduarekin asi, olakuak ezpaiditek sekula atarramentu onik ekartzen (Etxaide, *Joanak-joan*, 125).
- b. Lehenbiziko horrek badu kide zaharragoa eta hedatuagoa, noski, eta, *erabil-tzekotan ere*, beti bezala hitz batean idaztea aski dugu (Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 105).
- c. Historiolarien eginbidea da, *izatekotan ere*, hori zergatik gertatu zen erabakitzea (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak 2*, 26).
- d. Euskaltzaindian ez da filologo uholderik izango berehalakoan: guttiegi daude, *izatekotan ere* (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak 1*, 121).

Lehenengo adibidean, adierazten da, norbaitekin hasi behar badu, hobe duela ezkonduarekin ez hasi; bigarrenean, hitz bati buruz ari delarik, hitz hori erabili nahi bada, nola idatzi beharko litzatekeen gomendioa egiten da. Baldintza adierazten da, eta ez kontzesioa.

h. –TUZ GERO-ren baliokide

Aipatu dugu orain arte azaldu diren adibideak ezin direla baldintzazko –*TUZ GERO* menderagailuaren bidez adierazi. Baina beste batzuetan, –*TUZ GERO-tik* gertuagoko erabilerak ere badituzte –*TZEKOTAN* perpausok.

- (77) a. Informazio gehiago behar izatekotan, udaletxera deitu.
- b. Dena ondo joatekotan, bostetarako etxean izango gara.
- c. Eta gainera, *inor etortzekotan*, ostatura sartuko litzateke zuzenean, gortara joan beharrean (Gereño, *Gerra ezkutua*, 97).

Lehenean esan liteke *behar izanez gero*, bigarreanean *dena ondo joanez gero*, eta hirugarrenean *inor etorritz gero*... Horrelakoetan askotan behar izan edo nahi izan bezalakoak erabiltzen dira (lehenengo adibidea), eta ez da egoten loturarik denbora deiktikoarekin, proiektiboak dira; kausalitate loturarik ere ez da izaten. Eta orokorrean, *-TZEKOTAN* erabiltzen denean, badirudi hipotesia urrundu-edo egin nahi izaten dela: ‘informazio gehiago behar izatea gertatuko balitz’, ‘inor etortzea gertatuko balitz’...

3.6. *-TZEKOTZ*

-TZEKOTAN nagusiki Hegoaldeko tradizioan erabili izan da, eta Iparraldeko tradizioan horren parekoa *-TZEKOTZ* forma da (inoiz *-TZEKOZ*). Horrelako baldintzazko adibide ugari aurkituko ditugu (helburuzko balioan ere erabiltzen da forma hau: ik. Helburuzko perpausak 2.2.5.6.):

- (78) a. *Gehiago ez saiatzekotz*, onena ikasketak uztea.
- b. *Orai artean bezala elgarrekin bizitzekotz*, arropa hori beharko duzue utzi eta oinetakoak hartu (Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 85).
- c. Elgarrekin hitz-hartu dute, *nehork ateratzekotz Panamako ohoin zilo hartarik* Ferryk dituela aterako (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 65).
- d. Jateko zerbait den tokian atxemanen dugu, *atxemaitekotz* (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 62).
- e. *Nitan konfientzia gehiago ez izaitekotz*, aski huen bertzetarat joaitea, edo paperak ihaurek moldatzea (Larzabal, *Iru ziren*, 38).
- f. *Aldaketarik egitekotz*, zuri jakinaraziko dizut lehenik.

Lehenean mendeko perpausa aditz jokatuarekin ematen hasita, *gehiago saiatu behar ez baduzu*... edo horrelako baldintzazkoren baten bidez emango genuke; bigarreanean, *elkarrekin bizitzen jarraitzekoak badira*... edo antzekoren bat izango genuke. Eta berdintsu gainerakoetan ere.

Erabilerari dagokionez, *-TZEKOTAN* formaren gainean esandako gehienek balio dute honako ere. Baldintzazkoen artean, etorkizunari begira dauden baldintzak adierazten dira gehienetan, baldintza urrunduz bezala, modalizazio-kutsu bat adieraziz.

- (79) a. *Orain arte bezala jarraitzekotz*, nik taldea utziko dut.
- b. Giristino baten bizi-erria gurutze-ko bizi-erria bat izan behar da; gurutzea ez maithatzekotz, orobat da fedeari ukho egitea (Duhalde, *Meditacioneac*, 232).
- c. *Gero ikasiak oro ahanztekotz*, ez naiz askorik saiatuko.
- d. *Berrito bekatu egitekotz*, hobe duzu elizara aitortzara ez joan.
- e. Erran dugu *lege hori ez begiratzekotz*, behar litakela kendu (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 42).

Orain arte bezala jarraitu behar badugu / jarraitzekoak bagara / jarraitzeko asmoa badugu adierazi nahi da (78a) adibidearekin; (78b)-n, gurutzea maitatzeko asmorik ez badago, edo behintzat maitatuko ez badute, berdin diola fedeari uko egitea; guztietan ere, mendeko perpauseko baldintza etorkizunetan jartzen da, edo *asmoa/nahia/beharra/kasua* edo antzekoren bat ulertu behar da.

Hauen alloan, aditzaren nolabaiteko errepikapena edo korrelazioa lexikoa duten adibideak ere asko dira:

- (80) a. *Juduek nehon irabazteko*, han behar zuten irabazi (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 90).
- b. *Sekulan erraiteko*, gaur behar dugu erran gure amaxori ikasi lehenagoko othoitz pollita (Barbier, *Supazter chokoan*, 121).

(80a) adibidean *irabazi* aditza mendeko perpausean eta perpaus nagusian errepikatzen da, eta mendeko perpausean aurkeztutako baldintza orokorra betetzeko esparrua, ondore perpausean zehazten da. Berdin (80b) adibidean ere: *sekulan* esan behar badugu, *gaur* (galdegaia) esango diogu.

–*TZEKOTAN* formarekin gertatzen zen bezala, *izan* aditzari lotuta, beste elementurik gabe, *izatekotz* perpaus osoa modalizatzeko erabil daiteke:

- (81) a. Gogorapen horrek ere ez zuen artegatzen; *izatekotz*, bera-gisako atsegina bat zemakion (Mirande, *Haur besoetakoa*, 60).
- b. Bainan hau duzu guziz miressgarria: Eskualduner beren jaidura hoberenak ez baitzaiezten den gutienik ahuldu; azkartu ba, *izatekotz* (Etchepare, *Beribilez*, 100).

ERE lokailua eranstea baldintzazko adiera aurkitzen dugu. Hona –*TZEKOTZ ERE* moldearen erakusgarri batzuk:

- (81) a. Eskual-herri betean, asko etxetarik haizatu eskuara; utzia, edo utzixea, kasik ohartu gabe, edo bederen axolarik gabe; *atxikitzekotz ere*, sehientzat; bainan jaun-alabak burrasoekin, gazte lagunekin eskuaraz ele, beaizue (Hiriart-Urruty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 216).
- b. Eta itsuak inkontru ioitea, eta iragaitean aurizkitzea, ezta miretsteko, etzara hargatik haserretu behar; eta *haserretzekotz ere* zeure buruaren kontra haserretu behar zara, eta ez itsuaren kontra, eta ez koleran dagoenaren ere (Axular, *Guero*, 206).

Ikusten dugu, bada, –*TZEKOTZ* eta –*TZEKOTAN* erabileraren aldetik oso parekoak direla. Lafittek, ordea, desberdintasun bat aipatzen du: –*TZEKOTZ* formarekin ez dela etorkizuneko zirkunstantzia izena eman diogun adibiderik agertzen, Iparraldeko autoreek ere –*TZEKOTAN* erabiltzen dutela adiera horretarako.

Bertzek pagatzekotan hartuko dut (Lafitte, *Grammaire Basque*, 457).

3.7. –*TZEZ GERO*

Tradizioan era honetako adibide gutxi agertzen dira; gehienak Gipuzkoako XX. mendeko testuetan aurkituko ditugu. Adierari dagokionez, aditz-izenaren

gainean eraikiak izanik, *-TZEKOTAN/-TZEKOTZ* menderagailua dutenen pareko erabilera dute.

- (83) a. Hain ondasun gutxirekin zoriontsu *izatez gero*, ez duzu lanera joan beharrik.
b. Garbi zegoen, inork *lortzez gero*, Mirenek lortuko zuela.
c. Bihar goizean mendira *joatez gero*, gaur garaiz oheratu beharko dugu.

Formari dagokionez, *-TZE EZKERO* eta *-TZE EZKEROZ* dira ugarienak (inoiz *-TZE EZKEROTAN*, *-TZERA EZKERO* ere agertzen dira).

- (84) a. *Izen jatorragoak nai izate ezker*o, aor bat: Eneko, Iñigo'ren ordezt (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 42).
b. *Zinera joate ezker*o goiz afaldu bihakou (Elexpuru, *Bergara aldeko lexikoa*).
c. (...) *munduan iñor ardaugaz zorioneko izate ezker*o i izango az (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 31).
d. *Ori orrela izate ezker*oz, eziñ moldatuko degu uste beziñ erraz ezkontza (Mocoroa, *Damuba garaiz*, 32).
e. Gainera, *inoiz saiatze ezker*otan, orain zen garaia, Espainiako monarkia Napoleonen aurrean makurtuta zegoela (Ugalde, *Batasun eta zatiketen artean*, 173).
f. *Bertsoak jartzera ezker*o, asi egin bear (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 21).

3.8. *-TZERA(T)*

Aditz-izenari adlatiboko marka erantsiz ohikoa perpaus osagarriak eratzea da, baina baldintzazko balioa duten perpausak ere osa daitezke; baldintzazko adiera duenean [(b) adibidea], normalean tartean pausa nabarmena egin ohi da:

- (85) a. Zumalakarregik Lizarrara bidali zintuen *egia jakitera*.
b. Zumalakarregik Lizarrara bidaliko zintuen, *egia jakitera*.

Lehenean letra etzanez dagoena perpaus osagarria da; bigarreanean, aldiz, baldintzazko balioa du (*egia jakin izan balu*). Mendebaldean –TZERA erabili ohi da, eta Ekialdean –TZERAT.

Nolanahi ere, baldintzazkoak sortzeko bide hau ez da maiztasun handiz erabiltzen, eta badirudi egoera-aditz batzuekin azaltzen dela bereziki (*izan, jakin, egon...*).

- (86) a. *Hori jakitera, ez nintzen etxetik irtengo.*
b. *Diru gehiago izatera, Australiara joango nintzateke.*
c. *Jakitera, ez nuen erranen (Lafitte, Grammaire Basque, 457).*
d. *Egia esatera, santuen artean, bear bada asko izango eztira Luisen gisakoak (Cardaberaz, Justuen Ispillu arguia, 12).*
e. *Saul, bera nor izaterat, errege handi eta dohatsu bat behar zen (Larreguy, Testamen çaharr. berr. historia, 296).*

Aditz jokatuarekin ematen hasita, (86a) adibidean *hori jakin izan banu* erabiliko genuke, eta (86b)-n *diru gehiago banu*; antzera gainerakoetan ere; ikusten dugu, bada, –TZERA(T) marka duten mendeko perpaus hauek baldintzazko balioa dutela. Hona tradizioko adibide batzuk:

- (87) a. *Juduak etziakien, Jesus zala munduaren salbatzallea, eta Jaungoiko egiazkoa, eta jakin izatera, etzuen egin zuena egingo (Aguirre Asteasukoa, Eracusaldiac, 425).*
b. *Ez hek, ez mundu guzia etzakiozken nausi, berak ez nahi izaterat (Duhalde, Meditacioneac, 240).*
c. *Leze onetan galdu beharrak giñan gu argi-gillerik ez izatera; bada argirik bage an bertan ta geren bekatuan ill ta usteldu ta galduko giñan (Mendiburu, Mendibururen idazlan argitaragabeak, 268).*
d. *Nik aren lekuan egotera, ziran guziak erre eta kiskaliko nituen (Arrue, Santa Genoveva, 83).*

- e. Jauna, *zu hemen izaterat*, ene anaia etzen hillen (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia*, 203).
- f. *Jakiterat* ez nuen segur onartuko (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 82).

(87a) adibidean, jakin izan balute, juduek egin zutena ez zutela egingo adierazten da; (87b) adibidean, berak nahi izan ez balu, inor ez zitzaiola nagusituko. Mota honetako adibideak dira gehienak: aspektu burutuaren balioarekin, iraganera begira jarririk, egiatan gertatu ez zen baldintza bat ematen da –TZERA(T) duen perpausaren bidez. Ildo horretan, (87a) adibidean ikusten dugu, burututasun hori nabarmentzeko edo, autoreak jakin aditzaren ondoren izan eranstea aukera erabili duela (jakin+(izan)+tera).

Dena den, etorkizunera begira dauden adibideak ere aurkitzen dira:

- (88) a. (...) *ala nai izatera* sartuko lizake lurraren erraietan, eta an ezkutaturik dauden urre, zillar, eta arri ederrak ekusi ondoan irtengo lizake erraz, eta nai bezala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusalodiac*, 583).
- b. Atzenez galdetu zion: zer egingo zenduke *amar baizik ez izatera* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 19).
- c. Nola iraun lezake, Jauna, ezerk-ere *zuk nai ez izatera* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusalodiac*, 313).

3.9. –TUENEAN

Partizipio burutuari –eNEAN erantsiz baldintzazko balioa duten perpausak lor daitezke mendebaldeko hizkera batzuetan. Nolanahi ere, hedadura eta tradizio murriztekoa da eta testu idatzietan oso lekukotasun gutxi aurkitzen dira. Gaur egun nagusiki *izan* aditzarekin agertzen da, *izatekotan* esapidearen balioarekin.

- (89) a. *Iñor izanenean*, arrantzaleak izango ziran arratsaldeko indar-neurketa entzute-tsuan ikuslerik arduratsuenak eta epailaririk ikasienak (Agirre, *Uztaro*, 224).

- b. *Izanenean*, azari zaarra, illea erortzen asia, anka motela ta, eizerako gauza ez dana (Labayen, *Euskal-Eguna*, 72).

Beste batzuetan, baldintza indartzeko *ERE* lokailua erantsi ohi da:

- (90) a. Etxera inor etorrienean ere, eros ezazu gazta eta ardoa!
b. Elurra eginenean ere, har itzazu kateak!

Etxera inor etortzen bada / elurra egiten badu, badaezpada ere... adiera hartzen du horrelakoetan.

3.10. ZER + ADITZOINA + ERE (ZER(NAHI) GERTA (ERE), ZER HEL ERE

Orain arte ikusi ditugun moldeak aditz–partizipioaren eta aditz-izenaren gainean eraikitzen ziren. Oraingo egitura honek, berriz, aditzoina du oinarri, eta euskaraz halako aditz mota duten egitura bakanetakoa dugu, gainera.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (91) a. Gain hartan *zer gertha ere*, alfotxetan ezartzen ditut ez dakit zenbat urthe hetan egin ziren Gure Herriaren ager-aldi guziak, eta anda izarreri buruz (Barbier, *Supazter chokoan*, 13).
b. *Zer hel ere*, hirugarren athorra hura han du, harmairuan, xarparen sahetsean (Barbier, *Supazter chokoan*, 40).
c. Huts edo kausi, *zer nahi gertha*, Ellandek errana egin zuten beraz hiru egunez, eta hirugarren eguneko, Erregeren alaba sendatua zen, sendatua osoki (Barbier, *Légendes*, 124).
d. Sinhetsirik orduan Jainkoak zagokala bereturik, bakean utzi zuten, *zer gertha ere* hatik begia haren gainean atxikiz (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 47).

- e. Ahalaz begien azpian iduki behar da *zer gertha ere*, eta izipera delakotz (Duvoisin, *Dialogues basques*, 71).
- f. *Zer gertha ere* daie idiek agiñtzen sekretua, Zoko illhun batean laster goibel-tzen da billdua: hatsa aise hartzen du eta badago trankilldua (Goyhetché, *Fableac*, 89).

Esapide egina dela esan behar, adibideetatik ondoriozta daitekeen bezala: erabilera murriztekoa dugu, horko gertakizun-aditzetatik aparte nekez aurki-tuko baitugu bestelako aditzekin. Alderdi batetik, orobatasuna adierazten du, eta bestetik, badaezpadakotasun-balioa ere badu. Alegia, ondorengoan

(92) *Zer gerta ere*, adi egongo gara.

‘edozer gertatzen bada ere, badaezpada adi egongo gara’, adierazi nahi da.

Lafittek dio *ERE* hori sarritan eransten dela; beraz, badirudi ez dela beha-rrezkoa (*zer gertha* forma ematen du bere gramatikan, adibidez).

LABURPENA

0. SARRERA

Baldintza-perpauzak aditz jokatuarekin ematen direnean, aditz laguntzailearen aurretik *BA*- aditz-aurrizki menderatzailea jarri ohi da gehienetan.

- (1) Gehiegi jaten baduzu, gizendu egingo zara.

Baina aditz jokatugabeekin ere egin daitezke baldintza perpauzak:

- (2) a. Gehiegi janez gero, gizendu egingo zara.
b. Txapelketa irabaziz gero, herri osoa poztuko da.
c. Etxeko lanak egin ezik, eskolan ez da emaitza onik lortzen.
d. Lana gaur amaitu ezean, bihar jarraitu beharko dugu.
e. Araudia aldatzekotan/aldatzekotz, guztion adostasuna behar da.

1. EZAUGARRIAK

Perpau-mota honen ezaugarriei dagokionez, kausa-ondorio erlazioa da lehenik aipatu beharrekoa: baldintza- perpausetan, mendeko perpauzak (baldin-

tzazko perpausa) perpaus nagusiko (ondore perpausa) egoera eragiten du, kausa-ondorio erlazio bat adieraziz:

- (3) Berandu iritsiz gero, ez duzu sarrerarik izango.

Berandu iristek eragiten du sarrerarik ez izatea. Eta neurri batean, gauza bera gertatzen da kausazkoetan ere:

- (4) Ez duzu sarrerarik izango, berandu iritsi baitzara.

Baina bada bien artean desberdintasunik: baldintzazkoetan adierazten da esan duena (berandu iristea) egia izan daitekeela, hala dela segurtasunik azaldu gabe, hipotesi moduan; kausazkoetan, ordea, ez da dudarik agertzen.

Beraz, kausa-ondorio erlazioa hipotesi modura azaltzen zaigu baldintza-perpausetan, eta baldintzazko perpausak adierazten duten hipotesi horrek gertakortasun maila handiagoa edo txikiagoa izan dezake. Aditz jokatua duten baldintza-perpausetan, esaleak hipotesiei ematen dien gertakortasun-mailaren arabera, aditz laguntzailearen tempusa desberdina izan ohi da (+/- alegialdia). Aditz jokatugabea duten baldintzazko perpausetan ezin da horrelakorik adierazi, baina ondore perpausoko aditzari begiratuz, nabarmen ikusten da esaleak gertakortasun maila desberdinak izan ditzakeela buruan:

- (5) a. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango naiz.
b. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango nintzateke.
c. Biarritzera joanez gero, hondartzara joango nintzen.

Lehena bezalakoei baldintza erreala deitu izan zaie, eta hiztunak hipotesia gertakortzat duela adierazi nahi da; beste biei baldintza irreala deitu izan zaie, hipotesia gertagaitz jotzen delako (5b), edo egiazki ez direla gertatu adierazi nahi delako (5c).

Nolanahi ere, baldintza perpausen bidez bestelako erlazioak ere agertzen dira. Batzuetan salbuespena azal dezakete, edo perpaus nagusia enuntziatzeko bidea edo arrazoia eman baldintzazko perpausaren bidez:

- (6) a. Igandeetan izan ezik, ardorik gabe bazkaltzen dut nik.
- b. Nekatuta ibiliz gero, denboraz lasai gabiltza.
- c. Benetan aztertuz gero, non aurkitu zentzua bizitzari?

(6a) adibidean salbuespena adierazi nahi da. (6b) adibidean baldintzazkoaren eta ondore perpausaren arteko lotura hiztunek eraiki behar dute, berez ez baitago kausa-ondorio erlaziorik: hiztunak benetan esan nahi duena da denboraz lasai dabiltzala, eta hori esateari nolabaiteko zentzua ematen dio baldintzazko perpausak. Antzera gertatzen da (6c)-n ere: galdera bideratzeko ematen da baldintzazkoa. Pragmatikaren eta solasaren jokoak dira, inferentziekin lotuak askotan.

Baldintzazkoen ezaugarri nagusiak aipatu ditugularik, baldintza perpaus jokatu gabeak egiteko molde nagusiak ikusiko ditugu jarraian.

2. *-TUZ GERO*

Baldintzazko eta denborazko perpausetan erabili ohi da, eta batzuetan bi balioak bereiztea ez da erraza gertatzen. Iparraldean gehienetan denborazko balioa du; Hegoaldean XIX. mendean hasi ziren baldintzazko adierarekin erabiltzen, eta XIX. mendean denborazko adiera baino ugariagoa da.

- (7) a. Barazkiak sarriago janez gero, osasuntsuago ibiliko zinateke.
- b. Autoak debekatuz gero, airearen kutsadura gutxituko litzateke.
- c. Ezinean gertatuz gero, laguntza eskatuko dizut.

Nabarmendu behar da, gainera, erabilera guztiz nagusia baiezko perpausekin duela, euskalki eta garai guztietan, eta euskarak aditz jokatugabearekin ezezko perpausetan baldintza adierazteko beste molde batzuetara (*-TU EZIK*, *-TU EZEAN...*) jo ohi duela.

-TUZ GERO perpausen bidez baldintza errealahiz irrealahiz adieraz daitezke. Baldintza errealaren balioa duenean, maizenik oraindik hasi gabeak diren egoerak, gertakariak edo gertakari-segidak aipatu ohi dira (8a), eta baita ekintza errepikatuak (8b) eta balio generikoa edo gnomikoa izanik denbora kokapen zehatzik ez dutenak ere (8c):

- (8) a. Iaz adina saiatuz gero, aurten ere lortuko duzu helburua.
- b. Egunero otoitz eginez gero, arimako bakea lortzen da.
- c. Euria eginez gero, kaleak busti egiten dira.

Aipatu behar da, badihala *-TUZ GERO* erabiltzen denean debekaturik ditugun aspektu-balioak ere: *-TUZ GERO* perpausak ezin dute ekintza/egoera buruturik adierazi, eta ezta unean bertan jazotzen ari denik ere. (9)-n *-TUZ GERO* daraman perpausaren bidez ezin da parentesi artekoa adierazi, interpretazioa ezin daiteke burutua izan:

- (9) Elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango (#Elurra egin badu...)

Era berean, solas unean hasiak diren egoera eta gertakariak ere ezin dira *-TUZ GERO* perpausen bidez adierazi:

- (10) Egun gure kaleetan etorkin asko ikusten baditugu, gerora ez ditugu gutxiago izango (#...ikusiz gero...)

Baldintza irrealaren esparruan, *-TUZ GERO* erabil daitezke baldintzazko perpausaren esaten denak gertatzeko aukera handirik ez duela adierazteko (11a), edo, iraganeko baldintzaren balioarekin, baldintza hori ez dela gauzatu aditzera emateko (11b):

- (11) a. Berandu iritsiz gero, ez lidakete sartzen utziko.
b. Berandu iritsiz gero, ez zidaten sartzen utziko.

Aspektu-balioei dagokionez, gehienetan solas unean hastekoak diren egoerak edo gertakariak adierazten dira (12a), baina hasiak izanik burutuak ez diren egoerak ere azaltzen dira (12b), eta baita gertakari-segidak ere (12c):

- (12) a. Bihar nire etxera etorritz gero, elkarrekin afaldu ahal izango genuke.
b. Nire banketxeko kontuan diru gehiago izanez gero, oraintxe emango nizuke apur bat.
c. Igandeetan lan eginez gero, ez zenuke diru arazorik izango.

Eta baldintza errealetan ez bezala, ez dago aspektu-balio burutua adierazteko eragozpenik:

- (13) Gazterik hasiz gero, nik ere ikasiko nuen lanbide hori.

3. *-TU EZIK*

Partizipioari *EZIK* erantsita ezezko mendeko perpausak osatzen dira Mendebaldeko hizkeretan, gehienetan baldintzazko balioarekin. Baldintza erreala (14) nahiz baldintza irrealak (15) adieraz dezakete, eta aspektu-balioei eta debekuei dagokionez, *-TUZ GERO* duten egituren gainean esandakoak balio du honako ere.

- (14) a. Gehiago saiatu ezik, ez duzu helburua lortuko.
b. Euria egin ezik, uztak galdu egiten dira.
- (15) a. Ondo prestatu ezik, ez nuen etsamina gaintutiko.
b. Nagusiaren aginduak bete ezik, lana galduko zenukete.

Bestalde, salbuespena adierazteko ere erabili izan da, gehienetan **IZAN** aditza aurretik duela, eta aurretik sintagma bakar bat duela. Horrelakoetan askotan perpaus nagusia ezezkoa izaten da, edo nolabaiteko kuantifikazioa adierazten duen elementuren bat izaten du:

- (16) a. Ez dut egunkaria irakurtzen, igandeetan izan ezik.
- b. Inor ez da konturatu, zu izan ezik.

4. -TU EZEAN

Partizipioari *EZEAN* erantsita ere ezezko baldintzazko perpausak osatzen dira, bereziki Gipuzkoan eta orokorrean Mendebaldean, baina egitura honek aurrekoak baino tradizio murriztagoa du. Baldintza erreala nahiz baldintza irrealak adieraz ditzake, eta aspektu-balioei dagokionez, aurreko bi ataletan esandakoak balio du honako ere.

- (17) a. Garaiz joan ezean, ez duzu partidarako sarrerarik lortuko.
- b. Guztiok elkartu ezean, hondamena etorriko zaigu.
- (18) a. Guk egin ezean, ez zuen beste inork egingo.
- b. Lanera joan ezean, ez zenuke behar adina diru izango.

Salbuespena adierazteko ere erabili izan da, gehienetan **IZAN** aditza aurretik duela, baina *-TU EZIK* baino gutxiagotan agertzen da:

- (19) Zinemara izan ezean, ez da etxetik irteten.

5. -TZEKOTAN/-TZEKOTZ

-TZEKOTAN nagusiki Hegoaldeko tradizioan erabili izan da, eta Iparraldeko tradizioan horren parekoa *-TZEKOTZ* forma da. Helburuzko balioa

adierazteko erabiltzen dira gehienetan, baina baldintza ere adieraz dezakete. Baldintzazkoak direnean, etorkizunari begira dauden baldintzak adierazten dituzte maizenik, baldintza urrunduz bezala, modalizazio-kutsu bat adieraziz.

- (20) a. Hondartzara joatekotan, garaiz abiatzea onena.
b. Inori laguntzekotz, zuri lagunduko dizut.

Eta horrez gain, *-TZEKOTAN* daraman perpausean aipatzen dena, ez da ondore perpausa baino lehenago gertatzen, edo gutxienez ez da ondore perpausa zuzenean eragiten duen kausa izaten. (21) adibidean, adierazi nahi da, partida irabazteak lehenengo postua ekarriko duela; baina hori ezin da *-TZEKOTAN* duen perpausaren bidez adierazi (21a); *-TUZ GERO* duena eman behar da hori aditz jokatugabearekin eman ahal izateko (21b):

- (21) a. *Bihar partida irabaztekotan, lehenak jarriko gara/ginateke.
b. Bihar partida irabaziz gero, lehenak jarriko gara/ginateke.

Hori horrela izanik, *-TUZ GERO*; *-TU EZIK*; *-TU EZEAN* duten perpausak gutxitan izaten dira *-TZEKOTAN* edo *-TZEKOTZ* daramatenen baliokide.

5.1. BALIOAK

Aurreko egiturak ez bezala, aditz-izenaren gainean eraikitzen da, eta oro har ondorengo erabileretan azaltzen da:

- Helburuzkoen muga: batzuetan helburuzkoen esparrutik oso hurbil daude.

- (22) Ikasturtean gainditzekotan, gehiago saiatu beharko duzu.

Egoera edo gertakari bat aurkezten da hipotesi modura mendeko perpausaren bidez, eta hipotesi hori bete ahal izateko, nahitaezko izango da perpaus

nagusian aipatzen dena betetzea. Ondore perpausean sarritan *nahi, behar, nahitaez...* bezalakoak azalduko zaizkigu.

- Baldintza urruna, etorkizuneko: hipotesia edo baldintza urrundu bezala egiten da, etorkizunean jarritz, eta modalizazio kutsu bat eranstean zaio.

(23) Herri honetan jarraitzekotan, mendi-elkartean emango dut izena.

Adierazi nahi da, herri honetan geratzeko asmoa badugu, edo horrela gertatu behar bada, elkarte horretan emango duela izena.

- Etorkizuneko zirkunstantzia: ekintza nagusia burutzeko baldintza bat jartzen da, geroan bete behar dena; baina bien arteko lotura hiztunak jartzen du: baldintzazkoan ez da kausa adierazten, baizik eta zirkunstantzia murriztaile bat:

(24) Emango dizut, bihar itzultzekotan.

- Errepikapena, korrelazio lexikoa: aditzaren nolabaiteko errepikapen edo korrelazio lexikoa dago perpaus nagusian eta mendekoan; mendeko perpausean baldintza orokorra betetzeko esparrua azaltzen da, eta ondore perpausean esparru hori zehazten da, askotan galdegaiaren bidez:

(25) a. Inor maitatzekotan, zu maitatzen zaitut.

b. Juduek nehon irabazteko, han behar zuten irabazi.

- Hizpidea emateko, proposizioa bideratzeko: ondoren datorren proposizioa bideratzeko ere erabiltzen dira. Aipatzen den baldintza ez dago ondorengo proposizioarekin lotuta, baizik eta proposizio hori enuntziatzeko arrazoi bezala ematen zaigu, enuntziatzeari bide ematen dion baldintza da:

(26) Izenak esatekotan, Mitxelenak garrantzi handia izan zuen.

6. *-TZEZ GERO*

-TZEKOTAN/-TZEKOTZ atalekoek bezalako erabilera dute. Adibide gutxi aurkitzen dira, gehienak Gipuzkoako XX. mendeko testuetan:

- (27) Garbi zegoen, inork lortzez gero, Mirenek lortuko zuela.

7. *-TZERA(T)*

Egitura hau baldintzazko adierarekin ez da maiztasun handiz erabiltzen, eta badirudi egoera-aditz batzuekin (*izan, jakin, egon...*) azaltzen dela bereziki:

- (28) a. Jakiterat ez nuen segur onartuko.
b. Diru gehiago izatera, Australiara joango nintzateke.

Adibide gehienak iraganera begira daude, aspektu burutuaren balioarekin, eta egiatan gertatu ez zen baldintza bat ematen dute (28a), baina etorkizunera begira dauden adibideak ere aurkitzen dira (28b).

4. KONTZESIO PERPAUSAK

4.0. SARRERA

EGLU VI liburukian (ik. 215.-285. or.), aditz jokatuekin osatzen diren kontzesio-perpauak aztertu ditugu. Kapitulu haren osagarria da honako hau, eta han aztertu gabe utzitako perpau-motak izango ditugu hizpide oraingoan: aditz jokatuak dutenak, hain zuzen.

Ekar ditzagun hona *EGLU VI*-ko kapitulu haren hasieran emandako adibideak, orrialdeotan zertaz ariko garen argiago ikus dezan irakurleak:

- (1) a. *Nahiz bizkarreko mina duen*, kirola egitera joan da.
- b. *Nahiz eta gaixorik egon*, lanera joan da.
- c. *Argentinara joan da* oporretara, *dirurik ez duen arren*.
- d. *Txiroak izan arren*, zorientsu bizi dira gure lagunak.
- e. *Mila aldiz gauza bera errepikatuagatik*, berdin jarraitzen du Anek.
- f. *Betebehar asko baditu ere*, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat.
- g. *Negu gorria izanik ere*, alkandora hutsean dabil Iñaki.
- h. *Loteria egokituz gero ere*, ez litzateke zorientsu izango.
- i. *Hotz handia egiten du*, *eguzkia dago baina*.
- j. *Gaztea delarik*, arazo fisiko handiak ditu.

- k. *Nahi ez nuelarik ere*, lan horretan hasi nintzen.
- l. *Bihotz onekoa zela ere*, haserrekorra zen gure gaztetako irakaslea.
- m. *Zuek, hain azkarrak zaretela*, nire laguntza behar duzue edozertarako.
- n. *Datorrena datorrela*, nire etxeko atea irekiak izango ditu.
- o. *Zernahi gerta dadin gure artean*, lagunak izaten jarraituko dugu.
- p. *Edozein ikasketa egin dezan*, kostako zaio lana aurkitzea.
- q. *Zein ere luze eta handi zaren*, ez nauzu kikilduko.
- r. *Zernahi gertatzen dela*, zu ez mugitu nire ondotik.

Perpau horietan, letra etzanez markatu ditugu mendeko perpauak, kontzesiozko perpauak. Mendeko perpau horien aditzen formari begiratzen badiogu, konturatuko gara batzuek aditz jokatua dutela (a, c, f, i, j, k, l, m, n, o, p, q eta r adibideek) eta beste batzuek jokatu gabea (b, d, e, g eta h adibideek). Azken hauek dira, esan bezala, kapitulu honetan aztertuko ditugunak: goian jaso ditugun horiek (*NAHIZ –TU, –TU ARREN, –TUAGATIK (ERE), –TURIK ERE, –TUZ GERO ERE*) eta beste egitura batzuk aztertuko ditugu: *–TUTA ERE*, banakaritzazkoak, eta abar.

Hona adibide pare bat gehiago:

- s. Hamaika aldiz *esanda ere*, umek ez didate kasurik egiten.
- t. Goizean joan, arratsaldean joan, lanean aurkituko duzu.

Egia esan, hanka-motz geratzen zen kontzesiozkoen analisisia *EGLU VI* liburukian jasotzen ziren kontzesio-perpauarekin (aditz jokatua zutenekin), zeren eta harekin ez baitzegoen jaso euskal hiztunen zati handi baten erabilera: mendebaldean erabili izan diren egitura nagusiak (zenbaitetan ia bakarrak) aditz jokatu gabea dutenak dira: *NAHIZ ETA ...–TU, –TU ARREN, –TUAGATIK, –TUTA ERE...* Jarraipen-kapitulu honekin osatuko dugu, bada, aurreko liburukoa.

Kontzesio-perpaus jokatueta erabiltzen genituen osagai berak dira, funtsean, jokatugetan ere erabiltzen direnak: *NAHIZ* lokailua, *ARREN* eta *-GATIK* postposizioak, *ERE* lokailua duten egitura adberbial batzuk (*-TUTA ERE*, *-TURIK ERE*, *-TUZ GERO ERE...*). Aldea da *EGLU VI*-koetan aditza jokatu egiten dela, eta hemengo hauetan, berriz, ez dela jokutzen (horrek dakarren ezaugarri gramatikalen murriztapenarekin).

Aditz-partizipioa erabiltzen da batez ere molde jokatugetan, baina baita aditzoina ere, hau oso gutxitan erabiltzen bada ere.

Formazko kontu horiek gorabehera, antzeko ezaugarriak dituzte kontzesio-perpaus jokatuak eta jokatugetak: erlazio semantiko berak (inferentzia eta aurkaritza), beste perpaus-mota batzuekiko hurbiltasuna (baldintza-perpausak, perpaus juntatu aurkaritzakoak, eta abar), fenomeno bertuen agerpena (elipsiak...), eta abar; perpaus nagusian duten kokapenari eta mendeko perpausaren barne-hurrenkerari dagokienez ere, ez dago alde nabarmenik.

Hasteko, *EGLU VI* liburukiko ezaugarri nagusi horiek ekarriko ditugu hona, laburki, eta egitura bakoitza aztertuko dugu ondoren.

- **Zertan datza kontzesioa?**

Kontzesioaren definizioa emateko, irizpide logiko-semantikoetan oinarritu gara *EGLU VI* liburukian, eta horri helduko diogu orain ere; gero, behin kontzesioa definitu ondoren, irizpide formalak erabiliko ditugu, eta euskaraz kontzesio-balioa duten egitura jokatugetan sailkapena eta analisisa egingo dugu.

Perpaus hauek definitzean, esan genuen bi erlazio mota ditugula halakoetan:

A. Batetik, alde aurretik gizartean oro har edo hiztunaren mundu-ikuspegiari ontzat emandako inferentzia-erlazio bat dugu, presuposizio bat: p proposiziotik q proposizioa ondorioztatzen dugu edo ondoriozta dezakegu normalean, eta p' -tik, q' . Konparazio baterako, norbait osasunez ondo dagoenean

(*p* proposizioa esango diogu horri) lanera joaten dela edo joan daitekeela ondorioztatzen dugu (*q* proposizioa izango da hori); bestalde, gaixorik dagoenean (*p'* proposizioa) normalean ondorioztatzen dugu ez dela lanera joango (*q'* proposizioa), etxean (ohean) geratuko dela atsedean hartzen. Inferentzia-edo ondorioztatze-erlazio bat da hori:

$$p \rightarrow q \text{ (edo } p' \rightarrow q')$$

B. Bestetik, badugu aurkaritza-erlazio bat ere. Oposizio edo oztopo bat adierazten du mendeko perpausak, perpaus nagusian predikatzen denari jarzzen zaion oztopo bat. Goian ontzat eman dugun erlazioa ($p \rightarrow q$; $p' \rightarrow q'$) trukatzetik sortua da oposizio hori ($p \rightarrow q'$; $p' \rightarrow q$).

Hobeto ulertuko dugu adibide batekin: konparazio baterako, *p* baldin bada, esan bezala, “sasoi betean edo ongi egotea”, eta *p'* baldin bada “gaixorik egotea” alde batetik, eta *q* baldin bada “lan egitea” eta *q'*, berriz, “ohean geratzea edo atsedean hartzea” beste aldetik, gizartean ontzat ematen den erlazioa honako hau da kasu honetan:

p Sasoi betean (ongi) egon \rightarrow *q* lanera joan

p' Gaixorik egon \rightarrow *q'* ohean geratu, atsedean hartu

Bada, aldez aurretik ezarritako inferentzia-erlazio hori trukatzean datza kontzesioa:

p Sasoi betean (ongi) egon \rightarrow *q'* ohean geratu, atsedean hartu

p' Gaixorik egon \rightarrow *q* lanera joan

- (2) Sasoi betean dago, eta (, hala ere,) ohean geratu da.
- (3) Sasoi betean dago, baina ohean geratu da.
- (4) Gaixorik dago, eta (, hala ere,) lanera doa.
- (5) Gaixorik dago, baina lanera doa.

Hala sortzen dira kontzesio-perpausak; mendeko perpausa da perpaus nagusiari oztopoa ezartzen diona (oztopoa gainditu egiten da kontzesiozkoetan) eta menderakuntzaren markak hartuko dituen (*-TU ARREN, NAHIZ ETA ...-TU*, eta abar). Letra etzanez eman dugu mendeko perpausa:

(6) *Gaixorik egon arren*, lanera joan da ($p' \rightarrow q$)

(7) *Nahiz eta sasoi betean egon*, ohean geratu da ($p \rightarrow q'$)

Noranzko batean jarri ditugu geziak orain arte, baina esan behar da berdin-berdin jar genitzakeela alderantzizkoan ere kontzesio-erlazioa lortzeko:

q Lanera joan \rightarrow p' gaixorik egon

q' Ohean geratu, atsedean hartu \rightarrow p sasoi betean egon

• Beste perpaus batzuekiko harremanak

Inplikaziozko erlazio batez gain aurkaritza-erlazio bat ere badela esan dugu mendeko kontzesio-perpausetan; aurkaritza adierazteko, badira menderakuntzaz gain beste egitura batzuk ere euskaraz, kontzesioarekin lotura estua dutenak.

A. Aurkaritzako lokailuak eta aurkaritzako juntadura

Mendeko kontzesio-perpausaren orde, aurkaritza-lokailuak ere erabil daitezke (*hala ere, badarik ere, hargatik, ordea...* Ik. *EGLU III*, 93. or.); bi perpaus beregainen arteko oposiziozko lotura eginez, alegia. Ekar ditzagun hona (1) adibide sortako perpaus mendeko batzuk:

(1b) *Nahiz eta gaixorik egon*, lanera joan da.

(1d) Txiroak *izan arren*, zoriontsu bizi dira gure lagunak.

(1e) Mila aldiz gauza bera *errepikatuagatik*, berdin jarraitzen du Anek.

Honako hau litzateke horiek aurkezteko beste modu bat:

- (1b') Gaixorik dago; *hala ere*, lanera joan da.
- (1d') Txiroak dira; *hala ere*, zoriontsu bizi dira.
- (1e') Mila aldiz errepikatu diot gauza bera; Anek, *ordea*, berdin jarraitzen du.

Erlazio baten berri emateko, jakina den bezala, egitura sintaktiko bat baino gehiago erabil daitezke. Lehenbiziko multzoan (1b-e) menderakuntzaz baliatu gara (*NAHIZ... -TU, -TU ARREN* eta *-TUAGATIK* menderagailuen bitartez txertatu ditugu mendekoak perpaus nagusien barruan); bigarren multzokoetan, berriz, perpaus beregainak erabili ditugu, eta horiek elkarriz lotzeko, alborakuntza (“;”) eta aurkaritza-lokailuak (*hala ere* eta *ordea*) erabili ditugu.

Lokailuen eta menderagailuen arteko erlazio estu hori ikusarazten dute literatura-tradizioko perpaus hauek:

- (8) Mundua, kanpoko mundua, *nai z ta* jakin-miñaren pizgarri *izan*, ezta *ala ere* beste izakiren bat bezin ernagarri ta garrantsitsua guretzat (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 57).
- (9) Mutil indartsua *izan arren* Balendin, etzan, *ordea*, arrantzalea-ta, arrantzuko zeregiñetan oitugabea izanda, angoen iritzirako, etzezakean jakin ezer asko itsasoko goraberatan (Agirre *Uztaro*, 218).
- (10) Beretako geienak baserritar atxurlariak *izan arren*, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 253).
- (11) eta pekatuetan ondaturik, eta uzteko asmo bage *egon arren*, *ala ere* atrebitzen dira Jaungoikoari barkazioa eskatzera (Guerrico, *Sayaquera*, 392).

Kasu hauetan, kontzesio-perpaus mendekoaz gain aurkaritzako lokailuak erabili dira perpaus nagusian; idazleari menderakuntza nahikoa iruditu ez, eta lokailuaren bidez osatu edo indartu nahi izan du, nonbait, bi proposizioen arteko aurkaritza-erlazioa.

Juntaduraren bidez ere adieraz daiteke, era berean, hizpide ditugun adibide horietako aurkaritza-erlazioa: aurkaritzako juntaduraren bidez, hain zuzen ere (*EGLU IV* liburukian aztertzen dugu juntadura mota hau; ik. 183. or.).

- (12) Gaixo egon *arren*, kalera irten da. (MENDERAKUNTZA)
- (13) Gaixo dago, *baina* kalera irten da. (JUNTADURA)
- (14) *Nahiz* xentimorik ez *izan*, ardotarako beti izaten du zerbait. (MENDERAKUNTZA)
- (15) Xentimorik ez du, *baina* ardotarako beti izaten du zerbait. (JUNTADURA)

Hemen aipatu ditugun bi aukerak batera ere erabil litezke, juntagailua eta lokailua; alegia, aurkaritza-lokailua eta juntadura ager daitezke batera, juntadura indartuz (ikus *EGLU III (Lokailuak)* liburukiko 27.-29. orrialdeak):

- (16) Gaixo dago, *baina, hala ere*, kalera irten da. (JUNTADURA eta LOKAILUA)
- (17) Xentimorik ez du, *baina, hala ere*, ardotarako beti izaten du zerbait. (JUNTADURA eta LOKAILUA)

Juntadura aipatu dugunez, emendiozko juntadurak berak ere izan dezake kontzesio-balioa, testuinguru egoki batek lagunduta:

- (18) Xentimorik ez du, *eta* ardotarako beti izaten du zerbait. (JUNTADURA)

Hala ere, aurkaritza-balioa bermatzeko badirudi beharrezkoagoa izaten dela lokailuen laguntza horrelakoetan, aurkaritzako juntaduraren kasuan baino:

- (19) Xentimorik ez du, *eta, hala ere*, ardotarako beti izaten du zerbait.

Aurkaritzako juntaduran (*baina* juntagailuaren bidez egiten direnetan), lokailua agertzeak areago dirudi hautazko nahitaezko baino.

Hiru molde aipatu ditugu atal honetan: menderakuntza, juntadura eta lokailuen bidezko lotura. Atalari amaiera emateko, hiruren arteko konbinazioak aipatu nahi

genituzke: ikusi berri dugu juntagailuak eta lokailuak konbina daitezkeela perpaus berean; azken adibidea dugu horren lekuko (... *eta, hala ere* ...). Konbinazio horrez gainera, badugu beste bat (ikusi berri ditugu, gainera, adibide batzuk): mendeko kontzesiozkoaren eta lokailuaren artekoa; hona horren adibide bat:

(20) Gaixorik *dagoen arren, hala ere*, lanera joan da.

Zuzenak dira hauek ere, noski, nahiz aitortu beharra dagoen zenbaitentzat erredundateak izan litezkeela.

Mendeko perpausaren eta juntaduraren arteko konbinazioa, berriz, ezi-nezkoa da:

(21) *Gaixorik *dagoen arren, baina* lanera joan da.

B. Baldintza-perpausak

Aurreko liburukian jokatu ezan dugun gauza bera esan dezakegu orain jokatu gabeen ere. *ERE* lokailua gehituz eta esaldia baiezkotasunaren eta ezezkotasunaren aldetik egokituz, baldintza-perpaus bat kontzesio-perpaus bihur zitekeela esan dugu han:

(22) Ondoezik badago, ez da lanera joango. (BALDINTZA)

(23) Ondoezik badago *ERE*, lanera joango da. (KONTZESIOA)

Gauza bera gertatzen da aditz jokatu gabea dugunean ere:

(24) Ondoezik egonez gero, ez da lanera joaten. (BALDINTZA)

(25) Ondoezik egonez gero *ERE*, lanera joaten da. (KONTZESIOA)

Egia da, hori bai, askoz ere maizago erabiltzen dela kasu honetan kontzesio-molde jokatu (*BA*–... *ERE*) jokatu gabea baino (*–TUZ GERO ERE*). Baina horretaz menderagailu hori aztertzean hitz egingo dugu gehiago.

C. Moduzko perpausak

Aurreko liburukian, *EGLU VI*-n, esan dugu moduzko perpaus batzuei *ERE* gehituz lor daitezkeela kontzesio-perpausak. –*ELA* eta –*ELARIK* menderagailuei *ERE* erantsiz, alegia.

(26) Asko ikasten *zuelarik ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

(27) Asko ikasten *zuela ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

Aditz jokatu gabea duten perpausetan ere antzeko zerbait dugu: –*TUTA* nahiz –*TURIK* menderagailuei *ERE* lokailua erantsiz, kontzesio-perpausa osatzen dugu:

(28) Asko *ikasita ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

(29) Asko *ikasirik ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

4.1. KONTZESIO-PERPAUS JOKATUGABEEN EZAUGARRI OROKORRAK

- *Kontzesio-perpausen kokalekua*

Aditz jokatuekin osatzen ziren kontzesiozko perpausak bezalatsu, perpaus nagusiaren aurretik, ondoren edo hartan tartekatuta joan daitezke kontzesio-perpaus hauek ere (ik. *EGLU VI*, 233 or.). Adibide batzuk ekarriko ditugu horren erakusgarri:

– Perpaus nagusiaren aurretik:

(30) [*Naiz-ta ekin* gautegun / *Edurra egiten*], *Zuri* eztautzu *ezek* / *Zirkiñik* eraiten (K. Enbeita, *Bertoak*, 171).

- (31) [Leenengo siñiskeria ustel *irten arren*], / ba du beste bat ere auziaren azken (Orixe, *Euskaldunak*, 58).
- (32) [Barnez otzak ez *egon arren*], / ez dira beela berotu (Orixe, *Euskaldunak*, 171).

– Perpaus nagusian tartekatuta:

- (33) Oien biziya beti, / dudarik ez dago, / [*nahiz osasuna izan*] / arriskuan dago; (*Arrantzaleen bizitza*, 93).
- (34) Sasoi hartako jeltxak guztiak, [*nahiz eta gipuzkoarrak izan*], bizkaieraren tankeraz idazten saiatzen ziren, hitz asko eta ortografia bera toki guztietatik hedatuz (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 381).

– Perpaus nagusiaren ostean:

- (35) Estimatuak izan gera gu / etxian eta kanpuan, / [*nahiz-ta emendik Argentinara / ogiaren billa jua*] (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 291).
- (36) Ia zer janik eztaukagu, [*itxurak egin arren*] (Aguirre, *Garoa*, 237).

• *Kontzesio-perpausen barne-hurrenkera*

Barne-hurrenkerari dagokionez, aditza (eta aditzarekin batera, gainerako kontzesio-gailuak) amaieran izan ohi dute normalean kontzesio-perpaus jokatugabeek. *NAHIZ ETA* lokailuaren kasua da salbuespena, lokailu hori mendeko perpausaren aurre-aurrean kokatu ohi da eta.

• *Elipsia*

EGLU VI liburukian esan dugun bezala, bada aditza eliditzeko joera bat kontzesio-perpausetan, jokatuetan eta jokatugabeetan. Batez ere, aditzari lotzen ez zaizkion lokailuak dituzten moldeetan gertatzen da hori, *NAHIZ ETA*-ren kasuan molde jokatugabeetan. *ARREN*-en kasuan ere bada elipsirik, baina normalean bizkaierazko testuetan eta ezezko perpausak direnean. Hona aditzaren elipsia duten adibide batzuk:

- (37) Auxen da, bada, zaldun ibiltari izatea, eta, esan dudan ori, orixen da Zaldungo-Ordena; eta, leen ere esan dut-eta, ortantxe nago ni, *naiz-ta* pekatari, ziñ-itza emanik (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 145).
- (38) Lege eztan legez koipea yan badozu, edo arraña ta okela gauzea yat-ordu baten, edo *zuk ez arren*, norbaiteri yan eragin badeutsazu (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 138).
- (39) Egun gitxi *arren*, nekatu naz oro (Lauaxeta, *Bide barriak*, 2).

Egitura bakoitza aztertzean emango ditugu adibide gehiago, kasuan-kasuan.

- *Mintzagai dira kontzesio-perpausak*

Kontzesio-perpausak ezin dira perpausoko galdegai izan, aurreko liburu-kian esan dugu bezala. Mintzagai izan ohi dira, eta perpaus nagusian etenen bitartez tartekatzen dira.

- *Erredundantziak eta lokailuak kontzesioaren indargarri*

Kontzesio-egitura bakoitzaren kasuan emango dugu zehaztapen eta adibide gehiago, baina ez genuke aipatu gabe utzi nahi komun duten ezaugarri bat: aurkaritza-erlazioaren indargarrien erabilera.

Batetik, idazle batzuek kontzesio-gailu bat baino gehiago erabili izan dituzte perpaus bakarrean (jokatueta, batez ere). Bestetik, perpaus nagusian aurkaritza-lokailuak agertu ohi dira kontzesio-gailuen osagarri eta indargarri.

Hona adibide batzuk:

- (40) Mundua, kanpoko mundua, *naiz ta* jakin-miñaren pizgarri izan, ezta *ala ere* beste izakiren bat bezin ernagarri ta garrantzitsua guretzat (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 57).
- (41) Beretako geienak baserritar atxurlariak *izan arren*, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea* (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 253).

- (42) Jendek *izanagatik* gutaz erraiteko, *hargatik* sort herria ez dut mendratuko (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 93).

• *ERE lokailuaren paper berezia kontzesiozkoetan*

Aurreko liburukian aipatu dugu *ERE* lokailuak paper berezia jokatzeko duela kontzesio-perpauetan, oso ugaria dela haren agerpena ia era guztietako kontzesio-perpauetan. Gauza bera aipatu dugu aurkaritza-lokailuei eta -esapideei buruz ere; haietako askotan agertzen dela *ERE* lokailua. Parekotasun bat ezarri dugu lokailu horien eta kontzesio-perpauen artean, esanez aurkaritza-lokailu haiek kontzesio-egitura baten murriztapen moduko bat direla.

- (43) Gaixorik dago. [*Hala ere*], lanera doa. (LOKAILUA)

- (44) Gaixorik dago. [*Hala egonda ere*], lanera doa. (Mendeko perpausa: KONTZESIOA)

ERE-ren agerpen hori ez da erabatekoa, hala ere: batzuetan beharrezkoa dirudi kontzesio-perpausa osatzeko, eta beste batzuetan, ez hainbeste: aldaera estilistikotzat har liteke halakoetan *ERE* “hautazko”aren presentzia hori. Beharrezkoa dirudi *ERE* lokailuak, adibidez, menderagailu hauen kasuan:

–*TUTA ERE*, –*TURIK ERE*

–*TUZ GERO ERE*

–*TU EZIK ERE*

Beste batzuek, berriz, ez dute berez nahitaezko, nahiz askotan kokatu ohi den halakoen atzetik ere, indargarri gisa edo:

–*TU ARREN (ERE)*

–*TUAGATIK (ERE)*

Kontzesio-molde jokatu gabe guztietan erabil liteke *ERE* lokailua, salbu *NAHIZ ETA ... -TU* erako moldean; okerra da adibide hau:

(45) **Nahiz eta* liburuaren irakurketa gogoz hartu ere, ezin izan du amaitu.

• *Kontzesio-perpaus bat baino gehiagoren juntadura*

Ez dago inongo debekurik kontzesio-perpaus bat baino gehiago bata bestearen segidan emateko, juntaduraren nahiz alborakuntzaren bidez lotuta:

(46) Artzalleak ezin konta al *izan arren*, eta artu al guzia *artuta ere*, ez da agortzen, ez gutxitzen (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 456).

(47) *Izanagatik* gutia, / *nahiz* doi doia duen, / iduri zaio handia, / zeren trailla duen (Argaignarats, *Devoten breviariora*, 132).

(48) Elizaren laguntza hori, eragile, *nahiz eta* interesatua, edota interesduna zelako hain zuzen ere eragile, beranduxe emana *izanagatik ere*, aski harrigarria izan da eta da euskararen iraupena (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 33).

• *Kontzesio-perpaus jokatu gabeak eta aditzaren ezaugarriak*

Aditz jokatu gabe bez ari gara liburuki honetan; horrek esan nahi du berez ez dugula modurik mendeko aditzaren (eta perpausaren) zenbait ezaugarri jakiteko, erreala ala hipotetiko den, aspektu burutua ala burutu gabea duen, eta abar; ez behintzat mendeko perpausari bakarrik begiratzen badiogu. Perpaus nagusiari (eta haren aditz jokatuari) begiratu gero, ordea, izan dezakegu modua mendeko aditzaren ezaugarriez hobeto jabetzeko: horrela jakin dezakegu zerbait gehiago mendeko perpaus hauen erabileraz. Adibidez, baldintzaren hipotesi klase guztiak hartzen dituela (erreala, alegiazkoa, ebentuala...):

(49) Loteria irabazita ere, ez *da* poztu. ('loteria irabazi du')

(50) Loteria irabazita ere, ez *litzateke* poztuko lagun triste hori. ('loteria irabaziko balu')

(51) Loteria irabazita ere, ez *dira* gauzak konponduko. ('loteria irabazten bada ere')

Gatozen orain, ezaugarri orokorrak bildu ondoren, kontzesiozko egiturak banan-banan aztertzeraz, egitura bakoitzak berezko dituen ezaugarriak aipatzeraz.

4.2. NAHIZ ETA ...-TU

• *NAHIZ (ETA)* lokailua duten kontzesio-egiturek aditz jokatua nahiz jokatugabea izan dezakete. Jokatugabea duten kasuetan, *-TU* partizipioarekin osatzea da normalena, eta mendebaldean erabiltzen dira halakoak (ekialdean ere badira idazle batzuen adibide bakan batzuk: Duvoisin, Elissamburu, Mattin eta Xalbadorrenak).

Ikus ditzagun aditz-partizipioarekin osatutakoa adibide batzuk:

- (52) Bada aipatu ditudan hitzak ez dira baztertzekoak, *nahiz eta* erdaratikoak *izan* (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 129).
- (53) Peruk, jakiña, *naiz ta* ordu bat baiño geiago *igaro* erreka-aldean, besigu barik etorri bear etxera (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 43).
- (54) Badira emakume batzuek bidean billatzen dituzten txotx guztiak etxera eramaten dituztenak, *naiz eta* etxean gurdikada egurrak saltzeko *euki* (Aguirre, *Garoa*, 54).
- (55) Lenbiziko osasuna ta gero pakia, *naiz ta* lanean *artu* alako nekia, zertarako da beste gauz asko esatia (Uztapide, *Beste bertso batzuk*, 86).
- (56) Ba-da munduan gosez iltzen denik, *naiz ta* janariak *izan* (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 150).
- (57) Trumoia urbil ote zegon iduripenak eman zion, *naiz-ta*, zein aldetik joko zun ezin *igarri* (Etxaide, *Joanak-joan*, 124).
- (58) Uriko mutil guztiak ondotxu ekien aldi edo belaun-aldi artako lorarik usaintsuenak zeintzuk ziran, *naiz-ta* aberatsak ez *izan* neskatillok (Erkiaga, *Arranegi*, 26).
- (59) Nik neure txabolatxu au iztia, *naiz-ta* etxe au zoiez eta zotzez egiña *ixan*, baserrittarrak bere maltzurkerija iztia baxen gaitz dozu, ene zaldun ori (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 114).

- (60) *Naiz-ta* sarritan arantza-miñez lurreko gauzetan *jantzi*, arrantzalean aurrean danok txapela daigun erantzi (B. Enbeita, *Nere apurra*, 150).

Ekialdean, esan bezala, aditz jokatua duen egitura erabiltzen da batez ere (ik. *EGLU VI*, 244. or.), baina jokatugabea duena ere erabili izan da, bai aditz-partizipioa duena, bai aditzoina duena (nahiz azken hau gutxiago):

- (61) Naiz gal, ariko nauk (L-côte, *OEH*)

Aditzoinarekiko erabilera hau Elkanoko Lizarragarengan eta Orixerengan ere aurkitu daiteke, *OEH* hiztegiaren arabera:

- (62) Aski duzuláik, géldi, naiz ténta (Lizarraga, *Programa de vida cristiana*, 112).

- *NAHIZ* lokailua mendeko perpausaren hasieran kokatu ohi da; azpisail honen hasieran ekarri ditugun adibideei begiratu besterik ez dago: kontzesio-molde bakarra da mendeko perpausaren hasieran kontzesio-markaren bat duena (gainerakoek atzerago eraman ohi dute, aditzaren arrimura: *-tu ARREN*, *-tuaGATIK*, ...).

- Hizpide dugun egitura honetan, aditz jokatugabea duen honetan, *ETA* juntagailua izan ohi du ondoren *NAHIZ* lokailuak: *NAHIZ ETA*. Aditz jokatu-dunaren kasuan, berriz, arruntagoa da *ETA*-rik gabekoa:

- (63) *Nahiz* altua *den*, ez da iristen sabaira.

- Hasierako lokailu honek aldaera ugari ditu han eta hemen: *nahiz eta*, *nahi ta*, *nahiz da*, *nahiz ta*, *nahizik*...

- Perpaus hasieran kokatuta, kontzesio-perpausaren “iragarle” moduko bat dugu lokailu hau; aditzari lotuta joan beharrik ez duelako, arrunt samarra izaten da halakoetan aditza isiltzea:

- (64) *Nahiz eta* hitz ezberdinez, bat bera dugu hizkera.

- (65) *Naiz da* arrixa, ez dot galduko nik gaurko erromerixa (Etxebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*).
- (66) Munduak zaldun ibiltari izendatu dituan aientzat sortu ta egiñ izan ziran; eta oietan guztietan ttikiena, *naiz-ta* diña ez, ni naiz (Berrondo, *Don Kijote Manxako*, 142).

EGLU VI-ko adibide batzuk ere ekarriko ditugu hona; han perpaus jokatuez ari ginen, eta halako moldea erabiltzen zuten euskalkiez eta autoreez (batez ere Ekialdekoez); bada, haietan ere ikusten genuen bazela elipsirako joera hori ere:

- (67) Alha zaizko haatik begiak, *nahiz* eztiki (J. Etchepare, *Beribilez*, 72).
- (68) *Nahiz* girixtino hiria, hiri galdu bat zen Goa (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 200).
- (69) *Nahiz* haur hutsa, orori ohartu zen (Lafitte, *Grammaire basque*, 396).
- (70) Esperantza horrek berak, *nahiz* molde gordeagoan, sustengatzen ditu egiazko girstino leialak (M. Lapeyre, *Jesusen Bihotz Sakratuari*, 27).

Elipsia egiteko, jakina, eliditutako aditza berreskuratzen erraz samarra izan behar (ik. *EGLU VI*, 239); *IZAN* aditzarekin egin ohi da elipsia gehienetan.

- Hauetan ere, bestelako moldeetan bezala, gertatzen da aurkaritza-lokailuren bat agertzea perpaus nagusian, kontzesio-perpausaren aurkaritza-balioa indartzeko edo.

- (71) Mundua, kanpoko mundua, *naiz ta* jakin-miñaren pizgarri izan, ezta *ala* ere beste izakiren bat bezin ernagarri ta garrantzitsua gureztat (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 57).

- Ezin izango diegu jarri eragozpenik halako esaldiei. Ondoren aurkeztuko ditugunak bezalakoak, berriz, hiztun askorentzat zalantzarriak izango dira gutxienez, baztertzekoak ez baldin badira; horren arrazoia kontzesio-gailuen bikoiztapena da. Idazle batzuek inoiz erabili izan dituzte, baina baditugu arrazoiak ereduzkotzat behintzat ez jotzeko: idazle bakar batek ere ez ditu sistematikoki

erabiltzen, askotan bertsoak izaten dira (bertsoaren neurria osatu beharraren baldintza ere hor dago), eta, azkenik, perpaus amaitugabeak edo iruditzen zaizkigu batzuk, anakoluto gisakoak. Ikus ditzagun, edozein kasutan, adibide batzuk:

- (72) Ez gera konturatzen / edadez sarritan, / *naiz-ta* ikusi *arren* zar auek begitan, / begira nola dauden orain inbiritan, / gazte ez gera izango iñor bi alditan (Uztapide, *Noizbait*, 57).
- (73) Neure bizitza zelangoa dan egiten nua autortu, *naiz-ta* gizonak gura ez *arren* azeria ontzat artu: ... (B. Enbeita, *Nere apurra*, 170).
- (74) Zugatz zar bati *naiz-ta* adarrak asi *arren* igartuten, /ekaitz artian ibilia da bere frutuak emoten (B. Enbeita, *Nere apurra*, 238).
- (75) Alaz guztiyaz ere jaten, / gogotikan saia, / *naiz* atea egon *arren*, / izugarri zalla (*Jan-edanaren bertsoak II*, 123).
- (76) Horregatik, *nahiz eta* ezaguerarik argitsuenean *aukeratuta ere*, lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu hauts bihurtuta (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 335).

Lehendabiziko adibideak bertsoak dira, eta horietan bertsoaren neurria gorde beharrak esplika dezake kontzesio-gailuen erredundantzia; prosazko adibideak ere baditugu, ordea, eta idazle bat baino gehiagorenak; ezin uka, beraz, erredundantziatarako joera bat badela halako perpausetan.

- Mendeko perpausa ezezkoa denean, bi hurrenkera erabiltzen dira:

a) [*nahiz eta* ... + *ez* + aditz-partizipioa]

- (77) Ta anima berdiñeko gizadiak aisa billatzen dute batak bestea, *naiz ta* gorputzez alkarren antzik *ez eduki* (Aguirre, *Garoa*, 332).
- (78) Ipiola bertsolariak esan zizkidanak ezin eramanz nere eskuz itto nun, *naiz-ta* nik bizia kentzeko asmorik *ez izan* (Etxaide, *Alos Torrea*, 87).
- (79) Euki dot eskuetan sarritan txoria, *Naiz da ez izan* neuk nai besteko andia; (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 278).

- (80) Zine bat ikusi gabe galduko ez dutenei; *nai*z ta eskerako ta negar egiteko lotsarik ez izan (Etxaniz, *Euskal antzerkiak*, 78).
- (81) Pozoia ere ba omen du, gainera, orrietan eta hazietan, *nahiz eta* bortitzegia ez izan, beharbada (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 91).

b) [*nahiz eta* ... + aditz-partizipioa + ez]

- (82) Bai, esaten zuten gero ta gero ere, guri jo diguten soñu ura, uraxe bai uraxe, diruz erostekoak balira instrumentu aiek, erosiko genitikek bai, *nai*z ta solpan *jakiñ* ez (Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 12)
- (83) Emen aurrez-aurre datorren zaldizko talde au, nazio askotako jendeek osatzen dute; emen datoz (...) Eszitiarrak, zuri bezain gaiztoak; Etiopiarrak, ezpain zulatuak; eta beste ezinkonta-ala jende; aurpegiz ondo ezagutzen ditudanak, *nai*z-ta izenik *gogoratu* ez (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 199).
- (84) Gizajoak antxe egon bear izan eban aste batean, aste bitan, ta illabete luzietan, *nai*z ta Potxologaitik marmar besterik egin ez (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 67).

• Kontzesiozkoa ez den *NAHIZ ETA ...-TU* molde bat

Itxuraz kontzesiozkotzat har daitezke ondorengo adibide hauek, *NAHIZ ...-TU* egitura duten hauek:

- (85) Eriarena eginez, maltzurki, dena elhe goxo ariko zauzkik *nahiz eta* hi *kontsolatu* (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 99).
- (86) Egin ditu bere ahal guziak, *nahiz eta* ... onez-onean gobernamentuko gizonekin bakean *bizi* (Hiriart-Urruty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 70).
- (87) Bi hilabetez egon niz oresu ene emaztia gati, Ta hura xalanteki etxen ni han nintzanez jelsi; Ber denboran ene anaiek, defautez, prozesa jvja-erazi, En' hunaren juitv *nahiz eta* ni *kundenerazi* (Etchahun, *Bertsoak*, 238).
- (88) Bainan etzuen deus erran bere lagunari, ez *nahiz eta* *asaldarazi*, orroaz hauteman (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 21).
- (89) Haur bat iduri zuen bethi zukre murtxatzen ari *nahiz eta* bere gorputza *azkartu* (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 89).

- (90) Kafe bat, ihardetsi zuen muthiko gazteak ez *nahiz eta* gizona *kexarazi*, menturaz kafe bati amor emanik hobeki helduko zela. (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 93).

Alabaina, balioz bestelakoak direla esan behar: *NAHI IZAN* aditzaren forma bat dugu hor, moduzko balioa duen mendeko bat.

NAHIZIK formarekin ere badira halakoak; horietan, begibistakoagoa dela iruditzen zaigu *NAHI IZAN* aditzaren jatorrizko esanahia:

- (91) Gero, lanerat itzultzen da xixtuetan, bazkaria tenoreko *nahizik moldatu*. (Barbier, *Légendes*, 120).
- (92) Emaztekiak, *nahizik eta gorde*, ihardesten dio: (...) (Barbier, *Légendes*, 23).

–*TU NAHIZ(IK)* hurrenkeran ere erabiltzen dira balio hau duten egiturak:

- (93) Gure inguruan dabil gu *galdu nahizik* deabru gaiztoa (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 227).
- (94) Ama *ikusi nahiz*, etxera itzuli zen.

Balio hau duten egiturak hurbilago daude *NAHI IZAN* aditzaren jatorrizko esanahitik kontzesiozko balioa dutenak baino; azken hauetan, gramatikalizata dago kontzesio-perpaseko *NAHIZ* lokailua, eta urrunago, beraz, *NAHI IZAN* aditzaren esanahitik.

4.3. –*TU ARREN*

• Enklitiko modura nahiz elementu beregain modura erabiltzen da *ARREN* hau, eta esanahi askotarikoak ditu euskalkien arabera.

Guk kontzesio-erabileran aztertuko dugu *ARREN*, hartarako ere erabiltzen baita, aditz bati atzetik lotuz; dakigun bezala, aditz jokatuari lotu daskioke

(*-eN ARREN*; ik. *EGLU VI*, 250), bai eta aditz jokatugabeari ere (*-TU ARREN*). Azken hau da orain hizpide izango duguna. Hona, hasteko, adibide batzuk:

- (95) Miñ *artu arren*, eutsi dio sendo ta an gelditu da (Barriola, *Goi-Argi*, 25).
- (96) Bera izkutuan *egon arren* ezagungarria egitten zaigu, egiñik utzi dizkigunaz (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 31).
- (97) Kontuz *ibilli arren* eta juiziyuan, iñor aberasten ez da ofiziyuan; ni lanakin ibilli beti sesiyuan (Bilintx, *Bertsoak*, 151)
- (98) Aitari astakume bi galduta, Saul etxeko morroi batekin asto billan joan zan; eta or-emen jira-bira asko *egin arren*, etzituen topatu (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 155).
- (99) Arrotxo ibilli zarie, baia zeuenak badaruazuez, gaztiek eta senduek *izan arren* (Kirikiño, *Abarrak II*, 13).
- (100) Arnoldo, bere emazteak eta alabeak egiñalak *egin arren*, ezetorren bere konortera (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 86).

• Mendebaldean bakarrik erabiltzen da *-TU ARREN*. Ekialdean, erabiltzen da *ARREN*, baina aditz jokatuarekin (*-eN ARREN*), eta gaur egun zahar-*kitua* omen dago.

• *ERE* lokailua har dezake ondoren *-TU ARREN* kontzesio-moldeak, haren indargarritzat: *-TU ARREN (B)ERE*. Batez ere bizkaieraz dago hedatuta erabilera hori:

- (101) Aita neuk bere ezin Eginmda sinistu, *Ikusi arren bere* Dudan naz aurkitu; Mirarien bat zala Ziertu izango, Umill umill jarririk Azartu natxako (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 357).
- (102) Artu eban alako baten gatx andi batek, baña erijotzia urrian *euki arren bere*, ez zan aldatuten bere bijotza, ta ez eban emoten damututa eguanaren ezaugarri edo señalerik (Uriarte, *Marijaren illa*, 55).
- (103) Ain dira bildurgarriak enzuten dirian biraozko juramentubak, ze egijagaz *izan arren bere* guztijak dagoz ikaraturik, eskandalizaturik, eta arriturik (Astarloa, *Berbaldiak*, 65).

- (104) Abrahamek esan eutsan: Sinistuten ez badeutse Moiseseri eta igarlai, ez dabe bere sinestuko, ilen bat *biztu arren bere* (Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 40).

Gipuzkeraz ere badira, nolana ere, lekukotasunak:

- (105) Begiratzez, ikuitzez, jarreraz, mugimentuz, dantzan ibilliz edo beste eran batera griña oiek, naita berotzea, erdizka *izan arren ere*, pekatu astuna da (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 53).
- (106) Tentuan eta arretaz *ibilli arren ere*, zenbat ez-bear bide-bazterretan (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 65).

• Beste aukera bat ere badugu kontzesio-balioa indartzeko, beste moldeetan bezala: aurkaritza-lokailuren bat erabiltzea perpaus nagusian: *hala ere, ordea...*

- (107) Mutil indartsua *izan arren* Balendin, etzan, *ordea*, arrantzalea-ta, arrantzuko zeregiñetan oitugabea izanda, angoen iritzirako, etzezakean jakin ezer asko itsasoko goraberatan (Agirre, *Uztaro*, 218).
- (108) eta pekatuetan ondaturik, eta uzteko asmo bage *egon arren, ala ere* atrebitzen dira Jaungoikoari barkazioa eskatzera (Guerrico, *Sayaquera*, 392).
- (109) Beretako geienak baserritar atxurlariak *izan arren*, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea*. (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 253).
- (110) *Nai arren ezin baña* (Arrese Beitia, *Olerki berrizte*, 92).

• Kontzesio-perpaua ezezkoa denean, bi hurrenkera ditugu aukeran molde honetan ere:

a) [aditz-partizipioa + *ez* + *arren*]

- (111) Gizonik *ill ezarren*, zaldija oostu dauena (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 196).
- (112) Laugarrenian, gurasuak asko daukee zer esaminau umeen aziera onaren ganian; umiak bere bai, gurasuai zor deutseen lotsa edo onriaren ganian,

ta uts egiñak ezagutu biar ditube teologijarik *jakin ez arren* (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 27).

- (113) Oraindio berandu *izan ez arren*, lenbailen jo bearko dute igitaiak gal-zuztarra (Agirre, *Uztaro*, 77).
- (114) Guziak Jaunari eskerrak ematen jarri ziran; eta etsirik, Batzarreak orduan ezer *egin izan ez arren*, luzaro pakean utziko etziela, Jaunari eskatu zioten, bere Izen Santua erakustera zijoazen oiei mirariak egiteko eskubidea emateko (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 484).
- (115) Iltzeko perillean Sakramentu au artzen duanak, Biatikoaren eran, artu ote dezake baraurik *egon ez arren* (Aguirre, *Eracusaldiac*, 427).

b) [*ez* + aditz-partizipioa + *arren*]

- (116) Baña, oiek danak Pernandori gertatuak *ez izan arren*, Pernandoren izena len baño illuntxuagoa gelditzen ote da (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 20)
- (117) Besten kantik entzun ostean, Oiartzun'go Mitxelena, Euskalerrian ez baitzan ua bertolaririk aulena, itsas-gizon *ez izandu arren* aien berri zekiena, buru ta mingain asi zitzaigun itsasoetan barrena (Orixe, *Euskaldunak*, 201).
- (118) Pernando berriz, Salamancara ez joanagatik, ikastola bat zer zan ez jakin ta ere, irakurtzen ikasteko bear zuen erakusle bat *ez arkitu arren*, beti izango da gure artean gogoangarria, buruan, beste askok etzuten argitasunak dizdiz egiten ziolako (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 20).
- (119) Barnez otzak *ez egon arren*, ez dira beela berotu (Orixe, *Euskaldunak*, 171).
- (120) *Ez uste arren*, katua xaguak ito Eibarren (Garate, *Atsotitzak*, 15.720. atsotitza, 466).

• Aditzaren elipsia duten adibideak arruntak dira, baina batez ere ezezko partikula dugunean: *ez arren*. Bizkaieraz idazten duten idazle batzuetan gertatzen da hori: Añibarro, Fray Bartolome, Eguzkitza, Bilbao, eta abar.

- (121) Lege eztan legez koipea yan badozu, edo arraña ta okela gauzea yat-ordu baten, edo *zuk ez arren*, norbaiteri yan eragin badeutsazu (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 138).

- (122) Eleisan *ez arren*, lapurretan egin dauena (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 196).

Ezeztapenik izan gabe ere, badira aditzik gabeko egitura kontzesiozkoak; halakoetan, izen-sintagmen ondoren kokatu ohi da *ARREN* postposizioa. Ez dirudi indar handirik duenik egitura horrek, autore gutxi batzuek bakarrik erabiltzen baitute (eta haiek ere, ez askotan):

- (123) Neure gogoz eta al ixan ba'neu, geure-geure esakunak baño enittuzan nik ezarriko erderazkuen ordiakotzat; baño neure alegiñak *arren*, batzuren batzuk baño ezin ixan dodaz imiñi, ... (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 7).
- (124) Ango musika errian, dena, / aire berri biurturik. / Gaur Plazaolak isillarazi, / *trena arren ere*, damurik (Orixe, *Euskaldunak*, 193)
- (125) Txiro *arren ez* jaurti seme saltzalia: / arantzik ez betestu bere labakijan / bai baño sortu daben garbaizko lorea (Lauaxeta, *Bide barrijak*, 70).

- *ARREN* postposizioa ukanik kontzesiozkoak ez diren moldeak

Esan berri dugu *-TU* aditz-partizipioan oinarritzen dela kontzesio-molde hau. *ARREN* postposizioa lot dakioke, ordea, bestelako aditz jokatugabe bati ere, aditz-izenari (*-TZE*), adibidez; baina halakoetan helburu-balioa hartzen du mendeko perpausak (*-TZEAREN*). Hona adibide pare bat:

- (126) Akorda zaitte, ni etsai oietatik *libratze-arren* zure odola ta bizia eman zenduela (Cardaberaz, *Egercicioak II*, 117).
- (127) Bizia emango luke berari ontasuna *ekartze-arren* (Barriola, *Goi-Argi*, 68).

- *ARREN* hori mendeko perpausaren hasieran ere erabil daiteke, baina halakoetan ere helburu-balioa du mendeko perpausak, eta subjuntiboko aditza izan ohi du ondoren:

- (128) *Arren-eta jin dadin* (Lafitte, *Grammaire basque*, 397).

4.4. *-TUAGATIK (ERE)*

• *-GATIK* motibatiboaren marka aditz-partizipioari lotuz osatzen dira molde honetako perpausak. *-A* mugatzailea hartzen du aurretik atzizki honek:

-TU (aditz-partizipioa) + *-A* + *-GATIK*

Hona egitura honen bidez sortzen diren formak (aditz-partizipio motaren arabera): *hartuagatik*, *salduagatik*, *esanagatik*, *etorriagatik*, *jasoagatik*, *erreagatik*...

Esparru geografiko zabal samarra hartzen du menderagailu honek (Mendebaldean eta Ekialdean erabiltzen da), baina badirudi ez dela asko erabiltzen bizkaierazko testuetan.

Ikus ditzagun menderagailu honen lekukotasun batzuk:

- (129) Zahar gaixtoak, *zahartuagatik*, badu gogoia, indarra zaika falta (Axular, *Guero*, 64).
- (130) Arnoa hutsten duzunean ere, ahal guztia *xutkatuagatik*, gelditzen da usaina bedere (Axular, *Guero*, 64).
- (131) Larru-gorrian *ibilliagatik*, etziran batere lotsatzen; Etzuen alabaña gaitzkirik, ez eta gaitzerako griñarik ta gogorik (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 6).
- (132) Gazte-gazterik asi nitzan da orañdaño bitartian zenbait umore eder jarri det Kantabriako partian; pixka batian ez naiz aztuko *sartuagatik* lurpian, nere aitamenak izango dira beste larogei urtian (Txirrita, *Bizitza eta bat bateko bertsoak*, 242).
- (133) Zer zatozkit, Uitzidiskide miña; zer, Homero, Anakreonte, Virgilio ta Ciceron buruan *edukiagatik*, bete-beteko euskaldun zaitugun ori (Lizardi, *Itz-lauz*, 41).
- (134) Ttipia *izanagatik*, ez du batere gaixtoa iduri laborantzako (J. Etchepare, *Beribilez*, 12).

- (135) Amaika begiratu egiña neskatzai kale-eskiñan, diruz pobriak *izanagatik* ortatik osatzen giñan (Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, 88).
- (136) Emoidazuez arren bakotzak luma batzuk; jaioko jatzuez barriak, ta ez jatzube igarriko gitxi batzuk *kenduba gaiti*. (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 166).
- (137) Kanpoz pobre ta urrikarri ta umill *agertuagatik*, iduki lezake orrek barruna uste baño aberatsago ta arruagua (Beovide, *Asis-co Loria*, 154).
- (138) *Egiñagaitik* Mundu / Guztia aratu, / Au lako kerizperik / Baña non billatu (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 89).

• Batzuetan, Ekialdean, mugatzailerik gabeko formak ere erabili izan dira (bakanak dira halakoak, egia esan behar bada):

- (139) Heracleako ezti pozointsuak bertze ezti sendagarri dirudi: peril handia da nihork bata har dezan bertzea delako, edo biak har detzan nahastaturik, zeren bata on *izan gatik*, bertzeak kalte egin lezake (Pouvreau, *Philotea*, 299).
- (140) Bere itsas-hegia ttipisko *izan gatik* zabalerat, hirixka pollit bat da Zarauz, eta ikusgai hanitz baduena, ez balu ere Espainiako aberatsen ospa baizik erakusteko (J. Etchepare, *Beribitez*, 79).
- (141) Nahi bezain aiphatuak eta jakintsuak *izan gatik* (E. Lapeyre, *Credo*, 6.8).
- (142) Otologaray ere da gizon hautua, guti *mintzatu gatik*, hoberen burua (Hiribarren, *Eskaldunac*, 124).

• *-AN* amaiera ere hartu izan du *-TUAGATIK* menderagailuak Erdialdeko euskararen idatzitako testuetan:

- (143) Arrantzale jendia beti dabill justu, / *saiatubagatikan* ezin aberastu. (*Arrantzaleen bizitza*, 26).
- (144) Apaiz gizajoak, bera laguntasun premian *arkituagatikan*, lagundu eta animatutzen zuan bere illoba (Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 76).
- (145) *Mozkortuagatikan* gaitza da erortzen, / lagun gabe etxera badaki etortzen; / andriak egon bihar bizkarra berotzen, / gizonen eskutik azotiak artzen (Xenpelar, *Bertsoak*, 252).

- –*GATIK* postposizioaren aldaerei bagagozkio, hona batzuk: –*gaitik*, –*gaittik*, –*gaiti*, –*gaitikan*, ...

- Atzizki hau erabiliz kontzesio-perpausak eratzeko modu bakarra aditz jokatugabea duena da, zeren eta jokatua duena (*-*enagatik*) ez baita ia inoiz erabili adiera horretarako; ikus *EGLU VI*-n bildutako adibide pareak:

(146) Zeren (...) zahar *naizenagatik* bizi ninteke (Axular, *Guero*, 130).

(147) Berhain, ezein ere gizon *zegoenagatik*, hara joan zen (Krutwig, *Igibarziaren iphuinak*, 66).

Han esan bezala, oso urriak dira, eta ez ditugu gomendatzen halako moldeak.

- –*eNAGATIK* forma jokatua erabili izan da, zuzen erabili ere, baina kontzesiozkoa ez beste balio batzuk dituela. Batzuetan, helburu-balioa du:

(148) Behar diogu gure etsaiari barkhatu, guri ere geure Jainkoak barkha *diazagungatik* (Axular, *Guero*, 222).

Beste batzuetan, eta –*eNAGATIK* morfemaren erabilera ugariena da, perpaus erlatibo bat izan ohi da, zeinetan –*GATIK* kasu-marka duen ardatz-izena isildua baitago:

(149) Arestian aipatu *duzunagatik* aritu dira gaizki-esaka.

(150) Arestian aipatu *duzun (lagun)agatik* aritu dira gaizki-esaka.

- Molde honetan ere, badira forma indartuak.

Batetik, oso ohikoak dira *ERE* lokailuak indartutako kasuak (horregatik jarri dugu atal honen izenburua horrela: –*TUAGATIK (ERE)*):

(151) Baina zu bezelako aitaren semea, emazurtz *izanagatik ere*, ezin dateke gaizki (Lizardi, *Umezurtz olerkiak*, 3).

- (152) Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itotzen zegoela *esanagatik ere*, ura ukatzen zion (Cardaberaz, *Egercicioak*, 364).
- (153) Berak ez *izanagatik ere* oro gure erlisione berekoak, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure Fedearaz ematen ditugun ageri guziak, (Zalduby, *Obrak*, 84).
- (154) Bere burua beizik nihor ezin maita, *Izanagatik ere* ama edo aita (Zalduby, *Obrak*, 107).
- (155) Ala *irudituagatik ere*, ez naiz aske (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 90).
- (156) Askotan entzun izan nuen nik zorion-irritsa mundu onetan asetzerik ez dagoela; ta, guziz ere, ta aoz nik ala *aitortuagatik ere*, zer egin dut etsipenleize illun onetara ez jausteko (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 81).
- (157) Eta nehork *erranagatik ere* ezetz, etzaitzula lagunduko, eztuzu sinhesten (Axular, *Guero*, 294).
- (158) Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itotzen zegoela *esanagatik ere*, ura ukatzen zion (Cardaberaz, *Egercicioak III*, 364).
- (159) Gaixtoeneko pontuan, desonheski behatuagatik, eta *minzatuagatik ere*, aitzinago iragaiten ezpada, ezta obrarik bedera: baiña ukituz gero, akhabatu da iokoa, egin da kolpea (Axular, *Guero*, 271).

Bestetik, baditugu perpaus nagusian lokailu aurkaritzako bat txertatuta duten kasuak ere: *hargatik*, *ordea*, eta abar. Hona adibide batzuk:

- (160) ezen hek teztuan aditzen diraden hitzak *izanagatik*, eztiradela *ordea* textu gorputz berekoak, baina deklaragarri iarriak (Leizarraga, *Testamentu berria*, 914).
- (161) Jendek *izanagatik* gutaz erraiteko, / *hargatik* sort herria ez dut mendratuko (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 93).
- (162) Zurginak zura lantzen eta aphaizten duenean, *aurkituagatik* gainaldea, azalari datxekana arrazatua, eta pipiztatua, eztu *hargatik* antsiarik, baldin bihotza, barrenaldea, on eta fin edireiten badio (Axular, *Guero*, 288).

(163) Eta ezterauka ez Iainkoak bidegaberik egiten, ifernuan dagoen kondenatuari, ez nehoiz barkhatzeaz; *hargatik, ez barkhatuagatik*, miserikordios da Iainkoa (Axular, *Guero*, 396).

• Zer gertatzen da ezezko perpaus kontzesiozkoetan? Hemen ere, bi eratara eman daiteke ezezko perpausa, beste moldeetan bezala.

a) [aditz-partizipioa + *ez* + *agatik*]

Lehendabiziko moduak *EZ* partikula aditz-partizipioaren eta postposizioaren artean kokatua darama:

(164) *Ekarri ezagatik* ezertxo etxera, beñik beñ pasatzen da umore ona (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 398).

(165) Zuk ezer *ekarri ezagatik*, maian beti jarri dizut eguneroko ogia (Urruzuno, *Ipui sorta*, 32).

(166) Baserritarrak au guztiau *jakin ezagaitik* miraritu gindekez apurtxo bat (*Pizkunde zale bizkaitarra*, 72).

b) [*ez* + aditz-partizipioa + *agatik*]

Bigarrenak aditzaren aurretik darama ezezko partikula: *ez egonagatik, ez joanagatik*, eta abar.

(167) Salbatzalle hau izango zala Jainkoaren semea, ta Dabiden semea; eta gizonak Jainkoaren Semea lenengoan ezertan *ez artuagatik*, gero berak erakarriko zituala guziak Jainkoaren ezagumentura, eta aren lege santua gordetzera (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 40).

(168) Eta puntu hunen gaiñean gauza bat erran nai deratzut: iakin behar duzu ezen zuk zeure etsaiari *ez barkhatuagatik*, eztela handik segitzen, baldin hark bere aldetik bere eginbidea egiten badu, eztioela hari Iainkoak barkhatuko (Axular, *Guero*, 221).

(169) Berak *ez izanagatik ere* oro gure erlisione berekoek, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure Fedeaz ematen ditugun ageri guziak (Zalduby, *Obrak*, 84).

• Mendeko perpausako barne-hurrenkerari dagokionez, normalena da mendeko perpausaren bukaeran joatea –*TUAGATIK* morfema duen atzizkia (ikus atal honen hasierako adibide kanonikoak); hala ere, badira bestelako joera duten adibideak ere, alegia, aditza bukaeran ez dutenak:

- (170) [*Etorriagatik* gogoraziorik itxusienak Jangoikoaren gañean, edo Jesu-Kristoren Imagiñakin], eztago bekatu-rik, ez konfesatzeko premiarik alako pensamentuari lekurik ezagueraz eman etzaienean, (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 107).
- (171) [Ur gañean ta urez ingurutua *ibilliagatik* ontzia], ura da ontziko gaisoak itsasorakoan lenenik billatzen duten ta kontuzena ontzian gordetzen duten gauza (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 278).
- (172) Jabe zanak pasatzen zion eskua iztar artean, eta [*ibilliagatik* nola-nai], oni etzion ezer egiten; ematen zien berriz, eta mandoa beti lengoa, au da, ostikalaria (Soroa, *Baratzan*, 84).
- (173) [Emezortzi bat neska ta mutil *jarriagatik* gañian], iriyak aisa tiratzen zuten, ondo zebiltzan lanian; sinistamenik etzuten izan mutuaren esanian, alkarri elduta gelditu ziran ardatza autsi zanian (Txirrita, *Bertsopak*, 250).

Perpaus osagarrien aditz gobernatzaile direnean ere, ohikoa da mendeko aditza aurreratzea:

- (174) [Eta nehok *erranagatik* ere eztela hargatik antsia, gizon ona dela, gomenda zakitzala, behar dezazula]: eta zuk hari gaizki eginagatik, hark hartara guti behaturik, eginen deratzula zuri ongi (Axular, *Guero*, 294).
- (175) [Nik *erranagatik* eri zinala] bera jinen duzu bai zu ziren lekura (*Euskal Baladak*, 75).

• Aditz-izena oinarri duen eta perpaus nagusian ezezko partikula duen kontzesio-erlazio bat ere badugu (–*TZEAGATIK*, *EZ...*), nahiz ez duen literatura-tradizio idatzian lekukotasun ugari; ahozko jardunean, arrunt samarrak izan daitezke zenbait lekutan halakoak; Sakana aldean jasoa da honako hau, adibidez:

- (176) Gaztia *izatiagati*, ezta hobio. (‘Gaztea izateagatik, ez da hobeago’)

Kontzesiozko perpaus jokatuak aztertzean ere aipatu genuen era honetako egitura bat (–*eLAKO* + ezezkotasuna: ik. *EGLU VI*, 274).

• Aditz-izenaren beste forma bati ere lotu izan zaio –*GATIK* postposizioa kontzesioa adierazteko (–*TZENAGATIK*), baina erabilera arkaikotzat jo beharrean gaude, zeren eta Leizarragaren testuetan bakarrik aurkitu baititugu forma hori duten adibideak:

- (177) Eta hark etzuen deus egin nahi ukhan denbora luzez: baina gero erran zezan bere baithan, Iainkoaren beldur ezpanaiz ere eta nehorzaz konturik ez *egitenagatik*: (Leizarraga, *Testamentu berria*, 141).
- (178) Eta guk ogia eta mahats-arnoa baizen ez *ikhustenagatik*, eztezagula duda, eztuela spiritualki gure arimetan konplitzen exteriorki eta kanpotik signo bisible hauzaz erakusten draukun guzia (Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 24).
- (179) Ez, ezen anhitzek bere gaixtatasunez ezeztatzen dute, baina halakotz propietate eta natura hartako izatea Sakramenduak eztu galtzen, haren berthutea eta indarra fidelek baizen ez *senditzenagatik* (Leizarraga, *Othoitza Ecclesiasticoen forma*, 84).
- (180) Ihardets zezan Iesusek eta erran ziezen, Nik neurorzaz *testifikatzenagatik* sinhesteko da ene testimoniajea: ezen badakit nondik ethorri naizen, eta norat ioaten naizen: baina zuek eztakizue nondik ethorten naizen, ez norat ioaten naizen (Leizarraga, *Testamentu berria*, 77).

• Kontzesiozkoak ez diren –*GATIK* molde batzuk

Aditz-izenari ere lotu dakioke –*GATIK* postposizioa, baina beste balio bat hartzen du halako moldeak: kausa-helburuzkoa (ikus *Kausazko eta helburuzko perpausak* atala).

- (181) Autoa gaizki *aparkatzeagatik* zigortu naute.
- (182) Eskerrik asko lanean *segitzeagatik*.

Badu kasu honek lehenago aztertu dugun *-TU ARREN* egiturarekin paralelismorik; kasu honetan, bestean bezala, mendekoaren balioa aldatu egiten da hartzen duen oinarriaren arabera, oinarritzat hartzen duen aditzaren formaren arabera. Ikus dezagun ondoko taulan:

<i>ARREN:</i>	– KONTZESIOA:	<i>-tu arren</i>
	– HELBURUA / KAUSA:	<i>-tzearren</i>
<i>-GATIK:</i>	– KONTZESIOA:	<i>-tuagatik</i>
	– KAUSA / HELBURUA:	<i>-tzeagatik</i>

- Azkenik, aipatu berri ditugun balioen nahasketa-kasu baten berri eman nahi genuke. Izan ere, kontzesio-balioa du, adibidez, honako esaldi honek, nahiz kausazkotzat erabili nahi izan duen gaur egungo hiztun batek baino gehiagok:

(183) #Eskerrik asko liburu-aurkezpenera *etorri izanagatik*.

Kontzesio-balioan, ez du tradizioz erabilera horrek, berrikuntza bat da, baina zabalduz doa azken urteetan, dirudienez.

Kausa-erlazioa adierazi nahi duenak aditzaren beste forma bat erabili beharra dauka (*-TZEAGATIK*):

(184) Eskerrik asko liburu-aurkezpenera *etortzeagatik*.

4.5. *ERE* LOKAILUA DUTEN MOLDEAK

Orain arte aztertu ditugun molde batzuetan, *ERE* lokailua erabil zitekeen, baina ez zen halabeharrezkoa. Orain datozen hauetan, berriz, nahitaezkoa da *ERE*: lokailu horrekin bakarrik hartzen dute kontzesio-balioa azpiatal honetako egiturek.

4.5.1. –TUTA ERE / –TURIK ERE

Partizipioan oinarritutako mendeko adberbial batzuei *ERE* lokailua erantsiz osatzen dira bi egitura hauek.

–*TURIK ERE* menderagailua Ekialdean erabiltzen da gaur egun batez ere (Mendebaldeko idazle batzuek ere erabiltzen dute), eta –*TUTA ERE*, Mendebaldean (bizkaierazko testuetan, *BE(RE)* da lokailua: –*TUTA BERE*). Erruz erabiltzen dira bi egiturak kontzesioa adierazteko.

Ekar ditzagun hona bi moldeen adibide batzuk.

–TUTA ERE

- (185) Agaitik diño Espiritu Santubak, gaztiak gaztetan artuten daben bidia, *zaartuta bere* ez deusala itxiko (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 76).
- (186) Onelanguentzat da kaltetsuba konfesino jenerala; bada amar *eginda bere*, biurtuko dira lengo bildurretara, ta kenduko ditubalako ustian, geituko jakoz (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 237).
- (187) Guztiak bat *eginda bere*, ezin konjurau legije endemoniadu bat (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 3, 294).
- (188) Baina gabak ordubak *emonda bere*, ez dira palta, ez plazaan, ta ez bideetan neskaak, eta mutilak (Fray Bartolome, *Olqueetac*, 72).
- (189) Aitak ezin goiza ta laguntasuna erakarri, bere bizitzea *emonda be* (Aguirre, *Kresala*, 76).
- (190) Zur *egonda ere* beti zorigaitzak atzematzen gaitu (Orixe, *Mireio*, 111).
- (191) Egiñalak *eginda ere*, ezin astoa mogitu (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 68).
- (192) Oiek guziyak *adituta ere* andria etzan jaikitzen (Txirrita, *Bertsoak I*, 149).
- (193) Seiretan *mugituta ere* badiñagu aski denbora (Etxaide, *Joanak-joan*, 203).

- (194) Eskua *moztuta ere* axeriak axeri gelditzen dira; ankaezurrak *ausita ere* otsoak beti otso (Aguirre, *Garoa*, 62).

–TURIK ERE

- (195) Itz laburtxuak *izanik ere*, oriek jakin biar dira noiz ta nola esan (Beovide, *Asis-co Loria*, 166).
- (196) Zure lana ederki *eginik ere*, ez dautzute eskerrik izanen (Lafitte, *Grammaire basque*, 454).
- (197) Zer ari da gizona mundu guzia *bereturik ere*, erima galtzen badu (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 127).
- (198) Hogoi, hamabortz, hamar, bia, bat, batere; / Bihi bat ez ageri, *bilhaturik ere* (Hiribarren, *Eskaldunac*, 62).
- (199) Ageri diren guziak *suntsiturik ere*, balitezke oraino toki handi, eder eta distiantak, zeruko bidetan (Hiribarren, *Escaraz eguia*, 42).
- (200) Bainan *luzaturik ere*, herioa bethi heldu da (Hiribarren, *Escaraz eguia*, 14).
- (201) Ordun, naski, mutil bat gogo ba nu, beartsu *izanik ere*, maita nezake (Orixe, *Mireio*, 97).
- (202) Minixterio berritzearekin, gerlako minixtroa *kanbiaturik ere*, hura etzuten kanbiatzen; beti han uzten zuten bere kargu hartan (Hiriart-Urruty, *Min-tzaira, Aurpegia, Gizon*, 73).
- (203) Nik *laudaturik ere* etzaiztela kexa (Etchamendy, *Bertsuak*, 233).
- (204) Haurren axola istant bateko piztu-eta berehala hasi zen ilauntzen; bazirudien ipuin guztiak izugarriki elkarren antzeko zirela, edonork *kondaturik ere* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 87).
- (205) Bizia nai duzun beste *luzaturik ere*, beti iruditzen zaigula labor (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 111).
- (206) Axalean zertxobait *aldaturik ere*, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak ohiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 227).

Esaldi hauek moduzko, baldintzazko eta are denborazko ñabardurak izan ditzakete.

Nola osatzen dira mendeko perpaus hauen ezezko formak? Aukera bat baino gehiago dago hemen ere.

–*TUTA ERE* moldeari dagokionez, hiru aukera erabil daitezke, adibide hauetan ikusiko dugun bezala:

- [ez ...–*tuta ere*]

- (207) Pellok itzegiten du gogor ta torpezan, neri ezer emateko etzaiola esan, *ez adituta ere* gustokua izan, konprendituko zuen artzeko izan bazan, bera dago kausan, ez dago pobrezan, sartu da interesan, bota du grandezan, gezurra nai dubenak sinistu dezan (*Azpeitiko premiyoaren bertsoak*, 47).
- (208) Ain ona *ez izanda ere*, lur gose xamarra izan arren, ondo bakandua ta iñausia izan bada, ektareako amar metro gutxienez ematen ditu urtean (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 66).
- (209) Itz oietzek zor nizkizun, aiton buru-xuri, begikoa; ta artaratu nauen abagunea atsegiña *ez izanda ere*, ongi etorria bedi, biotza lasatuaren ordañez (Lizardi, *Itz-lauz*, 114).
- (210) Baiña *ez jakinda ere*, une bakoitzeko sentipenak erakusten dio zer egin bear duen (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 71).

- [–*tu ezta ere*]

- (211) Bildur naiz, ondore ori, zuek *nai izan ezta ere*, ez ote duten zuen ikasleek aterako (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 80).
- (212) Goi ta beko maizterrak, oso aberatsak *izan ezta ere*, bai ongitxo jaiok, txurikerietan ta gezur goxoak esaten aski oituak, arpegiz arpegi Don Juan deituarren, gero atzetik, Juan Amots esaten zioten: (...) (Aguirre, *Garoa*, 220).

- [-tu gabe ere]

- (213) Emakumeai urteak galdetzea itsusia da. *Galdetu gabe ere* badakizkitzu zenbat ditudan (Barriola, *Goi-Argi*, 23).
- (214) *Aragia jan gabe ere*, jasoko dizkiat bai nik emengo zaku abek (Salaverria, *Neronek tirako nizkin*, 104)

-*TURIK ERE* menderagailuari ere badagokio halako distribuzioa; hona hauen adibide batzuk, atalka emanak:

- [ez ...-turik ere]

- (215) Hamasei hilabethetan aldatzen dira bazterreko hortzak, eta hekien ordainak, *ez izanik ere* hain xuri, hazkarragoak dira (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 238).
- (216) Gorputza ez da aundi edo eder, gorputz dalako, aiñ aundi edo eder *ez izanik ere*, gorputz bailitzake (Orixe, *Aitorkizunak*, 98).
- (217) Gelan dagoen nor-nahik ikusiko du, mediumtasun izpirik *ez izanik ere* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 338).

- [-tu ezik ere]

- (218) Obe lizake, noski, legeok zuhur ba'lira: *izan ezik ere*, bete bearrak genituzke, aren ustez, matxinadarik sor eztedin (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 85).
- (219) Esteberen anaiak egin-aitorra aintzakotzat *artu ezik ere* laguna salbatu bearrez, beste artzaian aitorrak ontzat jo bearrekoak ziran (Etxaide, *Joanak joan*, 194).
- (220) Baiesten zutelarik, *ulertu ezik ere*, naiz kalte zitzaidalako, asarre nintzaian aundieri menpeko ez nitulako, ta txikieri ematen etzidatelako, ta negarra nien apen orde (Orixe, *Aitorkizunak*, 15).

- [-tu gabe ere]

- (221) Ni ganik ihes, deus gaizkirik egin ez dudalarik, deusetan kondenatua *izan gabe ere* (Larzabal, *Senperen gertatua*, 100).

- (222) Entzunen zutela zioten guziek, *jakin gabe ere* zeren galdatzerat zohan (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 160).

Hona, laburbiltzeko, ezezko forma hauek guztiak biltzen dituen taula; ezkerrekoa Mendebaldeko tradizioari dagokio (*-TUTA ERE*), eta eskuinekoa (*-TURIK ERE*), tradizio orokorrari, nahiz gaur egun nagusiki Ekialdean erabiltzen den:

<i>-TUTA ERE</i>	<i>-TURIK ERE</i>
<i>-EZ ...-TUTA ERE</i> (<i>ez lortuta ere</i>)	<i>-EZ ...-TURIK ERE</i> (<i>ez lorturik ere</i>)
<i>-TU EZTA ERE</i> (<i>lortu ezta ere</i>)	<i>-TU EZIK ERE</i> (<i>lortu ezik ere</i>)
<i>-TU GABE ERE</i> (<i>lortu gabe ere</i>)	<i>-TU GABE ERE</i> (<i>lortu gabe ere</i>)

4.5.2. *-TUZ GERO ERE*

Molde adverbial bat oinarri hartuz osatutako menderagailua dugu hau; *-TUZ GERO* baldintzazkoari *ERE* lokailua erantsiz osatzen dena. Aditz jakatundun moldeetan ere gauza bera gertatzen da: *BA-* baldintzazkoari *ERE* lokailua erantsen zaio *BA-... ERE* kontzesiozko moldea osatzeko.

Hona hemen *-TUZ GERO ERE* (edo haren aldaerak diren *-TU EZKERO ERE*, *-TU EZKETIÑO BE*) egituraren adibide kontzesiozko batzuk:

- (223) Ez nuke nik, ahal izanez *gero ere*, inor joatera behartuko (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 171).
- (224) Eta ondo asmatu *ezkero be*, uste dozu hogeit hamar euskeldunetik hemeretzi ezagutzen eztaben berba bat euskerazko berbia dala (Oskillaso, *Kurloiak*, 118).

- (225) Ez jausteko desoneskeriako pekatu loian ta *jausi ezkeru bere* jagiteko bide ta bitarteko ona ta ezin geiagoan ohea da artutea gogo, asmo, borondate ta propositu irme sendo egiazko bat ez alakorik egiteko beinbere (Añibarro, *Guero Guero*, 260).
- (226) Egia da ondo konfesatu ta *garbitu ezkeru bere* jazo litekela barrero jaustea ta pekatu egitea (Añibarro, *Guero Guero*, 304).
- (227) Kirikiñua baño latzagua dozu au eta morokilla bera baño zakarragua, ta astuak egazka egitten dakijela *esan ezketiño* be, siñistu egingo leuke txatxu onek. (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 116).

Kontzesio-balio garbia dutela esan behar. Nolanahi ere, ez dirudi oso egitura erabilia kontzesioa adierazteko. Horren ordez, badira kontzesio-moldeen artean bestelako egitura erabiliago batzuk. Adibidez, *-TUTA ERE* askoz erabiliagoa da balio honetarako; bai eta *BA-... ERE* egitura ere, baldintzazko morfemaren gainean (baina aditz jokatuarekin) eraikia hau ere.

• *-TUZ GERO ERE* egitura duten perpaus batzuek bestelako balio batzuk ere badituzte. Azter ditzagun adibide hauek:

- (228) Indianoa barriz itzaiñ ibilli eizan Ameriketean, da andik *etorri ezkeru be*, zaldun jantzia eukiarren, itzaiña baizen besterik etzan (Aguirre, *Kresala*, 136).
- (229) Ierusalemeko tenploaren egitean, eta *eginez gero ere*, bazebillan obraren eskea; eta bazen athearen aldean ere kutxa bat, erremusinaren edukitzeko untzi bat; hartan bat bederak debozino zuenaren emaitako: orai ere gure elizetan, kruzifikaren aldean, dagoen bezala (Axular, *Guero*, 153).
- (230) Bigarrena, sorthu zela gelditurik Andre dana Maria erdi baño lehen, erditzean, eta *erdiz gero ere* Birjina (Materre, *Doctrina Christiana*, 14).
- (231) Zeren nola eritasun handiak, *sendatuz gero ere*, utzten ohi baitu bere ondotik, zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik, zenbait ondore gaixto (Axular, *Guero*, 63).

- (232) Mundu onetan alkar batzandurik, ta nastaurik bizi dira onak deungekaz: *il ezkeru bere*, toki baten lurpetuten dituez: baña Judizioko egunean ezta alan izango; (Añibarro, *Escu-liburua*, 45).
- (233) Etzuen nahi zorhi arteiño, bere sasoiñera, eta mugara hel arteiño nehork utki zitzan ez eta *zorhituz gero ere* geldi zitezin (Axular, *Guero*, 79).

Kasu hauetan guztietan, denbora-balioa dugu nagusi. Sail honetako lehen adibidea hartzen badugu, idazleak ez du adierazi nahi ‘Ameriketatik etorri arren itzaina besterik ez zela’, baizik ‘Ameriketatik etorri eta gero ere itzaina besterik ez zela’. Denbora-balio garbia, beraz.

Hala gertatzen da Iparraldeko testuetan ere: *-TUZ GEROZ ERE* moldea darabilten idazleek denbora-balioan darabilte batez ere. Hona adibide bat:

- (234) Sainduek, zeruan *sartuz geroz ere*, ez dutela lur huntan bakerik (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 314).

Denborazko balioa eta kontzesiozkoa lehian izanik, ulertzekoa dirudi euskal idazleek (eta hiztunek) gehiegitan ez erabiltzea egitura hau kontzesioa adierazteko¹. Esan bezala, badira komunikazioaren aldetik hori baino egitura seguruagoak.

4.6. BANAKARITZA EGITURAK

EGLU VI liburukian (265. or.), aipatu dugu badela *NAHIZ* lokailua duten kontzesio-perpausen egitura distributibo bat, banakaritza-egitura bat; han diogu kontzesioa adierazteko egituretako bat izan daitekeela banakaritza ere.

¹ Esan duguna berresteko, Gotzon Garatek diosku gramatiketan bakarrik agertzen dela egitura hau (ikus *Erdarakadak* hiztegian *NAHIZ* sarrera); dirudienez, ez du jaso egitura honen lekukotasunik Euskal Herriko baserrietan.

EGLU III (Lokailuak) liburukian ere (17.-18. or.) aipatua dugu banakaritza deitutako juntadura mota hori. Han esaten da era honetara gauzatzen dela banakaritza edo distribuzioa:

- hitz edo partikularen bat errepikatuz, eta
- alborakuntza hutsez (juntagailurik gabe) edo juntagailuren baten bidez loturik (*eta, edo, nahiz, zein*). loturik. Juntagailua bera ere errepika daiteke (*edo ... edo ...; nahiz ... nahiz ...*).

Era askotakoak dira euskaraz kontzesioa adierazteko egitura distributiboak edo banakaritzazkoak: errepikatzen den elementuaren arabera eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, ia kontaezinak dira konbinazioak.

Aditz-partizipioa errepikatua dutenak aipatuko ditugu hemen, dela beste partikula errepikatu batekin, dela huts-hutsik. Hona zein diren egiturak, eta haien adibide batzuk:

- a. *Nahiz* A aditz-partizipioa, *nahiz* B (aditz-partizipioa), + Perpaus nagusia

(235) *Nahiz* goizean *joan*, *nahiz* arratsaldean (*joan*), lanean aurkituko duzu Peru.

(236) Ekusiko dituzu ... asko emakume ... jauntzi mota berriai jarraitzen *nai*z etxea gaizki *geratu*, *nai*z etxeko pakea *galdu* (Aguirre, *Eracusaldia III*, 606).

Aditza errepikatua denean, bietan aditz bera dugunean, eliditu daiteke bigarrena; errepikatzen ez denean, ez, noski.

- b. *Zein* A aditz-partizipioa, *zein* B (aditz-partizipioa), + Perpaus nagusia

(237) *Zein* bekatu guztia *ezkutatu*, *zein* estalgarriekin *eskusatu*, oro bat da (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 112).

c. A aditz-partizipioa, aditz-partizipioa B, + Perpaus nagusia

(238) Goizean *joan*, arratsaldean *joan*, lanean aurkituko duzu.

(239) Goiz *izan*, berandu *izan*, nik lanean jarraituko dut.

(240) Eguna *joan*, eguna *etorri*, hotza izan dugu aurtengo neguan.

d. Aditz-partizipioa *ETA* aditz-partizipioa, + Perpaus nagusia

(241) *Ibili* eta *ibili*, eta ez zuen herririk ikusten.

(242) *Esan* eta *esan*, eta alferrik.²

Aditza errepikatuta ikusten dugu sarritan halako banakaritza-egituretan; antzeko balioa luke beste errepikapen mota honek ere:

(243) *Esanak esan*, ...

(244) *Kontuak kontu*, ...

(245) *Ikusiak ikusi*, ...

Banakaritza-kasu guztietan balio bertsua dugu; esan bezala, *orobatasunezko* deitu dugun balioa dugu, indiferentziazkoa, alegia: berdin zaigu banakaritza-egituretan aipatzen diren oztopoetako bata zein bestea gertatzen den, aditz nagusian adierazten dena gertatuko da (ikus *EGLU VI* liburukian, 268. orrialdean).

4.7. KONTZESIO PERPAUS JOKATUGABEEN TAULA

Kontzesiozkoen atalari amaiera emateko, aztertu ditugun egitura guztiak bilduko ditugu taula batean, *EGLU VI* liburukian bezala (226. or.); hemen

² Antzeko balioa dute honako egitura hauek: *esanago eta alferrikago*; *esanago eta okerrago*...

ere letra lodiz eman ditugu egitura erabilienak, eta letra arruntean utzi bigarren mailakoak.

	<i>-TU</i>	<i>-TUTA / -TURIK</i>	<i>-TUZ GERO</i>	<i>-Ø (aditzoina)</i>
NAHIZ	<i>nahiz ...-tu</i>			<i>nahiz ... -ø (??)</i>
ARREN	<i>-tu arren</i>			
-GATIK	<i>-tuagatik (ere)</i>			
ERE		<i>-tuta ere / -turik ere</i>	<i>-tuz gero ere</i>	
BANAKARITZA	<i>nahiz ...-tu, nahiz ...-tu</i>			

LABURPENA

0. SARRERA

- Zertan datza kontzesioa?

- (1) a. *Nahiz eta gaixorik egon*, lanera joan da.
b. *Txiroak izan arren*, zoriontsu bizi dira gure lagunak.
c. *Mila aldiz gauza bera errepikatuagatik*, berdin jarraitzen du Anek.

Perpauk hauek definitzeko, irizpide logiko-semantikoetan oinarritu gara; esan dezakegu bi erlazio mota daudela:

A. Batetik, inferentzia-erlazio bat, presuposizio bat: aldez aurretik gizar-tean oro har edo hiztunaren mundu ikuspegian ontzat emandako presuposizioa: p proposiziotik q proposizioa ondorioztatzen dugu edo ondoriozta dezakegu normalean, eta p' -tik, q' .

B. Bestetik, aurkaritza-erlazio bat ere bada. Oposizio edo oztopo bat adierazten du mendeko perpauk, perpauk nagusian adierazitakoari egiten zaion oztopo bat. Goian ontzat eman dugun erlazioa ($p \rightarrow q$; $p' \rightarrow q'$) trukatzetik sortua da oposizio hori ($p \rightarrow q'$; $p' \rightarrow q$).

Beraz, p “sasoi betean edo ongi egotea” bada, p' “gaixorik egotea”, q “lan egitea” eta q' “ohean geratzea edo atsedean hartzea”, gizar-tean ontzat ematen den erlazioa honako hau da kasu honetan:

p Sasoi betean (ongi) dago \rightarrow q lanera joan da

p' Gaixorik dago \rightarrow q' ohean geratu da, atsedean hartu du

Bada, aldez aurretik ezarritako inferentzia-erlazio hori trukatzean datza kontzesioa.

p' Gaixorik dago \rightarrow q lanera joan da

p Sasoi betean (ongi) dago \rightarrow q' ohean geratu da, atsedean hartu du

Era honetara sortzen dira kontzesio-perpausak:

(2) Gaixorik egon arren, lanera joan da ($p' \rightarrow q$)

(3) Nahiz eta sasoi betean egon, ohean geratu da ($p \rightarrow q'$)

Mendeko perpausak adierazten duen oztopoa ez da nahikoa izaten perpaus nagusian adierazten dena galarazteko: beti betetzen da perpaus nagusian esaten dena.

- Beste perpaus batzuekiko harremanak

Inplikaziozko erlazio batez gain aurkaritza-erlazio bat ere badela esan dugu mendeko kontzesio-perpauetan; aurkaritza adierazteko, badira menderakuntzaz gain beste egitura batzuk ere euskaraz, kontzesioarekin lotura estua dutenak.

A. *Aurkaritzako lokailuak eta aurkaritzako juntadura*

Mendeko kontzesio-perpausaren ordeztan, aurkaritza-lokailuak ere erabil daitezke (*hala ere, badarik ere, hargatik, ordea...*). Ekar ditzagun hona (1) adibide sortako perpaus mendeko batzuk:

(1a) *Nahiz eta gaixorik egon, lanera joan da.*

(1b) *Txiroak izan arren, zoriontsu bizi dira gure lagunak.*

Honako hau litzateke horiek aurkezteko beste modu bat:

(1a') Gaixorik dago; *hala ere*, lanera joan da.

(1b') Txiroak dira; *hala ere*, zoriontsu bizi dira.

Erlazio baten berri emateko, jakina den bezala, egitura sintaktiko bat baino gehiago erabil daitezke. Lehenbiziko multzoan (1a-b) menderakuntzaz baliatu gara (*NAHIZ... -TU, -TU ARREN* menderagailuen bitartez txertatu ditugu mendekoak perpaus nagusien barruan); bigarren multzokoetan, berriz, perpaus beregainak erabili ditugu, eta horiek elkarri lotzeko, alborakuntza (“;”) eta aurkaritza-lokailuak (*hala ere* eta *ordea*).

Juntaduraren bidez ere adieraz daiteke, era berean, hizpide ditugun adibide horietako aurkaritza-erlazioa: aurkaritzako juntaduraren bidez, hain zuzen ere.

(4) Gaixo egon arren, kalera irten da. (MENDERAKUNTZA)

(5) Gaixo dago, *baina* kalera irten da. (JUNTADURA)

B. Baldintza-perpausak

ERE lokailua gehituz eta esaldia egokituz baiezkotasunaren eta ezezkotasunaren aldetik, baldintza-perpaus bat kontzesio-perpaus bihur daiteke:

(6) Ondoezik egonez gero, ez da lanera joaten. (BALDINTZA)

(7) Ondoezik egonez gero *ERE*, lanera joaten da. (KONTZESIOA)

C. Moduzko perpausak

Moduzko perpaus batzuei *ERE* gehituz, kontzesio-perpausak lor daitezke:

(8) Asko *ikasita ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

(9) Asko *ikasirik ere*, ez zuen nota onik ateratzen Jonek.

1. KONTZESIO-PERPAUSEN EZAUGARRI OROKORRAK

- *Kontzesio-perpausen kokalekua*

Perpau nagusiaren aurretik, ondoren edo hartan tartekatuta joan daitezke kontzesio-perpau hauek.

- *Kontzesio-perpausen barne-hurrenkerera*

Barne-hurrenkerari dagokionez, aditza (eta aditzarekin batera, gainerako kontzesio-gailuak) amaieran izan ohi dute normalean kontzesio-perpau jokatugabeek. Hasieran kokatu ohi den *NAHIZ ETA* lokailuaren salbuespenarekin, betiere.

- *Elipsia*

EGLU VI liburukian esan bezala, bada aditza eliditzeko joera bat kontzesio-perpauetan, jokatueta eta jokatugabeetan. Batez ere, aditzari lotzen ez zaizkion lokailuak dituzten moldeetan gertatzen da hori, *NAHIZ ETA*-ren kasuan molde jokatugabeetan.

- (10) Auxen da, bada, zaldun ibiltari izatea, eta, esan dudan ori, orixen da Zaldungo-Ordena; eta, leen ere esan dut-eta, ortantxe nago ni, *naiz-ta* pekatari, ziñ-itza emanik.
- (11) Egun gitxi *arren*, nekatu naz oro.

- *Mintzagai dira kontzesio-perpauak*

Kontzesio-perpauak ezin dira perpauseko galdegai izan. Mintzagai izan ohi dira, eta perpau nagusian etenen bitartez tartekatzen dira.

- *Erreduantziak eta lokailuak kontzesioaren indargarri*

Aipatzeko modukoa da aurkaritza-erlazioaren indargarrien erabilera. Bate-tik, idazle batzuek kontzesio-gailu bat baino gehiago erabili izan dituzte per-

paus bakarrean. Bestetik, perpaus nagusian aurkaritza-lokailuak agertu ohi dira kontzesio-gailuen osagarri eta indargarri.

- (12) Mundua, kanpoko mundua, *naiz ta* jakin-miñaren pizgarri izan, ezta *ala ere* beste izakiren bat bezin ernagarri ta garrantzitsua guretzat.
- (13) Beretako geienak baserritar atxurlariak *izan arren*, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea*.

- *ERE lokailuaren paper berezia kontzesiozkoetan*

ERE lokailuak paper berezia jokatzeko du kontzesio-perpausetan: oso ugaria da haren agerpena ia era guztietako kontzesio-perpausetan. Gauza bera aipatu dugu aurkaritza-lokailuei eta -esapideei buruz ere; haietako askotan agertzen dela *ERE* lokailua. Parekotasun bat ezarri dugu lokailu horien eta kontzesio-perpausen artean, esanez aurkaritza-lokailu haiek kontzesio-egitura baten murriztapen moduko bat direla.

- (14) Gaixorik dago. [*Hala ere*], lanera doa. (LOKAILUA)
- (15) Gaixorik dago. [*Hala egonda ere*], lanera doa. (Mendeko perpausa: KONTZESIOA)

ERE-ren agerpen hori ez da erabatekoa, hala ere: batzuetan beharrezkoagoa dirudi kontzesio-perpaua osatzeko, eta beste batzuetan, ez hainbeste: aldaera estilistikotzat har liteke halakoetan *ERE* “hautazko”aren presentzia hori. Beharrezkoa dirudi *ERE* lokailuak, adibidez, menderagailu hauen kasuan: *-TUTA ERE*, *-TURIK ERE*, *-TUZ GERO ERE*, *-TU EZIK ERE*. Nahitazko ez dutenak dira beste hauek, nahiz askotan erabili ohi den halakoetan ere, indargarri gisa: *-TU ARREN (ERE)*, *-TUAGATIK (ERE)*.

2. NAHIZ ETA... -TU

- *NAHIZ ETA* lokailua duten kontzesio-egituretan, *-TU* partizipioarekin osatzea da ohikoena; Mendebaldean erabiltzen dira egitura hori dutenak:

(16) Bada aipatu ditudan hitzak ez dira baztertzekoak, *nahiz eta* erdaratikoak izan.

(17) Peruk, *naiz ta* ordu bat baiño geiago *igaro* erreka-aldean, besigu barik etorri bear etxera.

Ekialdean, aditz jokatua duen egitura erabiltzen da batez ere, baina jokatu-gabea duena ere erabili izan da, bai aditz-partizipioa duena eta bai aditzoina duena:

(18) Naiz gal, ariko nauk.

- *NAHIZ ETA* lokailua mendeko perpausaren hasieran kokatu ohi da.

- *ETA* juntagailua izan ohi du ondoren *NAHIZ* lokailuak: *NAHIZ ETA*. Aditz jokatudun egituraren kasuan, berriz, arruntagoa da *ETA*-rik gabekoa:

(19) Nahiz altua den, ez da iristen sabaira.

- Aldaera ugari ditu han eta hemen: *nahiz eta*, *nahi ta*, *nahiz da*, *nahiz ta*, *nahizik...*

- Perpaus hasieran kokatuta, kontzesio-perpausaren “iragarle” moduko bat dugu lokailu hau; aditzari lotuta joan beharrik ez duelako, arrunt samarra izaten da aditza isiltzea:

(20) *Nahiz eta* hitz ezberdinez, bat bera dugu hizkera.

- Kontzesio-gailuen bikoiztapena ere bada era honetako ezaugarri bat:

(21) Alaz guztiaz ere jaten, / gogotikan saia, / *naiz* atea egon *arren*, / izugarri zalla.

(22) Horregatik, *nahiz eta* ezaguerarik argitsuenean *aukeratuta ere*, lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu hauts bihurtuta.

- Mendeko perpausa ezezkoa denean, bi hurrenkera erabiltzen dira:

a) [*nahiz eta ... + ez + aditz-partizipioa*]

- (23) Ta anima berdiñeko gizadiak aisa billatzen dute batak bestea, *nai*z ta gorputzez alkarren antzik *ez eduki*.

b) [*nahiz eta ... + aditz-partizipioa + ez*]

- (24) Gizajoak antxe egon bear izan eban aste batean, aste bitan, ta illabete luzietan, *nai*z ta Potxologaitik marmar besterik *egin ez*.

3. *-TU ARREN*

- Mendebaldean bakarrik erabiltzen da *-TU ARREN*. Ekialdean, erabiltzen da *ARREN*, baina aditz jokatuarekin (*-eN ARREN*).

- (25) Miñ *artu arren*, eutsi dio sendo ta an gelditu da.

- (26) Arrotxo ibilli zarie, baia zeuenak badaruazuez, gaztiak eta senduek *izan arren*.

- *ERE* lokailua har dezake ondoren *-TU ARREN* kontzesio-moldeak, indargarriztat: *-TU ARREN (B)ERE*. Batez ere bizkaieraz dago hedatuta erabilera hori.

- (27) Abrahamek esan eutsan: Sinistuten ez badeutse Moiseseri eta igarlai, ez dabe bere sinestuko, ilen bat *biztu arren bere*.

- Beste aukera bat ere badugu kontzesio-balioa indartzeko, beste moldeetan bezala: aurkaritza-lokailuren bat erabiltzea perpaus nagusian: *hala ere, ordea...*

- (28) Beretako geienak baserritar atxurlariak *izan arren*, nolako txukuntasunean eta zein ederki janziak *ordea*.

• Kontzesio-perpaua ezezkoa denean, bi hurrenkera ditugu aukeran hemen ere:

a) [aditz-partizipioa + *ez* + *arren*]

(29) Oraindio berandu *izan ez arren*, lenbailen jo bearko dute igitaiak gal-zuztarra.

b) [*ez* + aditz-partizipioa + *arren*]

(30) Baña, oiek danak Pernandori gertatuak *ez izan arren*, Pernandoren izena len baño illuntxuagoa gelditzen ote da?

• Aditzaren elipsia duten adibideak arruntak dira, baina batez ere ezezko partikula dugunean: *ez arren*. Bizkaieraz idazten duten idazle batzuetan gertatzen da hori:

(31) Lege eztan legez koipea yan badozu, edo arraña ta okela gauzea yat-ordu baten, edo *zuk ez arren*, norbaiteri yan eragin badeutsazu.

4. *-TUAGATIK (ERE)*

• *-GATIK* motibatiboaren marka aditz-partizipioari lotuz osatzen dira molde honetako perpausak. *-A* mugatzailea hartzen du aurretik partizipioak: *-TU* (aditz-partizipioa) + *-A* + *-GATIK* (*hartuagatik*, *salduagatik*, *esanagatik*, *etorriagatik*, *erreagatik*...).

(32) Zahar gaixtoak, *zahartuagatik*, badu gogoia, indarra zaika falta.

(33) Larru-gorrian *ibilliagatik*, etziran batere lotsatzen; Etzuen alabaña gaitzkirik, ez eta gaitzerako griñarik ta gogorik.

Badirudi ez dela asko erabiltzen bizkaierazko testuetan.

• *-AN* amaiera ere hartu izan du *-TUAGATIK* menderagailuak Erdialdeko euskaran idatzitako testuetan:

(34) Arrantzale jendia beti dabill justu, *saiatubagatikan* ezin aberastu.

- Hona –GATIK postposizioaren aldaera batzuk: -gaitik, -gatican, -gaittik, -gaiti...

- Atzizki hau erabiliz kontzesio-perpausak eratzeko modu bakarra aditz jokatu gabea duena da, jokatu duena (*-*enagatik*) ez baita ia inoiz erabili adiera horretarako.

- Molde honetan ere, badira forma indartuak. Batetik, oso ohikoak dira *ERE* lokailuak indartutako kasuak: –*TUAGATIK (ERE)*:

(35) Baina zu bezelako aitaren semea, emazurtz *izanagatik ere*, ezin dateke gaizki.

(36) Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itotzen zegoela *esanagatik ere*, ura ukatzen zion.

Bestetik, baditugu perpaus nagusian lokailu aurkaritzako bat txertatutako kasuak:

(37) ezen hek teztuan aditzen diraden hitzak *izanagatik*, ez tiradela *ordea* textu gorputz berekoak, baina deklaragarri iarriak.

(38) Jendek *izanagatik* gutaz erraiteko, / *hargatik* sort herria ez dut mendratuko.

- Ezezko perpaus kontzesiozkoetan ere, bi eratara eman daiteke ezezko perpausa:

a) [aditz-partizipioa + *ez* + *agatik*]

(39) Ekarri *ezagatik* ezertxo etxera, beñik beñ pasatzen da umore ona.

b) [*ez* + aditz-partizipioa + *agatik*]

(40) Berak *ez izanagatik ere* oro gure erlisione berekoek, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure Fedeaz ematen ditugun ageri guziak.

- Kontzesiozkoak ez diren –*GATIK* molde batzuk

Aditz-izenari ere lotu dakiok *–GATIK* postposizioa, baina beste balio bat hartzen du halako moldeak: kausa-helburuzkoa (ikus *Kausazko eta helburuzko perpausak* atala).

(41) Autoa gaizki *aparkatzeagatik* zigortu naute.

(42) Eskerrik asko lanean *segitzeagatik*.

–*TU ARREN* egituran gertatzen zen bezala, mendekoaren balioa aldatu egiten da hartzen den oinarriaren arabera. Taula honetan ikus daiteke balio-aldaketa hori:

<i>ARREN:</i>	– KONTZESIOA:	<i>–tu arren</i>
	– HELBURUA / KAUSA:	<i>–tzearren</i>
<i>–GATIK:</i>	– KONTZESIOA:	<i>–tuagatik</i>
	– KAUSA / HELBURUA:	<i>–tzeagatik</i>

5. *ERE* LOKAILUA DUTEN MOLDEAK

Egitura jokatu gabe batzuetan, nahitaezkoa da *ERE* lokailua: horrekin bakarrik hartzen dute kontzesio-balioa atal honetako egiturek.

5.1. *–TUTA ERE* / *–TURIK ERE*

Partizipioan oinarritutako mendeko adberbial batzuei *ERE* lokailua erantsiz osatzen dira bi egitura hauek.

–*TURIK ERE* menderagailua batez ere Ekialdean erabiltzen da gaur egun (Mendebaldeko idazle batzuek ere erabiltzen dute), eta –*TUTA ERE*, Mendebaldean. Askok erabiltzen dira bi egiturak kontzesioa adierazteko.

–*TUTA ERE*

- (43) Agaitik diño Espiritu Santubak, gaztiak gaztetan artuten daben bidiari, *zaartuta bere* ez deusala itxiko.
- (44) Zur *egonda ere* beti zorigaitzak atzematen gaitu.

–*TURIK ERE*

- (45) Zure lana ederki *eginik ere*, ez dautzute eskerrik emanen.
- (46) Ageri diren guziak *suntsiturik ere*, balitezke oraino toki handi, eder eta distirantak, zeruko bidetan.

Perpaus hauen ezezko formak egiteko, aukera bat baino gehiago dago hemen ere. Taula honek biltzen ditu aukera guztiak:

– <i>TUTA ERE</i>	– <i>TURIK ERE</i>
– <i>EZ ...TUTA ERE</i> (<i>ez lortuta ere</i>)	– <i>EZ ...TURIK ERE</i> (<i>ez lorturik ere</i>)
– <i>TU EZTA ERE</i> (<i>lortu ezta ere</i>)	– <i>TU EZIK ERE</i> (<i>lortu ezik ere</i>)
– <i>TU GABE ERE</i> (<i>lortu gabe ere</i>)	– <i>TU GABE ERE</i> (<i>lortu gabe ere</i>)

5.2. –*TUZ GERO ERE*

Molde adberbial bat oinarri hartuz osatutako menderagailua dugu hau; –*TUZ GERO* baldintzazkoari *ERE* lokailua erantsiz osatzen dena.

- (47) Ez nuke nik, ahal izanez *gero ere*, inor joatera behartuko.
- (48) Eta ondo asmatu *ezkeru be*, uste dozu hogeit hamar egunetik hemeretzi eguztzen eztaben berba bat euskerazko berbia dala?

Kontzesio-balio garbia dute, baina ez dirudi oso egitura erabilia kontzesioa adierazteko. Askoz erabiliagoak dira *-TUTA ERE* eta *BA-... ERE* egiturak.

6. BANAKARITZA-EGITURAK

Banakaritza kasu guztietan balio bertsua dugu; orobatasunezko deitu dugun balioa dugu: berdin zaigu banakaritza-egituran aipatzen diren oztopoetako bata zein bestea gertatzen den, aditz nagusian adierazten dena gertatuko da. Hona zein diren aditz-partizipioa errepikatua duten banakaritza-egiturak:

- a. *Nahiz* A aditz-partizipioa, *nahiz* B (aditz-partizipioa), + Perpaus nagusia

(49) *Nahiz* goizean *joan*, *nahiz* arratsaldean (joan), lanean aurkituko duzu Peru.

- b. *Zein* A aditz-partizipioa, *zein* B (aditz-partizipioa), + Perpaus nagusia

(50) *Zein* bekatu guztia *ezkutatu*, *zein* estalgarriekin *eskusatu*, oro bat da.

- c. A aditz-partizipioa, B aditz-partizipioa, + Perpaus nagusia

(51) Goizean *joan*, arratsaldean *joan*, lanean aurkituko duzu.

- d. Aditz-partizipioa ETA aditz-partizipioa, + Perpaus nagusia

(52) *Ibili* eta *ibili*, eta ez zuen herririk ikusten.

7. KONTZESIO-PERPAUS JOKATUGABEEN TAULA

Hauek dira kontzesio-perpaus jokatugabeak (letra lodiz agertzen dira erabili-
lienak):

	<i>-TU</i>	<i>-TUTA / -TURIK</i>	<i>-TUZ GERO</i>	<i>-Ø (aditzoina)</i>
<i>NAHIZ</i>	<i>nahiz ...-tu</i>			<i>nahiz ... -ø (??)</i>
<i>ARREN</i>	<i>-tu arren</i>			
<i>-GATIK</i>	<i>-tuagatik (ere)</i>			
<i>ERE</i>		<i>-tuta ere / -turik ere</i>	<i>-tuz gero ere</i>	
BANAKARITZA	<i>nahiz ...-tu, nahiz ...-tu</i>			

5. MODUZKO PERPAUSAK

5.0. SARRERA

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak VI liburukian diogu moduzko perpau-sak esaten zitzaizela mendeko perpausen artean perpau nagusi batek adierazi-tako gertaera nola betetzen den adierazten duten perpausei; hala esaten zaizela gramatika tradizionaletan, eta berdintsu egingo genuela *EGLU VI* gramatikan.

Moduzko perpau-sak perpau nagusiaren osagarri zirkunstantzialak direla ere esaten da han, hau da, modua adierazten duten adberbio-perpau-sak, adjun-tuak. Moduzko adberbioek duten banaketa bera dute, eta haien orde-z erabil daitezke. *Honela, horrela* eta *hala* formen tokia har dezakete.

Liburuki horretan (*EGLU VI*, 287-300), moduzko perpau-s aditz jokatudu-nak landu ditugu, eta era honetako perpau-sak genituen hizpide:

- (1) *Hitz egiten duen bezala* idazten du.
- (2) Neure oroimenaren atean nago noiz zabalduko zain, *harentzat arrotz banintz legez*.
- (3) Jagi ginan mahaitik eta *gengozan moduan* abiatu ginan.
- (4) *Etorri zen antzera* joan zen.
- (5) Ha zan gu eta gure bertsoak goratu beharra! *Txapeldun ginakean* eran goratzen ginduezan.

- (6) *Esan duen moldean* egin du.
- (7) Mutiko gaixoa ikusi dut, *herrestan zabilala*.
- (8) Halatan hor-izan den oro, behin hor-date berriro, *lehen zen arau* (Mirande, *Orhoituz*, 62).
- (9) Huna beraz non naizen infernuan, dio *errabian dagoelarik* (Duhalde, *Meditacioneak*, 154).
- (10) Baiña mundua, *berak nai duan* gisa dabil, eta ez nik edo zuk nai genuen bezala (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 179).
- (11) Hemen naiz ene Jainkoarekin, *parabisuen izanen naizen bezala* (Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 179).

Liburuki honetan, aditz jokatugabea duten moduzko perpausez jardungo dugu; goiko horien balio berbera baina forma desberdina duten perpausez. Adibidez, era honetakoez:

- (12) *Giltza sarrailan sartuz eta hari buelta emanez* irekitzen da atea.
- (13) Lekukoak esandakoa entzun ondoren, *guztiz harriturik* geratu da epailea.
- (14) Egoera zaila dugu: aspaldion gabiltza *burua goratu ezinda*.
- (15) *Amaitu gabe* utzi zuen bazkaria.
- (16) Hori etxetik *atera nahi ezta* dago.
- (17) *Etxea erosi nahirik* etorri zaizkigu maizterrak.
- (18) Udalak, *gaia osoko bilkuran aztertu orde*z, bilerarik egin gabe onartu du.
- (19) Mendia ez genuen ezagutzen, eta luze ibili ginen *galdu aginean*.
- (20) *Bete ahala* husten zuen edalontzia oihanzainak.
- (21) Janaria kontrako eztarrira joan eta *ito beharrean* gelditu da.
- (22) *Hiltzeko zorian* egon da nire laguna istripua izan ondoren.
- (23) *Lanak egiteke* zenezkan gaur goizean ikusi zaitudanean.

Lehendabiziko adibide sortan, mendeko perpausako aditza jokatua dugu, eta aditz horri menderagailu bat erantsi zaio: *-eLA*, *-eLARIK*, *-eN...* Batzuetan, menderagailuari postposizioen bat ere erantsi zaio: *-eN ERAN*, *-eN BEZALA*, *-eN MODUAN*, *-eN ANTZERA*, *-eN LEGEZ*, *BA...* *LEGEZ* eta abar.

Bigarren adibide sortako perpaus mendekoak hartzen baditugu, ikusiko dugu aditz jokatugabeak dituztela; labur beharrez, honela izendatuko ditugu hemendik aurrera, atzizkiaren arabera: *-TUZ*, *-TUTA*, *-TURIK*, *-TU EZTA*, *-TU GABE*, *-TU EZINDA*, *-TU ORDEZ*, *-TU AGINEAN*, *-TU AHALA*, *-TU ARAU*, *-TU BEHARREAN*, *-TU BEHARREZ*, *-TZEKO ZORIAN*, *-TZEKE...* Liburuki honetan guztian bezala, *-TU* formak aditz-partizipio guztiak ordezkatzeko ditu, *-TU*, *-N*, *-I* eta bestelako amaierak dituzten partizipio guztiak. Ikusten dugun bezala, aditz-partizipioan oinarritutako adizkiak izango ditugu hizpide batez ere.

Molde hauetako bakoitzak bere erabilera eta balioa izango du, bakoitzak bere ñabardura emango dio perpausari, baina azken finean kapitulu honetan sartu ditugu guztiei aitortu diegulako nolabaiteko moduzkotasuna, nolakotasuna adierazteko gaitasuna. *EGLU VI* liburukiko definizioa gure eginez, “perpaus nagusiak adierazten duena nola betetzen den adierazten dutenak” dira moduzko perpausak. Betiere, jakinik “modu” kontzeptua ez dagoela guztiz mugatua, ez dagoela guztiz bereizita beste kontzeptu batzuetatik (baldintza, kausa eta abar).

Berez, halakoak dira moduzko perpaus garbiak; baina ikusiko dugu guztiak ez direla maila berean moduzko, nolabait esateko, denek ez diotela definizio horri estuki jarraitzen.

- Moduzko perpaus garbiak: modua era garbian adierazten dute honako bi perpaus menderatuek:

(24) *Giltza sarrailan sartuz eta hari buelta emanez irekitzen da atea.*

(25) *Burua altxatuta lortu dut Andoni ikustea.*

Har dezagun kontu hau azaltzeko anbigua den adibide hau:

(26) Andoni ikusi dut *burua altxatuta*.

Letra etzanez eman dugun mendeko perpausa moduzko garbia izan daiteke, baldin eta “NOLA ikusi dut Andoni? NOLA lortu dut Andoni ikustea?” galderi erantzuten badio: NOLA ikusi dut? Burua altxatuta. Alegia, nik altxatu dut burua, eta halaxe lortu dut Andoni ikustea.

Perpaus horrek badu, ordea, beste interpretazio bat, letra etzanen erabilera-
ren bidez aditzera eman nahi duguna:

(27) Andoni ikusi dut *burua altxatuta*.

Alegia, burua altxatuta duena ez da perpaus nagusiko subjektua (ni), Ando-
ni baizik. Perpausoko osagai bati buruzko bigarren mailako predikazioa dugu
hor: ez dugu esaten NOLA jazo den aditz nagusiak adierazitako gertaera (ikus-
tea), baizik NOLA ZEGOEN perpausoko osagarrietako bat. Edonola ere, ba-
dugu hor nolabaiteko nolakotasuna, eta horregatik bilduko ditugu halako ka-
suak ere kapitulu honetan.

- Horiek dira bigarren maila batean moduzkotzat hartuko ditugunak: per-
pausoko osagai bati buruzko predikazioa egiten dutenak. Goiko adibide hura
bera, adibidez:

(27) Andoni ikusi dut *burua altxatuta*.

Adibide honetan, –*TUTA* moldea daraman perpaus menderatuak *Andoni*-ri
buruz egiten du predikazioa, eta ez du esaten NOLA gertatu den aditz nugu-
siak adierazten duen gertaera.

- Badira “moduaren” kontzeptu garbitik are urrunago doazen perpausak
ere. Horien artean, bada bat nahikoa urruntzen dena, kausa-azalpenetik ia

zentzu ilatibo hutsera lerratzen dena; ondokotasunezko esan diezaiekegu halakoei:

(28) *Hori ikusirik*, etxean geratu da. [hori zela eta / hori **ikus**i, **eta**]

(29) *Hori ikusita*, etxean geratu da. [hori zela eta / hori **ikus**i, **eta**]

Esanahiaren lerratze nabarmen hori gorabehera, moduzkoen sailekotzat jo daitezke halakoak ere:

(30) *Hori jakinik/jakinda*, lasaiago gaude.

(31) Mutikoak, *zuhaitzera igorik/igota*, gereziz bete zuen saskia.

Jakina, molde horietako guztietako perpausak komaz bereizten dira predikazioaren gunetik, tarteki modura txertatzen baitira esaldian. Horregatik, doazen esaldian ez dira *NOLA* galderaren erantzun izango inolaz ere, ez eta galdegai ere.

Denbora-ondokotasunezko interpretazioa nagusituko da narrazioan:

(32) Mutikoak, *zuhaitzera igorik/igota*, gereziz bete zuen saskia.

(33) Mutikoak, *zuhaitzera igo, eta* gereziz bete zuen saskia.

Bestelakoetan, ondoriotasunezko interpretazioa nagusituko da, “modu”tik hurbilago eta kausa-kutsuz:

(34) *Hori jakinik/jakinda*, lasaiago gaude.

(35) Hori dakigularik/dakigunez, lasaiago gaude.

• Orain arteko adibideetan, erreferentziakidetasuna zegoen perpaus nagusiko eta menderatuko subjektuen artean (subjektu bera dute bi perpaus), baina, logikoa denez, are zailagoa da modu-adiera garbia esleitzea erreferentziakidetasunik gabeko esaldiei:

(36) *Erromatarrek Kartago errerik/erreta*, beste bide bat hartu zuen historiak.

Beraz, modu-adiera garbikoak izan nahiz modu-adieratik urrunagokoak izan, guztiak aztertuko ditugu kapitulu honetan, behin haien arteko hasierako bereizketa hori garbi utzita.

Moduzko moldeen banan-banako azterketan, ez dugu erabiliko beste kapitulu batzuetan erabili dugun hurrenkera: aditzoinetan oinarritutakoak lehenbizi, aditz-partizipiodunak ondoren eta aditz-izenak dituztenak amaieran. Moduzkoen kapitulu honetan, aldatu egingo dugu hurrenkera hori, ia anekdotikoak baitira aditzoinaren gainean eraikitzen diren moduzko formak eta erabilienak baitira aditz-partizipioan oinarritzen direnak. Hau da, beraz, erabiliko dugun hurrenkera:

- Aditz-partizipioa oinarri dutenak.
- Aditz-izena oinarri dutenak.
- Aditzoina oinarri dutenak.

5.1. ADITZ-PARTIZIPIOA (–TU) OINARRI DUTEN MODUZKO MOLDEAK

Moduzko perpaus jokatu gabeen lehen multzoa aztertuko dugu atal honetan, moduzkoetan nagusi dena.

–*TURIK*/–*TUTA* eta –*TUZ* dira atzizki nagusiak moduzko perpausak aditz-partizipioa oinarritzat hartuz osatzeko; horiekin batera, postposiziodunak ere izango ditugu hizpide, partizipioaren formari (–*TU*) postposizio bat gehituz lortzen direnak: –*TU AHALA*, –*TU GABE*, –*TU BARIK*, –*TU BEHARREAN*, eta abar.

Gatozen, lehenik eta behin, –*TURIK* eta –*TUTA* atzizkiak aztertzeraz.

5.1.1. *-TURIK* eta *-TUTA*

-TUZ-ekin batera, moduzko gertaera burutuak adierazteko forma ohikoenak dira bi hauek.

EGLU VI liburukian esaten da euskaraz moduzko perpausik arruntenak perpaus jokatugabeak direla; oso arruntak dira bereziki *-TURIK* eta *-TUTA* atzizkien bidez osatutako perpaus mendeoak.

Baliokide dira esanahiz *-TURIK* eta *-TUTA*, eta, forma-desberdintasunaz gain, bien arteko alde bakarra distribuzio dialektalarena da: ez dute bestelako desberdintasun nabarmenik.

Gatozen bi moldeak banan-banan aztertzeraz.

5.1.1.1. *-TURIK*

Aditz-partizipioari *-RIK* atzizkia gehituz osatzen da molde hau. Modubalioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen da; modu garbia edo, sarrerako atalean azaldu dugun bezala, moduzkotasun-maila horretatik pixka bat aldentzen dena: biak adieraz daitezke molde honen bidez. Zuzenean edo zeharka, beraz, NOLA galdera dago hor azpian.

-RIK atzizki horrek berak sortzen ditu moduzko (nolakotasunezko) adberbioak ere: zenbait izeni edo izenondori atzizki hori erantsiz lortzen ditugu moduzko adberbio batzuk: *zabalik, hutsik, isilik, bizirik, gaixorik, biluzik, pozik, zutik...*

Funtzio sintaktiko bera dute adberbio hauek eta moduzko perpaus mendeoak (*-TURIK* moldearen bidez osatzen direnek).

(37) Botila *hutsik* ikusten dugu. (ADBERBIOA)

(38) Gure laguna *nekatu rik* ikusten dugu. (*-TURIK*)

Gatozen, molde honen erabileraren berri ematen hasteko, adibide batzuetara:

- (39) *Leher eginik* ailegatu ginen Baigurako tontorrera.
- (40) *Nazkaturik* nago beti gauza bera aditzeaz.
- (41) *Lagunen portaera ikusirik*, bakarrik ibiltzea erabaki zuen.
- (42) Lekukoak esandakoa entzun ondoren, *guztiz harriturik* geratu da epailea.
- (43) *Ikusitakoa burutik ezin kendurik* etorri zen aireportutik.

Euskal literaturako testu klasikoetan ugari ageri da atzizki hau, Ekialdean zein Mendebaldean, euskararen eremu osokoa baita –*TURIK* moldea:

- (44) Bi aingeru agertu zitzaizten gizonaren iduriaren azpian erran ziotenak: gizon Galilearrak, zer hari zarete hor *begiak zerurat altxaturik?* (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia*, 297).
- (45) Zabalduko da Liburutzarra daukazana *ezarririk berba, egitadeak, gogamenak gelditu barik aazturik*; andik munduko gauzen epaia geldituko da *argiturik* (Azcue, *Parnasorako bidea*, 29).
- (46) Ispiritu mei, beste mundukoak, gaiaren eta itxuraren bitartekoak an zebiltzan arat-onat, *argilarrainez inguraturik* (Orixe, *Mireio*, 71).
- (47) Ixil, begi-kuku, burua makurrik, arkume salgai antz or-emenka daude zenbait jaun andere, *goi-miñak arturik* (Orixe, *Olerkiak*, 524).
- (48) *Lili-gañean erle bat orain ego txabalez jarririk* eztigai ona miazten dago aren barne xamurretik; iñork al daki maita badira *berengaiç ezaguturik* (Arrese Beitia, *Olerki berrizte*, 26).

Egia da garai berriagoetan –*TUTA* moldea erabiltzen dela gehien bat Hegoaldean, baina argi utzi behar da Hegoaldekoa ere badela –*TURIK* atzizkia, Hegoaldeko testu klasikoetan ere aurkituko dugula.

Aditz modalen gainean ere eratzen ahal da: *nahi*, *gura* eta *ezin*. Hona adibide batzuk:

(49) Mikel oposizioetara aurkeztu da *lanpostua lortu nahirik*.

(50) Txakur bat egoan kalean, etxera *sartu gurarik*.

(51) Bide onera *itzuli ezinik* dabil azken aldi honetan.

• *-TURIK*-en bidez eratzten diren perpausak ezezko forman ematean, ez da ohikoa *EZ ...-TURIK* erako egitura: *(?)ez eginik, (?)ez etorririk...*

Adibide hau hartzen badugu, argiago ikusiko dugu kontua:

(52) *Lagunen aurrean diru guztia jokaturik* jo zuen hondoa.

Perpau hau bitxi samarra gertatzen da ezezka honela emanda:

(53) ? *Lagunen aurrean diru guztia EZ jokaturik*, aurrera egin zuen.

Ez da zuzena, era berean, beste egitura ezezko hau ere, modu-adieran: *-TU EZIK*. Ikus dezagun:

(54) #*Lagunen aurrean diru guztia jokatu EZIK*, aurrera egin zuen.

Molde horrek baldintza-balioa du beste ezeren gaineratik, ezezko baldintza adierazteko erabiltzen da, eta ezin dugu erabili moduzko perpau bat ezezko forman jartzeko.

Ezintasuna adieraz daiteke antzeko moldeen bidez (*-TU EZINIK, EZIN ...-TURIK*), baina ezeztapen arrunta egin nahi bada, bide arruntena *GABE* edo *BARIK* postposizioetara jotzea da: *-TU GABE, -TU BARIK*.

• *-TURIK ERE* kontzesiozkoa

Moduzko perpau hauen oinarri bera izan arren, kontzesio-balioa du molde honek. Liburuki honetan aztertu dira halakoak, kontzesio-perpau jokatu-ga-beetan; hona adibide batzuk:

- (55) Itz laburtxuak *izanik ere*, oriek jakin biar dira noiz ta nola esan (Beovide, *Asisco Loria*, 166).
- (56) Zer ari da gizona mundu guzia *bereturik ere*, arima galtzen badu? (Laphitz, *Bisaindu hescualdunen bizia*, 127)
- (57) Hogoï, hamabortz, hamar, bia, bat, batere; / Bihi bat ez ageri, *bilhaturik ere* (Hiribarren, *Eskaldunac*, 62).

5.1.1.2. –TUTA

Modu-balioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen da –TUTA atzizkia, eta, aurreko atalean esan dugun bezala, –TURIK-en baliokidea da esanahiz: distribuzio dialektalak baino ez ditu bereizten.

Lekukotasun idatziei erreparaturik, eta esparru geografikoari gagozkiola, esan daiteke –TUTA moldea Hegoaldeko tradiziokoa dela, ez dela Iparraldeko testuetan ageri. Ez du esan nahi, ordea, Hegoaldean –TUTA bakarrik erabiltzen denik, esan berri dugun bezala: –TURIK moldea duten perpausak orokorrrak dira historikoki, euskararen esparru guztietakoak, nahiz gerora, garai berriagoetan, –TUTA nagusitu zaion Hegoaldean.

Hona –TUTA moldearen adibide batzuk:

- (58) *Lan asko eginda* iritsi da lanpostu horretara.
- (59) *Leher eginda* gaude ibilaldi luzea egin ondoren.
- (60) *Buruan ongi jarrita* darama txapela aitonak.
- (61) *Lagunaren portaerarekin etsita*, kasurik ez egitea erabaki genuen.

Hona, berriz, literatura-tradizioko batzuk:

- (62) Sarrittan ibilli bearkok astebetean soñekoak legortu бага, *txititean-pititean urretan barruan sartuta* (Echeita, *Josecho*, 94).

- (63) Kalte andirik izango ote zenduan, *Meza enzuten errian geratuta?* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 2, 59).
- (64) Oin bateko oñetakoak kendu, galtza iztarreraño ekarri ta zanko zuria zintzillik utzi zuan *uretan sartuta* (Anabitarte, *Poli*, 15).
- (65) Lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu *hauts bihurtuta* (Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 335).
- (66) Baiña jaramonik egin barik, pozik eta barreka joan ziran euren kobetara, *zorroa lepuan artuta* (Alzola, *Atalak*, 44).
- (67) Eta ura ere joan zan sermoira, *talo bat kolkoan artuta* (Anduaga, *Aitonaren uzta*, 47).

• Nola ematen dira *-TUTA* moldea duten perpausak ezezko forman? *-TURIK* moldea ezezkoan emateko modu berean adierazten da ezezkoasuna *-TUTA* moldearen kasuan ere. Modurik arruntena, *-TU GABE* moldea erabiltzea da (bizkaieraz, *-TU BARIK*).

- (68) Telebista *ikusi gabe* ere ondo bizi daiteke.
- (69) Telebista *ikusi barik* bere ondo bizi leike.

[*-TU* + postposizio] egiturei buruzko atalean, ezezkoiei eskainitako azpiatlean (ikus 5.1.4.3.) aztertzen dira ezezko forma hauek guztiak.

Bestalde, *EZ* partikula ezezkoa txerta daiteke moldearen bi parteen bitartean ere:

-TU + EZ + -TA → *-TU EZTA*

Ez da beharbada molderik erabiliena, baina Hegoaldeko zenbait lekutan arruntak dira era honetako egiturak. Hona adibide pare bat:

- (70) Hori etxetik *atera nahi ezta* dago.
- (71) Telebista *ikusi ezta* ere ondo bizi daiteke.

- *-TUTA ERE* kontzesiozkoa

Moduzko egitura hauen oinarri bera izan arren, balio kontzesiozkoa du molde honek. Liburuki honetan aztertu dira halakoak, kontzesio-perpaua jokatugabeetan; hona adibide batzuk:

(72) Egiñalak *eginda ere*, ezin astoa mogitu (Mujica, *Pernando Amezketarra*, 68).

(73) Zur *egonda ere* beti zorigaitzak atzematen gaitu (Orixe, *Mireio*, 111).

Modu-kutsua badutela ezin dugu ukatu, baina batez ere kontzesio-balioa da nagusitzen dena (eginahalak egin ditugu, baina, hala ere, ezin izan dugu astoa mugitu), eta horregatik aztertu ditugu halakoak kapitulu hartan.

- Badira, *-KO* atzizkia erantsirik, *-TUTA* oinarriztat hartzen duten molde batzuk ere; modu-adiera duten postposizio batzuekin agertu ohi da oinarri hau, eta moduzkotzat jo behar dira: *-TUTAKO ERAN*, *-TUTAKO MODUAN*, *-TUTAKO LEGEZ*. Hona zenbait adibide:

(74) *Esandako moduan* dana egiten baduzu, arratsaldeko zazpiretan arkituko duzu semea zuhaitz handiaren ondoan (Oskillaso, *Kurloiak*, 25).

(75) *Ofizialenak* izena ere ematen diote ta Eskualtzale-Biltzarra'k *argitaratutako eran* ipintzen degu (Orixe, *Euskaldunak*, 279).

(76) Aldapearen goenera eldu ziran eta an egoan lautada ezagunean gero ta aguroago yoiazan, leenago *esandako eran* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 86).

Formaz desberdina izan arren, balio bera du partizipio-oinarria duten postposiziozko moldeetan bilduko dugun egitura honek ere: *-TU BEZALA*.

Hauek guztiak, *BEZALA*, *MODUAN*, *LEGEZ*, *ERAN*..., *EGLU V* liburukian aztertu ditugu luze eta zabal, eta hemen testigantza batzuk besterik ez dugu jasoko (5.1.4.4. azpiatalean): aditz laguntzailearen elipsiaren ondorioz laburtutako perpaua jokatuak ditugu, azken finean, eta *EGLU V* liburukian izango du irakurleak molde hauen guztien berri zehatzagoa.

• *NAHI IZAN* aditzaren gainean emanda, *NAHITA* forma lexikalizatua osatzen du atzizki honek:

(77) *Nahita* egin zuela konturatu ginen geroago.

Esan bezala, lexikalizatutako adberbioa da *NAHITA*, eta ezin du aurretik beste aditz bat hartu. Okerrak dira, beraz, honako hauek:

(78) *Gure elkartean sartu nahita dabil aspaldion.

(79) **Lana laster bukatu nahita* ibili da igeltseroa, eta gero komeriak!

Forma horren ordeaz, *nahirik* edo *nahian* erabiltzen da:

(80) Gure elkartean *sartu nahirik/nahian* dabil aspaldion.

(81) Lana laster *bukatu nahirik/nahian* ibili da igeltseroa, eta gero komeriak!

5.1.2. *-TUA(K)*

Partizipioak, beren adjektibo funtzioan, aditzondoak ez bezala, ezin dira erabili biluzik, atzizkirik (*-TA/-RIK*) edo artikulurik (*-A(K)*) gabe:

(82) Triste(rik) daude. / Zapuztuta/zapuzturik daude. / *Zapuztu daude.

(83) Triste(a) dago. / Zapuztua dago. / *Zapuztu dago.

Erabilera horretan, artikulua ez du berezko determinatzaile-esanahirik: adjektibo-funtzio hori markatzera dator, halakoetan ohi denez singular/plural komunztadura duela:

(84) Apaina da. / Apainak dira.

(85) Apaindua da. / Apainduak dira.

Esan bezala, partizipioaren kasuan, ezin liteke ken artikulua, partizipioa biluzik utziz:

(86) Apain da/dira.

(87) #Apaindu da/dira.

Hor bezala, *izan* (zein *ukan*) aditza badator segidan, aditz perifrastikotzat hartzen da segida [partizipio + aditz laguntzailea (*izan/ukan*)]:

(88) #Behartu dira/dituzte.

Interpretazio hori haustera dator hor artikulua:

(89) Behartuak dira/dituzte.

Hori horrela, argi samar ageri da ez dagoela urrun artikulua erabilerara hori *-TUTA/-TURIK* atzizkien erabileratik.

Jakina, atzizkiok ez dira bateragarri (oro har, zubereraz eta beste hizkera bakanen batean izan ezik) *izan/ukan* lotura-aditzekin:

(90) *Ahantzirik/ahaztuta dira/ditugu.

(91) Ahantzirik/ahaztuta daude/dauzkagu.

(92) Ahantziak dira/ditugu.

Mendebaldean, exotikoa da, gaur egun behinik behin, Ekialdeko azken joske-
ra hori [partizipioa + *-a(k)* + *izan/ukan*], eta *egon/eduki* aditzetara jotzen da.
Aditz horiekin, berriz, eta predikazio atributiboa onartzen duten beste aditzekin
(*ibili, iruditu, aurkitu, ikusi...*), hauek dira Ekialde/Mendebalde aukerak:

(93) Ahantziak/ahantzirik zeuden/zebiltzan.

(94) Ahaztuta/ahazturik zeuden/zebiltzan.

Orokorra, beraz, [partizipioa + *-RIK*] moldea dugu. Hala ere, Mendebaldean, [partizipio + *-TA*] moldea nagusitu zaio ia erabat. Jakina denez, *-TA* atzikia exotikoa da Ekialdean, eta gauza bera gertatzen da Mendebaldean, prosa landutik kanpo [partizipio + *-a(k) + egon/ibili/...*] moldearekin.

Horiek horrela, esan beharra dago artikuluz baliatzen diren halako joskerak Ekialdekoak direla soilik, izatez. Baliatzen diren esparru horretan, hala ere, badituzte erabilera batzuk beren horretan ordezkagaitzak (*-TURIK*-etik guttiz hurbil).

Hori nabarmentzeko, aski dateke Laphitzen pasartetxo hau:

- (95) Malacan bezenbat mirakulu nihon ez zuen egin. Eri bati, hitz altxagarri zonbait erran ondoan, eskua hartzen dio, eta horra eria sendatua. Berheala berria barreatzen da, aita handiaren hunkitzea aski dela, zer nahi gaitzetarik sendatua izaiteko. Orduan, arrangurarik duten guziek aita handiaren ganat nahi lukete heldu, eta eskua ez badezokete, bederen sotana hunkitu. Zorion hori duten guziak, sendatuak itzultzen dire. Bidearen erdian baratzen dute, eriak ekharzen diotzate, othoi hunki ditzan, othoi benedikata ditzan; eta heien othoitzez eta nigarrez hunkitua, eriak hunkitzen ditu, benedikatzen ditu, eta gaitz guzietarik sendatzen. Eria kanporat ezin ekharria denean, aita handia barnerat sarrarazten dute. Aita handiak erier manatzen du jeiki diten, ibil diten, eta eriak jeikitzen dire, ibiltzen dire.

Egun batez, ama bat heldu zaio, alaba galdurik nigar marrasketan (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 213).

Azkenekotik hasita, *galdurik* nonahikoa, alde handirik gabe ordeztu daiteke, bai alde batera (*galduta*), bai bestera (*galdua*).

Goraxeago, *sendatuak itzultzen dire* ere aisa ekar daiteke beste joskeretara, trukagarri baitira halakoetan: *sendatuak/sendatuta/sendaturik itzultzen dira*.

Halakoak, kokapena kokapen, moduzko kanonikoak dira: *nola/horrela (heldu, itzuli)*.

Gorenekoa, berriz, *horra eria sendatua* ez dago hain garbi. Zuzen eta ego-kiak dira noski beste hauek ere:

(96) horra (hor) gaixoa sendatuta/sendaturik

Baina artikuludunak, horiek ez bezala, bigarren segmentazio bat ere onar-tzen du (eta horren arabera izaten da zentzua):

(97) horra eria [sendatua/sendaturik/sendatuta]

(98) horra [eria sendatua/*sendaturik/*sendatuta]

Alegia, honelako parafrasitik hurbil:

(99) horra (nola) eria sendatua (den)

Izan ere, segmentazio eta adiera horretan, alderantzizko hurrenkeran ere joan daitezke osagaiak:

(100) horra [sendatua eria]

(101) horra (hor) [sendatuta/sendaturik] [gaixoa]

Horren hurrengo, zer nahi gaitzetarik sendatua izaiteko perpausean, zentzu pasiboan interpretatzen da hor, eta, aipatu dugunez, aukera bakarra da ha-lakoetan (hizkerak hizkera) artikuluduna:

(102) *sendatuta/sendaturik izateko

Interesgarriena, hala ere, azkenerako utzi duguna da. Izan ere, artikuluduna ordeztzen badugu, zuzen eta egokia da noski esaldia (bi zentzutan ageri da ja-rraian hunkitu: zirrarratu/ukitu):

(103) ...heien othoitzez eta nigarrez hunkitua, eriak hunkitzen ditu, benedikatzen ditu...

- (104) ...haien otoitzez eta negarrez hunkituta/hunkiturik, gaixoak hunkitzen ditu, benedikatzen ditu...

Esan bezala, zuzen eta egokiak dira moldeok guztiok, baina artikuludunak ez du nahitaez beste bien zentzu bera beti.

Halako erabileran, *-TUTA* zein *-TURIK* moldekoetan, haiei dagokien atalean ikusi dugunez, denbora-ondoriotasunezko interpretazio batera etor daiteke mendeko perpausaren eta haren perpaus nagusiaren gertakarien arteko jokia, moduzkoa aurretik eta tarteki gisa doanean.

Bestela esanda, narrazioaren bi item izan ditzakegu esanahiaren aldetik, aditz isiltzean zein *eta* enklitikoarekin bezalatsu:

- (105) Mutikoak, arbolara igo, eta sagarrari heldu zion.
(106) Mutikoak, arbolara igo eta, sagarrari heldu zion.
(107) Mutikoak, arbolara igota/igorik, sagarrari heldu zion.

Denbora-ondoretasunezko interpretazio-aukera horrek ez du eragozten moduzko interpretazio kanonikoa ere, hots, kasu horretan, *sagarrari horrela (arbolara igorik (zegoela)) heldu*, baina hor dago, eta, anbiguotasunak gorabehera, guztiz ohikoa da zentzu narratibo hori baliatzea halako perpausekin.

Artikuludunera itzulita, berriz, hona zer den haren alde ezaugarria: artikuludunak ezin du hartu zentzu narratibo-edo hori, eta deskriptiboki ulertzen da beti.

Ez dira sinonimo, beraz, honelako pareak:

- (108) Mutikoak, arbolara igoa (zegoelarik/baitzegoen), sagarrari heldu zion. [deskriptiboa: gertakari bakarra, moduzkoak iruzkindua]
(109) Mutikoak, arbolara igo (zen), eta sagarrari heldu zion. [narratiboa: bi gertakari]

Halakoetan, bada, ez dira sinonimo artikuluduna eta bestelako moduzkoa. Esanahi-alde hori dela eta, artikuluduna da aukera bakarra narratiboki interpreta ez daitezkeen testuinguruetan:

- (110) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazia, ez zuen ohitura haren berri.
- (111) *Neskatoak, kanpoan jaio eta hazita/hazirik, ez zuen ohitura haren berri.

Iradoki dugunez, izan/egon aditzen baten isiltzearekin lot daiteke joskera hori, eta hura agerian ematea litzateke halako joskerarik ez darabilten hizkeren aukera:

- (112) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazia (zelarik / baitzen / zen eta), ez zuen ohitura haren berri.
- (113) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazi(a) zen eta, ez zuen ohitura haren berri.
- (114) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazi(a) zenez, ez zuen ohitura haren berri.

Beste auzi bat da ea zer sintagma motarekiko erreferentziakidetasunez erabil daitezkeen halakoak (zehazkiago, zer kasutan egon daitezkeen aurrekaria).

Aditz-isiltzearen kasuan, garbi dago subjektua bakarrik izan daitekeela sintagma hori. Itxura batean, *-TUA(K)* moldekoek ere joera bera dute:

- (115) Mutikoa(k)/*mutikoarentzat/*mutikoarekin, familia onean jaioa/jaiorik/jaiota...

Objektua ere ez da gai halakoak hartzeko (ergatibozko subjektuak hartzen du erreferentziakidetasuna):

- (116) #Mutikoa, arbolara igoa/igorik/igota, begirik kendu gabe zelatatzen zuen baratzezainak.

Jakina da, hala ere, datibo batzuk subjektuetara asimilatzen direla, eta ba-dirudi halaxe gertatzen dela kasu honetan ere:

(117) Mutikoari, bestela ohitua, ez zitzaion bururatu halakorik.

Ez dirudi, bada, berezko muga formalik dagoenik, baina bai subjektuak direla aurrekari kanonikoak. Bestela esanda: subjektuena izaten den rol semantiko hori betetzen dutenak dira aurrekari, nahiz morfosintaxiari dagokionez ez izan subjektu.

Kontuak aterata, bestalde, esan beharra dago badirela guztira hiru joserak guztiz desberdin (mendeko perpaus jokatugabeen sail banatakoak), zein bere adierarekin, hirurak partizipioan oinarrituak, hots, forma berekoak:

- 1) Erlatibozkoa: (*erraz ahazten da*) *horrela ikasia* [=ikasitakoa, ikasi d(u)ena]
- 2) Osagarria: (*damutu zaio*) *horrela ikasia* [=ikasi izana]
- 3) Moduzko tartekia: (*gazte gaixoak,*) *horrela ikasia* [=ikasia izaki/baita/delarik] (, *ezin zuen bestela jokatu*)

Erlatibozkoak joko guztia du: singular/plurala eta edozein kasu-marka.

Osagarriak ez du onartzen pluralik, baina bai kasu-marka gehienak.

Moduzkoak ez du onartzen kasu-markarik, baina singular/plural jokia bai (aurrekariaren arabera).

Moduzkoa, hala, hurbilago dago joskeraz *-TUTA/-TURIK* bere kideetatik, formaz (absolutiboan) berdinak diren beste horietatik baino; forma finkoa du, kasuz jokaezina (numeroa gorabehera). Izan ere, eman dugun parafrasiaren ildotik doa bi moldeen arteko alde formala:

(118) **Ikasia** da(go). / **Ikasiak** dira/daude.

(119) **Ikasirik** dago/daude.

(120) **Ikasita** dago/daude.

Esanahiari dagokionez –eta eman dugun parafrasiaren ildotik, berriro ere–, atribuzioarekin lotuago dago –*TUA(K)*, testuinguru beretan, –*TURIK/–TUTA* moldekoak baino (aurrekariaren nolakotasun bat predikatzen du, nolabait), eta, beraz, hurbilago geratzen da moduaren ideiatik, ia erabat galtzen baita ideia hori zentzu narratiboa nagusitzen denean (eta, aurrekariren batekiko lotura ere ez da nahitaezkoa halakoetan):

- (121) Erromatarrek azpiratuak/azpiraturik [hala baitzeuden *kartagotarrak*], *kartagotar* askok alde egin zuten.
- (122) *Erromatarrak* nagusiturik [nagusitu eta], *kartagotar* askok alde egin zuten.
- (123) **Erromatarrak* nagusituak, *kartagotar* askok alde egin zuten. [aurrekariak (kartagotarrak) ez du lekurik –*TUA(K)* perpaus horretan].

Hain zuzen ere, askatasun sintaktiko horrek gaitzen du –*TURIK/–TUTA* moldea (aurrekari-lotura beharrik ezak, alegia) *eraikuntza absolutu* delako joskerarako. Izan ere, halako erreferentzia-uztardurarik ezak ematen dio izaera hori eraikuntza horri, *absolutu* hitzak *solte* esanahi baitu hor.

Aldiz, ikusi dugunez, –*TUA(K)* perpausa beti doa aurrekari bati lotua, harekin komunztaturik numeroz. Esanahiz ere, esan bezala, denbora-ondoreta-sunezko adiera –*TURIK/–TUTA* moldearekin dago lotua (solte samar doanez perpausa, erraz bereizten da *beste gertakari bat* (eta ez *nolakotasun bat*) perpaus nagusiak adierazten duen gertakaritik.

Hona Laphitzen beraren beste adibide batzuk (aurrekaria da denetan perpaus nagusiaren subjektua; lehenbiziko adibidean, ergatibozkoa: *hark*).

- (124) *Bere baitharik atheraia, Jainkoa baithan galdua*, hainbertze nigar egiten zuen, non begiak eritu baitzizaizkon.
- (125) Untzia *ordukotz urpe egina*, goiti heldu da, bera eta bere gizon guziak oso.

Ikus aldea:

(126) Ontzia, (bat-batean) urpe *eginik*, gora dator (gero).

(127) Ontzia, (ordurako) urpe *egina*, gora dator (atzera).

5.1.3. *-TUZ (-TUAZ)*

Partizipioari instrumentalaren marka (*-Z*) erantsiz lortzen da moduzko perpaus jokatu gabe hau. Balio beza orain idatzi berri dugun esaldi honek adibidetzat:

(128) Partizipioari instrumentalaren marka (*-Z*) erantsiz lortzen da moduzko perpaus jokatu gabe hau.

NOLA lortzen da moduzko perpaus hau? Partizipioari instrumentalaren marka (*-Z*) erantsiz. NOLA galderari erantzuten dio forma horrek: ... *erantsiz*.

Gauza bera gertatzen da instrumental-marka duten hainbat adberbio moduzkorekin ere: *nekez, berriz, zinez, oinez, gogoz, berariaz*... Halakoek *-Z* instrumentalaren bidez lortzen dute modu-adiera: adberbio hauek *-Z* marka izenki bati erantsiz, eta moduzko perpausok perpaus bati (edo perpausaren aditz jokatu gabe) erantsiz: *-TUZ*.

Atalburuan *-TUZ* eta *-TUAZ* formak eman ditugu: bien arteko banaketa zeren arabera gertatzen den zehazki ez dakigularik, esan behar da forma mugatuan eta mugagabeen erabili izan dela molde hau: alde batetik, *-TUZ (-TU + -Z)* eta beste alde batetik, *-TUAZ (-TU + -A + -Z)*.

Beraz, *-TUZ* eta *-TUAZ* formak aurkituko ditugu gure literatura-tradizioan; erabilera baliokidean aurkitu ere. Iparraldean ez da *-TUAZ* erabiltzen, eta Hegoaldean biak erabiltzen dira, *-TUZ* eta *-TUAZ*. Literatura-tradizioan, *-TUAZ* dago zabalduagoa Hegoaldean, baina gaur egungo erabileran *-TUZ* ari zaio nagusitzen.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (129) *Lan eginez* dirua egiten dela esan dit amonak.
- (130) *Marmarka ari izanez* deus guti erdietsiko dugu.
- (131) Batzuk *leituz* ilustratzen dira; beste batzuk, aldiz, *entzunez*.
- (132) Euskara bera indartzen da *euskalkien ekarria aprobeixatuz*.
- (133) *Aldeko haizea baliatuz* jaitsi dute aldapa bizikletariek.

–TUZ:

- (134) Hekien artean zegoen, beharriak landaturik, *papera eskuan, entzun guziak izkribatuz* (Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 8).
- (135) Ile-izarra ezagutuko duzu *azienden ixter-arteari gibeletik ongi begiratuz* (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 245).
- (136) Eskerrak bihurtu ondoan, barnez egin zuten elizaren ingurua, *aldare guzietan othoitz egiten baratuz* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 189).
- (137) Azitik dator ordea landarea, ta aizpak *bere amaren jokaeran ikasbide artuz* lotsagarriro zapuztu zuten (Etxaide, *Alos Torrea*, 93).
- (138) Bire Erakusletako Biblia bakarrik ezagutzen dute, an diona *bakoitzari zaion bezala artuz* (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 96).
- (139) Jaunaren itzak jauzi egin zun, *aragia artuz*, mundura; gure gizon ook otoi-tzarekin egaz ein dute zerura (Orixe, *Euskaldunak*, 424).

–TUAZ:

- (140) Ala ere, *tostak kendu ta lasaiki aztertuz*, zuloa non egin erabaki zuan (Anabitarte, *Poli*, 33)
- (141) *Egunero ordulaurden bat erlejuk atzeratuz* iritxi ziran Cuba izena dun erkalaren parera (Irazusta, *Bizia garratza da*, 28).
- (142) *Oña doi doi aldatuz, eta eskuan zeraman argia ozta eramanez*, bere nagusiaren aurretik nolabait eskallerak igo zituen (Arrue, *Santa Genoveva*, 95).

- (143) Orain langintza biak utzirik bere jaiotetxean, JAUREGI'n, *kondaira zarra ta euskera aztertuz* bizi dana (Labayen, *Euskal-Eguna*, 62).
- (144) *Aitatuaz* bakarrik dart dart daukadaz neure erraiak (Azkue, *Bein da betiko*, 57).
- (145) Emen sartuta San Adrian'en irudie ipinten eudien andetan, onen tokien Pedro deunarena itxirik; martiri orren irudiegaz atzera Ipiñerako bide artzean eudien, ibillien ibillien letaniek *abestuez* barriro be (Akesolo, *Ipiñatarren barri*, 21).

- *-TZEZ*: aditz-izenean oinarritutako forma

-TUZ eta *-TUAZ* moldeen parekoa izan daiteke *-TZEZ*, haien aldaera ez-burutua. Beste balio batzuen artean, moduzkoa ere badu molde honek. Esan daiteke *-TZEZ* forma duten adibide klasikoak gehienbat Ekialdeko egileen izkribuetan ageri direla (bereziki zubereraz), eta ez direla oso arruntak. Hona adibide horietako batzuk:

- (146) *Luzatzez* geroti gerora egitekoak, ardiesten du nehor herioak (Oihenart, *Atsotitzak*, 46)
- (147) Barkatu, ontan ere artobero-usaia ba-darigu, *geren buruok gaztetzat yotzez* (Lizardi, *Itz-lauz*, 58).

- *-TUZ* moldearen erabilera oker bat zuzentzen

Ekar dezagun hona *EGLU VI* liburukiko pasarte bat (ik. 289. or.), *-eLARIK* menderagailuaren erabilera badaezpadako bati buruzkoa:

“Gaur egungo zenbait idazlek, tradizioan ongi finkaturiko erabileraz gain, batzuen ustez hain gomendagarriak ez diren beste molde batzuk ere agertzen dituzte, *-(e)larik* morfemaren kasuan batez ere: (22) Leihotik erori zen, *hanka hautsi zuelarik*.”

Gauza bertsua gertatzen dela esan genezake perpaus jokatugabeetan ere, batez ere (*-TUZ* moldearen kasuan; berez juntaduraren bidez ematekoak diren bi proposizio menderatu-forman ematen dira zenbaitetan: perpaus sasi-mende-

ratu esaten diegu horregatik. Ikus dezagun goiko adibidea aditzaren forma jokatugabera egokituta:

(148) ?? Leihotik erori zen, *hanka hautsiz*.

Gaur egungo erabileran, gero eta gehiago entzuten eta irakurtzen dira halako perpaus menderatuak, hona, adibidez, pare bat:

(149) ?? Galdera errazetan huts egin du, *harridura sortuz lehiakideengan*.

(150) ?? Gauari amaiera emateko gitarraren laguntzaz abesti batzuk kantatu ditugu, *era honetan amaiera emanez egunari*.

Nolanahi ere, esan behar da ez dutela tradizio sustraiturik euskaraz.

Egokiago ikusten ditugu halakoak juntadura bidez emanda (aditz laguntzaile biak emanez edo lehenbiziko laguntzailearen elipsiarekin). Esate baterako, honela:

(151) Leihotik erori zen, ETA hanka hautsi zuen.

(152) Leihotik erori, ETA hanka hautsi zuen.

(153) Galdera errazetan huts egin du, ETA *harridura sortu zuen lehiakideengan*.

• *-TUZ* formaren bidez osatutako esapideak eta moldeak

a) *Esanaren esanaz, ikasiaren ikasiaz...*

Ugariak dira euskaraz aipatutako esapideak bezalakoak. Nolakotasunaz gainera, gertaera behin eta berriz errepikatzen dela adierazten dute.

Honako adibide hauetan argi eta garbi geratzen da behin eta berriz esanez gero edo etengabe ikasten egon ondoren nahi dena lortzen dela: dela nortasun-agiria berritzea, dela medikuntza karrera ateratzea:

- (154) *Esanaren esanaz*, azkenean, berritu du nortasun-agiria.
- (155) *Ikasiaren ikasiaz*, atera du medikuntza karrera Asierrek.

Adibide horien parekoak ere badira testu klasikoetan. Hona hemen batzuk:

- (156) Euskel-egunkaria oso urruti ta eziña dakustenak, *esanaren esanaz* ta *ausnartuaren ausnartuz* bertago ta errezago etsi dezaten (Lizardi, *Itz-lauz*, 77).
- (157) Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan, susmo txarrak ez dagoenik ikusarazi ez badit, idazlea *esanaren esanaz* asperturik bezala mintzatzen zaigula, besteren ahotik entzuna hotz-hotzean birresaten, (...) (Mitzelena, *Euskal Idazlan Guztiak 2*, 88).
- (158) Aren gutarra ta uzia auxe zan: Elade zarra zarrago ta zalago egitea, alegia: aren egon-ezina geldi-erazi *ikasiaren ikasiaz* ta *irakatsiaren irakatsiaz* (Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 37).

b) *-TUAZ BATERA*

Berez *-TUAZ* moldean oinarritzen da, baina moduzkoak baino gehiago denborazkoak direla esan behar da, denbora-kutsua nagusitzen zaiola moduzkoari: horregatik aztertu ditugu denborazkoen atalean.

Adibide batzuk baizik ez dugu jasoko hemen:

- (159) Kitolis, Mikol, Peru ta beste lagunak egozan aterpetik urretxoan, nasa gañean zutiñik, ondo jantziriko bost gizon egozan, alkarregaz autuan, *eguzki epela artuaz batera* (Aguirre, *Kresala*, 93).
- (160) Orrela irakasten ari zan iri ta errietan, *Yerusalem aldera bide egiñaz batera* (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 291).
- (161) Oneek iruteko biar dira goruburuban apaindu, ta ardatzian batu *arija eginaz batera* (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 139).

c) *-TUZ GERO*

Honek ere denbora- edo baldintza-balioa du gehiago moduzkoa baino (ikus moduzko perpausak).

d) *-TUZ JOAN / -TZEN JOAN* perifrasiak

Hona zer diogun hauen esanahiari buruz *EGLU II* liburukian (473. or.): “(partizipioko) aditzak adierazten duen ekintzaren jarraia eta ekintzaren mai-lako gehitzea azpimarratzen du egitura honek”.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (162) Megalitos edo urraida-aldian asi eta keltatarren ezken-bultzaraño langai eta beste tresnak geldiro-geldiro *aldatuaz zijoazten* (Barandiaran, *Euskalerriko leen gizona*,74).
- (163) Orain beiñolako giro ura *aldatuaz dijoa* (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 7).
- (164) Onela biotz maitagarri haren landatu dezun amodioa, ta jaiera, *geituaz, andituaz, ta sutuaz joango da* (Larramendi, *Mendibururi egindako karta*, 281).
- (165) Onela *zuzenduaz joango da* bekataria bere bizieran, ta aurreratuz onak birtutearen bide ederrean (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 3, 322).
- (166) Lurra, egoi epeletan, azala *arrotuez doa* (Gandiaga, *Elorri*, 61).

-TZEN JOAN perifrasiak ere aipatzen da han, eta esaten da Hegoaldean azken aukera hau zabaldu dela, eta *-TUZ JOAN* galdukoa dela.

e) Errepikak: [*-TUZ ... -TUZ*].

Halako moldeek, oro har, gertaera behin eta berriz errepikatzen dela adierazten dute. Ez dute perpaus elementurik hartzen eta marka bera hartzen dute moldeko bi zatiek.

(167) *Ekinez-ekinez* lortu du lasterkariak txapelketa irabaztea.

(168) *Saiatuz-saiatuz* lortzen dira garaipenak.

- Oker bat zuzentzen: $-TUZ \neq -TZEN$

Gaur egun zenbaitetan ez dira behar bezala bereizten $-TUZ$ formadun moldeen eta $-TZEN$ formadunen eremuak; nahastu egiten dira, eta batzuetan bigarrena lehenaren ordeztu erabiltzen da.

Aditz nagusiari egiten zaion galderaren erantzunak bereizten ditu bata eta bestea. *NOLA* galdetzailea erabiliz gero, $-TUZ$ formadunak izango genituzke eta *ZERTAN* galdetzailea erabiliz gero, berriz, $-TZEN$ formadunak.

Eman dezagun pare bat adibide:

(169) *Irakurriz* ikasi dute hurrek.

(170) *Irakurtzen* ikasi dute hurrek.

Ematen du bi adibide hauetan bataren zein bestearen eremuak ongi mugatuta daudela. Lehenbiziko adibidean, “nola ikasi duten” da kontua, hau da, ikasteko moduz ari gara, eta beste zerbait ikasi dute, eta ez irakurtzen; bigarren adibidean, berriz, hurrek ikasi dutenaz ari gara, “zer egiten ikasi duten” edo “zertan ikasi duten” da kontua: irakurtzen, alegia.

Hau litzateke lehenbiziko perpausa osatzeko modu bat:

(171) *Irakurriz* ikasi dute hurrek ingelesezko testuak interpretatzen.

Kontua da batzuetan nolakotasuna adierazteko $-TZEN$ formadun moldeak erabiltzen direla (oker erabili ere), $-TUZ/-TUAZ$ moldeak erabili beharrean. Moduzkoak dira $-TUZ$ atzizkia dutenak, eta osagarriak, berriz, $-TZEN$ dutenak.

(172) *Ongi elikatuz* segurtatzen da osasuna.

(173) **Ongi elikatzen* segurtatzen da osasuna.

(174) *Arituz* ikasi dut pianoa jotzen.

(175) **Aritzen* ikasi dut pianoa jotzen.

5.1.4. [-TU + postposizioa]

Aditz-partizipioari zenbait postposizio gehituz lortzen dira atal honetan aztertuko ditugun moldeak.

Perpaua jokatueta (ikus *EGLU V* liburukian, konparaziozkoak, 356. or.), badira [aditza + postposizio] egitura dutenak, hauen antzekoak, hauek bezala nolabait modua adierazteko balia ditzakegulako (konparazioaren barruan); baina aditz jokatueta dute haiek, eta *-eN* menderagailua; hauek, berriz, aditz-partizipioa dute oinarritzat. Hango eta hemengo postposizio guztiak ere ez dira berdinak, guztiak ez baitute aukera aditz jokatueta eta jokatugetekin joateko: *ARAU* eta *BEZALA*, adibidez, bietan aurkitu ditzakegu, aditz jokatuetaekin eta jokatugetekin, baina ez besteak.

Azter ditzagun hemen aditz jokatugeta oinarri hartzen duten postposizioak, zuzenean edo zeharka moduari, nolakotasunari erreferentzia egiten diotenak. Atalka doaz sailkatuak, *-TU AHALA* eta *-TU ARAU*, aditz modalak, ezezkoak eta bestelako batzuk, hurrenkera alfabetikoan azken hauek.

5.1.4.1. Luzatzen eta errepikatzen diren egoerak: -TU AHALA, -TU ARAU

5.1.4.1.a. -TU AHALA

[-TU + AHALA, AHALEAN] moldeak, oro har, modua adierazten du. *-eN NEURRIAN* moldearen parekoa da, baina bigarren balio bat ere badu. Hauek dira dituen bi balioak:

(a) *Luzatzen edo errepikatzen den egoera*: gertaera bat garatuz doan neurrian beste bat garatzen ari dela adierazten du:

(176) *Bete ahala* husten zuen basozainak edalontzia.

(177) *Ezkondu ahala*, baserria utzi behar izaten genuen anai-arreba gehienok.

(b) *Kantitatezkoa*: ezin gehiagoko neurria adierazten du, muga baterainoko neurria. Galdegaia izateko joera erakusten dute halakoek.

(178) *Bota ahala* ari du euria.

(179) *Edan ahalean* ari zen gure laguna tabernan.

Lehenbiziko balioan, Hegoaldeko tradizioko moldea da *-TU AHALA*; bigarren balioa, kantitatezkoa, berriz, Hegoaldean nahiz Iparraldean erabiltzen da.

Oro har, ez du biltzen bere inguruan perpaus luzerik, osagai asko dituenik.

Molde honen erabilera azaltzeko, har dezagun honako adibide hau:

(180) **Ezkondu ahala*, baserritik kalera jaitsi ginen emaztea eta ni.

Erabilera hori ez da zuzena: errepikatzen den gertakaria behar da egitura hau erabili ahal izateko; pluraleko osagaia eskatzen du semantikoki *-TU AHALA* moldeak. Horregatik da zuzena goian eman dugun adibidea:

(181) *Ezkondu ahala*, baserria utzi behar izaten genuen anai-arreba gehienok.

Maiztasunari dagokionez, esan daiteke *-TU AHALA* moldea gehiago ageri dela literatura-tradizioan *-TU AHALEAN* moldea baino.

Hona adibide batzuk, molde honek dituen bi aldaerenak eta bi erabilere-nak:

-TU AHALA:

(a) Luzatzen edo errepikatzen den egoera:

- (182) Bizkarraldean zeuken pilloa *agortu-ala*, urritzezko biur batekin besamenka eramaten zitun neskak azao berriak (Agirre, *Uztaro*, 159).
- (183) Bere artan gorpuzki-kutxak astiro zetozenan sapaïetik erri-mordoarengana, ta *soka askatu-ala*, aize-burrumbak bezala oiù zegitenan: Santa aundiak, el zakizkigute (Orixe, *Mireio*, 12).
- (184) An ezagun zan Birjiña Amak zenbait on, zenbat mirari egin oi zitun semeen-alde *eskatu-ala* Berari (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 93).
- (185) Maiz ikusi izan dut nik arloak zori zeudela, olo-lasto xamurrak mozteko epailariak *sartu-ala*, aize zakarrenak ereintzak iñarrosten (Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak osorik*, 76).

(b) Kantitatezkoa (ezin gehiagoko neurria):

- (186) Eta, uli bat memento berean Jaun Jujeari gan baitzitzaiõ kopetara, gure muthiko zozoak eskuan zuen makila lodi bat altxatzen du, *eman ahala* jotzen du jujea kopetan, eta bere bidean gan zen, etxera (Barbier, *Légendes basques*, 134).
- (187) Gaizo Simun, sos multxo bat bildu ondoan, ostatuan sartzen zen eta han *edan ahala* ari zen (Zubiri, *XX.garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 26).
- (188) Aundiz itsaso diozu biozmin ori dala / Ortatik eman idazu neregan *jasan aala* / Illun beltz ez bada ere, illun orren itzala (Orixe, *Olerkiak*, 540).

-TU AHALEAN:

(a) Luzatzen edo errepikatzen den egoera:

- (189) Ari izan ixildu ere gabe Baxili *aoak ekarri alian*, (Urruzuno, *Ipui sorta*, 87).
- (190) Ontziok utsik egozan, egarriak *eskatu-alean* utsitu zituelako, jakiña (Erkiaga, *Arranegi*, 14).

- (191) Urdai gizena ezezirik, zerri odolkiak, saiheskiak, hezurkiak, azarekin nahasita, neguko eltzekorik gutiziatuenak genituen oraintsu arte; eta geroztik, *barazki berriak Ameriketatik sartu ahalean*, aza babernak, aza patatak, eta antzekoak ere bai (Perurena, *Trapuan pupua*, 42).
- (192) Elur pilota txikia, *maldan behera jirabiraka jaitsi ahalean*, gero eta handiago bihurtzen da, ezin geldituzko abiadura hartuta (Arranz, *Hitza azti*, 90).

(b) Kantitatezkoa:

- (193) *Ezin kabitu ahalean* joaten ziren bagoiak (Zabaleta, *110. Street-eko geltokia*, 101).
- (194) Baina futxo!: Rakel orain euripean ikusten ari naiz, *euria bota ahalean* ez balitz bezala (Zubizarreta, *Jeans-ak hozkailuan*, 132).
- (195) Eta gehiago barik, artu makillea eta zist eta zast, *emon-alean* zigortu ei iuen agurea, bizkarra berotu ezeze odol gorritan ipiñi arteraiño be (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 56).
- (196) Burlaka dagi *egiñ alean*: bañan, ontzia gal-eta, zer dagike gaxoak ol aul bati ertsiz osin beltz aserrearen aurrezka? (Goikoetxea, *Musika ixilla*, 121).

5.1.4.1.b. –TU ARAU

[–TU + AHALA] moldearen baliokidea da, haren lehenbiziko adierarena, luzatze edo errepikapenezko esan diogunarena: mendeko aditzak adierazten duen gertaera garatuz doan neurrian beste bat (aditz nagusiak adierazten duena) garatzen ari da, zerbait errepikapenezkoa, egiten ari den prozesua.

–TU AHALA moldearen esparru geografikoa Hegoaldea dela esan berri dugu; –TU ARAU, berriz, Iparraldeko tradizioan erabili ohi da.

Hona zenbait adibide:

- (197) *Sartu arau* hiltzen zituen.
- (198) *Jautsi arau*, oihua gorago egiten zuen (Lafitte, *Grammaire basque*, 460).

- (199) Banakien oraino, amak erranik, *gauzak ikusi arau* zerabilala gogoia (J. Etchepare, *Buruchkak*, 11).
- (200) *Ohartu arau*, hartaz on egitea nihauri bezala bertzeer (J. Etchepare, *Buruchkak*, 50).
- (201) Eremanak zituen oraino, *haren ateraldi ikaragarriak entzun arau*, esku zartaka, oihuka, egin zezaten ahal bezenbat haro eta harrabots (Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 181).
- (202) Jainkoaren aldeko Maitasuna ez dezake kutsa ez Inbidiazko ez Bekaizkeriazko afekzioak; baina Maitasunezko lokarri berak Jainkoari lotzen dizkion *jende gehiago irudikatu arau*, maitatzenago dugu Jainkoa (Xarriton, *Etika*, 559).

5.1.4.2. *Aditz-partizipioa + postposizio modalak*

5.1.4.2.a. *-TU BEHARREAN*

[*-TU + BEHARREAN*] moldeak hiru erabilera hauek ditu:

a.1. Aditzak dioena gertatzeko zorian dago

Zerbait ia gertatu dela adierazten da moldearen erabilera honetan. Askotan, patu txarreko aditzei lagunduz agertu ohi da: *ito beharrean, hil beharrean, ...*

- (203) *Ito beharrean* ibili ziren umeak lakuan.
- (204) *Maldan amildu beharrean* gelditu zen.
- (205) *Zoratu biarrian* jarri zan dama aura erantzuna artu ebalako, lendik naikua zoratuta ez bazan, (Etxebarria, *Ibilarixanak*, 463).
- (206) *Zergattik daukok abua orretara itxitta, ezpanak urratu biarrian?* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 131).
- (207) Mutilla bere zarrarian, neskatzak ere indarrian, egun guzian aien pardelak nere bizkarrian; gero illunabarrian estimaziyo txarrian ibiltzen naute *soñeko gal-tzak kendu biarrian* (Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*, 244).

Zenbait lekutan, [IA + -TUAN] egitura ere erabiltzen da aipatu berri ditugun molde hauen erabilera berean:

(208) *Ixa hillian egon zan gaixua, ohian.*

Beheraxeago ikusiko ditugu molde honen baliokide bi, -TU AGINEAN eta -TZEKO ZORIAN, hau ere askotan patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen dena.

Instrumentalaren marka duela ere ager dakiguke erabilera honetan, Hegoaldeko nahiz Iparraldeko testuetan: -TU BEHARREZ:

(209) Kurutzean untze gogorraz yosirik... odola esku-oiñetako zilloetati zara zara geldi bagarik eriola... egarriz ito beharrez... (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 226).

(210) Osalarijok ebiltzan gau ta egun zoratu biarrez, zer ete zan ezin igarrita (Kirikiño, *Abarrak I*, 22).

-TU BEHARREZ moldeak badu, nolnahi ere, beste erabilera bat, gehiago duena helburuzko perpausetatik moduzkoetatik baino, edo behintzat nahikundetik hurbilago nolakotasunetik baino: NOLA galderari erantzun ordez, nahia edo adierazten du. Har dezagun adibide bat horren erakusgarri:

(211) Lagunekin ondo *geratu beharrez*, berak ordaindu du dena.

Alde horretatik, -TU NAHIAN moldearen baliokide da gehiago, eta ondoren aztertuko dugun azpiatalean, [-TU + NAHIRIK] izenekoan, sartzekoa da: han emango ditugu -TU BEHARREZ egituraren balio hori duten adibideak.

a.2. Beharrezkotasuna: -TU BEHARREAN + egon

Maizenik *egon* aditzarekin erabiltzen da, baina erabil liteke beste aditzen batekin ere (*izan*, *gertatu*, adibidez):

- (212) *Zurekin hitz egin beharrean* gaude ahalik eta lasterren.
- (213) Mendi santu au berriz ere kontaira onetan *aitatu biarrian* nago (Beovide, *Asis-co Loria*, 117).
- (214) Manuel zar au nik derizkiot bildurtu da indarrian, derrior nago juaterako *zerbait esan biarrian*, (Uztapide, *Noizbait*, 101).
- (215) Gure plaentxiatarrek jai-egunetarako zituan galtza bakarrek edo zituan, eta zapatak ortotsik *probau biarrian* izan zan (San Martin, *Zirikadak*, 121).

a.3. *-TU ORDEZ* moldearen baliokidea dena

Molde honen bidez kontrajarpenak egiten dira: gauza bat egin behar du perpauseko subjektuak, baina ez du hori egiten, beste bat baizik, kontrakoa irizten diogun zerbait, betiere.

Ikus ditzagun adibide batzuk, moldearen balioa argiago ulertzeko:

- (216) *Barkamena eskatu beharrean*, hartzekoekin etorri zitzaidan. (=Barkamena eskatu ordeztu, hartzekoekin etorri zitzaidan)
- (217) *Isildu beharrean*, hitz egiten hasi zen. (=Isildu ordeztu, hitz egiten hasi zen)
- (218) Gutariko batek etzekian españolez eta *erderaz hasi beharrean*, (...) bizkaieraz hasten giñean (Oskillaso, *Kurloiak*, 16).
- (219) Aizia zuten kontra; bidia, *laburtu biarrian*, luzatu egin zan (Beovide, *Asis-co Loria*, 106).
- (220) Onen garrantzizko arazo onetan neuk lagundu zattut, eta zuk, illarte bixi ixateko *lain emon biarrian*, arnasea bera be emon ez eta ixeka egitten daustazu ganera (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 53).
- (221) Adimen laburra ta motela daben askok eskolia ikasten dabe ta eskola au ta bestiena irakurri ta yakiteko *erabilli biarrian*, bururatzen yake eurek idatzi ta irakastia, eta astakeriyak ugari ipinten dabez (Kirikiño, *Bigarrenko abarrak*, 80).
- (222) Goizian tabernara joanda alperrian, begiyak zintzilikan erdi negarrian, ziraldoka etxera illunabarrian, gaiztotzen asiya da *ondu biarrian* (Xenpelar, *Xenpelar bertsolaria*, 251).

Erabilera bera du molde zaharkitu batek, Axular eta Duvoisinengan aurkitzen dugun *-TU BEHAR BIDEAN* egiturak. Hona adibide bat:

- (223) Ethortzen zaitzu gogora behar ezten emaztea, eta harekiko plazera, eta zuk gogoeta hura zeureganik berehala *egotzi behar bidean*, (...), gozatzen zara (Axular, *Guero*, 242)

Molde ohikoenaren formari dagokionez, *-TU* partizipioa behar du nahitaez *BEHARREAN* postposizioak erabilera honetan; ez horrela, *ORDEZ*-ek, partizipioaren ondoren erabiltzeaz gain genitiboaren ondoren ere erabil baitaiteke hau: *-REN ORDEZ*.

- (224) Esan duzunaren *ordez*, buruan isilpean duzuna egin duzu.

Bestalde, bada Mendebaldeko hizkeretan erabilera antzekoa duen beste postposizio bat ere: *BARIK*.

- (225) Komeni jatzuna *barik*, nahi dozuna egin dozu.

Aditz-partizipioarekin ere erabil daiteke Mendebaldeko forma hau:

- (226) Barkamena *eskatu barik*, hartzekoekin etorri zan.

5.1.4.2.b. *-TU NAHIRIK* (*nahian*, *nahizik*); *-TU GURARIK* (*guran*)

[*-TU + NAHI*] moldeak mendeko aditzak adierazten duen gertaera egiteko asmoa edo nahia agertzen du. Adibideak ugari aurkitu ditzakegu tradizioan, dela partitiboan, dela inesiboan; baliokideak direla esan daiteke, atzizkia desberdina izanik ere.

- (227) *Etxea erosi nahirik* etorri zaizkigu maizterrak.

- (228) *Etxea erosi nahian* etorri zaizkigu maizterrak.

Maiztasunari begiraturik, *-TU NAHIRIK* eta *-TU NAHIAN* dira nagusi. *-TU NAHIZIK* moldearen erabilera, berriz, ez da hain ugaria *OEH*-ko testuetan.

Mendebaldeko erabileran, *-TU GURARIK*, *-TU GURAN* moldeak ageri dira.

-TU NAHIAN, *-TU NAHIRIK* eta *-TU NAHIZIK* moldeak ezin dira ordezkatu *-TU NAHITA*rekin. *NAHITA* adberbioa da, eta ez du onartzen ez argumenturik, ez partizipiorik.

Hona adibide batzuk molde hauen erabileraren erakusgarri:

-TU NAHIRIK, *-TU NAHIAN*

- (229) Borreroa an dabil, burnia nere lepoan sartu nairik (Etxaniz, *Lur berri billa*, 117).
- (230) *Ihes egin nahirik*, borthizki tiratu, eta ukabilkada gogor bat eman zion arpegian, besoa oratzen zionari, (Oskillaso, *Kurloiak*, 30).
- (231) Egunak ziran illunak eta otzak; Santuak berriz azal asko ta mamirik ez, *ezurrak agertu nairik* (Beovide, *Asis-co Loria*, 185).
- (232) Nola enekiala, ega egiñ nuan bere oñetara, *muñ egiñ naian*, baña “ez” esan zidan (Urruzuno, *Ipui sorta*, 16).
- (233) *Egiaren jakin nahian* bizi ziren hirur errege jakintsvk ikhusten die (Inchauspe, *Ama Birjinaren hilabetia*, 104).
- (234) Ala ilunaren beldur ote zen hura, irriz eta kantuz *izuak oro uxatu nahian* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 163).

Ez dugu *-TU NAHIZIK* moldearen bidez osatutako adibide askorik aurkitu *OEH*-n. Bi motatako hurrenkera erabili ohi da:

- *-TU NAHIZIK*
- *NAHIZIK (ETA) ...-TU*

- (235) Emen ta gero zori gaiztoko kaltearrak dira *mundu eroaren esanak egin naizik* Jangoikoaren esana uzten dutenak (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 160).
- (236) Emaztekiak, *nahizik eta gorde*, ihardesten dio: (...) (Barbier, *Légendes*, 23).
- (237) Gero, bere lanerat itzultzen da xixtuetan, bazkaria tenoreko *nahizik moldatu* (Barbier, *Légendes*, 120).

–TU GURARIK, –TU GURAN, –TU GURIAN

- (238) Zure areio len ziran asko Datoz besoak zabalik, Euzko-Aberri azkatasuna *Lenbailen lortu gurarik* (K. Enbeita, *Bertsoak*, 43).
- (239) Antxe ikusten ditu sarri neska-mutil gazteak, atso-agurak bere bai, auts eta sutauts artean, *arrikatz apurrak batu gurarik* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 129).
- (240) Gauza baten *jakin guran* ibili naiz estu egun oneitan, eta orain ba dakit (Erkiaga, *Arranegi*, 124)
- (241) Ala aurkittu zan, alde batera *ill guran* ez beitzeko bere pauso lotsagarrixa; eta bestera bizi-nai, Zaldunagan mendakatze gogorra alduzteko (Etxebarria, *Ibiltarixanak*, 478)
- (242) Jo ta su dabiltz katolikuen ixena *kendu gurian*; Baña gu sendo, Jaungua lagun, areio danen erdian (K. Enbeita, *Bertsoak*, 85)

–TU BEHARREZ

Molde hau, lehen aipatu bezala, esanahiagatik bildu dugu hona, formagatik baino gehiago.

- (243) Etzabilzala fama handi bat ardietsi beharrez hañitz adiskide egiñ nahiz, edo handien estimua *merezitu beharrez* (Chourio, *Imitacionea*, 222).
- (244) Beraz, Ekhainaren hogoian, framazonek eta bertze erreboluzioneko buruzagiek igorri zituzten zortzi mila gizonen ingurua, lehenik deputatuen biltzarrera, alegia petizione bat hari *presentatu beharrez* (M. Elissamburu, *Framazonak*, 97).

5.1.4.2.c. *-TU EZINDA, -TU EZINEAN, -TU EZINIK*

[*-TU + EZINDA, EZINIK, EZINEAN*] moldeek, oro har, egoera baten aurrean zerbait egiteko ezintasuna adierazten dute.

Literatura-tradizioan, *EZINDA* eta *EZINIK* maizago ageri dira *EZINEAN* baino.

Hona hemen zenbait adibide:

-TU EZINDA

- (245) Egoera zaila dugu: aspaldion gabiltza *burua goratu ezinda*.
- (246) Ta irugarrenaren gañean, asieran bezela zeuden jokalariaik, zail, zimel, zauli ta kementsu, zizt eta zazt, dinbi ta danba, *batak besteari aurrerik artu ezinda* (Aguirre, *Garoa*, 103).
- (247) Ai, baña, onek, euzko-semiok, ameagandik igesi, Euzkera itxita erdaraz eiten zituzanian ikusi, *lotsaren lotsaz egon ezinda* itxasperaño zan jausi (K. Enbeita, *Bertsoak*, 68).
- (248) Txakurrok joan ziran arrastoa araiño eta an zebiltzan *arrastorik atara ezinda* (Anduaga, *Aitonaren uzta*, 57).
- (249) Bestiak beste Urola erreka arrats artan arrotua, bere lekuan *kabitu ezinda* zebillen amorratua; esan ziteken gizonarentzat zedukala gorrotua, eta autobus Guipuzcoana ark zuen izurratua (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 161).

-TU EZINIK eta *EZIN ...-TURIK*

Partitiboaren marka duelarik, bi eratara adieraz daiteke ezintasuna:

- *-TU EZINIK*
- *EZIN ...-TURIK*

Hona bi erabideen adibide batzuk, asmatuak eta tradizio idatzikoak:

- (250) Aurten eguneroko otorduekin asmatu ezinik gabiltza.
- (251) Eskutik eskura ebiltzan paper albistariak lagunterien albiste-gosea *asetu ezinik* (Aguirre, *Kresala*, 200).
- (252) Ikusizuz lau gizon matraila-gorriak, zeintzuk orain sei urte eukezan zorriak: orain dagoz etxeak ta ortuak eginik, baina euren lapurretak *autortu ezinik* (Azcue, *Parnasorako bidea*, 347).
- (253) Bainan oraindik beste ordubethe egon ziran athean, irri-barreak eta berriketak *amaitu ezinik* (Oskillaso, *Kurloiak*, 59).
- (254) Bazkariko azkenburukoa *ezin amaiturik* utzi genuen, lepo baikeunden.
- (255) Gogortu eta *ezin ibillirik* arkituko gera (Larramendi, *San Agustinez*, 16).
- (256) Ez ote gabiltza guztiok elkar *ezin-ikusirik?* (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 228).

Azken molde hau, Iparraldeko tradizioan, instrumentalaren markarekin ere erabiltzen da: *EZIN ...-TUZ*:

- (257) *Lana ezin eginez* ibili gara luze lantegian.
- (258) Haren minez orai nago *ezin hilez* bizirik. (Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 159).

-TU EZINEAN

- (259) *Lan hori bukatu ezinean* dabiltza igeltseroak.
- (260) Jainkoak osaba-illobai emandako ondasunak, batezere abereak, asko eta andiak ziran, eta *elkarrekin bazkatu ezinean* laster aurkitu ziran (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 14).
- (261) Neure laburpena eskainiko dizuet, bada, *besterenik eman ezinean*, irakaskuntzari nagokiola eta beste ezeri (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Guztiak 2*, 28).

5.1.4.3. *Ezezkoak: -TU GABE, -TU BARIK, -TU EZTA*

[-TU + GABE, BARIK] moldea (beren aldaera ugariekin) oso emankorra da euskaraz. Mendeko aditzaren ezezko forma markatzeko molde nagusia da, nahiz bakarra ez izan: geroago aztertuko dugun -TU EZTA dugu horren lekuko; bai eta -TZEKE esparru mugatuagokoa ere.

Beraz, -TURIK eta -TUTA moldeen ezezko formak ditugu -TU GABE eta -TU BARIK:

-TURIK + EZ: -TU GABE, -TU BARIK

-TUTA + EZ: -TU GABE, -TU BARIK

Nekaturik + ez: nekatu gabe, nekatu barik

Nekatuta + ez: nekatu gabe, nekatu barik

Forma nagusiak -TU GABE eta -TU BARIK dira, baina badira aldaera ugari, jatorrizko formaren eta hark hartzen duen atzizkiaren arabera: -tu бага, -tu ba; -tu bage, -tu be; -tu gaberik, -tu bagerik; -tu bagarik; -tu gabetan, -tu bagetan, -tu bagetanik...

Edonola ere, aldaerak aldaera, euskara baturako onartuak dauden bakarrak, GABE eta BARIK formak dira. Horietako batzuek ez dute idatzizko lekukotasunik ere literatura-tradizioan.

Gatozen adibideak moldez molde ematera:

A. -TU GABE (*bage, bage, be, ba*)

Postposizioak atzizkirik hartzen ez duten moldeak dira hauek.

(262) *Bukatu gabe utzi zuen bazkaria.*

- (263) Orduan agindu zion Santuak: Ken zitzala bere soñeko-arropak, eta, auzpezturik pobriaren oñetan, aitortu zezala bere pekatua, eta, arik eta pobriak barka zekion arte, egon zedilla aren oñetan *altxatu gabe* (Beovide, *Asis-co Loria*, 154).
- (264) Jaungoikoari guretzat geien opa deguna eskeñi bear zaio, ta gerorako *utzi gabe, biar edo etzirako luzatu gabe* (Aguirre, *Garoa*, 285).
- (265) Gure gogoia ezin egon diteke *zertan edo artan pensatu bage* (Añibarro, *Gueroco Guero*, 260).
- (266) Nun egon zirean zeuen lagun gizasemeak, galarrena etorrela aurretiaz *ezagutu bage?* (Echeita, *Josecho*, 258).
- (267) Txili odeietara begira ebillenartean, mandazaiña bastertxu baten iarri zan *gaiñibetea eskutik kendu bage* (Azkue, *Bein da betiko*, 86).
- (268) Bakean, soseguan ta *aserratu bage* egoteko ezta bide gaistoa gu gaiti jenteak zer diñoaren billa ta itanduten ez ibiltea (Añibarro, *Gueroco Guero*, 231).
- (269) Ta zagoz sosegu ta epetasun orregaz, *konfesatu bage*, pekatu mortalean (Añibarro, *Gueroco Guero*, 380).

B. –*TU BARIK* (gaberik, bagarik, bagerik, bagerikan)

Molde hauetan guztietan, postposizioak partitiboaren marka hartzen du, eta Mendebaldeko tradiziokoa da.

Bi erabilera behintzat baditu egitura honek. Lehenbizikoa, –*TU GABE*-ren baliokidea, –*TUTA* atzizkiaren forma ezezkoa. Hona hemen zenbait adibide:

- (270) Imiñi eusten letxe: ezertxu be *aldatu barik* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 33).
- (271) Meza-eskeintzekoan etzan azpillean txuri bat bere yausten a *oartu barik* (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 39).
- (272) Utzi naik, eure pillosopokerijakaz *makillatu barik* (Kirikiño, *Bigarrenko Abarrak*, 17).
- (273) Itandu eban besteak, *ondo iratzartu barik* (Aguirre, *Kresala*, 34).

- (274) Ia mila urte gero Leongo infantea etorri zan Bizkaira botarik planteia etala geldituko libre Bizkaitarrik ezpata eta dardakaz *azpiratu barik* (Azcue, *Parnasorako bidea*, 200).
- (275) Kuiak konejuak zuluian sartu ta kukurtuten ziran, *kanpora begiratu barik* (Altuna, *Ipuñak*, 90).
- (276) Eta bere zeregiñetan benetako ardureagaz jarraitzen eban, *astiro astiro eta gelditu barik* (Alzola, *Atalak*, 93).

Beste erabilera –*TU ORDEZ* moldearen baliokidea da, –*TU BEHARREAN*-en hirugarren balioaren parekoa da: gauza bat gertatu ordeztu, beste gauza bat edo, batzuetan, haren kontrakoa gertatzen edo egiten dela adierazteko erabiltzen da. Hobeto ulertuko dugu adibide batzuekin:

- (277) Barkamena *eskatu barik*, hartzekoekin etorri zan.
- (278) Mendira *joan barik*, hondartzara joan ziren.

Bil ditzagun hona beste aldaeren adibide batzuk:

- (279) Zaude bada bethi prestik, eta hala bizi zaite non herioak etzaitzan ediren *preparatu gaberik* (Pouvreau, *Iesusen imitacionea*, 65).
- (280) Altuna, atarikoetan eta bestetan, gauzarik aski saiatzen da argitzen, eta ez da deus lortzen *saiatu gaberik* (Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Guztiak I*, 119).
- (281) Marijak dauka ardura andija, bere serbitzarijak ill ez deitezana *Eleixako Sakramentu santuak artu bagarik* (Uriarte, *Marijaren illa*, 86).
- (282) Guztiz goxetik oneek labia ixioturik forjetan asten dira *gelditu bagarik* (De la Fuente, *Durangoko plateroak*, 114).

–*TU GABETAN* (*bagetan, gabetanik, bagetanik, gabeana*)

Molde hauetan, berriz, inesiboaren marka hartzen du postposizioak, eta zenbaitetan, bai inesiboarena bai partitiboarena.

[*-TU + GABETAN, GABEAN*] moldea orokorra da, Hegoaldeko zein Iparaldeko testuetan ageri baita.

- (283) Ez nadin izan *uste gabetan harrapatua* (Jaureteche, *Meditazioneac*, 103).
- (284) *Neri kasorik egin gabetan / ez dakit nolaz joana dan* (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak*, 127).
- (285) Ogeitamarbat aizkol apustu / jokatua da jaun ori. / *Eta gramo bat galdu gabetan / utzi zion aizkorari* (Basarri, *Kantari nator*, 76).
- (286) Ez âl naiz ni illen gure zeru au / *goi-argi ikusi bagetan!* (Orixe, *Euskaldunak*, 253).
- (287) Utzi zion begitartea *estali gabean* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 119).
- (288) [*Artzak*] *leoi jaunari lotsa yagon bagan / ardi gaixoari esetsi lenago deutso* (J. M. Zavala, *Fábulas*, 542).
- (289) Ongi dakizu, *iñork esan gabetanik* (Iturriaga, *Fábulas*, 131).
- (290) Goizetik arratsera ari dira *lanean gelditu gabetanik* (Iturriaga, *Diálogos*, 26).

C. *-TU EZTA*

[*-TU + EZTA*] moldea ere erabil daiteke moduzko perpaus jokatugabeak egiteko. Esan daiteke *-TUTA* moldea ezezko forman emana dela, eta molde horren balio berberak dituela.

-TUTA perpausak ezezko forman emateko, *-TU GABE* da euskaraz gehien erabiltzen den forma, esan bezala, baina Hegoaldeko zenbait lekutan *-TU EZTA* ere erabiltzen dela esan behar da.

Badirudi badagoela tradizio bat aditz modalekin erabiltzeko: *gura izan*, *nahi izan* aditz modalen laguntzaz erabiltzen da asko:

- (291) Hori etxetik *atera nahi ezta* dago. (ez du etxetik atera nahi)
- (292) *Ezer jan nahi ezta*, alde egin nuen etxetik.

Lekukotasun idatziei dagokienez, ez dugu adibide asko aurkitu *OEH*-n; aurkitu ditugunak, aditz modaletan oinarrituak:

- (293) ta erle pitin langilleak, lantegi billa edo lore gozuen kolkoan sartuta, bakartadean, ixillik eta arlotsu, *beren arazoari ezerगतik utzi nai ezta* (Aguirre, *Garoa*, 44).
- (294) Etsaitasunean edo gorrotoan egon ziranak anbeste ur ta ogiko baraur, zenbat egun egon ziran *tratatu nai ezta?* (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 153).
- (295) gizonik ospetsuenak bereala batu zituen, erregearen gurari ta agindua zer zan esan iakuen garbiro, ta guztiak gelditu ziran burua makurturik eta berbarik *esan nai ezta* (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 160).

Edozein kasutan ere, eta tradizio idatzian aurkitu ez izana gorabehera, ez dago eragozpenik bestelako aditzekin ere molde honen bidez moduzko perpausak osatzeko. Gaur egungo erabileran, arruntak dira zenbait hizkeratan era honetako esaldiak:

- (296) Telebista *ikusi ezta* ere ondo bizi gaitezke.
- (297) Bilerara *etorri ezta* ere berdin dio.
- (298) Zer lortuko duzu eskolara *joan ezta?*
- (299) Sekula *entzun ezta*ko kontua.

Azkenik, esan behar da *-TUTA*-ren forma ezezkoa *-TU EZTA* den bezala, *-TURIK*-en forma ezezkoa ez dela *-TU EZIK*. Izan ere, *-TU EZIK*-ek hartzen duen balioa baldintzazkoa da; hala genioen liburuki honetako baldintzazko perpauk jokatu gabeak aztertzean. Hona han eman dugun adibideetako bat, molde horren baldintza-balioaren erakusgarri:

- (300) Atsegiña, desiragarri zaigu, bai; baiña ondo *neurtu ezik*, atsegiña bere buruaren kaltetan biurtu oi da (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 82).

5.1.4.4. Konparaziozkoak: *-TU BEZALA* eta *-TU LEGEZ*

Perpaua jokatuari eskainitako liburukian aztertu ditugu *BEZALA* eta *LEGEZ*-en bidez osatutako konparazio-perpausak: *-eN BEZALA* eta *-eN LEGEZ* aditz jokatuaren oinarritzen direnak, alegia (ik. *EGLU V*, 355-389). Partizipioa ere har dezakete *BEZALA*-k eta *LEGEZ*-ek oinarritzat, ordea (nahiz eta, gorago esan dugun bezala, esan beharra dagoen aditz laguntzailearen elipsiaren ondorioz laburtutako perpaua jokatuak ditugula, azken finean).

Hemen aipatu besterik ez ditugu egingo egitura horiek: batetik, moduzko ere badelako neurri batean (*NOLA* galderari erantzun diezaiokeen neurrian); bestetik, *EGLU V* liburukian aztertu direlako egitura horiek, eta nahikoa iruditzen zaigulako han esaten denarekin.

Hango adibideren bat edo beste jasoko dugu, eta molde hauetan interesa duena liburuki hartara bidaliko dugu (363.-366. orrialdeetan dator jasota erabilera hori: partizipioa + *BEZALA*, *LEGEZ*; aditz modalak + *BEZALA*, *LEGEZ*; eta abar).

- (301) *Ordenatu bezala* konplitu zuen (Axular, *Guero*, 231).
- (302) *Nik erran bezala* egiten baduzu, berant-orduak etzaitu atzemanen (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 202).
- (303) *Arraña jo, arraña artu lez* da (Aguirre, *Kresala*, 212).
- (304) *Dirdai aetara ikusleen begiak ertsi ta gorde bearra eben, itsutu lez* egiten ziran-ta (Erkiaga, *Arranegi*, 96).

5.1.4.5. *-TU AGINEAN*, *agirik*

[*-TU + AGINEAN*, *AGINIK*] moldeak mendeko perpausak adierazitakoa gertatzeko unean dagoela adierazten du, eta batez ere arriskua edo egoera larria adierazten du egitura osoak; patu txarra adierazten duten aditzekin

erabili ohi da: *hil, ito, jausi, galdu,...* gisako aditzekin, alegia. Adierari dago-kionez, *-TZEKO ZORIAN* eta *-TU BEHARREAN* moldeen baliokidea dela esan daiteke. Izan ere, *AGIN* eta *ZORI* lexemak adieran baliokideak direla esan genezake.

Mendebaldeko erabilerakoa bakarrik da, testu klasikoetan eta berriagoetan ere aurkitu dezakeguna.

Bi forma ditugu: inesiboko marka hartzen duena (*-TU AGINEAN*) eta partitibokoa hartzen duena (*-TU AGINIK*). Testu klasikoei erreparaturik, esan daiteke lehenak bigarrenak baino ugariagoak direla.

Hona hemen bakoitzaren zenbait adibide:

-TU AGINEAN

- (305) Mendia ez genuen ezagutzen eta, ondorioz, luze ibili ginen *galdu aginean*.
- (306) Putzura erori eta *ito aginean* egon zen gure semea.
- (307) Erregutu egiozu biotz biotzerik Yaungoikoari, *iya betiko galdu aginean*, edo orretarako bidean dagozanak gaiti (Añibarro, *Escu-liburua* 2, 66).
- (308) Aise putzak txistuka, pago erramatzarrak Baibenka darabillez *ausi agiñean* (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 363).
- (309) Bai, ba, kirijuak *lertu agiñian* yaukodazak-eta, atsedena artu biar (Altuna, *Ipuñak*, 79).

-TU AGINIK

- (310) Laguna *jausi aginik* ikusi zenuenean, zuhaitzean gora egin zenuen hura salbatu nahian.
- (311) Ez dakizu guztioen ezaguerara eldu dala, zuk jado gura dozun matxinada, *urratu aginik* eguana (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 212).

5.1.4.6. *-TU ORDE, -TU ORDEAN, -TU ORDEZ*

[*-TU + ORDE + atzizkia*] moldearen bidez, bi gertaera parez pare izanik bata egin beharrean bestea egiten dela adierazten da. *-TU BEHARREAN* moldearen hirugarren balioaren kidea dugu hau (*Barkamena eskatu beharrean, hartzekoekin etorri zen*); bai eta Mendebaldeko *-TU BARIK* moldearen bigarren erabilerarena ere (*Barkamena eskatu barik, hartzekoekin etorri zen*):

(312) *Barkamena eskatu orde, hartzekoekin etorri zen.*

(313) *Barkamena eskatu orde, hartzekoekin etorri zen.*

(314) *Barkamena eskatu ordean, hartzekoekin etorri zen.*

Hegoaldeko erabileran balio honetan tradizio sendoena duen moldea *-TU BEHARREAN* den bezala, Iparraldekoan *ORDE* postposizioa duten moldeak ditugu: *-TU ORDE* eta *-TZEKO ORDE*. Postposizioa *ORDEAN* forman ere erabili ohi da, *-TU* partizipioaren ostean Hegoaldean eta *-TZEKO* formaren ostean Iparraldean.

Bil ditzagun hona adibide batzuk:

-TU ORDE / ORDEAN

(315) Ez ote du, kontsolatu-orde, handitzen bere Seme jaunaren bihotzmina? (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 44).

(316) Plazara joan orde, doha dantzara eta ostatura (*Arbelbide, Igandea edo Jaunaren eguna*, 21).

(317) Nexka, seda-arrari ostoak orduntxe eman eta atal-aurrean asi zen, *egurastu orde*, ardatzean (Orixe, *Mireio*, 5).

(318) Bide au artu ordean batzuek ibilli oi dira erriz erri (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 601).

-TZEKO ORDE / ORDEAN

- (319) Ixilik sakelan *sartzeko orde*, bihurtzen du gaizoak emaileari, laidoarekin gorribeltzua, kantu mutiri eta kobla jasangaitz batean othoizten duelarik eman dezala handik sos hura herriko behar bati (J. Etchepare, *Buruchkak*, 149).
- (320) Laidostatua *izaiteko orde* izanen dela goraltxatua (Laphitz, *Bi saildu hescualdunen bizia*, 114).
- (321) Jaunzturak berexak balire, eta bitxiak: *eskuaraz mintzatzeko orde*, murduka balezate frantsesa edo anglesea; (...) arimaz derratzut baluketela miletan gehiago behari, (J. Etchepare, *Buruchkak*, 195).
- (322) Ontasun hautzaz guztiez / *gozatzeko ordean*, / asko pena sofritzeko / duk heure bizitzean (Etcheberri Ziburukoa, *Eliçara erabiltceco liburua*, 254).
- (323) Berak ere, airean *ibiltzeko ordean*, umeak bezala herrestan zebiltzak (Elissamburu, *Piarres Adame*, 17).

Forma nagusi horiez gain, *-TU ORDEZ* aldaera ere zabaldu da gerora Hegoaldean, *-TZEKO ORDEZ* Iparraldean bezala. Har ditzagun bietariko adibide batzuk:

- (324) ...*nekatu ordez*... igesi dabiltzanak (Aguirre Astesukoa, *Eracusaldiac I*, 481).
- (325) Arek niri *emon ordez* nik ari yaten emon bear (Orixe, *Tormes-ko itsu-mutilla*, 81).
- (326) Era ontan ziaro menderatu zun Jauregiberri-ibarrako mutilla ta neskaren akats eta griñak *aztertu ordez*, auek, gizezkoaren auleriaren jabe egin ziran (Etxaide, *Joanak-joan*, 89).
- (327) Hebentxitorik lohardi herria *egoiteko ordez*, guri gaixkiegillak arren ditzagun hez (Casenave, *Santa Grazi pastoralala*, 134).
- (328) Gazteari, maitatzen *erakusteko ordez*, gorrotatzen erakutsi oi zaio (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 59).
- (329) Damu zuen sekula eskolan ezarri izan zuelakotz, berarekin *gordetzeko ordez*, bera *egoteko ordez* haren irakasle bakarra (Mirande, *Haur besoetakoa*, 28).

5.2. ADITZ-IZENA OINARRI DUTEN MOLDEAK

Orain arte aztertu ditugun molde guztiak aditz-partizipioan oinarrituak dira: batzuetan atzizki bat gehitzen zaie (*-TUTA*, *-TURIK*, *-TUZ*); beste batzuetan, postposizio bat (*-TU AHALA*, *-TU ARAU*, *-TU EZINDA*, *-TU GABE*...). Era horretakoak dira ohikoenak moduzko perpaus jokatugabeei dagokienez, zalantzarik gabe.

Badira, ordea, oinarritzat bestelako aditz-formak hartzen dituzten moldeak ere. Atal honetan aztertuko ditugu horietako batzuk: hain zuzen, aditz-izenean oinarritzen direnak. Horietan erabilienak *-TZEKE*/*-TZAKA* ditugu, eta haiek aztertzen hasiko gara.

5.2.1. *-TZEKE*, *-TZAKA*

Ezezko forma nagusitzat *-TU GABE* postposiziodun forma jaso dugu partizipioan oinarritutako egituren barnean (*-TU EZTA* forma ez hain ohikoarekin batera). Badugu, hala ere, beste molde ezezko bat Hegoaldeko zenbait hizkeratan: *-TZEKE* moldea, *-TU GABE*ren baliokide dena.

(330) Lan hau *amaitzeke* dago.

(331) Lanak *egiteke* zenituen gaur goizean ikusi zaitudanean.

Hegoaldean erabiltzen da, Mendebaldeko eta Mendebaldera jotzen duen Erdialdeko zenbait hizkeratan, ahozko nahiz idatzizko tradizioan.

Testigantza gehien dituen forma *-TZEKE* da, baina ez dira gutxi *OEH* corpusean bestelako forma darabilten testigantzak: bai *-TZAKA* forman, bai *-TZEKA* moldean.

Gatozen, atalka, adibide batzuk jasotzera:

–TZEKE

- (332) Lortu al diteke edozein gogo-gauza *bakartasunaz maiz elikatzeke?* (Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 21).
- (333) Sakela ez ustutzeagatik-edo, or zeudek legortea baiño elkorrago *porru-landare bat bera ere beren bizitzan emateke* (Etxaniz, *Lur berri billa*, 119).
- (334) Piarres, berari so gelditu zen *itzik ixurtzeke* (Etxaide, *Joanak-joan*, 126).
- (335) Oro dezakena baita, ez al zezaken guzia biurtu ta aldatu, *gaiztorik ezer gelditzeke?* (Orixe, *Aitorkizunak*, 160).
- (336) Eta, dana dala, ekarri lenbaitlen, armak duten pisua ta nekea eziñ eraman bait-ditezke *sabela gobernatzeke* (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 40).

–TZAKA

- (337) Duaz bada damu egijazko бага konfesetara opizijo edo biargintza askotakuak, irabazi dongaak egin, urte osuetan ondu бага, ta biar legez *konfesautzaka* (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 71).
- (338) Onetan nagitxo zebiltzala ikusirik, aingeruak Lot, onen emazte, eta bi alabak *eskutik oartzaka* artu, eta Uriaz kanpora atera zituzten (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 20).
- (339) Wolfio gau guzi artan *geratzaka* jardun, eta egunsentirako prest zegoan (Arrue, *Santa Genoveva*, 125).

–TZEKA

- (340) Guztiak ziran edatalle amorratuak ta egunik *galtzeka*, gaberako edi txilibrizkauta argi-argi juaten ziran etxerutz (San Martin, *Zirikadak*, 42).
- (341) Astiro bañan *gelditzeka* igaro bezate agertokia ertz batetik bestera, udal etxeruntz ezkutaturik (Labayen, *Euskal-Eguna*, 115).
- (342) Gaur ondo ikusten da zuaiztiak *kentzeka* nola ditun alderdi aiek (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 146).

Zenbaitetan, aditz-forma honek forma lexikalizatuak sortzen ditu; hona hemen horren erakusgarri bat:

- (343) Bestiak bardin diriala, otsein edo serbitzari batek obligaziño laburraguak dituz ugazaba, edo etxeko andriak baño; *ezkontzaka* batek ezkontubak baño (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 19).

Ezkontzaka hitza izena da, eta ‘ezkongabea’ esan nahi du adibide horretan.

5.2.2. [-TZEKO + modu-postposizioa]: -TZEKO MODUAN / ERAN / GISAN / MANERAN

Gorago esan dugu *EGLU V* liburukian aditz jokatuari lagunduz (-eN) bazirela konparazioak bideratzeko postposizio batzuk: han aztertu genituen -eN *ERAN*, -eN *GISAN*, -eN *BEZALA*, -eN *MODUAN* eta abar.

Postposizio horiek har dezakete aditzaren forma jokatugabea ere, gehienek atal honetan aztertzen ari garen aditz-izena + -KO: hala sortzen zaizkigu -TZEKO *ERAN*, -TZEKO *GISAN*, -TZEKO *MODUAN* eta abar.

Zer eratako perpausak diren horiek? Liburuki honetan, perpaus osagarrien atalean sartu ditugu; han esan dugu postposizio horiek aditz-izena gobernatzen dutela, eta irizpide hori erabiliz kokatu ditugu han.

Hala ere, sail honetan ere aipatzeko modukoak direla iruditzen zaigu, izen horiek modu-adiera duten aldetik: nolakotasuna adierazten dute, eta horren arabera balukete lekua atal honetan ere. Hemen egitura bakoitzaren adibide batzuk bildu baizik ez dugu egingo.

-TZEKO MODUAN

- (344) Irakurri zuan letraduak erregla, eta arriturik lenaz gañera, esan zuan ingurukuak *aditzeko moduan*: Egiaz Nere bizitzan ez det bizi-modu

egokiago ta santuagorik ikusi, gizon onen bizi modua baño (Beovide, *Asisco Loria*, 86).

- (345) Gero gloria gozatutzeko sartu gaitezen zeruan, beste gauzarik ez desiatu biotzian ta goguan; amasei bertso nere graziya jakin dezaten munduan, eskola gabe jarriyak dira *entenditzeko moduan* (Xenpelar, *Bertsoak*, 366).
- (346) Arago, bi emazteki, erratzak eskuan, atal-aurrea garbitzen elkar-apustuan, ikusiz, irri dagite *leertzeko moduan*; asarre, neskamea mintzatzen orduan (Orixe, *Euskaldunak*, 53).

–TZEKO ERAN

- (347) Zerri-zaia zebillen jo batara ta jo bestera burua *galtzeko eran* (Beovide, *Asisco Loria*, 85).
- (348) Ez nindagon ari *ekiteko eran*, edo ari burua *makurtzeko eran* (Orixe, *Aitorkizunak*, 60).
- (349) Edanaren kontua: seieun urtean ain beneragarria izan zan gizona jartzen da guzia erauntzirik, agerturik, ta *lotsatzeko eran*, ta bere umeetatik batzuek iseka egiten dioela (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 3, 376).

–TZEKO GISAN

- (350) Semea, urrundurik sosaren peskizan, agertzen duk zer aita erromesa nizan; zintzoki jarraik hadi hi hire bizitzan, ni baino aita hobe *izaiteko gisan*, hire semeak ez dezan joaiterik izan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 203).
- (351) Zazpitarik ez dela bat sobera izan, bixtan eman duzue *ikusteko gisan*; ume zurtz bat harturik etxeko gerizan, etzirezte emaiten kondatuz arizan (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 246).
- (352) Ihardetsi zuen beraz han ziren guziek *entzuteko gisan*: “Lurraren gainean hedatua den Eliza guziaz behar naiz orhoitu...” (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 145).

–TZEKO MANERAN

- (353) Eta geroztik hemen naiz, *erraiteko maneran*, eskualdun bakarra (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 292).

- (354) Publiko da Baigorri / neskaten solasa, / oraino aintzinago / ez baladi pasa; / *sinesteko maneran* / izan dut abisa / joka aizan direla / adiskide gisa (Bordel, *Bordel bertsularia*, 169).

5.2.3. –TZEKO ZORIAN

Aditz mendekoaren gertaera bukatzeko unean edo bukatzetik hurbil dagoela adierazteko erabiltzen da molde hau. Semantikoki, beraz, –*TU HURRAN* moldearen baliokidetzat jo liteke.¹

Patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen da batez ere: *hil, ito, hondatu, galdu, amildu, lehertu, erori, hondoratu...*

Batez ere Hegoaldeko tradizioan erabili izan da molde hau. Hona adibide batzuk:

- (355) Kristautasuna *ondatzeko, itotzeko, galtzeko zorian* zebiltzan (Larramendi, *San Agustinez*, 9).
- (356) *Iltzeko zorian* eta perillean jarten bada (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-carlea*, 183).
- (357) Ez du ekusten nola arkitzen dan betiko su eta garren artera *amiltzeko zorian* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* I, 402).

¹ Kontua da –*TU HURRAN* (*HURREN*) moldeak ez dituela perpaus mendekoak osatzen: berez, egitura hau hartzen duen aditzak ez du argumenturik hartzen, egitura eginak dira, [aditz-partizipioa + *HURRAN*] egitura soila dutenak. Horregatik ez ditugu moduzko perpaus mendekoetan sailkatu; –*TZEKO ZORIAN* moldearen baliokide semantikoa delako baizik ez dugu hemen aipatu. Hona adibide batzuk:

(1) Orai akabo; hats-bizi zena urka; *hil hurran* doi-doi zihardukana lurpean sar bizirik; eta barna gero (Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 113).

(2) Zeren *akhabatu hurran* da eguna, behehitu da iguzkia, eta itzala ere luzatuago da arratsaldean (Axular, *Guero*, 130)

(3) Beharrik zen mintzatu; ur eta ogian. Yadanik *hil hurren* zen komentu azpian (Hiribarren, *Eskaldunac*, 101).

Iparraldeko tradizioan, Duvoisinek, Haranederrek, Mirandek eta Xalbadorrek baizik ez darabilte *-TZEKO ZORIAN* forma:

(358) *Urkhatzeko zorian* balinbanintz (Duvoisin, *Liburu ederra*, 123).

(359) Haren bizia zena *galtzeko zorian* ez ifintzeko (Mirande, *Haur besoetakoa*, 77).

Aditzoinean nahiz partizipioan oinarritutako moldea ere erabili ohi da, nahiz gutxiago:

(360) *Amorratu zorian* / igeska hasi da (Echagaray, *Festara*, 164).

(361) Txarto ekusan andreak bere buruba ... dandarrez *erabilli zoriijan* (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 148).

(362) *Eror-zorian* dagon Elizari (Jautarkol, *Biozkadak*, 35).

(363) Goethek, nonbait Ortegak dionez, aurkitu omen zuen, maiteminak *leher zorian* zeukanean, ordezkoa bere buruari eman behar zion tiroa hartzeko: Werther gizagaxoa (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 300).

Esapide eginak, lexikalizatuak ere osatzen ditu zenbait aditzekin:

(364) Etxekoren bat *il zorian* danean, nere izarrak odol-kolorea artu oi du (Etxaniz, *Lur berri billa*, 74)

5.2.4. *-TZEAREKIN, -TZEAGAZ*

[*-T(Z)E + -A + -REKIN*]] moldeak nagusiki denbora-balioa du. Hala ere, moduzko kutsua ere izan dezakete inoiz.

Hona hemen kutsu hori duten zenbait adibide:

(365) *Gezurra esatearekin* ez da ezer konpontzen.

(366) *Presaka ibiltzearekin* ez duzu ezer konponduko

- (367) *Lasterka egitearekin* ez duzu atzerapena kenduko.
- (368) Zerua ez da itz utsakkin irabazten, *ezpada Jaunaren aginduak gordetzearekin* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 385).

Mendebaldean, *-TZEAGAZ* forma erabiltzen da:

- (369) *Negar egiteagaz*, pentsau eban kolkorako, ez dot irabazten ezer (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 175).
- (370) Ibilli zaitez kontuz edozein ordu ta lekutan *domixtikun egiteagaz* (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 249).
- (371) Beste batzuk, au larregi iruditu-ta, *oar bat bialtzeagaz* naikoa zala uste eben (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 41).

Nolanahi ere, esan behar da balio honetan ohikoagoa dela *-TU(A)Z* atzikiaren bidez osatutako egitura:

- (372) *Gezurra esanez* ez da ezer konpontzen.
- (373) *Presaka ibiliz* ez duzu ezer konponduko
- (374) *Lasterka eginez* ez duzu atzerapena kenduko.

5.2.5. *-TZEKOTAN*

[*-TZE + -KO + -TAN*] moldeak, besteak beste, baldintzazko, denborazko eta helburuzko balioa har dezake. Nolanahi ere, badirudi zenbait kasutan modu-kutsua ere izan dezakeela, eta horregatik jaso ditugu hemen ere. Ezin uka honako bi adibide hauek badutela moduzko kutsua, helburuzkoaz gain:

- (375) Artzainak arthoski jarraiki behar du *erditzekotan* diren ardiei, eta antxuei berreziki (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 272).

- (376) Aithortzen dut kheinu-meinu hoiek urrundik ikhustean nere buruarekin egon nintzela gizon horrek othe zuen bedere martilu-kolpe bat nonbait, eta aphur batez, *gelditzekotan* ere izan nintzela gizona urrunduxe artean (Elissamburu, *Piarres Adame*, 5).

5.3. ADITZOINA OINARRI DUTEN MOLDEAK

Aditzoina oinarri duten moduzko perpaus jokatu-gabeak markatuak dira, esapide gisakoak, esango genuke. Dakigun bezala, bereziki Ekialdeko euskalkietako literatura-tradizioan erabiltzen dira.

5.3.1. Aditzoin juntatuak edo enumeraziozkoak (*xuti eta eror*)

- (377) *Chuti eta eror* bagabiltza (Lafitte, *Grammaire basque*, 460).

Lafittek <<l'infinif radical en énumération>> esaten die bere gramatikan (460. or.)

Zenbaitetan, aditzoina eta partizipioa nahasten dira, eta *ETA* nahiz *EDO* juntagailua har dezakete aditz juntatuak:

- (378) *Sal edo erosi* dabilta aspaldion tratularia eta nekazaria.
(379) *Josi edo urra* utzi nituen etxe-saltzailea eta erosleak.
(380) *Hasi eta buka* irakurri zuen liburu osoa.

Nolanahi ere, ez du ematen alderik dagoenik aurreko adibideen eta honako hauen artean, esanahiari gagozkiola bederen:

- (381) *Zutitu eta erori* gabiltza, zola irristakorra dagoelako.
(382) *Saldu edo erosi* dabilta aspaldion tratularia eta nekazaria.

(383) *Josi edo urratu* utzi nituen etxe-saltzailea eta erosleak.

Euskalki kontua da halakoetan partizipioa edo aditzoina erabiltzea.

5.3.2. Aditzoina + AHALA + aditzoin bera (*higi ahala higi*)

Zenbait kasutan [aditzoina + *ahala* + aditzoin bera] gisako moldea erabiltzen da. Esapide adberbial hauek ez dira, edozein kasutan ere, oso emankorrak:

(384) *Jo ahala jo* ari ziren sagar zanpatzen dolarean.

(385) *Higi ahala higi* ihes abiatzen dire, eta armada guzia heien ondotik (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 204).

(386) Hoinbertze gusta behar bada erlisionea, ez baditake burutziarik egin, azkenean debruak daramala utziko duela jendeak, ari dire hola framazonak, jo, jo, jo aitzina, *tira ahala tira* (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 152).

(387) *Salba ahala salba*, hire alde ariko nuk (Larzabal, *Iru ziren*, 88).

(388) Argi eta garbi mintzatzea, *gerta ahala gerta*, zer den ere erakusten digu eta ez da hori irakaspén makala hizkuntza gogoeten estalki bihurtu dugun frankorentzat (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 118).

(389) Handik, urruti xamarreko xoko hartatik, zabaldu nahi izan zuen, *kosta ahala kosta* eta ez errietarik gabe, jadanik lege zaharra zena munduaren lau bazterretan: ikas eta irakaspideak jende saiatuaren eskuetan behar dutela egon, mugituko badira (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 59).

5.3.3. Aditzoina + -KA atzizkia (*gaizki esaka*)

Gerundioaren antzeko perpausak egiteko erabiltzen da. Izen bati edo aditz bati lotua ageri da; arruntagoa da izen bati lotua aurkitzea. Gerundioa adierazteko beste bide batzuen artean, hizpide dugun hau dugu erabilienetakoa. Gertaera errepikakorrak adierazten dituzte:

- (390) Loteria tokatu zaigula *esaka* etorri da kaletik etxera.
- (391) Gaizki *esaka* jarduten dute beti neska-mutil horiek.
- (392) Zer nahi erranka ari zitzaion (Lafitte, Grammaire Basque, 460).

5.3.4. Aditzoina + *-KI atzizkia (jakinki)*

Aditz trinko puntukari baten lekuan, atzizki hau hartzen duen adizkia erabili ohi da Ekialdean; adizki trinko puntukari horren baliokide jokatugabea dela esan dezakegu. Hona zein den baliokidetza hori:

- dakielarik - jakinki
- doalarik - joaki
- delarik - izaki

- (393) Lotsati samarra *izaki*, ez dio neskari baiezkoa eman.
- (394) *Jakinki* ez zuela harria altxatzea lortuko, bertan behera utzi zuen saiakera.

Hona literatura-tradizioko adibide batzuk:

- (395) Gobernadoreak, *jakinki* etzela deusik hari giristino zenbeit hilarazirik ere, hekien aintzindariak bizirik uzten balin bazituen, manatu zioten sei soldaduri zohatzila gabaz aintzindari hekien preso hartzera (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 142).
- (396) Jakitaterik ez, dirurik ere ez hanbat, bakartiarra berzalde eta bere tokiko berri baizik ez *jakinki*, eskualdun gaizoket nola zezaketen iharduk hainbertze atzerritar gose bezain argituen aztaparrari (J. Etchepare, *Beribilez*, 49).
- (397) Joaitera utzi zuten, Uhaitz aldera *joaki* (Mirande, *Miranderen idazlan hautatuak*, 142).
- (398) Ba'ninjoan ni aurrera, mutilla ere nere bidetik *joaki* (Anabitarte, *Poli*, 91).
- (399) Eta horra Joanes oihan-pean sartua, berroz-berro, otarrez-otar, ohoinaren ondotik *joaki*, makila airean, errabia bihotzean, sudurra xixtuz, emaztearen

kontra zer nahi erranka, zaldia, hantxet, aintzineko on baten gomendio utzirik (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 105).

(400) Halere, itzuli bat eginik gure bazterren ikusten, bihozmin: ikusirik eskuara eskuetarik *joaki* eta tokitan kasik joana (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 197).

(401) Iduri zaut oraino ere ikusten dudala, hantxet, gazteluko karrikari goiti *joaki* (Barbier, *Supazter chokoan*, 67).

Ezin erabil daiteke, nolana ere, edozein aditzekin. Hauek dira ohikoenak: *izan (izaki)*, *jakin (jakinki)*, *egon (egonki)*, *joan (joaki)*, *ibili (ibilki)*.

LABURPENA

1.0. SARRERA

Atal honetan, aditz jokatu gabea duten moduzko perpausez jardun dugu; era honetako perpausez:

- (1) *Giltza sarrailan sartuz eta hari buelta emanez* irekitzen da atea.
- (2) Lekukoak esandakoa entzun ondoren, *guztiz harriturik* geratu da epailea.
- (3) Egoera zaila dugu: aspaldion gabilta *burua goratu ezinda*.
- (4) *Amaitu gabe* utzi zuen bazkaria.
- (5) *Etxea erosi nahirik* etorri zaizkigu maizterrak.
- (6) *Bete ahala* husten zuen edalontzia oihanzainak.
- (7) *Lanak egiteke* zenezkan gaur goizean ikusi zaitudanean.

Perpaus nagusi batek adierazitako gertaera nola betetzen den adierazten duten perpausak dira, eta, liburuki honetan aditz jokatu gabeak dituzten moldeak izan ditugu hizpide. Perpaus nagusiaren osagarri zirkunstantzialak dira, hau da, modua adierazten duten adberbio-perpausak, adjuntuak.

Hona molde horietako batzuk: *-TUZ*, *-TUTA*, *-TURIK*, *-TU EZTA*, *-TU GABE*, *-TU EZINDA*, *-TU ORDEZ*, *-TU AGINEAN*, *-TU AHALA*, *-TU ARAU*, *-TU BEHARREAN*, *-TU BEHARREZ*, *-TZEKO ZORIAN*, *-TZEKE...*

Moduzkotasuna adierazteko, modu eta maila desberdinak daudela esan behar da:

- Moduzko perpaus garbiak: modua era garbian adierazten dute honako bi perpaus menderatuek:

(8) Giltza sarrailan sartuz eta hari buelta emanaz irekitzen da atea.

(9) *Burua altxatuta* lortu dut Andoni ikustea.

Berez, halakoak dira moduzko perpaus garbiak; baina ikusiko dugu guztiak ez direla maila berean moduzko, nolabait esateko, denek ez diotela definitio horri estuki jarraitzen.

- Bigarren maila batean moduzkotzat hartuko ditugunak ere baditugu: perpauseko osagai bati buruzko predikazioa egiten dutenak.

(10) Andoni ikusi dut burua altxatuta.

Adibide honetan, *-TUTA* moldea daraman perpaus menderatuak *Andoni*-ri buruz egiten du predikazioa, eta ez du esaten *NOLA* gertatu den aditz nagusiak adierazten duen gertaera.

- Badira “moduaren” kontzeptu garbitik are urrunago doazen perpausak ere. Horien artean, bada bat nahikoa urruntzen dena, kausa-azalpenetik ia zentzu ilatibo hutsera lerratzen dena; ondokotasunezko esan diezaiekegu halakoei:

(11) *Hori ikusirik*, etxean geratu da. [hori zela eta / hori **ikus**i, **eta**]

(12) *Hori ikusita*, etxean geratu da. [hori zela eta / hori **ikus**i, **eta**]

Esanahiaren lerratze nabarmen hori gorabehera, moduzkoen sailekotzat jo daitezke halakoak ere:

(13) *Hori jakinik/jakinda*, lasaiago gaude.

(14) Mutikoak, *zuhaitzera igorik/igota*, gereziz bete zuen saskia.

• Orain arteko adibideetan, erreferentziakidetasuna zegoen perpaus nagusiko eta menderatuko subjektuen artean (subjektu bera dute bi perpaus), baina, logikoa denez, are zailagoa da modu-adiera garbia esleitzea erreferentziakidetasunik gabeko esaldiei:

(15) *Erromatarrek Kartogo errerik/erreta*, beste bide bat hartu zuen historiak.

Beraz, modu-adiera garbikoak izan nahiz modu-adieratik urrunagokoak izan, guztiak aztertuko ditugu kapitulu honetan, behin haien arteko hasierako bereizketa hori garbi utzita.

1.1. ADITZ-PARTIZIPIOA (-TU) OINARRI DUTEN MOLDEAK

Moduzkoetan, nagusi dira partizipioan oinarritzen diren moldeak.

1.1.1. -TURIK eta -TUTA

-TUZ-ekin batera, moduzko gertaera burutuak adierazteko forma ohikoenak dira bi hauek. Baliokide dira esanahiz eta, formaz gain, bien arteko desberdintasun bakarra distribuzio dialektalarena da.

1.1.1.1. -TURIK

Aditz-partizipioari -RIK atzizkia gehituz osatzen da molde hau. Modu-balioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen da.

-RIK atzizki horrek berak sortzen ditu moduzko (nolakotasunezko) adberbioak ere: zenbait izeni edo izenondori atzizki hori erantsiz lortzen ditugu

moduzko adberbio batzuk: *zabalik, hutsik, isilik, bizirik, gaixorik, biluzik, pozik, zutik...*

Funtzio sintaktiko bera dute adberbio hauek eta moduzko perpaus mende-koek (*-TURIK* moldearen bidez osatzen direnek).

(16) Botila *hutsik* ikusten dugu. (ADBERBIOA)

(17) Gure laguna *nekaturik* ikusten dugu. (*-TURIK*)

Hona molde honen adibide batzuk:

(18) *Leher eginik* ailegatu ginen Baigurako tontorrera.

(19) *Nazkaturik* nago beti gauza bera aditzeaz.

(20) *Lagunen portaera ikusirik*, bakarrik ibiltzea erabaki zuen.

Testu klasikoetan ugari ageri da atzizki hau, Ekialdean zein Mendebaldean, euskararen eremu osokoa baita *-TURIK* moldea:

(21) Bi aingeru agertu zitzaizten gizonaren iduriaren azpian erran ziotenak: gizon Galilearrak, zer hari zarete hor *begiak zerurat altxaturik?*

(22) Ispiritu mei, beste mundukoak, gaiaren eta itxuraren bitartekoak an zebiltzan arat-onat, *argilarraiñez inguraturik*.

Egia da garai berriagoetan *-TUTA* moldea erabiltzen dela gehien bat Hegoaldean, baina argi utzi behar da Hegoaldekoa ere badela *-TURIK* atzizkia, Hegoaldeko testu klasikoetan ere aurkituko dugula.

• *-TURIK*-en bidez eratzen diren perpausak ezezko forman ematean, ez da ohikoa *EZ ...-TURIK* erako egitura: *(?)ez eginik, (?)ez etorririk...*

Ezeztapena egiteko bide arruntena *GABE* edo *BARIK* postposizioetara jotzea da: *-TU GABE, -TU BARIK*.

1.1.1.2. –TUTA

Modu-balioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen da –TUTA atzizkia, eta –TURIK-en baliokidea da esanahiz.

–TUTA moldea Hegoaldeko tradiziokoa da, ez da Iparraldeko testuetan ageri. Ez du esan nahi, ordea, Hegoaldean –TUTA bakarrik erabiltzen denik, –TURIK moldea ere orokorra izan baita historikoki, euskararen esparru guztietakoa, nahiz gerora, –TUTA nagusitu zaion Hegoaldean.

(23) *Lan asko eginda* iritsi da lanpostu horretara.

(24) *Lagunaren portaerarekin etsita*, kasurik ez egitea erabaki genuen.

Hona, berriz, literatura-tradizioko batzuk:

(25) Sarrittan ibilli bearkok astebetean soñekoak legortu бага, *txitteen-pitteen uretan barruan sartuta*.

(26) Kalte andirik izango ote zenduan, *Meza enzuten errian geratuta?*

• –TURIK moldea ezezkoan emateko modu berean adierazten da ezezkotasuna –TUTA moldearen kasuan ere. Modurik arruntena, –TU GABE moldea erabiltzea da (bizkaieraz, –TU BARIK).

(27) *Telebista ikusi gabe* ere ondo bizi daiteke.

(28) *Telebista ikusi barik* bere ondo bizi leike.

Bestalde, EZ partikula ezezkoa txerta daiteke moldearen bi parteen bitartean ere. Ez da beharbada molderik erabiliena, baina Hegoaldeko zenbait lekutan arruntak dira era honetako egiturak:

(29) *Hori etxetik atera nahi ezta* dago.

(30) *Telebista ikusi ezta* ere ondo bizi daiteke.

• Badira, *-KO* atzizkia erantsirik, *-TUTA* oinarritzat hartzen duten molde batzuk ere; modu-adiera duten postposizio batzuekin agertu ohi da oinarri hau, eta moduzkotzat jo behar dira: *-TUTAKO ERAN*, *-TUTAKO MODUAN*, *-TUTAKO LEGEZ*. Aditz laguntzailearen elipsiaren ondorioz laburtutako perpaus jokatuak ditugu, eta *EGLU V* liburukian izango du irakurleak molde hauen guztien berri zehatzagoa.

1.1.2. *-TUA(K)*

Partizipioak ezin dira erabili atzizkirik (*-TA/-RIK*) edo artikulurik (*-A(K)*) gabe:

(31) Triste(rik) daude. / Zapuztuta/zapuzturik daude. / *Zapuztu daude.

(32) Triste(a) dago. / Zapuztua dago. / *Zapuztu dago.

Erabilera horretan, artikulua adjektibo-funtzio hori markatzera dator, singular/plural komunztadura duela:

(33) Apaina da. / Apainak dira.

(34) Apaindua da. / Apainduak dira.

Izan (zein *ukan*) aditza badator segidan, aditz perifrastikotzat hartzen da segida [partizipioa + aditz laguntzailea]:

(35) #Behartu dira/dituzte.

Interpretazio hori haustera dator hor artikulua:

(36) Behartuak dira/dituzte.

Hori horrela, argi samar ageri da ez dagoela urrun artikulua erabilera hori *-TUTA/-TURIK* atzizkien erabileratik.

Jakina, atzizkiok ez dira bateragarri (oro har, zubereraz eta beste hizkera bakanen batean izan ezik) *izan/ukan* lotura-aditzekin:

- (37) *Ahantzirik/ahaztuta dira/ditugu.
- (38) Ahantzirik/ahaztuta daude/dauzkagu.
- (39) Ahantziak dira/ditugu.

Mendebaldean, exotikoa da, gaur egun behinik behin, Ekialdeko azken joske-
ra hori [partizipioa + $-a(k)$ + *izan/ukan*], eta *egon/eduki* aditzetara jotzen da.
Aditz horiekin, berriz, eta predikazio atributiboa onartzen duten beste aditzekin
(*ibili, iruditu, aurkitu, ikusi...*), hauek dira Ekialde/Mendebalde aukerak:

- (40) Ahantziak/ahantzirik zeuden/zebiltzan.
- (41) Ahaztuta/ahazturik zeuden/zebiltzan.

Orokorra, beraz, [partizipioa + $-RIK$] moldea dugu. Hala ere, Mendebal-
dean, [partizipio + $-TA$] moldea nagusitu zaio ia erabat. Jakina denez, $-TA$
atzikia exotikoa da Ekialdean, eta gauza bera gertatzen da Mendebaldean,
prosa landutik kanpo [partizipio + $-a(k)$ + *egon/ibili...*] moldearekin.

$-TUTA$ zein $-TURIK$ moldeetan, denbora-ondoriotasunezko interpretazio
batera etor daiteke mendeko perpausaren eta haren perpaus nagusiaren ger-
takarien arteko jokoa, moduzkoa aurretik eta tarteki gisa doanean. Bestela
esanda, narrazioaren bi item izan ditzakegu esanahiaren aldetik, aditz isiltzean
zein *eta* enklitikoarekin bezalatsu:

- (42) Mutikoak, arbolara igo, eta sagarrari heldu zion.
- (43) Mutikoak, arbolara igo eta, sagarrari heldu zion.
- (44) Mutikoak, arbolara igota/igorik, sagarrari heldu zion.

Denbora-ondoretasunezko interpretazio-aukera horrek ez du eragozten mo-
duzko interpretazio kanonikoa ere, hots, kasu horretan, *sagarrari horrela* (*ar-*

bolara igorik (zegoela) heldu, baina hor dago, eta, anbiguotasunak gorabehera, guztiz ohikoa da zentzu narratibo hori baliatzea halako perpausekin.

Artikuludunera itzulita, berriz, hona zer den haren alde ezaugarria: artikuludunak ezin du hartu zentzu narratibo-edo hori, eta deskriptiboki ulertzen da beti.

Ez dira sinonimo, beraz, honelako pareak:

- (45) Mutikoak, arbolara igoa (zegoelarik/baitzegoen), sagarrari heldu zion. [deskriptiboa: gertakari bakarra, moduzkoak iruzkindua]
- (46) Mutikoak, arbolara igo (zen), eta sagarrari heldu zion. [narratiboa: bi gertakari]

Halakoetan, bada, ez dira sinonimo artikuluduna eta bestelako moduzkoa. Esanahi-alde hori dela eta, artikuluduna da aukera bakarra narratiboki interpreta ez daitezkeen testuinguruetan:

- (47) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazia, ez zuen ohitura haren berri.
- (48) *Neskatoak, kanpoan jaio eta hazita/hazirik, ez zuen ohitura haren berri.

Izan/egon aditzen baten isiltzearekin lot daiteke joskera hori, eta hura agerian ematea litzateke halako joskerarik ez darabilten hizkeren aukera:

- (49) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazia (zelarik / baitzen / zen eta), ez zuen ohitura haren berri.
- (50) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazi(a) zen eta, ez zuen ohitura haren berri.
- (51) Neskatoak, kanpoan jaio eta hazi(a) zenez, ez zuen ohitura haren berri.

Bestalde, esan beharra dago badirela guztira hiru joskera guztiz desberdin, zein bere adierarekin, hirurak partizipioan oinarrituak:

- Erlatibozkoa: (*erraz ahazten da*) *horrela ikasia* [=ikasitakoa, ikasi d(u)ena]

- Osagarria: (*damutu zaio*) *horrela ikasia* [=ikasi izana]
- Moduzko tartekia: (*gazte gaixoak,*) *horrela ikasia* [=ikasia izaki/baita/delarik] (*, ezin zuen bestela jokatu*)

Erlatibozkoak joko guztia du: singular/plurala eta edozein kasu-marka. Osagarriak ez du onartzen pluralik, baina bai kasu-marka gehienak. Moduzkoak ez du onartzen kasu-markarik, baina bai singular/plural jokia.

Moduzkoa, hala, hurbilago dago joskeraz *-TUTA/-TURIK* bere kideetatik, formaz (absolutiboan) berdinak diren beste horietatik baino; forma finkoa du, kasuz jokiaezina (numeroa gorabehera). Izan ere, eman dugun parafrasiaren ildotik doa bi moldeen arteko alde formala:

(52) **Ikasia** da/dago. / **Ikasiak** dira/daude.

(53) **Ikasirik/ikasita** dago/daude.

Esanahiari dagokionez, atribuzioarekin lotuago dago *-TUA(K)*, testuinguru beretan, *-TURIK/-TUTA* moldekoak baino.

1.1.3. *-TUZ (-TUAZ)*

Partizipioari instrumentalaren marka (*-Z*) erantsiz lortzen da moduzko perpaus jokatu gabe hau. Balio beza orain idatzi berri dugun esaldi honek adibidetzat:

(54) Partizipioari instrumentalaren marka (*-Z*) erantsiz lortzen da moduzko perpaus jokatu gabe hau.

NOLA lortzen da moduzko perpaus hau? Partizipioari instrumentalaren marka (*-z*) *erantsiz*. NOLA galderari erantzuten dio forma horrek: *erantsiz*.

Gauza bera gertatzen da instrumental-marka duten hainbat adberbio moduzkorekin ere: *nekez, berriz, zinez, oinez, gogoz, berariaz...* Halakoek *-Z* instrumentalaren bidez lortzen dute modu-adiera: adberbio hauek *-Z* marka izenki bati erantsiz, eta moduzko perpausek perpaus bati (edo perpausaren aditz jokatu gabeari) erantsiz: *-TUZ*.

-TUZ eta *-TUAZ* formen arteko banaketa zeren arabera gertatzen den zehazki ez dakigularik, esan behar da forma mugatuan eta mugagabeen erabili izan dela molde hau.

-TUZ eta *-TUAZ* formak aurkituko ditugu, beraz, literatura-tradizioan. Iparraldean ez da *-TUAZ* erabiltzen, eta Hegoldean biak erabiltzen dira, *-TUZ* eta *-TUAZ*. Literatura-tradizioan, *-TUAZ* dago zabalduagoa Hegoaldean, baina gaur egungo erabileran *-TUZ* ari zaio nagusitzen.

(55) *Lan eginez* dirua egiten dela esan dit amonak.

(56) Batzuk *leituz* ilustratzen dira; beste batzuk, aldiz, *entzunez*.

(57) Ala ere, *tostak kendu ta lasaiki aztertuz*, zuloa non egin erabaki zuan.

• *-TZEZ*: beste balio batzuen artean, moduzkoa ere badu aditz-izenean oinarritutako molde honek. *-TZEZ* forma duten adibide klasikoak gehienbat Ekialdeko egileen izkribuetan ageri dira, eta ez dira oso arruntak:

(58) *Luzatzez* geroti gerora egitekoak, ardiesten du nehor herioak.

• *-TUZ* moldearen erabilera oker bat zuzentzen

EGLU VI liburukian aditz jokatudunen kasuan okertzat eman genuen egi-tura baten parekoa dugu aditz jokatu gabeetan ere:

(59) ?? Leihotik erori zen, *hanka hautsi zuelarik*.

(60) ?? Leihotik erori zen, *hanka hautsiz*.

Berez juntaduraren bidez ematekoak diren bi proposizio menderatu-forman ematen dira zenbaitetan: ez dute tradizio sustraiturik euskaraz eta egokiago ikusten ditugu halakoak juntadura bidez emanda. Honelatsu:

(61) Leihotik erori zen, ETA hanka hautsi zuen.

(62) Leihotik erori, ETA hanka hautsi zuen.

- Oker bat zuzentzen: $-TUZ \neq -T(Z)EN$

Gaur egun zenbaitetan ez dira behar bezala bereizten $-TUZ$ formadun moldeen eta $-TZEN$ formadunen eremuak; nahastu egiten dira, eta batzuetan bigarrena lehenaren ordeztzen da.

Aditz nagusiari egiten zaion galderaren erantzunak bereizten ditu bata eta bestea. *NOLA* galdetzailea erabiliz gero, $-TUZ$ formadunak izango genituzke eta *ZERTAN* galdetzailea erabiliz gero, berriz, $-TZEN$ formadunak.

(63) *Irakurriz* ikasi dute haurrek.

(64) *Irakurtzen* ikasi dute haurrek.

Bataren zein bestearen eremuak ongi mugatuta daude: Lehenbiziko adibidean, “nola ikasi duten” da kontua, hau da, ikasteko moduz ari gara, eta beste zerbait ikasi dute (ingelesez, adibidez), eta ez irakurtzen; bigarren adibidean, berriz, haurrek ikasi dutenaz ari gara, “zer egiten ikasi duten” edo “zertan ikasi duten” da kontua: irakurtzen, alegia.

1.1.4. [-TU + postposizioa]

1.1.4.1. -TU AHALA, -TU ARAU

$[-TU + AHALA, AHALEAN]$ moldea $-eN$ *NEURRIAN* moldearen parekoa da, baina bigarren balio bat ere badu. Hona dituen bi balioak:

(a) **Luzatzen edo errepikatzen den egoera:** gertaera bat garatuz doan neurrian beste bat garatzen ari dela adierazten du:

(65) *Bete ahala* husten zuen basozainak edalontzia.

(66) *Ezkondu ahala*, baserria utzi behar izaten genuen anai-arreba gehienok.

(b) **Kantitatezkoa:** ezin gehiagoko neurria adierazten du, muga baterainoko neurria. Galdegaia izateko joera erakusten dute halakoek.

(67) *Bota ahala* ari du euria.

(68) *Edan ahalean* ari zen gure laguna tabernan.

[*-TU ARAU*] moldea [*-TU + AHALA*]-ren baliokidea da, haren lehenbiko adierarena, luzatze edo errepikapenezko esan diogunarena.

(69) *Sartu arau* hiltzen zituen.

(70) Maitasunezko lokarri berak Jainkoari lotzen dizkion *jende gehiago irudikatu arau*, maitatzenago dugu Jainkoa.

1.1.4.2. ADITZ PARTIZIPIOA + POSTPOSIZIO MODALAK

A. *-TU BEHARREAN*: molde honek hiru erabilera hauek ditu:

A.1. Aditzak dioena gertatzeko zorian dago

(71) *Ito beharrean* ibili ziren umeak lakuan.

-TU AGINEAN (*-tu aginik*) eta *-TZEKO ZORIAN* dira molde honen baliokide bi; guztiak patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen dira.

Instrumentalaren marka duela ere ager dakiguke erabilera honetan, Hegoaldeko nahiz Iparraldeko testuetan: *-TU BEHARREZ*.

A.2. Beharrezkotasuna: *-TU BEHARREAN + egon*

(72) *Zurekin hitz egin beharrean* gaude ahalik eta lasterren.

A.3. *-TU ORDEZ* moldearen baliokidea dena

(73) *Barkamena eskatu beharrean*, hartzekoekin etorri zitzaidan. (=Barkamena eskatu ordeztu, hartzekoekin etorri zitzaidan)

B. *-TU NAHIRIK* (*nahian, nahizik*); *-TU GURARIK* (*guran*)

[*-TU + NAHI*] moldeak mendeko aditzak adierazten duen gertaera egiteko asmoa edo nahia agertzen du. Baliokideak direla esan daiteke, atzizkia desberdina izanik ere.

(74) *Etxea erosi nahirik* etorri zaizkigu maizterrak.

(75) *Etxea erosi nahian* etorri zaizkigu maizterrak.

C. *-TU EZINDA, -TU EZINEAN, -TU EZINIK*: egoera baten aurrean zerbait egiteko ezintasuna adierazten dute.

(76) Egoera zaila dugu: aspaldion gabiltza *burua goratu ezinda*.

Partitiboaren marka duelarik, bi eratara adieraz daiteke ezintasuna:

(77) Aurten eguneroko otorduekin asmatu ezinik gabiltza.

(78) Bazkariko azkenburukoa *ezin amaiturik* utzi genuen, lepo baikeunden.

1.1.4.3. *EZEZKOAK: -TU GABE, -TU BARIK, -TU EZTA*

[*-TU + GABE, BARIK*] moldea oso emankorra da euskaraz. Mendeko aditzaren ezezko forma markatzeko molde nagusia da, nahiz bakarra ez izan: *-TU EZTA* ere erabiltzen da zenbait hizkeratan; bai eta *-TZEKE* ere.

Beraz, *-TURIK* eta *-TUTA* moldeen ezezko formak ditugu *-TU GABE* eta *-TU BARIK*:

Nekaturik + ez: nekatu gabe, nekatu barik

Nekatuta + ez: nekatu gabe, nekatu barik

Forma nagusiak *-TU GABE* eta *-TU BARIK* dira, baina badira aldaera ugari: *-tu бага*, *-tu ba*; *-tu bage*, *-tu be*; *-tu gaberik*, *-tu bagerik*; *-tu bagarik*; *-tu gabetan*, *-tu bagetan*, *-tu bagetanik...*

(79) Jaungoikoari guretzat geien opa deguna eskeñi bear zaio, ta gerorako *utzi gabe*, *biar edo etzirako luzatu gabe*.

(80) Nun egon zirean zeuen lagun gizasemeak, galarrena etorrela aurretiaz *ezagutu бага?*

(81) Imiñi eusten letxe: ezertxu be *aldatu barik*.

[*-TU + EZTA*] moldea ere erabil daiteke moduzko perpaus jokatugabeak egiteko. *-TU GABE* da euskaraz gehien erabiltzen den forma, esan bezala, baina Hegoaldeko zenbait lekutan *-TU EZTA* ere erabiltzen da. Badirudi bada-goela tradizio bat aditz modalekin erabiltzeko: *gura izan*, *nahi izan* aditz modalen laguntzaz erabiltzen da asko:

(82) Hori etxetik *atera nahi ezta* dago. (ez du etxetik atera nahi)

(83) *Ezer jan nahi ezta*, alde egin nuen etxetik.

1.1.4.4. Konparaziozkoak: -TU BEZALA eta -TU LEGEZ

-eN BEZALA eta *-eN LEGEZ* aditz jokatuan oinarrizko diren moldeez gain, baditugu partizipioa har dezaketanak ere, *-TU BEZALA* eta *-TU LEGEZ*. Hala ere, esan beharra dago aditz laguntzailearen elipsiaren ondorioz laburtutako perpaus jokatuak ditugula.

(84) *Ordenatu bezala* konplitu zuen.

(85) Arraña jo, *arraña artu lez* da.

1.1.4.5. –TU AGINEAN, aginik

[–TU + AGINEAN, AGINIK] moldeak mendeko perpausak adierazitakoa gertatzeko unean dagoela adierazten du, eta batez ere arriskua edo egoera larria adierazten du egitura osoak; patu txarra adierazten duten aditzekin erabili ohi da: *hil, ito, jausi, galdu,...*

(86) Erregutu egiozu biotz biotzerik Yaungoikoari, *iya betiko galdu aginean*, edo orretarako bidean dagozanak gaiti.

(87) Laguna *jausi aginik* ikusi zenuenean, zuhaitzean gora egin zenuen hura salbatu nahian.

1.1.4.6. –TU ORDE, –TU ORDEAN, –TU ORDEZ

[–TU + ORDE + atzizkia] moldearen bidez, bi gertaera parez pare izanik bata egin beharrean bestea egiten dela adierazten da:

(88) *Barkamena eskatu orde*, hartzekoekin etorri zen.

(89) *Barkamena eskatu ordez*, hartzekoekin etorri zen.

(90) *Barkamena eskatu ordean*, hartzekoekin etorri zen.

Hegoaldeko erabileran balio honetan tradizio sendoena duen moldea –TU BEHARREAN den bezala, Iparraldekoan ORDE postposizioa duten moldeak ditugu: –TU ORDE eta –TZEKO ORDE. Postposizioa ORDEAN forman ere erabili ohi da, –TU partizipioaren ostean Hegoaldean eta –TZEKO formaren ostean Iparraldean.

- (91) Plazara *joan orde*, doha dantzara eta ostatura.
- (92) Laidostatua *izaiteko orde* izanen dela goraltzatua.

Forma nagusi horiez gain, *-TU ORDEZ* aldaera ere zabaldu da gerora Hegoaldean, *-TZEKO ORDEZ* Iparraldean bezala.

1.2. ADITZ-IZENA OINARRI DUTEN MOLDEAK

Atal honetan, aditz-izenean oinarritzen direnak aztertu ditugu. Horietan erabilienak *-TZEKE/-TZAKA* dira.

1.2.1. -TZEKE, -TZAKA

Ezezko forma nagusi den *-TU GABE* postposiziodun formarekin batera, bada beste molde ezezko bat Hegoaldeko zenbait hizkeratan: *-TZEKE* moldea.

- (93) Lan hau *amaitzeke* dago.
- (94) Lanak *egiteke* zenituen gaur goizean ikusi zaitudanean.

Hegoaldean erabiltzen da, Mendebaldeko eta Mendebaldera jotzen duen Erdialdeko zenbait hizkeratan, ahozko nahiz idatzizko tradizioan.

Testigantza gehien dituen forma *-TZEKE* da, baina ez dira gutxi bestelako forma darabilten testigantzak *OEH* corpusean: bai *-TZAKA* forman, bai *-TZEKA* moldean.

- (95) Sakela ez ustutzeagatik-edo, or zeudek legortea baiño elkorrago *porru-landare bat bera ere beren bizitzan emateke*.
- (96) Wolfio gau guzi artan *geratzaka* jardun, eta egunsentirako prest zegoan.
- (97) Astiro bañan *gelditzeka* igaro bezate agertokia ertz batetik bestera, udal etxeruntz ezkutaturik.

1.2.2. [-TZEKO + MODUAN / ERAN / GISAN / MANERAN]

Konparazioak bideratzeko postposizio hauek har dezakete aditzaren forma jokatu gabea ere: aditz-izena + -KO: -TZEKO ERAN, -TZEKO GISAN, -TZEKO MODUAN eta abar. Liburuki honetan, perpaus osagarrien atalean aztertu ditugu halakoak, postposizio horiek aditz-izena gobernatzen dutelako.

1.2.3. -TZEKO ZORIAN

Aditz mendekoaren gertaera bukatzeko unean edo bukatzetik hurbil dagoela adierazteko erabiltzen da molde hau. Semantikoki, beraz, -TU HURRAN moldearen baliokidetzat jo liteke.

Patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen da batez ere: *hil, ito, hondatu, galdu, amildu, lehertu, erori, hondoratu...*

Batez ere Hegoaldeko tradizioan erabili izan da molde hau:

(98) Kristautasuna *ondatzeko, itotzeko, galtzeko zorian zebiltzan.*

(99) Ez du ekusten nola arkitzen dan betiko su eta garren artera *amiltzeko zorian.*

1.2.4. -TZEAREKIN, -TZEAGAZ

[-T(Z)E + -A + -REKIN] moldeak nagusiki denbora-balioa du. Hala ere, moduzko kutsua ere izan dezakete inoiz.

(100) Zerua ez da itz utsakkin irabazten, *ezpada Jaunaren aginduak gordetzearekin.*

(101) *Negar egiteagaz*, pentsau eban kolkorako, ez dot irabazten ezer.

Nolanahi ere, ohikoagoa da -TU(A)Z atzikiaren bidez osatutzea:

(102) *Gezurra esanez* ez da ezer konpontzen.

1.2.5. -TZEKOTAN

[*-TZE + -KO + -TAN*] moldeak, besteak beste, baldintzazko, denborazko eta helburuzko balioa har dezake. Nolanahi ere, badirudi zenbait kasutan modu-kutsua ere izan dezakeela:

- (103) Artzainak arthoski jarraiki behar du *erditzekotan* diren ardiei, eta antxuei berreziki.

1.3. ADITZOINA OINARRI DUTEN MOLDEAK

Aditzoina oinarri duten moduzko perpaus jokatugabeak markatuak dira, esapide gisakoak, eta, dakigun bezala, bereziki Ekialdeko euskalkietako literatura-tradizioan erabiltzen dira.

1.3.1. Aditzoin juntatuak edo enumeraziozkoak

Zenbaitetan, aditzoina eta partizipioa nahasten dira, eta *ETA* nahiz *EDO* juntagailua har dezakete aditz juntatuek:

- (104) *Sal edo erosi* dabilta aspaldion tratularia eta nekazaria.

- (105) *Hasi eta buka* irakurri zuen liburu osoa.

1.3.2. Aditzoina + AHALA + aditzoin bera

Esapide adberbial hauek ez dira oso emankorrak:

- (106) *Jo ahala jo* ari ziren sagar zanpatzen dolarean.

- (107) *Higi ahala higi* ihes abiatzen dire, eta armada guzia heien ondotik.

1.3.3. Aditzoina + –KA atzizkia

Gerundioaren antzeko perpausak egiteko erabiltzen da. Izen bati edo aditz bati lotua ageri da; arruntagoa da izen bati lotua aurkitzea. Gertaera errepikakorrek adierazten dituzte:

- (108) Loteria tokatu zaigula *esaka* etorri da kaletik etxera.
- (109) Gaizki *esaka* jarduten dute beti neska-mutil horiek.

1.3.4. Aditzoina + –KI atzizkia

Aditz trinko puntukari baten lekuan, atzizki hau hartzen duen adizkia erabili ohi da Ekialdean; adizki trinko puntukari horren baliokide jokatugabea dela esan dezakegu: *dakielarik* ≡ *jakinki*.

- (110) Lotsati samarra *izaki*, ez dio neskari baiezkoa eman.
- (111) *Jakinki* ez zuela harria altxatzea lortuko, bertan behera utzi zuen saiakera.

Ezin erabil daiteke edozein aditzekin. Hona ohikoenak: *izan (izaki)*, *jakin (jakinki)*, *egon (egonki)*, *joan (joaki)*, *ibili (ibilki)*.

6. PERPAUS ERLATIBOAK

6.0. SARRERA

EGLU V-en adierazi bezala, perpaus erlatiboak, *arruntak* deitzen ditugunak bederen, izen-sintagmen barneko osagaiak dira, hala nola ikus baitaiteke ondoko adibidean:

- (1) a. [Etxeberrik berriki itzuli duen] eleberriari sari bat eman diote.

Adibide horretako izen-sintagma datiboaren barnean, izen-ardatzaren (*eleberri*) ezkerrean perpaus bat agertzen da, izenlagun dena eta bi kakoren artean ezarri duguna (*Etxeberrik berriki itzuli duen*). Perpaus hori perpaus erlatiboa da.

Izen-sintagman duten izenlagun eginkizunaz landa, perpaus erlatiboen ezaugarria da barnean badutela *EGLU V*-en (176. or.) *izen-sintagma erlatibatua* deitu genuen izen-sintagma bat, erreferentziakide dena perpaus erlatiboa barnean daukan izen-sintagmarekin. Ez da erraz (1a) bezalako perpaus erlatibo arruntetan horretaz ohartzea, izen-sintagma erlatibatua ez baita ageri. Gauzak argiago egiteko, (1a) perpaus erlatiboaren barnean \emptyset zeinuaren bidez seinalatzen badugu agerikoa ez den izen-sintagma erlatibatua, eta bi geziren bidez sintagmen arteko erreferentziakidetasuna, (1b) bezalako perpausa dugu:

- b. [Etxeberrik \emptyset berriki itzuli du-en] eleberriari sari bat eman diote

↑ _____ ↑

Horrela, goiko adibidean, saria eman zaion eleberria Etxeberrik berriki itzuli duena dela ulertzen dugu, nahiz, aditz-komunztadura kontuan hartzen ez bada behintzat, *eleberria* hitza bera, edo haren ordaina litzatekeen izenordain agerikorik, ez den kausitzen *Etxeberrik berriki itzuli duen* perpaus erlatiboan.

Orain beha diezaiogun ondoko adibideari:

(2) a. [*Etxeberrik berriki itzulitako*] eleberriari sari bat eman diote

Adibide hau aurrekoaren parekoa da, eta baliokidea esanahiari dagokionaz. Egitura ere bera duela pentsa daiteke, hots (2b)-koa:

b. [*Etxeberrik Ø berriki itzuli-tako*] eleberriari sari bat eman diote

↑ _____ ↑

(2a,b) adibideetako adizkera (*itzulitako*), haatik, ez da jokatu, eta ez da agertzen hartan perpaus erlatibo jokatuetakoa $-(e)N$ menderagailua, hain zuzen atziki hau adizkera jokatupei baizik ezin lot baitakieke.

Perpaus hauek, jokatuak eta jokatugabeak, parekoak izanik, juntaturik ager daitezke, hots perpaus erlatibo jokatugabeen eta jokatuaren artean ere gerta daiteke juntadura, ondoko adibidean bezala:

c. Bertan zeuden baserritarrak ekarritako edo baserrietan geienbat bear izaten diran gauzak (Aguirre, *Garoa*, 83).

(2c)-ko adibidean *gauza* izen-ardatzaren aurrean bi perpaus erlatibo agertzen dira, *edo* juntagailuaren bidez juntatuak: bat (*baserritarrak ekarritako*) ez da jokatu, eta bestea (*baserrietan geienbat bear izaten diran*), aldiz, bai.

(2a)-n bezala, partizipio burutuaren bidez eratu perpaus jokatugabeak *perpaus erlatibo jokatugabe arruntak* direla erranen dugu, eta, hain zuzen, hauek

izanen dira atal honetako aztergai nagusiak. Aztergai nagusiak, baina ez bakarrik, zeren baitira beste egitura batzuk perpaus erlatibo gisa azterkatzen ohi direnak, jokatugabeak izanik bestela moldatzen direnak. Horrela, *EGLU V*-ean adierazi baikenuen korrelazioz ere molda zitezkeela perpaus erlatiboak, orain ikusiko dugu aditza jokatu gabe ere era daitezkeela itxura bertuko perpausak, ondoko adibidean bezala:

- (3) *Non hilko, hara joango!* (ahozko lekukotasuna, Villasantek ekarria, *Sintaxis de la oracion compuesta*, 98).

Bestalde, *EGLU V*-ean (258-259) molde jokatuan guziz zaharkituzat jo genituen (4) bezalako perpaus erlatibo bereziak gaurko euskaran (5)-ean bezalako era jokatugabeen bizi-bizi direla ikusiko dugu.

- (4) Ez dago nok egin dagijan penitenzizarik (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 29).
- (5) I ixilik egonda ere, bazegok bai an nork itz egin! (Mendizabal, *Arantzazuko biltzarra*, 21).

Beraz, hiru perpaus-mota aurkeztuko ditugu hemen, erlatibo jokatugabeen dagozkienak:

- Perpaus erlatibo jokatugabe arruntak (*zuk ekarritako liburua*)
- Korrelaziozko perpaus jokatugabeak (*nor aipatu, hura agertu*)
- [izenordaina + adizki jokatugabea] erakoak (*badugu non lo egin*).

6.1. PERPAUS ERLATIBO JOKATUGABE ARRUNTAK

6.1.1. Perpaus erlatibo jokatugabe arrunten aldaerak

Perpaus erlatibo jokatugabe arruntak partizipio burutu jokatugabearen bidez eratzen dira. Halere, euskalkien arabera itxura desberdinak har ditzake

partizipioak halako perpausetan, nolako atzizkia eransten zaion, edo ez zaion, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (6) a. Keia, *etxe inguruan egozan gudu-gizonak egindako* suarena zan (Aguirre, *Añemendiko lorea*, 23).
- b. Eta garau au gordeten dau lurraren barruan, *berak eginiko* toki, gorde-leku ta garautegietan (Añibarro, *Gueroco Guero*, 26).
- c. Egon den herrietan bada *harek eginikako* asko lan, bera langile (Hiriart-Urruty, *Mintzaira, Aurpegia, Gizon*, 161).
- d. Mintzatü gira Charlemeignaz *harek egin* kanpañez mündü huntan ükhen zian gerla eta kunbatez (*Xarlemaña*, 14).

Lau adibide hauetan letra etzanean idatzi ditugu perpaus erlatibo jokatuga-beak. Ikus dezakegu haietan *egin* aditza agertzen dela, honen aurretik izen-sintagma ergatiboa izanik. Nabarienez, lau itxura desberdin ditu partizipio burutuak adibide horietan: *egindako*, *eginiko*, *eginikako* eta *egin*. Lau aldaera horiek literatura euskalkien joera nagusiei dagozkie, horrek ez baitu erran nahi zenbait euskalkitako mintzamoldeetan hauetaz beste aldaera batzuk ere ezin erabil daitezkeela. Adibidez, itsas hegiko lapurteran, baztaneran eta bizkaierazko zenbait aldaeratan *-(e)KO* atzizkia aurki daiteke. Nahiz halakoak ez ditugun gehiago aipatuko gure lan honetan, gisa horretako bi adibide eskaintzen ditugu hemen:

- (7) a. *Hainbertzetan irakurriko* liburu hortarik bethi erakaspén berri zerbait atheratzen dut (Lafitte, *Grammaire basque*, 494)
- b. Kontua da, baina, hilabetegarrenean han datorrela Bartolo eroslea kexa eta kexa, *erosiko* behi pintak, *esanekoa* baino askoz esne gitxiago ematen dauala eta (Goikoetxea, *Euskaldunaren anekdotak*).

Perpaus erlatibo jokatugabeetako atzizkiei behatzen badiegu, ohar gaitzke (6d) perpaus izan ezik, beste adibide guztietan *-KO* atzizkia agertzen dela. Dakigun bezala, atzizki hau izenlagunen eratzeko bereziki baliatzen da, eta ez da harritzekoa hemen ere aurkitzea, zeren perpauserei ere lot baitakieke, bai

perpau osagarri jokatu*e* (*-eLAKO* perpau izenlagunak; *EGLU V*, 177) eta bai *-TZEKO* perpau izenlagunetan (ikus 7.3.3.6.). Perpau erlatibo*e* dago-kienaz, literatura euskalkietan agertzen diren formak kontuan hartuz gero (*egindako*, *eginiko*, *eginikako*), *-KO* atzizkia aditz-partizipio*e* loturik agertzen den beste atzizki batekin batean erabiltzen da beti: edo *-TA* atzizkiari erantsirik, edo *-IK* atzizkiari gaineraturik. Arruntean, burutu ondoko egoera adierazteko *-TA* atzizkia erabiltzen duten euskalkietan *-TAKO* atzizkia aurkitzen da erlatiboetan ere, eta *-IK* erabiltzen denetan, berriz, *-IKO* edo *-IKAKO* atzizkiak.

a. Perpau erlatibo jokatugabeen aldaerak euskararen ohiko eremuan

Ohiko euskararen erdialdean aldebat nagusi da [partizipioa + *-TAKO*] era perpau erlatibo jokatugabeetan, eta Mendebaldean ere maiz baliatzen da (partizipioa *-rr-* edo *-l-* batez bukatzen denean, *-DAKO* izaten da atzizkia, euskararen egokitzapen ezagunarengatik).

Ikus ditzagun zenbait adibide:

- (8) Ez dira itz berriak, *zuek aztutako* itz zarrak baizik (Labayen, *Euskal-Eguna*, 70).
- (9) a. *Otz-otzean artutako* erabakia da nerea (Agirre, *Uztaro*, 297).
b. An egozan, nonbaiten, *lenago antxiñatxu joandako* lagunok, azur utsetan, ondar barruan estaldurik (Aguirre, *Kresala*, 199).
- (10) Bere soñekuak ziren abarketa zarrak, *iñoiz baltzak izandako* praka arreak, garriko altza, txaleko gorriskea, mangutsik, eta aurre-aldian narruzko amantal me-me ta birrist argi egitebana (Kirikiño, *Bigarren goabarrak*, 14).
- (11) Ta mandatariak etxera ziranean, *eri egondako* morroia sendaturik arkitu zuten (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 147).
- (12) Eibarko aberats barri bat, Paristik osteria joan-etorria ein ondoren, lagunartean kondatzen ziarduan, *an ikusitako* aurrerapen azkarrak (San Martin, *Zirikadak*, 22).
- (13) Bere *txikitan ikusitako* euskera ematen digu (Goñi, *Ama Birjiñaren agertziak*, 17).

Mendebaldean eta Ekialdeko erdialdean bereziki *-TA* atzizkiaren orde, edo hartaz gainera, *-IK* atzizkia erabiltzen baita partizipio burutueta, *-KO* erantsi ondoan *-IKO* edo *-IKAKO* formak agertzen dira perpaus erlatibo jokatu-gabeen hondarrean (cf. *EGLU II*, 474-478):

- (14) a. Martin, asto-ganean jarrita, txiki-txaka txiki-txaka joan zan *len esaniko* etxe zarreraño (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 24).
b. *Aspaldian gogoan izaniko* eguna, egun iguin ta gorrotagarria, eldu yaka Nikanor-eri (Erkiaga, *Batetik bestera*, 158).
- (15) Yesus, Maria negarretan ari zala ta *onekin etorririko* Yuduak ere negarretan ari zirala ikustean, dardaratu zan bere baitan eta biotza erdiratu zitzaion (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 358).
- (16) Bertze aldi batez, *nonbeitik ethorririkako* fraide bat egotu zitzaion begira luzez saindu gogoetarazgarri hari, etzezakelakotz sinhets, jendea bizi zitekela hura bezala (Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 87).
- (17) Bere bizar beltz ederrarekin, *urrez apaindurikako* luneta batzuen gibelean behakoa orozbat ezti eta hits, iduritzen zaut oraino ikusten dutala (J. Etchepare, *Buruchkak*, 107).

Bi era hauek euskalkien arabera bereziki banatzen dira: Bizkaiko aldean eta goi-nafarreran *-IKO* forma da erabiltzen dena (*-TAKO* eraz gainera, erran dugun bezala), eta *-IKAKO* forma berriz nagusi da Ekialdean, Iparraldean eta inguruetan bereziki.

Esan gabe doa, *-TAKO* eta *-IK(AK)O* formak erabiltzen diren euskalkietan bereziki, edo horrelako jokabidea hartzen duten idazleen lanetan, bi erlatibo erak batera erabiltzen ahal direla. Ondoko perpausean, adibidez juntatuak dira bi perpaus erlatibo, jokatu-gabeak biak, eta atzizki desberdinak dituztenak:

- (18) Alkondara ta praka zuri ta gerriko ta txapel gorriakaz, tanboliña aurretik ebiela amasei mutill ziran; da euren erdian, *gona zarrakaz barregarriro jantzitako ta arpegia kedarrez baltzituriko* gizon bi, lepoan zaragi bana eukiezala, auspezturik eroiezan (Aguirre, *Kresala*, 59).

Iparraldeko euskalkietan bestalde, bereziki Ekialdekoetan, perpaus erlatibo jokatu gabeak aditz-partizipio burutua hutsik dagoelarik eratzen dira maiz. Ikus ondoko adibideak:

- (19) Zaldia hartzen du, eta joan ahala joan badoa *jin* bidetik, makila ukaretik dilindan (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 86).
- (20) Bada, Annam-eko buruzagiek arrazoin bereziak bazituzten An-Son ez begi onez ikusteko, *lehentxago Gualaong erregearen kontra han phiztu* asaldura baten gatik. (Zerbitzari, *Bahnar deitu salbaiak*, 1. kap.).
- (21) *Lukas adiskidearen ohoretan egin* bazkari afariak (Larre, in *Xalbador, Odolaren mintzoa*, 19).
- (22) a. Eta hemen gogorat heldu zait *langile batek adiarazi* aitormena (Etcheberry, *Hazparneko misionestak*, 77).
b. Jauna uste dit hüilan dela ene azken orena. Galtatzen dit parkamentü *egin* zor güzietaz (Berzaitz, *Allande Oihenart*, 15).

Azkenik, seinala dezagun, *behar* eta *ahal* horrelako erlatibo jokatu gabeetan ere ager daitezkeela, *-KO* atzizkia harturik. Ikus *behar*-i dagozkion ondoko adibideak:

- (23) a. Ez naiz sartuko *lagunek egin beharreko* lanetan
b. Francisque Michelek dionez, Batteux eta Laharpe omen ziren *obeditu beharreko* legegile edo lege emaile horiek (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 240).
c. *Eurek esan bearreko* gauza zoan ori (Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 268).

Ahal ordea, gisa horretan erabilia denean, aditzoinarekin aurkitzen ohi da, ondoko adibideetan bezala:

- (24) a. Egia da *hek asma ahaleko* gozamen guziak garaitzen dituztela (Hiribarren, *Escaraz eguia*, 82).
b. Arte hortan eguerdiko othoitzak etxe bakoitxeko mahainean jarrarazten ditu, *bil ahalikako* ahaide eta adixkide guziak (Zalduby, *Obrak*, 83).

Gauzak horrela izanik, partizipio burutua *-KO* atzizkiarekin edo hutsik agerrarazten duten perpausak kontuan hartuz gero, hiru era nagusi bereizten ahal dira perpaus erlatibo jokatu-gabe arrunten artean:

- *-TAKO* perpaus erlatibo jokatu-gabeak
- *-IK(AK)O* perpaus erlatibo jokatu-gabeak
- partizipio hutseko perpaus erlatibo jokatu-gabeak.

Perpaus erlatibo jokatu-gabe arrunten ezaugarriak berdin agertzen zaizkigu, duten forma holakoa edo halakoa izanik, haietan aditzak duen erak ez baitu gehienetan eraginik. Horregatik, ondotik aipatuko ditugun kontuetan ez dugu bereizkuntzarik eginen perpaus erlatibo horien artean, ezaugarri horiek dene-tan aurkitzen baitira. Lehenik agerian ezarriko ditugu perpaus erlatibo joku-tuetan ere aurkitzen diren zenbait ezaugarri (6.1.2.), eta ondoren perpaus erla-tibo jokatu-gabeei bereziki dagozkienak (6.1.3.).

6.1.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagozkienak

Perpaus erlatibo jokatu-gabeek badituzte jokatu-ek dituzten ezaugarri nabar-men batzuk:

- aditza nahitaez bukaeran dute;
- sintagma berean, izen-ardatz bera lagunduz, metatzen ahal dira;
- laguntzen duten izen-ardatzaren ezkerrean agertzen ohi dira, baina es-kuinaldean ere ager daitezke;
- edozein izen-ardatz mota lagun dezakete, izen bereziak ere bai;
- batzuetan ondotik izen-ardatzik ez dutela eratzten dira, mugatzailea zuzenean aditzari lotzen zaiola.

Nahiz aipatu ezaugarri horiek ez diren baitezpada perpaus erlatibo joku-tu-gabeetan bakarrik agertzen, erran bezala erlatibo joku-tuetan ere kausitzen bai-

tira, komeni da halere, perpaus jokatu gabeetan nola gauzatzen diren laburzki bederen ikus dezagun.

6.1.2.1. *Perpaus erlatibo arruntetan aditzak behar duen tokia*

Perpaus erlatibo jokatuetan, adizkera jokatuak nahitaez beti azken tokian agertu behar du perpaus erlatiboaren barnean (perpaus generikoak deitu genituenetan izan ezik; ik. *EGLU V*, 184). Perpaus erlatibo jokatu gabeetan ere berdin gertatzen da. Ondoko adibideak erakusten du guztiz okerra dela bestela eratutako perpaus erlatiboa:

- (25) a. Ezagutzen dut [kalean Pellorekin ikusitako] gizon bitxia.
b. *Ezagutzen dut [Pellorekin ikusitako kalean] gizon bitxia.

(25a)-ren baliokide gisa eratua den (25b) adibideari behatuz, ikus dezakegu perpaus erlatiboko azken osagaia aditza ez denean (kasu horretan *kalean* adizlaguna) guztiz gaizki eratua dela perpausa. Erran gabe doa edozein perpaus erlatibo jokatu gaberekin horrela gertatzen dela, hots aditzaren atzizkia kanbiatuz (25b)-ko hitz-ordena ezin erabilia da:

- c. *Ezagutzen dut [Pellorekin *ikusiriko* kalean] gizon bitxia.
d. *Ezagutzen dut [*ikusirikako* Pellorekin] gizon bitxia.
e. *Ezagutzen dut [Pellorekin *ikusi* kalean] gizon bitxia.

6.1.2.2. *Perpaus erlatibo jokatu gabeen juntaketa eta metaketa*

Izen-sintagma berean, izen-ardatz bera laguntzen duten perpaus erlatibo bat baino gehiago gerta daitezke, denek izen bera lagunduz. Horrela gertatzen denean, perpaus erlatiboak juntatuak izan daitezke, edo metatuak (*EGLU V*, 203). Hala gertatzen da perpaus erlatibo jokatu gabeekin ere.

Ikus ditzagun lehenik juntadura egitura batzuk:

- (26) Bere Ingude batzuek, *elkarren artean giltzatutako* eta *pitzatu haundiz zulatutako* arteak gogora dakarzkite (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 126).
- (27) Europaren kultura, *berak sortutako* nahiz *besterengandik hartutako* gaiez oratua, gu guztiona da, nerea ez ezik, nahi badugu eta nahi ez badugu (Mixelena, *Mixelenaren Idazlan Hautatuak*, 87).

Horrelako juntadura guztiz arruntak dira eta ez dute iruzkin berezirik eskatzen. Halere seinaltzekoa da nola horrelakoetan lehenbizi heldu den perpaus erlatiboko partizipioa atzizkirik gabe ager daitekeen asko euskalkitan:

- (28) a. Lenagoko profetak ta Yoan Bataiazaleak landu zuten lurra, Yudu-erria, ta egin zuten aziera; orain eldu dira apostoluak, *aiek landu* ta *ereindako* lur artan uzta egitera, garia biltzera (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 72).
- b. Oso onak zeuden *zuk erosi* eta *nik jandako* goxokiak

(28a,b) adibideetan bi perpaus erlatibo juntaturik aurkitzen dira, baina lehenbizikoetan (*aiek landu*, *zuk erosi*) partizipioek ez duten atzizkirik.

Izen bera laguntzen duten perpaus erlatiboak ez dira nahitaez juntatuak, zeren metatuak ere izan baitaitezke, izenondoak eta izenlagunak ere egin daitezkeen bezala. Hots, joskeraren aldetik maila berean izateko orde (juntaduretan gertatzen den bezala), maila desberdinetakoak dira. *EGLU V-en* aurkezten dira horrelako egiturak (203. or.) eta handik ekartzen dugu ondoko adibidea (kakoek bi erlatiboen mugak seinalatzen dituzte, besterik ez):

- (29) [*Orok maite dugun*] [*mesede handiak egin dizkigun*] lagun batek esan du (Euskaltzaindia, *EGLU V*, (72a), 203).

(29)-an bezalako metatze-egituretan perpaus jokatugabeak ere erabil daitezke, erlatibo jokatuak eta jokatugabeak sintagma berean erabiliz. Horrela gertatzen da ondoko adibideetan:

- (30) Nik zertzeladak idoro dodaz iturri bitan: bata, [ezagutu dodazan] [*Gaztelamutil izandako*] zarrai entzuna, bestia, Gaztelan ibilli izan nazan erri askotan bertan zarrai entzuna (Kirikiño, *Bigarrenko abarrak*, 189).
- (31) Horixe gertatzen da [esku-artean daukadan] [argitasunez ongi hornitutako] liburu lodi eta trinko honekin (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak* 2, 55).
- (32) Aietatik bati galdetu zion: [zuriz jantzirikako] [aurrean zetorren] Galai ura ea nor zan (Cardaberaz, *Egercicioac* 2, 185).
- (33) Gutxi gora bera bi illez bein Bordeleko kaietara zijoanak, [gizonek ainbeste aldetara zikindutako] [*Garonne izena dun*] ibai artan, ikusi zezakean ontzi zuri sabelaundi bat, bi tximinikoa. (Irazusta, *Bizia garratza da*, hitzaurrea).

(30) adibidean, *ezagutu dodazan Gaztelamutil izandako zarrai* sintagma datiboan, *zar* izen-ardatzaren aurrean bi perpaus erlatibo ikus daitezke, metatuak direnak, bata jokaturia izanik eta bestea, berriz, jokaturigabea. (31) adibidean ere egitura bera kausitzen dugu, baita (32-33) adibideetan ere, hauetan erlatibo jokaturigabea jokaturia baino lehenago izanik.

6.1.2.3. *Perpaus erlatiboaren tokia*

Perpaus erlatibo jokaturiak, komunzki, laguntzen duten izenaren ezker aldean agertzen dira, gaurko euskararen bereziki. Berdin gertatzen da perpaus erlatibo jokaturigabeekin ere, nahiz ez den hori ezin urratuzko araua.

Izan ere, tradizioko testuetan ere ezker aldeko erabilera anitzez maizagokoa izanik ere, ezin erran daiteke gramatikak aldebat debekatzen duela perpaus erlatibo jokaturigabea izenaren eskuin aldean (izenondoen posizioan) ematea.

Horrelako adibide batzuk aurki daitezke testuetan, gehienetan *bat* edo erakusle bat determinatzaile gisa erabilia izanik sintagman:

- (34) a. Santa Brigidaren denboran bizi zan gizon aberats eta noble, *baña oitura galdu eta galgarri guzietara emandako bat* (Arrue, *Mayetceco illa*, 131).

- b. Atsegin biziz irakurriko baitute Arratiako hizkera gozoan egina dagoen liburuxka polit, jator, *mendi usai sarkorrez beterikako* hau (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 124).
- c. Eta esan da egiñ, bere eske ioan ziran nobaitzuk, eta ekarri eben laster, beste lagun batzuen artetik, gizon andi, gurgarri, *urteakaz makurturiko* bat (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 30).
- d. Pekatu ilgarri autortu bagako edo *txarto autorturiko* guztiak (Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 133).

(34a,b,c,d) adibideetan, letra etzanean agertzen diren sintagmak perpaus erlatibo jokatugabeak dira. Laguntzen dituzten izenen (*gizon*, *liburu*, *gizon*) eskuin aldean agertzen dira azpimarraturik, izenondo juntatu batzuen ondotik batzuetan. Perpaus hauetako ordena markatua izan arren, ez da agramatikala, hala nola ez baitira euskal gramatikaren urratzaile mota bereko perpaus erlatibo jokatuak (*EGLU V*, 178-180). Erabilera honetako perpausetan, partizipioa, ondoan beste osagairik ez duela ere aurkitzen da batzuetan, izenondoen tokian agertuz, ondoko adibideetan bezala:

- (35) a. Idatzi oetako batek zortziehun bat urte baditu. Judatar *kristaututako* bat zan bere egillea. (Mujica, *Pernando amezketarra*, 21).
- b. Orta zeritzan erri inguruan gelditu ziran elizatxo *utzitako* batian (Beovide, *Asis-co Loria*, 76).
- c. Amandoren aurretik gizon bat bakarra zan, esku batean argizari *amatau edo itzalitako* bat eta bestean zekekezko lasto moltso biztua zituala (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 89).

Hiru adibide horietan perpaus erlatiboko partizipio burutua (–*TAKO* atzizkia duela) bakarrik agertzen da, izenondo baten tokian, erran nahi baitu izenaren eta determinatzailearen artean.

Eskuineko erabilera hau perpaus erlatiboak metatzen direnean ere gerta daiteke:

- d. Frabrianoko erri onetatik legua bat mendi aldera, arkaitz ta arrieta besterik etzan bakardade illun batian, arkitzen zan *Ama Birjiñari eskaiñitako San Benitoren alabak iduki zuten* etxe santu *utzitako* bat (Beovide, *Asis-co Loria*, 151).

Adibide horretan, hiru perpaus erlatibo metatuak dira: izenaren ezker aldean biga, bata jokatua, bestea jokatugabea [(32-33) adibideetan bezala], eta izenaren eskuin aldean, beste bat, *santu* izenondoaren ondotik; hau ere jokatugabea.

6.1.2.4. *Perpaus erlatibo jokatugabeek lagun ditzaketen izen motak*

Perpaus erlatibo jokatugabeek, jokatuak bezala, edozein izen mota lagun dezakete. Bai, erran gabe doana, izen arruntak, baina baita izen bereziak ere, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (36) a. Yudutar gizalde aundi batek ikasi zuen Yesus an zala, eta yoan ziran, ez Yesusengatik bakarrik, baita *onek illen artetik piztutako* Lazaro ikustegatik (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 373).
- b. baña arratsean guzia bertan beera geratu zan, elizako atea zabaldu, eta *setan gogortutako* Nestororen kontra Batzarrak eman zuen epai edo sententzia irakurri zanean (Arrue, *Mayetceco illa*, 166).
- c. *Kalbinoren erakusle izandako* Wolmarek zion: gizatxar eta asarrekorra da Kalbino (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 96).
- d. *Saminez beterikako* Ama Maria, lagunzakidaz (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 22).
- e. Luis gure errege handiak (...) bere erresumetan handirozki eta artha handirekin distiarazi diote zientzia eta letra suerte guztiei, bere denboran, halako gisaz non erran baitezaket ausartki, hau zela *zerutik igorrikako* Apollo (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 178).

Adibideetan horietan perpaus erlatibo jokatugabeek laguntzen duten izenak izen bereziak dira. Horrek erakusten du perpaus erlatibo hauek ez dutela nahitaez balio murrizgarria (*EGLU V*, 200-201).

6.1.2.5. *Perpaus erlatibo jokatu gabe generikoak*

Perpaus erlatibo jokatu gabeek laguntzen duten izena batzuetan isildua izan daiteke. Isiltze hori bi modutan gerta daiteke: edo, testuinguruagatik isildua izanik, izen-ardatza hor balitz bezala interpretatzen delako, edo interpretazio generikoa ematen zaiolako sintagmari. Bi egoera horiek adierazten dira ondoko adibideetan:

- (37) a. Zuk idatzitako gutunak gustatzen zaizkio Maddiri, ez, ordea *nik egindakoak*.
b. Ez ditzaket sinets *zuk niri goizean esandakoak*.

Lehenbiziko kasuan (37a), argi da, testuinguruak hala eskatzen baitu, *nik egindako* perpaus erlatiboaren ondotik *gutun* izena badela, nahiz, aurretik agertzen den izen hori ez errepikatzeagatik, isildua den, hala nola egiten ohi baita holakoetan. Joskera hau guztiz arrunta da, eta ez du iruzkin berezirik eskatzen.

Bigarren kasua (37b) bestelakoa da. Hartan testuinguruak ez du eskaintzen izenik *zuk niri goizean esandako* perpaus erlatiboaren ondotik agerraraz daitekeenik. Bizkitartean oso gardena eta interpretazio garbikoa da (37b) perpausa. Orok ulertzen dugu *esan* aditzari berez dagokion objektu zuzenari dagokiola sintagmaren ardatza, hala nola gerta bailiteke perpaus erlatiboa jokatu balitz:

- (38) Ez ditzaket sinets goizean esan dizkidazunak.

Perpaus erlatibo jokatu etan erlatibo generikoak deitu baikenituen horrelako perpausak (*EGLU V*, 208), berdín ginen dugu hemen ere.

Horrelako perpausetan maiz artíkulu mugatzailea agertzen da, pluraleko edo singularrekoa:

- (39) *Geroztik berak ikusi ta entzundakoa* kondatzen digute beren liburuetan (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 8).

- (40) *Azkenik esandakoak* huskeriak direla badakit (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 357).
- (41) a. *Tzarrer emanikakoa* / Bethi da urrikitzekoa, / Non ez daukazu xedean Yainkoa (Goyhette, *Fableac*, 238).
- b. Baroja dugu beti aurrean; *Barojak ikusiak, entzunak, eginak, pentsatuak* irakurtzen ditugu (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 272).

Erabide generikoa dakarten beste mugadura motak ere kausitzen dira perpaus erlatibo horietan. Adibidez, batzuetan zenbatzaile orokorrarekin ere aurkitzen dira, edo artikulugabearekin ere, ondoko adibideetan bezala:

- (42) Nere izen onak debekatzen dit *entzundako ta ikusitako* guzia orri auetan ipintzea (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 73).
- (43) Ori, Noemirekin Moabetik *etorritako bat* da erantzun zion (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 160).

6.1.3. *Perpaus erlatibo jokatuabeen berezko ezaugarriak*

Perpaus erlatibo jokatuabeek badituzte jokatuak ez dituzten berezitasun batzuk, kontuan hartzekoak direnak. Hona hemen menturaz bereziki aipatzea merezi duten hiru puntu:

- ezezkoa perpaus erlatiboa jokatuabeetan
- aldi (tempus)-aspektu-murritzapenak
- erlatibatzeko eskala

6.1.3.1. *Ezezkoa perpaus erlatibo jokatuabeetan*

Perpaus erlatibo jokatuabeek jokatuak buruz duten bereizgarri nagusietarik bat da haietan ezezkorik ez ohi dela agertzen. Konpara ditzagun bi sintagma hauek:

- (44) Patxik atzo egin ez zuen lana gaur zuk egin beharko duzu.
- (45) *Patxik goizean ez egindako lana gaur zuk egin beharko duzu.

Onargarritasunaren aldetik kontraste garbia da (44-45)-ko bi adibideen artean, bigarrenak, aurrekoak ez bezala, guztiz trakeski eratua baitirudi. Jakina, perpaus erlatiboetako partizipioaren era aldaturik ere, ondorio berak ditugu:

- (46) *Patxik goizean ez eginiko lana gaur zuk egin beharko du.
- (47) *Patxik goizean ez egin lana zuk egin beharko du.

Bizkitartean literaturan zenbait adibide aurkitzen dira eza perpaus erlatibo jokatu gabe batean daukatena. Oso gutxi, egia erran, eta aiseago denboran zehazki kokatuak ez diren gertakariak aipatuz, ondoko adibideetan bezala:

- (48) Jende ez-jakin guzia arritu zan, eta otsegin zuen, *egundaño ez-ikusitako* gauzak zekuskitela (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 389).
- (49) a. Nolako gozotasuna izaera dun *aspaldiñ ez ikusitako* aberriaren lurra berriro ikustea (Irazusta, *Bizia garratza da*, 38).
- b. Iñoiz ikusi ditu Nicanorrek, *bere errian ez ikusitakoak* (Erkiaga, *Batetik bestera*, 129).

Ez dirudi (48-49) bezalako adibideetako perpaus erlatiboak, *egundaino* eta *aspaldi* bezalako denborazko adberbioekin eratuak, (45-47)-koen parean emateko direla. Esan beharra da, halere, bakan agertzen direla horrelako adibideak euskal testuetan. Hitz batean, markatuak dira, eta tradizio orokorrari begira bazterrekoak. Perpaus erlatibo jokatu gabeak ezezkoak direnean *gabe* adberbioa (*-KO* atzizkia eransten zaiola) erabiltzen ohi da, ondoko adibideetan bezala:

- (50) Aukera itzazu gorpuzkera ederreko lau zezen Lileako gaillur ezeetan bazkatzun dituzunen artean, eta *iñoiz uztartu gabeko* beste ainbeste bigantxa (Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak osorik*, 118).

- (51) *Ezer aurreratu gabeko* tartek batzutan luzetxoak ziren (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 90).
- (52) *gizonik ezagutu gabeko* neskatx garbi eta aurrak baizik, etzan bizirik inor gelditu (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 105).
- (53) ezta inguruetan *zalduntxoek isekaz erre ta zauritu gabeko* gizonik izaten (Aguirre, *Garoa*, 163).

6.1.3.2. *Aspektu-murritzapenak perpaus erlatibo jokatuabeetan*

Perpaus erlatibo jokatuak edozein aditz motarekin era daitezke. Hala gertatzen da jokatuabeekin ere. Horrela, aurreko lerrotan agertzen diren adibideei so eginez, ikus daiteke jokabide desberdineko aditzak erabil daitezkeela perpaus erlatibo jokatuabeetan, bai iragankorrak, bai iragangaitzak, bai egoera-aditzak, bai gertaera-aditzak, edozein motatakoak izanik.

Perpaus erlatibo jokatuabeak partizipio burutuak bidez eratzen dira, hauek euskalki gehienetan perpaus erlatibo bihurtzean, *-TA* edo *-IK* atzizkia ere errezibitzen baitute, erran nahi baitu burutzearen ondoko egoerak adierazten dituzten atzizkiak. Galda daiteke beraz, ea horrek aspektu-murritzapenik ote dakarren perpaus erlatibo jokatuabeak moldatzerakoan. Badirudi baietz.

Zenbait kasutan oso garbi azaltzen zaigu aspektu-murritzapena. Adibidez, perpaus erlatibo jokatuabeek egoera-aditza dutenean bururatuak diren egoerak adierazten dituzte beti. Ondoko adibideek erakusten dute puntu hori:

- (54) a. Ezagutzen dituzu *hemen egonikako* haurrak?
- b. Ezagutzen dituzu *hemen dauden* haurrak?

Adibide hauetan perpaus erlatiboetako aditza egoera-aditza da (*egon*). Ohargarria da (54a) eta (55b)-ko perpaus erlatiboak ez direla sinonimoak. (54a) adibidean, erraten da haurrak ez daudela gehiago hemen, egon direla bai, baina ez direla gehiago hemen, hots aditzak adierazten duen egoera bukatu zela.

(54b) adibidean, berriz, *egon* aditzaren era trinkoak bukatua ez den egoera adierazten du (haurrak hemen daude). Bi erlatibo horien artean agertzen den aspektu desberdintasunagatik ezin izan daitezke sinonimo (54a,b) adibideak.

Berdin gertatzen da beste egoera-aditzekin, adibidez (*zerbait*) *izan* aditzarekin, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (55) a. Nik ere ezagutzen ditut *diru asko izandako* jendeak.
- b. Nik ere ezagutzen ditut *diru asko duten* jendeak.

(55a) adibidean egoera bukatua dela adierazten du perpaus erlatiboak (aipatzen diren jendeek menturaz orain ez dute batere dirurik). Adizkera trinkoa dakarren (55b)-ko perpaus erlatiboak, aldiz, ez du holakorik adierazten.

Argi da, beraz, aspektu burutua dutela perpaus hauetako partizipioek. Eta ulertzen da, molde horretan, nola perpaus erlatibo batean aipatzen den gertakaria zehazki geroan kokatzen bada, nekez perpaus jokatugabea erabil daitezkeen. Beha ondoko adibideei:

- (56) a. Erantzun berehala, nik bihar goizean bidaliko dizudan mezuari.
- b. *Erantzun berehala nik bihar goizean bidalitako mezuari.

Ikus daitekeenaz, (56a) adibidean, perpaus erlatiboa jokaturia da, eta ez dago arazorik hartan adierazten den gertakaria geroan (*bihar goizean*) kokatzeko. (56b), berriz, perpaus erlatiboa jokatugabea da; moldegaizki eratua da, edo dudazkoa da, hartan *bihar* adberbioak aipatu gertakaria geroan kokatzen baitu. *Bihar* adibidetik kendurik, adibidea ongi hartzen da, perpausa goiza iragan ondoan errana izan balitz bezala :

- c. Erantzun berehala *nik goizean bidalitako* mezuari.

Gauzak horrela izanik ere, batzuetan aspektu burutua duten partizipioen bidez, baita bururatu ondoko egoera adierazten duten morfemak dituztenen

bidez ere, geroan gertatzen diren gertakariak ere aipa daitezke. Testuinguruak egokiak behar dira horretarako, adibidez, denboran zehazki kokatuak ez diren gertakariak, edo gertakari segidak. Har dezagun ondoko adibidea:

- (57) a. Ez dizkizut barkatuko *hemendik aurrera egindako* bidegabekeriak.
b. Egidazu zure galdera, zoaz etxera eta orduan irakurriko duzu *nik bidalitako* erantzuna.

(57)-ko perpaus erlatibo jokatuabeak onargarri direla erran daiteke, nahiz haietan aipatzen diren gertakariak geroan gertatzekoak diren. Kontuan izan, halere, (57a) ez dela zehazten noiz jazotzekoak diren bidegabekeriak, eta adierazpen orokor gisa har daitekeela adibideko perpausa. (57b) adibidean, berriz, perpausa erlatiboan aipatzen den erantzuna oraindik egingabe den galdera bati ihardesten diola ulertuz, nahitaez geroan kokatzen da. Halere, testuinguru horretan, perpausa ongi eratua dela erran daiteke.

6.1.3.3. *ZEIN izen-sintagma erlatibatzen den perpaus erlatibo jokatuabe arruntetan (erlatibatzeko eskala)*

Orain arte aipatu ditugun adibideei behatuz, ohar gaitzke izen-sintagma absolutiboari dagokiola beti izen-sintagma erlatibatua. Ez ustekabea, horrela gertatzen ohi baita gutiz gehienetan perpaus erlatibo jokatuabeetan.

Horrek erran nahi ote du nahitaez horrela izan behar duela? Ez. Joera nagusia nabarmenki halakoa bada ere, ez da hori araua, ez hiztun guztientzat behintzat. Izan ere, bestelako adibideak ere aurkitzen dira literaturan, haietan izen-sintagma erlatibatua sintagma ergatiboari baitagokio:

- (58) Nongua naizen aitortuko det, Jose Migel det izena, Altzan jaiotako bataiatua, bertan bizitzen naizena, *len ere zenbait olako festa ikusitako* gizona (Txirrita, *Txirritaren Bertsoak I*, 248).

- (59) *Zurekin gurutze donea artutako* senarrari aterik irikitzen ez badiozu, nere burua errekarra botatzera nua (Mujica, *Pernando amezketarra*, 53).
- (60) a. Gurdian zirala, ordea, *amorrarai prexkua ain ederki jandako* nagusia batabatean sumindu zitzaion Poliri (Anabitarte, *Poli*, 119).
- b. *Parisen siñismena galdutako* gazte bat sartu zan bere ezagun batzuen etxean (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 35).
- c. Batzarrekoak, iñolaz ere, uste zuten, *ain azote farragarriak artutako* gizonak etzirala benturatuko, lege berri bat erakustera (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 487).

Bost adibide hauetan izen-sintagma erlatibatua perpaus erlatiboko aditzari dagokion izen-sintagma ergatiboa da: festa ikusia duen gizona (58)-an, emaztearekin gurutze santua hartu duen senarra (59)-an, amorrain freskoa jan duen nagusia (60)-an, Parisen sinesmena galdu duen gaztea (59)-an, eta azote farragarriak hartu zituen gizona (60c) adibidean. Beraz, perpaus erlatibo jokatu gabeen erlatibatzeke erraztasun-eskalak lehentasun garbia ematen badie izen-sintagma absolutiboei, izen-sintagma ergatiboak ere erlatiba daitezke.

EGLU V-en, perpaus erlatibo jokatuak aztertzean, datiboa franko gora eman zen datiboa erlatibatzeke eskalan (*EGLU V*, 185). Halere, esaten zen, oro har, pixka bat zailago dela sintagma datiboak erlatibatzea sintagma absolutiboak eta ergatiboak baino. Bada, esan daiteke zailtasun horiek nabarmenki areagotzen direla perpaus erlatibo jokatu gabeetan, *ahaztu* bezalako aditzekin errazkiago egiten badira ere:

- d. *omen esaten ahaztutako* pertsona da sortzailea, besteak beste (Segurola, *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, 15).

Gainera, izen-sintagma adberbialak ere erlatiba daitezke batzuetan, lagun-dua den izenak horrelako erlatibatzeen interpretazioa errazten duenean; ikus ondoko adibideak:

- (61) *Mirari au egindako* eguna jai eguna zan (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 392).
- (62) Etzuan alperrik galdu *presondegian egondako* denbora luzea (Oskillaso, *Kurloiak*, 20).
- (63) *Ezer aurreratatu gabeko* tarteak batzutan luzetxoak ziren (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 90).
- (64) *Lenengo aldiz jaunartutako* egun oroigarri au gaztetxogua ziñanean izan zenuen, egia da; baña orain egitera zoazen lenbiziko jaunartze ospatsuari itzaio orregatik bere aunditasun ta oroigarritasuna gutxitzen (*Argi Done laburra*, 126).

Lau adibide hauetan izen-sintagma erlatibatua leku-denborazko aditzondo bati dagokio. Halere, ohargarri da, nola kasu horietan guztietan erlatiboak laguntzen duen izen-ardatza bera leku-denborazko hiztegiari dagokio (*egun, denbora, tarte*), horrek, dakigunaz, horrelako izen-sintagma adverbialen erlatibatzeke bidea errazten baitu (ik. *EGLU V*, 196). Berdin gertatzen da ondoko adibideetan ere non izen lagundua eguraldiaren hiztegiari baitagokio, edo moduari :

- (65) a. Negu-azkena zan, eta gauez *elurra egindako* eguraldi ustel batean irtetea erabaki zuten (*Arrue, Santa Genoveva*, 10).
- b. *Amaiak ere egindako* moduan gidariak bere buruari galdetu zion porlanezko pista hartarik joaten ote zen Azpeberri etxera (*A. Arana, Bost ahizpa*, 39).

6.2. KORRELAZIOZKO PERPAUS JOKATUGABEAK

EGLU V-en (2.5; 247-256) korrelazioz eratu perpaus erlatibo jokatuak aurkezten dira. Egitura horietan perpaus banatan diren galderazko izenordain bat eta erakusle bat aurrekari-anafora erlazio batean emanak dira, galderazko izenordaina daukan perpausa mendekoa izanik. Egitura hau honela laburbiltzen da:

- (66) a. [*ZER/NOR*_k-KASU-MARKA (*ere*) ... *BAIT*-ADITZA], [*HURA*_k-KASU-MARKA ... ADITZA]

Ondoko perpausak (66a)-ko egitura adibide batean erakusten du:

- b. *zer* ere ikhusten *baitugu* bertzeer egiten, *hari* jartzen gare (Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 45).

Mendebaldean, *BAIT*- menderagailuaren orde $-(e)N$ atzizkia erabiltzen da

- (67) a. *Nola* egiten *dekan*, *ala* izango dek (Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza III*, 2686. zk., 217).

Batzuetan, mendetasunezko markarik gabe agertzen dira holako egiturak:

- b. *Non* ilgo *zara*, *araxe* yoango *zara* (Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza III*, 2696. zk., 217).

Egitura hori, errefracu edo esaeretan bereziki, maiz perpaus jokatu gabeekin eraturik aurki daitezke, ondoko adibideetan bezala:

- (68) a. Holako aintzindariak behar ditiagu orai, eta ez ‘*norat* haize, *harat* aise’ dabilzan pika buztan horiek (Larzabal, *Matalas*, 148).
b. larunbat gauerdian zein haize zebilen jakiteko gure aitajaunak lastargia pizten zuen, kea *nora*, haizea *ara...*! (P. Zabala, *Zeruan zer berri*, 171).
- (69) *Non* fida, *han* gal (Zerbitzari, *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*, 743. zk.).

(68a,b) adibideetan, bi perpaus aditzik gabekoak dira elkarren ondoan ezarriak, (69) adibidean, bi perpaus jokatu gabe.

Adibide horietan guzietan ikusten da galderazko izenordain bat emana dela lehen perpausuan, eta bigarrenetan badela izenordain hori aurrekaritzat daukan erakusle bat. Perpaus erlatiboetan (konparatiboetan ere) aurkitzen den erlazio mota hori, forma jokatu gabeekin obratzen denean, ez da aise jakitea ea mendetasunezko egituren bidez edo alboraketa soilaren bidez bideratuak diren. Lehen kasuan, perpausa ez da galderazko perpausa, eta ez da galdera gisa

ahoskatzen. Aldiz, bigarren kasuan, bai: *Zuk zer hartuko duzu? Nik ere huraxe!* Azken aukera hau deusetan ezinezkoa ez bada ere, esan behar da erre-frauetan aurkitzen diren modu horretako adibideetan lehen perpausak ez ohi direla galdera gisa ahoskatzen:

- (70) a. Otsoa *non* aipa, *han* gerta (Oihenart, *Les proverbes basques*, 385).
- b. Bakoitzak *zer* erein, *huraxe* bilduko du (*Elizen arteko Biblia*, Gal 6-7).
- c. *Non* gogoia, gazteak *han* du zangoa (Zerbitzari, *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*, 744. zk.).
- d. *Zer* ikusi, *a* ikasi (Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza III*, 2895. zb., 229).

6.3. EZ DAUKAGU [NON LO EGIN]: GALDERAZKO IZENORDAINA DAUKATEN PERPAUS ERLATIBO JOKATUGABEAK

Ohikoak ditugu euskaran hauek bezalako esaldiak:

- (71) a. Ez daukat [*non lo egin*]
- b. Zoroak oro erranik ere, gelditzen da [*zer erran*] (Zerbitzari, *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*, 983. zk.).
- c. sinestekoa da izan zutela [*zertaz mintza*] eremu horretan, asmaketarik asmaketa ibili gabe (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 123).
- d. Nai badu ostatua, nai badu kafea, aski du lehenbiziko tabernan sartzea; mai ona topatzen du gogo onarekin, eta ez zaio falta [*norekin itzegin*] (Iturriaga, *Fábulas*, 169).
- e. Ameriketara bada oraino [*non zer ikertu*] (X. Arbelbide, *Californiako Euskal Herria*, 202).

Perpaus hauetan kakoen arteko perpausak perpaus erlatiboak dira, absolutiboan legokeen izen-sintagma baten tokia hartzen dutenak, eta izen bururik gabe-

koak: lehen hiru adibideetan (71a,b,c), *eduki*, *aurkitu*, eta **edun* aditzen objektu zuzenari dagozkio, eta beste bietan (71d,e), *falta izan* eta *izan* aditzen subjektuari.

Izenordainak duen kasu-markaren nozioaren arabera interpretatzen dira horrelako perpausak. Adibidez, goiko adibideei dagozkien perpaus erlatiboen parafraasiak honelako zerbait izan daitezke:

- (72) a. Ez daukagu *non* lo egin. → Ez daukagu lo egiteko *lekurik*.
b. Izan zuten *zertaz* mintza. → Izan zuten *gai* franko mintzatzeko.
c. Gelditzen da *zer* erran. → Gelditzen da errateko *gauza* anitz.
d. Ez zaio falta *norekin* hitz egin. → Ez zaio falta hitz egiteko *lagun* edo *kiderik*.

Parafraasi horien bidez izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokatu gabeak nola interpretatzen ditugun irudikatzen saiatzen gara. Har dezagun (72a) adibidea: hartan *eduki* aditzak eskatzen duen izen-sintagma objekturik ez da. Agerian bederen. Hain zuzen, *non lo egin* perpausak leku hori betetzen du. Ordea, izen-sintagma balitz bezala ulertzen dugu perpaus hori; zehazkiago erranez, *eduki* aditzaren objektu zuzenaren ardatza *leku* balitz bezala interpretatzen dugu, erran nahi baitu semantikoki *non* izenordainari dagokion izen abstraktua balitz bezala. Halaber, (72b) adibidean komunikazio-aditz baten testuinguruan *zertaz* izenordain instrumentalak solasgaia adierazten baitu, araberrako izena (*gai*) egiten dugu *izan zuten* aditzaren objektu zuzenaren izen-ardatza gure interpretazioan. Ber azterketa balia dezakegu, berdin, beste bi adibideei ematen dizkiegun interpretazioei dagokienaz.

Ez da erraz interpretazio hori joskeran nola bideratua den xeheki azaltzea. *EGLU V*-en (122. or.) egitura bat proposatzen baita hemengo perpausen aztertzeko, besterik gabe, hona ekartzen dugu:

- (73) Ez daukat [[Ø]_i [non_i lo egin]]

| ___ |

Ez daukat non lo egin perpausan, *eduki* aditzak eskatzen duen objektu zuzena galderazko izenordaina (*non*) duen perpaus jokaturgabe baten bidez (*non lo egin*) adierazia da. (73)-ko egituran, izen-ardatzik gabeko perpaus erlatiboan azterketaz baliatuz, Ø ikurraren bidez agerrarazten da halako izen-ardatz abstraktu bat, gorputzik ez duena baina ondoan den perpaus jokaturgabe izenordainaren bidez (*non*) interpretatzen dena [*non* → *leku*; ikus (72a)]. Hain zuzen, adibidearen azpiko marrek adierazten dute lotura hori. Erran gabe doa, azalpen hori eztabaida daitekeela, eta anitz puntu hobeki eta barnago ikertu behar liratekeela gauzak nahi bezain zehatz eta argi jarri behar bagenitu. Luzeegi lihoakiguke, ordea, eta ez da hemengo gure egitekoa. Uste dugu, halere, atal honetan aztergai ditugun perpausen erabidearen hobeki ulertzera laguntzen duela (73)-ko egiturak.

Itxura guzien arabera, holakoetan maiz gertatzen den bezala, aditz jokaturgabea duten perpaus hauek, iragan mendeetan, aldaera jokaturgabea ere izan zuten. Hain zuzen, *EGLU V*-en (2.6.2, 258-259) azaltzen dira holako perpausak, aditz subjuntiboak dutenak, eta gaur egun guziz zaharkituak direnak. Halako bi adibide ekartzen ditugu hona:

(74) a. Ezen eztut [non bil ditzadan neure fruktuak] (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 17).

b. Ez dago [nok egin dagijan penitenzijarik] (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 29).

Gaineko bi adibide horietan, mendeko perpausetan adizkera jokaturgabeak erabiliak dira, eta bietan subjuntiboari dagozkion aditz laguntzaileak ditugu: **ezan* (74a) adibidean, eta *egin* (74b) adibidean.

a. Zein aditzek baimentzen dituzten holako perpaus erlatiboak

Perpaus hauek, existentziaren edo posesioaren adierazteari datxizkion zenbait aditzekin erabiltzen dira (*izan*, *egon*, *falta izan*, *gelditu*, *ukan*, *eduki*, *aurkitu*, *bilatu*, *eman*, *utzi*...) adibide hauetan ikus daitekeen bezala (letra etzanean agertzen da gobernu-aditza):

- (74) c. Zarrak beti *dauka* [zer erantzun], gazteak [zer ikasi] (Aguirre, *Garoa*, 57).
- d. Ta bijozeko anditasunian, mundu guztiari, [zer pentsau], ta [zer ikasi] *emon* eutsana (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 2, 285).
- e. Imini dabee euren uste guzia zeruko ondasunetan, ta *itxi* deutseez ondorengo ezkondu guztiai [zer ikasi], ta [nori jarraitu] (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 3, 323).
- f. Nahi badu argitu eta orotan trebatu, *badu* laborariak [zeri ohar] eta [nun zer ikas] (Gachiteguy & Aguerre, *Laborantza*, VI. kap.)
- g. Ez *dago* [zer esan, zer kanta modubak kantau oi diran orduban, nundik nora ibilten diren, ta ze lagun modu] (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 125).
- h. *Bazela* han [zer ikus] eta [zer ikas]! (Karrika, *Armendaritze haur begiez*, 181).

Azpimarratzekoa da, haatik, holako perpausak ez direla izen-sintagma absolutiboa eskatzen duten aditz guziekin erabiltzen. Ikus, adibidez, ondoko adibidea:

- (75) a. *Erosi dut [lanera nola joan]

Erosi bezalako aditzek objektu zuzen gisa izen-sintagma absolutiboak hartzen dituzte. Are gehiago, semantikoki posesioarekin zerbait ikustekorik duen adiera bat dute. Halere, ez dirudi haiekin galderazko izenordaina duten perpaus erlatibo jokatu gaberik erabil daitekeen. Beraz, franko mugatua da holako perpausak onartzen dituzten aditzen zerrenda.

b. Izenordaina duten perpaus erlatibo jokatu gabeen ezaugarriak

Begien bistakoa da, bestalde, perpaus hauek eite handia dutela batzuetan zehar-galdera jokatu gabeekin. Har ditzagun ondoko bi adibideak:

- (76) Badakit [zertaz hitz egin]

- (77) Badaukate [zertaz hitz egin]

Kakoen artean diren perpauusak berdin-berdinak dira: barnean badute galderazko izenordain bat (*zertaz*) eta haren ondotik agertzen da aditz jokatu-gabe bat (*hitz egin*). Biak mendeko perpaus jokatu-gabeak dira, biak neurri batean behintzat ingurumen sintaktiko berean erabiliak dira (aditz iragankor baten objektu zuzen gisa). Hori ikusirik, perpaus-mota bakarraren aurrean gaudela ondoriozta ote dezakegu? Ez, zeren perpaus hauek ez baitute egitura bera: lehenbizikoa (76) zehar-galdera da, eta bigarrena (77), perpaus erlatibo jokatu-gabea.

EGLU V-en (1.4.3.3., 120-124) azaltzen da zergatik ez diren nahasi behar perpaus erlatibo jokatu-gabe hauek eta itxuran haien antza izan dezaketen zehar-galdera jokatu-gabeak. Han esana osoki errepikatu gabe, laburzki gogoratzten ditugu hemengo perpausen bi berezitasun:

– Lehenbizikoa da perpaus erlatibo hauek, zehar-galdera jokatu-gabeak ez bezala, ez dagozkiola kontrol-egitura bati (kontrola zer den Perpaus osagarrien kapituluan argitzen da: leku askotan ageri da, baina 7.1.2. atala ikus daiteke, nahi izanez gero). Beraz, haietako izenordaina subjektua izan daiteke; adibidez, ergatiboan izan daiteke ondoko adibideetan bezala:

(78) a. *Badaukagu* [*nork eraman*]

b. Nere hitzak entzun ondoan arbuiatzen dituenak [*nork juja*] baduke azken egunean (*Léon, Imitazionea*, 3-4).

Ikus daitekeenaz, (80a,b) adibideetan ergatiboan da perpaus erlatiboetan den galderazko izenordaina (*nork*), eta perpauusak ongi eratuak dira. Kontrol-egituretan, ordea, ezinezkoa da mendeko perpauseko subjektua modu horretan agertzea, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

(79) **Badakit* [*nork eraman*]

(konpara: *Badakit* [*nor eraman*], ongi eraturia dena, izenordaina objektu zuzenari baitagokio; ez subjektuari)

– Bi perpaus-motak desberdintzen dituen beste puntua ondoko adibideek agerian ematen dute:

- (80) a. Ez daukagu [nora joan]ik
b. *Ez dakigu [nora joan]ik

(80a) adibidean, gobernu-perpaua ezezkoan izanik, perpaus erlatiboko aditzari partitiboaren marka lotu zaio, eta perpaua ongi eratua da. Kontrara, (80b) adibidea gaizki eratua da. Bigarren adibide honetan zehar-galdera dugu, eta, hartan ere gobernu-perpaua ezezkoan izanagatik, ezin zaio zehar-galderaren aditzari partitiboaren marka erantsi, ez eta beste determinatzaileak ere.

Ikus daitekeenaz, galderazko izenordaina duten hemengo perpaus erlatiboetan partitiboa erabil daiteke marka hori zilegitzen duten ingurumenetan, ezezkoa izan dadin edo ez, ondoko bi adibideetan bezala:

- c. Orregatik ibilli oizan Oñatiko alderdietan, (...), ezertarako ordurik ez zuala, [non lo egiñik] etzeukala, jai ta asteak berdin zituala (Aguirre, *Garoa*, 299)].
d. Gaiari buruz, ordea, badago [zer esanik] (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 150).

Gaineko bi adibideetan partitiboaren marka lotu zaio perpaus erlatiboko aditzari, lehenean (80c) ezezko testuinguru batean, bigarrean (80d) baiezkotzat (hanpadurazko) batean.

Beste ingurumenetan, beste determinatzaileak ere erabil daitezke, eta bereziki artikulua singularra, ez, haatik, plurala:

- (81) a. Ez zaitez urreratu nigana / Badezu lasaitzeko or [nora joan-a] (Etxaniz, *Lur berri billa*, 335).
b. Errian edozein obra bear dala ere, ez dago ezerren kezkarik iduki bearrik. Badago [zerekin ordaindua] (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 351).

- c. [zer jana] eta [zer edana] eman ziguten ontzian, baño jateko gogorik ez (Anabitarte, *Aprika-ko basamortuan*, 101).
- d. Baneukake [non enplegatua] / bost milla duro banitu (Txirrita, *Txirritaren bertsoak II*, 60).
- (82) a. euskal pentsalarien obretan, badago [non ikasi eta gozatu franko] (Zapiain, *Errua eta maitasuna*, 150).
- b. Alde horretarik ere, badugu [zer ikasi ugari] liburu honetan (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 89).

Ikus daitekeenaz, artikulu mugatzailea (81a-d) edo zenbatzaile mugaga-beak (82a,b) ere erabil daitezke izen-sintagma baten lekua hartzen duten perpaus berezi hauetan. Adibideetan perpaus hauek izenlagun eta izenondorik gabe eratzen ohi badira ere, ez da ezinezkoa holakorik agertzea. Beha ondoko adibideari:

- (83) Faraon'ek berala Joseri atotsi, eta esan zion (...) [bear zuten zer jan guzia] berak emango zuela (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 59).

Adibide horretan, *zer jan*-ekin batean perpaus erlatiboa (*bear zuten*) eta *guzi* erabiliak dira, perpaus erlatiboa osoki izena balitz bezala. Berdin gertatzen da *EGLU V*-en (123. or.) eskaintzen den ondoko adibidean:

- (84) Badiagu [nora joan polit askoa]

Ez da harritzeko gisa horretan egitura honetarik sortu forma batzuk osoki lexikalizatu baitira. Adibidez, *Hiztegi Batuak zeresan*, *zeregin* eta *zerikusi* izenak biltzen ditu, argiki horrelako perpausetarik sortuak direnak.

– Perpaus jokatugabe hauetako aditzari doakionaz, ohartaraz dezagun, maiz gertatzen den bezala, bi moldetan ager daitekeela testuetan, edo partizipio burutuaren forman (beti hala Mendebaldeko euskalkietan), edo aditzoinaren forman (Ekialdean). Hona puntu hori agerian ematen duten lau

adibide, lehenbiziko biak (85-86) aditzoinak dakartzatenak (*har, ohar, ikas*), eta beste biak (87-88), partizipio burutuak (*ikasi, lagundu*):

- (85) Ikusten duzuen bezala, bai Angleterrak, bai Frantziak badute oraino [*hatsa nundik har ausarki*] (J. Etchepare, *Idazlanak IV*, 15).
- (86) Nahi badu orotaz argitu eta orotan trebatu, badu laborariak [*zeri ohar*] eta [*nun zer ikas*] (Gachiteguy & Aguerre, *Laborantza*, VI. kap.)
- (87) Berrogeitamar urte luzetan zu baiziñan lendabizi / Orain gazte maiteak badaukate [*non ikasi*] (Basarri, *Kantari nator*, 38).
- (88) Begien aurrean dakusku (...) baldin [*nork lagundu*] ez badute, gelditu bearko dutela betiko urrikarri (J. I. Iztueta, *Guipuzcoaren condaira*, 238).

Kontuan har determinatzaile bat hartzen duten perpausetan aditza beti partizipio burutuaren forman izaten dela, sekula ere ez aditzoina. Horregatik, perpaus erlatibo jokatu gabe hauek determinatzaile gabe izaten dira ekialdeko euskalkietan, hain zuzen hauetan aditzoinak erabiltzen ohi direlako holako perpausetan. Dena den, goragoko adibide zenbaitetan (74g) ikusi ahal izan den bezala, Mendebaldeko euskalkietan ere, ez da beharrezkoa holako perpaus determinatzaile lotzea. Adibidez, ezezko testuinguru batean partitiborik gabeko mendeko perpaus jokatu gabea erabil daiteke:

- (89) Ez dauka [*zerk berotu*], eta orregatik abere bik euren arnasiagaz berotuten dabee. Ez dauka [*zer jantzi*], eta Josek estaldu biar dau bere jakiagaz (Uriarte, *Marijaren illa*, 96).

c. Zertan, zeren eta zer izenordainak dituzten perpaus jokatu gabeak

Kontsidera ondoko adibideak:

- (90) Ez dagok [*zertan larritu*], ez najok berialakuan arrapauko, buelta biterdiren bentajia jaroiat eta (San Martin, *Zirikadak*, 87).
- (91) Ez dago [*zertan hasi nor gehiagokoan*] (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 60).

- (92) Tikiak badira eta tendriak (*ilarrez arituz*), ez duzu [zeren urik eman]
- (93) Haren nofraziaz geroz ez duzu [zeren gehiago deus ere iguriki] (Duvoisin, *Telemake*, 1. lib.)

Esanahiaren aldetik *zertan* eta *zeren* duten perpaus horiek kausa edo arrazoiarekin lotua den zerbait adierazten dute, eta gobernu aditza ezezkoan duten perpausetan erabiltzen dira. Adibide horien nolabaiteko parafrasia honelako zerbait litzateke:

- (90') Ez dagok [zertan larritu] → *ez dagok larritzeko arrazoirik*
- (91') Ez dago [zertan hasi nor gehiagokoan] → *ez dago nor gehiagokoan hasteko arrazoirik edo beharrik*
- (92') ez duzu [zeren urik eman] → *ez da urik emateko arrazoirik edo obligaziorik*
- (93') ez duzu [zeren gehiago deus ere iguriki] → *ez duzu gehiago deus igurikitzeke arrazoirik.*

Azpmarratu dugu gorago zer gisaz galderazko izenordaina duten perpaus erlatibo jokatu gabeen interpretazioa izenordainaren arabera izaten den; ikus (73)-ko korrespondentziak. Oraingoan, haatik, korrespondentzia ez da hain argia, ezen *zertan* eta *zeren* ez dira erabiltzen –ez komunzki behintzat– kausaz edo arrazoi azaldu egiteko, eta haietan agertzen den kasu-marka, *zertan* izenordainean bereziki, ez baita kausaren edo arrazoiaren nozioarekin aise lotzen; (*zeren*, alde horretarik, desberdina da, ezen –*en* atzikia destinatibo marka arkaikoa da, eta destinatiboak badu zerbait ikustekorik helburuaren eta, ondorioz, arrazoiaren nozioarekin). Dakigun bezala, kausari dagokion galderazko izenordaina *zergatik* da (euskalki batzuetan *zerendako*, edo *zertako* ere bai). Haatik, azken izenordain hauek ez ohi dira kausitzen hemengo perpaus erlatiboetan. Hain zuzen, haien ordeztan, *zertan* eta *zeren* erabiltzen dira, baita, orain ikusiko dugun bezala, *zer* ere.

Izan ere, gisa horretako perpausen adierazteko, *zertan* eta *zeren*-ez gainera, *zer* ere maiz erabiltzen da, adibide hauetan ikus daitekeen bezala:

- (94) Ez daukazu [zer gezurra esan]
- (95) a. Ez dago [zer esan [ze kanta modubak kantau oi diran orduan]] (J. J. Moguel, *Baserritaar nequezaleentzaco escolia*, 125).
b. Ez dago [zer esanik [biziko diradela aingeruak bezala Don Jose eta andra Joseparen konpañian]] (Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 59).
- (96) Eztuzu [zer uka [zarela' ogenduru]] / Ez [zer har [ait'amen nahia estakuru]] / Ezta, maitezko gauzetan / Haurren bortx'ahalik hetan (Oihenart, *Poèsies de jeunesse VI*, 9).
- (97) Ezta [zer mintzaturik] (Axular, *Guero*, 33).

Perpauz hauetan, *zer* izenordainak, holako perpauz jokatu gabeetan *zertan* edo *zeren* izenordainek duten balioa du. Ez ditu beraz betetzen normalean galderetan izaten dituen funtzio gramatikalak eta eginkizun semantikoak. Adibidez, *esan* edo *kantatu* bezalako aditzekin objektu zuzenari ohi dagokio *zer* izenordaina, eta *esana* edo *kantatua* denaz egiten du galdera. Goiko adibideetan, ordea, ez da hala gertatzen. Izan ere, lehen hiru adibideetan (94-96), *esan* da perpauz jokatu gabeko aditza, eta objektu zuzenaren betekizuna hiru perpauzetan izen-sintagma bat edo perpauz osagarri jokatuak dira: *gezurra* izen-sintagma (94), zehar-galdera (*ze kanta modubak kantau oi diran orduan*) (95a) adibidean, eta adierazpeneko mendeko perpauza (*biziko diradela aingeruak bezala Don Jose eta andra Joseparen konpañian*) (95b) adibidean. Halaber, (96) adibidean, *zer* ez da *ukatu* eta *hartu* aditzen objektua, aditz horiek baitituzte bestalde funtzio horri dagozkion osagaiak: adierazpen perpauza (*zarela ogenduru*) *ukatu* aditzak, izen-sintagma (*ait'amen nahia*) *hartu* aditzak. (97) adibidean, azkenik, *mintzatu* da aditza (NOR-aditz bat), eta *zer* izenordaina ez da haren subjektua.

Esan gabe doa *zer* izenordaina duten perpauz jokatu gabe guziek ez dutela (94-97) adibideetan bezalako interpretazioa. Izan ere, *zer* izenordaina usaian ohi doakion balioarekin ager daiteke holako perpauz jokatu gabeetan. Horrelako adibide batzuk ikusi ditugu gorago (72b, 74c-h), eta halakoa da ondoko adibidea ere:

- (98) (Daukagu bertzalde liburu hori ez dela ikasle gaztentzat egina bakarrik:) jende larri eta adinekoek hor izanen dutela [zer kausi] eta [zer bil] ahantziak dituztenen berriz gogoan hartzeko edo ez dakitenaren ikasteko (Gachiteguy & Aguerre, *Laborantza*, L. Dassanceren aitzinsolasa)

(98)-ko adibideak zer esan nahi duen argi da. Idazleak dio jende larriek ere izanen dutela aipatzen den liburuan anitz gauza kausitzeko eta biltzeko, ahantzi zituztenak, edo sekula ikasi ez zituztenak. Hots, *zer* izenordaina objektutzat harturik ulertzen da perpausa. Adibide horretan gainera beste interpretaziorik ezin eman dakioko perpausari, gobernu aditza ez baita ezezkoan, eta (94-97) adibideetako interpretazioak ezezko ingurumena eskatzen baitu. Bistan dena, ezezko ingurumenetan ere zilegi da *zer*, ohi bezala, objektu zuzen gisa erabiltzea. Hona hemen bi adibide *jan* aditzarekin:

- (99) Emazu aintzina, zaren bezalakoa, eta gero, zathorzkgula, komentuko athera, gosea zarela, eztuzula [zer jan]! (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 170).
- (100) Erregeek ere ez lukete [zer jan], laboraririk ez balitz (*Almanaka*, 22)

Bi adibide horietan, testuinguruak ez du dudarik uzten interpretazioa nolakoa izan behar den. Lehenbiziko adibidean (99) idazleak dio: *zatozkgula gero gosea zarela eta jatekorik ez duzula*, bigarrenean, *erregeek ere ez lukete jatekorik, laboraririk ez balitz*. Bi adibideetan, beraz, *zer* izenordaina *jan* aditzaren objektu zuzen gisa interpretatua da, ez hortaz *zergatik* izenordainaren baliokide gisa, 94-97 adibideetan edo ondoko adibideetan bezala:

- (101) Eztuzu beraz [zer erran eskuararen hitzak falta direla] (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 102).
- (102) Ezta bada [zer erran eskuararen kontra garaitia batere botheretsuago izatu dela] (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 108).
- (103) Ezta [zer eska gari zuharrari] (Oihenart, *Les Proverbes Basques*, 694).

(101-103) adibideetan, lehen ikusi ditugunetan bezala (94-97), *zer* izenordaina ez da mendeko perpauseko aditzaren objektua, eta *zertan* edo *zeren* izenordainek ere perpaus horietan duten balioa du, hots *zergatik* izenordainarena.

EGLU V-en (1.4.3.3., 124-128) zehazki aztertzen dira *zer* izenordainaren bidez eratu perpaus hauek, anbiguitate kasuak ere aipatuz. Hara igortzen dugu, beraz, haietaz gehiago jakin nahi lukeen irakurlea.

LABURPENA

Hiru perpaus erlatibo mota ikertzen dira perpaus erlatibo jokatu-gabeen kapituluan:

- Perpaus erlatibo jokatu-gabe arruntak: [zuk ekarritako] liburua.
- Korrelaziozko perpaus jokatu-gabeak: [nor aipatu], hura agertu
- [Galdera-izenordaina + adizki jokatu-gabea] erakoak: ez daukagu [non lo egin].

Hiru perpaus-mota hauei forma jokatuak ere badagozkie, *EGLU V*-en iker-tu zirenak; parte handi batean, han erranek berdin balio dute hauentzat ere.

1. PERPAUS ERLATIBO JOKATUGABE ARRUNTAK

Perpaus erlatibo arruntak izen-sintagmen barneko osagaiak dira, izenlagun gisa agertzen direnak. Badute, bestalde, beste ezaugarri bat ere: haien osagaie-tako bat *izen-sintagma erlatibatua* deitzen den izen-sintagma da, isila izaten dena euskaran, eta erreferentziakide dena perpaus erlatiboa barnean duen izen-sintagmarekin (ik. *EGLU V*, 176). Gisa horretako perpausak jokatuak izan dai-tezke edo jokatu-gabeak, arras elkarren baliokide kide diren ondoko perpaus-ek erakusten duten bezala:

- (1) a. Zer egin duzu [Pellok goizean ekarri dituen] gozokiez?
b. Zer egin duzu [Pellok goizean ekarritako] gozokiez?

Bi perpaus hauetan letra etzanean agertzen den izen-sintagma instrumentalak badauka barnean kakoen artean ezarria den perpaus bat, izenlaguna dena. Perpaus hori, bi adibideetan, perpaus erlatiboa da, eta denek ulertzen dugu sintagma instrumentalean aipatzen diren gozokiak Pellok goizean ekarri dituen gauzak direla, adibide horietan izen-sintagma erlatibatua perpaus-eko objektu zuzenari baitagokio. Hain zuzen, gorago adierazi bezala, mota horretako erlazio bat eskaintzean datza perpaus erlatiboen berezitasuna. Begien bistakoa da, bestalde, adibideetako bi perpausak guziz baliokideak diren arren, bata (1a) perpaus jokatua dela, eta bestea (1b), berriz, jokatugabea. Ondorioa garbia da, *EGLU V*-en ikertu genituen perpaus erlatibo jokatuaren ondoan, badira beste batzuk jokatugabeak direnak, eta hain zuzen liburuki honetan aztertzen direnak.

Perpaus erlatibo jokatugabe arruntetan aditz jokatugabea partizipio burutuan oinarritzen da beti, baina euskalkien arabera molde desberdinetan gauzatzen da. Erdialdeko eta Mendebaldeko euskalkietan ondorio egoera adierazten duen marka bat (*-IK* edo *-TA*) eta *-KO* atzizki izenlagun egilea biltzen dituen atzizkia (*-TAKO* edo *-IKO* /*-IKAKO*) eransten zaio. Ekialdeko euskalkietan, berriz, partizipio burutua atzizkirik gabe agertzen da. Horrela lau forma nagusitan agertzen da perpaus erlatibo jokatugabetako aditza literatura euskalkietan:

- Partizipio burutua + *-TAKO*
- Partizipio burutua + *-IKO* edo *-IKAKO*
- Partizipio burutua

Ondoko adibideak forma horiek erakusten dituzte:

- (2) a. Ez du gauza onik pentsatzen [*nik egindako*] lanaz.
- b. Ez du gauza onik pentsatzen [*nik eginiko*] lanaz.
- c. Ez du gauza onik pentsatzen [*nik eginikako*] lanaz.
- d. Ez du gauza onik pentsatzen [*nik egin*] lanaz.

Perpaus jokatu gabe hauek perpaus erlatibo jokatu arrunten berezitasun sintaktikoak dituzte oro har, hala nola ondoko puntu hauetan besterik gabe aipatuak direnak:

- Laguntzen duten izen-ardatzaren ezkerrean agertzen ohi dira, baina eskuinaldean ere ager daitezke;
- Edozein izen-ardatz mota lagun dezakete, izen bereziak ere bai;
- Batzuetan ondotik izen-ardatzik ez dutela eratzten dira, mugatzailea zuzenean aditzari lotzen zaiola, erlatibo generikoak osatuz horrela;
- Aditza nahitaez bukaeran dute; nahitaez izen-ardatza gauzatua denean bederen.

Perpaus erlatibo jokatu gabeek, hala ere, zenbait berezko berezitasun ere badituzte:

- a.** Erlatibatzeko eskala murriztagoa dute;
- b.** Nekez erabil daitezke ezezkoak badira;
- c.** Aldi-aspektu murriztapenak badituzte.

Hiru berezitasun hauek laburki ikus ditzagun:

a. Erlatibatzeko eskalari dagokionaz, erran daiteke perpaus erlatibo jokatu gabeetan maiztasun eta erraztasun handiagorekin agertzen direla absolutiboan diren izen-sintagma erlatibatuak (3a), nahiz ergatiboan ere izan daitezkeen (3b):

- (3) a. Ez dut gauza onik pentsatzen [*gizon haiek egindako*] lanaz.
- b. Ez dut gauza onik pentsatzen [*holako lanak egindako*] gizonez.

Perpaus erlatibo jokatu gabeetako izen-sintagma erlatibatua beste kasuetan agertzeko baldintzak markatuago dira. Adibidez, toki-denborazko kasu batean izan daitezke izen-sintagma erlatibatuak; orduan, haatik, izen-ardatza bera se-

mantikoki tokiari edo denborari dagokion izena izan behar da, ondoko adibideetan bezala:

- (4) a. Ez dut ahanztekoa [*haren hiltzea gertatu*] eguna.
- b. Denek beldur handia zioten [*hainbeste istripu gertaturiko*] mendiari.

(4a,b) adibideetan izen-sintagma erlatibatuei dagokien kasua inesiboa da. Halere, ongi eratuak dira bi perpausak, zeren izen-ardatzak denboraren (*egun*) edo tokiaren (*mendi*) nozioei aise eratxekitzen zaizkien izenak baitira.

b. Perpaus erlatibo jokatugabeen bigarren berezitasuna da franko nekez ezezkoan izan daitezkeela, eta horrelakoetan *gabe* erabiltzen ohi dela, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (5) a. Esaidazu zein diren [*zuk irakurri gabeko*] liburuak.
- b. *Esaidazu zein diren [*zuk ez irakurritako*] liburuak.

(5b) adibidean ezezkoan da perpaus erlatibatua eta ez da ongi eraturia. Bizkitartean, literaturako zenbait lekukotasunek erakustera ematen dute joera nagusi horrek ez duela osoki debekatzen ezezkoan diren perpaus erlatibo jokatugabeen erabilera, eta testuinguru batzuetan, *egundaino* edo *sekula* bezalako aditzondoekin bereziki, ager daitezkeela:

- (6) Jende ez-jakin guzia arritu zan, eta otsegin zuen, [*egundaino ez-ikusitako*] gauzak zekuskitela (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 389).

c. Perpaus erlatibo jokatugabeen hirugarren berezitasuna da, perpaus jokatuek ez bezala, aldi- edo aspektu-murriztapenak badituztela. Adibidez, ondoko bi adibideen egokitasuna oso desberdina da, perpaus erlatiboek aipatzen duten bidaltzea ‘bihar’ gertatzekoa baita. Holakoetan, hau da, perpaus erlatiboan aipatzen den gertakariak geroko kokatze bat duelarik, perpaus jokatua erabiltzea komeni da:

- (7) a. Erantzun berehala, [*nik bihar goizean bidaliko dizudan*] mezuari.
b. *Erantzun berehala, [*nik bihar goizean bidalitako*] mezuari.

Halere, geroari dagokion murriztapen hori ez da erabatekoa, testuetan beste-lako jokabidea darakusten zenbait adibide berezi aurkitzen baitira. Holakoetan, perpaus erlatibo jokatu gabeetan aipatzen diren gertakariak, geroan jazotzekoak izanagatik, gertakari bururatu gisa aurkeztuak dira, ondoko adibidean bezala:

- (8) Egidazu zure galdera, zoaz etxera eta orduan irakurriko duzu *nik bidalitako* erantzuna.

Dena den, aspektuari dagokion murrizketa hobekienik agerian ematen duena egoera aditzekin gertatzen dena da. Izan ere, holako aditz bat perpaus erlatibo jokatu gabe batean erabiliz gero, nahitaez aditzak adierazten duen egoera bukatu zela adierazten da. Ondorioz, bada kontraste garbia aditz hori trinkoan jokaturik daukaten perpaus erlatibo jokatu ekin, hauek bukatu ez den egoera bat aipatzen baitute nahitaez:

- (9) a. Nik ere ezagutzen ditut [*diru asko izandako*] jendeak.
b. Nik ere ezagutzen ditut [*diru asko duten*] jendeak.

(9a,b) adibideak ez dira baliokideak. Lehenean, aditzera ematen da adibidean aipatzen diren jendeak lehenago dirudunak izan zirela, baina ez direla gehiago hala, hots, diru asko izateari dagokion egoera bukatu zela haientzat. Alderantziz, (9b) adibidean, dirudun izateari datxekion egoera ez da bukatutzat ematen.

2. KORRELAZIOZKO PERPAUS ERLATIBO JOKATUGABEAK

Korrelazioz eraturiko egituretan perpaus banatan diren galderazko izenordain bat eta erakusle bat aurrekari-anafora erlazio batean emanak dira, galderazko izenordaina daukan perpausa mendekoa izanik. Egitura hau honela laburbiltzen da:

- (10) [ZER/NOR_k-KASU-MARKA (ere) ... BAIT-ADITZA], [HURA_k-KASU-MARKA ... ADITZA]

Ondoko perpausak (9)-ko egitura adibide batean erakusten du:

- (11) a. Zer ere ikhusten baitugu bertzeer egiten, hari jartzen gare (Hiriart-Urruty, *Gontzetarik jalgiaziak*, 45).

Mendebaldean, BAIT- menderagailuaren orde -(e)N atzizkia erabiltzen da

- b. Nola egiten dekan, ala izango dek (Azkue, *Euskalerrriaren yakintza III*, 2686. zk., 217).

Batzuetan, errefrauetan bereziki, edo eredu horri dagozkion zenbait esapidetan, korrelaziozko egitura hori mendeko perpausko aditza jokatugabea izanik aurkitzen da. Adibide hauetan ikus daiteke erabide hori:

- (12) a. Osoa non aipa, han gerta (Oihenart, *Les proverbes basques*, 385).
b. Bakoitzak zer erein, huraxe bilduko du (*Elizen arteko Biblia*, Gal 6-7).
c. Non gogoia, gazteak han du zangoa (Zerbitzari, *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*, 744. zk.).
d. Zer ikusi, a ikasi (Azkue, *Euskalerrriaren yakintza III*, 2895. zb., 229).

Korrelaziozko egitura argia da adibide horietan guzietan, zeren galderazko izenordaina eta erakuslea garbiki elkarri korrelaturik baitaude. Ohartzekoa da, haatik, (12)ko adibideetan, (11a,b) adibideetan ez bezala, aditz jokaturik ez dela galderazko izenordaina agertzen den ezkerreko perpausuan, edo aditzik batere ez delako (12c), edo forma jokatugabe batean delako, izan dadin aditzoina (11a) edo partizipio burutua (12d). Horregatik diogu egitura hauetako egituretan korrelaziozko perpaus erlatibo jokatugabea badela, eta ez direla alboratuak diren bi perpaus beregain. Azken egitura hori ez da ezinezkoa. ondoko adibideak erakusten duen bezala:

(13) Zuk zer hartuko (duzu)? Nik ere huraxe nahi dut.

(13)ko adibidean korrelazio erlazioa da galderazko izenordainaren eta erakuslearen artean, baina ez da mendekotasun sintaktikorik bi perpausen artean.

3. *EZ DAUKAGU [NON LO EGIN] BEZALAKO PERPAUSETAKO ERLATIBO JOKATUGABEAK*

EGLU V-en arkaikotzat jotzen da (14) bezalako adibideetan agertzen diren egitura:

(14) a. Eztut [non bil ditzadan neure fruktuak] (Leičarraga, *Testamentu Berria*, Luk. 12,17).

(14a)-an, kakoen artean den perpausa jokatua da. Bizkitartean, ‘dut’ aditzaren objektu zuzen gisa agertzen da, izen-sintagma balitz bezala, haren interpretazioa hauxe izanik: ‘ez dut nire fruituak biltzeko lekurik’. Adibidez, Orixek Itun Berriko pasarte bera itzultzean azken modu honetaz baliatzen da (14b):

b. Ez baitaukat [uztak eukitzeko lekurik] (Orixek, *Testamentu Berria*, Luk. 12,17)

EGLU V-en perpaus erlatibo gisa aztertzen dira (14a)-an kakoen artean den perpausaren irudikoak. Eta erran gabe doa, era jokatu gabe batean ere ager badaitezke (14b) adibidean bezala, orduan, modu berean, perpaus erlatibo gisa azaldu behar direla horrela eratu perpaus hauek ere.

Hain zuzen, forma jokatu gabeek hartu dute arkaiko bihurtu den molde jokatuaren lekua azken mendeotako eta egungo euskaran. Beha, adibidez, nola agertzen den pasarte bera ondotik egindako beste zenbait itzulpenetan:

(15) a. Ezen ez dut [non zarra bildu ditudana]. (Haraneder, *Testament berria*, Luk. 12,17).

- b. [Holako uzta non sar] ez dut ezen. (Léon, *Ebanjelio Saindua*, Luk. 12,17).
- c. Ez baitut [uzta non jasorik]. (*Elizen arteko Biblia*, Luk. 12,17).
- d. [Nire uzta non sarturik] ez daukat. (*Itun berria*, Luk. 12,17).

Ikus dezakegu lau itzulpen horietan (14a)-ko egitura erabilia dela, baina aditza jokatu gabe. Erran gabe doa, bestalde, (15)-eko perpausetako erabidea ez dela arkaikoa.

Holako perpausak existentzia edo posesioa adierazten duten aditzekin erabiltzen dira (*izan, egon, falta izan, gelditu, ukan, eduki, aurkitu, bilatu, eman, utzi...*), izen-sintagma absolutibo baten lekua harturik, edo objektu zuzen gisa (15)-ean bezala, edo subjektu gisa (16)-an bezala:

- (16) *Bazela* han [zer ikus] eta [zer ikas]! (Karrika, *Armendaritze haur begiez*, 181)

(16) adibidean ikus daitekeen bezala, Ekialdeko euskalkietan aditzoina (*ikus, ikas*) ager daiteke perpaus jokatugabeen. Beste euskalkietan partizipio burutua erabiltzen da. Azken kasu honetan, partitiboa bideratzen duten tesuinguruetan partitiboaren atzizkia har dezake perpaus haietako aditzak, hala nola ikus baitaiteke gorago (15c, d) adibideetako aditzetan (*saturik, jasorik*). Mugatzailearekin eta zenbait zenbatzailerekin ere erabil daitezke holako erlatiboak, ondoko adibidean bezala:

- (17) [zer jana] eta [zer edana] eman ziguten ontzian, baño jateko gogorik ez (*Anabitarte, Aprika-ko basamortuan*, 101).
- (18) Baneukake [non enplegatua] / bost milla duro banitu (Txirrita, *Txirritaren bertsoak II*, 60).
- (19) euskal pentsalarien obretan, badago [non ikasi eta gozatu franko] (Zapiain, *Errua eta maitasuna*, 150).
- (20) Alde horretarik ere, badugu [zer ikasi ugari] liburu honetan (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 89).

(17-20) lau adibideetan ikus daiteke perpaus jokatugabearen bukaeran den partizipio burutuari lotzen zaiola determinatzaile singularra (*-a*) edo zenbaitzaile bat (*franko, ugari*), hala nola gertatzen baita izen sintagmetan.

Ohartzekoa da, (14a,b) adibideekin erakutsi bezala, izenordainak duen kasu-markaren nozioaren arabera interpretatzen direla horrelako perpausak. Perpaus erlatibo horien parafrasiak honelako zerbait:

- (21) a. Izan zuten *zertaz* mintza. → Izan zuten *gai* franko mintzatzeko.
 b. Gelditzen da *zer* erran. → Gelditzen da errateko *gauza* anitz.
 c. Ez zaio falta *norekin* hitz egin. → Ez zaio falta hitz egiteko *lagunik*.

Halere, izenordainaren kasu-marka eta interpretazioaren arteko harreman estu hori, batzuetan iluntzen da. Hori *zertan*, *zeren* eta, zenbaitetan, *zer* izenordaina duten perpausekin gertatzen da. Ikus adibidez, nola interpretatzen diren (22)ko adibideak:

- (22) a. Ez dagok [zertan larritu] → ez dagok larritzeko arrazoirik.
 b. Ez duzu [zeren urik eman] → ez da urik emateko arrazoirik edo beharrik
 c. Ez dago [zer esanik ni ere joan nintzela] → ez da ni ere joan nintzela esateko arrazoirik edo beharrik.

Kontuan izan, azkenik, ez direla perpaus hauek jokatugabeko zehar-galderatzat hartu behar. Konpara ditzagun ondoko bi perpausak:

- (23) Badakit [zer jan]
 (24) Badaukagu [zer jan]

Nahiz arras hurbil iduri duten (23-24) adibideetako bi mendeko perpausak, joskera desberdinekoak dira. Izan ere, (23) adibidekoa zehar-galdera da, hola-lako osagarria eskatzen duen aditz batekin (*jakin*) erabilia, eta (24)koa, berriz, ez da zehar-galdera: ardatzik gabeko perpaus erlatiboa da, posesioa adierazten

duen aditz batekin (*eduki*) erabilia. Bi perpaus-mota hauen sakoneko ezberdintasuna erakusten du ondoko kontrasteak:

(25) *Badakit [*nork egin*]

(26) Badaukat [*nork egin*]

(25) adibidea ez da ongi eratua hartan galderazko izenordaina (*nork*) subjektua baita. Alabaina, holako zehar-galderak kontrol egitura bati dagozkio, eta subjektua mendeko perpausean hola agertzea, orduan, ez baita zilegi. Aitzitik, (26) adibidea ongi eratua da. Mendeko perpausa ez da kontrol egitura batean sartua, eta hartan subjektua ager daiteke.

7. PERPAUS OSAGARRIAK

Konplementazio-erlazioari buruz, *EGLU V* mintzo da luze, eta ez dugu hemen errepikatuko azalpen orokor hura. Kontuan har bedi perpaus osagarri guztiei dagokiela han esaten dena, hots, jokatu zein jokatugabeei. Alde horretatik, hura berrestera eta osatzera dator atal hau, perpaus osagarri jokatugabeen ezaugarri bereziak xeheago eta sakonago aztertuz.

Honelako perpausez arituko gara:

- (1) Han eta hemen **jardun** zuen *apaiz lanak egiten* (Zuazo, *Euskararen sendabelarrak*, 48).
- (2) Gazte zarpailak harri laukitxoetan eserita **ikusi** nitinan, *udako gauari agur egiten* (Cillero, *Hollywood eta biok*, 174).
- (3) Gainera, **badakizu** zure xarma hori esplotatzen ere (Oñederra, *Eta emakumeari sugeak esan zion*, 70).
- (4) Lehen bezala **joaten** naiz *etxeko lanak egitera eta irakurtzera* (Izagirre, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*, 111).
- (5) Ez naiz **ausartu** ere egiten *hildako egunez pentsatzera* (Larrañaga, *Hona hemen gu biok*, 254).
- (6) Ez zuela **aukera galdu** nahi *obispoari agur egiteko* (Mujika, *Gerezi Denbora*, 127).
- (7) *Hanketatik eusteko* **agindu** dio gazteetako bati (Juanena, *Esan gabe neukana*, 51).
- (8) **Harritzekoa zen** *Olatz hain isilik eta pentsakor egotea* (Cano, *Pasaia blues*, 32).

- (9) **Harrigarria zen** Patzikuk, hain gertu pasatuta, *nire diosalari ez erreparatu izana* (J. L. Zabala, *Agur, Euzkadi*, 144).
- (10) Gaur ez **dakizu zer egin fantasiekin** (Oñederra, *Eta emakumeari sugeak esan zion*, 84).
- (11) Haurtzarotik gaur arte beti **kasu egin** zuen, *zer erran, zer pentsa, zer nabari, nola ibil, nola joka* utzia ez izateko (Borda, *Zeruetako erresuma*, 131).
- (12) Nire emazteari sinestera, ez omen nintzen **nekatu haren titi ikusgarriei so egiteaz** (Epaltza, *Rock'n'roll*, 139).
- (13) *Aurpegia estaltzeko ahaleginik ez egiteak* **gogaitzen** ninduen gehien (Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 441).
- (14) *Herioren dantza egiteari* **utzirik**, nigana etorri, eta besotik heldu zidan Adak (Lertxundi, *Argizariaren egunak*, 59).
- (15) Liburu honek **salbatu** nau *nire buruaz beste egitetik* (Linazasoro, *Ez balego beste mundurik*, 8).
- (16) Blanco urte askoan *kontrabando egitetik* **bizi** omen zen, Haiti eta Santo Domingoko mugan (Garate, *New Yorkeko kronika beltza*, 80).

Nabarmendu ditugu, letra *etzanez*, perpaus osagarri jokatu gabeak, eta letra beltzez, berriz, perpausokin konplementazio-erlazioan dauden predikatuak, hots, osagarrion predikatu gobernatzaileak. Esaldiotan, bada, predikatu horiek gobernatzen edo, hitz teknikoago batez esateko, *hautesten* dituzte osagarri jokatu gabeak.

Hori da aldea osagarri ez direnekin: haiek *edozein* predikaturekin elkartu daitezke sintaktikoki, esanahia desegokia edo bitxia gertatzea gorabehera (# ikurrak adierazten du azken kasu hori):

- (17) *Etxera iristen* **ikusi** dut / ***erori** da / ***hil** dut / ***begiratu** dit / ***irtengo** gara...
- (18) *Etxera irstean* **ikusi** dut / **erori** da / **hil** dut / **begiratu** dit / #**irtengo** gara...

Etxera iristen perpaus osagarria hartzeko, ez du balio edozein aditzek. Zehazki, eta geroko azalpenak aurreratuz, esan dezagun hiru sail nagusitan bana daitezkeela –TZEN perpausak hartzeko gai diren predikatuak:

- Jarduera-predikatuak: *jardun, aritu, ibili...*
- Jardueren gogo-kudeaketari dagozkionak: *jakin, asmatu, trebatu, ahaztu, ausartu, tematu...*
- Prozesuen hautemateari dagozkionak: *ikusi, entzun, hauteman, aurkitu...*

Perpaus-motaren arabera, halako predikatu sorta bat aurkituko dugu harekin konplementazio-erlazioan. Predikatu (mota) horiek zein diren eta zer esanahiren inguruan biltzen diren ikusiko dugu. Hasierako adibide zerrenda horretan bildu nahi izan ditugu gero banaka aztertuko ditugun perpaus osagarri jokatu gabe motak (ikus, xeheago, 7.3.2):

- TZEN, TZERA, TZEKO (1-7)
- TZEA, TZEAK, TZEARI, TZEAZ, TZEAREKIN, TZEAN, TZETIK (8, 12-16) [eta TU(IZAN)A, TU(IZAN)AK, TU(IZAN)ARI... (9)]
- galde-hitza + aditzoina/partizipioa (10-11)

Lehenik eta behin, hala ere, aipa ditzagun kontu orokor batzuk.

7.1. PERPAUS JOKATUGABEEN EZAUGARRI OROKORRAK OSAGARRIETAN

7.1.1. Aditz jokatu gabeek ez dute pertsona- eta denbora-markarik

Perpaus jokatu gabeen ezaugarri nagusiak jokatu gabe izate horretatik datoz zuzenean, hots, aditz jokaturik ezean, hark markatu ohi dituen erreferentziak markatu gabe geratzen: aditzean adierazten ez denez, edo esplizituki markatuko dira subjektua –eta objektua eta datiboa, halakorik bada– eta denbora,

edo perpaus nagusiak (edo testuinguruak) ezarriko dizkio menderatu jokatu-gabeari, *birtualki*¹, bere semantikaren arabera:

- (19) Harritzen nau **haurrek** hor hain lasai lo egiteak.
- (20) *Argia itzaltzea* ahaztu zaio Mikeli. [**Mikelek** da itzaliren subjektu aipatugabea]
- (21) Ez dizu kalterik egingo *etxea margotzeak*. [edonor izan daiteke *margoturen* subjektua, baina **zuk** dela iradokitzen da besterik adierazi ezean]
- (22) Etxean geratzea komeni da. [testuinguruak argitu behar du *geraturen* subjektua nor den].

Subjektua ageriratzeko aukera², bistan da, ez da beti erabiltzen, eta guztiz ohikoena beste aukera da, hots, menderatu jokatu-gabean subjektua agerian egon ez, eta perpaus nagusiak *proiektatzea* menderatuari bereak, kasuan kasuko esanahi-jokoz.

Jakina, adierazpen inbertsonalak, generikoak edo subjektu zehaztugabe-koak egin nahi direnean, aukera-aukerakoak dira perpaus jokatu-gabeak, subjektu huts hori dela eta:

- (23) Horregatik erabaki zen *etxea ixtea*.
- (24) *Aberatsa izateak* ez dakar zoriontsu *bizitza*.
- (25) Nola jakin *zer egin?*

¹ “Birtual(ki)” esapide modako hori egoki dator bestela “lexikoki gauzatua ez dena” edo esan beharko genukeen lekuan.

² Euskarazko perpaus jokatu-gabeen ezaugarri berezietariko bat da, hain zuzen, auzo-erdaren infinitibo baliokideen aldean, subjektu lexikoa onartzea (enfasizko egitura berezietan izan ezik):

hura etortzea (etortzeko)

(para) ***él** venir

(pour) ***il** venir

Auzo-erdarok, hain zuzen, subjuntiboarekin lotzen dute halako subjektu esplizitua. Horra oinarri nagusia, bidenabar, alderantzizko ikuspegitik, euskaraz subjuntiboa erdarotan bezain beharrezko ez izateko, eta, beraz, askoz ere gutxiago erabil dadin.

Bestalde, perpaus jokatugabeek denbora-markarik ere ez dutenez, denbora hori zehazten ez bada (*atzo, gaur, bihar, lehenago, gero...*), perpaus nagusiaren arabera interpretatzen da. Askotarikoak dira jokoak, baina predikatu gehienek badute joera aski nabarmena, beren semantika dela eta, osagarriaren denbora-interpretazio jakin bat behartzeko edo iradokitzeke.

Hala adierazten den denbora hori ez da absolutua, perpaus nagusiarekiko erlatiboa baizik: ea osagarriak adierazten duen egoera perpaus nagusiak adierazten duen egoerarekiko *aurretikoa, aldiberekoa* ala *ondotikoa* den.

Predikatu askok *ondotiko* interpretazioa behartzen dute (interpretazio *prospektiboa*), hala nola *ausartu (ausartu>egin: ausartu esatera)*. Osagarri mota batzuk, hain zuzen ere, beti dute zentzu prospektiboa, hala nola *-TZERA, -TZEKO* eta zehar-galdera jokatugabeak.

Beste predikatu batzuk *aurretiko* interpretazioarekin loturik daude ia beti, hala nola *damutu (damutu<egin: damutu isiltzeaz)*. Halakoetan aurkituko dugu, aukera gisa, aditz-izenezkoen aldaera burutua: *damutu/barkatu egin izana*.

Interpretazio *aldiberekoa* tipikoa da, besteak beste, zentzumenen bidezko hautemate-predikatuetan, hala nola *ikusi (ikusi<>egin: ikusi sartzen)*.

Perpaus osagarri *jokatugabeek* ari gara betiere, jokatuak beren adizkiez adieraz baitezakete noski denbora (eta aspektua): *onartu egin dezan/zezan/lezan, ikusi/jakin/pentsatu egin/egiten/egingo duela/zuela*.

7.1.2. Erreferentziakidetasuna eta kontrol-egiturak

Halako adierazpen generikoez landa, erreferentziakidetasun-jokoak gertatzen dira maiz perpaus jokatugabeetan (*defektuz*, nolabait esateko). Hala, perpaus nagusiko elementuren bat izango da gehienetan mendeko perpaus jokatugabearen subjektu *birtual* edo isila:

- (26) Eskatu dut *hemen lo egitea*. [*nik* lo egin, maizenik, baina beste edozein subjektu izan daiteke; *zuek*, adibidez]
- (27) Ez zaizu komeni *galdetzea*. [*zuk* galdetu, maizenik, baina beste edozein subjektu izan daiteke: *epaileak*, adibidez]

Kasu horretan, bada, subjektu erreferentziakidea ez da aipatuko menderatuan. Aldiz, mendeko perpausaren subjektua perpaus nagusiak iradokitzen duen hori ez bada, esplizitatu egin beharko da:

- (28) Ez zaizu komeni *hark galdetzea*.

Ez da naturala halakoetan subjektu erreferentziakidea esplizitatzea, erredundantea izanik:

- (29) ?Ez zaizu komeni *zuk galdetzea*.

Horren salbuespena da subjektu hori kontraste-enfasis hanpatua denekoa:

- (30) Ez zaizu komeni *ZEUK/ZERORREK/ZUHAURREK galdetzea* [beste norbaitek baizik].

Perpaus jokatu gabe osagarri batzuen kasuan, bestalde, gerta liteke subjektuaren erreferentziakidetasuna nahitaezkoa izatea, behartua; hala gertatzen da, beti, *-TZEN* eta *-TZERA* perpausetan:

- (31) *Gauzak garbi esatera* etorri naiz. [*nik* esan]
- (32) *Poliki-poliki erretzen* jarri nuen oilaskoa. [*oilaskoa* erre]
- (33) Ez naiz ausartu [**hark/*zuk*] *galdetzen/galdetzera*.

Kasu horretan, hots, menderatuaren subjektu aipatugabea perpaus nagusiak guztiz behartua denean, subjektu hori kontrolatua dela esaten da. Kontrola, bada, erreferentziakidetasun behartua da, beste aukerarik gabea.

Ausartu predikatuaren kasuan, haren subjektua da kontrolatzailea, hots, menderatuari subjektua erreferentziakidetasunez behartzen diona, beste aukerarik eman gabe. Beste batzuetan, berriz, objektua edo datiboa dira kontrolatzaile:

(34) Gizon bat ikusi dut [*ni/*zu] *hor esertzen*.

(35) Zuri eskatu dizugu [*nik/*hark] *arazoa konpontzeko*.

Erreferentziakidetasun- eta kontrol-jokoak, inoiz forma jakinekin lotuak egon arren (esan bezala, *-TZEN* eta *-TZERA* perpaus osagarriak beti dira kontroldunak), oro har, predikatu gobernatzailearen araberakoak dira. Hots, osagarri jakina hartzen duen predikatu semantikaz nolakoa, halakoa izango da osagarri horren subjektuaren erreferentziakidetasun-jokoa.

Horrenbestez, esaten ari gara predikatuen semantikak baldintzatzen duela osagarrien erreferentziakidetasun-jokoa, eta, hala badagokio, kontrola. Esate baterako, *damutu* eta *harritu* predikatuek antza handia dute, bai oinarrizko sintaxiaren aldetik (*norbait zerbaitetaz damutu/harritu*) eta bai eremu semantikoari dagokionez ere (erreakzio psikologikoak adierazten dituzte biek). Hala ere, *damutu* norberak egindakoaz damutzen garenez, eta *harritu*, berriz, edozertaz, lehena kontrolduna da, eta bestea, berriz, ez:

(36) *Damutu zara* (*nik/*hark) *egia esateaz*.

(37) *Harritu zara* (nik/hark) *egia esateaz*.

Aukera nagusiak, bada, bi dira:

- *Kontrol* deritzogun erreferentziakidetasun behartua. Kasu horretan, ez da ageri subjektu lexikorik osagarrian (enfasiz ez bada: *Zu harritu ZEUK egia esateaz*).
- Erreferentziakidetasuna aukerakoa.

Bigarren kasu horretan, hala, edo subjektu bat esplizituki (lexikoki) aipatu da, edo, bestela, testuinguru gramatikal, testual nahiz pragmatikotik erabakiko da zein den subjektu birtuala.

Esplizitatzen ez delarik, kontrolatua ez denean ere, erreferentziakidetasunez erabaki ohi da perpaus jokatugabearen subjektua, dela perpaus nagusiko elementuren batek –bereziki subjektuak, objektuak edo datibozko sintagmak– erreferentzia *proiektatzen* duelako, dela testuingurutik *eskuratzen* delako.

Erreferentziakidetasunerako joera hori erabatekoagoa da, bestalde, perpaus jokatugabe osagarrietan (osagarriak predikatuen *argumentu* izanik), osagarri ez diretan baino, konplementazio-erlazioan dauden elementuen arteko lotura handiagoa baita *adjuntu* direlakoan kasuan baino.

Kontrolik ez denean ere, beraz, joera bereziki markatua izango dute osagarriek erreferentziakidetasunerako. Alegia, erreferentziakidetasuna nagusituko da defektuz, eta *bigarren aukera* izango da, eskuarki, erreferentziakidetasun hori beste subjektu esplizitu batez haustea.

Hasiera-hasieran eman ditugun 16 adibide tipikoetan, esate baterako, 8.ean eta 9.ean baino ez darama subjektu lexikorik perpaus osagarri jokatugabeak (eta, bietan ere, *harritu* predikatua dugu). Gainerakoetan, subjektu espliziturik ez eta, erreferentziakidetasuna nagusitzen da (kontrola ere erreferentziakidetasuna da: nahitaezko erreferentziakidetasuna), batean –13.ean– izan ezik. Hona 13. adibide hori errepikaturik:

(38) Aurpegia estaltzeko ahaleginik ez egiteak gogaitzen ninduen gehien.

Kasu horretan, joko semantikoak iradokitzen du *ni* gogaitzen ninduen ez dela izango, bitxikeriarik ezean, ahalegin hori *nik* ez egitea, *beste norbaitek* ez egitea baizik. Hala ere, edozein izan daiteke hor, gramatikari dagokionez, subjektua.

7.1.3. *Predikatu gobernatzailleak sailkatzea*

Horiek horrela, banan-banan ikusi behar lirateke osagarriak hartzen dituzten predikatuen sare edo irazki semantikoak, hots, zer esanahi-sare dago-kion bakoitzari, handik ateratzeko, bai zer perpaus-motarekin konbinatzen diren halako predikatuak, eta bai, esanahi-sare horren arabera, zer erlazio ezartzen den, kasuan-kasuan, bi perpausen adierazian parte-hartzaile direnen artean.

Bistan da nekez egin litekeela halakorik honelako gramatika-liburu batean. Helburu xumeagoz, bada, predikatu tipiko edo maizenik erabili batzuen kasuak ikusiko ditugu, aurrenik –semantikari baino lehenago– formari begiratu-tuko dion sailkapen baten arabera ordenatuak.

Horrek esan nahi du izango dela formaz atal bereko direnen artean alde nabarmenik, eta –gauza bera baita, alderantzizko ikuspegitik– aurkituko dugula kidetasun –hots, molde errepikatu– bat baino gehiago formaz atal berezitan banaturik daudenen artean.

Atalez ataleko azalpenen ondoren, eranskin batean emango dugu predikatu ohikoenen taula bat, ordena alfabetikoan; han agertuko da hainbat predikatu arrunt erabilik zer perpaus osagarri jokatu-gabe mota hartzen duen, beste xehe-tasun batzuekin batera:

- kontrolik den (eta, baldin bada, perpaus nagusiko zein argumentu den kontrolatzailea: subjektua, objektua edo datiboa)
- aldaera buruturik onartzen duen (ikus, oraingo, 9. adibidean, *ez erreparatu izana* burutua, *ez erreparatzea* markatugabearen aldean).

Hala, kasuz kasuko xehe-tasunez gainera, osagarrien mapa orokor bat ere izango dugu begien bistan. Taula hori baliagarri izan dadin, ordea, badugu oraindik zer argitu.

7.1.4. *Perpaus osagarri jokatugabeen morfosintaxi berezia*

7.1.4.1. *-TZE atzizkiaz osaturikoak: aditz-izen egiturak eta itxura bereko izen-sintagma arruntak*

Guk hemen aztergai dugun $-T(Z)E$ atzizkia aditz-izenei dagokiena da, baina bada beste egitura bat $-T(Z)E$ atziki beraz baliatzen dena. Formaz berdinak dira, beraz, biak, baina joskera-antolamendu desberdin biri dagozkie³:

literatura ikusgarriro loratzea [loratze: aditz-izena, aditz-joskera]

literaturaren loratze ikusgarria [loratze = loraldi: izen petoa, izen-joskera]

Izen-joskerakoan, jakina, genitiboa ager daiteke, hor bezala (*literaturaren*), baina genitibo hori izenen izenlagun arrunta da kasu horretan, ez beste joskeran, aditz-izenarekin, Iparraldean erabiltzen den objektu-genitiboa (ikus 7.1.4.4.). Hain zuzen ere, *literatura*, hor, *loraturen* subjektua litzateke, eta ez objektua:

literatura loratu > literaturaren loratzea/loraldia.

Halakoetan ($-TZE$ atzizkia bietara har daitekeenean, alegia), inoiz, gerta daiteke formaz ez garbi geratzea genitiboaren zer erabileraren aurrean gauden. Axular berriro:

- (39) Zeren urthean behin baizen kofesatzen eztenak badirudi bortxaz egiten dela, eta *halakoaren kofesatzeak* deus guti balio duela (Axular, *Guero*, 349).

Lehen aukera, *kofesatze* aditz-izentzat jotzea:

halakoaren kofesatzea [perpausezkoa: objektua genitiboz] [sakonean: “norbaitek hura kofesa dezan”]

Bigarren aukera, *kofesatze* izen petotzat jotzea (=kofesio):

³ Ikus 7.4.5.2.

halakoaren kofesatzea/kofesioa [izen-sintagma arruntezkoa: izenlaguna. + izena] [sakonean: halakoa kofesa dadin / halakoa norbaitek kofesa dezan / halakoak zerbait kofesa dezan]

Hain zuzen ere, hurrengo atalean ikusiko dugunez (7.1.4.2.), aditz-izenezko egiturak nekez onartzen du *kanpoko* genitiboa, eta perpausaren barneko objektuarentzat geratzen da kasu hori. Beraz, anbiguotasuna ez dagokio genitiboari berari, *kofesatze* hitzaren bitasunari baizik, aditz-izena zein nominalizazio-izen petoa (*kofesatze=kofesio*) izan baitaiteke forma berarekin.

Aditz-izenaz besteko erabilera hori, bestalde, oso emankorra da gaur egungo euskaran, bestelako eratorpen-atzizkien lekua edo hutsunea betetzen baitu halakoetan *-tze* atzizkiak:

- (40) Baina, zuhaitzen zerrenda **eguzkiaren jaikitzearekin** eta **egunaren sendotzearekin** batera abiatzen zuten (P. Zabala, *Naturaren mintzoa*, 36).

Adibide horretan, ez da perpausik *jaikitze* eta *sendotze* horien ardatzean bildurik, ez baitira hor aditz-izen, balizko *jaikiera* eta *sendoera* izen petoen pare-pareko baizik. Genitiboazko izenlagunak biltzen duen argumentua ez litzateke sakoneko perpausaren objektua, subjektua baizik: *eguzkia jaiki, eguna sendotu*. Perpaus-argumenturen bat sartzeak, bistan da, benetako aditz-izenezko joskerara bihurtzea dakar, zeinahi euskalkitan⁴:

*goizean eguzkiaren jaikitzea

goizean eguzkia jaikitzea

Bi antolamendu desberdin dira, beraz, aditz-izenezkoa eta bestelakoa, izen-sintagma arruntena, nahiz *-tze* atzizkia bietan ager daitekeen. Oro har, aditz-izenezko joskeran genitiboa agertzekotan, Iparraldeko erabilera dugu, eta per-

⁴ Adizlaguna izenlagun bihurtzea da beste bidea, baina izen-joskerak ere baditu bere mugak: *#?eguzkiaren goizeko jaikitzea / #?goizeko eguzkiaren jaikitzea*.

pausaren objektuari dagokio genitiboa, eta ez subjektuari. Axularren adibidean ikusi dugun bezala (*halakoaren kofesatzea*), inoiz, anbiguotasunen bat eragin dezake horrek:

liburuen (erabat) hondatzea = [norbaitek edo zerbaitek] liburuak (erabat) hondatzea

liburuen (erabateko) **hondatzea** = liburuen (erabateko) **hondamendia**

Bi joskeren arteko aldea egiturazkoa da.

Guk hemen aztergai ditugun joskeren kasuan, perpausa da *-liburuak erabat honda(tu)- (-TZE)* atzizkia hartzen duena, eta izen-joskera guztiz murrizta du hala sorturiko egiturak. Objektua genitiboan emateak izenen joskeraren antz handiagoa ematen dio eraikuntza horri baretik, baina besterik ez.

Izen peto-peto diren nominalizazioen kasuan, aldiz, aditza (*hondatu*) da izena (*hondamendi, hondatze*) ematen duena, eta gero izen hori gainerako izenen joskera arruntean sartzen da (*liburuen erabateko hondamendia/hondatzea*).

Urrats bat harago, Iparraldean batez ere, *-TZE* atzizkiaz osaturiko izen batzuk erabat lexikalizaturik daude:

(etxearen) sartzean=sarreran

(haurraren) sortzetik=jaiotzatik

7.1.4.2. Aditz-izenez osaturiko perpaus jokatu-gabeen izen-joskera murrizta

Perpaus jokatu-gabe gehien osagai nagusia den [aditza + *-TZE*] egituraren kategoria gramatikala aditz-izenarena da, hots, kategoria berezi bat, gainerako izen moten aldean bestelako ezaugarriak (edo mugaketak) dituena, aditzek bezala perpausen osagaiak hartzeak eraginak. Aipa ditzagun behinenak:

- Nekez onartzen du pluralik: **ilargira iristeek*.
- Ez ditu onartzen izenondo guztiz mugatu eta espezializatu batzuk baino: *arazoei ekite hutsa. / ?arazoei ekite jator/burutsua*. Erakuslearekin konbinaturik, apur bat zabaltzen da aukera: *hautzarora itzultze eder/zoragarri/zozo hori*.
- Ez du onartzen, edo oso nekez, izenlagunik: (**orduko*) (**gure*) *inori jaramonik ez egitea*. (Berriz ere, erakusleak aukera zabaldu dezake: *orduko gure inori ezer ez barkatze hura*).

Izen arrunten aukera horiek hala mugatuak daudela ikusirik, esan liteke ezen, izen bete-beteak baino areago, sintaxian izen baten *lekua har* dezaketen perpaus jokatugabeak direla aditz-izenaren inguruan antolatutako horiek:

- (41) **Horrek** galduko zaitu: **zure gogoeta etengabeak**, hots, *gauzak gehiegi pentsatzeak*.

Izen arruntekiko joskera-berezitasun horrek, hala ere, ez du esan nahi, inondik inora, bakan erabiltzen direnik, baizik eta perpauszkotasuna nagusitzen dela aditz-izenetan –hots, aditz-joskera–, eta izen-joskera, berriz, oso mugatua dela: perpaus nagusiaren argumentuen artean zeinen lekua betetzen duen adierazteko baino ez da baliatzen ia, eta ez ditu eskaintzen izen-sintagma arruntenen pareko osaera-aukera zabalak.

Aditz-izen terminoak berak erakusten du halako bitasun bat. Lehenik eta behin, bereizi beharra dago (ikus 7.1.4.1.) aditz-izenez osaturiko perpausa (*ni sortzea*) aditz-izenaren forma bereko izen-izenean oinarrituriko nominalizazio arruntetik (*nire sortzea*).

Bistakoa da aldea. Lehenean aditzari dagozkion osagaiak hartzen ditu aditzak (kasu horretan, absolutiboko subjektua), eta horregatik diogu perpausa osatzen duela. Bigarrenean, berriz, *jaiotza* edo *sorkuntza* hitzen pare-parekoa da *sortze* izena: aditz batetik eratorria da, baina har ditzakeen osagai bakarrak

izenen osagaiak dira (kasu horretan, genitiboa). Aipatu dugunez, apur bat nahasten da kontua Iparraldeko hizkerak genitiboa beste funtzio baterako *ere* erabiltzen dutela kontuan harturik. Inoiz, zalantza eragin dezake horrek:

(42) Hala erabaki zuten gurasoek **nire sortzea**. (= **nire jaiotza**)

(43) Hala erabaki zuten gurasoek *nire sortzea*. (= *ni sortzea*)

Iparraldeko objektu-genitiboak, nolana ere, ez du eragozten aditz-izenaren perpaustasuna; objektua doa genitiboan, baina gainerako osagaiak aditzari dagozkionak dira, eta ez izenari dagozkionak:

(gurasoek) **nire** mundu honetara sortzea (= (gurasoek) **ni** mundu honetara sortzea)

Kontuak kontu, objektu-genitiboa *sortu* predikatuaren argumentua da, eta ez kanpoko genitibo arrunta; izan ere, kanpoko balitz, subjektutzat ulertuko litzateke *ni*, eta ez objektutzat. Eta ulertu ere hala ulertzen da, objektu-genitiboaz besteko erabilera –hala ere guztiz bakan– batean:

nire [mundu honetara sortze]a (= nire mundura-sortzea)

(44) Lotsa eta itzala izan bear deutsegu **euren gure aurrean egoteari** (Iturzaeta, *Azalduera laburrac*, 76).

Beraz, –*TZE* aditz-izenezko perpausak, gutxi-asko, onartzen dute izen-sintagma arrunten genitibo arrunta. Egia esan, oso bakan baliatzen da aukera hori, noiznahi gertatuko bailirateke, bestela, perpausaren barneko osagaiekiko nahasbideak:

haren [galtzak jaiste]a / [haren galtzak jaiste]a

Perpaus simple eta gardenekin erabiltzekoa baino ez da aukera. Gauza bertua genuke –*KO* atzizkiaz osaturiko izenlagunen kasuan:

orduko [galtzak jaiste]a / [orduko galtzak jaiste]a

Genitiboa aurretik lotzen zaio izenari, eta hortik halako nahasbideak. Baina ba al du bestela aditz-izenezko perpausak, genitiboaz landa, izen-sintagma arruntek duten aukerarik? Zehazkiago, orain arte beti -A mugatzailea eman dugun lekuan, ba al da aukerarik erakusleak nahiz zenbatzaileak agertzeko? Eta pluralik? Eta izenondorik txerta al daiteke?

Erantzuna ez dabil oso urruti genitiboaren kasuan esan dugunetik: bai, bada aukerok guztiok, baina oso murrizak eta oso bakan baliatuak.

Beharbada, singularreko erakuslea da errazen ager daitekeena:

- (45) Ez zaik iruditzen *berorika hitz egite hori...* gu bezalako bi libertarioentzat... (Mujika, *Gerezi Denbora*, 25).
- (46) Iñoren gauzetan *sartze ori* (Aguirre, *Garoa*, 307).
- (47) Ezkondu arte, dena pekatu bai zan, *izkutuka ibiltze arek*, neurriak galdu ezta ere, ba'zuan bere xaltxa (Etxaniz, *Lur berri billa*, 122).
- (48) *Jaunaren aurrean jartze, ta ibiltze au* ongi egiteko, ez da asko gogora ekartztea, ta sinistea Jaun beraren aurrean, eta begietan arkitzen gerala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* 3, 327).
- (49) Jesus'ek itzik ateratzen etzuen: eta *isillik uzte onek berak* su geiago ematen zien biotz gabeko gizon gaizki-azi aiei (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 448).
- (50) Nikol bere emazteak, *Kutxa santaren aurrean dantzan Dabid ibiltze hura*, etzuen ontzat artu. (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 188).
- (51) *Alde nahiz kontra egote hori* adiera berezi batean hartu beharrekoa da, jakina (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 336).
- (52) Bada ala zuk eta nik ere, *denboraren galtze hunetzaz, probetxu gabe iragaitera utzteaz*, kontu hertsia eman beharko baitiogu Iainkoari (Axular, *Guero*, 107).
- (53) Bada, alan zuk eta nik bere *denporea galtze onegaz*, probetxu baga igarotera itxiaz ondo kontu estua emon bearko deusagu Jangoikoari (Añibarro, *Guero*, 122).

- (54) Ai, Jauna, lehenago bertze edo-zein zigorrada, othoi, *zu niganik urruntze ta zure graziez gabetze hori* baino (Duhalde, *Meditacioneac*, 207).

Bereziki baliagarria da erakuslea zenbait nahasbide edo anbiguotasun sai-hesteko (ondoko adibidean, *bat egitean* [noiz] eta *bat egitean* [zertan]):

- (55) *Baietza eta ezetza bat egite horretan* jartzen du Maria Zanbranok poesiaren oinarria (Joxerra Garzia, *Egonean doazen geziak*, 30).

Hona beste adibide batzuk, izenlaguna eta erakuslea, biak daramatzatena:

- (56) Horra zure bekatua: *betiko sobera berant ibiltze hori*, hain justu (Montoia, *Elektrika*, 183).
- (57) Zer ez dio erranen haren bihotzari *zuen ixilik egote horrek* (Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 177).

Askoz ere zailagoa da izenondodunik aurkitzea, alde batera uzten badugu kuantifikazioarekin loturiko izenondo guztiz berezi eta espezializaturen bat (*haurrak ikuste hutsa*):

- (58) Ta au zure lanak Jaunari, Jaun beraren onra, ta gloriarako, *Jesu-Kristoren merezimentuakin batean eskeintze utsarekin* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 3, 360).
- (59) Gogorrena: *beti arineketan eta presaka ibiltze itogarria* (Montoia, *Baina bihotzak dio*, 189).
- (60) Kontsidera dezagun *Salbatzailearen Zeruan sartze manifikoa*, zer laudorioak eta benedikzioak etzituen errezibitu (Jauretche, *Meditacioneac*, 207).
- (61) Goatik jin zitzaion beraz bila unti arinago bat, Coulam deitua, eta berehala hartu zuen, berekin eremaiten zuela Frantses, nahiz *Indietan sartze ohartgarri bat* egin, holako jaun harrigarri bat ondoan (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 157).

Zenbatzaileak eta pluralak oso bakan ageri dira (aurreko adibidean ere *bat* dugu):

- (62) *Itxaropena galtze bat*, noski (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 136).
- (63) Baptismoa dugu *Iainkoaren Elizara sartze bat bezala* (Leizarraga, *Othoitzza Ecclesiasticoen forma*, 83).⁵
- (64) Bekatu beniala, edo barkakizuna da Karidatea guziz itzalten ezduana, baña epelzen duan: onelako dira, iñoren kalte gabeko, gezur arin bat, *behar dan baño geixeago jate bat*, ta beste onelakoa (Ubillos, *Cristau Doctriñ berri-ecarlea*, 152).
- (65) Aurren aldi batean, harentzat *bakarrik jokatze hura*, *denpora dohainik eta urririk emate bat* zen, burua arintzeko modu trankil bat (Aresti, *Ipuinak*, 67).
- (66) *Begiratzte goixo bat*, *sarritxo itzegite bat*: apaindu nai geiegi bat, *berandutxo etxeratze bat*, *lagun urkoaren utsegite txikien gañean erausian egote bat*, ta beste onelako milla gauza, aurrenean txit erraz utzi zitezkeanak, ekarri izan ditue ondoren guztiz negargarriak (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 2*, 224).
- (67) Begira, zure alaba orri utzi ote diozkatzun onestidadeaz kanpora diran apaindurak, *ezkutariakin egoteak*, suerte on bat izan dezan (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 2*, 84).
- (68) Nik geure euskera maite-maitea dan baño be geiagoan bigun da irakurgarria egin gura neuke, ta orregaitik kendu nai neuskioz Bizkaikoari beren lastasun, koska ta *aoa zabalik egoteak*, aa bi edo ee bi alkarregaz datozenean gertetan dan legez (Aguirre, *Kresala*, 7).
- (69) *Buruz beera ta gora ta aidean ibiltzeak*, ederki (Anabitarte, *Poli*, 101).
- (70) Hunetarik, hunela gaiñez egitetik, sobera haserretzetik, eta koleratzetik, sortzen dira kalte handiak, liskarrak, hitz gaixtoak, iuramentuak, diferentziak, hauziak, gaitzerizkoak, heriotzeak, eta *bere buruen eta bertzeren galtzeak*, eta *egitekotan ibentzeak* (Axular, *Guero*, 186).
- (71) Zeren aieru hek, *itzal gaizka ibiltze hek*, baitira frogantzarik asko, gogan behar arazitzeko (Axular, *Guero*, 282).
- (72) Hargatik haren othoitz hek, eta *elizan hain maiz ibiltze hek* hainitz gaitzi zitzaizkoten haren burasoei (Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 70).

⁵ *Iainkoaren*, hor, *Elizaren* genitibo arrunta da: ez kanpokoa eta ez objektu-genitiboa.

Nolanahi dela ere, *-a* mugatzaile singularra ez eta izen-sintagmen beste osagaiok agertzen direnean, azpimarraturik geratzen da sintagmaren izentasuna, *-tzea* gertakari abstraktua (*zera*) nolabait indibidualizaturik (*zer bat, zer hori, zerak*). Alde horretatik, berdindu samaturik geratzen dira halako joskerak aditz modalek eratzten dituzten perifrasiak joko jakin batekin, kanpoko genitiboan kontua barne:

(73) Zure [beti adarra jotzen ibili behar/nahi] aspergarri hori.

(74) Zure [beti adarra jotzen ibiltze] aspergarri hori.

Beste alde batetik, perpausezko egitura izen bihurtzeko beste prozedura batzuekin kidetu daiteke halakoena:

(75) Ardura jostak ba neri jendiak-zer-pentsauko-ak!

Izen-joskera hori, bestalde, *-a* mugatzailearekin antolatzen diren *-tze* perpausei dagokie soilik⁶. Kanpoan geratzen dira, beraz, osagarrien artetik, *-TZEN*, *-TZERA* eta *-TZEKO* (*-TZE* aditz-izenez osaturiko perpaus ez-osagarriek bezain forma finkoa baitute):

(76) Ez nintzen ausartu *etxean sartzera*. [(**orduko*) sartzete **hartara/*(bizkor)* batera]

7.1.4.3. *Perpaus osagarri jokatu gabe burutuak* (*-TUA nahiz -TU IZANA*)

Perpaus osagarri jokatu gabe mota batzuek badute *-tze* perpausen aldaera burutu markatu bat, *-TU* (nahiz *-TU IZAN*) erakoa:

(77) Pena dut halako gehiago ez *erosia*. [= ez *erosi izana*]

⁶ *-TZETIK* ere sail horretakoa da, nahiz *-a* azalean ez agertu: **Zure** aldiro gezurrak asmatze **horretatik** etorri zaizu orain inork ezer ez sinestea.

(78) Itxura dotoreagoa ematen dio *ilea moztuak* [= *moztu izanak*]

Molde hori partizipioaren forma beraz baliatzen denez, bi erabilerak bereizi behar dira lehen-lehenik, nahiz bakan baino ez den gertatuko nahasbiderik:

(79) Garesti ordainduko du merke erosia [=erositakoa, erosi duena: erlatiboa].

(80) Garesti ordainduko du *merke erosia*. [=erosi izana, erosi baitu]

Burutuaren aukera hori izateko, *-A* mugatzailea daramatenetarikoak izan behar dute perpausek, eta zentzu prospektiborik ez izan, ezkontezina baita burututasunarekin. Aukera horretatik kanpo geratzen dira, beraz, *-TZEN*, *-TZERA* eta *-TZEKO* perpaus guztiak eta, gainerako sailetan, zentzu prospektiboa eskatzen dutenak:

(81) *Agindu/erabaki/eskatu... *etorri izana*.

Aldaera burutu markatu horretara jotzeko arrazoirik ez da askotan izaten, *-TZEA* osaerako forma ez baita markatua, eta berdin ezkontzen baita burutuaren zentzuarekin ere:

(82) Ez diote barkatu *egia esatea*. [= *egia esana*]

Gaur egungo prosan, guztiz nagusi da *-TU IZAN* moldea, baina *-TUA* da hogeigarren mendera arte tradizioan aurkitzen dugun molde bakarra:

(83) Zer irabazten dozu *ni ilagaz?* (Lazarraga, f. 13v-14 M.4)

Izan aditzaren kasuan, jakina, ez da beste aukerarik:

egotea [+ burutua] > egona / egon izana

izatea [+ burutua] > izana / *izan izana

Aldaera burutuak adierazten duen *aurretikotasuna* molde ez-markatu arruntak ere adieraz dezake testuinguru askotan, predikatuaren semantika lagun: *damutu(ko) zaizu/zitzaizun/litzaizuke joatea* [damutu<joan]. Alde horretatik, erredundantea izan daiteke burutu markatura jotzea:

(84) Damutu zaizu (*atzo*) *joatea*.

(85) Damutu zaizu (*atzo*) *joana*.

Hala ere, *aurretikotasun* hori modu desberdinean uler daiteke testuinguru batzuetan burutua erabiliz gero, hizketaren garaiarekiko gauzatutzat:

(86) Damutuko zaizu (*bihar*) *joatea*.

(87) Damutuko zaizu (*atzo*) *joana*.

7.1.4.4. *Objektua genitiboz (uren hartzera)*

Aipatu behar da badela joskera berezi bat, gaur egun bederen Iparraldeko euskalkiei soilik dagokiena: aditz-izenaren objektua –beste erabileran aditzaren osagarri zuzena litzatekeena– genitiboz ematea. Hona Axularren bi adibide:

(88) Zeren baitziakien zenbat kalte egiten zuen *gauza debekuaren ikhusteak* (Axular, *Guero*, 257).

(89) Ahalketzen baita *erhokeria heken ikhustez eta enzuteaz* (Axular, *Guero*, 188).

Eta Laphitzen beste bi:

(90) Guziek uste zuten *sor lekhuaren eta ama xaharraren ikhusterat* baztertuko zela (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 194).

(91) *Bere lagun maite[e]n uzteak* erdiratzen zion bihotza (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 140).

Eta Leiçarragaren hiru, galde-hitzetik hasita:

- (92) *Zeren ikhustera* ilkhi izan zarete desertura? **Haizeaz erabilten den kanabera baten?** (Leiçarraga, *Testamentu Berria*, 19).
- (93) Gizon noble bat parti zedin lekhu urrun batetara, **resuma baten** konkestatzera, gero itzultzekotan (Leiçarraga, *Testamentu Berria*, 144).
- (94) Moysesek permetitu dik **separazioneko letraren** skribatzera, eta **emaztearen utzitera** (Leiçarraga, *Testamentu Berria*, 80).

Eta, orainago, Antziartek, Landartek eta Xarritonek, hurrenez hurren:

- (95) Egun oso baten eremua bete lezake **hemen dagoen edertasunaren** ikusteak berak (Aintziart, *Santiago oinez*, 105).
- (96) Bostak buruz beheiti geunden eta irudi zuen inor ez zela menturatzen **berri kopetaren** altxatzera (Landart, *Anaiaren azken hitzak*, 71).
- (97) Eta kausa horien berri ez baldin badie norbaitek ematen ahal, berak **ekintza berdintsuak egitera** zer xedek deliberatzen ohi dituen gogoratzeko ez zaie besterik gelditzen **beren buruak galdezkatzea** baizik eta, nahitaez, **beren jeinu propioaren arabera** **besteen jeinuaren** asmatzea (Xarriton, *Etika*, 107).

Azken adibideak erakusten duen moduan, halakoetan genitibora jotzea ez da behartua, absolutiboa ere erabil baitaiteke hizkera berean:

ekintza berdintsuak egitera

beren buruak galdezkatzea

Gorago aipatu dugu aditz-izenez osaturiko perpausari nekez eransten zaiela izenlagunik, ez *-KO* eta ez *-EN* genitiborik. Genitiboaren (Iparraldeko) erabilerari hori ere ez da salbuespen, ez baita *erantsia*, perpausaren barneko argumentuetariko bat baizik, beste euskalkietako joskeran absolutiboan doana:

erokeria haien ikustea = erokeria haiek ikustea

Perpaua hedatu ahala, haatik, ez dateke beti aukera erosorik perpau barneko halako genitiboa txertatzeko. Ikus berriro Axular:

- (98) Haur da koleraren ondorea, ihardukitzearen fruitua: arimaren galtzea, gorputzaren desegitea, eta *tristura handi baten azpian damuztaturik ibentzea, eta utzte*a (Axular, *Guero*, 188).

Ez litzateke beharbada eroso osagarriaren objektu esplizitua ematea hor: *?bat bederaren tristura handi baten azpian damuztaturik ibentzea*.

Inoiz halako korapiloa gertatzea gorabehera, ez da berez debekurik, bistan da, bestelako perpau-osagaiak ager daitezen objektu-genitiboarekin batera. Kantu zaharrea, adibidez:

- (99) Juan nainte **maitiaren** ikhustera, **ene phenen hari** erraitera.

Edo Axular berriro:

- (100) Hain da gauza hatsa, likitsa, higuña eta nardagarria, ***or baten bere okha eginaren eta ahotik egotziaren berriz*** iretsten ikhustea (Axular, *Guero*, 305).
- (101) Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ***ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen kanporat atheratzeko ausartziaren*** hartzera (Axular, *Guero*, 1).
- (102) Eta halaber baldin bada nehor zu zeneunden bezala dagoenik, esportza dadin hura ere, ***zuk hartu duzun gogoaren eta borondatearen*** hartzera, eta ***zuk bezala bekhatuaren*** utztera (Axular, *Guero*, 246).

Etcheberri Sarakoaren ale batzuk:

- (103) Eta berboen konjugazioneak luzeak iduriturik kontentatu ziren ***latinetik izen xoil***en hartzeaz, deklinazinoak utzirik (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 85).

- (104) Hemendik ordea jelosia, eta inbidia harturik, hainitz jendaki arrotz, eta bereziki erromarrak eta Erromako Enperadoreak gutiziatu izan ziren ***bor-txaz edo amodioz jendaki hunen beretzera***, halako moldez non gutizia edo desirkunde hunek berak mugidarazi baitzuen Cesar Enperadorea ***eskualdunen eta asturianoen kontra harmen hartzera*** (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 109).
- (105) Eta hargatik ziren obligatuak ***eskuaratik izenen hartzera***, eta ***berriroki asmaturik [haien]*** ezartzera (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 129).

Laphitzenak:

- (106) ***Heier hitz baten erraitea***, alfer liteke (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 246).
- (107) Belhauniko jartzen da, urrikalmenduzko Jainkoa othoizten du arima dohakabe hari aski bizi eman dezon ***aphez bati bere bekhatuen erraiteko*** (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 76).
- (108) ***Jainkoaren maithatzea***, zion bethi presonerak, ***Jainkoaren maithatzea, Jainkoarentzat zerbaiten jasaitea***, horra, horra, desterru huntako zorion bakharra, zorion egiazkoa (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 88).

Leičarragarenak:

- (109) Eta gehiagorik etziraden ausartzen ***deusez haren interrogatzera*** (Leičarraga, *Testamentu Berria*, 148).
- (110) Iainkoaren plazera izan da ***predikazionearen erhogoaz sinhesten dutenen salbatzea*** (Leičarraga, *Testamentu Berria*, 327).
- (111) ***Halakoaren Satani libratzera haragiaren destrukzionetan***, spiritua salbu denzat Iesus Iaunaren egunean (Leičarraga, *Testamentu Berria*, 296).
- (112) Gure aiten Iainkoak elejitu au hi ***bere borondatearen ezagutzeko eta Iustoaren ikhusteko, eta haren ahotik bozaren enzuteko*** (Leičarraga, *Testamentu Berria*, 252).

7.2. PERPAUS OSAGARRI JOKATUGABEAK ZEIN DIREN ETA NOLAKOAK

7.2.1. Osagarriak bestelakoetatik bereiztea

Osagarri ez diren perpaus menderatuak beren esanahiz sailkaturik ageri dira gramatiketan, eta, aldaerak aldaera, forma finkoa dute: *-TZEAN*, *-TZEKO*, *-TZEAGATIK*, *-TUZ GERO*, *-TURIK*...

Osagarri tipikoenak, berriz, izenen paretsukoak dira, kasu-marken aukera zabala baitute: *-TZEA*, *-TZEAK*, *-TZEARI*, *-TZEAZ*, *-TZEAREKIN*... Alde horretatik, oso bestelakoak dira perpaus osagarri jokatuaren aldean ere, haiek forma finkoa baitute, halako atzizkiak gehitzeko aukerarik gabea: [*-la/-nik*, subj.] + [*-n*, galde-hitza + *-n*]...

Osagarri ez diren perpaus jokatuabeak ere kasu-marka arruntez osatuak dira askotan, baina, aipatu dugun moduan, esanahi jakin batean espezializaturik daude, hots, forma/esanahi lotura finkoa ezarria dute, zeinahi ere predikatuz osatua delarik perpaus nagusia.

Oro har, formak agintzen du, baina bada bestela erabaki beharrekorik ere. Esate baterako, *-TZEAN* denbora-adierazpenerako espezializaturik dago, eta hala ulertzen da eskuarki. Hala ere, jokatueta bezalatsu (*eserita zauden (aulki)an* > *eserita zaudenean*), gerta daiteke molde (esanahiz) finko horren forma berera iristea kasu arruntaren erabileratik ere:

(113) *gauzak ongi begiratzean* (konturatzen gara) [*noiz* denborazkoa; formaz, *non*]

(114) *gauzak ongi begiratzean* (datza gakoa) [*zertan* osagarria; formaz, *non*]

Inoiz, bada, funtzioz eta esanahiz bereizi beharko dira, forma berekoak izanik, ez-osagarrien sail jakin batekoak eta osagarriak. Perpaus menderatuok gobernatzen dituen predikatuen araberakoa izango da (neurri batean) kasuan

kasuko esanahia, askotarikoa, osagarrien kasuan, eta finkoa, berriz, ez-osagarrien kasuan⁷.

(Perpaus jokatugabeen arteko bereizkuntza nagusi hori bat dator *argumentu/adjuntu* bereizkuntzarekin; hemen *osagarri* diogun lekuan, *argumental* ere esan genezake: predikatuaren *argumentu*etarikoa da perpaus osagarria).

Izan ere, horixe da desberdintasun erabakigarria osagarrien eta bestelakoen artean: osagarri ez direnek beren esanahi finkoa dute, nolana hiko perpaus nagusiarri erants dakiokena; osagarriak, berriz, perpaus nagusiko predikatu jakin baten osagarri dira, eta predikatu horrekiko konplementazio-loturan gauzatzen edo osatzen da zehazki esaldiaren kasuan kasuko esanahia.

Horren ondorioz, predikatu jakin batzuek eraturiko perpaus bakarrak hartzen dituzte perpaus osagarriak: predikatu horiek lexikoki *hautetsiak* dira. (Osagarriaren eta gobernatzailearen arteko lotura alde bietarako izanik, *elkar hautesten* dutela esatea litzateke beharbada egokiago: bata besterekin joatekoak direla, alegia).

Ez-osagarriak, berriz (alegia, *adjuntu* diren perpausak, *argumentu* ez direnak), libreki konbinatzen dira berez, joskeraz, nahiz semantikoki konbinazio batzuk zentzugabeak gertatu noski.

Esate baterako, helburuzko perpausak (*-TZEKO*), gramatika honetan ematen diegun zentzu hertsian, beti adierazten dute nozio jakin bat: nolabaiteko borondatedunen baten asmoa. Beraz, ez dute zentzurik izango (edo irudizko zentzu bitxiren bat hartuko dute) perpaus nagusian borondatedun horren nola

⁷ Ikusiko dugunez, perpaus-mota batzuek gradazio-moduko bat erakuts dezakete osagarri garbi izatetik zirkunstantzial-edo izatera (*argumentuen* eta *adjuntuen* arteko muga lausotu egiten baita inoiz): *erretzeaz* damutu, *erretzeaz* oroitu, *erretzeaz* aspertu, *erretzeaz/erretzearekin* irabazi (kausala?), *erretzeaz* haserretu (kausala?), *erretze(a)z* dirurik gabe geratu (moduzkoa?).

edo halako arrastorik ez bada, edo testuingurutik inferitzerik ez badago; baina, muga semantiko hori gorabehera, libre dira beren *asmo* esanahi finko horretan nolanhiko perpausekin lotzeko:

- (115) **Hipoteka ordaintzeko** erre dut zigarroa. [esanahiz guztiz bitxia baina gramatikala]

Badira, hala ere, *-TZEKO* forma bereko perpaus batzuk bestelakoak direnak; hots, besteak beste, *asmo* baten adierazle ez direnak. Alde batetik, *agindu*, *eskatu* eta antzeko predikatuek gobernaturiko perpaus osagarriak, [subjuntibo (+ *-LA*)] moldeko jokatuena sinonimo direnak:

- (116) *Etxean geratzeko esan/agindu/eskatu* dio.

Beste alde batetik, badira beste batzuk, aurretik eman dugun helburuzko perpausen definizio hertsia hori bete ez arren nolabaiteko jomugaren noziotik hurbil daudenak:

- (117) Bost minutu **falta** dira *ateak ixteko*.

Gramatika tradizionalak, askotan, ez dituzte bereizi halako perpausak helburuzkoetatik, baina, ongi begiratu gero, bistakoak dira aldeak. Bi nagusiki:

- Esanahiaren aldetik, ez da hor, ez ezelako *asmorik*, ez *borondatedun* inolakorik.
- Gobernamentuari dagokionez, garbi dago (*x*) *falta izan* predikatuaren osagarria dela hor *-TZEKO* perpausa, haren semantikak berez eskatzen duen argumentua. Alegia, predikatu horrek eta bestek *-ez* edozeinek *hautetsia* da halako *-TZEKO* perpausa.

Beharrik, semantikaz hain hurbil dauden nozioen artean bereizi beharreko hori ez da kasurik ohikoena, eta, oro har, errazagoak dira bereizten, forma berekoen artean ere, osagarriak eta bestelakoak. Kasu zehatz bakoitza azter-

tzean, egiaztatu egin behar dugu osagarritzat jotzen dugun bakoitza halakoa dela, predikatu gobernatzailea detektaturik, baina uste sendoa izan dezakegu, ondo-bidean, ez-osagarrien sailetan katalogatu ez ditugun guztiak direla perpaus osagarrien sailekoak.

Kasurik bereizgaitzenez aritu garenez, beste muturrekoak ere aipa ditzagun atariko honetan: *kasu gramatikal* direlakoetan –hots, aditzarekin komunztadura dutenetan: absolutiboa, ergatiboa eta datiboa– dauden –*TZE*- perpaus guztiak dira osagarri zentzu sintaktikoki zorrotzenez: haiek gabe ez dago osaturik perpausa, are gramatika soilari dagokionez: –*TZEA*, –*TZEAK*, –*TZEARI*.

Beste batzuetan, berriz, semantikaren eskakizunez baino ez dira agertu beharrak osagarriak. Kasu batzuetan, haatik, *kasu gramatikaletan* daudenak bezain nahitaezkoak dira perpausaren halako osagarriak. Ikus ditzagun kasurik ohikoenetariko batzuk.

7.2.2. *Perpaus osagarri jokatu gabeek perpaus nagusiaren argumentuen artean duten lekuaz*

Predikatu gobernatzailea nolakoa, gerta liteke *kasu gramatikalen* faltan bezain osatugabe geratzea esaldia osagarririk gabe. Halakoetan, isildurik dagoenean ere, osagarria nolabait badela ulertzen da:

(118) Ausartu naiz (... *-tzera*).

Kasu horretan, gainera, *ausartu* predikatuak perpausetzko osagarriak (edo perpaus-ordain edo proformak: *zertara*, *horretara*) baino ez ditu hautesten (**Ausartu naiz ekintzara*). Ohikoagoa da, hala ere, gutxienez beste argumentu abstraktu batzuk ere onartzea predikatuak:

(119) Damutu naiz **egindako hutsaz**.

(120) Damutu naiz *hala jokatzear*.

Baita konkretuak ere:

(121) Ahaztu naiz **haizeaz/lagunaz/istripuaz**.

(122) Ahaztu naiz *lagunari deitzeaz*.

Ongi begiraturaz gero, hala ere, izaten da alderik edo ñabardurarik perpaus osagarrien eta perpausezkoak ez diren osagarrien artean. Azken adibide horretan, esate baterako, perpaus osagarria erabiltzeak berekin dakar *ahaztu* predikatuaren zentzu *prospektibo* bat, izen-sintagma arruntez osaturiko gehienek berezko ez dutena (alegia: lagunari deitu *behar* nion, eta ez diot deitu).

Hala, perpausen argumentu-sare arruntez baliatzen dira halako osagarrietatik asko, baina beren zentzu abstraktu(ago) edo batera ekarriz predikatuok, perpausezko argumentua tartean izanik (ikus, bidenabar, erabakigarriak direla gainerako argumentuak ere: *haizea/arazoa* (*etorri*)):

(123) *Zuk egia erdi hori esatetik* etorri da arazoa. [nondik=zertatik etorri]

Kasu horretan, irudizko zentzua hain hurbil egonik –trukagarriak dira galderak: *nondik/zertatik dator arazoa?* –, bietariko bat baino ez du onartzen perpausak; edo *nondik* edo *zertatik*:

(124) *Zuk egia erdi hori esatetik* dator arazoa (***zure etxetik** / ***zugandik**).

Beste batzuetan, berriz, bateragarriak dira perpaus osagarria eta kasu-marka* bereko bestelako argumentua:

(125) *Gauzak argitzera* nator **hona/zugana**.

Nolanahi ere, *etorri*rena ere ohiko kasua da: perpaus osagarri jokatu gabeak har ditzake (*zertara*), baina ez dago (*ausartu* dagoen bezala) horretan espezializatua: mugimendu fisikoa adierazteko *nondik* eta *norengana* arruntez osa daiteke noski esaldia. Edo bi batera agertu (*nora*, *zertara*), aurreko adibidean bezala.

Osagarria hartzen badu, hala ere, beste esanahi bat gehitzen zaio *etorri* aditzari: gogoaren *mugimendu* irudizkoarena (hortik, bidenabar, nolabaiteko ki-detasun semantikoa helburuzkoekin). *Ausartu* ere *etorri* edo (hurbilago) *sartu* bezain mugimenduzkoa da, gogoarenak ere *mugimendu* diren aldetik.

Beraz: predikatu gobernatzaileak kasu-marka arruntez baliatzen dira beren esanahi espezifikoa emateko perpaus osagarriei, baina esanahi espezifiko horrek, atzekoz aurrera, predikatu gobernatzailearen adiera uki dezake. Alegia, konplementazio-erlazioa alde bietarakoa da, eta alde bietan du eragina.

Garbiago ikusten da hori esanahi bata *ala* bestea aukeratzeraz behartzen duten predikatuetan, hala nola *etzan* aditzaren bi aukeron kontrastean:

(126) Hor **datza** gorpua: lur hotzean. [*etzan*en zentzu fisikoa]

(127) Hor(retan) **datza** gakoa: *zintzo jokatzear*. [*etzan*en irudizko zentzua]

Perpauzez besteko argumentuak esanahiz hurbilen daudenean ere, perpauzezkoak badu, argumentu berezia izanik bestelakoan aldean, haietatik bereizten duen esanahi-ñabardura bat bederen, predikatu horren adierari eragiten diona. Mugimenduzkoetan ikusten da aski garbi hori:

(128) **Makurtu/joan/iritsi da**, azkenean, *agindutakoa egitera*.

Hona beste adibide bat, non segidan baitatuz *-TZERA* perpausak gobernatzen espezializaturiko predikatu bat (*saiatu*) eta osagarri berdina hartzen dituen mugimenduzko aditz arrunt bat (*sartu*):

(129) **Saiatu** naiagatik *ori umiltzera* / igual **sartuko** zan *legoia iltzera* (Xenpelar, *Bertsoak*, 207).

Formari dagokionez, bada osagarri mota bat itxura berezia duena, inesibokoa baina ez mugatzailerik eta ez mugagabetasun-markarik gabea, hots, oraingo euskarako izen arrunten joskeraz arautzen duen sintaxi-legeari men egiten ez diona: *-TZEN*.

Berezitasun formal hori gorabehera, guztiz arruntak dira *-TZEN* perpaus osagarriak euskaraz, eta nolabaiteko azpisail bat osatzen dute, hain zuzen ere, *-TZERA* perpaus osagarriekin batera: besteak beste, kontrolatuak dira beti, salbuespenik gabe, bi perpaus-mota horiek.

Arestian iragaitzaz aipatu dugun moduan, *-TZERA* perpausak, beren sematikarengatik, hurbil samar daude nolabaiteko jomugaren noziotik, eta horregatik sartu izan dira, gramatika tradizionaletan, helburuzkoen sailean. Adlatiboa dugu hor, izatez, baina *-eta* hortik nahasbidea– fisikoa ez baizik gogoarena den nolabaiteko mugimendu bat adieraziz (helmuga bat duena: perpausak adierazten duen hori): *zertara*. Alegia, *nora* abstraktu bat (perpausaren adierazia baita *zertararen zer* hori), fisikoarekin batera ager daitekeena esaldi berean, dagoeneko aipatu dugunez:

(130) *Hori esatera al **zatoz** hona?*

Perpaus osagarriak dira halakoak: helburuzko perpausen kasuan ez bezala, predikatu gobernatzaileak ematen die, ematekotan, jomuga-adiera edo hori (helburuarenetik hurbil dagoena), eta ez noski beti:

(131) *Hori esatera **ausartu/ohitu** da.*

Borondatedunen baten asmoarekin nolabaiteko zerikusia duela ematen duenean ere, garbi dago ez dela helburuzko perpausa, halakoa eranstea onartzen baitu:

(132) *Hori esatera **ausartu/iritsi/etorri** da, guri kontra egiteko/egitearren.*

Predikatu bakoitzak zer argumentu-sare eratzen duen zehaztea gramatika honen irismenetik kanpo geratzen den lan eskerga litzateke, baina adibide batzuk jar ditzakegu, konplementazio-erlazioaren oinarrian dauden mekanismoak argiago ulertzen laguntzeko.

Geroko azalpenetan, forma bakoitzeko osagarriak zer predikatu motarekin konbinatzen diren azalduko da; hemen, alderantzizko bidetik, predikatu batzuek zer argumentu-sare eratzen duten ikusiko dugu lehenik, eta argumentu horietatik perpaus osagarri jokatu gabe zein diren edo izan daitezkeen seinalatuko dugu gero. (Bistan da, predikatu *guztien* berri hala ematea litzateke azalpenik osoena: predikatu guztien adiera/joskera guztien hiztegi erraldoia).

EKARRI predikatuaren osagarri argumentalak		
Komunztaduradunak	EKARRI <i>du</i> [<i>dio</i>]	Komunztaduragabeak
zerbaitek/norbaitek		nondik
zerbait/norbait		nora
[zerbaiti/norbaiti]		(zertara)

Argumentu horietatik, bada bat (*zertara*) perpaus osagarri jokatu gabez baino gauzatu ez daitekeena: *konpontzera EKARRI*.

Gainerakoan, beste *zer* batzuek ere har ditzaketen guneak beretzen dituzte perpaus osagarri jokatu gabeek: *haizeak euria EKARRI / bizitzeak hiltzea EKARRI*.

Bestalde, *zertara* argumentua aukerakoa da, hots, ez da nahitaezkoa. Datiboa agertzea edo ez, hori ere aukerakoa da. Kasu bietan ere, agertuz gero, *EKARRI* predikatuaren argumentu-sarean integratzen dira argumentuok, haren esanahia modulatu. Alegia, oinarri bereko hiru predikatu balira bezala: *EKARRI, NORBAITI/ZERBAITI EKARRI, ZERBAITETARA EKARRI*.

Argumentuak, agerian zein isilean, ezinbestean lotuak dira *EKARRI* predikatuaren ideiarekin, oinarritzko adiera *fisiko*en bederen. Aise ikus daiteke, hala ere, predikatuaren beraren esanahia modulatu doala argumentuen izaeraren arabera:

haurrak liburua EKARRI (etxetik eskolara)

haizeak euria [berekin/ondotik] EKARRI

bizitzek hiltzea [ondorioz] EKARRI (ekarri=eragin)

ERABAKI predikatuaren osagarri argumentalak		
Komunztaduradunak	ERABAKI <i>du</i>	Komunztaduragabeak
zerbaitek/norbaitek		
zerbait		

Bakanetan izaten da subjektua *zerbaitek*: *hedabideen jarrerak auzia ERABAKI*. Eredu horretan, perpausezkoa ere sartzen da: *hedabideek halako jarrera izateak auzia ERABAKI*.

Gehien-gehienetan, *norbaitek zerbait ERABAKI* izaten da joskera eta esanahia, eta *zerbait* hori perpausezkoa (eta ez izen arruntezkoa), dela jokatua zein jokatugabea: *etxean geratzea (geratuko zarela) ERABAKI*.

Hor ere esan genezake ez dela zehazki berbera *ERABAKI* predikatua joskera horietariko bakoitzean, hots, *auzia erabaki* eta *zerbait egitea erabaki* oinarri bereko bi predikatu mota desberdin direla.

IKUSI (begiz) predikatuaren osagarri argumentalak		
Komunztaduradunak	IKUSI <i>du [dio]</i>	Komunztaduragabeak
norbaitek (begidun batek)		
zerbait/norbait		(zertan)
[zerbaiti/norbaiti]		

IKUSI (ohartu) predikatuaren osagarri argumentalak		
Komunztaduradunak	<i>IKUSI du</i>	Komunztaduragabeak
norbaitek (adimendun batek)		
zerbait: [indik. + -LA]		

IKUSI (egiazatu) predikatuaren osagarri argumentalak		
Komunztaduradunak	<i>IKUSI du</i>	Komunztaduragabeak
norbaitek (adimendun batek)		
zerbait: [subj. + -N (zehar-galdera jokatuak)]		

IKUSIren jokia hiru taulatan banatu dugu, bateraezinak baitira hiru adieretakoak, zein bere joskeran: *ikusi zaitut erretzen / ikusi dut erre duzula / ikusiko dugu (nork, nola) erretzen duen*.

Beste modu batera esanda: hiztegian jasoak behar lukete joskera bakoitzarekin loturiko hiru IKUSI horiek (bederen), azpisarrera banatan. Aditza bera, bada, predikazio zehatz bakoitzaren oinarria baino ez da: argumentu-sarea zein den eta nola gauzatzen den, horrek zehaztuko du perpaus bakoitzaren joskera eta esanahia.

7.2.3. Perpaus osagarri jokatuabeek joskeran duten garrantzia

Atal hau amaitzeko, perpaus osagarri jokatuabeek euskararen joskeran duten leku eta garrantzia nabarmenarazi behar dugu. Edozein testu harturik ikus daiteke hori, baina Axularren pasarte bat dakargu adibide bakar eta aski, halakoez josia guztiz:

Begirautzu **etzaudela** emaztetan pensatzen. Zeren pensatze hartarik **ethorriko** zaitzu atsegin hartzea: atsegin hartzetik, desiratzea, desiratzetik bide[e]n egitea, eta obratzea. Eta guztiak **heldu** dira gogoaren lehenbiziko orhoitzapenetik, eta orhoitzapen hari lekhu eta ostatu emaitetik, erroen egitera eta handitzera utzitetik. Beraz hartarik begiratu behar da. Zeren hura **da** emaztetako bekhatutan erortzetik begiratzeko bigarren **erremedioa**: hartako gogoetei lekhurik ez emaita, agertzen direnean khentzea, baratzera ez **utztea**, eta ez sosegatzera: beltzuri bai, baiña begitarterik ez egitea (Axular, Guero, 243).

Perpau osagarrien anafora direnak ere marka zitezkeen: *hura, guztiak...*

Azpinarra damatenak *utzi* predikatuak gobernatzen ditu: *-TZEA* perpau (osagarri) menderatuaren *-TZERA* perpau (osagarri) menderatuak dira.

Erakuslearen erabileraz (*pentsatze hartarik*), ikus 7.1.4.2. *Erroen egitera* joskerarako, ikus 7.1.4.4. Iparraldeko genitiboazko joskera hori, bestalde, oinarritzkoa eta orokorra da, perpau jokatuagabe guztien –ez soilik osagarrien– barne-osaerari baitagokio.

Xehetasunak xehetasun, bada, perpau osagarri jokatuagabeen eta haien predikatu gobernatzailearen arteko joskeratik abiatu ekingo diogu sailez saileko azalpenari.

7.2.4. Aditzen osagarriak eta izenkien osagarriak

Bada modu bat baino gehiago osagarrien barne-sailkapena egiteko. Guk bereizkuntza nagusi bat egingo dugu, perpau osagarriaren gobernatzailea aditezkoa den ala izenkizkoa⁸:

(133) *Etsera itzultzea erabaki* du. [*erabaki* aditzak gobernatzen (*hautesten*) du osagarria]

⁸ *EGLU V*-en ere predikatu gobernatzailea aditza ala izena izatearen arabera egiten da osagarrien zatiketa nagusia.

- (134) *Etxera itzultzeko* **agindu** dio. [*agindu* aditzak gobernatzen du osagarria]
- (135) *Etxera itzultzeko* **erabakia** hartu du. [*erabaki izenak* gobernatzen du osagarria]
- (136) Entzungor egin dio *etxera itzultzeko* **aginduari**. [*agindu izenak* gobernatzen du osagarria]

Bistan denez, azken bi adibideotan, *erabaki* eta *agindu* izenen osagarri ditugu –*TZEKO* perpausak, izenlagun-funtzioan.

Horren ondorioz, lehenaz gainera, are zabalagoa da –*TZEKO* atzizki beraz osaturiko perpausen eginkizun desberdinen aukera (helburuzkoa, aditzak gobernatu-riko osagarria eta izenkiak gobernatu-riko osagarria).

Osagarri mota biek, aditzek gobernatuek eta izenkiek gobernatuek, lotura nabarmena dute maiz elkarrekin, erro eta are forma berekoak izanik askotan aditz eta izenki gobernatzaileak (*ausartu/ausardi, erabaki, agindu*). Sailka-tzeko orduan ere, zalantza sor liteke, hala nola honelakoetan:

- (137) **Agindua eman** du *lehenbailehen itzultzeko etxera*.

Alde batetik, aski garbi ageri da *agindu* izena dela hor, izatez, erabakitzailea, baina, izenlagun-posiziotik horrela eskuineraturik, berdin jo liteke *agindua eman* aditz-lokuzioa dela gobernatzailea, *agindu* aditzaren portaera berarekin:

- (138) **Agindu(a eman) du** *lehenbailehen itzultzeko etxera*.

Pentsa liteke badela azalpen egokiagoa: demagun, formak markatzen due-nez, halako –*TZEKO* guztiak direla jatorriz izenkien osagarri (hots, izenla-gun) eta nolabaiteko beregaintasun sintaktikoa irabazi dutela gero (aditzek gobernatuek dutenaren parekoa)⁹:

⁹ Batzuetan halakoen kideko diren subjuntiboen atzizkia ere –*n* da, hots, erlatiboen marka bera: izenlagun-funtzioari dagokiona.

(139) *Lehenbailehen etxera itzultzeko erabakia* hartu du. →

(140) **Erabakia** hartu du *lehenbailehen itzultzeko etxera*.

Aipatu dugunez, badira halako *-TZEKO* batzuk aditzek gobernatuak –aginduzkoak eta subjuntiboen beste baliokide batzuk, bereziki–, baina ez da zaila antzeko izenen bat suposatzea kasu horretan ere, edo sinonimia nahiz analogiaren bat:

(141) *Etxera joateko eskatu* dio. [*Etxera joateko eskea* egin].

(142) *Etxera joateko esan* dio. [*esan=agindu*]

Bigarren azalpen hori onartuz gero, hala ere, beste kasu tipikoa bestela azaldu behar dugu (predikatu gobernatzailearen semantikak agintzen du halakoetan zein osagarri mota aukeratzeko den):

(143) **Erabakia hartu** du *lehenbailehen itzultzeko etxera*.

(144) **Erabaki** du *lehenbailehen itzultzea etxera*.

Erabakia hartu eta antzeko aditz-lokuzioen kasuan bezalatsu gertatzen da sailkapena zalantzazkoa *-TZEKO on(a) izan* eta *izan* aditzaz osaturiko antzeko predikatuen osagarrien kasuan.

Mugatzailearen gorabehera alde batera utzita, berdin joenezake gobernatzailetzat aditz-lokuzio osoa zein lokuzio horretan predikatu osagarri den *on(a)* izenondoa. Egiunezkoa da erabakia, baina, aldi berean, eragin handia du sailkapenean, guztiz ere ugariak baitira halako osagarri-gobernatzaileak.

Ikuspegi formal eta zorrotz batetik begiraturik, eta osagarrien gobernamendua irizpide, izenkien osagarritzat sailka genitzake; hala ere, hemen, *EGLU V*-en ildo berean, aditzekin berdindurik aztertuko ditugu halako aditz-lokuzio edo, oro har, predikatu konplexuak.

Ikuspegi horretatik, *egoki izan* aditz-lokuzioaren moldekoak aditzezko gobernatzaileen sailean sartuz gero, erosoago dirudi *egokia izan* eta gainerako [izenki (+mug.) + *izan*] egitura arruntak ere sail berean sartzea. Hala sailkatzeak, garbi gera bedi, ez du esan nahi inolaz ere ukatzen denik izenkia dela sakonean halako osagarrien gobernatzailea. (Bestalde, oso ere zail da muga zehatza ezartzen lokuzioen eta bestelakoen artean, edo garbi esaten hizkera bakoitzean esapide jakina zenbateraino finkaturik dagoen lokuziotzat).

Ikuspuntu horretatik, aditzek gobernatuen sailean sar daitezke (eta sartuko ditugu), tradiziozko egiunez, honelako molde guztiz emankorrak:

ona/txarra... izan

gogoa/asmoa... izan/ukan

Eta kasu bera dugu, alde horretatik, *izanez* gainerako aditz *arinen* kasua, hots, eduki sematiko txikia izanik izenkiekin aditz-esapideak osatzen dituztena (*egin, eman...*):

(145) Ez du **lotsarik (izan)** inoren aurrean agertzeko.

(146) **Arren/erregu egin** dio etxean geratzeko.

(147) **Baimena eman** dio nahi duena erosteko.

Beraz, izenlagunaren posizioan izenkiari atxikirik doan osagarria baino ez dugu hemen sailkatuko izenkiaren osagarritzat (ikus 7.3.3.6):

(148) *Etxean geratzeko* **erregua** egitea pentsatu du.

(149) Astunegi zaio *haurra zaintzeko* **ardura**.

(150) *Inoren aurrean agertzeko* **lotsak** mugaturik dago.

Alegia, nahiz forma –eta, apika, jatorri– bera izan, bakoitzaren joskerak erabakiko du zein sailetan sartu. Zalantzak zalantza, kontrako bidetik joko

bagenu (hots, izenki soilen osagarritzat sailkatuko bagenitu aditz-lokuzio eta abarrek gobernaturikoak), nekezago litzateke zenbait aditz-lokuzioren jokia azaltzen:

(151) Miren **falta (izan)** da *taldea osatzeko*. [**taldea osatzeko falta* hori]

Bat dator ikuspuntu hori *EGLU V*-en ageri denarekin, aditz-predikatu konplexutzat hartzen baitira han halakoak, edo, orokorrago, predikatu-egitura-tzat, bada-eta kasurik aditzik ageri ez denik:

(152) **Penagarria/tamala/lastima(,)** zu horretaz ez jabetzea.

7.2.5. Aditz-predikatuek gobernaturiko perpaus osagarri jokatu-gabe motak

Behin gure saila hala mugatuz gero, has gaitezke begiratzen zer forma duten perpaus jokatu-gabeok eta bakoitza zer aditz-predikaturekin lotzen den eta nola. Formetan, guztiz ere nagusi dira *-T(Z)E* atzizkiak osaturiko aditz-izenen gainean eraikiak (parentesi artean, perpausa ordezkia dezaketen galde-hitza eta erakuslea):

-TZEN (*zertan-horretan*)

-TZERA (T) (*zertara(t)-horretara(t)*)

-TZEKO (bi mota: *zer-hori* eta *zerta(ra)ko-horreta(ra)ko*)

-TZEA (*zer-hori*) [eta, kasu-markekin: *-TZEAK*, *-TZEARI*, *-TZEAZ*, *-TZEAREKIN*, *-TZETIK*]

Horiez gainera, aipatu dugunez (7.4.3.), bada *-TZEA* (aspektuz) markatuga-bearen kide burutu markatu bat, formaz bi aldaera dituena:

-tua / -tu izana (*zer-hori*)[+ kasu-markak]

Azkenik, zehar-galdera mota berezi bat ere bada, Iparraldean aditzoinarekin eratua, eta Hegoaldean, berriz, halakoetan ohi denez, burutuaren forma duena (baina ez burutuaren esanahia: aditzaren aipamen hutserako erabiltzen da partizipioa halakoetan):

galde-hitza + aditzoina/partizipioa:

(ez dakit / pentsatuko/erabakiko dut / ...) *nola molda(tu) / zer eros(i)*

Hurrenkera horretan aztertuko ditugu sailok. Besteak beste, ikusiko dugu sail bakoitza zer predikaturekin konbinatzen den eta nola, eta, kasuan-kasuan, zer erreferentziakidetasun-joko diren aukeran. Sail bakoitzeko osagarri jokatuekin ere erkatuko ditugu egiturok, haiekiko sinonimia edo banaketa osagarria gertatzen denean.

Oro har, perpaus osagarri (menderatu) *bat bakarrik* har dezake predikatu bakoitzak esaldi berean (non eta menderatuaren menderatua ez den bigarrena). Horrek ere bereizten ditu osagarriak bestelakoetatik, haietan ez baita berez mugarik. Ikus, esate baterako bost perpaus (menderatu jokaturgabe) ez-osagarri daramatzen esaldi –behartu samar– hau:

(153) Etxean sartzean, oraindik eguna izan arren, anaia zirikatzeagatik, leihoak itxi eta argia itzalita, sorginen irriak antzeratu zituen, aldi berean lurra ostikatuz.

Osagarrien kasuan, berriz, ezin da, orohar, perpaus bat baino agertu¹⁰. Esate baterako, –TZEN eta –TZERA. Predikatu bakoitzak, edo mota bat, edo bestea hautesten du, hizkera berean. Euskalkitik euskalkira, izan daiteke noski alderik:

(154) Ez zen **ausartu** argiak *itzaltzen/itzaltzera*.

¹⁰ Inoiz, baina salbuespen guztiz mugatua da halakoena, *bikoitza* da osagarria, ikusiko dugunez: *hau egitetik hori egitera (alde handia egon)*.

Hizkera berean ere, predikatu batzuek badute aukera osagarri mota bat baino gehiago hartzeko, baina ez aldi berean (konbinazioen esanahiak gutxi-asko desberdinak izanik, ez dira bateragarri):

(155) **Prest** nintzen *aurkariarekin mintzatzeramintzatzeko*.

(156) **Badaki** norekin *elkartu*. / **Badaki** komeni *zaionarekin elkartzen*.

Horren salbuespen gehienak, ugariak hala ere, [-TZE (+kasu-marka)] motakoetan aurkitzen ditugu (eta haien aldaera burutueta), hor ez baitira inolaz ere debeku honelakoak:

(157) *Ahal izatea omen da nahi izatea*.

(158) *Isuna ordaindu izanak ez zizun ekarri zeure buruarekiko bakea egitea*.

(159) *Ilea hain sarri tintatzea ez dirudi ona denik hura osasuntsu mantentzeko*.

Bestelako egiturarik ere aurkitzen dugu, baina bakan samar:

(160) *Egunero bi botila ardo edatea ez da ongi ezkontzen argaltzeko dieta egitearekin*.

(161) **Alde handia dago** *nik egia ez esatetik zuk gezurra esatera*.

7.2.6. Osagarri jokatugabezko antolaerak eta aditz-perifراسiak

Euskarazko adizkien artean, baditugu forma trinkoak (*dator, dakar*) eta perifrastikoak (*etorri/etortzen da, ekarri/ekartzzen du*). Erabilera horretan, *etorri, ekarri* aditzen jokoaren parte bereizgaiztat jotzen da aditz laguntzailea, baina, jatorriz, beste aditz batzuen formak dira hor laguntzailetzat baliatzen direnak (*da, du*).

Halako forma perifrastikoak guztiz bat eginik daude, ia, funtzioz eta esanahiz. Formaz, posible da oraindik osagaiak bata bestetik urruntzea (*ez da/du*

oraindik sartu), baina, eta hori da erabakigarriena, aditz laguntzaileak galdua du hor jatorriz zuen zentzua, hots, egitura perifrastikotik kanpo lukeen esanahia (*ez da ona, ez du dirurik*). Laguntzaile bihurtzean, bere eduki lexikoa galitzen du aditzak: laguntzaile horrek lagundutako aditzak du eduki lexiko guztia perifrasiaren (*etorri, ekarri*), eta pertsona eta denbora baino ez ditu markatzen laguntzaileak.

Aditzen berezko jokoaren partetzat jotzen ditugun forma perifrastiko horietatik landa ere, ordea, badira egitura perifrastikotzat hartzekoak diren batzuk. Aditz laguntzailea eta aditz lagundua (bestearen *nagusia*) ez dira egongo, kasu horretan, hain guztiz bat eginak, eta aditz laguntzaileak ez du beharbada bere eduki lexiko guzti-guztia galduko, baina bai aldatu edo arinduko. Iradokitzen ari garenez, egitura jakin bat perifrasi gisa finkatzea gramatikalizazio-prozesu bat da, denborarekin garatuz doana, eta perifrasi mota guztiak ez daude maila berean gramatikalizatuak. Muga bera lausoa gerta daiteke, eta badira egitura batzuk erdi-perafrasiatzat jotzen direnak, ez dituztelako perifrasiaren ezaugarri prototipiko guztiak betetzen, baina bai batzuk.

Bereziki, aspektuarekin loturiko nozioak adierazteko baliatzen dira perifrasi-egitura arrunt batzuk. Ikus dezagun adibide garbi bat:

(162) Kantatzera noa(kizu) bertso bat edo bi.

Esanahia lehenik. Erabilera arruntenean, laguntzaile ez denean, *joan* aditzak mugimendu fisiko bat adierazten du (*hara/zugana joan*). Zentzu horren gainean, irudizko gogo-mugimendu bat ere adieraz daiteke, asmoarekin lotua, perpauos osagarri batez (*bizimodua ateratzera noa hara*).

Goiko adibidean, ordea, galdurik dago mugimenduaren esanahia, nahiz eta *-TZERA* forma bera agertu hor ere *joan* aditz laguntzaile hutsarekin loturik: *berehalako geroaldi* bat baino ez da adierazten hor: *kantatzera noa = kantatuko dut (oraintxe)*.

Joskeraren aldetik ere, aski nabarmen kasu horretan, unitate gisa funtzionatzen du *kantatzera noa* multzoak, laguntzaileak hartzen baitu berez lagunduari (aditz *nagusiari*) dagokion datibo-marka, forma perifrastiko arrunten modu bertsuan (adierazia ez da *zuri joan*, baizik eta *zuri kantatu*):

kantatuko dut/dizut, kantatzera noa/noakizu

Kontrastez, perifrasi ez denak, perpaus osagarri bete-betekoak, osagarri horretan adieraziko luke eskuarki datiboa:

(163) Zuri bertso bat edo bi kantatzera noa (horra).

Gainerakoan, forma bera izaten dute perifrasi-egiturak eta osagarritzko arruntak, eta anbiguotasunak gerta daitezke, testuinguruak argitu ezean:

kantatzera noa (oraintxe)

kantatzera noa (antzokira)

Hala, bada, esanahiak bakarrik bereizten ditu perifrasi-egitura batzuk hemen aztergai ditugunetatik, hots, osagarri jokatugetzeko antolaeretatik. Izan ere, gramatikalizazio-*prozesu* bat da osagarritzko antolaera jakin bat perifrasi-egitura gisa finkatzera daramana, eta badira mailak bilakaera horretan, hasieratik aitortu dugunez; horrexek zailtzen du muga zehatza ezartzea. Guri hemen dagokigunez, osagarritzkoen moldeko egitura batzuk perifrasi bilakaturik daudela seinalatzea da kontua.

Perifrasiei buruz, ikus *EGLU II* (15. atala: “Perifrasi multzoak”). Hurrengo ataletan helduko zaio berriro hango konturen bati, baina hemen agertuko den baino zabalagoa da perifrasi-egituren gaia.

Nolanahi ere, ez da euskara inguruko hizkuntzen artean joerarik handiena ageri duena osagarrien tankera bereko perifrasiak egiteko, inondik inora ere. Jorratu dugun adibide horretakoa bera ere, askoz maizago erabiltzen da erda-

raz (*voy a ver, je vais voir*), euskaraz bainoi (*ikustera noa*), eta beste esamolde perifrastiko batzuek ez dute perifrasizko ordainik euskaraz (*volver a ganar, tourner à gagner*).

Euskaraz badiren perifrasi-egituren artean, badira aditz laguntzaile batzuk beren izaeraz beraz eduki semantiko arinekoak direnak. Besteak beste, aspektu-nozioak soilik adierazten dituztenak, hala nola *hasi* eta *jarraitu*. Kasu horretan, eduki lexikoa galdu beharrik ere ez zen (apur bat bai *jarraituren* kasuan). Alegia, *hasi* aditzak ez du berez deus handirik adierazten *zertan* adierazten ez bada: osagarrien tankerako *-TZEN* perpausak adierazten du dena delako prozesua (*usteldu, kantatu*), eta *hasi* laguntzaileak, berriz, prozesu horren *fasea*: *usteltzen/kantatzen hasi da*. (Aditz laguntzaile antonimoak ez du joskera bera hizkera guztietan: *kantatzen/kantatzez bukatu*).

Beste aspektu-perifrasi batzuek berezko eduki lexiko handixeagoko aditzak baliatzen dituzte laguntzailatzat (*gelditu, utzi*); kasu horretan, *joan* aditzaren egoera bertsuan gaude esanahi-aldaketari dagokionez, osagarriaren tankerako perpaus jakin bat hartzeak eragiten baitu aditz horrek laguntzaile gisa adierazten duen aspektu-nozioa (prozesuaren *fasea* berriro: amaitzea, oraingoan): *kantatzetik gelditu / kantatzerari utzi*.

7.2.7. *-TU BEHAR/NAHI/AHAL/EZIN IZAN perifrasi-egiturak*

Ez ditugu hemen perpaus osagarritzat hartuko beti perifrasia osatzen duten egiturak. Osagarrietatik kanpo geratzen dira, beraz, nozio modalak adierazten dituzten perifrasi-egiturak, [partizioa + aditz-lokuzioa] osaerakoak: *-tu [nahi/behar/ahal/ezin izan]*.

Kasu batean, hala ere, aipatu egin beharko dugu halako egitura bat, osagarri antolatuearekin kontrastatzeko (ikus 7.4.4.):

bertsoak **kantatu** nahi ditut / bertsoak **kantatzea** nahi dut

7.3. PERPAUS OSAGARRI JOKATUGABEEN EGITURAK BANAKA

7.3.1. *-TZEN perpaus osagarriak*

7.3.1.1. *Forma eta esanahia*

Atarikoan aipatu dugun moduan, formaz berezi samarra dugu molde hau gainerako *-TZE* atzizkian oinarritutakoen aldean, inesiboaren *-N* marka zuzenean lotzen baitzaio aditz-izenari, mugatzailerik gabe, leku-izenetan bezala¹¹.

Burutugabetasuna adierazten du *-TZEN* perpausak, hots, nola edo halako prozesu bat bere irautean, ez prozesu hori amaiturik. *Zertan* galderari dagokio: inesiboaren *non* eta *noiz* adierek kokapena adierazten dute, baina *zertan* adierak, oinarrian ez lekua eta ez denbora adierazten ez duen izen abstraktu batekin konbinaturik, prozesu (edota egoera) bat adierazten du, iraute (burutugabe) batekin lotua:

lanean, aitzurrean, solasean, berriketan, zalantzan...

Oinarrian dagoena aditz-izena bada, esan bezala, mugatzailerik gabeko inesibozkoak ditugu forma tipikoa *zertan-horretan* adieran¹²:

lan egiten, baratza lantzen, mintzatzen, zimeltzen, josten, aspertzen...

Prozesuak egile bat izanez gero, *-TZEN* perpausen ohiko adieretariko bat dugu: *jarduera*¹³.

¹¹ *-n* atzizkia hartzen duen aditz-izenaren formari dagokionez, *-te* eta *-tze* orokorreaz gainera, badira beste zenbait euskalki-aldara: *-ite*, *-tute*, *-tzaite*, *-(k)eta*...

¹² Aurrerago ikusiko dugunez, mugatu singularra ere aurkitzen dugu predikatu bakan bartzuekin, *zertan-horretan* moldearen beste adiera batean: "**Osasuntsu bidez** *datza* auzi guztia".

¹³ Zentzu zabal batean darabilgu hemen *jarduera* hitza: *nolabaiteko iraupena duena ekintza edo jarduna, jarraitua zein errepikakorra*.

Euskalkien arteko desberdintasun orokorreari dagokienez, badira bi kasu nabarmen. Batetik, bizkaieraren zati handi samar batean, *-T(Z)EN* perpausak erabiltzen dira beste euskalkietan *-TZERA* perpausak erabiltzen diren testuinguru batzuetan (mugimenduzko predikatuekin bereziki):

(164) *Lagunari bisita bat egiten joan* da. (Bizk.)

(165) *Lagunari bisita bat egitera joan* da. (orokorra)

Bestetik, Mendebalde/Ekialde banaketa nabari da *-TZEN/-TZERA* perpaus osagarri mota askotan (gipuzkeraren barruan ere bai askotan):

ausartu/utzi/saiatu/... egiten/egitera

Hori, hala ere, joera orokorra baino ez da, eta kasu bakoitza eta erabilera bakoitza ikusi behar da, ez baita beti berdín gertatzen banaketa.

7.3.1.1.a. Predikatu motak, esanahiaren arabera

Hain zuzen ere, azalpen orokorretan aurreratu dugunez, hiru sailen inguruan biltzen dira predikatu gobernatzaile gehienak (beherago aipatuko ditugu aspektu-perifrasiak osatzen dituztenak: *hasi, jarraitu*):

- Jarduera-predikatuak: *jardun, aritu, ibili...*
- Jardueren kudeaketari dagozkionak: *jakin, trebatu, ikasi, saiatu, moldatu, asmatu, oldartu, tematu, trebe izan...*
- Prozesuak (jarduerak barne) hautemateari dagozkionak: *ikusi, entzun, hauteman, aurkitu...*

Ikuspegi zabalago batetik, pertzepzioa ere, zerbait (gertatzen) hautematea, nolabaiteko jarduera da: *zentzumen-jarduera* edo. Jarduerak kudeatzeak, bis-

tan da, inplikatu egiten ditu jarduerok. Zentzu horretan, beti genuke azpian nolabaiteko jarduera, burutugabetasunak adierazten duen *irautearekin* lotua.

Azken sailekoak, hautematezkoak, *du* moldeko aditzak dira beti. Subjektua da hautemailea, eta objektua, berriz, osagarriaren kontrolatzailea. Perpaus nagusiko objektua bera dugu, beraz, perpaus osagarriaren nolanhiko aditzaren subjektu aipatugabe, birtuala:

(166) Han **ikusi** zaitut gugana etortzen/begiratzen.

Bistan da *zu (etorri)* edo *zuk (begiratu)* direla adierazten diren ideiak, *zu (ikusi)* objektuak behartuak –kontrolatuak– baitira subjektuok.

Irudikapenezko predikatuak ere hautematezkoen sailera asimilatzeoak dira: irudikatu, marraztu, margotu, grabatu, gogoratu/oroitu (irudimenean irudikatu)...

Aurkikuntzazko predikatuak ere tankera berekoak dira: *aurkitu/ediren/ idoro/kausitu, atzeman/harrapatu...*

Alegia, atzematze orokor bati dagozkionek osatzen dute saila:

norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean atzeman.

norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean ikusi/entzun (begiz/belarriz atzeman)

norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean irudikatu (euskarri batean atzeman)

Existentzia-predikatua ere esanahiz hurbil dago aurkikuntzazkoetatik, eta halako eta tarteko predikatuak ere (*ageri izan...*) tankera berekoak dira, are ergatiborik gabeko egiturak direnean:

(167) Atarian, neskatilatxo bat ikusi dugu / ageri zen / bazen jendeari loreak banatzen.

Kontu berdintsua dugu beste sailekoetan ere; alegia, perpaus osagarriaren subjektua kontrolatua da. Perpaus nagusiaren subjektua da kasu horretan kontrolatzailea (aditza *da* zein *du* moldekoa izan):

(168) Aurten **aritu/trebatu** gara / **ikasi** dugu *pianoa jotzen*.

Kasu horretan, ordea (*ari izanen* esanahia aspektual hutsa denean ez bezala, ikusiko dugunez), osagarriaren subjektuak egiletasuna eskatzen du. Ez da nahasi behar egiletasuna subjektua ergatibozkoa izatearekin: tasun semantiko sakonago hori da hor erabakigarria (egiletasuna) eta ez funtzio gramatikala:

(169) Aurten **ikasi** dugu *aberatsengana hurbiltzen*.

(170) *Aurten **ikasi** dugu *erotzen*.

(171) Aurten **ikasi** dugu *nagusia engainatzen*.

(172) *Aurten **ikasi** dugu *hondoa jotzen*.

Osagarriaren subjektu kontrolatuari halakoetan eskatzen zaion egiletasun-ezaugarri hori (*zerbait egiten jardun/ikasi/trebatu...*) predikatu gobernatzailearen izaera semantikoa bertan datza. Predikatuetariko askok, gehien-gehienek, jarduerazko *zertan* osagarriak baino ez dituzte hartzen, baina batek edo bestek badu bestelako joskera eta adierarik:

jakin/ikasi *komeni zaizuna egiten*

jakin/ikasi *zer komeni zaizun / komeni zaizula*

Antzeko aukera-bitasuna dugu hautematezko batzuetan ere:

Ikusi/entzun *sartzen*

ikusi *sartu den / sartu dela*

Bestalde, ez da muga semantiko garbi-garbirik ere kontrolatzailea subjektua den bi sailon artean. *Jardun* eta *ikasi* erraz sailka daitezke bi sail bereizio-

tariko banatan, baina *saiatu*-k, eta areago *tematu*-k, badute jarduerari buruzko (psikologiari dagokion) jarrera-esanahi nabarmen bat. *Jakin*-en ingurukoak, orduan, *ezagutzazkoak* izategatik bereiziko lirateke, baina non sartu, orduan, *asmatu* edo *trebe izan*?

Beste sailkapen posible bat, aski baliagarria, predikatu *aspektualak* (*hasi, jardun, jarraitu...*) eta *inplikatioak* (jarduera/prozesua adierazten duten gainerako guztiak?) bereiziko lituzkeena da. Ikusiko dugu, hala ere, ez dela garbi-garbia aspektu-predikatuen muga ere: *ari izan* vs *aritu=jardun...*

Sailkapen semantiko hori gorabehera, orain arte aipatu ditugun predikatuen artean, sintaxiak bereizten ditu garbi, azaldu dugun bezala, bi sail:

- kontrolatzaile gisa perpaus nagusiko objektua darabilten predikatuak (hautematezkoak)
- kontrolatzaile gisa perpaus nagusiko subjektua darabilten predikatuak (gainerakoak)

Aipatu ditugun kasuez gainera, egilerik gabeko prozesuen eragile denak ere har dezake subjektuaren lekua:

(173) *Egosten jarri/utzi* ditut babarrunak. [*nik jarri/utzi, babarrunak* egosi]

Eta jarduerazko osagarria ere har dezake eragileari dagokion ergatibozko subjektu horrek:

(174) *Ariketak egiten jarri/utzi* ditut ikasleak. [*nik jarri/utzi, ikasleek* (ariketak) egin]

Objektua kontrolatzailea den antolamenduak eratzen dituzte, bada, *jarri-utzi*¹⁴ (*du*) moldeko predikatuak, eta berdin hartzen dituzte beren osagarritzat

¹⁴ *Utzi* aditzak baditu beste joko batzuk ere, berehala ikusiko ditugunak (7.3.1.1.c.): *-tzen utzi dio, -tzera(t) utzi...*

prozesuak zein jarduerak adierazten dituzten perpausak. Alde horretatik, hautematezkoen egitura bera dute; alde bakarra, ergatibozko subjektua *hautemai-lea* izatea kasu batean eta *eragilea* bestean:

(175) *Koplak kantatzen entzun* ditut bertsolariak.

(176) *Koplak kantatzen jarri* ditut bertsolariak.

7.3.1.1.b. Datiboa tartean denean

Bada beste predikaturik, hala ere, kontrola datiboari esleitzen dionik (besteak beste, aditz arazleak):

(177) *Pianoa jotzen ikasi* du. [K(ontrolatzailea)(subjektua)]

(178) *Pianoa jotzen irakatsi* dio. [Kd(atiboa)]

(179) Ez du *asmatzen pianoa jotzen* [Ks]

(180) **Ahaztu** zaio *pianoa jotzen*. [Kd]

7.3.1.1.c. *Utzi (du)* eta *utzi (dio)* (eta *lagundu*)

Aipatu dugunez, *utzi* predikatua, joskera eta adiera batean, *jarri (du)* predikatuaren moldekoa da¹⁵:

(181) *Egosten utzi/jarri* ditu babarrunak.

Egiletasuna garbi markaturik dagoenean, ordea, ez da erabiltzen joskera hori:

¹⁵ Ekialdean, *egostera utzi/jarri* (ikus, hurrengo atalean, *-tzera* perpausak). Mendebaldean, *laga* ere *utzi* bezalaxe jokutzen da: *usteltzen laga du lirabazten laga dio*.

(182) *Hiltzen utziko zaitu.* [*hil*: subjektu jasailea]

(183) **Irabazten utziko zaitu.* [*irabazi*: subjektu egilea]

Halakoetan, *utzi* predikatuaren *dio* jokoak baliatzen da, eta datiboak hartzen du kontrola:

(184) *Irabazten utziko* dizu.

(185) *Gainezka egiten utzi* dio babarrunen lapikoari.

Antolamendu horretan (*josten utzi dio*), *utzi* predikatuaren esanahia bera ere bestelakoa da, *baimendu* edo *ez galarazi* bailirateke gutxi gorabeherako sinonimoak. Zentzua ere urruntzen da, beraz, beste antolamenduan (*egosten utzi du*) eta perpaus osagarririk gabeetan ageri den *utzi* oinarritzotik (*botila (erortzen) utzi*).

Horiek horrela, esan daiteke bi *utzi* ditugula: *utzi*₁ (*du*), oinarritziko zentzua duena, batetik, eta *utzi*₂ (*dio*), “ez galarazi” zentzua duena.

*Utzi*₂ horri dagokion joskera eta adiera hori –TZEN perpausa(ren ideia) inplizitua den esamoldeetara ere zabaltzen da, erabilera horretan:

(186) Ez digu *utzi erabakitzen*.

(187) *Utziko al diozu bakean?* [=nahi duena egiten]

(188) *Utzi niri.*

Joskerarekin loturiko egiletasun-antolamendu hori nabarmenarazteko, aski da *utzi*₂ egiletasunik gabeko perpausekin konbinatzea, tirabira sor dadin:

(189) ???*Zimeltzen utzi zion.*

Perpaus hori gramatikala izan dadin, *zimeldu* aditzaren berezko jasailatasuna ezabatu eta nolabaiteko egiletasuna egotzi beharko litzaioke: (*zerbait*) *zimeldu* > (*norbaitek zerbait*) *zimeldu* (=zimelarazi).

Bestalde, *utzi₂ (dio)* molde hori *irakatsi (dio)* moldearekin guztiz bat dator antolamenduz¹⁶:

(190) Ez dakit irakatsiko/utziko dizun *irakurtzen/*erortzen*.

Antolamendua hori izanik, berezko egiletasunik ez duen aditzen bat ezarriko bagenu egiletasunarekin loturiko osagarri-antolaera horretan, egiletasunez kargatuko litzateke, hein batean moldakorrak baitira joko semantikoak. Adibide horretan berean, *erori* hori egokia gerta liteke, baldin eta egile baten trebetasunetarikotzat hartzen bada:

(191) Judoko irakasleak ez dizu irakatsi/utziko *horrela erortzen*.

Hor, *erori* ez da *gertatzen zaizun* zerbait, *egiten duzun* zerbait baizik. Semantikaren moldakortasun hori kontuan hartzekoa dugu beti.

Ohartzekoa da, hala ere, halako kasuek ez dutela gezurtatzen, egiaztatzen baizik, osagarrien antolamenduaz dioguna. Kasu honetan, antolamendu horrek osagarrian egiletasuna eskatzeak emango lioke *erori* aditzari berez ez duen egiletasun-adiera.

Lagundu predikatuak ere (*lagun egin* sinonimoak bezala) antolamendu bera ageri du Mendebaldean¹⁷ (+egiletasuna, dio, Kd):

(192) Lagunduko dizut etxeko *lanak egiten*.

Kasu horretan ere, implizitua izan daiteke *-TZEN* osagarria:

(193) Lagunduko dizut (*hori egiten*).

¹⁶ Esanahiaren aldetik, *galerazi-debekatu-eragotzi* aditzen antonimoa da *utzi₂*, baina aditzok *-tzea* osagarriak hartzen dituzte, eta ez *-TZEN* osagarriak.

¹⁷ Ekialdean, *-TZERA* perpausekin konbinatzen da, eta *du* eran jokatzen: *Lagunduko zaitut lanen egitera(t)*.

Beste adieran (hots, ez *laguntza eman* baizik *konpainia egin* zentzuan), bestelakoa da antolamendua (aditzaren jokoko bitasun eta guzti), eta ez da – *TZEN* osagarririk:

(194) Lagunduko zaitut/dizut etxeraino. [konpainia]

(195) Lagunduko dizut *hori egiten*. [laguntza]

7.3.1.1.d. *Ari izan* eta *aritu* (eta *hasi* eta *jarraitu*)

Itxura bertuko bi esaldi har ditzagun:

(196) Landarea zimeltzen ari da (*norbait).

(197) *Landarea mozten* ari da (norbait).

Esanahiari dagokionez, nabarmena da hor aldea (*berezko*) prozesu hutsaren eta (*norbaiten edo zerbaiten*) jardueraren artean. Bigarrenak, bistan da, badu subjektu egile bat.

Horrez gainera, morfosintaxiaren aldetik ere desberdinak dira jokoak. Bigarren moldeak joko osoa du aspektuz, lehenak ez bezala:

(198) Landarea zimeltzen ari/*aritzen/*aritu da.

(199) *Landarea mozten* ari/aritzen/aritu da.

Garbi ageri da, beraz, badela, batetik, *ari(tu)* aditz bat jarduerazkoa, *jardunen* sinonimoa, –*TZEN* perpaus osagarriak hartzen dituen, eta, bestetik, *ari (izan)* aditz (defektibo edo) bat aspektu-perifraisi bat osatzen duena¹⁸:

¹⁸ Beste predikatu batzuek ere, hala nola *hasik*, adierazten dute nolabait aspektua, baina ez dira *ari (izan)* bezalako joskera murriztekoak: *zimeltzen/mozten hasi/hasten/hasiko da/zen*.

- (200) *Landarea mozten* ari da. [Landarea mozten dihardu (norbaitek)]
(201) *Zimeltzen* ari da landarea. [Zimelduz doa landarea. / **Zimeltzen* dihardu landareak]

Beraz, bi adieren arteko aldea hain da handia, non itxuraz berdina den aditz gobernatzaillea bera ere (*ari izan*) ez baita guztiz berdina; ez adieraz, sinonimiarik ezak adierazten duen moduan:

- (202) *josten* ari da = *josten* dihardu
(203) *iristen* ari da / **iristen* dihardu

Ez eta joskeraz ere:

- (204) *josten* aritu (*ari izan*) da
(205) **iristen* aritu (*ari izan*) da

Paradoxa hori uxatzeko modurik garbiena, bada, jarduera adieraztekoa ez den *ari (izan)* defektibo horrek osatzen duena aspektu-perifraisi hustzat jotzea da, hots, *zimeldu/zimeltzen/zimelduko da* bezain unitate bereizgaiztat jotzea *zimeltzen ari da/zen*.

Hala, osagarrien gobernatzaille bakarra *jardun* aditzaren sinonimo den beste *ari(tu)* hori dateke (*aritzen* eta *aritu* onartzen dituen, alegia)¹⁹.

Horrenbestez, *ari* aspektu-marka *ohi* aspektu-markaren tankerakoa da, forma burutugabe arruntaren aspektu-interpretazioen artetik bat zehazteko baliatzen baitira biak:

¹⁹ Eta adiera agentedun horretan ere lerra daiteke, hizkera batzuetan, beregaintasuna galdu eta aditz gobernatzaillearekin *integratzera*, berezko erregimena galdu eta aspektua bakarrik adierazteraino: *ari zaizkait tentatzen* → *tentatzen ari naute*. Ikus Laphitz: *Bainan biharamunean sukharrek erretzen ari zuen* eta *sukharra oren guzietz borthiztu zitzohakon* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 14).

altxatzen da/du [puntukaria/burutugabea/irautezkoa]

altxatu/altxatzen ohi da/du [ohiturazkoa]

altxatzen ari da [irautezkoa]

Testuinguruan garbi denean, erredundantea da *ari* aspektu-marka, *-TZEN* soilak markatzen baitu. Honako adibide honetan, neurtitzaren eskakizunengatik baino ez da ageri:

(206) Bizitzearen ondar-aleak / larrañean eultzen ari! (Lizardi. *Biotz-begietan*, 150))

Ezaugarri horiek iradokitzen dute ezen, aspektu-perifrasien artean, *hasi* eta *jarraitu*ekin antolatuen gisako egiturak baino gramatikalizatuago dagoela *ari* (*izan*) moldekoa, aditz-perifraisi erabat gramatikalizatuen sailekotzat jo baitaiteke ia:

dakar [puntukaria]

ekartzen du [burutugabea]/ ekartzen ari da [irautezkoa] / ekarri du [burutua]

7.3.1.1.e. *-TZEN hasi/jarraitu* aspektu-perifrasiak

Hasi eta *jarraitu* predikatuek ere aspektu-perifrasiak osatzen dituzte, *ari izanek* baino joskeraz beregaintasun handixeagoa izanik ere:

(207) Zimeltzen **ari** (***izaten**, ***izan**) dira loreak.

(208) Zimeltzen **hasi/hasten** dira loreak.

(209) Zimeltzen **jarraitzen/jarraitu** dute loreek.

Eduki lexikoa ere, aspektu hutsezkoa izanik ere, *ari izanena* baino bereizgarriagoa da:

(210) **Hasi** baino ez da (egin) galtzak josten.

(211) **Jarraitu**, jarraitu du erortzen, baina geldiago.

Jakina, aspektu-perifrasiek berdin tratatzen dituzte egiletasunezkoak zein bestelakoak:

(212) **Josten/erortzen** hasi da

(213) **Josten/erortzen** jarraitzen du.

Beste predikatu batzuek ere badute aspektu-eduki nabarmenik, hala nola *oldartu* (*hasi*-ren kideko) eta *tematu* (*jarraitu*-ren kideko), baina predikatu beregainagoak dira, eta ez dute onartzen egiletasunik gabekorik:

(214) **Jokatzen/*lokartzen** tematu da.

Halakoak, beraz, nahiz eta aspektu-alderdi hori ere eduki, ezin dira hartu perifrasisizat, beren eduki lexikoari eusten baitiote.

7.3.1.1.f. *Zertan* perpausak eta *zer* perpausak predikatu berekin
(ikus 7.4.3. ere)

Ohartzekoa da nola, aipatu dugunez, *-TZEN* perpausaren presentziak eragozten duen, zenbait antolamendutan, perpausa ordezkatzeko duen *zer* galdehitza edo *hori* agertzea:

(215) Zuk ez dakizu (???zer-hori:) *halakoetan ez haserretzen*.

(216) Nork erakutsiko dio horri (???zer-hori:) *bazterrak horrela nahasten?*

Badirudi *zer* sintagmaren lekua hartzen duela halakoetan *-TZEN* perpausak, nahiz ez izan *zer-hori* perpausa. Horrekin loturik, beharbada, *zertan* edo *horretan* ere ez dira guztiz naturalak hor, benetako jarduera formalago bat adierazteko erabiliko genituzkeelako edo:

(217) Zuk ez dakizu (??zertan-horretan:) *halakoetan ez haserretzen*.

(218) Nork erakutsiko dio horri (?horretan:) *bazterrak horrela nahasten?*

Halakoetan, *hori* eta *horretan* nolabait konbinatzen dituena da, hain zuzen, aukera naturala (*zer egiten* edo, sinonimiaz, *horrela jokatz*en):

(219) Zuk ez dakizu (*hori egiten / horrela jokatz*en:) *halakoetan ez haserretzen*.

(220) Nork erakutsiko dio horri (*hori egiten / horrela jokatz*en:) *bazterrak horrela nahasten?*

Berriro nabarmentzen da hor egiletasuna, *hori egin* eta *horrela jokatu* horietan.

Nolanahi ere, esaldi berean, aukera egin behar du predikatuak. Bietan ere, ez da lekurik osagarriaz gainera beste *zer* sintagmarik ager dadin :

(221) Ikasiko du lasai egoten. [*zertan-horretan, zer-hori egiten*]

(222) Ikasiko du **lasai egotea komeni dela**. [*zer-hori*]

Hautematezko predikatuekin ere gauza bera dugu. Kasu horretan, zentzumenezko hautematezik (*-TZEN* perpaus jokatugabeekin) hautemate intelektual abstraktuago batera (*-LA* perpaus jokatuekin) alda daiteke predikatua-ren adiera, eta joskera ere aldatzen da orduan noski:

(223) Ikusi₁ ditut/zaitut *hurbiltzen*. (neure begiz hantxe)

(224) Ikusi₂ dut **hurbildu zarela / hurbiltzen zinela**. (ikus = jabetu, konturatu)

Ikusiko dugunez, antzeko bitasuna dugu tarteka jokatugabeen artean ere (ikus 7.4.3. eta Eranskineko taula):

(225) Zaila da dena *jakiten/jakitea*.

(226) Ahaztu zaio tangoak *kantzatz*en/kantatzea.

Garbi utzi behar da, beraz, ez dela sinonimiarik gertatzen, azaleko antzekotasunak gorabehera, *-TZEN* perpausekin eta bestelako osagarriekin antolaturiko esaldion artean. Subjuntibozko batzuk daude hurbilen sinonimiatik, baina kasu horretan ere bada alde nabarmenik:

(227) Utzi dizu *sartzen*. / Utzi du sar zaitezen/dezazun.

Subjuntibozkoak, oro har, *-TZEA* eta *-TZEKO* osagarri batzuekin gertatzen dira sinonimian, halako perpausen atalean ikusiko dugunez, eta ez *-TZEN* perpausekin. Osagarriaren esanahi tipikoa (jarduera) biltzen duten izenekin dugu, beraz, sinonimia bakarra:

(228) Ongi ikasi du musean (= *musean jokatzen*).

(229) Inork ez dio irakatsi oinez/igeri (= *oinez ibiltzen / igeri egiten*).

(230) Utzizute nere aizpari nerekin. (= *nirekin egoten*) (Beovide, *Asisko loria*, 95).

Sail horretakotzat jotzekoa da 7.3.1.1.c. atalean aipatu dugun Mendebaldeko erabilera hau (izenaren adiera sinonimoa baita kontua, eta ez osagarriaren *laburtze* zehatza):

(231) Utzi dio, behingoz, bakean. (= *bakean egoten, lasai bere bidea egiten...*).

7.3.1.1.g. *Joan* predikatuaren erabilera berezi batzuk (galtzen doa)

Aspektu progresiboa adierazteko, bi aditz-perifراسi erabiltzen dira euskarazko tradizioan:

(232) Irabazi duen guztia **galtzen ari da**.

(233) **Galdu(a)z doa** ohitura hori.

Hizkera askotan, hala ere, gero eta gehiago, bigarrenaren ordean, bi moldeen arteko hibridoa nagusitu edo nagusitzen ari da:

(234) **Galtzen doa** ohitura hori.

–*TZEN joan* eta gero ikusiko dugun –*TZERA joan* perifrasiak badirudi kalko berri samarrak direla; ez, hala ere, atzo goizekoak, hizkera batzuetan behinik behin:

(235) Ama, orañ Jainkoak ezgaitu maite, eta guzi guzia **kentzen dijoakigu**; edo ta mundua **ahitzera dijoa** (Arrue, *Santa Genoveva*, 61).

kentzen doakigu = kentzen digu pixkanaka

ahitzera doa = ahitzear da(go)

Bestalde, –*TZEN JOAN* forma bera ageri da oso bestelako esapide guztiz mugatu honetan (partiden-eta emaitzarekin lotua dago):

(236) Bost eta hiru **galtzen doa**.

Azken kasu horretan, bere mugatuan, benetako perpaus menderatua dugu:

(237) Nola doa gure neska partidan? *Alde handiz, galtzen/irabazten* (doa).

Aspektu-perifrasietan ez da noski halakorik, *joan* aditza ez baita beregaina halakoetan:

(238) *Nola doa ohitura hori? Sendotuz/sendotzen?

Bestalde, onartzen badugu *nola* galderari dagokiola *irabazten doa*, esan beharko dugu moduzkoa dela hor –*TZEN* perpausa. Hala balitz ere, agerikoa da hor ere burugabetasuna, prozesua bere irautean adierazten dela hor, partidaren emaitzaren ezinbesteko progresibotasunarekin lotua. Izan ere, ez da *nola* hor galdera natural bakarra:

(239) Zertan da partida / gure neska partidan? Irabazten doa.

Horiek horrela, ez dirudi moduzkoetan sartzekoa denik erabilera berezi eta mugatu hori. Aski da pentsatzea *egoera* (progresiboa) adierazten duela, eta ez *modua*.

7.3.1.1.h. *-TZEN EGON*

Eta, hain zuzen ere, egoerak adierazteko predikatu prototipikoa ere, *egon*, ager daiteke halako egituretan, *jarduera*-adiera aktiboagoaren zentzua nagusitzen ez bada esanahian:

(240) Ardiak zaintzen **dago**. / Ardiak zaintzen **ari da**.

Egonen eta *ari izanen* arteko muga ez da, beraz, erabatekoa, eta alde bietara gertatzen dira lerratzeak. Nabarmenena, jakina, *ari izan* erabiltzen ez duten bizkaierazko hizkeretan gertatzen da, non, oro har, *egonen* eta *ibiliren* artean banatzen baitira *egoera/jarduera* adierok:

(241) Testuaren okerrak zuzentzen **dago/dabil**.

Ari izan ezagutzen duten hizkeretan, berriz, hartarako joera gero eta handiagoa nabari da, tradizioz *egon* garbi finkaturik zegoen esapideetan ere. Alegia, egoeren subjektuaren berezko *jasailetasuna* gero eta gehiago *jarduera* baten subjektuari dagokion *egiletasuna* bihurturik, orokorra den lerratze baten ildoan:

beldur/lotsa/gose da / beldurrez/lotsaz/gosez/goseak dago > beldurra du/dauka.

(negarrez/gogoetan/deika) dago > ari da.

Grafikoki esateko: *negarrez dagoenari zerbait gertatzen zaio* (egoera burutugabea), eta *negarrez ari denak*, berriz, *zerbait egiten du*. Halakoetan, oro har,

egoera-ikuspegia da guztiz nagusi tradizioan, are zentzuz egiletasuna hurbil denean ere (*negarrez/galdez/oihuka/deiez egon*):

- (242) Haurtxo txikia negarrez **dago**.
- (243) Barkamendu galdez **nago** Jainkoari.
- (244) Pasatzen zirenei begira/beha **geunden**.
- (245) Deiez/oihuka **zeuden** guztiak.

Jakina, *-TZEN* perpausekin, guztiz nagusituko da *ari izani* dagokion adiera, baina ezin da baztertu egoera-ikuspegia ere. Hala nola Elkanoko Lizarragak testu ospetsu bati eman zion itzulpenean:

- (246) Bizi naiz ez ene baitan, eta alako biziain beira [= biziaren begira] nago ezi ez iltzez iltzen **nago** (Lizarraga, *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic*, 78).

Edo (*-TZEKO*) *desiratz*en *egon* lokuzioan, *irrikan egonen* sinonimoa baita.

7.3.1.1.i. *-TZEN AKABATU/AMAITU/BUKATU*

Erabilera batean, *hasiren* joko berera biltzen da haren antonimoa:

- (247) **Bukatu** du *elurra botatzen*.
- (248) Atsoak ez zian oraino **akhabatu** *erraten*, hori da! (Elissamburu, *Piarres Adame*, 50).
- (249) Eguna zabaltzen ba-da *larrosa egitten* **amattu** baño lenago, dana alperrik ixango da. (Altuna, *Ipuñak*, 37).

Jarduera baten amaiera markatzeko adiera horrekin lehian, hala ere, gertakari-kate bateko azkena adieraz dezakeen perifrasiak forma bera hartzen du, eta zalantza eragiten joskera horretan:

- (250) *Beste guztien gainetik agintzen* **bukatu** zuen. [Kontuak kontu, azkenean, hori gertatu zen].

Horregatik edo, *-TZEZ* moldea ere baliatzen da jarduera-amaiera adierazteko:

- (251) Amak **bukatu** zuenian *garbitzez*, artu zuen palangana bere urakin eta plast, bota zuen (Iraola, *Oroitzak*, 68).

7.3.1.1.j. Prozesu/jarduera nozioen gorabeherak (egilea, jasailea eta eragilea)

Oro har jardueraren nozioa egokia delako beste froga zeharkako bat ere bada. Izan ere, *-TZEN* horretan inplikaturik dagoenez, oso nekez izan liteke nozio hori adierazten duen aditza bera osagarriaren muina:

- (252) *???jarduten/aritzen* dihardu / ari da

Eta ez bakarrik aditz bera edo sinonimoa errepikatzen den kasuan (baztertu dezagun *jardun=mintzatu* adiera eta antzekoak):

- (253) *???jarduten/aritzen* hasi da / jarraitu du / utzi diogu / badaki / ahaztu zaio...

Badirudi zerbait zehatzagoa adierazi behar duela osagarriaren aditzak, hura txertaturik dagoen egiturak berak adierazten baitu jarduera batez ari garela. Kontrakoa errazagoa da, hots, aditzik batere gabe ulertaraztea jardueraren nozioa:

- (254) Ahaztu zaio / badaki **musean** (*jokatzen*) / **lanean** (= *lan egiten*).

Prozesu/jarduera bereizkuntza, bestalde, semantikaren mailakoa da, eta sintaxiak molde bera erabil dezake bietarako. Bereziki, ergatibozko subjektu bat agertzea ez da nahikoa jardueratzat uler dadin *-TZEN* perpausaren adiera-

zia. Izan ere, prozesuak berriro ager daitezke prozesu horren eragilea adierazten duten antolamenduetan:

(255) Zimeltzen utzi ditugu loreak.

(256) Egosten jarri ditugu babarrunak.

Nolabait esateko, jardueren kasuan, subjektuaren erreferenteak du protagonismo nagusia, ekintza baten *egile* modura; aurreko adibideetako moduko berezko prozesuetan, berriz, objektuaren erreferenteak du protagonismo hori, prozesuaren *jasaille* modura; eta ergatibozko subjektua, azkenik, prozesuaren (kanpoko) *eragile* edo *kausa* izaten da (*hautemailea* ez denean):

(257) Anek *argiak itzaltzen* jardun du. [Aneren jarduera]

(258) Anek *argiak itzaltzen* utzi ditu. [argien prozesua, Anek eragina]

Hala, hiru tasun semantikok ematen dute oinarria sintaxi-jokoetarako:

- (osagarriko aditz-predikatuaren) egiletasuna (*jarduerak*)
- (osagarriko aditz-predikatuaren) jasailetasuna (*prozesuak*)
- (osagarriaren predikatu gobernatzailearen) eragiletasuna/hautematezko-tasuna (*eragindako/hautemaniko jarduera zein prozesuak*).

(259) Ikasi du *atzean gelditzen*. [*atzean gelditzea* **egile** baten jardueratzat hartzen da]

(260) Irakatsiko diot *atzean gelditzen*. [ikasiko du *atzean gelditzen*, eta ni izango naiz horren **eragilea**]

(261) Ikusi nauzu *erortzen*. [ni naiz *erortzearen* **jasaillea**, eta zu prozesuaren **hautemailea**]

(262) *Erortzen* utzi dugu pareta. [pareta da *erortzearen* **jasaillea**, eta gu prozesu horren **eragileak**]

Sintaxiaren aldetik ere bada, beraz, alderik. Berezko prozesuzkoak objektuaren pluralarekin komunztatzen dira, jarduerazkoak ez bezala (alde horretatik, aditz-perifrasien antzekoak dira halakoak, hots, bi aditzez osaturiko *–egosten jarri–* aditz bakar baten modukoak²⁰):

(263) *Anek babarrunak egosten jardun ditu. / Anek babarrunak egosten jardun du.
[Anek jardun, Anek egosi]

(264) Anek babarrunak egosten jarri ditu. / *Anek babarrunak egosten jarri du.
[Anek jarri, babarrunak egosi]

Argi ikusten da *babarrunak* objektuaren protagonismoa handiagoa dela jarduerazkoak ez direnetan. Jarduerazkoetan, ez dugu, aditza *du* moldekoa de-nean ere, objektu formalik (osagarri zuzenik); perpaus osagarriaren barnekoa da plurala, eta horregatik ez da azaleratzen predikatu nagusian:

(265) Babarrunak [lapikoan egosten] jarri ditu.

(266) [Babarrunak lapikoan egosten] jardun du.

Bestalde, ez dago beti guztiz garbi non dagoen muga prozesutat eta egoeratzat irudikatzen ditugun zeren artean. Esate baterako, *zalantzan dago/dabil* nahiz *burua hausten dabil* bietara irudika daitezke. Egoerak ez ezik, izateak berak ere prozesutat irudika daitezke zenbaitetan, eta horregatik ager daitezke halako predikatuak ere *–TZEN* perpausetan:

(267) Badaki (*isilik*) egoten [=eusten].

(268) Irakatsiko diogu *adeitsuago izaten* [=jokatzen].

Halakoetan, esan liteke *–TZEN* egiturak bere prozesu-adierara ekartzen duela *berez* (edo oinarrian edo prototipoan) halakoa ez den predikatua ere.

²⁰ Hurrengo pausoa aditz arazleak ditugu: *Anek babarrunak egos(araz)i ditu*.

Prozesu-adiera hori, alegia, *-TZEN* horrek berak markatzen duela, eta ez bereziki (edo erabat) harekin doan aditz jakinaren oinarritzko esanahiak.

Nolanahi ere, iraute batekin loturiko adiera hori (prozesu edo *-burutugabe-batena*) markatua da *-TZEN* perpausetan, eta horrek urruntzen du perpaus-mota hori albo-erdaretako gerundioen beste erabilera batzuetatik, hala nola instrumentaletik edo juntaduraren sinonimotik, zentzu burutua eskatzen baitute halakoek:

(269) Hesiaren gainetik jauzi *egiten [eginez, eginik] egin zuen ihes.

Batzuetan, gobernatzaile espliziturik gabe agertzen dira *-TZEN* perpausak, eta eduki semantiko gutxieneko predikatu gobernatzaile (prototipiko) bat ulertzen dugu halakoetan, *defektuz* (edo, gutxienez, aditz laguntzailea isildurik da-goela), hala nola segida ospetsu honetan:

(270) Goizian diru kontatzen / tabernarako plantatzen / bazkari ona tokatzen / kafia artuta kopak eranaz / erari fiña jokatzen / egiñik eztet ukatzen / oraiñ ezpañak nekatzen / zardiñ-ezurra txupatzen (Xenpelar, *Bertsok*, 233).

Oso ohikoa da erabilera eliptiko hori erregistro batzuetan.

7.3.1.2. *Kontrola -TZEN perpausetan*

Atarikoan aipatu dugun moduan, erreferentziakidetasun-jokoa era batekoa edo bestekoa izan daiteke osagarrietan. Aztertzen ari garen lehen sail honetan (*-TZEN* perpaus osagarrietan), sinplea da, guztiz, kontua: perpaus nagusiak ezartzen dio perpaus osagarriari subjektu *birtuala*. Ezin liteke beste bat izan, eta, beraz, ez da inoiz agertuko beste subjekturik halako osagarrian. Hots, *-TZEN* perpausen subjektua kontrolatua da:

(271) Saiatuko naiz (*zuk/*hark/...) ulertzen.

(272) Ikas ezazu (*hura/*ni/...) ez haserretzen.

Ager daitekeen subjektu bakarra subjektu kontrolatu enfatikoa da:

(273) Saiatuko naiz NEUK/NERONEK/NIHAUR(E)K/*nik ulertzen.

Hori, ordea, salbuespena izan beharrean, baiztapena baino ez da: perpaus nagusiak kontrolatua da subjektu posible bakar hori, eta lexikoki agertzeak erreferentziakidetasunaren enfasia markatzen du, eta ez –inolako beharrik ez baitago, kontrolatua izanik– subjektu horren oinarritzko erreferentzia.

Horra, bada, –TZEN perpaus osagarriek subjektu (birtual) kontrolatua dute, perpaus nagusiak *behartua*. Jakina, perpaus nagusia inbertsonala bada (osagarriak berak hartzen du subjektuaren lekua) subjektu generiko edo zehaztugabe bat ulertuko da osagarrian:

(274) Zaila da ikasi nahi ez duenari irakasten.

Gehienetan, hala ere, ikusi dugunez, bada kontrolatzaile zehatz bat nagusian, predikatu mota bakoitzaren arabera ergatiboan, absolutiboan (subjektua zein objektua) edo datiboan doana:

(275) Zuk_i ez dakizu [\emptyset _i] *halakoetan ez haserretzen*.

(276) Orduan hasi zen Nekane_i [\emptyset _i] *halakoak esaten*.

(277) Hor jarri ditut porruak_i [\emptyset _i] *poliki-poliki egosten*.

(278) Nork erakutsiko dio horri_i [\emptyset _i] *bazterrak horrela nahasten?*

7.3.1.3. –TZEN perpausak hartzen dituzten predikatuen sailkapen formala

Hasieratik, esanahitik abiatu gara:

–TZEN perpausen oinarritzko esanahia: (irauten duen) prozesua (burutugabea)

Bi sail bereizi ditugu:

- a) Berezko prozesua [prozesu horren eragile bat ere ager daiteke perpaus nagusian]
- b) Egiledun prozesua: jarduera edo dirauen ekintza (psikikoak barne) [egile, perpaus nagusiaren subjektua]

Orain, hala ere, sailkapen formalago bat saia dezakegu, aurreko guztiak kontuan harturik, eta egiletasun-ezaugarria ere sartuz. Predikatu gobernatzailer prototipikoak erabiliko ditugu egitura moten etiketatzat:

1. <i>HASI, ARI IZAN, JARRAITU</i> mota
[+/- egilea]: <i>josten / (berez) egosten</i>
kontrola subjektuak
eremu semantikoa: aspektua (aspektu-perifraisi hutsak dira hala osatuak)

2. <i>ARI(TU)-JARDUN / SAIATU, JARRI da, TEMATU, JAKIN-IKASI-ASMATU</i> mota:
[+egile]: <i>josten / *(berez) egosten</i>
kontrola subjektuak
eremu semantikoa: jarduerak, gogoarenak barne

3. <i>IKUSI-ENTZUN / JARRI-IPINI-PARATU du, EDUKI, UTZI/la(r)ga du</i> mota
[+/- egilea]: <i>josten / (berez) egosten</i>
kontrola objektuak
ergatibozko subjektua: hautemailea / eragilea
eremu semantikoa: jarduera nahiz prozesuak hautematea / abiaraztea (<i>jarri</i>), mantentzea (<i>eduki</i>) edo ez amaiaraztea (<i>utzi</i>)

4. <i>IRAKATSI, UTZI dio</i> mota
[+egile]: <i>josten</i> / *(berez) <i>egosten</i>
kontrola datiboak
ergatibozko subjektua: eragilea
eremu semantikoa: jarduerak eragitea [<i>ikasi</i> , norbaiten eraginez] / jarduerak ez galaraztea

Hona, lehenik, mota guztietakoen adibideak Leizarragaren eskutik, eta, segidan, hain erabilera zabala duten *-TZEN* perpausen beste adibide sorta bat:

- (279) Baina dohakabeak bere baithan zerbait izan nahiz, bertan **has** zedin *ezagutze gabetzen*, eta *nondik ona heldu zaion ahanziten* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 15).
- (280) **Enseia** zaitezte *sartzen bortha hersitik* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 133).
- (281) Eta **badakit** *behera izaten*, badakit abundant izaten ere: lekhu guzietan eta gauza guzietan **ikhasi** *dut ase izaten* eta *gose izaten*, eta *abundat izaten* eta *peitu izaten* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 352).
- (282) Eta Iesus batheiatu zenean, bertan ilkhi zedin uretik: eta huna, ireki izan zaizkan zeruak, eta **ikhus** *zezan Iainkoaren Spiritua uso kolunba baten gisan iausten* eta *haren gainera ethorten* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 5).
- (283) Iauna, **irakats** *iezaguk othoitz egiten* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 125).
- (284) Basauntza ere aurraren ondoan lurrean etzan, eta *bere arnasaren lurruñaz aurra berotzen* **jarri** *zan* (Arrue, *Santa Genoveva*, 45).
- (285) **Jarri** *etzak ba jesuiten martxa alu ori kantatzen* (Barriola, *Goi-Argi*, 31).
- (286) *Erretzen* **para** *zuten* [txerria] / *lastuaren suan* (*Bertso zaharrak*)
- (287) Erri onetan ain egoki predikatu zuan eze, etziokaten **utzi** *nai izan irtetzen erritik iñorako* (Beovide, *Asis-co Loria*, 138).
- (288) Lanaren errexkiago egiteko, barberrak *Iñazioren estekatzen* **hasi** *ziren* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 17).

- (289) *Hezuraren phikatzen abiatzean* kolorez khanbiatzen da barberra (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 18).
- (290) Zure hezurra *phikatzen ikhusi* duzu bertze batena izan balitz bezala (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 18).

7.3.2. -TZERA(T) perpaus osagarriak

7.3.2.1. -TZERA perpausen ezaugarriak -TZEN perpausekin erkaturik

Ezaugarri gehien-gehienetan, kide-kidekoak dira perpausak eta *-TZERA* perpausak. Formaren aldetik (atzizkiaz gainera) itxuraz duten aldea ere ez da ziur-ziurra, ez baitago esaterik forma mugatua ala *-n* inesiboaren parekoa den *-ra* hori, hots, mugatzailerik baden tartean²¹. Esanahiaren aldetik ere, sinonimo gertatzen dira inoiz, edo, zuzenago esanda, euskalki-aldaera:

- (291) Etxera noa *telebistan finala ikusten*. [Bizk.]
- (292) Etxera noa *telebistan finala ikustera*. [orokorra]
- (293) Ez utz *galtzera*. [Ek.]
- (294) Ez utzi *galtzen*. [Mend.]

Hurbiltasun hori gorabehera, bada, bi moldeen oinarrizko zentzua bereiztea dugu egiteko nagusia, predikatu gobernatzaileen sailkapenari ekin aurretik. Sailkapen hori ere *-TZEN* perpausen kasuan osatu dugunaren ildo berekoa izango da. Ikusiko dugunez, haiena bezala, *-TZERA* perpaus osagarrien subjektua kontrolatua da.

Zein da, beraz, bion arteko kidesun eta aldea? Irudika dezagun *-TZEN* perpausari buruz esan duguna eskema simple batean:

²¹ Baina bada zeharkako frogarik *-tzera* perpausak, *sail honetakoak* (aipatuko baitugu aurrerago bestelako *-tzera* berezi bat, *-TZETIK* perpausekin lotua), mugatutzat ez hartzeko:

*Nola ausartu zara *haurrak jipoitze horretara*?

→→→→→→
 -TZEN (-tze prozesu bat bere irautean)

Bada, inesiboaren lekuan (*zertan*) adlatiboa (*zertara*) erabiliz gero, mugimendu bat genuke, irudizkoa bederen, osagarriak adierazten duen zer (gertakari edo) abstraktua helmuga duena:

→
 -TZERA (mugimendu bat -tze prozesu baten helmugara)

Gehienetan, bat datoz euskara guztiak bata ala bestea aukeratzeko orduan, baina bada alderik, batzuetan, hizkera batetik bestera. Halako kasuak ere aipatu beharko ditugu, bada (ikus Eranskinetako taula).

Horiek geroko utzirik, hala ere, bada -TZEN/-TZERA bereizkuntza horretan soilik oinarrituriko oposizioen bat, azaldu dugun oinarritzko esanahi desberdintasun horretaz baliaturik aski adierazi desberdinak eratzen dituen: *jaten eman / (zerbait) jatera eman*.

Nolanahi ere, esapide finko eta bakanak dira halakoak, eta nekez aurkituko dugu -TZEN/-TZERA oposizio soilaz sistematikoki bereizten den esanahirik: osagarriok gobernatzen dituzten predikatuen araberakoa izango da esanahia, bakarra, nahiz hizkera batek -TZEN eta besteak -TZERA aukeratu horretarako. Oro har, Ekialdeko hizkerek -TZERA molderako joera handiagoa ageri dute Mendebaldekoek baino, dagoeneko eman ditugun adibide apurrek berek erakusten duten moduan. Baina ez da beti izaten banaketa aurretiaz uste izateko litzatekeen bezalakoa (besteak beste, bi moldeak aurkitu ditzakegu euskalki berean):

- (295) **Saiatzen** dira *atzgura kentzera*, baña eziñ iritsi dira lepora muturrarekin (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* 2, 176).

- (296) Kausa hunegatik Iuduak ni tenplean hatzamanik **enseiatu** izan dituk *ene hiltzen* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 260).

Aniztasunaren eta aldakortasunaren beste erakusgai bat ere eman daiteke. Agirre Asteasukoaren euskalki berean, gipuzkeraz, *-TZERA* zein *-TZEN* aurkitzen dugu *saiatu* predikatuarekin, eta Agirrek berak eta bestek *-TZEKO* ere badarabilte:

- (297) Begira gurasoa, *aurdun ez geratzeko saiatu* ote zeran, dala edariz, dala beste modu itsusiakin (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 2, 80).

7.3.2.2. *-TZERA* perpausak gobernatzen dituzten predikatuak

Dagoeneko aipatu dugun moduan, *mugimendu* bat adierazten dute *-TZERA* perpausekin antolaturiko esaldiek. Mugimendu hori irudizkoa da beti halako perpaus osagarrien kasuan, *-TZE* aditz-izenaren inguruan antolaturiko perpausak ez baitu noski mugimendu horren helmugatzat *leku fisiko* bat adierazten *-nora-horra-*, zerbait abstraktuagoa baizik *-zertara-horretara-* (gertakari bat, zentzurik zabalenean: aditzak adierazten duen hori).

Horren arabera, bi multzo bereiz daitezke:

- a) Mugimendu fisikoa *ere (nora)* adieraz dezaketen predikatuak (letra larrikoa joko dugu bakoitzaren prototipotzat:
ETORRI/EKARRI, *joan/eraman, iritsi, lerratu, aurreratu, oldartu, makurtu...*
- b) Predikatu espezializatuak:
AUSARTU/BEHARTU, *deliberatu (da/du), bortxatu...*

Bigarren sailekoek, itxura batean, gogo-mugimendu bat adierazten dute soilik, eta horregatik ez dute *nora* aukerarik:

- (298) *Jauregira ausartu naiz.

Bi sailen tartean geratzen dira GONBIDATU ereduak, bigarren sailekoek bezalatsukoak baitira esanahi ez-fisikoaren aldetik, baina *nora* argumentuak ere onartzen baitituzte:

(299) Jauregira gonbidatu zaitut.

Halakoak, haatik, *-TZERA* perpausezkoen esanahi bera dute, aditz prototipikoa isilduko balitz bezala:

(300) Jauregira (*etortzera*) gonbidatu zaitut.

Bereizi ditugun bi multzook, hala ere, ez dute funtsezko alderik, *zertara-horretara* adierak biltzen baititu. *Nora* argumentuak hartzen dituzten predikatuekin ere, leku-mugimendutik gogo-mugimendura aldentzen dira *-TZERA* perpausezkoak. Bi funtzio desberdin dira, beraz, *nora* eta *zertara*, argumentu biak agertzen diren esaldiak lekuko:

(301) Jauregira [*nora*] ekarri zaitut *afaltzera* [*zertara*].

Horiek horrela, aditz gobernatzailearen jokoari begiratzea geratzen zaigu (*da/du...*), eta, horrekin loturik, jasaile/egile/eragile jokoei:

1. <i>ETORRI/OLDARTU/MAKURTU/AUSARTU/SAIATU</i> ²² <i>da</i> moldea
[+egile]: <i>jostera</i> / *(<i>berez</i>) <i>egostera</i>
kontrola subjektuak
eremu semantikoa: gogo-mugimenduak

²² Aipatu dugunez, predikatuetariko asko *-TZEN* zein *-TZERA* perpausekin konbinatzen dira, hizkeraren arabera. Oro har, baina ez erabat, Ekialdean *-TZEN* eta Mendebaldean *-TZERA* aurkitzen dugu halakoetan.

Gogo-mugimendua, ikusi dugun bezala, mugimendu fisikoarekin batera etor daiteke. Betiere, *zerbait egitera* darama, eta ez *zerbait gertatzera*.

(302) Gurera etorri da lan egitera / egunok pasatzera / *zahartzera.

Datiboa agertzeak ez du aldatzen kontrola, nahiz beste erreferen-tziakidetasunen bat gehiago ezar dezakeen noski:

(303) *Giltzak ematera* etorri **zaio**.

(304) *Agur esatera* hurbildu **nintzaizun**.

Eman predikatua ere sail honetakoa da:

(305) Ingurumai guzian guziz ezagun zan eran gizonak len baño obeagotu eta *gauz onak egitera* eman ziran (Arrue, *Santa Genoveva*, 305).

Hala ere, beste joskera bat ere onartzen du, hurrengo atal batean ikusiko dugunez: *-TZEARI eman/lotu*.

2. <i>EKARRI/ERAMAN/BIDALI-GORRI/BEHARTU/GONBIDATU/DEITU</i> du moldea
[+egile]
kontrola objektuak
ergatibozko subjektua: eragilea
eremu semantikoa: zerbaitek edo norbaitek eragindakako egintza

(306) *Jauregian afaltzera* ekarri/behartu/gonbidatu/deitu zaitut.

[zuk jauregian afaldu, ni eragile naizela]

Joskera horretan, ez da lekurik datiboarentzat.

Predikatu sorta guztiz mugatu baten kasuan, bada salbuespen bat bederen egiletasunari dagokionez, 2. sail horretan:

(307) *Konpontzera* ekarri/eraman/bidali ditut bafleak.

Bistan da badela hor egileren bat baina ez dira noski *bafleak*, baizik eta *konpontzailea*. Bestalde, egitura kontrolatua dela zalantzan jartzan ez badugu, *bafleak* da *konpondu* predikatuaren subjektu isila, eta horrek esanahi pasibo-antzekoa eskatzen du: *bafleak konpondu(ak izan) daitezzen*.

Jakina, hurbilpen bat baino ez da eman dugun hori. Izan ere, egitura pasiboek ez bezala, osagarri zuzena eraman dezakete halakoek:

(308) *Lokarriak aldatzera* ekarri ditut zapatak.

Kasu horretan, nolana ere, ez da egiletasunik subjektu kontrolatuari dagokionez. Protagonismo guztia (aipatzen ez den egile baten) egintzak du. Eta osagarriaren subjektua (subjektu logikoa bederen) zera da: egintzaren eragina jasaten duena. Horregatik dagoke datiboa ere nolabaiteko lehian: [*zapatei*] *lokarriak aldatzera ekarri ditut zapatak*.

Inoiz, ambiguitasuna gerta daiteke egiletasunezko arruntaren (osagarriaren subjektua egile) eta beste molde berezi horretakoen artean:

(309) *Analisiak egitera* bidali du aita.

Pragmatikoki erabakitzen da hor “aita” horren papera zein den: *berak analisiak egin* (egiletasun arrunta) ala *berari (norbaitek) analisiak egin* (molde berezia).

3. sail bat osatuko luke, Ekialdeko erabileran, *-TZERA UTZI* moldeak, *berak bakarrik*. Izan ere, Ekialdean, testurik zaharrenetariko batzuetan izan ezik, aurrekoen (2. sailekoen) joskera berera biltzen da *utzi* predikatua, baina

ez da sail berekoa, egiletasunik gabekoak ere hartzen baititu noski [+/- egile, kontrola objektuak]:

(310) Hark ez lituzke utziko horrela jokatzera/usteltzera.

Aurreko atalean ikusi dugunez, Mendebaldeko erabileran, joskera bana eskatzen dute egiletasunezkoak eta besteak:

(311) Hark ez lieke utziko horrela jokatzera.

(312) Hark ez lituzke utziko horrela usteltzera.

Testu zahar batzuetan, hala ere, Ekialdean ere ageri da datiboazko joskera egiletasunezkoekin [+ egile, kontrola datiboak]:

(313) Uztazu [niri] *hurrantzera*, amore maite (Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 197).

Hona –TZERA perpausen adibide-zerrenda bat tradizioetik:

(314) Bada Iaunak xuxent ditzala zuen bihotzak Iainkoaren amoriora, eta *Kristen begira egoitera* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 366).

(315) Iakin ezazu deitua zarela *pairatzera eta travaillatzera*, ez ordea *alferrik egoitera edo elhe eta solhas egoitera* (Pouvreau, *Iesusen Imitacionea*, 48).

(316) Bada baldin izanen bada firmetasunik gero, behar da *perseberatzera* eta *firme egoitera* enseiatu orai (Axular, *Guero*, 301).

(317) Zeronek nuzu *galdean egotera* manatzen, hargatik natzaizu lehen galdetua eskatzen (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioenezcoa* 2, 20).

(318) Hamar birjina hek ioan ziren bere lanpak harturik espos, eta esposaren bidera, *haien beha egoitera*, eta *haier bere lanpekin ohore egoitera* (Tartas, *Onsa hilceco bidia*, 72).

(319) Bainan igorria ote zuten *gustuan egoiterat* (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 315).

- (320) Bizkitartean eztitut egorri mundurat hango atsegiñez gozatzerat; baiñan gudu handien pairatzerat; ez ohoratuak, baiñan meziprezatuak izaterat; ez pausuan egoterat; baiñan pazienziaren bidez fruitu hañitzen ekhartzerat (Chourio, *Imitacionea*, 240).
- (321) Lehiatu zen *hari bere atsegina seinalatzerat*: bazakizkien bisita hari zarraizkon obra miragarriak (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historiao* 2, 101).
- (322) Erregeren egitateak uzkurrenak lehiatu zituen *fedearen besarkatzerat* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 205).
- (323) Eztabe neurririk, eta ezin esan lei liburu on orrek zeinbat bekatari gaixo, Deabruaren eskuperik, eta bere agintza gogor gogaikarririk, edo orretarako bide labanerik aterata, ekarri izan dituezan *ondutera, eta zerurako bide artezean ibiltera* (Añibarro, *Escu-liburua*, 3).
- (324) Zeinbat bidar eleisa ama santiak konbideetan gaitu, *alegere egotera* (Fray Bartolome, *Olgueetac*, 22).
- (325) Orduan *guzien azpian egotera, ta neke, dolore, gaitz, ta desonrak eramatera* animatuko ziñan bezala, zergatik guztira orañ animatzen etzera (Cardaberaz, *Egercicioac* 2, 131).
- (326) Etzaude beartua ez jauntzitzera dagokizun eran; etzaude beartua etxean egotera beldur onegatik (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 3, 551).
- (327) Urlia oitu da edari bizietara, edo *duana edanean irintsitzera*; sandia alferkeriara, ta *zuloz zulo ibiltzera* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 1, 401).

7.3.2.3. –TZERA JOAN aditz-perifrasia

Aspektu *inkoatiboa* adierazteko, bada euskaraz modu bat baino gehiago:

- (328) Hiltzeko zorian da(go).
- (329) Erortzear da(go).
- (330) Oraintxe/laster/aurki jaisteko(a) da.

(331) Ia hilean/itoan zeundeten.

(332) Horixe esateko puntu(-puntu)an nengoen.

Horiez gainera, *-TZERA JOAN* perifrasiare ere erabiltzen da, eta aski erabilerazabalduek da tradizioz ere, indikatibozko baieztapenetan bederen, eta adizki trinkoekin (nahiz ez izan aukera bakarria noski):

(333) **Kantatuzera nua** bistan ikusiya. (Xenpelar, *Bertsoak*, 203)

(334) Hori **esatera zihuala**, isildu egin zen bat-batean.

Hortik kanpo, hala ere, ez da hain esapide naturala (perifrasirik gabekoak izanik aukeran):

(335) **?Ez noa esatera** zer pentsatzen dudan. [**Ez dut esango** zer pentsatzen dudan]

(336) **??Goazen idaztera** baturaren emaitzak. [**Idatz ditzagun** bauraren emaitzak]

(337) **???Ahoa zabaltzera joan/joaten denean...**

Izan ere, *-TZERA JOAN* egitura aurkitzen dugunean, eskuarki, benetako gobernatzaile-osagarri antolara dugu, eta nolabaiteko beregaintasuna dute *zertara* osagarriak eta *joan* aditzak, joskeraz eta esanahiz: *Banoa. Zertara? Lanak egitera.*

Isiltzera noa moldeko perifrasiare, berriz, ez da halakorik: **Banoa. Zertara? Isiltzera.*

Isiltzera noa, beraz, *isilduko naiz* edo *isil nadin* bezalatsuko perifrasiare da. Eta ez dirudi nahitaezkoa denik kasu horretan (oraingo erabilerarik laxoenean bederen) [+egile] izatea osagarriaren aditza, nahiz eta, aukeran, naturalagoak diruditen egiletasunezkoek bestelakoan aldean:

(338) **Kantatzera noazu** bertso bat edo bi. [kantatuko ditut]

(339) **?Laguntzen ez badidazu, erortzera noa** noski. [eroriko naiz]

Hitz-ordena askeagoak ere erakusten du perifrasi delako:

- (340) ??Kantatzera nator bertso bat edo bi. [Bertso bat edo bi kantatzera nator]
 (341) Kantatzera noa bertso bat edo bi. [Kantatuko ditut / Kanta ditzadan bertso bat edo bi].

7.3.2.4. *-TZERA EMAN aditz-perifrasi*

Bestalde, *-TZERA EMAN* moldeak esapide berezi batzuk ematen ditu (*jakitera/aditzera/ezagutzera eman*), perifrasiat jo beharrekoak, esaldiak hartzen dituen osagaiak *emani* baitagozkio, eta ez *-tze(ra)* aditz-izenari. Esanahia-
ren aldetik, *jakinarazi*, *adierazi* edo *ezagutarazi* aditzak dira perifrasi horren sinonimo hurbilak. Halakoetan, bada, ez da *perpaus* osagarririk, aditz-izenaren bestelako erabilera bat baizik, aditz-lokuzio finko bat osatuz:

- (342) *[*Berlinen ezagutzera*] **eman** du filma
 (343) **Ezagutzera eman** du filma, Berlinen
 (344) Berlinen **eman** du **ezagutzera** filma.

Zentzu fisikoagoak ere osaera bereko perifrasiak dira. Hona esaldi be-
rean perifrasi eta *osagarria*:

- (345) Lehen egünetan aphur **eman** behar zaio xerriari **jatera**, gosiak *lagün gabe egoitera* etsierazten beiti (Inchauspe, *Dialogues basques*, 97).

7.3.3. *-TZEKO perpaus osagarriak*

7.3.3.1. *-TZEKO perpaus-motak bereizten*

Aurreko bi motetako perpaus osagarri jokatu gabeek (*-TZEN* eta *-TZERA*) ez dute kidekorik jokatu eta, eta horregatik ez dugu aipatu halakorik. Kasu honetan, ordea, bada kideko garbia: subjuntiboko perpausa *-(e)N* zein *-(e)LA* amaieraz):

(346) Bost minutu **falta** dira *trena iristeko* [irits dadin: *zerta(ra)ko*].

(347) *Etxean geratzeko* [gera zaitezela²³: *zer*] **agindu** dizute.

Aurrerago ere ikusiko denez, *-TZEKO* perpaus osagarrien artean, azpisail bereizi bana osatzen dute *zerta(ra)ko* moldekoek eta *zer* moldekoek.

Atarikoan (eta helburuzkoen sailean) aipatu dugunez, helburuzkoetatik hurbil daude *zerta(ra)ko* moldeko osagarriak esanahiz, eta, izatez, haien forma bera dute, bai *-beti-* jokatugabeek (*-TZEKO*) eta bai *-sail batean-* jokatuak ere (subj. + *-N*).

Zer dute bereizgarri, bada, halako osagarriek helburuzkoen aldean? Bada, gain-gainetik dagoeneko atarikoan aipatu dugun moduan, hemen errepikatuko ditugun bi kontu:

- Sintaxiaren aldetik, ez dira libreki konbinatzekoak, baizik eta predikatu jakin batzuek (aipatuko ditugun motakoek) hautetsiak, haiek gobernatuak: hots, hain zuzen, haien osagarriak.
- Semantikaren aldetik, ez da halakoetan borondatedun baten asmorik adierazten.

7.3.3.2. *-TZEKO* perpausen oinarritzko adiera

Saia gaitezen, bada, aurrekoen moduko eskema batez adierazten *-TZEKO* perpausen oinarritzko adiera, ea horrek laguntzen digun argiago ikusten, alde batetik, zerk kidetzen dituen halako osagarriak helburuzkoekin (eta *-TZERA* nahiz *-TZEN* perpausekin) eta zerk bereizten haietatik. Horretarako, oraingoz, alde batera utz ditzagun [subj. + *-(e)LA*] molde jokatuaren kideko direnak (*zer* moldekoak). Honelakoez ari gara, bada:

²³ Iparraldean, manuzko subjuntiboetan ez da Hegoaldean bezala jotzen *-la* atzizkira.

(348) Handi(egia) da *atetik sartzeko*.

(349) Badu premia ederra *norbaitek gordin-gordin esateko egiak*.

<p>→→→→ –TZEN (-tze prozesu bat bere irautean)</p>
<p>→ –TZERA (mugimendu bat -tze helmuga batera)</p>
<p>>lor. –TZEKO (gertakizun den lorpena²⁴: <i>lorkizuna</i>)</p>

Hala ulerturik, aise ikusten da urrats bat baino ez dagoela *lorkizunaren* noziotik *helburu/asmo* arenera, elementu bat baino ez baita falta: lorpen hori bilatuko duen borondate bat, hain zuzen. Lorkizuna bera, bestalde, helmuga-ren ideiarekin guztiz loturik dago, *zertarako* horren osaera formalak garbi erakusten duenez, bere baitan biltzen baitu *zertara* forma.

Hain zuzen ere, –(RA)KO atzizkiarena bera da –TZEKO perpausen –KO hori, honako zerrenda honek erakusten duen moduan:

<p><i>norako</i>: Bilbo(ra)ko [leku-adiera, baina <i>zerta(ra)ko</i> zentzuaz ere jantz daiteke pragmatikoki: <i>hara eremateko</i>]</p>
<p><i>noizko</i> (<i>zer eguneta(ra)ko</i>): Biharko [denbora-adiera, baina <i>zerta(ra)ko</i> zentzuaz ere jantz daiteke pragmatikoki: <i>orduan erabiltzeko</i>]</p>

²⁴ Hor lorpena aipatzen dugularik, semantikaren alorrean ematen zaion zentzu neutrorra biltzen gara, prozesu bat bere jomugara iristearekin, hura burutzearekin loturikora (ingelesez, *achieve(ment)* erabiltzen da horretarako). Alegia, ez dugu adierazi nahi arrakasta denik nahitaez, negatiboa ere izan baitaiteke lorpen hori: *Denbora gutxi falta zaio azken arnasa emateko*.

*zertarako*₁ (osagarria): Badira tokiak sobera *bihar Bilbon batzarra egiteko*.
[lorkezuna, baina ez borondatedun baten asmorik]

*zertarako*₂ (helburuzkoa): Ondo prestatu behar ditugu gauzak *bihar Bilbon batzarra egiteko*.
[lorkezuna gehi borondatedun baten asmoa]

Inoiz, hurbil samar egon daiteke helburuzkoekiko muga, baina, esan bezala, borondatedun baten asmoa adierazten dutenak bakarrik jotzen ditugu hemen helburuzkotzat. Beraz, osagarritzat joko ditugu honako hauek:²⁵

- (350) *Ene gaizki penatzeko / hain ederrik sortu zen (+ segur sortu zinaden)*
(Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 145).

Ikus, hala ere, zer gutxi behar den helburuzkoen sailera lerratzeko:

- (351) *Neure gaizki penatzeko har zinzadan amore* (Dechepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 157).

Beharbada, lorkezuna *patutzat* ulertzen den azpisail bat egin behar genuke halako guztiak biltzeko, helburuzkoen eta osagarrien tartean: patu horren eragile den norbait badugu perpaus nagusian, baina ez da haren *nahia* (literalki eta kontzienteki behintzat) patu hori ekartzea:

- (352) *Ezen lehen erran dut gure bihotzetan zaretela, elkharrekin hiltzeko eta elkharrekin bizitzeko* (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 322).

Bestalde, predikatu gobernatzailean ekintza garbirik ageri ez denean *-izan* edo *ukan* hutsekin, edo aditza isildurik dagoenean, bereziki²⁶-, borondatea baino areago, erabilera adierazten dela dirudi (egilearena zein *gauzarena* bera-

²⁵ Edo, helburuzkoa izatekotan, jo beharko da irudizkoa dela, poetak proiektatua, *sortu* horren subjektuaren borondatea.

²⁶ *-TZEKO* perpausa izenlagun denean, beti gaude egoera horretan.

rena), eta balitzateke argudiorik helburuzkoetan zein osagarrietan sartzeko. Edo, aurrekoak (patuarekin lotuak) bezala, tarteko sail berezi batean sartzeko (zerbaiten erabilerarekin lotuak):

- (353) Eta enekin minzo zenak zuen urrhezko kanabera bat, Zibitatearen eta haren borthen eta haren murrailaren neurtzeko (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 457).
- (354) Irugarren [bastoi] au andregaiari / arkakosuak iltzeko [da/det] (Txirrita, *Bertsokak* 2, 267).

Ikus nola, bietan ere, delako kanabera zein bastoi horrekin *ekarri* agertzeak garbi ebatziko lukeen auzia helburuzkoen aldera. Bada, beraz, esanahi-eremu bat muga lauso horretan geratzen dena gure sailkapenarekiko.

Nolanahi ere, nozio horiek guztiak biltzen ditu nolabait *lorkizun* konzeptuak: asmoa (borondatedun batena), erabilera (gauzarena berarena nahiz norbaitek ematen diona) zein patuarena (zoriarena litzateke hor lorpena, egi-learen borondatea gorabehera).

Eta, lausoak lauso edo tartekoak tarteko, bi poloak aski garbi definiturik daude: borondatedun baten asmoa ageri denean, helburuzko perpausa; halakorik ez eta predikatu gobernatzailerak ageri bada, osagarria.

Bestalde, perpaus nagusiaren denboratik begiratuta artean lortzeko dagoen zerbait izanik lorkizuna, hortik *-TZEKO* perpaus guztiak —osagarriek zein helburuzkoek— duten zentzu prospektiboa, subjuntiboak eman dezakeenaren gisakoa.

Gertakizun den zerbait adierazte horrek gaitzen du *-TZEKO* perpausa, hain zuzen, etorkizunaren adierazpide izateko (ohartzekoa da geroaldiaren marka bera dela *-KO*):

- (355) Bihar **etortzeko**(a) da.
- (356) **Jakiteko** duzu zer dioen liburuak.

Azkenik, lehen alde batera utzi ditugun sailekoek ere (hots, [subj. + *-la*] jokatuena kide direnek), bestelako predikatuekin elkartuagatik, badute lorkizun, lorpen prospektibo edo dena delako nozio horren kutsua. Kasu horretan, nola edo halako agintera zehar-estilora proiektaturik sortuak dirudite (jokatuak *-la* atzizkia hartzen du), eta horregatik hartzen bide dute *zer* galderari dagokion lekua eta ez *zerta(ra)ko* galderari dagokiona:

(357) Eskatu/agindu/esan dizut: “**Itzul zaitez**”. >

(358) **Itzul zaitezela** eskatu/agindu/esan dizut.

(359) **Itzultzeko** eskatu/agindu/esan dizut.

Lorkizuna, hor, *zu itzultzea* litzateke. Gobernatzaila, berriz, adierazpen-aditz bat, aginteraren zentzua ere biltzen duena (*agindu/eskatu*) edo bil dezakeena (*esan/*adierazi*).

Atarikoan bertan iradoki dugu badela, hala ere, bestelako azalbide *-beharbada* honekin bateragarri— bat halakoentzat, non izen baten osagarritzat joko baikenituzke halakoak, nahiz eta izen hori aditzean bildurik edo gorderik egon. Esan dezagun orain, ikusi berri dugunez lotura hori, *-(ra)ko* atzizki horretaz osaturiko sintagma guztiei dagokiela auzi hori, eta ez perpausetzko bakarrik: *etxerako berogailu bat / berogailu bat etxerako*.

7.3.3.3. *Kontrola –TZEKO (zerta(ra)ko) perpaus osagarrietan*

Perpaus nagusiak kontrolatzaile izan daitekeen erreferenterik badauka, badirudi ezarri egiten dela kontrola:

(360) Hiru ordu geratzen zaizkigu [*guk/*zuk*] *bidaia amaitzeko*.

(361) Bost minutu falta zaizkio trenari [*trena/*gu*] *Brinkolara iristeko*.

(362) Modua izan dugu [*gu/*Jon*] *garaile irteteko*.

(363) Horrek Joni aukera eman zion [*Jonek/*haiek*] *txapelketa irabazteko*.

Halako erreferenterik ez den kasuak, ordea, ugariak dira, eta generikotasuna edo zehaztugabetasuna nagusitzen da halakoetan:

- (364) Askok jakin behar da [behar du batek, *bat horrek*] horretan hutsik ez egiteko.
 (365) Bost minutu falta dira [gu, trena...] *Brinkolara iristeko*.

Beste kasu askotan, ez dirudi erreferentziakidetasuna nahitaezkoa denik, baina bai kasurik normalena:

- (366) Handiegia da arkumea *labean sartzeko*. [arkumea sar dadin]
 (367) Handiegia da arkumea *labean sartzeko*. [guk arkumea sar dezagun]

Pare horretako bigarren adibidean, kasu, bada erreferentziakidetasuna, baina ez subjektuarena. Nolanahi ere, ez da nahastu behar erreferentziakidetasunerako joera, nahiz ia erabatekoa izan, kontrolarekin, hark ez baitu beste aukerarik uzten. Kontrola ez da joera, ezinbestea baizik. Hona predikatu beraren kontrolik eza ageriago duen bat:

- (368) Handiegia da armairua (inor, gu...) gelan eroso mugitzeko.

Laburbilduz: *-TZEKO* (*zertarako*) perpauos osagarriak ez dira sistematikoki kontrolatuak (*zertan* eta *zertara* diren bezala), baina predikatu askorekin konbinaturik osatzen dira antolamendu kontrolدونak.

7.3.3.4. *Kontrola -TZEKO (zer) perpauos osagarrietan*

Aise ikus daiteke *-TZEKO* (*zer*) perpauos osagarriez ere gauza bera esan daitekeela:

- (369) Agindu du [*haiek/gu/zu*] ez irteteko hemendik. [kontrolik ez]
 (370) Agindu dizu [**haiek/*gu/zu*] ez irteteko hemendik. [K(ontrola)d(atiboa)]

Kontrolatzailerik ohikoena datiboa da halako egituretan, aurreko adibidean bezala. Jakina, *zer* moldekoetan, perpausa bera da objektu posible bakarra, eta ez da hor, beraz, kontrolatzaile izan daitekeen objekturik. Subjektuak askotan ezartzen du erreferentziakidetasunen bat, baina datiboak baino nekezago ezartzen du kontrola (ikus Eranskineko taula).

7.3.3.5. –TZEKO perpausak hartzen dituzten aditz-predikatuen sailkapena

Aditz soilezkoetan, *zer* galderari dagokion sailekoak dira nagusi:

AGINDU <i>du/dio</i> (<i>esan, manatu...</i>)
(Kd)
(+egiletasuna)

ESKATU <i>dio</i> (<i>erregutu...</i>)
(Kd)
(+egiletasuna)

Predikatu gobernatzailea isildurik egon daiteke:

(371) Frantses euskaldun bat etorri zait [**esanaz**] / *ipiñitzeko bertsuak / deklaratuaz aren etxian / gertatu diren kasuak* (Txirrita, *Bertsoak* 2, 129).

Familia horretatik irten gabe, sarri aurkitzen ditugu aditz-predikatu konplexuagoak:

- AGINDUA/ordena eman, eskaera/proposamena egin, erabakia hartu, gonbita jaso...

Halakoetan, aditz soilezkoetan bezalatsu, datiboa ageri bada, kontrola ezartzen du:

(372) Agindua eman digu [guk/*zuk] sekretua gordetzeko.

Horietaz landa, berriz, *zerta(ra)ko* galderari dagozkionetan, halako predikatu konplexuak aurkitzen ditugu erabat, *izan* aditzaz osatuak bereziki:

- ON(A) IZAN, *egokia/baliagarria/aukerakoa izan, desegokia/txarra izan/iruditu*
- BEHAR IZAN
- FALTA IZAN *da/zaio/du*
- ASKI-NAHIKOA IZAN, *-egi(a) izan, gutxi(egi) izan, handi/txiki(egi)a izan...*

Har dezagun adibide hirukoitz bat, guztiz egokia halakoen jokia ikusteko:

(373) Txurrerua're **lan senzillua / da asko irabazteko** / orrek biñipiñ **eztu egiten** / *mantendu eta jazteko* [...] bi kristau gaxto **naikuak dira** / *bazter guziyak nasteko* (Txirrita, *Bertsok* 2, 131).

Gobernatzaile esplizituena azkena da: *naikuak dira*.

Bigarrenean, berriz, honela ulertzen da *eztu egiten*: <<ez du (nahikoa) irabazten>> edo <<ez du etekinik (aski) ateratzen>>. Ideia bera zubererazko koblaz:

(374) Ezpeitü *jaten diana / hüllantzeko* irabazten (Etchahun, *Bertsok*, 304).

Lehenbizikoa, azkenik (*lan senzillua da*), oso kasu ohikoa da, eta hor ere inplizitua da kuantifikazioa: <<txurreroarena lana xume(egi)a da hartatik asko irabazteko>>.

Hona halako osagarrien beste adibide lauukoitz bat, ahapaldi bakarrean:

(375) Irurogeita amasei urte / **garaia det umiltzeko** / **gauza aundiren bearrik ez det** / *goitik bera amiltzeko* / **bi bastoi auek aski nitun nik** / *munduz mundu*

ibiltzeko / irugarren [bastoi] au andregaiari / arkakosuk iltzeko [da/det]
(Txirrita, *Bertsoak*, 141).

Testu mota gehienetan, askoz ere ugariagoak dira *-TZEKO* perpaus osagariak, *-TZEKO* perpaus helburuzkoak baino. Pasarte diskurtsibo askotan, hain zuzen ere, ez da ageri *pertsonaiarik* ere helburu jakin bat betetzeko borondatea ager lezakeenik.

Adibideak, sailka (... jakiteko)

Izena gobernatzaile sakonean (asti, aitzakia, obligazino...)

Eztot astirik izan geiago jakiteko, baña (Aguirre, *Kresala*, 154).

Ezen ezta aitzakiarik, ez desenkusarik bat bederak sortzetikako hitzkuntzaren ez jakiteko (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 168).

Zeren emakumek ez baitute obligazinarik hitzkuntza arrotzen jakiteko, eta bereziki latinaren (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 169).

Kuantifikazioa gobernatzaile (gaztiak = gazteegiak)

Nur da aski zühür, orenen osoki jakiteko (Maister, *Jesu-Kristen Imitacionia*, 21).

aski zentzu bazuen jakiteko bederen beste bide bati lotu behar zela (Arradoy, *San Frantses Jatsukoa*, 81).

Orren berria al zera munduan, ori ez jakiteko (Berrondo, *Don Kijote Mantxako*, 174).

Gaztiak dira zuben umiak doktrinia jakiteko (Astarloa, *Berbaldiak* 2, 93).

Faltaren edo gauzatu gabearen nozioa adierazteko perifrasiak: *-TZEKO izan/legon*

Labur, gizonaren sorrera, xedea, legea, dena dugu jakiteko (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 57).

Beste adibide batzuk

Zutaz denaz bezanbatean, nola eskas, flako, erbal eta eri baitzare, premia duzula zure perfekzioneari, zure indarrari, zure midikuari maiz hurbiltzeko eta minzatzeko (Pouvreau, *Philotea*, 171).

Apostoluai askotan aditzera eman zien Jesu-Kristo gure Jaunak orazioaren bearra, edo premia Zeruko grazia, eta laguntasunak iristeko gure animako etsaiak goitzeko, eta gure salbazioa alkanatzeko (Guerrico, *Sayaquera*, 405).

Presta zaitte, kendu edo irten okasioetatik, zoaz Konfesore on bategana, agertu oni zere premia ta estaldu txarra ezer gorde gabe, bere konsejuekin emango dizkitzun ondo prestatzeko bideak, ta orduan prest ezpazaude absolutio ta komunioa artutzeko, ematen dio eskubidea Elizak Konfesoreari, arrazoi onarekin luzatzeko Pazkoako egunak, edo egun señalatuak igarota, deritzonean komunioa emateko (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 210).

Hortaz lekhora, nola arbolen ostoak, berez hagitiz prezatzeoak eztielaririk, guziarekin ere hagitiz onak baitira, ez xoilki arbolen edertzeko bainan eta fruituen begiratzeko, oraino samurrak eta ondugabeak direnean; halaber omen ona, berez eztelarik hagitiz desiratzekoa, badarik premia guziz handizkoa da, ez xoilki gure biziaren ederkitzeko, bainan eta gure bertuteen, eta beregainki bertute uzterren eta flakoen begiratzeko (Pouvreau, *Philotea*, 222).

Malentxo, ordea, gazteegia da oraindio ezkontzeko (Agirre, *Uztaro*, 195).

Gazteegia naiz, ordea, neure zaharrean, lekuko fidagarria izateko (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 62).

Ez dugu astirik sakristiak dauzkan elizkizunetako untzi eta jauntzi aberatsen ikusteko (J. Etchepare, *Beribilez*, 15).

Ezin betarik artu mantal garbirik jartzeko (Labayen, *Euskal-Eguna*, 90).

Ezta betarik ematen nexka-ondoren biotza bialtzeko ere (Etxaniz, *Lur berri billa*, 198).

Bi begiak ez dira aski ikusteko (Soroa, *Baratzan*, 97).

Mende hortan, hainitz mendez bezala, Itsasuko zubian iragaiteko, sos bat pagatu behar zen: zubisaria (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 79).

Baina baderrazu bethi: Apez batek ezdua eginbide seriosagorik bere denbora iragaiteko (Goyhetche, *Fableac*, 11).

Zenbeit egun baizik etzuelarik gehiago lur huntan iragaiteko, erraten zuen oraino bizitasun saindu batekin (Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 82).

7.3.3.6. *-TZEKO* perpaus izenlagunak

Azpiatal honetan, *-TZEKO* perpaus izenlagun mota ezberdinak aurkeztuko ditugu. Ekar ditzagun gogora adibide argi batzuk lehenik:

- (376) a. Entzun neutsan nik gizon jakintsu bati, Jaungoikuak egieban lenengo gizonari, emon eutsala *lurra landuteko* aginduba (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 125).
- b. Alabarengana jiratu, eta ukabila jaso zuen aitak, *alaba jotzeko* keinua eginik (Lertxundi, *Azkenaz beste*, 47).
- c. Eta nik neuk ere ez nuen argi zergatik deitzen nion, ez bazen hain zuzen ere *sokatik tiratuta gauzak nola bukatzen ziren ikusteko* jakin-mina nuelako (Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 89).
- d. Emaztea naiz ta *jakiteko* eskubidea daukat (Barriola, *Goi-Argi*, 63).

Adibideotan ikusten dugunez, *-TZEKO* perpaus hauek izen-sintagmen atalak dira, eta *agindu*, *keinu*, *jakin-min* eta *eskubide* dira izen-sintagma horien izen-ardatzak. Izen batek gobernaturik dauden *-TZEKO* perpausen artean, aditzaren mende daudenen kasuan bezala, bereizi behar dira perpaus osagarriak eta osagarri ez direnak; perpaus izenlagun osagarrien kasuan, ikusiko dugunez, ez da beti kontu argia aditzak ala izenak gobernatzen ote dituen, eta beraz arretaz aztertuko ditugu zalantzezkoak diruditen zenbait esapide.

Goiko adibideetan ikusten den legez, *-TZEKO* perpausak izenaren mende egon daitezke. Batzuetan argi ikusten da perpausa noiz den aditzaren mendeko eta noiz izenaren mendeko, ondoko adibideetan bezala:

- (377) a. Autoa saldu zuen *etxea erosteko*.
- b. *Etxera itzultzeko* agindu dio. (perpaus osagarria, ikus 7.3.1. atala)
- c. *Etxea erosteko* dirua frontoian galdu zuen gizon horrek.
- d. *Euskara ikasteko* erabakia hartu du.

Lehenengo adibidea, (377a), helburuzko perpaus jokatugabea da, helburuzkoen atalean azaldu den perpaus-mota, eta aditzak adierazten duen ekin-tzak zer helburu daukan adierazten du, hots, *zertarako* galderari erantzuten dio. Bigarren adibidea (377b), baina, *agindu* aditzaren osagarri jokatugabea da, 7.3.1. atalean azaldu den perpaus-mota, eta *zer* galderari erantzuten dio. Horien ondoan, azter ditzagun (377c) eta (377d) perpaus izenlagunak. Perpaus bi hauek berdinak dira egituraren aldetik: izen-sintagma baten barruan kokatzen dira, hots, (377c) perpausa *diru* izenak gobernatzen du, ez *galdu* aditzak, eta (377d) perpausa *erabaki* izenak gobernatzen du. Baina bada bien artean esanahiari dagokion bereizkuntza aipagarri bat: (377c) perpausak galdutako diruaren funtzioa edo helburua zein zen adierazten du eta alde horretatik badu antzekotasunik (377a) helburu-perpausarekin, baina (377d) perpausak hartutako erabakiaren edukia adierazten du, eta alde horretatik (377b) adibidearen antzekoagoa da. Beraz, *-TZEKO* perpaus izenlagunetan egituraren aldetik berdintsuak badira ere, mota nagusi bi bereiz ditzakegu esanahiari dagokio-nez, aditzaren mende dauden helburuzko perpausen kide direnak batetik eta perpaus osagarrien kide direnak bestetik.

Begiratu diezaiogun lehenik egitura sintaktikoari, eta ikus dezagun zertan diren berdintsu *-TZEKO* perpaus izenlagunak, edo bestela esanda, zertan bereizten diren izenaren mende eta aditzaren mende dauden *-TZEKO* perpausak. Horren ondotik, egituraren aldetik berdintsu diren perpaus izenlagun hauen artean dauden bereizkuntza semantikoak azalduko ditugu, eta baita ñabardura horiek sortzen dituzten arazo batzuk aipatu ere.

7.3.3.6.a. *-TZEKO* perpaus izenlagunak egituraren aldetik

Hizkuntzan sarri gertatzen denez, hitz-hurrenkera bera ager dezakete gramatika-egitura ezberdin bik. Horixe gerta daiteke *-TZEKO* perpausetan ere. Har ditzagun ondoko adibideak:

- (378) a. Arrautzak frijitzeko zartagina erosi diogu aitari.

- b. Hurbiletik ikusteko betaurrekoak jantzi ditut.
- c. Pastelak egiteko irina behar duzue.

Adibide hauek guztiak bi modutara ahoska ditzakegu, etena eginaz edo etenik gabe:

- (379) a. Arrautzak frijitzeko, zartagina erosi diogu aitari.
- b. Arrautzak frijitzeko zartagina erosi diogu aitari.

Lehenengoan, (379a), etena egiten dugu [*arrautzak frijitzeko*] eta [*zartagina*] osagaien artean, eta aurreko osagaia perpausaren mintzagaia da; perpaus honek “arrautzak frijitzeko, zer erosi diozue aitari?” galderari erantzun diezaioke egokiro (edo, era berean, “zer erosi diozue aitari arrautzak frijitzeko?” galderari). Bigarren perpausaren ordea, ez dugu etenik egiten, eta arnaskada (edo osagai prosodiko) bakar batean ahoskatzen dugu [*arrautzak frijitzeko zartagina*] hitz-segida; perpaus honek, “zer erosi diozue aitari” galdera orokorrari edo “zer zartagin mota erosi diozue aitari?”/“zelako zartagina erosi diozue aitari?” galdera zehatzagoi erantzun diezaieke.

Adibide horietan, (379a) perpausak ezin dio “zer zartagin klase” edo “zelako zartagina” galderari erantzun, eta (379b) perpausa ez da “zertarako erosi” lehenengo galderarako erantzun egokia. Izan ere, (379a) adibideko [*arrautzak frijitzeko*] perpausa, aditzak menderatzen duen helburu-perpausa dugu. Ez du osagairik osatzen [*zartagina*] izenarekin. Honela, osagai bi hauek, perpausa eta izena, arazo gabe bana daitezke hitz hurrenkera aldatzean:

- (380) a. Zartagina, arrautzak frijitzeko erosi diogu aitari.
- b. Arrautzak frijitzeko erosi diogu zartagina aitari.
- c. Aitari erosi diogu zartagina, arrautzak frijitzeko.
- d. Zartagina aitari erosi diogu, arrautzak frijitzeko.

Era berean, osagai bietako bati buruzko galdera egin dezakegu, besteari eragin gabe:

- (381) a. Zer erosi diozue aitari arrautzak frijitzeko?
 b. Zertarako erosi diozue aitari zartagina?

Beraz, (379a), (380) eta (381) adibideetan ikusten dugunez, aditzak menderatzen dituen *-TZEKO* perpausak, diren motakoak direla (ikus 7.2.1.), osagai beregainak dira perpaus nagusian:

- (382) a. [_parrautzak frijitzeko] [_{IS}zartagina] erosi diogu aitari

Itzul gaitezen orain (379b) adibidera; ikusi dugunez, etenik gabe irakurtzen dugun perpaus honek “zer zartagin mota erosi diozue aitari?” galderari erantzuten dio, ez da (379a) bezalakoa. “Zer motatako zartagina” den esaten digun perpaus honetan, [*arrautzak frijitzeko*] eta [*zartagina*] ezin daitezke banatu esanahia irabiatu gabe, eta horregatik (383a) ez da erantzun egokia, baina bai ordea (383b), *-TZEKO* perpausa izenari lotuta ageri duena:

- (383) (galdera: zer motatako zartagina erosi diozue aitari?)
 a. #*arrautzak frijitzeko* erosi diogu zartagina aitari²⁷
 b. *arrautzak frijitzeko* zartagina erosi diogu aitari

Deskribatzen dihardugun egitura honetan, *-TZEKO* perpausa izen sintagmaren barruan dago, izenak menderatuta alegia (horregatik da izenaren sintagmaren atala), hemen parentesi bitartez irudikatzen dugun legez:

- (384) a. [_{IS} [_p*arrautzak frijitzeko*] *zartagina*]_{IS}] erosi diogu aitari

²⁷ Ikur honen bitartez adierazi nahi dugu adibidea berez gramatikala dela, baina adiera hori ez dela testuinguruan egokia.

Honek azaltzen du zergatik (383) adibideko galderak (385) adibidean ematen dugun erantzun hau ere izan dezakeen, izena ezabatuta:

(385) (galdera: zer motatako zartagina erosi diozue aitari?)

a. [[arrautzak frijitzeko] zartagin a] (erosi diozu aitari)

b. arrautzak frijitzekoa

Argitasunaren alde, (385a) adibideak perpaus osoan zer ezabatzen den erakusten du, eta (385b) adibideak, berriz, ahoskatzen dena bakarrik.

Aditzarekin doazen *-TZEKO* perpausak eta izenarekin doazen *-TZEKO* perpausak ezberdinak direnez, biak batera ager daitezke perpaus berean, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala:

(386) a. [aitari oparia egiteko], [[arrautzak frijitzeko] zartagina] erosi dugu

b. [afaria egiteko], [[arrautzak frijitzeko] zartagina] erabili du aitak!

c. [harrikoa egiten ikasteko], [[arrautzak frijitzeko] zartagina] da onena

d. [Katuari jaten emateko], [[arrautzak frijitzeko] zartagina] erabili du amonak

e. [Emaztea zauritzeko], [[bizarra egiteko] labana] erabili du gaizkileak

f. [Josi ahal izateko], [[hurbiletik ikusteko] betaurrekoak] jantzi behar ditut.

Hitz-ordenari dagokionez, perpaus hauek izenaren aurretik agertu ohi dira:

(387) [[Arrautzak frijitzeko] zartagina] erostera noa

Izen-sintagma bakoitzak *-TZEKO* perpaus bakarra onartzen du, eta horregatik *-TZEKO* perpaus bat baino gehiago dituzten (388a) adibidea bezalako perpausak ezinezkoak dira, perpaus biak juntadura bitartez elkartuta ez badaude noski (388b):

- (388) a. Kanpamentua animatzeko, irakasleak *[[umeak izutzeko] [beldurra sortzeko] ipuinak] kontatzen ditu gauez.
- b. Kanpamentua animatzeko, irakasleak [[[umeak izutzeko] eta [beldurra sortzeko]] ipuinak] kontatzen ditu gauez.

Oro har, *–REN* zein *–KO* izenlagunen parekoa da izenaren mende dagoen *–TZEKO* perpausa. Izan ere, aditza izen bihurtzen duen *–TZE* atzizkiari *–KO* marka itsatsita sortzen dira perpaus hauek. Gainerako izenlagunekiko nahikoa hurrenkera askea erakusten dute *–TZEKO* perpaus izenlagunek:

- (389) a. [osabaren] [gehiegi erretzeko] ohitura nazkagarria
- b. [gehiegi erretzeko] [osabaren] ohitura nazkagarria
- c. [Bilboko] [bizikletan ibiltzeko] bidegorria
- d. [bizikletan ibiltzeko] [Bilboko] bidegorria

7.3.3.6.b. *–TZEKO* perpaus izenlagunak esanahiaren aldetik

Azter dezagun hurrengo, esanahiaren aldetik zer lotura izan dezaketen perpaus hauek menderatzen dituzten izenekin. Izan ere, *–TZEKO* atzizkia darmaten perpausen artean, izenarekin askotariko harreman semantikoak dituzten osagaiak aurki daitezke, izenaren beraren izaera semantikoaren arabera, baina harreman horiek bi mota nagusitan banatzen dira: osagarriak eta osagarrri ez direnak.

Izen batzuekin, izenaren *helburua edo funtzioa* adierazten du *–TZEKO* perpausak, hau da, *zertarako* edo *zer motatako* galderari erantzuten dio. Perpaus hauek, aditzaren mende dauden *–TZEKO* helburuzko perpausen kideko ditugu (ikus 7.4.3.1. atala):

- (390) a. Etxea erosi dut *han uda igarotzeko*.
- b. *Uda igarotzeko* etxea erosi dut.

- c. Ardo berezi bat erosi dugu *umearen jaiotza ospatzeko* .
- d. Umearen jaiotza ospatzeko ardoa erosi dugu.
- e. Aldizkari berri bat atera dute, *euskal gastronomia ezagutarazteko*.
- f. *Euskal gastronomia ezagutarazteko* aldizkari berria atera dute.

Adibide hauetan, aditzaren mende (390a,c,e) eta izenaren mende (390b,d,f) dauden *-TZEKO* perpausek antzeko adiera dute; aditzaren mende daudenetan, aditzak adierazten duen ekintzaren *helburua*, eta izenaren mende daudenetan, izenaren *helburua* edo *funtzioa*. Beraz, formaren aldetik batzuk adizlagun eta besteak izenlagun izan arren, esanahiaren aldetik oso antzekoak ditugu.

Beste kasu batzuetan baina, izenlagun den *-TZEKO* perpausak ez dio *zertarako* edo *zer motatako* galderari erantzuten, baizik eta *zer* galderari. Esanahiari dagokionez, perpaus *osagarriak* ditugu hauek. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- (391)
- a. Euskara ikastea erabaki dute gure lankideek.
 - b. *Euskara ikasteko* erabakia hartu dute gure lankideek.
 - c. Isilik egon gaitezen agindu digute.
 - d. *Isilik egoteko* agindua eman digute.

Adibide horietan ikus dezakegu esanahiari dagokionez antzekoak direla aditzaren mende dauden perpaus osagarriak (391a, c) eta ondoan diren *-TZEKO* perpaus izenlagunak. Izan ere, *erabaki*, *agindu* bezalako izenen esanahiak berez dakar *zerbait egiteko erabakia*, *zerbait egiteko agindua* adiera; izen hauek, izan ere, antzekotasun semantiko handia daukate aditz iragankorrekin. Egitura hauetan, bada, *-TZEKO* perpausak izenarekin duen harremana, perpaus batean osagarriak aditzarekin duenaren guztiz parekoa da esanahiaren aldetik. Talde honetan sar daitezkeen izenak asko dira, eta ezingo genituzke denak hemen zerrendatu (*aholku*, *uste*, *iritzi*, *beldur*, *kezka*, *ohitura*, *behar*, *arrazoi*, *arrisku*, *keinu*... Ik. 7.3.1. atala)

- (392) a. Euk eman dek *iltzeko erabakia!* ire lepoa izateko ebakia (V. Moguel, *Ipui Onac*, 96)
- b. Jainkoak garbi asko eman ziguk gizaemakumeoi *geron uztarria jasotzeko agindua* (Etxaniz, *Lur berri billa*, 119)
- c. *Aitaren begiak legortzeko ustian* esan zion: Bai, orrelakuak ez dira beti-beti uste bezain urrikarri izaten (Beovide, *Asis-co Loria*, 154)
- d. Iguzkia aphaldu baita, ukan baitute mutiko gaizoek *beren indarren berri-tzeko ephea* (J. Etchepare, *Buruchkak*, 32)
- e. Arraunak eskuetan zituala, *irtetzeko zantzuaren* zai zegon bitartean, odola irakitan zebilkion (T. Agirre, *Uztaro*, 229)
- f. Orduan, bueltan eramango dut -bota zuen Idoiak, *itzultzeko keinua* eginez (Igerabide, *Hauts bihurtu zineten*, 154).

Inoiz, *-TZEKO* perpaus osagarrien alorrean, zalantzazkoa dirudi aditzarekiko ala izenarekiko mendekotasuna ote duen perpausak. Har dezagun honen adibide bat:

- (393) a. *Pilota-partida galtzeko* agindua eman didate.
- b. Agindua eman didate *pilota-partida galtzeko*.

Perpaus jokatugabea *agindu* izenaren mendekoa da (393a) adibidean, baina zalantza egin daiteke (393b) adibidearen kasuan: *agindu* izenaren mende dago ala *eman* aditzaren mende? Esanahiaren aldetik ia sinonimoak diren arren, (393b) adibidean *eman* aditzaren mende dago, baina hemen *eman* aditzak esapidea osatzen du, *agindua eman*, eta horregatik egin daiteke zalantza ez ote den (393a) adibidearen berdina hitz hurrenkera baka-rrik aldatuta. Ohar bedi, baina, (393b) adibideak esanahi bi izan ditzakeela: batean, emandako agindua da pilota-partida galdu behar dudala, dena-de-lako arrazoiengatik. Bigarren adieran, zehazten ez den agindu bat eman di-date, esaterako beti frontoiaren atzeko aldean ibiltzeko sekula aurreratu gabe, eta aginduaren helburua da pilota-partida gal dezadan. Bigarren adie-ra honetan, helburu-perpaua litzateke. Beraz, (393a, b) adibideetan egitura

ezberdinak ditugu, batean izenlaguna, bigarreanean ez, baina esanahiaren aldetik guztiz berdintsuak dira adierarik arruntenean, batean *agindu* izena delako gobernatzailea, eta bigarreanean (*agindua*) *eman* esapidea. Formaz ezberdinak dira, bada, baina esanahiz guztiz berdintsu. Antzeko egoera dugu ondoko bikoteetan:

- (394) a. Ez du *bere kontuak agertzeko* lotsarik. (izenak gobernatua)
b. Ez du lotsarik *bere kontuak agertzeko*. (aditzak gobernatua)
c. *Etxean gelditzeko* erabakia hartu du. (izenak gobernatua)
d. Erabakia hartu du *etxean gelditzeko*. (aditzak gobernatua)
e. *Dena galtzeko* arriskua du. (izenak gobernatua)
f. Arriskua du *dena galtzeko*. (aditzak gobernatua)

Adibide hauetan guztietan, aditza gobernatzaile den kasuetan, aditzak predikatu konplexua osatzen du izenarekin: *lotsa izan, erabakia hartu...* honelako esapiderik osatzen ez duten aditzen kasuan, kontuak guztiz bestelakoak dira eta esanahi-antzekotasunak desagertu egiten dira:

- (395) a. *Etxean gelditzeko* erabakia kritikatu diote.
b. ?Erabakia kritikatu diote *etxean gelditzeko*²⁸.
c. *Dena galtzeko* arriskua baloratu dute aseguru konpainiakoeak.
d. ?Arriskua baloratu dute *dena galtzeko* aseguru konpainiakoeak.

Beraz, gobernatzen dituzten izenen aurretik agertzen dira *-TZEKO* perpaus izenlagunak; aldiz, (393b), (394b,d,f) bezalako adibideak ez dira perpaus izenlagunak, ez ditu izen batek gobernatzen.

²⁸ Perpaus honek izan dezakeen adiera egoki bakarra helburuzkoa da: egindako kritikaren helburua hura *etxean gelditzea* dela, alegia. Argiago ikusten da egitura bereko adibide honetan: *erabakia kritikatu diote, egin duen lanari buruzko zalantzak sortzeko*.

Denbora edo modua adierazten duten izenen izenlagunak izan daitezke –*TZEKO* perpausak, *garai, sasoi, denbora, egun, urte, era, modu, gisa* eta antzeko izenenak alegia (396):

- (396) a. Orobat, *ardoa konsagratzeko unean* Sazerdoteak, deitzen dio bakarrik Kristoren odolari gure Salbagille onek esan ta erakatsi zituan itz oekin Au da nere odolaren Kaliza (J. A. Moguel, *Eracasteac*, 202)
- b. Irakaslekuan eta *sistemak asmatzeko garaian*, bai, bearbada, baiña ortik kanpora, kalean, plazan eta eguneroko bizitza arruntean, beste guztiak bezalaxe, libretzat jotzen dute bere burua (Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 75)
- c. Hitz goxo amultsuak, bere bizian, eta *hiltzeko tenorean* ere, hek bezain oso ala garbirik ez baitu atxikiko bere baithan gizonak (J. Etchepare, *Buruchkak*, 178)
- d. Bazkaldu berriak ginen, eta *zenbait egunentzat ongi izateko gisan* (Elissamburu, *Piarres Adame*, 56).
- e. Biek altxatuak zituzten zaiak edo soinak belhaunez goraxago, bainan ez *modestia sobera kolpatzeko gisan* (Elissamburu, *Piarres Adame*, 28)
- f. *Elizkizunak betetzeko era* guztioi errextutzea (*Gasteizko eliz-barrutirako gipuzkerazko ikasbidea*, 54).
- g. Esaidazu *entzuteko eran* (Orixe, *Aitorkizunak*, 13).
- h. Gure izkuntza, oitura ta *izateko erearen* arerio diranak (Aguirre, *Kresala*, 100).
- i. Erromerira joateko moduan beltzez jantzita (Mocoroa, *Damuba garaiz*, 5).
- j. Irri dagite *leertzeko moduan* (Orixe, *Euskaldunak*, 53).

Honela sortutako izen-sintagma batzuetan, izena isildu egiten da, esapide eliptiko ihartuak sortzeraino. Hori gertatzen da, esaterako, –*TZEKOTAN* formaren kasuan:

- (397) a. Etxe berria egitekotan gara.

- b. Lenengoan ezaban Mañasik kutxatxoia edegi be gura izan: nazkatu egiteban Egurbidekoaren opariak, eta, zanlakoa zala, urrengo goizean jaubeari biurtekotan ipiñi eban oe gañean (Agirre, *Kresala*, 165)
- c. Ba, gizona, hemen nuk, eta betikotz, ez itzultzekotan yina (Zubiri, *XX.garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 86).

Perpau-forma hauek *-TZEKO ASMOTAN* bezalako esapideren batean izena isiltzearen ondorio ditugu, eta ondorioz, duten esanahia “zerbait egiteko asmoa izatea” da (Ik. Kausazko eta helburuzko perpauis jokatu-gabeak, 2.6.5. atala). Era berean sortuak dira baldintzazko kutsua duten *-TZEKOTAN* motakoak (ik. Baldintzazko perpauisak, 3.5.2. atala) edo denborazko perpauisak azaltzean aipatu diren *-TZEKOAN* motakoak (ik. Denborazko perpauis jokatu-gabeak 1.1.1.3. atala).

Badira beste esapide asko oinarrian *-TZEKO* perpauis izenlagunak dituztenak. Adibidez, *EGLU V* liburukiko 339. orrialdean azaltzen den bezalala, *-TZEKO* perpauis izenlagunen kasu berezi bat osatzen dute “adin” edo “lain” izenekin egiten diren *-TZEKO ADINA*, *-TZEKO LAIN* konparazio-esapideak:

- (398) a. Ainbeste armadun mendean zeuzkalako berria, Errege baten gogoa bete, eta biotza zabaltzeko adiña bazan (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 205)
- b. Eta ez bere humetasunak, ez bere negarrak, ez aitak artu bear zuen naigabea, aien biotz gogorak biguñtzeko adiña izan ziran (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 49)
- c. *Jateko lain* badugu (Sarrionandia, *Kolosala izango da*, 90).
- d. Fabrikak aberatsenak ziren: jabeari aberastasuna eta langileari *bizitzeko lain* ematen zioten; hori zen egia (Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 42).

Antzekoak dira beste konparazio-esapide hauek ere: *-TZEKO BEZAIN*, *-TZEKO BESTE*, *-TZEKO BEZAIN BESTE...*

7.3.3.7. *–TZEAREN perpaus izenlagunak*

Literatur tradizioan, maiztasun txikiagoz bada ere, *–TZEKO* perpaus jokatugabeen ondoan badira *–TZEAREN* formako perpaus jokatugabeak ere:

- (399) a. *Gaizki hiltzearen zara beldur, eta ez gaizki bizitzearen* (Axular, *Guero*, 144).
- b. Nurk ere ezpeitv desiratzen gizoner plazer egitia, eta *her desplazer egitiaren ezpeitv lotsarik*, hura bake handi batez gozatvren da (Maister, *Jesu-Kristen imitacionia*, 223).
- c. Zeren erortzearen peril badu ere, ez ordea eztu sukharraren edo zahartzearen perilik (Axular, *Guero*, 40).
- d. Guazen gaztelurat eta erakuts dezagun ez garela *hiltzearen beldur* (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 11).
- e. Badiaguk hik eta nik *elgarren laguntzearen* beharra bizitzeko (J. B. Etchepare, *Mendekoste gereziak*, 401).
- f. Gogoan geratu zait Gorriak esan didana, eta ulertu nahi nuke *uhin eraztunak hartzearen ideia* hori (Sarrionandia, *Lagun izoztua*, 425).
- g. Ez ninduen kezkatzen aitzakia sinesgarria izateak ala ez, berez, ez baitzitzaidan axola *bere ondoko hotelean ostatu hartzearen arrazoi benetakoa* asmatzea ere; hots, berarekin afaldu ahal izateko bi aldiz atzeratu nuela itzulera (Sairzarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 161).

Adibide hauetan, *–TZEAREN* daramaten aditzek perpausa osatzen dute, eta beraz osagarriak izan ditzakete: “her desplazer egitea” “uhin eraztunak hartzea” eta “bere ondoko hotelean ostatu hartzea”, adibidez. Esanahiari dagokionez, adibide horiek *–TZEKO* perpausen baliokideak dira, eta berdin egin litezke *–TZEKO* atzizkiaren bitartez.

Haatik, *–TZEAREN* perpausak ez dira beti *–TZEKO* perpausen baliokide. Har dezagun adibide hau:

- (400) baina aitak ez zion argitzen *alaba hazita ikustearen pozaz* erdibituko ote zen amaren bihotza, ala kalesako kondenaren penaz (Lertxundi, *Azkenaz beste*, 51).

Hemen, gertatutako zerbait adierazten du perpaus jokatugabeak, ez gertatzeko egon litekeena; bestela esan, *-TZEKO* perpausak lukeen zentzu prospektiborik ez du adibide honek, eta atizitik, zentzu perfektiboa hartzen du, burutua den gertaera batez baitihardu. Literatur tradizioan badira erabilera perfektibo honen hainbat adibide:

- (401) a. Grazia da *Jainkoak gu bere haurtzat hartzearen zigilua*, gure noblezia guziz goraren titulua, eta Jaun Doni Petrik dioen bezala, naturaleza dibinoaren partaliertasuna (Jauretche, *Meditazioneac*, 203).
- b. Jaun andi onein eretxiz, *gizarterkiak ainbeste indar artzearen errua* Eleizak eta eleiz-gizonak dauke (Eguzkitza, *Gizarte-Auzia*, 26).
- c. Hitz emaiten badak ene izena ixilduko dukala, errain diat nok igorri zien hemendik Ameriketarat *hire anaiaren hiltzearen berria*, agertarazteko “Eskualdunan” (Zubiri, *XX. garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, 63).
- d. Ijitanuak, eskua lotu eutsoela sumau ebanian buruko ule guztiak zutindu yakozan, eta onetariko gauzetan geienak bildurriak izan oidiran lez, ikaratu zan, usterik beste mundukuak-edo eldu eutsoela, *txiliña jotiaren zigorbidez* (Kirikiño, *Bigarrego abarrak*, 44).

Adibide hauetan agertzen diren *-TZEAREN* perpausak ez dira *-TZEKO* perpausen baliokide, eta ezin daitezke bata bestearen ordeztatu erabili. Lehenengo adibidean (401a) “Jainkoak gu bere haurtzat hartu izana” da *zigilu* izenaren osagarria, eta bigarrenean (401b), “gizarterkiak hainbeste indar hartu izanaren” *errua* nori ote duen esaten da. Ezingo genuke ez batean ez bestean *-TZEKO* forma erabili: “Jainkoak gu bere haurtzat hartzeko zigilua” beste zerbait litzakete, zigilu mota bat alegia; eta “gizarterkiak hainbeste indar hartzeko errua” gaizki sortua legoke.

Beraz, *-TZEAREN* eredu perpaus izenlagunek bitariko balioak izan ditzakete: batetik, *-TZEKO* perpausen aldagarriak izan daitezke; bestetik, esanahi perfektiboa izan dezakete, dagoeneko gertatu den zerbait aipatuaz.

7.3.4. *[-TZEA + atzizkia] perpaus osagarriak*

Orain arte sailkatu ditugun perpaus-motak (*-TZEN*, *-TZERA* eta *-TZEKO* molde biak) ez daude eraikiak [-tze + -a + -n/-ra/-ko] osaeraz, hots, mugatzailerik gabeko forma finakoak dira. Orain ikusiko ditugunak, berriz, determinatedunak dira²⁹, eta horrek muga garbi bat ezartzen du sailkapenean, zenbait ezaugarri dagokionez.

Nabarmenenik, joskerari dagokionez, bi ezaugarrik bereizten ditu determinatedunok aurrekoetatik:

- Badute nolabaiteko izen-joskera aldagarria, oso murrizta izanik ere: *isilik egote (temati) hori*.
- Badute aditz-izenezkoaren aldaera burutu markatu bat, partizipiozkoa: *isilik egon izana [egona]*.

Aldaera burutuaren gorabehera hori eta gainerako xehetasunak (kontrola eta abar) sail bakoitzean jorratuko ditugu, aipagarri deritzegun heinean.

Aditz-izenen izen-joskeraz, zerbait aipatua dugu jadanik, baina *-TZEA* perpausen atalean mintzatuko gara luzeago horretaz eta beste berezitasun aipagarri batzuez: perpaus-mugak, jokatuetik erlazioa, *-TZERIK* aldaera...

Hala, banakako egituren azalpena garapen luzeago horiekin ez etetearren, azkenerako utziko dugu *-TZEA* perpausen atal zabalari, aurretik emanik atzizkidunak, hurrenkera honetan:

-TZETIK
-TZEAN
-TZEAREKIN/-TZEAGAZ

²⁹ *-TZETIK* moldean, azalean ezabatua da, *etxetik* arruntean bezala.

-TZEAZ
-TZEARI
-TZEAK

Hurrengo atala (7.4.5.) osorik eskainiko diogu *-TZEA* moldeari eta aipaturiko xehetasunei.

Beste osagarri batzuk, berriz, izenlagun dira, *-TZEKO* eta *-TZEAREN* formez baliaturik, eta beste atal berezi batean bilduko dira halakoak (7.3.3.6. eta 7.3.3.7.).

Jakina, perpaus osagarri jokatugabe horietariko bakoitzak syntaxian bete dezakeen lekua perpausezkoak ez diren beren kide formalek hartzen dutenaren parekoa da, baina kontuan harturik proposizio bati dagokion esanahi abstraktu bat dela erreferentea (horregatik ez dira berdinak testuinguru semantikoak eta, neurri batean, predikatu gobernatzaileak):

etxetik (nondik) *etorri/erori/*gaixotu*

erretzetik (*zertatik*) *etorri/*erori/gaixotu*

Orobat ez dira perpausezkoen ezaugarri berezia zenbait atzizkiren esanahien arteko muga lausoak, hala nola soziationaren eta instrumentalaren artekoak:

buruaz/buruarekin jo

isiltzeaz/isiltzearekin konpondu

7.3.4.1. -TZETIK perpaus osagarriak (eta -TZETIK -TZERA perpaus osagarri ezkonduak)

Halako perpausek adierazten duten nozioa *nondik* abstraktu bati dagokio. Alegia, erreferentzia den *jatorri* edo *nondikakoa*, leku edo denborazko kokapen bat izan beharrean (*nondik*, *noiztik*), gertakari bat da (*zertatik*):

- (402) Kalte handiak ohi datoz diru-jokotik.
(403) Kalte handiak etorri zaizkio *dirua jokatzetik*.

Jatorriaren nozio horrekin loturiko predikatu tipikoak dira ohikoenak, hots, *etorri* eta nola edo halako sinonimoak: *sortu, eratorri, segitu, ondorioztatu, (ondorioa) atera, deduzitu, etekina atera, lortu...* Gehienetan, predikatu gobernatzaillearen subjektua gertakari bat da, eta, beraz, beste osagarri bat aurkitu dezakegu subjektu-funtzioan:

- (404) Jokozaletasunetik, azkenean, hondamendia etorri zaio.
(405) *Pokerrean zaletzetik*, azkenean, diru guztia galtzea etorri zaio.
(406) Baziñakie, nolako kalteak datozen *aurrak eskolara ez bidaltzetik!* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 1*, 438).
(407) Orra zer datorren euskeraz garbiro esan ditezkean *gauzak erdarazko itzakin esatetik* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 1*, 534).

Halakoetan, gehienetan, kausa-ondorio erlazioaren ikuspegitik ulertzen da jatorria, hots, ergatibozkoak (ikus beherago) zehatzago markatuko lukeen adieran:

- (408) Jokozaletasunak, azkenean, hondamendia ekarri dio.
(409) *Pokerrean zaletzeak*, azkenean, diru guztia galtzea ekarri dio.

Kausa-ondorio erlazio bertsua aurkitu dezakegu beste esamolde batzuetan ere (*pasatu* da gobernatzaillea):

- (410) *Norbaitek orain zauden atakatik ateratzetik* pasatzen da zure etorkizuna. [ez ateratzeak etorkizuna zailtzea ondorio]

Subjektua ondoriotzat hartzerik ez badago, berriz, kausarekin zerikusirik ez duen *zertatik* adiera dugu, nahiz predikatua aurrekoen berdina izan (adibi-deetan, *etorri*):

- (411) Hortxe dator osaba *haurrak eskolara ematetik*.

Badira beste predikatu batzuk zentzu kausazkoa onartzen ez dutenak (*itzuli, desbideratu, urrundu (urrun egon), alden du, aldaratu, ihes egin, begiratu-gorde, babestu, libratu, askatu, salabatu, atzeratu/gibelatu, desenkusatu ...*):

- (412) Bostgarrena: etzabiltzala *Jainkoaren itza enzuetetik*, errosario, bezpera, ta Sakramentuetatik igesi (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac I*, 588).
- (413) *Anaia bisitatzetik* itzuli zenean, triste ageri zen.
- (414) Libra gaitezela gerrara eta are soldaduskara joatetik.

Osaera berekoa izanik, *-TZETIK* gelditu egitura aspektu-perifrasitik hartzekoa dateke (*-TZEARI UTZI* luke sinonimo hurbila):

- (415) Zerua *higitzetik* geldituzen da (Echeberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa I*, 81).

Zentzuen hurbiltasuna dela eta, inoiz *bukatu*-ren joskerara asimilatzen da (ik. 7.4.1.1.):

- (416) Illabetean gutxienean / ez dira *jaten* gelditzen (Iturriaga, *Fábulas*, 161).

Bai kausa-kutsukoen eta bai bestelakoen predikatu gobernatzaileetariko asko *da* zein *du* jokoa onartzen dutenatarikoak dira: *atera-ondorioztatu-deduzitu, babestu, libratu, salbatu...*

- (417) Etekin handia ateratzen dute *zakarrontzietako gauzak birziklatzetik*.
- (418) Horrek ez zaitu babestuko *jendeak zutaz susmo txarra egitetik*.

Erreferentziakidetasun-jokoei dagokienez, garbi dago ez direla halako per-paus guztiak, ez eta gehienak ere, kontrolatuak: aski da adibideak errepatatzea. Ohikoena, jokagabe guztietan bezala, erreferentziakidetasunen bat gertatzea da, baina ez, oro har, kontrola. Adiera generikoa ere oso maiz aurkitzen dugu:

- (419) *Gauzak astiro ez pentsatzetik* etor daiteke gero luzaro penatzea.

Predikatu jakin batzuekin, hala ere, garbi dago badela kontrola (–*TZETIK GELDITU* aspektu-perifrasian nabarmenenik, baina ez hor bakarrik):

- (420) Arratsalde guztian ez da gelditu *astakeriak esatetik*.
- (421) Israeldar gudariak, *sarraskia egitetik* itzultzean, kanpalekuan gelditu zenaz jabetu ziren (*Elizen arteko Biblia*, Jdt 15, 7).
- (422) *Haurra izatetik* hil zen ama.
- (423) Kalean txirula jo eta txanponak eskatzetik bizi/mantentzen da.
- (424) Helburua, beraz, honakoa da, besterik gabe: errudunari beste gaitz berri batzuk egiten ez uztea, eta beste hiritar batzuk uxatzea *gaitz berdinak egitetik* (*Elxpuru, Delituez eta zigorrez*, 48).

Hona –*TZETIK* perpausen adibide batzuk, klasikoetatik hartuak:

- (425) Eta *minzatzetik* ixildu zen bezala, erran ziezon Simoni, eramak barnago, eta largaitzazue zuen sareak hatzamaitera (*Leizarraga, Testamentu Berria*, 108).
- (426) Ordea gaitzerizkoa natural hark, ezteratzu amorio librea edekitzen, eztu borondatea gaitzestera bortxatzen, eta ez *gaizki egille hari barkhatzetik*, eta *ongi egitetik* debekutzen, hargatik libre da zure borondatea (*Axular, Guero*, 182).
- (427) Eta abstinenziatik, *neurritz bizitzetik*, *sabel-ederretako izaitetik*, eta *pairatzetik* heldu da debozinoa eta saindutasuna (*Axular, Guero*, 267).
- (428) Hunetarik, *hunela gaiñez egitetik*, *sobera haserretzetik*, eta *koleratzetik*, sortzen dira kalte handiak, liskarrak, hitz gaixtoak, iuramentuak, diferentziak, hauziak, gaitzerizkoak, heriotzeak, eta bere buruen eta bertzeren galtzeak, eta egitekotan ibentzeak (*Axular, Guero*, 186).
- (429) Ezta denbora luzeaz bekhatutan egon behar. Zeren egoite hura da gure galgarria. Handik sortzen da usantza: usantzatik ederestea, *ederestetik* ezansiatzea: *ezansiatzetik* ez sentitzea, ez *sentitzetik* itsutzea, gogortzea, eta azkenean, ahalkea galdurik hartaz prezatzea, loriatzea eta sendagailla eriztea (*Axular, Guero*, 73).
- (430) Ehun milla, milla urtheren buruan, hain urrun egonen dira *pagatzetik* nola lehenbiziko sarthu ziren egunean, eta orenean (*Axular, Guero*, 387).

- (431) Inoren bejjaren, idijaren edo artuaren desiuari bijotzian leku emon deitsana ez dago urrin, era seguruba ta ixilla euki ezkeru, *ardija edo bildotsa, idija edo astua ostuteti*. (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 2, 246).
- (432) Ta *burutazinoiaren ondo eristet*i jagiten da goguan euren gurarija, edo baleukazko naija. (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 2, 252).

Izenburuan aurreratu dugunez, bada bi osagarri ezkonduz osaturiko joskera bat, *-TZETIK -TZERA*, bi predikatu motarekin agertzen dena:

1. *ALDE/bide HANDIA (IZAN/EGON)* [A mutur batean, B bestean: desberdintasuna]

- (433) Ez nuen uste hain handia zenik aldea *ezkontzetik ezkondu*ta bizitzera.
- (434) *Gauza txarra nai izateti*, egitera, bide andija dago (Fray Bartolome, *Icasiquizunac*, 239).

2. *ETORRI, makurtu, ekarri, bideratu, behartu/bortxatu...* [A abiapuntuan, B amaieran: aldaketaren ibilbidea]

- (435) *Bera jaun eta jabe izatetik besteen agindupean* egotera behartu dute.
- (436) Ordea halarik ere, etzuen nahi Iainkoak, han zegoena, zegoen geldirik: *ez trabaillatzetik alfertzera, eta nagitzera* ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den alferkeria, aditzera emaitagatik (Axular, *Guero*, 13).

Bigarren motako horretan, lehen motakoan ez bezala, ez da nahitaezkoa *-TZETIK* perpausa agertzea:

- (437) *Ezin da ukatu badela aldea [*egia ez esatetik*] *gezurra esatera*.
- (438) [Bera jaun eta jabe izatetik] *besteen agindupean egotera* behartu dute.

Aldiz, *-TZETIK* perpusa ezin liteke agertu *-TZERA* perpausik gabe halako predikatuekin:

(439) *Bera jaun eta jabe izatetik [besteen agindupean egotera] behartu dute.

Ikuspegi horretatik, bada, esan daiteke *-TZERA* perpausen hedatze-aukera bat dugula *-TZETIK* perpausa ere agertzea: *zertara* helmugarekin batera, *zertatik* abiaburua ere aipatzen da.

Bigarren moldeko horietan, kontrola dugu sistematikoki, *-TZERA* perpaussei dagokien bezala.

7.3.4.2. *-TZEAN perpaus osagarriak*

Atarikoan jada adierazi dugun moduan, forma bereko denborazkoek (*noiz*) leku gutxi uzten dute *-TZEAN* perpaus osagarrientzat (*zertan*). Ikus ditzagun, hala ere, predikatu gobernatzailerik ohikoenak.

1. *OINARRITU, oinarria izan/hartu, funtsatu, bermatu, bermea izan...*

(440) *Ikasleekin pazientzia ez galtzean* oinarritzen da irakaslearen arrakasta.

(441) Halako osagaiak hain moldakorrak izatean du oinarria berrikuntza horrek.

Erreferentziakidetasuna nagusitu ohi den arren, ez da kontrolik halakoetan:

(442) *Ikasleek berarekin pazientzia ez galtzean* oinarritzen da irakaslearen arrakasta.

Etzan aditzen hirugarren pertsona singularreko forma trinkoak ere sail honetakoak dira:

(443) *Ongi bizitzean* datza kontua/auzia/gakoa.

2. *FIDATU, esperantza/itxaropena/gogoal/bihotza ...jarri/eduki/izan-ukan, etorkizuna ikusi...*

(444) *Loteriarekin aberastean* fidaturik bizi zen.

- (445) Esperantza guztia jarria daukat *egunen batean bakean bizitzean*.
- (446) Ez dut etorkizunik ikusten *bestetik gabe lehengo sistemara itzultzean*.

3. *ONURA/ABANTAILA/MEREZIMENDU/ZAILTASUN...IZAN/EGON/AURKITU/IKUSI...*

- (447) Ez dut onurarik/abantailarik ikusten *horrela gaixorik egonda luzaro bizitzean*.
- (448) Zer merezimendu/abantaila du horrek *gazteena izatean?*
- (449) *Ongi bizitzen asmatzean* dago koska/zailtasuna.
- (450) Zer atsegin, eta gusto izan dezake gizonak, *onelako andre enasari begira egotean?* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 1*, 581).
- (451) Ez dago baten ontasuna *bizimodu au, edo ura artzean, baizik artu duanari leialki erantzutean* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 1*, 593).
- (452) Eta *alaia izatean* bazuen meriturik, herrena baitzen (Garate, *New Yorkeko kronika beltza*, 131).

Beste predikatu batzuk ere aurkitu ditzakegu, jarduerazkoak ez diren *zertan* argumentuak ager daitezkeen testuinguruetan (*gutxiago izan, bat etorri...*):

- (453) Zertan izan zarete beste eliz elkarteak baino gutxiago, *nik zuen kontura bizi nahi ez izatean* baizik? (*Elizen arteko Biblia*, 2 Ko 12, 13).
- (454) Gauza hau, berez, nabarmen da; izan ere, erraten duenak zuria eta beltza bat datozela, soilki, *ez bata ez bestea gorria ez izatean* absolutuki baieztatzen du zuria eta beltza ez datozela deusetan bat (Xarriton, *Etika*, 433).
- (455) Hortik bada atsegin gaxto bat hartzen du munduak jende egiazki prestu diren *halakoak ez-tirenekin nahastekatzean* (*Birjina*, 42).

Testuinguru batzuetan, erakuslea erabiltzeak argitu dezake guztiz adiera, denborazko interpretazioaren lehiari aurre eginez³⁰:

³⁰ Gauza bertsua dugu jokatueta: *eserita dagoenean / eserita dagoen [aulki] horretan*.

(456) *Alaia izatean* aurkitzen dio Garatek meritua. [noiz ala zertan?]

(457) *Alaia izate horretan* aurkitzen dio Garatek meritua. [zertan]

7.3.4.3. *-TZEAREKIN/-TZEAGAZ perpaus osagarriak*

Jakina da *soziatibo* etiketa daraman atzizki horrek aski esanahi desberdinak har ditzakeela, eta *-TZEAREKIN/-TZEAGAZ* perpausak ez dira salbuespen alde horretatik. Jakina, soziatiboaren oinarritzko *elkartze* hori gauza abstraktuen elkartzea izango da perpaus osagarrien kasuan:

(458) Lide Aitorrekin ezkondu.

(459) merke erostea *kalitatea zaintzearekin* ezkondu.

Zer zerekin eskema berekoak dira halako osagarria hartzen duten beste zenbait predikatu: *lotu, uztartu, bateratu, nahasi, parekatu, erkatu, kontrajarri...*

(460) Teoria hau iker-alor erabat formala izango dela agintzea erraz batera daiteke semantika-teoria paralelo batekiko bilbatze iradokitzaile eta esanguratsuak izan ditzan nahi izatearekin (Laka, *Egitura sintaktikoak*, 140).

(461) Hala etsaiari ere egiten derauzkitzun falten barkhatzea, bera bakharrik bere egitez, gaitz da. Ordea iunta ezazu, *hargatik zuri Iainkoak egiten derautzatzenak barkhatzearekin*, eta errax idurituko zaitzu (Axular, *Guero*, 222).

Beste predikatu batzuek, berriz, areago dira nor zerekin eskemakoak: *ados/akort/konforme izan/egon, zalantzak/arazoak izan...*

(462) Txilintxo ados zegoen *kapelan bidaiatzearekin*, norbaitek kapela eskuan eramanez gero. (Gabiria, *Peter Pan*, 78).

(463) Etzan kontentatu *Sakramentu orretan gugana etortzearekin* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia 1*, 498).

Predikatu tipiko batzuek *zer/nor* aukera biak dituzte (*bat etorri, zerikusia izan*):

- (464) Bat nator helburu horrekin, jakina, baina ez euskara jaso hori esparru guztiguztietara zabaldu nahi izatearekin (Zuazo, *Euskararen sendabelarrak*, 142).
- (465) Horrek [Jonek/ Jonek horrela jokatzek] ez du zerikusirik izan *guk erabakia hain azkar hartzearekin*.

Erabilera batzuetan, *-TZEAREKIN* osagarria oso hurbil dago moduzkoen sailean sartu ditugun perpaus batzuetatik:

- (466) Uste det, era onetan zuk Meza nagusitik ondasun geiago aterako dezula, beste batzuek *Meza ateratzearekin* baño.
- (467) Egunen batean egoera alderantziz bizitzea gerta zitekeela esan zion Irujok, eta *orduan beste hainbeste egitearekin* ordainduta sentituko zuela bere burua (Mujika, *Gerezi Denbora*, 88).
- (468) Hori bai, maiz esaten zidan zer-nolako suertea nuen *idazteko gaitasuna izatearekin*, eta nik idatzitako zerbait irakurri nahiko lukeela (Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, 90).

Halakoetan, *eginda/eginik* eta *izanda/izanik* moldeak erabil zitezkeen *egitearekin* eta *izatearekin* sozietiboaren lekuan. Hala ere, bada konplementazio-erlazioa, mugatua baita halako sozietiboa har dezaketen predikatuen zerrenda: *konformatu/kontentatu, aski/nahikoa izan...*

Instrumentalaren balioa ere har dezake sozietiboak, jakina denez: *buru(a)z/ buruarekin jo, zutaz/zurekin maitemindu...* Besteak beste, instrumentalaren adiera erreferentzial hutsa; absolutiboarekin korrelazioan dagoela ikusi dugun horretan, alegia:

- (469) Ez nintzen akordatu *gasa ixtearekin/ixteagaz*. [=ixteaz / ez zaio akordatu *ixtea*]

Beste erabilera (orobat erreferentzial) batean, berriz, *-TZEAZ* baino sinonimo egokiago gertatzen da, esate baterako, *-tzearen kontuan* postposizio askezkoa:

- (470) Orobatsu gertatzen da <<barrukoa>> edo <<barnealdekoa>> *izatearekin*.
[=*izatearen kontuan*]

Alegia, horrekin (ari garela)=hori harturik hizpide.

Esanahiz denborazkoen eta moduzkoen artean dabiltzan perpaus batzuek ere *-TZEAREKIN* forma bera dute, baina ez dira osagarriak (ik. 1.1.1.4. Denborazko perpausak; 5.2.4. Moduzko perpausak).

- (471) Eta berri hunekin, *hunelako gaztigua, ifernuko sua, gaixtoentzat ordenatua zegoela enzutearekin*, hain izitu, eta ikharatu ziren, ezen presenteko guztiak, are ziren gaixtoenak ere, ethorri baitzeitzen galdegitera: Zer egingen dugu bada? (Axular, *Guero*, 366).

Ez da hor konplementazio-erlaziorik. *Hori entzunik* edo *hori entzutean* ez-osagarrien balioa du hor soziatiboazkoak, eta nolana hiko predikaturi menderaturik joan daiteke perpausa, adjuntu zirkunstantzialekin geratzen denez.

Soziatiboaren adiera-lerratze hori honelatsu esplika daiteke, adibidea baliatuz: *izutzea* beste *hura entzutearekin* egokitu zen [batera (*nola*) edo aldi berean (*noiz*)]. Ez da nahitaezkoa perpausazkoa izatea halako soziatiboa; aurreko adibidean berean: *berri hunekin*(, *izitu ziren*).

Azken molde horretakoetan, perpaus osagarriak ez direnez, ez daiteke kontrolik izan. Osagarri diren *-TZEAREKIN* perpausak ere, predikatu bereziren batek bahetik ihes egin ez badigu, ez dira kontrolatuak.

7.3.4.4. *-TZEAZ perpaus osagarriak*

Zertaz instrumentalaren adiera bat hurbil dago moduzkoetatik (*nola, zeren bitartez*):

(472) aberastu *burtsan jokatzearaz* [≈ *jokatuz/jokaturik/jokatzez*]

Ikusi dugunez, *-TZEAREKIN* perpausok ere har dezakete *-TZEAZ* perpausen zentzu *eragile* hori bera, eta *zertatik* perpausok ere bai, eta hala ergati-boaren kausa-adiera garbiraino:

(473) *jokatzearekin/jokatzetik/jokatzeak* aberastu

Pentsatzekoa denez, asko dira zentzu *eragile* horretako perpausak har ditzaizketen predikatuak. Sarriago aurkitzen ditugu halako *-TZEAZ* perpausaz Ekialdeko (Iparraldeko?) euskalkietan, mendebaleko hizkeretan baino erabiliagoa baita, bestela ere, *zertaz* moldea halakoak adierazteko:

(474) Zenbat ontasun galdu duen *bekhatuaren egiteaz*. (Axular, *Guero*, 284).

(475) Bada elzeari sobera dirakiena, gainez dohanean, hirur moldez emaiten ohi zaika erremedio. Lehenbizikoa, *sutik aldaratzeaz eta urruntzeaz*. Bigarrena, *egurren edekitzeaz eta gutitzeaz*. Hirugarrena, *ur hotz gaiñetik emaitiaz eta egotzteaz* (Axular, *Guero*, 193).

(476) *Ez jeus egiteaz* beraz ikhasten da gaizki egiten. (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 185).

Halako guztiak edo gehienak bestelako perpausoz emango liriateke mendebalean; besteak beste, *-TZEAREKIN* perpausoz:

(477) Zer irabazten duzu *lagunak haserretzearekin*? [= *haserretzeaz*]

Areago bereizten da erabilera hori mendebaldekotik (han *-TZETIK* erabiliko bailitzateke) gobernatzailea *etorri* predikatuaren sinonimoa delarik:

- (478) Zeren nola herri guztietan ohi baita komunzki zenbait alfer eta iende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasketa egiten baitute, ontasun handia **heldu zaika** herriari *halako heken khentzeaz*. Nola lurrari ere heldu baitzaika probetxu *iorratzeaz eta belhar gaixtoen atheratzeaz* (Axular, Guero, 18).

Aski arruntak dira halako zentzu *kausal-eragilea* duten *-TZEAZ* osagarriak:

- (479) Poz hartzen dut *hain jende bizkorra zaretela ikustez*.
- (480) Bear dugu ba eskatu ta eskatu beti, ez aspertu *eskatzeaz* ta ez berantetsi eskatua (Inza, *Kristau ikasbidearen azalpena*, 129).

Halakoetan, eta zentzu *eragilerik gabekoetatik* kanpo berdin, hots, zentzu erreferentzial hutsean, kontu bertsua dugu, dagoeneko aipatua duguna: absolutiboarekiko (eta, eragiletasuna tartean denean, ergatiboarekiko) trukagarritasun-korrelazioa. Hona:

- (481) Pozten naiz *hain jende bizkorra zaretela ikustez*.
- (482) Pozgarri zait *ikustea hain jende bizkorra zaretela*.
- (483) Pozten nau *hain jende bizkorra zaretela ikustek*.
- (484) Luze mintzatu ziren *langabetuen aldeko neurri bereziak hartzeaz*.
- (485) Eztabaidagai erabili zuten *langabetuen aldeko neurri bereziak hartzea*.

Hala bada, absolutiboaren lekua beterik dagoenean erabiltzen da maiz – *TZEAZ* perpausa, beste joskeraren batean absolutiboaz adierazten dena adierazteko:

- (486) Ea ez duzun ahazten *ate-leihoak ondo ixtea*.
- (487) *Ea ez zaren ahazten *ate-leihok ondo ixtea*.
- (488) Ea ez zaren ahazten *ate-leihok ondo ixteaz*.

- (489) Damu dut / damutu zait *latina ikasi gabea izatea*.
- (490) *Damutu naiz *latina ikasi gabea izatea*.
- (491) Damutu naiz *latina ikasi gabea izateaz*.
- (492) Huts egin dut, huts hauxe: *laburregi mintzatzea*.
- (493) **Laburregi mintzatzea* egin dut huts.
- (494) *Laburregi mintzatzeaz* egin dut huts.
- (495) *Hauteskundeak aurreratzea* aipatu du hitzaldian.
- (496) **Hauteskundeak aurreratzea* aritu da hitzaldian.
- (497) *Hauteskundeak aurreratzeaz* aritu da hitzaldian.
- (498) *Bezeroei iruzur egiteaz* salatu/akusatu dute saltzailea.
- (499) **Bezeroei iruzur egitea* salatu/akusatu diote saltzaileari.
- (500) *Bezeroei iruzur egitea* leporatu diote saltzaileari.

Halako joskerara biltzen dira predikatu asko eta asko: oroitu/gogoratu/akor-
datu, ahantzi/ahaztu, arduratu/kargutu, kontu-arta egin interesatu, mintzatu
(eta sinonimoak, jardun eta ari izan barne), zalantza-duda egin, huts/hogen/
bekatu egin...

- (501) Aitzitik *haserretzeaz* bezala, *ez haserretzeaz* ere egin diteke bekhatu (Axular,
Guero, 183).
- (502) *Laburregi mintzatzeaz* ere huts egiten da, zeren halako minzaira baita eskasa,
eta eskergabea (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 134).

Aurreko adibideetan, aditz-esapideak berekin daraman izenak betetzen
du absolutiboaren lekua (*bekatu/huts egin*); aurreragoko batzuetan, subjek-
tua zihoan absolutiboan; beste batzuetan, berriz, objektuak du hartua abso-
lutiboaren lekua:

- (503) Hargatik bada othoizten tut gure eskualdun eskuararen mesprezatzailleak *atso gaizo hunen sententzia hau gogoan ongi idukitzeaz, eta hunen eskolaz ongi baliatzeaz*. (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 171).

Izan ere, aditzaren erregimenaren arabera erabakitzen da osagarria:

- (504) Erregutzen dizuet hori *gogoan hartzeko*.
(505) Otoizten zaituztet *hori gogoan hartzeaz*.

Sail horretako predikatu askok erreakzio psikologikoa adierazten dute: *damutu (damu izan-ukan/hartu), harritu, poztu (poz hartu), atsegin hartu, atsekabetu (atsekabe izan-ukan/hartu), tristatu, lotsatu, harrotu, aspertu, nazkatu, haserretu, sumindu, amorratu...*

Horrek guztiz ate zabala uzten du *-TZEAZ* perpausentzat. Adibide honetan, esate baterako, erreakzio eragina *zerbait esatea* da:

- (506) Ezen nor izanen da ez xoilki Sarako elizan, baina oraino Eskual-Herrian ausardiza, *hunen ikhustez, eta entzuteaz* beraz, Ovidiorekin batean bihotza erdiraturik erranen eztuenik: Ezin nagoke negar egin gabe (Etcheberri Sarakoa, *Eskuararen hatsapenak*, 149).

-TZEAZ perpausaren adierazia da dena delako erreakzioaren eragile, erga-tiboarekin lehia:

- (507) Horrek harritu nau: *zuk hain eskuzabal jokatzek*.
(508) Horretaz harritu naiz: *zuk hain eskuzabal jokatzek*.
(509) *Hori/Horren ikusteak eta entzuteak* erdiratu dit bihotza.
(510) *Hori/Horren ikustez eta entzuteaz* daukat bihotza erdiraturik.

Inoiz, hizkera batzuetan bederen, absolutiboa bera baliatzen da teoriam instrumentalarena litzatekeen lekuan (anakolututzat har liteke, baina nolabait gramatikalizatua dago):

(511) Harritzen naiz *aitak hori esatea(z)*.

Horrek gogora dakar zenbait osagarri jokaturen portaera:

(512) Ohartu/konturatu nintzen asmo txarrez esana zigula. [*zigulaz]

Hizkera batzuek bestelako irtenbidea eman diote auziari, aditzaren erregimena aldaturik:

(513) Harritzen zait *aitak hori esatea*.

Bistakoa da, beraz, nolako erlazio estua duten *-TZEAZ* perpausak *-TZEA* perpausekin. Bai eta *-TZEAK* perpausekin ere:

(514) Harritzen nau *aitak hori esateak*.

***-TZEAZ* perpausak eta aldaera burutua**

Erlazio semantiko hori dela eta, perpaus osagarriaren adierazia predikatu nagusiarenaren *aurretik* irudikatzen da denboran eta logikan (haren *kausa* da). Gerta liteke, hain zuzen ere, denbora-tarte nabarmengarria izatea erreakzioa eragiten/eragin duen gertakaritik erreakzioa gertatu/gertatzen den unera. Kontuan harturik *-TZEAZ* perpausa (*-TZEAK* perpausa bezala) ez dela markatua alde horretatik, beste molde batera jo behar da, baldin eta gertakari eragilea dagoeneko burutua dela garbi utzi nahi bada. Horretarako, Iparraldean, *-BAIT* perpaus jokatua baliatzen da maiz halako predikatuen osagarritzat, hots, *-TZEAZ* perpausen aldaera burututzat:

(515) Harritu naiz *hain eskuzabal jokatu baituzu*. [(burututzat) ez-markatua: *jokatzear*]

(516) Damutu zen diru guztia xahutu baitzuen. [ez-markatua: *xahutzeaz*]

Iparraldeko halako –*BAIT* perpausak osagarritzat sailkatu ohi dira, baina kausazkotzat jotzeak ere baluke zentzua. Ikus, hain zuzen ere, gipuzkerazko adibide hau:

- (517) Arriturik geratu zan Salomon *zeren berak egin zuan Eliz ederrean bizitzera Jauna etorri zitzaion* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 1, 463).

Iparraldean, nolana ere, halako osagarri jokatu erabiltzen da kausaltzat interpretatzea nekezago litzatekeen testuinguruetan ere:

- (518) Deitoragarri da *hain gazterik hil baita*. [ez-markatua: *hiltzea*]

Jokatugabeak ere, ordea, ematen du aukera burututasuna markatzeko, euskalki guztietan. Hona jokatugabearen bi moldeak (burututzat ez-markatua eta markatua), *damu (hartu/izan)* predikatuarekin:

- (519) Bai ordea damu hartzen dut, *iendek ene baithan eztenaren erraiteaz, eta bai batzutan denaren ere agertzeaz eta banatzeaz* (Axular, *Guero*, 291).
- (520) Eta hala badirudi ezen purgatorioetan daudenek, eztutela deusez ere hanbat damu, eta atsekabe izanen, nola *denboraren galduaz, gaizki enplegatuz, eta bere buruen bere borondatez, aphur bat bedere, ez penatuaz* (Axular, *Guero*, 106).

Jokatugabearen aldaera burutuak partizipioaren (partizipio buruatuaren) *forma* hartzen du, baina ez haren esanahi ohikoena:

- (521) Pena hartuko dute *denbora galduaz*. [= galdutako denboraz]
- (522) Pena hartuko dute *denbora(ren) galduaz*. [= denbora galdu baitute/ dutela eta]

Bigarrena, diogunez, –*TZEAZ* perpausaren aldaera burutu markatua da:

- (523) Ez dute axolarik *denbora(ren)* [noiznahi] *galtzeaz*.
- (524) Ez dute axolarik *denbora(ren)* [ordurako] *galduaz*.

Partizipioren beste adierarekin gerta daitekeen nahasbidea, bestalde, burutuaren beste forma batek konpontzen du, eta horregatik bide da egungo prosan erabiliena beste forma hori, nahiz eta tradizioan *izan* erantsi gabeko moldea izan araua:

(525) Ez dute axolarik *denbora galdu izanaz*.

(526) Harro egongo zara, noski, *hain luze hitz egin izanaz*.

Esan bezala, *izan* gabeko moldea da tradizio zaharrekoa:

(527) Orduan heuregiago izanen zare zure ixil egonaz, *solhas luzerik eginaz* baino (Pouvreau, *Iesusen imitacionea*, 70).

Erabat sinonimo dira molde soila eta *izan* gehitzen zaiona, baldintzetan gertatzen den bezala:

galdu izan balute = galdu balute

galdu izana(z) = galdua(z)

Aldaera burutuaren aukera hori, jakina ez da *-TZEAZ* perpausen berezitasuna. Aurrekoetan baino ohikoagoa delako aipatu dugu atal honetan, baina, berez, aukerakoa da beste *-TZEA* nahiz [*-TZEA* (+ atzizkia)] perpaus osagarri gehienetan, baldin eta predikatuaren semantikak debekatzen ez badu³¹:

(528) Gero zuzendaria halako presa izatea ez zetorren bat *bilera atzeratu izanarekin*.

(529) *Gaixorik egon izanak* dakar ondorio hori.

(530) Zer egin biar dau, *gaiski esana entzunagaz* pekaturik ez egiteko? (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 2, 189).

(531) *Makal egonak* egiten dau ori (Kirikiño, *Bigarrego abarrak*, 58).

³¹ *-TZETIK* perpausa dateke salbuespena: *-a* ageri ez duena, hain zuzen. Bestela, nahiz mugatzailea agerian ez egon, gainerako *-TZEA* + atzikia] perpausen kide garbia da *-TZETIK* perpausa, eta ez *-TZEN*, *-TZERA* eta *-TZEKO* perpausena.

- (532) *Ixilik egonak* nehor eztu galdu / baiña erasteak bai husu (Goyhetche, *Fableac*, 257).
- (533) Anima garbitzen du konfesiyo onak / ez du ezer serbitzen *bildurrak egonak*. (Udarregi, *Udarregi bertsolaria*, 128).

Zentzu prospektiboa berezko duten perpaus motek, jakina, ez dute aldaera buruturik: *-TZEN/*-TU*, *-TZERA/*-TURA*, *-TZEKO/*-TUKO*.

Berriro aipatuko dugu aldaera burutuaren kontua hurrengo ataletan, eta, bereziki, *-TZE*A perpausenengan. Eranskinetako taulan ere markatu dugu (B ikurraz) perpaus osagarri mota bakoitzean zer predikatuk onartzen duten aldaera burutua.

7.3.4.5. *-TZEARI perpaus osagarriak*

Predikatu gobernatzailerik ohikoenak honela bana daitezke beren semantikaz:

1. EKIN, *utzi* (Bizk. *itxi*), *eman*, *lotu*, *atxiki*, *heldu*, *eutsi*, *jarraitu*, *lehiatu*, *egon* (Ipar)...
2. UKO EGIN, *muzin/ihes egin*, *baietza/ezetza eman*...
3. DEITU, *esan*, *izena eman*...
4. IRITZI, *estimul/ beldur/ gorroto izan*, *gustua hartu*, *garrantzia eman*...
5. Saski-naski: BEGIRATU, *begira egon*, *zor izan*, *aurrera* (segi diotsate?)...

Ez da, beraz, oso emankorra *-TZEARI* perpaus osagarrien joskera, *-TZEAZ* perpausekin alderaturik bederen. Maiztasunari dagokionez, honelako eskala genuke gutxien erabilitik gehien erabilira (aipatzen ez ditugunak, guztiak ere erruz erabiltzen dira):

-TZEAN, *-TZETIK*, *-TZEARI*, *-TZEAK*, *-TZEAZ*

Gaur egungo testuetan, nekez aurkitzen dugu *ekin*, *utzi*, *uko egin*, *deitu* eta *iritzi* predikatuez landako alerik. Testu zaharretan, berriz, *eman* eta *lotu* gehitzen zaizkie ohiko predikatu gisa. Adibideetan, arrunt eta ohikoen horiez landako predikaturen batzuk biltzen ahalegindu gara (edota aipatuen aldaeraren batzuk), baina kontuan hartu behar da ez direla, ez hurrik eman ere, aipatu ditugun horiekin parekatzekoak maiztasunez.

EKIN eredukoek badute aspektu-perifrasien tankera ez gutxi, ez baitute, erabilera horretan bederen, eduki lexiko handirik. Horrekin loturik, kontrolatuak dira. Kontrola subjektuak ezartzen du:

(534) Han ekin diozu [*ni/*hura/ZEU] lau hankan ibiltzeari.

Datiboa (beste kontrolatzaile tipikoa) ez dago erabilgarri kontrol-eginkizun horretarako, perpau osagarria bera baitoa datiboan. Datiboaren lekua harturik egote horrek badu beste ondorio bat ere, *-TZEARI* perpau guztiei dago-kiena: nekez baino ezin da aplikatu aditz arazleen joskera arrunta, batez ere lehen sailakoetan, baina ez haietan bakarrik:

(535) ???*Lau hankan ibiltzeari* ekinarazi digu.

(536) **Erretzeari* utziarazi dio.

(537) **Gaez gidatzeari* gorroto izanarazi dizu.

Ezinik edo erabateko debekurik ez da, hala ere:

(538) *Kargua hartzeari* uko eginarazi zien³².

Uko/muzin/ihes egin predikatuek ere kontrola ezartzen dute hiztun gehien erabileran, baina badirudi batzuek ontzat jotzen dituztela kontrol zuzenik

³² Hala ere, *uko* *eragin.

gabeko esaldiak ere, baldin eta normalean kontrolatzailea denaren *ardurapekoa* edo bada osagarriaren subjektua:

- (539) Uko egin nion *haurrak lagunarenean uzteari*. [kontrolatua]
- (540) ?Uko egin nion *haurrak lagunarenean geratzeari*. [kontrol formalik ez, baina osagarriaren subjektua kontrolatua litzatekeenaren *ardurapekoa*]
- (541) *Haurrak uko egin zion *nik hura lagunarenean uzteari*.

Bidenabar esanda, kontrolaren muga-kasu hori beste osagarri mota batzuetan ere gertatzen da:

- (542) ?Damutu nintzen *haurrak azkenean lagunarenean geratu izanaz*.

Predikatu gobernatzaileetariko batzuk joskera-bitasuna ageri dute, itxura denez zentzua aldatu gabe (kasu bietan ere, kontrola dugu):

- TZEARI* eman (zaio) / –*TZERA* eman(da)
 –*TZEARI* jarraitu (dio) / –*TZEN* jarraitu (du)

Ez da hain harritzekoa ere, beste osagarri batzuek are aukera zabalagoa ematen dute eta:

- TZEN* saiatu / –*TZERA* saiatu / –*TZEKO* saiatu

Sail honetakoei dagokienez, oinarrizko bitasun bat islatzen da –*TZEARI*/–*TZERA* eman predikatuaren kasu horretan: itsaso**ari** begiratu / itsaso**ra** begiratu

Bestalde, –*TZEARI* eman (*dio*) joskera ere ageri da tradizioan (gipuzkeraz behintzat), hots, *ekinen* erregimenera lerraturik:

- (543) Saul'ek berri au artu zuenean, biotzeko su-aserreak bazirakion, eta lanza arturik, **eman zion** deadarrari, eta *bere seme Jonatas'gandik asita, beste guziakgatik gaizki esateari*, guziak eskuetan txikitu nai bazitukean bezala (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 171).³³
- (544) **Ematen dio** gero *lurrean irabioka ibiltzeari* (Anabitarte, *Poli*, 96).
- (545) Otzak ikaraz atera zan ibai aldera, ta *bertako ur jelatan matazak jo ta garbitzeari* **eman zion** (Etxaniz, *Lur berri billa*, 161).

Gaur egungo adibideak:

- (546) Gainerakoak, horren berri jakitean, beldur izango dira eta *horrelako gaiztakeria egiteari* uko egingo diote (*Elizen arteko Biblia*, Dt 17, 13).
- (547) *Inolako aipamena egiteari* ihes egin zioten, bestalde. (K. Zabala, *Parisen sabela*, 163).
- (548) Hainbat jira eta buelta eman ostean, alferrikakoa iritzi zion *lo egiteari* (Morillo, *Ortzadarra sutan*, 64).
- (549) Hots-bilkura baten ordeztu beste hots-bilkura ahulago bat egiteari esaten zaio ahultze edo lenitio (Oñederra, *Fonetika fonologia hitzez hitz*, 34).
- (550) Antzina, estimazio omen zioten *hurritzezko ibarbasotxoak egiteari* (P. Zabala, *Naturaren mintzoa*, 311).
- (551) Argizarizkoa dut bihotza Walserrek bere adiskidetzat hartu nauenetik, eta inoiz ez bezalako zentzua ikusten diot orain *lo egiteari* (Lertxundi, *Argizariaren egunak*, 96).
- (552) Ez hartzea pentsatu zuen, erdi lo baitzegoen, eta egoera hartan gorroto zion *hitz egiteari* (Mintegi, *Denak du bere prezioa*, 195).
- (553) Eta beldur diot *negar egiteari*; behin hasiz gero, atergabe aritu bainaiteke (Larrañaga, *Hona hemen gu biok*, 115).

³³ Beherago ikusiko dugun moduan, bi joskerak darabiltza Lardizabalek: *eman zion/zion*.

- (554) Ahalik luzeen eusten *zion usain egiteari*, mofeta hilaren kiratsetik gordezeko, eta, kalesako neska irakurzalearen agerraldi hura nekeak eragindako irudipen bati egotzirik, kafetegira itzuli zen berriro, liburua irakurtzen segitzeko gogoz (Lertxundi, *Azkenaz beste*, 63).
- (555) Ezezkoa eman zion *Italiara espedizioa egiteari*, Narsesen kontra, eta frankoek hara eramango zituzten bi buruzagi nola aukeratu zituzten ikusteko nahigabea izan zuen (Iñurrieta, *Legeen espirituaz II*, 314).
- (556) Orduan ere, *berriz egiteari* lotu ziren jendeak emeki emeki, uros oraino bizia salbatu ahal ukan baitzuten (Aintziburu & Etxarren, *Luzaiden gaindi*, 89).

Tradiziokoak:

- (557) Han moldatu zuen nolazpeit etxola txar bat; eta eman zen osoki *penitentzia egiteari* (Joannateguy, *Sainduen Bizitzia*, 85).
- (558) *Geroenean deadar andiangoak egiteari* eman zitzaion, esanaz; Zorigaiztoko Eliza, zorigaiztoko Jerusalem, zorigaiztoko Erria (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 538).
- (559) Errana zuten holetan ixtudiant frantsesek urde batzu zirela Rusoak *Alemanekin bakea berex egiteari* lotzen balinbaziren (Saint-Pierre, *Ikusiak*, 35).
- (560) Orain, gogo osoz, *bere neurriko euskal nobela bat egiteari* lotu nahi bazaio, beldurrik gabe egingo nuke hori ere emango digula, horretarako trabagarri dituen dohai bikainak brida estuz menderatzen baditu (Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak*, 101).
- (561) Hunat etorri zenean, egia den bezala erran dezadan, ez zuen berehala hartu hemengo ara; bainan azkenean jarria zen osoki *gurekilakoaren ahalik hobekiena egiteari*; guk ere hura hartua ginuen, elgarren xede onak ikusiz beti elgar hartzen den bezala (Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 69).
- (562) 1865 urtean aguazilgoa utzi ta Erriko-etxeko atezai jarri zan, *bandoa egiteari* utzi gabe (Alzaga, *San Tomas-eko feriya*, 127).
- (563) Itxi daiogun ekatxa zelan amaitu zan *esateari* (Aguirre, *Kresala*, 176).
- (564) Ikasle bezela, ospe txarra zuan, eta kalabazak ekarriko zituala igurikitzen zuten guztiek ikastetxean; *azterketan huts egiteari* erraiten diote kalabazak ekartea Arrigorrietan (Oskillaso, *Kurloiak*, 203).

- (565) Lapurrak ez deritxo ain deungaro bere lapurretiari. Baina bai inoren gaiski-esatiari. Logrerubak ez deritxue ain deungaro bere tratu engainuzkuari, ta kodizijario. Baina bai, *bestiak trago bat geijago edaatiari*. Zekenak ez deritxo deungaro bere diru gordetiari, ta inoren errukirik ezari. Baina bar bestiaren kastu alperrikakuai. Desonestubak ez dau gauza ezainik topetan bere ao, ta tratu loijetan. Baina txito deungaro deritxo, *biarra egin legijen jentiak, egunian meza bat entzutiari* (Fray Bartolome, *Icasiquizunac 2*, 221).
- (566) Bere eskuz ekin zion *landare-zuloak egiteari*; ta ori ikustea naikoa izan zan beste guztiak ere lan berari bizi-bizi ekiteko (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 31).
- (567) Gure fedea erakusten digu Zeruko erreñua irabazten dala bortxaz, au da gure gura, griña, ta jenio errebesak eskuratzeko, zuzentzeko, edo ezitzeko, saiatzen gerala, eta *obra onak egiteari* kontuz jarraitzen diogula (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac 3*, 286).
- (568) Bada, darraiozunean *bekatu egiteari*, Jangoikoganik urrinduten zareanean, geienez gaztea zara, sendo, osasundun ta indartsu zagoz; baña gero, Jangoikoagan biurtu ta urtu gura dozunean, gaixo zagoz, argal ta zarturik (Añibarro, *Gueroco guero*, 67).
- (569) Hala zuek ere dohain spiritual guthizioso zaretenez geroz, zarreitzate *hetan abundoso izateari* Elizaren edifikazionetan (Leizarraga, *Testamentu berria*, 309).
- (570) Basoa egitera zoazenean, *ondo egiteari* begiratu lenengo; ez asko egiteari (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 136).
- (571) *Nola dabilan jakiteari* lehiatu gogo naiz, badakialarik arren ez nitakela nehondik hel, ttipiak direlakotz ene ahalak eta handi haren golkoa (J. Etchepare, *Buruchkak*, 42).
- (572) Aithor dut etzaundala berehala gogoak eman, hala balinbazabilan jadanik, *ondoko egunetan ointhsik ibiltzeari* zagola gizagaixoa. (J. Etchepare, *Buruchkak*, 128).
- (573) Onelakoak nai dute konfesatu ta komulgatu txit sarri, astean bein edo birritan; baña aurrera lengo bizitza nagiari, aurrera *bekatu benialak ardura gabe ta ugari egiteari* (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 232).

7.3.4.6. *-TZEAK perpaus osagarriak*

Aurreko sailetan aipatu dugunez, ergatibozko perpausak dira kausa eragilea adierazteko moldeetariko bat:

(574) *Gehiegi erretzeak* hondatuko zaitu.

Jakina, kausa horren ondorioetariko bat, errekazio psikologikoa izan daiteke:

(575) *Senarrak isilka edateak* eragiten zion haserrea emazteari.

Predikatu jakin batzuk espezializaturik daude kausaren eta ondorioaren arteko lotura egiten, ondorioa ere perpausezkoa denean. Predikatuok *du* erregimenekoak dira: (*zerk zer*) *ekarri*, *eragin*, *sortu*, *-arazi*...:

(576) Senarraren portaerak eragin du familiaren galera.

(577) *Senarrak ezkutuan edateak* eragin/ekarri du *familiak behea jotzea*.

-TZEAK eta *-TZEA* biltzen diren halako esaldiek adierazpen generikoetarako baliatzen dira maiz, *zerk* eta *zer* abstraktuek hartuak baitituzte bestelako subjektu eta objektuak ager zitezkeen lekua:

(578) *Bizitzeak* berekin dakar *zahartzea*.

Adierazpena generikoa (edo orokor samarra) ez denean, *aktanteren* batek protagonismoa badu, bestelakoa izan ohi da joskera:

(579) ??Krisian sartzeak eragin du Patxik etxea merke saltzea.

(580) ???Krisian sartzeak eragin dio Patxiri etxea merke saltzea.

(581) *Krisian sartzeak* eraman/behartu du *Patxi etxea merke saltzera*.

- (582) ??*Senarrak isilka edateak* eragiten zuen emaztea amorratzea.
(583) ???*Senarrak isilka edateak* eragiten zion *emazteari amorratzea*.
(584) *Senarrak isilka edateak* amorratzen/amorrazten zuen emaztea.

Badira beste predikatu gobernatzailerik batzuek kausa-ondorio eskemari ez dagozkionak, hala nola *balio/meritu izan*:

- (585) Egiñak³⁴ balio du; ez *begi-zearka ta marmarka ibiltzeak* (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 64).

Beste batzuk, berriz, nahiz *izan* aditza bera egon tartean, kausa-ondoriozkoen sailean sar daitezke, hala nola *ordaina izan, ongi/gaizki/itsusi eman*:

- (586) Horra zer (ondorio/ordain) duen *txorakerietan ibiltzeak*.
(587) Ez du ondo ematen *ikasleei mehatxuka aritzeak*. [ondorioa: itxura on/txarra]

Predikaturen batek *zerk zerekin* joskera eskatzen du:

- (588) *Tripa handia izateak* ez du zerikusirik moko-fina izatearekin.

Inoiz, metaforikoa izan daiteke esapidea:

- (589) Zeren *hala ibiltzeak* ez du usan ona (Axular, *Guero*, 269).

–*TZEAK* perpausek ez dute kontrolik ezartzen (kontrolik balego, objektuak edo datiboak izan behar lukete kontrolatzaile, subjektua perpausa bera baita), nahiz, beti bezala, guztiz ere ohikoena izan erreferentziakidetasuna, besterik markatu ezean:

- (590) *Hainbeste erretzeak* hondatuko zaitu. [zuk erre, zu hondatu]

³⁴ Ikus berriro erlatibozkoaren eta osagarriaren arteko homomorfismoa: eginak = egin denak / egin izanak. Kasu horretan, eta gehienetan, erlatibozko irakurketa nagusitzen da aukeran.

(591) **Ingurukoek** *hainbeste erretzeak* hondatuko zaitu.

Aldaera burutua ere (*-TUAK / -TU IZANAK*) aukerakoa da. Kasu ohikoenean, ondorioa gauzatzerako kausa burutua dela nabarmentzeko baliatzen da:

(592) *Lagunak gezurra esateak* mintzen/mindu nau.

(593) *Lagunak gezurra esan izanak* mintzen/mindu nau.

Bidenabar esanda (*-TZEA* perpausen sailean jorratuko dugu luzexeago burutuen kontua), *izateak* formaren aldaera burutua *izanak* da erabat (ez da *izan izanak* joskerarik):

(594) *Pobre izateak* samintzen zaitu; lehenago *aberats izanak* saminagotzen.

(595) Orra zer dakarren Jaunaren laguntza *bere alde ez izanak* (Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 92).

Eta berdin, jakina, *izan* aditzaz osaturikoetan:

(ahal/ezin/nahi/behar/...) *izateak*

(ahal/ezin/nahi/behar/...) *izanak*

Gaur egun ahozkoan aski zabaldua dagoen aldaera (edo nahaste) baten ale bat ere aurkitu dugu tradizio-uztan:

(596) Ba'zirudian *jabea giltzaperatu izateak* (sic) min aundia eman ziola txalupari (Anabitarte, *Poli*, 29).

Non eta ez den bestelako hutsa (*giltzaperatu(a) izateak*), *giltzaperatu izanak* (edo *giltzaperatuak*) litzateke hor forma arauzkoa.

Hona *-TZEAK* perpausen adibide sorta bat, tradiziotik hautatua:

(597) Horra, Pello, nola *abila izateak*, batzuetan on bada, bertzetan ez duen ondorio onik (Elissamburu, *Piarres Adame*, 51).

- (598) *Zuekin ibiltzeak ez dit egin kalte (Uztapide, Noizbait, 59).*
- (599) *Ikusi egizu zer egiten edo eragiten daben limosneak, errukiorra ta miserikordiosua izateak (Añibarro, Gueroco guero, 161).*
- (600) *Horra zer dakarren bigunegixa izateak, erran zion osabak bere arrebari gelan sartu zanean (Oskillaso, Kurloiak, 207).*
- (601) *Bakarrik ez ibiltzeak ez du, honelako gaietan, onura baizik ekartzen (Mixelena, Euskal Idazlan Guztiak, 114).*
- (602) *Basoak galtzeak, ordea, giro-aldatzea ekarri die; ta lurrak galtzea; ta illebetetako legortek; eta eguzki kiskalgarriak; eta abereen bazka-larreak urritzea; ta ezin-bizia; ta, azkenez, al dan tokira joan-bearra (Munita, Gure mendi ta oianak, 147).*
- (603) *Elgarren ondotik ibiltzeak ahantzarazten deiea, guri bezala, hazkurriaren bilhatzeak manatzen diozkaten urhatsak (J. Etchepare, Buruchkak, 94).*
- (604) *Ez goseak, ez suak, ez Uriaren zati andi bat etsaiaren mendean egoteak beren uste zorotik ateratzen zituen (Lardizabal, Testamentu Zarr. Berr. condaira, 542).*
- (605) *Halakoa ez dosohoreak, ez ienden erraiteak, ez onen gastatzeak, ez fama gaixtoan iartzeak, ez loaren galtzeak, finean deusek ere eztu gibelatzen (Axular, Guero, 227).*
- (606) *Erresuma guziek diote elgarri: / frantses populua da orai hola jarri: / ume anitz galtzeak du apal-arazi (Etchamendy, Bertsuak, 137).*
- (607) *Sustraiak ateratzeak eta basoko frutak biltzeak denbor asko eramaten bazioten ere, ordu askotan zeregiñik gabe egon bear izaten zuen (Arrue, Santa Genoveva, 49).*
- (608) *Gauza batek bakarrik ituntzen nau: zazpi illabete oietan zure eskutitz bat bakarrik ez izateak (Irazusta, Bizia garratza da, 121).*
- (609) *Bere sor-herri Saran galtzeak baino anitez min gehiago egin zion haren bihotzari, bere Canbo maitean ez nausitzeak (Hiriart-Urruty, Mintzaira. Aurpegia. Gizon, 105).*
- (610) *Bena hersatzen bazira bethi bizi, eta iraiten dian egiala, adixkide baten hürrün-tziak, edo hiltziak etzütü tristetüren (Maister, Jesu-Kristen imitacionia, 257).*
- (611) *Ollo bat iltzeak naigabea emango zion (Anabitarte, Poli, 48).*

- (612) *Presondegi lurpekoan hertsirik egoteak* / berretzen darozte haukin gañera doloreak. (Etcheberri Ziburukoa, *Manual devotioñezcoa* 1, 121).
- (613) *Biziro maite degun norbaiten zorionaren iturribide izateak*, norkbere garaikundeak baño atsegin lasaiagoa ta zorion aundiagoa aizatzen dio maiz gizon zintzoaren biotzari (Agirre, *Uztaro*, 302).
- (614) Munduaren errankizunak, *munduari atsegin egin nahi izateak* zertarat ez dezakete erakhar bat-bedera (Larreguy, *Testamen çaharr. berr. historia* 2, 273).
- (615) Zer balio dau bada, *mediku izateak* / *diruaz tituloak Madrillen artzeak* (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 247).
- (616) Eztu deus balio *usain onez betherik ibiltzeak*, eta are gutiago berari dagokan baiño soñeko arropa ederragoak erabiltzeak (Axular, *Guero*, 270).
- (617) Amar urteko mutilltxo Maria guziz santaren deboto batek txit ondo progatu zuen zenbat balio duen *Ama laztan onen anparo eta mantupearan egoteak* (Arrue, *Mayetzeco illa*, 44).
- (618) Zer adirazi nai du *Apostolikoa izateak* (Ubillos, *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, 147).
- (619) Ta koroa eder ark, ta *alako Santuen artean ura egoteak* ori esan nai du (Cardaberaz, *Egercicioac* 2, 153).
- (620) *Trikuarri sallak eta artzai-sarobeak toki berberetan egoteak* naikoa adierazten digu garai aietako euskaldun asko artzai ibiltzen zirala (Barandiaran, *Euskalerriko Leen-Gizona*, 66).

7.3.5. *-TZEA perpaus osagarriak (eta -TZERIK)*

7.3.5.1. *-TZEA perpausen predikatu gobernatzailleak (haien sintaxi-testuinguruak)*

Absolutiboa da kasurik erabiliena, ia perpaus guztietan ageri baita absolutibozko sintagmaren bat. Hori horrela izanik, *-TZEA* perpausak dira perpaus osagarri jokatu gabeen artetik erabilienak; batez ere, oinarrizko *-TZEA* horri atzizkiren bat gehituz eratzen direkin alderaturik.

Horrek berak ikaragarri zailtzen du *-TZEA* perpausak gobernatzen (haustesten) dituzten predikatuen katalogo oso samar bat egitea: ugariegiak dira horretarako, bai kopuruz eta bai motaz. Saia gaitezke, ordea, askotariko predikatuok sarrien agertzen diren testuinguruetariko batzuk zehazten.

Lehenik, aurreko sailtako adibideetan ere agertu zaigunez, esan behar da badirela *-TZEA* perpausa beste perpaus osagarri jokatugabe batzuekin konbina daitekeen testuinguru batzuk:

(621) *Arma-saltzaile izatea* ez da ongi ezkontzen *bakezale izatearekin*.

(622) *Oraingo gudu hau galtzeak*, nik uste, *gerra galtzea* ekarriko luke.

(623) *Damu izatea* ez duzu aski *egindako okerrak ahazteko*.

Bi *-TZEA* perpaus ere konbina daitezke, batek predikatu-osagarriaren lekua harturik:

(624) *Isilik geratzea*, batzuetan, *ozen mintzatzea* izan daiteke.

Bestela ere, *-TZEA* bakarrarekin, predikatu-osagarriarena da testuingururik emankorrenetarikoa:

(625) *Larrosak ureztatzea* izan zen egin zuen azkeneko gauza.

Jakina, predikatu osagarria aukera-aukerakoa da balioespenak egiteko, eta mota horretakoak dira sail honetako esaldi asko edo gehienak:

(626) *Ona/txarra/itsusia/astakeria/harritzekoa/barkaezina/pozgarria* da *horrela jokatzeta*.

Halakoetan, generikotasuna eta inbertsonaltasuna nagusitzen da, halako objektibotasun-itxura emanez esaldiari. Balioespena dela eta balioeslea nor den markatzeko, bada bide bat baino gehiago:

(627) *Itsusia* da, nire ustez (nirekiko, niretzat), *horrela jokatzeta*.

(628) Itsusia iruditzen/begitantzen zait *horrela jokatzea*.

(629) Edonork gaitzetsiko luke *horrela jokatzea*.

Balioespen-zentzua dute, orobat, bestelako predikatu gobernatzaile askok:

(630) Ez zait ongi iruditzen *haurrak hor bakarrik uztea*.

(631) Ondo hartu al du *bera saririk gabe geratzea*?

(632) Komeniko litzateke *beste bide bat saiatzea*.

(633) Ez zuen merezi *hartan tematzea*.

Halakoetariko batzuk *izan/ukan* aditzaz osaturiko esapideak dira: *atsegin/gorroto/gogoko/higuin izan*.

Orain arte aipatu ditugun moldeetan, ez da kontrolik, eta erreferentziakidetasunik ere ez, askotan. Areago, predikatu bereziren batzuen kasuan izan ezik, datiboa gehitzeak ere, harekiko erreferentziakidetasuna nagusitu arren, ez du ezarri ohi kontrolik:

(634) Komeniko litzaizuke *ni joatea harekin hitz egitera*.

Kontrola aurkitzekotan, balioespenezkoen saila utzi eta beste predikatu batzuetara igaro behar dugu.

ERABAKI, ebatzi, pentsatu, baztertu (=ez egitea erabaki) (Ks)

Predikatu horren adiera arruntak (subjektu adimenduna eskatzen duenak³⁵) nahitaez agintzen du osagarriak adierazten duen gertakariaren subjektua erabakitzailea bera izatea (hots, kontrolatua izatea osagarriaren subjektua):

(635) *Lana uztea* erabaki dut. [nik erabaki, nik/*zuk/*hark utzi]

³⁵ Alde batera utzi behar da, beraz, honelakoetako kausa-ondorio adiera berezia: *Hautespen naturalak erabakitzen du bakoitza modu batekoa edo bestekoa izatea*.

Salbuespen-itxura izan dezakeen kasu bat bada, lehenago ere aipatu duguna: osagarriaren subjektua kontrolatzailearen *ardurapekoa* izatea (hiztun guztiak ez datoz guztiz bat halako esaldien egokitasunari buruz). Ikus dezagun adibide bat, jokatuarekin alderaturik (zentzu prospektiboak geroaldia edo subjuntiboa eskatzen du), kontua semantikoa dela egiaztatzeko:

(636) *Nire/*zure seme-alabek ikasteari uztea* erabaki dut.

(637) *Nire/*zure seme-alabek ikasteari utz diezaiotela* erabaki dut.

(638) *Nire/*zure seme-alabek ikasteari utziko diotela* erabaki dut.

Jakina, testuinguru bereziren batean *nik* horrek balu *zure* seme-alaben *ardura* (haien egintzei buruzko erabakimen edo aginpidea, nolabait), onargarri gerta litezke hor desagokitzat jo ditugun **zure* horiek.

AHANTZI/AHAZTU *du/zaio* (Ks/Kd)

(639) *Ahantzi/ahaztu du botila ixtea.*

(640) *Ahantzi/ahaztu zaio agiria ekartzea.*

Predikatu horrek *-TZEA* perpausekin antolatzen duen esaldia honela parafrasea daiteke: *Zerbait egin behar zuen, eta ez du egin*. Bistakoa da egitura semantiko horrek behartzen duela erreferentziakidetasuna, eta, beraz, kontrola dugula halako esaldietan.

DAMUTU *zaio*, damu izan

Kasu honetan ere antzeko eskema semantikoa dugu sakonean, kontrola eskatzen duena: *Zerbait egin du, eta ez egitea hobe zuela deritzo*. Osagarriaren zentzua, kasu honetan, ez da hor prospektiboa, atzera begirakoa baizik, baieztatu egiten baita dena delakoa gertatu (edo gertatzen) dela: *damua, gero dator beti*. Horregatik, testuinguru egokia da hori aldaera burutua ager dadin:

(641) Damutuko zaio *hain joko zikina erabiltzea/erabilia*.

(642) Damu dut orain *orduan gehiago saiatu ez izana*.

BARKATU *du/dio*

Predikatu honekin ere, osagarriak adierazten duen gertakaria aurretikotzat irudikatzen da, eta horregatik da testuinguru egokia aldaera burutua ager dadin:

(643) Barkatuko ahal didazu *hain berandu agertzea / agertu izana*.

Hor bezala datiboa agertzen bada, kontrola ezartzen du, eta hori da ohikoen-a: *Ak zerbait egin, Bk Ari hori barkatu*. Bestela ez, noski, halako adierazpen generiko bat edo egiten baita orduan:

(644) Inork ez luke barkatuko berarekin horrela portatzea.

DEBEKATU, galarazi, eragotzi, oztopatu, ahalbidetu, baimendu, onartu...

Predikatu sorta horren oinarrian honelatsuko zerbait dugu: *Ak zerbait egin nahi/behar, eta Bk Ari utzi edo ez utzi hori egiten*). Hona predikatu ohikoentari-ko batzuk (*ezin egitearekin loturikoak dira nagusi*):

Sail honetan ere, *du* moldean ez da kontrolik; predikatu gobernatzaillearen subjektuak ez baitu eskuarki protagonismorik osagarriaren adierazian:

(645) Alkateak debekatu du *hormetan iragarkiak jartzea*.

Kontrola ezarri nahi bada, datibora jo behar da:

(646) Alkateak galarazi die alderdiei *hormetan iragarkiak jartzea*.

(647) Ez nizuke onartuko *hain berandu etortzea*.

Beste predikatu batzuk ere, *du* moldekoak ez izanagatik, eskema berera datoz (Kd), non eta *da*→*du* eskema batera biltzen ez diren (Ks):

(648) Zilegi da *horrela jokatzea*.

(649) Zilegi zaizu/duzu *horrela jokatzea*.

Ohartzekoa da datiboak rol desberdina duela halakoetan (kontrolatzaile) eta balioespenezkoetan (irizle):

(650) Zilegi zaizu [zuk/*nik/*hark] *horrela jokatzea*.

(651) Jasanezin (iruditzen) zaizu [zuk/nik/hark] *horrela jokatzea*.

BALITEKE, litekeena da

Forma finko horiek *izan/gerta liteke(ena da)* balioko predikatuak dira, *-tzea* perpausak gobernatzen dituztenak. Balio modala du hala eraikitako esaldiak (ahaleraren *gertagarritasun* adierarekin lotua). Ondoan eman ditugu baliokide batzuk:

(652) Litekeena da / baliteke *ekitaldia gehiago luzatzea*.

(653) Ekitaldia gehiago luza daiteke (beharbada).

(654) Beharbada, gehiago luzatuko da ekitaldia.

Nolabait ere, ahalera adierazten duen puska bakarrik geratzen da perpaus nagusian, gainerako edukia osagarrian biltzen baita. Antzeko baliokidetasuna erakusten dute ahaleraren beste adierazpide batzuek (predikatu konplexuko izenak –*TZEKO* behartzen du, absolutiboaren lekua berak harturik):

(655) Badu aukera/modua / gai/gauza da *marka ontzeko*.

(656) Marka ondu dezake.

7.3.5.2. *EZIN IZAN + -TZEA perpausen forma*
(*ezin egin izatea / *ezin egitea*)

Gaur egungo testuetan, maiz samar aurkitzen ditugu honelako sintagma okerrak: **ezin egitea/joatea/ikustea*.

Badirudi bi forma egokion arteko nahastea dugula hor:

ezin joana (= joan ezina) [eredu berean: joan beharra/nahia/ahala]

ezin joan izatea [eredu berean: joan behar/nahi/ahal izatea]

Garbi gera bedi, bada, *-TZEA* perpausetan (eta oinarri horri atzizkia gehitzen zaionetan berdin) ez dela zuzena lokuzio modalen *izan* aditza ezabatzea, bestelakoetan bezala *ezin izanen* kasuan ere, ezeztapenarekin loturiko hitz-ordena baitu molde horrek alde bakarra:

joan behar izatea

joan nahi izatea

joan ahal izatea

*ezin joan izatea (*ezin joatea)*

7.3.5.3. *-TZERIK*

EGLU V-eko azalpenak. *-LA/-NIK* berizkuntzari dagozkio, baina orobatsu aplikagarri dira *-TZEA/-TZERIK* bereizkuntzarako.

Funtsezkoena:

- Predikatu gobernatzaile askok ez dute aukerarik ematen *-TZERIK* perpausik hartzeko. Besteak beste, erreakzio, jarrera zein iritziak adierazten

dituzten predikatuak ez dira ongi ezkontzen partitiboaren zentzu inespezifikoarekin: gertakari espezifikoa bati erantzuten diote.

- Aukera hori baden predikatuekin, hegoaldekoa baino ez da partitiboaren erabilera hori, eta berri samarra (duela bi mendetik honakoa).
- Ia erabat, ezezko perpausak gobernaturiko osagarriari soilik dagokie partitibozko aldaera.
- Ezezko perpausak adierazten duen ukapenak osagarriari eragiten ez diotenean –hots, osagarriak adierazten duen gertakaria gauzatutzat edo baieztatutzat jotzen denean–, debeku da partitiboa.

Ordainen bitartez (*hori* espezifikoa / *halakorik* inespezifikoa):

(657) Ez zaio damutu/ahantzi/iruditu hori/*halakorik.

(658) Nik ez dut erabaki/espero hori/halakorik.

(659) Ezaun da oneik eztabela nai *ele kutun au galtzerik* (K. Enbeita, *Bertsoak*, 86).

(660) Ez nuke inolaz ere *hitanozkoa galtzerik* nahi; are gutiago, halaz guztiz, hitanozko ez dena (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 390).

Osagarriaren proposizioa ukapenetik kanpo geratzen denean:

Ez nuen espero *zuek etortzeal/#etortzerik*. [etorri zineten, eta nik ez nuen hori espero]

Ez da(go) inora joaterik. ereduko esamoldeak joko murriztekoa: *izan/egon* edo *ukan/eduki*, eta ezezka:

(661) Ez dago-da/daukazu-duzu erretzerik.

(662) Emen etziok denbora galtzerik i zakur-zuloetan ibiltze'itzanian bezela (Anabitarte, *Poli*, 42).

(663) Ez zegoen galtzerik (Mixelena, *Euskal Idazlan Guztiak I*, 100).

(664) Ez degu astirik galtzerik (Labayen, *Euskal-Eguna*, 87).

Baiezkoan, zabaltzen ari den arren, ez du tradizioirik:

(665) ??? Badago/badaukazu erretzea/erretzerik.

Beste esamolde honek, berriz, beste esanahi bat du:

(666) Joatea zeukan. (=aski zuen joatea)

7.3.6. *Zehar-galdera jokatugabezko perpaus osagarriak*

Honelako perpausak ditugu sail honetakoak:

(667) Pentsatuko dut *zer egin*.

Aditzoinak eta partizipioak forma desberdina dutenean, ez datoz bat Ekialdeko euskalkiak eta Mendebaldekoak³⁶:

(668) Zalantzan dira *noren alde bozka*. (Ek: aditzoina)

(669) Zalantzan daude *noren alde bozkatu*. (Mend.: partizipioa)

Zehar-galdera jokatuaren aldean, oso murrizta da jokatugabeen aukera, are predikatu gobernatzailer berarekin:

JOKATUAK

(670) Badakizu zer (gauza ederra) erosi [erosten, erosiko] duen.

(671) Badakizu erosi duen(-etz)?

(672) Badakizu zer (gauza ederra) erosi nahi/behar duen.

³⁶ Aldea, hala ere, formal hutsa da, burututasunik adierazten ez duen erabilera baita hor partizipioarena, aditzaren eduki lexikoa baino adierazten ez duena: hortik aditzoinarekiko baliokidetasuna, aginteran-eta bezala: *gaizki esanak barka(tu)*.

JOKATUGABEAK

(673) Badakizu *zer eros(i)*. [*erosten, *erosiko]

(674) *Badakizu eros(i)?

(675) *Badakizu zer gauza ederra eros(i).

Zehazkiago, honako baldintza hauek bete behar ditu jokatugabeak:

- Zehar-galdera jokatu benetako *galdera* bati dagokion motakoa izatea, eta ez harridurazkoa:

(676) Ez dakizu zer erosi behar duzun! (nolakoa ona/txarra den erosiko duzuna) >

(677) #Ez dakizu *zer eros(i)*.

(678) Ez dakizu zer erosi behar duzun. (aukeratzeko zalantza) >

(679) Ez dakizu *zer eros(i)*.

- Subjektua erreferentziakide izatea (kontrolatua).

(680) *Ez dakizu *guk zer eros(i)*.

- Galde-hitza eramatea, hots, zati-galdera bati dagokiona izatea (edo *-tu ala ez* erakoa izan)

(681) *Ez dakizu *igandean etorri*.

- Zentzu prospektiboa izatea.

(682) *Ez dakizu atzo zer eros(i).

Azken ezaugarri horrek nolabaiteko sinonimia ezartzen du jokatugabearen eta jokatu modalizatu mota jakin baten artean, eman ditugun baliokide jokatuen erakusten dutenez:

- (683) Badakizu *zer eros(i)*.
- (684) Badakizu zer erosi **behar** duzun.
- (685) Orduan erabaki nuen *nola joka(tu)*.
- (686) Orduan erabaki nuen nola jokatu **behar** nuen.

Hurbilpen modura, bada, honako egitura honetako perpaus jokatuena nola-baiteko sinonimotzat jo genitzake jokatu gabeak:

zer/norentzat/norekin/nola... partizipioa + behar + indikatibozko adizkia + -n

Horiek horrela, nola edo halako *erabaki behar* baten ingurukoak dira predikatu gobernatzaileak:

zalantzan egon, pentsatu...

eztabaidatu, adostu...

garbi eduki...

jakin, ikasi, irakatsi-erakutsi

erabaki

agindu, esan

- (687) Arako Karpo Santuak desditxa au ikusi zuenean, ta Jesus gu6ziz maitearen grazia, ta amorezko bidetik ardi ori igeska deabruaren ondoren joan zitzaiola, bere biotza lutoz bete, illundu, ta penaren penaz *zer egin*, edo *zer esan* etzekien (Cardaberaz, *Egercicioac* 2, 157).
- (688) Arterik artu eziñik ebiltzezan, gaxuak, uste guztijak galduta, *nora jo* ezekijela (Otxolua, *Bertolda eta Bertoldin*, 49).
- (689) Zalantzan bazaude *zer sartu*, galdetu dakienari (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 152).

Predikatu gobernatzailaren subjektua da, oro har, kontrolatzailea. *Aginduesan* eta *irakatsi-erakutsi* aditz arazlea dira salbuespen nagusia, eragileak hartzen baitu hor subjektuaren kasua, eta datiboak ezartzen orduan kontrola:

(690) ikasi zuen *nola joka(tu)* [+eragile (ni)] > nik irakatsi nion *nola joka(tu)*

Zuzen diogu *erabaki behar* baten ideia dugula halakoetan, ez baitute gauza bera adierazten bi perpaus osagarri jokatu gabe hauek:

(691) Ez daki *erosten*.

(692) Ez daki *zer erosi* (behar duen)

Ez eta hauek ere, berdin:

(693) Irakatsi diot *jokatzen*.

(694) Irakatsi diot *nola jokatu* (behar duen).

Bigarren motako osagarriek, diogunez, ez dute adierazten jarduera bat, baik eta jarduera (edo bestelako egiteko) bati buruzko *estrategia* edo; hots, erabakien kudeaketari dagokion zerbait. Eta badirudi nahikoa funtsezkoa dela erabakien kudeaketa hori hizkuntzarentzat, horri soilik eskainia baita atal honetan jorratu dugun perpaus osagarri jokatu gabe mota.

Batzuetan, partizipioa aurretik ager daiteke, galde-hitza bakarrik utziz:

(695) Elizako gauzak **artu** nai ta etzekien *nola [artu]*, zeren itxeko hereje nagusiak naiko etzuen ark oriek aren itxean arzea (Mendiburu, *Mendibururen idazlan argitaragabeak I*, 187).

Galde-hitz bat baino gehiago ere ager daiteke, bestelako zehar-galderetan bezala:

(696) *Nun zer aldatu* zalantzan bazaude, galdetu ta mendi-zaiak esango dizu (Munita, *Gure mendi ta oianak*, 152).

Galde-hitzik gabeko aldaera bat ere bada, *-tu ala ez* edo *-tu ez -tu* osaerakoa:

(697) Zeuk jakingo duzu *etorri ala ez*.

(698) Gizonak, *mutillaren alde jarri ez jarri*, zalantzan egozan, baiña ango emakume bakarrak egundoko txilio ta oiua egin zituan mutillaren alde (Erkiaga, *Batetik bestera*, 29).

Osaeraren aldetik antzekoa den arren, ez da osagarrien sailekoa [galde-hitza + *-TUKO*] moldeko perpausa:

(699) Zain dago(,) lagunak noiz **etorriko / zer gertatuko**.

Testuinguru semantiko guztiz mugatuan erabiltzen den molde horrek erlatibo mota jakin baten tankera du (ikus Perpaus erlatiboak, 6.3.): *noiz etorriko (diren), (etortze) horren zain*. Inoiz, *zain* edo sinonimoa ezabaturik egon daiteke, eta moduzkoen itxura hartzen du: *Hantxe gelditu dira, zuk noiz deituko*.

7.4. PERPAUS OSAGARRI MOLDE BATZUEN BEREZITASUNAK

7.4.1. *-TZEN/-TZERA eta -TZEKO alternantzia*

7.4.1.1. *Saiatu/enseiatu*

Bai *saiatu* eta bai *en(t)se(i)atu* bai *-tzen* eta bai *-TZERA* perpausekin konbinatzen dira, balio berarekin. Hizkera bakoitzarena da aukera (nahiz, oro har, Ekialdea/Mendebaldea den, hor nonbait, *-TZERA /-TZERA* banaketari dagokiona. Ez datoz bat, adibidez, klasiko biok:

(700) Nola oraidanik behar dugun, *geroko begira egon gabe, ontasunean irautera eta perseberatzera* enseiatu (Axular, *Guero*, 296).

(701) Zein tenplearen **profanatzan** ere enseiatu izan baita (Leizarraga, *Testamentu Berria*, 256).

Gipuzkeraz ere bi moldeak aurkitzen ditugu, beste predikatu batzuekin bezala (*ausartu...*):

- (702) Ta *elkar ezagutzen* **saiatzen** ez geralako (Barriola, *Goi-Argi*, 26).
- (703) Eta uste onekin *kanta, musika, festa eta jostaketan bidez bere konzienzi galduaren imurtzi eta kezkak* **aienatzera** al guziaz saiitzen zan (Arrue, *Santa Genoveva*, 94).

Gaur egun prosan nekez aurkitzen dugun aukera bat badu *saiatuk* tradizioan, **-TZEKO** osagarria har baitezake, are **-TZERA** ere badarabilen idazlearen luman:

- (704) Begira gurasoa, *aurdun ez* **geratzeko** saiatu ote zeran, dala edariz, dala beste modu itsusiakin (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 2, 80).
- (705) Zeren saiatu etzeran *umeentzako ezer* **biltzera**, eta oraiñ uzten diezu, al duen eran, ibiltzen, zureak ezpalira bezala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 2, 89).

Ez dirudi alderik dagoenik joskera horien bitartez adierazten direnen artean ere.

7.4.1.2. *Prest izan/egon*

- (706) Benetako penitentiak prest egon biar dabela *leenago* **galdutera** onra, *ondasun, bizitza, ta edozein gauza* Jangoikua opendidu baño (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 3).
- (707) Zelango negarrakaz urten eruen, *meza* **enzuteko** prest ez egozalako (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 230).

7.4.1.3. *Zail(a)/erraz(a) izan*

- (708) a. Etsean dagoan gatxa erraz da **ezauten** (*Refranes y sentencias*, 434)
- b. Ongi dakigu ogia **jaten** / emen ez dagola errez (Basarri, *Kantari nator*, 138)

- c. Erraxago izanen dela **sendatzen** eta **erremediatzen** (Axular, *Guero*, 84)
- d. Karga arina dela eta **iasaitako** erraza (Axular, *Guero*, 499)
- e. Oiturau esan eban zala aiñ zitala, / eta **kentzeko** barriz erraza etzala (Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 218).

7.4.1.4. *Trebe/abil izan*

- (709) Etzen trebe izandu bere etxean Jesus **artzera** (Mendiburu, *Otoitz-gaiak*, 389)
- (710) Ukaldondoa **jasotzen** trebea dala (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldia* 2, 223).
- (711) Izan bedi izkuntzak / **ikasten** trebea (Basarri, *Kantari nator*, 180).
- (712) Gaurko gazteak noiznai / **edateko** trebe, / eguzkiari kaso / asko egin gabe (Basarri, *Kantari nator*, 148).
- (713) Bideak azkar **pasatzeko** bai / bizkorak eta abillak (Basarri, *Kantari nator*, 94).
- (714) Trebe baino trebeagoa izan da bethi hitz berriak **sortzeko** (Mitxelena, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 355).
- (715) Ikhasateko buru gogorra banuen, Pello, ez zuan hargatik eskola guzian haur bakhar bat ni bezain abila zenik arbolen gainerat **igateko** (Elissamburu, *Piarres Adame*, 36).
- (716) “Zaldiz **ibilteko** trebe eztenak obe du oinez ibili (B)” (Azkue, *DVEF*, II, 288).

7.4.2. *-TZEA/-TZEKO alternantzia*

7.4.2.1. *[aditza + -TZEA/-TZEKO] eta [izena+aditza + -TZEKO]*

AGINDU ereduko aditzek *-TZEKO* hautesten dute (*-TZEKO agindu*), aditz-esapide objektudunek bezala (*-TZEKO agindua eman*):

- (717) Agindua eman du/dizu *atzera egiteko*.
- (718) *Atzera egiteko* agindu du/dizu.

Beste predikatu askorekin, berriz, *-TZEKO/-tzea* alternantzia aurkitzen dugu halakoetan:

(719) **Erabakia hartu** du *haurrei ezer ez esateko*.

(720) **Erabaki** du *haurrei ezer ez esatea*.

Hots, objektuaren lekua libre badago (aditz soila), hari berez dagokion absolutibozko forma hartzen du osagarriak: *-tzea*. Objektuaren lekua harturik badago, berriz, *-TZEKO* moldera biltzen da. Okerrak dira, bada, alderantzizko konbinazioak:

(721) ***Erabakia hartu** du *atzera egitea*.

(722) ***Erabaki** du *atzera egiteko*.

Bestelakoak dira, esan bezala, AGINDU³⁷ ereduak, *-TZEKO* perpausak betetzen baitu haietan absolutibozko objektuaren lekua (*zer/hori*):

(723) Zer erabaki du, *atzera egitea*?

(724) Zer agindu du/dizu, *atzera egiteko*?

Eredu bietan ere, beraz, esapide objektudunak dira (*erabakia hartu, agindua eman...*) *-TZEKO* perpaus osagarrien sorbururik sistematikoena, bestelako gehienek (*erabaki, pentsatu, ahaztu, begi onez ikusi, gaitzetsi...*) *-TZEA* hartzen baitute.

Horrekin loturik, atarikoan azaldu dugunez, halako esapideetako izenkien osagarri gisa ere ager daitezke *-TZEKO* perpausak, hots, izenlagun funtzioan. Izan ere, izenlagunen atzizki tipikoaz osatuak dira formalki: *-KO*. (ikus 3.3.6.)

(725) *Atzera egiteko* **agindu/erabaki**aren ondorioa izan zen guztia.

³⁷ Alde batera utzi beharra dago orain homonimoa, agintearen zerikusia ez duena: *zerbait egitea agindu = zerbait egiteko promes egin*.

Prototipo gisa eman dugun AGINDU (= *ordena eman*) horrek badu homonimo bat beste esanahi bat duena (*promes egin*). Bitasun hori syntaxian islatzen da:

(726) *Opariak ekartzeko* agindu du. [agindua, ordena]

(727) *Opariak ekartzea* agindu du. [agintza, promesa]

Izan ere, aipatu dugunez, *-TZEKO* perpausak berak ematen die predikatuei aginterarekin loturiko esanahi hori, bestela halakorik ez dutenean ere (*esan, iradoki*):

(728) *Opariak ekartzeko* esan du [Esan du ekar ditzazuela/ditzatela/ditzagula. / Esan du: <<Ekar itzazue/bitzate>>].

7.4.2.2. *-TZEA ESKATU eta -TZEKO ESKATU*

Predikatu bereziren batekin, sotilagoa da *-TZEA/-TZEKO* alternantzia. Aipagarriena, zalantzarik gabe, *eskatu*:

(729) *Gelak lehenago irekitzea eskatu du* zuzendariak.

(730) *Gelak lehenago irekitzeko eskatu die* atezainei.

Bigarreanean, datiboak kontrolatua da *-TZEKO* perpausa. Lehenean, *-TZEA* osagarriarekin, ez da kontrola ezartzeko datiborik, eta guztiz irekia geratzen da, beraz, *irekitze* horren subjektua. Inpertsionaltzat hartuko genuke hor, baina ager daiteke subjektu espliziturik:

(731) *Atezainek/irakasleok/zuek gelak lehenago irekitzea* eskatu du zuzendariak.

Bestalde, bada esamolde berezi bat predikatu berarekin *-TZEA* darabilena baina beste esanahi bat duena:

(732) *Atezainen lanorduak aldatzea* eskatuko luke horrek [gelak lehenago irekitzeak].

Adiera horren baldintza *eskaturen* subjektua abstraktua izatea da:

horrek (Patxik) zerbait eskatu ≠ horrek (hori egiteak) zerbait eskatu

Subjektu abstraktuzko eskatu hori, hain zuzen, honela pafrasea daiteke:

horretarako (hori egiteko), zerbait beharrezkoa izan

Gehienetan, ez da datiborik ageri erabilera horretan, eta ez da, beraz, kontrolik. Hala ere, agertzen bada, kontrola ezartzen du datiboak, baina *-TZEA* formarik eusten zaio, bestelako subjektuzkoekin ez bezala:

(733) *Atezainen lanordua* **aldatzeko** eskatuko liguke horrek [=Patxik].

(734) *Atezainen ordutegia* **aldatzea** eskatuko liguke horrek [= hori egiteak]³⁸.

Esapide berezi horretatik landa, aipatzekoa da pertsona dela prototipikoki *eskatu/galdatau* predikatuaren subjektuaren erreferentea, baina bestelako izakiak ere izan daitezkeela, pertsonifikaturik. Horren kasu guztiz ohikoa dira honelakoak:

(735) Gorputzak/barrenak/bihotzak eskatzen dit *horrela jokatzeari*.

Halakoetatik kanpo, bada, *norbaitek zerbait egiteko eskatu norbaiti* da prototipoa. Alegia, prototipo horretatik nola edo hala aldentzean aurkitzen dugula *-TZEA eskatu*.

Badirudi, hala ere, hiztun batzuek ez dutela beti guk hemen adierazi dugun bezain garbi egiten *-TZEKO/-TZEA* bereizkuntza hori. Besteak beste, gerta daiteke hiztunaren buruan egotea esaldiak ageri ez duen kontrol-erlazioa, eta

³⁸ Beste aditzen batek ere joko bertsua ematen du: *Saindutasunaz zuk duzun idea ez da ene goarako; ahalgearri zait; ezik manatzen dautzu eske ibiltzea, soineko txar baten ekhar-tzea, laidu guztien barkhatzea*. (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 130).

horrek lerraraztea jokia *-tzea* joskeratik *-TZEKO* joskerara, nahiz datiborik ez agertu:

- (736) *Gelak goizago irekitzea* eskatu du zuzendariak.[eskabide edo baimen-eske hori egin du, dagokionaren aurrean]
- (737) *Gelak goizago irekitzeko* eskatu du [=digu] zuzendariak. [zuzendariaren manupekoak beretzat harturik haren eskaera]

Bigarren erabilera horretan, *aginduren* joskera berera dator *eskatu*.

Hiztun batzuk, inoiz, alderantziz desbideratzen dira prototipotik, *-TZEKO* joskeratik *-TZEA* joskerara. Kasu horretan, beste joskera batzuen analogiak eragin dezake nahastea (edota anakoluto arruntak), eta halako esaldiek ez zai-zkie onargarri gertatzen hiztun gehienei:

- (738) ???Horregatik eskatu behar dizut *mesedez pixka batean isilik egotea*.

Bada, hala ere, esamolde bat beti *-TZEA* joskeraz eraikitzen dena, nahiz eta datiboa agertu:

- (739) Hain jostailu merkeari ezin zaio/diozu eskatu *iraunkorra izatea*.

Bistakoa da horrek hautsi egiten duela *eskaturen* egitura prototipikoa. Hasteko, adierazpen generikoa da, aspektu burutuan zentzurik ez duena:

- (740) *Hain jostailu merkeari ezin izan zaio/diozu eskatu *iraunkorra izatea*.

Hain zuzen ere, honela parafrasea daiteke *eskaturen* ideia hor:

zerbaiti/norbaiti horrelakoa izatea eskatu = zerbaitek/norbaitek eskakizun horiek bete

Gakoa ez da, bada, datiboko sintagmaren erreferentea pertsona bat ez izatea, baizik eta osagarriaren predikatua egiletasunezkoa ez izatea. Bide batez,

zentzu prospektiboa erabat ahultzen da joskera eta adiera horretan, ez baitago egiteko egintzarik:

(741) Halako jendeari nik ez diot eskatzen, noski, *eskuzabala izatea*.

Esanahia egiletasunezkoa bada, joskera prototipikora itzultzen gara, hark islatzen baitu *eskatu*-ren semantika tipikoena (*norbaitek norbaiti zerbait egiteko eskatu*). Ikus nola aldatzen den zentzua joskera horrekin, are *eskuzabala izate* perpaus bera erabilirik:

(742) Inork ez zion eskatu, hala ere, *eskuzabala izateko* [=eskuzabal jokatzeko].

Egiletasunik bai/ezaren ildo horretatik orokortu daiteke alternantzia guztia edo gehiena. Hala, hasierako gure adibide hartan ere, egilerik ezak behartuko luke *-TZEKO* joskeratik aldentzea:

(743) *Gelak goizago irekitzea* eskatu du zuzendariak. [*hori gerta dadila eskatu*³⁹]

Hots, *zerbait gertatzea* eskatu eta *norbaiti zerbait egiteko* eskatu dateke bereizkuntza semantikoa eta sintaktikoa.

Zerbait gertatze horren barruan, jakina, egon liteke egileren bat, baina *gertatze* horretan bildua geratzen da (kontrolrik ez denez, aditz bakoitzak du bere subjektua):

(744) (Irakasleok gelak goizago irekitzea eskatu du zuzendariak.

³⁹ Halako joskeretan, berdina da, noski, *galdaturen* portaera, aurrerago ere ikusiko dugunez:

Bakharrik zituen hirur gauza galdatu; lehena, *sei aste hartan ikhusi ez zuen bere familiaren ikhustea*; bigarrena, kofesor bat, bere hautukoa; hirugarrena, hirur egun hiltzerat preparatzeko (M. Elissamburu, *Framazonak*, 108).

Beste joskerak, berriz, eskaera prototipikoari dagokionak, egile bat ezartzen du zuzenean, kontrolaren bitartez (*nori eskatu > hark egin*):

(745) *Gelak goizago irekitzeko eskatu dizu zuzendariak.*

Izan dezake nolabaiteko zerikusia joskera-gorabehera horretan guztian *eskatu* aditzaren bilakerak, antzina *da-zaio* joskerako aditza baitzen (*eske aritu* balitz bezala), eta ez *du-dio* aditza:

bere poltsa(ren) eskatu jako > bere poltsa eskatu dio

Antzinako joskerak ez zuen biderik uzten perpaus osagarriarentzat. Forma berria datiboduna da, eta hartatik eraikia gero datiborik gabea, *du* aditzen eremuan: *eskatu dio > eskatu du*. Horrek argitu dezake zergatik den, *eskatu* aditzaren kasuan, *dio* jokia ohikoagoa *du* jokia baino (sematikoki ere, eskaerak *nori* bat galdatzen du berez, prototipoan, nahiz gero hura ez zuzenean agertu testuan: *aterpea eskatu dute etxe hartan* [etxe hartakoei eskatu, noski]).

Osagarriari dagokionez, jokatuak baino ez zitezkeen eratu antzinako joskera hartan⁴⁰:

(746) Ikusleari eskatuko nax emon dagiala kontua (Micoleta, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, 15r).

Gaur egungo joskera prototipikoak (eta *-TZEKO* moldekoek, oro har) beste oinarri bat ere izan lezake, formaz eta esanahiz:

zerbait egiteko **eskea egin** norbaiti

zerbait egiteko **eskatu** norbaiti

⁴⁰ Teorian, *Eskatu natzai*o barkatzeaz zatekeen jokatu gabearen aukera, baina ez dugu aurkitu gisa horretakorik korpusean.

Halako historiari ez badu ere, *galdatu* (edo, hor ere, sinonimiaz, *galdegin*) aditzak antzeko joko du (alde batera utzirik, jakina, *eskaturen* sinonimoa ez den kasuak). Datiborik ezean, *eskatuk* bezala jokutzen du:

(747) Bertzerik ez zuen galdatzen Iñaziok, *Jerusalemerrat urririk juaitea* baizik (Laphitz, *Bi saindu hescualdunen bizia*, 60).

(748) *Lo egitea* galdatu zuten etxe batean (Barbier, *Légendes*, 57).

Datiboarekin, berriz, *OEH*-k iradokitzen du –azalpen semantiko lausoz eta zubererazko adibide bakar batekin, hala ere– –*TZEKO* dagokiola batzuetan⁴¹.

(749) [Aitak] jaun horier galthatü ükhen otoritatez, / *presu begiratzeko* librantxaik ükhen gabez (Etchahun, *Bertsoak*, 142).

Molde hori orokorra izatera, berdinak lirateke *eskaturen* eta *galdatu* nahiz *galdeginen* joskerak.

(750) Eskatu zion *yexteko* (Iraizoz, *Yesukristoren bizia*, 74).

Garbi dago, ordea, ez dela, inolaz ere, –*TZEKO* *galdatu/galdegin* aukera hori nagusi datiboa ageri den kasu tipikoan ere (*OEH*ak ez ditu noski bereizten datibodunak eta besteak, baina salbuespen guztiz bakantzat jotzen ditu –*tzeko* moldekoak *galdatu* nahiz *galdeginekin*):

(751) *Kantuz ihardestea* baiteraut galdatu (Xalbador, *Odolaren mintzoa*, 43).

Horrekin loturik dagoke (ikus *EGLU VI*) jokatueta ere bi joskera agertzea (*eskaturekin*, bigarren aukera da prototipikoa):

⁴¹ Cuando el complemento es una oración, el verbo de ésta va usualmente o bien conjugado en subjuntivo o con el suf. *-t(z)ea* (parece que es *-t(z)eko*, en cambio, cuando el sentido es ‘exigir, demandar’; v. *infra* el ej. de Etchahun, que usa *-t(z)ea* en otras ocasiones (p.ej. 582)).

(752) Kantuz ihardets dezadan/dezadala galdatu dit.

(753) Kantuz ihardestea/ihardesteko galdatu dit.

Aski garbia da *OEH*-ren irizpena *galdeginen* kasuan:

Tr. Propio de la tradición septentrional desde sus primeros textos, fuera de la cual lo encontramos en Mendiburu, *CatSal* (hay *eskatu* en cambio en *CatAe* y *CatR*), Irigaray, Orixe y Villasante. Cuando el objeto es una oración subordinada, el verbo de ésta puede ser el sust. verbal *(-t(z)ea)* o verbo conjugado con los aux. de subjuntivo (*eman diezaión*); hemos encontrado una vez *-t(z)eko*, en cambio, en Etcheberri de Sara (*Galdegin betzo* [ene semeari] *eskuarazko zenbait perpaus latinez ihardesteko*. ES 400).

Hizkera edo hiztun berak biak bereizten baditu, *OEH*-k iradokitzen duenaren arrastotik interpretatu beharko da aldea. Hala, *manatutik* hurbilago dagoke bigarren aukera (*-LA*, *-TZEKO*):

(adeitsuki) galdatu dit *kantuz ihardestea* [ihardets dezadan]

(larderiaz) galdatu die *ni preso edukitzeko* [eduki nazatela]

Azalpen horrek Etchahunen erabilera argitu dezake, agian, baina ez dirudi *-TZEKO galdatu/galdegin* moldea denik oro har araua, *-tzea galdatu/galdegin* baizik⁴².

Salbuespen bakanok alde batera utzita, beraz, *eskaturi* baino ez dagokio *-TZEKO* moldea. Eta, kasu horretan ere, guk hemen prototipikotzat jo dugun kasuan baino ez: *norbaitek norbaiti zerbait egiteko eskatu*. Kasua formalki hala mugaturik egoteak, jakina, ez du eragozten molde hori guztiz arrunta izatea. Zentzu horretan hartu behar da, eta ez bestetan, *prototipoa*.

⁴² Beste joskera batzuk ere aurkitzen ditugu Iparraldeko tradizioan, baina *-TZEKO* moldeaz bestekoak:

galdatu zaitu/dizu horren egitera(t)/egiteaz.

Gainerako kasuetan –hots, *norbaitek norbaiti zerbait egiteko eskatu* eredu-
tik nola edo hala aldentzen diren guztietan– *-tzea eskatu* joskera dagokio.

Hona, bada, hemendik aurrera eskaera-predikatuon joskera laburturik.

Arrunta da *galdatu*, *galdegin* eta (joskera modernoan) *eskatu* aditzen *du*
joskera, absolutibozko objektua eskatzen duena:

norbaitek zerbait eskatu

Eskatzen den *gauza* hori abstraktua izan daiteke, hala nola *elkartasuna*
edo, perpausez, *denok elkarren kide izatea*.

Bestalde, *eskaturen* ideia prototipikoaren subjektua *norbaitek* izanik ere,
irudizko zentzuak orobat baimentzen du *zerbaitek*:

(754) Halako lurrak ur asko (ematea) eskatzen/galdatzen du.

(755) Lan horrek ahalegin gogorra (egitea) eskatzen/galdatzen du.

(756) Ehizak *begi zorrotza izatea* eskatzen/galdatzen du.

Molde horretan, *zerbaitek zerbait eskatu* da eredia. *Zerbait* hori ez da ha-
lakoetan egiledun bati dagokion egintza, bete beharreko baldintza generiko
bat baizik: *eskakizun* bat, hain zuzen ere. Eskakizun generikoaren zentzu be-
rean ulertzen da *zerbaiti zerbait eskatu* eredia ere:

(757) Halako neurgailuari *fidagarria izatea* eskatzen zaio.

Ez dira aldatzen adiera eta joskera subjektua pertsona izanik ere:

(758) Gizagaixo horri ezin zaio eskatu *fidagarria izatea*.

Horretaraino, bada, beti dugu *-tzea eskatu*. Eta berdin *-tzea galdatu/galdegin*.

Zentzua aldatu egiten da, ordea, eta harekin joskera, ideia *zerbait eskatu* izatetik *zerbait egiteko eskatu* izatera pasatzen denean. Kasu horretan, *norbaitek* da subjektua, eta hitzez edo zeinu baliokidez adierazten dio subjektu horrek beste *norbaiti* hark dena delakoa *egitea* nahi duela. Alegia, *egite* gisa ulertu behar da perpaus osagarriak adierazten duena, eta zentzu prospektiboan:

(759) Zuk eskatu zenidan *egia esateko*.

(760) *Zuk eskatu zenidan *egia esatea*.

Goragoko eskakizun-zentzu generikoa eta *norbaitek zerbait egiteko eskatu norbaiti* ereduko eskaera (proto)tipikoa antzeko formara etor litezke kasu bakanen batean, baina ez da ohikoa, eta, hain zuzen ere, *-TZEA/-TZEKO* bereizkuntzak argituko du zentzua:

(761) Gizagaixo horri nola(tan) eskatuko diozu (ba) *egia esatea*. [hark ez du betetzen *egiatia izatea* delako baldintza]

(762) Gizagaixo horri nola (zer gisaz) eskatuko diozu *egia esateko?* [gutunez eskatuko diozu *hori egiteko?*].

Egiletasunarena, garbi gera bedi, esaldiaren interpretazioaren baitan dago. Predikatu eta are perpaus berbera modu batera zein bestera uler daiteke sarritan:

(763) Mundu guztiari ezin zaio/diozu eskatu *eskuzabala izatea*. [*ezaugarri hori izatea* eskatu]

(764) Mundu guztiari ezin zaio/diozu eskatu *eskuzabala izateko*. [*horrela jokatzeko* eskatu]

Oro har, *galdatu* nahiz *galdegin* aditzek ez dute jarraitzen *eskaturen* bidea, eta *-tzea* moldeari eusten diote *norbaitek zerbait egitea galdatu/galdegin norbaiti* joskeran ere.

Adibideren bat edo beste bada tradizioan, baina salbuespen bakanak dirudite halako *-TZEKO galdatu/galdegin* joskerak. Kasuren batean, agindutik hurbileko zentzura lerratzen ote den dirudi:

- (765) [Aitak] jaun horier galthatü ùkhen otoritatez, / *presu begiratzeko* librantxaik ùkhen gabez (Etchahun, *Bertsoak*, 142).

Honelatsu, bada:

- (766) Galdata (ordena eman) die: “begira ezazue preso”.
- (767) Galdata (ordena eman) die preso begira dezatela.
- (768) Galdata (ordena eman) die *presu begiratzeko*.

Ordenaren zentzu horretatik landa, besterik genuke oinarrian benetako eskaeran, eta, handik, osagarrian:

- (769) Galdata die: “begiratuko duzue, otoi, preso?”.
- (770) Galdata die otoi preso begiratzea.

7.4.3. –TZEA eta –TZEN predikatu berarekin

Predikatu gobernatzaile berarekin aukerakoak direnean, ez dute zentzu bera –TZEA eta –TZEN perpausek. Lehenak, gertakari bat adierazten du:

- (771) Tangoa dantzatu behar zuen, eta ez du dantzatu. Ahaztu zaio *hori egitea* (ez du egin halakorik). Ahaztu zaio *tangoa dantzatzea*.

Bigarrenak, berriz, jarduera bat:

- (772) Lehen bazekien *tangoa dantzatzen*, eta orain ez. Ahaztu zaio (ez daki jada) *hori egiten*. Ahaztu zaio *tangoa dantzatzen*.

Askotan, esaldiaren semantikak irudikatzen duenak berak markatzen du bide bat edo bestea ohikoentzat esanahiz, baina, izan, aukerakoak izaten daitezke biak:

- (773) Ahaztu zaizu *bizikletan ibiltzen*. [arrunta]
(774) Ahaztu zaizu *bizikletan (ordu erdi) ibiltzea*. [ezohikoagoa]
(775) Ahaztu zaizu *labea (garaiz) piztea*. [arrunta]
(776) Ahaztu zaizu *labea pizten*. [ezohikoagoa]

Bereizkuntza bera dugu, oinarrian, *zail(a)/erraz(a) izan* predikatuarekin, nahiz esanahia bestelakoa izan:

- (777) Zail(a) da (*bihar nik/hark*) *tangoa dantzatzea*. [Zaila da hori geratzea: ez dut uste dantzatuko dudarik/duenik].
(778) Zail(a) da (*jendaurrean*) *tangoa (ongi) dantzatzen*. [Zaila da jarduera hori].

Testuinguru batzuetan, egokiak izan daitezke ikuspegi biak:

- (779) Zalla da *norbere berri jakitea* (Aguirre, *Garoa*, 99).
(780) Jauna, gauza zalla da *igarten* (Kirikiño, *Abarrak*, 27).

Aukerakoa da halako predikatuarekin (aditz soilezkoekin ez bezala), jardueraren gaia dena perpaus nagusiaren subjektu bihurtzea:

- (781) Tangoa zail(a) da (*ongi*) *dantzatzen*.
(782) Azkartasuna badegu baño / *artzen zalla da neurriya* (Txirrita, *Txirritaren bertsoak*, 33).

Kasu horretan, predikatu osagarri konplexu bat osatzen du [(*ongi*) *dantzatzen zail(a)*] sintagmak. *Zail* izenondo soila ez bezala, funtzio horretan bakarrik ager daitezke halako sintagmak (horregatik ez dugu sailkatu izenkien osagarrien artean):

material zail hori /*material lantzen zail hori / lantzen zaila den material hori

Bere funtzioan, hala ere, aurreko adibidean ikusi dugun moduan, beste hurrenkera ere onartzen du egitura horrek: *lantzen zail(a) izan zein zail(a) izan lantzen*.

Hizkera batzuetan, joskera eta adiera berean erabiltzen da *-TZEKO zail(a)/ erraz(a) izan* aldaera.

- (783) Berantago eginez, umeak negukotzat heldu dira eta ez dira *hazteko* hain errex. (Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 282).

7.4.4. *-TZEA (nahi/gura izan) eta -TU (nahi/gura izan)* *(eta nahiago/gurago izan eta hobe izan)*

Gauza itxuraz bitxi bat gertatzen da *nahi izan* predikatuak gobernaturiko *-tzea* perpaus osagarriekin:

- (784) Hala ere, [*zuk/hark/*nik*] *liburuak ekartzea* nahi dut (nik).

Halakoetan, perpaus osagarriaren subjektua edozein izan liteke, salbu eta *nahi izan* predikatu gobernatzailearen subjektua. Hots, kontrola denean *nahitaezkoa* den erreferentziakidetasuna, debeku da hor⁴³; alegia, kontrolaren alderantzizkoa gertatzen da.

- (785) Hala ere, [**zuk/*hark*] *liburuak ekartzea* atzendu dut. [kontrola]

- (786) Hala ere, [**nik*] *liburuak ekartzea* nahi dut. [kontrolaren kontrakoa]

Jakina, posible izan behar du erreferentziakidetasunezkoa adieraztea; aurreko adibidean, esate baterako, *nahi izanen* subjektua bera izatea *ekarriren* subjektua. Horretarako, euskalki guztietan (salbuespenek ez dute hartzen euskalki osorik), beste joskera bat erabiltzen da:

⁴³ Berehala aipatuko dugunez, bestelakoa da erabilera gipuzkeraren eta bizkaieraren arteko mugaren bi aldeetako hizkera batzuetan.

(787) Hala ere, liburuak **ekarri** nahi ditut.

Esapideen hurbiltasunak engaina gintzake, baina joskera horretan ez da perpaus osagarririk, aditz-perifrasia baizik. Izan ere, joskera horretan, gainerrako aditz modalen kideko da *nahi izan*, partizipioarekin elkarturik guztiek osatzen baitituzte halako perifrasiak: *-tu nahi/behar/ahal/ezin izan*. Aditz modal horien guztien joskera ez da beti berdin-berdina, baina guztiak dira perifrasi; alegia, aditz bakarra balitz bezala jokutzen dira, komunztadura eta guzti. Erka ditzagun osagarriak eratua eta perifrasiak:

(788) [*Liburuak ekartzea*] nahi dut.

(789) Liburuak [**ekarri nahi**] ditut.

Jakina, beste perifrasi batzuen kasuan bezala, ez da nahitaezkoa partizipioa eta *nahi* hurrenkera horretan agertzea, baina horrek ez du aldatzen perifrasi-izaera, eta partizipiozko predikatuak behartzen du komunztadura:

(790) Nahi nuke **hark zu ikustea**.

(791) Nahi zintuzket **ikus**.

(792) Musde Tiraz / zük enaizü / nahi ükhen **kobesatü**.⁴⁴ (Etchahun, *Bertsoak*, 496).

(793) Seinoriak berak gura eukian **pekatu egin Josegaz**. (Fray Bartolome, *Icasiquizunac* 2, 230).

Jokatuetan, erreferentziakidetasun-debeku bera du subjuntiboak:

(794) Nahi dut eros dezazun.

(795) *Nahi dut eros dezadan.

⁴⁴ Beste euskalkietan baino garbiago ageri da perifrasi-izaera ekialde muturreko hizkeretan, *du/da* jokoraino iristen baita komunztadura: *Desertialat juan nahi bazira / arren zoaza oi bena behala*. *Behar izan* ere hala jokutzen da hizkera batzuetan: *Lotsatu behar zara*.

Beraz, *-TU NAHI IZAN* perifrasi da egitura behartua erreferentziakidetasuna adierazteko, debeku baitira horretarako osagarriak, bai jokatua eta bai jokatugabea:

(796) Nahi/gura nuke [*hark/*nik*] *zu ikustea*. (ikus zaitzan / *ikus zaitzadan)

Aipatu den bezala, salbuespen dira bizkaierazko eta gipuzkerazko hizkera batzuk, *-TZEA NAHI IZAN* molde bera erabil baitaiteke erreferentziakidetasunezkoan ere, *-TZEA DESIRATU* moldearen eredu berean:

(797) Nahi/gura nuke [*hark/nik*] *zu ikustea*.

Hizkera horietan beretan, hala ere, *-TU NAHI/GURA IZAN* perifrasi modala ere erabiltzen da, *-TU NAHI/GURA* segida bere horretan gordetzen de-nean batez ere:

(798) Tolosara joan nahi/gura nuke.

(799) Nahi/gura nuke datorren astean Tolosara joatea (=joan).

Tradiziotik hartutako adibide hauetan ikus daiteke *-TU >-TZEA NAHI IZAN* neutralizaziorako joera hori lanean, *gurago izanen* esparruan, eta, aldi berean, nola dirauten hizkera berean ere *-TU GURAGO* perifrasi-eredukoek:

(800) Bai jauna, ta gurago neuke **ill** bere, **pekatu mortal bat egin** baño (J. A. Moguel, *Confesino ona*, 236).

(801) **Gauza guztiak galdu** gurago izatea, **bera iraindu** baño (Iturzaeta, *Azalduerac*, 81).

(802) Bada esan: zer esango zenduke gaiso bategaitik, eukirik bere eskuan osagarri bigun osasuntsu bat, ta doarik, **bera artu** baño, **ill** bere gurago baleu (Añibarro, *Lora sorta espiritualala*, 137).

(803) *Guztiak galtzea* gurago izatea, *bera ofendietea* baño (Cardaberaz, *Dotrina cristiana*, 39).

- (804) Gurago izaitia **gauza guztiyak galdu, bera ofendidu** baño (*Laudioko kate-txima*, 37).
- (805) Pedro-Mari Portunen billa ioango zan, da nik, *ari iarraitu baño, aitonon esanak entzutea* gurago dot (Aguirre, *Auñemendiko lorea*, 25).
- (806) Ezekian jolasetik iges egiten, baño tuntunean edo tanboliñean ezaban jakiten bere ankakaz zer egiñ, da gurago izateban **erramuetan edo pelotan jokatu, ta aurrezkoetan baño gizontasuna erakusteko beste edozer jolasetan ibilli** (Aguirre, *Kresala*, 57).
- (807) Indianoak, *milla erreal emotea baño aoko agiñak ataratea* gurago eban (Aguirre, *Kresala*, 148).
- (808) Jenerala ikaratu zan eta ezautson ia zegaitik ori, ta bestiak erantzutson, aiskide zarrak zirala, asko maite ebala berak Lebario, ta gurago ebala **bizia galdu a ilten ikusi** baño (Kirikiño, *Bigarrenko abarrak*, 25).

–*TZEA* erreferentziakidetasunezkora zabaltzen den erabilera berezi horretatik landa, banaketa osagarrian daude parafrasi modala eta –*TZEA NAHI IZAN*:

- erreferentziakidea, prerifrasiz: *joan nahi dut*
- gainerako erreferentziakoak, osagarritz: *joatea nahi dut*

Nahi izan bezalatsu⁴⁵ antolatzen da *nahiago izan* predikatua ere, joskerabitazunez (aipaturiko hizkeren salbuespenarekin):

- (809) Nahiago dut *zuk/*nik ikustea*. [-*tzea* perpaus osagarria]
- (810) Nahiago dut **zuk/nik ikusi*. [-*tu nahiago izan* aditz-perifrasial]

Nahi(ago) nuke moldekoak badirudi (*ai nola*) *poztuko nitzateke(en)* edo halakoren baten zentzuaz janzten direla maiz, baldintza (jokatua) hartzen baitute

⁴⁵ Ez dirudi hain trinkoa denik, hala ere, osagaien arteko lotura: **nahi du ez ikusi / nahiago du ez ikusi*.

desira-zentzua markatua denean, baina horrek ez die kentzen beren lekua ohiko jokatu gabe:

- (811) Nahi(ago) nuke aberatsa banintz/bazina!
- (812) Nahi(ago) nuke **zu/ni** aberatsa izatea. / Nahi(ago) nuke [*zu/ni] aberatsa izan.
- (813) Nahi/gura nuke [hark/nik] zu ikustea.

Bistan da, *joatea nahi izan* eredura *joan nahi izan* ereduaren sinonimiara dakarten hizkeren joera bera agertuko dute -ago gehituta:

- (814) Nahiago/gurago izaten duzu, hotelera (joan) baino, zeure lagunaren etxera joatea. (=joan)

Adibide horren modukoetan, perpausaren luze-konplexutasunak eragin dezake nolabaiteko anakolutoa edo bereizkuntzaren neutralizazioa beste hizkeretan ere. Enfasiak, berriz, perifrasiak faboratu ohi du:

- (815) Honela bizi baino, nahiago (dut) hil!

Hobe izan predikatuak bi moldeen arteko zalantza ageri du, are hizkera berean eta hiztun/izazle berarengan. Erreferentziakidetasunik ez den kasuan, ez da zalantzarik noski:

- (816) Hobe da/dut **hura** joatea nire lekuan.

Baina erreferentziakidetasunezkoa perpaus osagarri kontrolatuz zein perifrasi ematen da:

- (817) Hobe dut (**neu**) joatea/joan.

Zalantza (edo aukera bikoitz) hori bera ageri da, hain zuzen, bi puntuz etendako honelako esaldietan:

Bi eskakizun bete behar ditu:

- *adinez nagusia izatea/izan*
- *informatikan trebaturik egotea/egon*

Izan ere, halakoetan, bi egitura dabilta lehia esaldiaren sakonean:

- eskakizuna *adinez nagusia izatea* da
- *adinez nagusia izan* behar du

Hobe izan predikatuarekin ere aukerakoak dira bi ikuspegiak (osagarriari dagokiona zein perifrasi modalari dagokiona), eta hortik, antza, joskera-bitasuna:

- (818) Aukera hobea dut *bakarrik joatea*.
- (819) Behar dut/nuke bakarrik **joan**.
- (820) Hobe dut *bakarrik joatea* / bakarrik **joan**.

7.4.5. Osagarri jokatu gabeen eta jokatu en arteko baliokidetasunak

Perpaus osagarri jokatu gabeek jokatu ekin dituzten esanahi-kidetasunak aipatzean, ikusi dugu subjuntibo zkoetan bilatu behar direla batez ere halakoak, eta ez indikatibo zkoetan. Kasuren batean, hala ere, esan dugu funtzio bertsua betetzen dutela, Iparraldean, *BAIT*- perpaus ekin:

- (821) Harritzekoa da **ez baituzu deus erran** (=zuk ezer ez esana)

Orobat ikusi dugu predikatu batzuek osagarri jokatu gabeak zein indikatibo zko jokatuak har ditzaketela, baina esanahi desberdinez:

- (822) Badakit *dantzan egiten*.
- (823) Badakit **dantzan egiten duzula**.

Zehar-galderazkoek (ikus beherago) antz handiagoa dute:

(824) Badakit *zer egin*. [= zer egin **behar** dudan]

(825) Badakit **zer egingo dudan**.

Ondotikotasunerako joerako predikaturen bat (*erabaki...*) geroaldiko osagarri jokatuarekin konbina daiteke, jokatugabeekiko nolabaiteko esanahi baliokidetasunez (sinonimia ez da erabatekoa):

(826) Erabaki du *ezkontzea*.

(827) Erabaki du **ezkonduko dela**.

Subjuntibozkoen kasuan, aldiz, badira baliokidetasun sistematiko batzuk sail batzuetan. Bi sailetan, zehatzago esanda: *-TZEKO* perpausetan eta *-TZEA* perpausetan. Izan ere, gainerakoen lekua ezin du bete subjuntiboak, ezin baitzaio erantsi atzizkirik (*-RA*, *-(A)N*, *-AREKIN*, *-TIK*, *-AZ*, *-ARI*, *-AK*).

-TZEKO perpausen kasuan, sistematikoa da subjuntiboaren baliokidetasuna, bai *zer* moldeko osagarriekin, hots, zehar-estiloko agintera adierazten duen moldearekin (Hegoaldean, *-LA* amaieran):

(828) Amak agindu dit *etxera joateko* / **joan nadila/nadin**.

Bai *zerta(ra)ko* moldeko osagarriekin:

(829) Oraindik txikiegia zara *horretan jarduteko* / **jardun dezazun**.

Bai eta, osagarrien sailetik kanpo, helburuzkoarekin ere). Kasu horretan, hala ere, erreferentziakidetasuneko ez da subjuntiboz antolatzen:

(830) Hegazkina hartu zuen, lehenago iristeko / **#irits zedin**.

(831) Hegazkina hartu zuen, lagunak aurrea ez hartzeko / **har ez ziezaion**.

Jakina, osagarrietan ere ohikoagoa da subjuntiboa erreferentziakidetasunezkoak ez direnetan, baina, goiko adibideok erakusten duten moduan, erreferentziakidetasunezkoak ere subjuntiboz eman daitezke:

(832) Bost kilometro falta zaizkizue *Oriora iristeko.* **irits zaitezten.**

Helburuzkoetan, beraz, badirudi subjuntiboak erreferentziakidetasunik ga-beak baino ez ditzakeela eman:

(833) Besaulki bat ekarri dut eroso esertzeko.

(834) *Besaulki bat ekarri dut eroso irakur dezadan.

Osagarrietan, berriz, erreferentziakidetasunezkoak ere bai:

(835) Besaulki bat falta dut sala osaturik eduki dezadan.

Gehienetan, hala ere, erreferentziakidetasuna garbi badago, subjuntibozkoak baino ohikoago eta naturalago izango dira *-TZEKO* jokatu-gabeak:

(836) Besaulki bat falta dut sala osaturik edukitzeko.

*-TZE*A perpausez osaturiko esaldiek, *-TZEKO* perpausek osaturikoek ez bezala ez dute beti izaten zentzu prospektiboa. Eta hala duten batzuek ere, ikusi dugunez, ez dute onartzen subjuntibozko baliokiderik: **erabaki dut egin dezadan.*

Badirudi ez duela horrek lotura zuzenik egitura kontrolatua izatearekin (*nik erabaki, nik egin*), badira-eta kontrola izanagatik subjuntiboa onartzen dueten beste predikatu batzuk: *debekatu dit joan nadin.* Beraz, *-tzea* onartzen duten predikatu batzuek geroaldia eta beste batzuek subjuntiboa eskatzea dateke hor aldea:

(zuk) *erabaki joatea (joango zarela)*

(zuri) *debekatu joatea (joan zaitezten)*

Zentzu prospektiborik gabeko -tzea perpaus batzuek nekez onartzen dute subjuntibozko baliokidea: *tamalgarri iruditu zai*o (zu) *iritzi berekoa ez izatea* /*??? izan ez zaitez*en / *ez baitzara*.

Jakina, badira -tzea perpaus batzuk jokatueta inolako esanahikiderik ez dutenak, ez subjuntibozkorik eta ez bestelakorik: *ahantzi zait orraztea* / **orrazt nadin* /*#orraztu behar nuela*.

7.4.6. Osagarri jokatugabeak eskuineratzea eta perpaus-muga kanonikoa gainditzea

Perpaus osagarrien barne- eta kanpo hitz-ordenari buruz, oro har, ikus *EGLU V* 1.2.4.1. eta 1.2.4.2.

Osagarri jokatugabeen artean, bereizkuntza batzuk egin behar dira.

–*TZEA* eta –*TZEKO* moldekoak beren kide jokatuena antzekoak dira, bai eskuineratzeko joeraz eta bai perpausaren muga kanonikoa (–*TZEA* eta –*TZEKO* morfemak) gainditzeko aukeraz:

(837) *Gaur gurasoekin etxean geratzea* [geratuko dela] erabaki du.

(838) Erabaki du *gaur gurasoekin etxean geratzea* [geratuko dela].

(839) Erabaki du *etxean geratzea* [geratuko dela] ***gaur gurasoekin***.

(840) *Lagunen aurrean sekretua gordetzeko* [gorde zenezala] eskatu nizun

(841) Eskatu nizun *lagunen aurrean sekretua gordetzeko* [gorde zenezala].

(842) Eskatu nizun *sekretua gordetzeko* [gorde zenezala] ***lagunen aurrean***.

Eskuineratze-joera hori are nabarmenagoa da, bistan da, [izena/izenondoa + aditza] osaerako predikatuen kasuan:

(843) *Noizik behin jatorduetan ardo xorta bat edatea [edan dezazun] on(a) duzu.*

(844) *On(a) duzu noizik behin jatorduetan ardo xorta bat edatea [edan dezazun].*

(845) *On(a) duzu noizik behin ardo xorta bat edatea [edan dezazun] **jatorduetan.***

Hain zuzen ere, hitz-hurrenkera horrexek bereizten ditu batzuetan –*TZEKO* izenlagunak bestelakoetatik:

(846) [*Ontziak erretzeko* agindua] [eman] zuen.

(847) [Agindua eman] zuen [*ontziak erretzeko*].

Eskuin-joskerarako joera horretan, aditz-lokuzioen kontuaz gainera, baduke zerikusia halako predikatu askok estilo zuzenarekin erlazonaturik egoteak:

(848) Agindu/esan du: “Erre itzaue ontziak”.

(849) Eskatu/proposatu dio: “Gurekin geratuko zara igandean?”

(850) Erabaki/pentsatu du: “Ardoa edango dut afaritan”.

Menderatuak bere horretan kalka dezake antolaera hori, beharrezkoak diren egokitze deiktikoak eginez:

(851) Agindu/esan du *erretzeko ontziak*.

(852) Eskatu/proposatu dio *berekin geratzeko igandean*.

(853) Erabaki/pentsatu du *ardoa edatea afaritan*.

Joera bera dute zehar-galderek, jokatuek bezala jokatugabeek ere:

(854) Pentsatuko dut *zer egin* (behar dudana) *opariekin*.

Beste sailtxo bat osatzen dute, alde horretatik ere, –*TZEN* eta –*TZERA* perpau osagarriek. Ez dute debekurik eskuin-joskera berera biltzeko, baina ez

dute halako joera nabarmenik ere. Galdegai ez direnean, aise eman daitezke eskuinean, baina, bestela, beren kokagune kanonikoan agertu ohi dira:

(855) Ikusi zaitut, bai, *txirri bat erretzen*.

(856) *TXIRRI BAT ERRETZEN* ikusi zaitut.

(857) Hark behartu nau *gezurra esatera*.

(858) *GEZURRA ESATERA* behartu nau.

Hala ere, halako predikatu askok ere joera dute, aurreko sailekoen eredu berean, eskuinean emateko informazio berria (nahiz galdegai-doinua aditzean berean nabarmendu):

(859) Ausartu naiz *egia esatera*. [Erabaki dut, ausart, *egia esatea*].

Dena dela, ez da halakoetan hain naturala perpaus-muga kanonikoa gainditzea:

(860) ?Ausartu naiz *egia esatera lagunen aurrean*. [Erabaki dut, ausart, *egia esatea lagunen aurrean*].

Aurreko sailekoak ez bezala, hauek ez dute erlazio garbirik estilo zuzenarekin, eta, izan ere, ez dute kidekorik jokatuetan (ezin, beraz, handik kalkatu antolamendua). Izatekotan, hauxe da gehien hurbiltzen dena nola edo halako esanahi-kidetasunera (ohar bedi –*LA* perpaus jokatu hori ez dela osagarria moduzkoa baizik):

(861) Ikusi zaitut, bai, *txirri bat erretzen*.

(862) Ikusi zaitut, bai, *txirri bat erretzen zeundela*.

Esan bezala, ez da debeku zorrotzik halakoetan ere perpaus-muga kanonikoa gainditzeko, baina ez da hori, inolaz ere, aurrekoetan bezain ohikoa:

(863) ?Ikusi zaitut, bai, *txirri bat erretzen lagunekin*. [?*txirri bat erretzen zeundela lagunekin*].

Orain arte aipatu ez ditugunek, [-*TZEA* + atzizkia] sailekoek ere ez dute kidekorik jokatueta. Atzizki bakoitzaren arabera funtzioa betetzen dute, eta horren arabera ordenatzen perpau nagusiarekiko. Bere sailean adierazi dugun moduan, -*TZEAZ* moldekoa da (-*TZEA* moldekoarekin nolabaiteko alternantzian ager daitekeena, hain zuzen) eskuin-joera markatuena duena.

Eskuin-joskera horretan perpau-muga kanonikoa gainditzea ere askoz zailagoa dute halako [-*TZEA* + atzizkia] egitura konplexukoek, gotorragoa izaki muga hori. Kasuren bat bada, baina oso bakan, eta, bereziki, neurtzetan. Lizenzia poetikoz ager liteke inoiz, hiperbaton gisa (edo ahozko joskera laxoetan):

(864) *Itxi ibilteari beti karrioan* / bearra egin zoli etxeko soloan (Zavala, *Fábulas*, 38).

Aipatu dugunez -*TZEA* perpauen eginkizun bertsua izan dezakeen perpau-mota horretan aurkituko dugu errazenik salbuespenen bat:

(865) Zenbat [dira] poztuko lirakenak, *Pazkoarik ez izateaz eriotzako orduraño?* (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* 1, 480).

Gaur egungo prosan, aurkitzen dugu inoiz ergatibozkoren bat joskera horretan, baina ez dugu aurkitu halakorik tradizioan:

(866) Ez nau harritzen *ikusteak mundua nola doan*.

Halakoak adierazteko ohikoena (osagarri jokatueta, gogora gaitezen, ez da ergatiborik), ergatiboa eskatzen ez duen joskeraren bat hautatzea izaten da:

(867) Ez naiz harritzen ikusirik mundua nola doan.

(868) Ez zait harrigarri gertatzen *ikustea mundua nola doan*.

Beste aukera bat elementu (ana)foriko batez baliatzea da:

(869) Ikusten dudalarik/baitut mundua nola doan, horrek ez nau harritzen.

ERANSKINA

OHARRA

Taula honetan, zenbait aditz-predikatuk hartu ohi dituzten perpaus osagarri arrunt batzuk ageri dira, haien kontrol-kasuak zehazturik. Ikuspegi orokor bat izateko lagungarri xumea baino ez du izan nahi irudikapen honek, eta ez auziari buruzko inolako doktrina; are gutxiago, arau. Azterketa sakonagoen akuilu ere gertatuko da, agian. Bien bitartean, barkatuko ahal zaizkio akatsak eta hutsuneak.

Ikurrak

K(ontrola):
s(ubjektuak)
o(bjektuak)
d(atiboak)

+: bada halako osagarria (baina ez kontrolik)

B(urutua ere onartzen du)
Gen(erikoa) [osagarriaren subjektua]

Ek.: Ekialdeko euskalkiak.

Ip.: Iparraldeko euskalkiak.

Mend.: Mendebaldeko euskalkiak.

behe (erregistroa)

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
aberastu <i>da</i>										+	
aberastu <i>du</i>						+	B				
abiatu		Ks								+	
abil/antzetsu/iaio/ trebe(a) izan	Ks										
aditu/entzun*	Ko										
ados/akort izan								+	+		
ados/akort jarri								+			
adostu					+						
agindu <i>dio</i>			Kd			+	B				
agindu <i>du</i>			+			+	B				
agindu (prometatu) <i>du/dio</i>					Ks						
agindua/ordena eman			+								
ahalbidetu					+						
ahalegina(k) egin				Ks							
ahalegindu	Ks										
ahalketu								+	B		
ahantzi/ahaztu/ atzen <i>da</i>								Ks			
ahantzi/ahaztu/ atzen <i>du</i>					Ks						
ahaztu <i>zaió</i>	Kd				Kd						

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
aiduru/begira/ esperoan/zain egon				+							
ailegatu/iritsi/heldu		Ks									
aitzinatu/aurreratu					+	+ B					
aitzindu <i>zai</i> o							+				
akordatu/gogoratu/ oroitu/gomutatu <i>da</i>								Ks	Ks (<i>behe</i>)		
akordatu/gogoratu/ fomutatu <i>zai</i> o					Kd						
akordatu/hitzartu					+						
akuilatu/kitzikatu		Ko				+ B					
alaitu/baretu/ gogobete/lasaitu/poztu						+ B					
alboratu/aldaratu/ urrundu <i>da</i>										Ks	
alboratu/baztertu <i>du</i>					+						
aldatu						+ B					
aldea izan/egon										+ <i>ra</i>	
alderatu/erkatu					+ B				+ B		
alegatu					+ B						
altxatu <i>da</i>		Ks									
altxatu <i>du</i>		Ko				+ B					

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
amestu					+						
amets egin								+			
amets izan <i>du</i>					+						
amorratu						+ B		+			
amorr(u)a eman						+ B					
animatu <i>da</i>		Ks									
animatu <i>du</i>		Ko				+ B					
apaldu <i>da</i>		Ks									
apaldu <i>du</i>		Ko				+ B					
aprobetxatu/profitatu/ baliatu								+ B			
arazoak/zalantzak izan				Ks							
arbuia					+						
ardura/arta/kargua izan				Ks							
arduratu/axolatu <i>da</i>								Ks			
areagotu						+ B			+ B		
ari izan ₁ <i>aspektu-perifrasia</i>	Ks										
ari izan ₂ (aritu, jardun)	Ks										
arindu						+ B					

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
aritu/jardun (hizketan)								+			
arranguratu								+ B			
arren/otoitz egin <i>dio</i>			Kd								
arrendu/otoiztu <i>du</i>			Ko								
arriskatu		Ks									
arriskuan izan/egon/ jarri <i>da</i>				Ks							
asaldatu						+ B		+ B			
askatu/libratu <i>du</i>						+ B					
askatu/libratu <i>da</i>										Ks	
aski/nahikoa/asko/ gutxi izan <i>da</i>				+	+ B						
asmatu	Ks										
asmo/gogoa izan				Ks							
aspertu/gogaitu <i>du</i>						+ B					
aspertu/gogaitu <i>da</i>								+			
atera <i>du</i>		Ko									
atera/jalgi/irten <i>da</i>		Ks									
atertu										Ks	
atsegin/laket/atsekabe izan <i>zaiio/du</i>						+ B					
atzeman/harrapatu	Ko										

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
atzeratu/gibelatu					+	+ B					
aukera eman				Kd		+ B					
aukera/egokiera/ abagunea/parada izan/ galdu <i>du</i>				Ks							
aukeratu/hautatu					+						
aurpegiratu/leporatu					Kd						
ausartu (Ek.)		Ks									
ausartu (Mend.)	Ks										
axola izan <i>zaio</i>					+ B						
axola izan <i>du, dio</i>						+ B					
aztoratu						+ B		+ B			
babestu/gerizatu										+	
baietz/ezetz esan							+				
baietza/ezetza eman							+				
baimena eman <i>dio</i>				Kd							
baimena eman <i>du</i>				+							
baimendu					+						
bakarra/lehena/onena/ txarrena/baldarrena/ trebeena izan	Ks										
balio izan				+		+ B					

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
barkatu <i>du, dio</i>					+						
begiratu <i>da</i>										Ks	
behar izan* <i>perifrasi modala ez dena</i>				+							
behartu <i>da</i>		Ks									
behartu/bortxatu <i>du</i>		Ko									
beldurtu/estutu/ ikaratu/larritu/izutu						+ B					
bermatu/oinarritu/ sostengatu											+ B
bidali/igorri		Ko									
bizi/matendu										Ks	
bultzatu		Ko									
burlatu/trufatu								+ B			
damu izan <i>du</i>					Ks B						
damutu <i>da</i>								Ks B			
damutu <i>zaio</i>					Kd B						
datza,zetzan											+
debekatu/galarazi					+						
deitoratu					+ B						
deitu <i>du (norbait)</i>		Ko									

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
deitu <i>du</i>		Gen.									
deliberatu <i>da</i>		Ks									
deliberatu <i>du</i>		Ks			+						
denbora pasatu	Ks										
desenkusatu <i>da</i>								+ B		+ B	
desira/irrika/nahi izan				+							
eduki	Ko										
egin <i>du</i>		Ks									
eginahala egin				+							
egokitu <i>da</i>		Ks									
egon	Ks										
ekarri	Ko										
ekin							Ks				
elekatu								+			
eman <i>du</i> (Ip.)		Ko									
eman <i>zaio</i>							Ks				
entzun	Ko										
erabaki					Ks						
erabakia hartu			Ks								
eragin					+	+ B					
eragotzi/galarazi					+						
eraman		Ko									

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
erotu/zoratu						+ B					
erraz/zail(a) izan <i>da</i>	+				+						
erraz/zail(a) izan <i>du</i>	Ks				Ks						
erraz/zail(a) izan <i>zaio</i>	Kd				Kd						
erraztu/zaildu					+	+ B					
esan <i>dio</i>			Kd								
esan <i>du</i>			+								
eskatu <i>dio</i>			Kd								
eskatu <i>du</i>					+						
eskertu					+	B					
espero izan					+						
etekina/fruitua/zukua atera <i>dio</i>							+ B				
etekina/fruitua/zukua atera <i>du</i>										+	
etorri		Ks								+	
ezkondu/uztartu					+	B			+ B		
falta izan <i>da</i>				+							
falta izan <i>du/zaio</i>				Ks/Kd							
gaitzetsi (-etsi, oro har)					+	B					
galdu						+ B					

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
garrantzia eman							+				
gelditu/baratu <i>da</i> <i>aspektu-perifrasia</i> <i>(fasea)</i>										Ks	
geratu <i>da</i>				+							
gogatu/limurtu <i>du</i>		Ko									
gogoko/maite izan					+						
gomendatu					+						
gomendio(a) egin <i>dio</i>			Kd								
gomitatu/gonbidatu		Ko									
goraipatu/goretsi/ laudatu					+	B					
gorroto/higuin izan <i>du</i>					+						
haizu/zilegi/debeku izan <i>da</i>					+						
haizu/zilegi/debeku izan <i>du</i>					Ko						
haizu/zilegi/debeku izan <i>zaio</i>					Kd						
handi/txiki(egi)a izan				+							
harrigarri/normal/ egoki/zoragarri(a) izan/gertatu/iruditu					+	B					
harritu <i>da</i>								+	B		
harritu <i>du</i>						+	B				

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
harrotu						+ B		+ B			
haserretu/nekatu/ ase/ poztu <i>da</i>								+			
hasi <i>aspektu-perifrasia</i>	Ks										
hauteman/sumatu/ sentitu	Ko										
helburu/jomuga/ xede(a) izan					+						
hitz/berba egin								+			
hurbildu/inguratu <i>da</i>		Ks									
ibili <i>aspektu-perifrasia</i>	Ks										
igaro/iragan/pasatu <i>da</i>										+ <i>ra</i>	
igo <i>da</i>		Ks									
ikasi	Ks										
ikusi	Ko										
ilundu/lausotu						+ B					
imaginatu/irudikatu/ gogoratu/oroitu	Ko										
indartu						+ B					
interesa izan										+	
interesatu <i>zai</i>					+ B						

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
iradoki <i>dio</i>			Kd								
irakatsi/erakutsi <i>dio</i>	Kd										
irakatsi/erakutsi <i>du</i>	Gen										
iritzi							+ B				
irudi izan (+predikatu- osagarria)						+					
irudikatu	Ko										
itzuli <i>da</i>		Ks								+	
itzuri							+				
jaitsi <i>da</i>		Ks									
jaitsi <i>du</i>		Ko									
jakin	Ks										
jardun	Ks										
jarraitu/segitu <i>du</i> <i>aspektu-perifrasia</i>	Ks										
jarri		Ks									
jarri <i>da</i>	Ks										
jarri/ipini/paratu <i>du</i>	Ko										
joan		Ks									
jolastu		Ks									
kalte/mesede egin							+ B				
komeni izan <i>da/zaio</i>						+					
kondenatu <i>da</i>		Ks									

.../...

7. *Perpaus osagarriak*

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
kondenatu <i>du</i>		Ko									
kostatu					+						
lagundu <i>dio</i>	Kd										
lagundu <i>du</i>	Gen										
lagundu <i>du</i> (Ek.)	Ko										
lehenetsi					+						
lehiatu		Ks									
lerratu/limurtu <i>da</i>		Ks									
libre izan/egon				Ks						+	
lortu					+						
lotsa izan								+ B			
lotsatu					+ B			+ B			
makurtu <i>da</i>		Ks									
margotu/marraztu	Ko										
merezi izan					+						
min/pena eman						+ B					
mindu/penatu					+ B						
mintzatu								+			
mintzo izan								+			
miretsi					+ B						

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
moldatu <i>da</i>	Ks			Ks							
muzin egin							Ks				
nahi izan* <i>perifrasi modala ez dena</i>					-Ks						
ohitu/usatu <i>da</i>		Ks									
oldartu		Ks									
onartu/onetsi					+						
ondo/gaizki hartu					+ B						
ondorioa atera										+	
ondorioztatu/segitu										+	
ontzat/bidezkatat jo					+						
oztopo/traba(k) jarri							+				
piztu/suspertu/sustatu						+ B					
prest izan/egon		Ks		Ks							
proposatu					+						
saiatu	Ks	Ks		Ks							
saihestu					+						
salatu					+ B						
salbatu										+	
salbuetsi										+	
solastatu								+			

.../...

.../...

-TZE +	n	ra(t)	ko zer	ko zertarako	a	ak	ari	az	arekin agaz	tik	an
trebatu <i>da</i>	Ks			Ko							
trebatu <i>du</i>	Ko			Ko							
tronpatu						+ B					
uko egin							+				
umildu		Ks				+ B					
utzi <i>du</i> (Ek.)		Ko		+							
utzi <i>du</i> (Mend.)	Ko			+							
utzi/laga <i>dio</i> (Mend.) (= +subjuntibo)	Kd										
utzi/laga <i>dio</i> (Mend.) <i>aspektu-perifrasia</i> (<i>fasea</i>)							Ks				
zapuztu						+ B					
zerikusia izan ikustekorik ez izan					+ B				+ B		
ziurtatu/bermatu					+						

LABURPENA

Mendeko perpaus jokaturgabean artean, sail berezia da perpaus osagarriena.

Sail gehienak esanahiaren arabaera antolaturik daude: denborazkoak, helburuzkoak, moduzkoak, baldintzak, kontzesiboak. Perpaus erlatibo jokaturgabean saila, berriz, funtzio gramatikalak definitzen du; hots, adjektibo (izenlagun) funtzioa betetzeak.

Osagarriak, ostera, askotarikoak dira esanahiz zein funtzio gramatikalez. Osagarrien ezaugarri funtsezkoa, perpaus-mota hori definitzen duena, perpausak bere predikatu gobernatzailearekin duen lotura estua da, predikatu horrek bere sare semantikoaren parte berezkoa baitu halako perpausa hartzea: [*nor-bait*] *ausartu* [*zerbait egitera*]. Hots, konplementazio-erlazioan daude predikatu gobernatzailea (*ausartu*) eta haren perpaus osagarria (*zerbait egitera*).

Hortik dator perpaus osagarrien askotarikotasuna: predikatua nolakoa, halako forma eta halako esanahiko osagarria izango dugu. Hemen, perpaus osagarriaren formari heldu diogu haien barne-sailkapena egiteko, baina berehala ikusiko da askotariko esanahiak lortzen direla forma bakoitzean, predikatu gobernatzaileen izaeraren arabera.

Formaz bereizitako sail bakoitzean, eta amaierako taulan, predikatu ohikoetariko batzuk aipatuko dira, baina ez da lagin bat baino izango, hiztegi luze ere luzea behar bailitzateke guztiak edo gehienak biltzeko.

Perpau osagarri jokatugabeen artean, bestalde, bada beste aipagai berri eta berezi bat, *EGLU*-k beste inon aipatzen ez duena, sail honixe bakarrik baita-gokio: *kontrol* deritzona. Labur definituta: perpau osagarri batzuek ez dute onartzen beren subjektutzat predikatu gobernatzailleak markaturiko (beharturiko, kontrolaturiko) erreferente jakin bat baino. Predikatu gobernatzaillearen semantikak eragozten du osagarriaren subjektua beste bat izatea. Zentzurik gabea litzateke, adibidez, honela esatea: **Anek hitz egitera ausartu da Jon*. Perpau osagarri jokatugabearen subjektua, kasu horretan, *kontrolatua* dela esaten da.

Halako *kontrol*-egiturak zertan diren ere ikusiko dugu, bada, sailez sail. Hor ere, funtsezkoa da predikatu gobernatzaillearen esanahia. Esate baterako, *ausartu*-rekin bezala gertatzen da *damutu*-rekin edo *ahantzi*-rekin: haren osagarriaren subjektua kontrolatua da, hots, nahitaez, *damutu*-en edo *ahantzi*-ren subjektu bera (*damutu/ahantzi naiz [*zuk] hitz egiteaz*). Aldiz, *harritu* predikatuarekin, esate baterako, normala litzate *Anek hitz egiteaz harritzea Jon: harritu* predikatuak, bada, ez du ezartzen kontrolik bere perpau osagarriaren subjektuaren gainean. Kontrola ezartzen denean, osagarriaren subjektua markatzen duena subjektua, objektua zein datiboa izan daiteke, predikatu bakoitzaren arabera.

Esan bezala, formaz sailkatuko ditugu perpau osagarri jokatugabe motak. Gehienek *-TZE* atzizkiak eraturiko aditz-izena dute oinarri. Hala eraturiko perpausen ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, bestelako izenetatik bereizten dituztenak: aditzari dagozkion osagaiak hartzea (eta ez izenari dagozkionak), determinatzaile gisa ia-ia singularreko artikulua baino ez onartzea, iparraldeko euskalkietan objektu-genitiboa erabiltzea...

Kasu gehienetan, forma bereko perpau osagarriak batzuk kontroldunak eta beste batzuk kontrolgabeak izango dira, predikatu gobernatzaillearen arabera. Gure sailkapeneko lehen bi motek, ordea, badute bereizgarri bat: *-TZEN* eta *-TZERA* perpau osagarriak beti dira kontrolatuak, zeinahi delarik ere predikatu gobernatzaillea.

Hortik aurrerako perpaus osagarri mota guztiakin, predikatu batzuek kontrola ezarriko dute, eta beste batzuek, berriz, ez.

Hurrengo saila *-TZEKO* perpaus osagarriei dagokiena da. Aurreko sail-txokoek ez bezala, badute kidekorik mendeko perpaus jokatueta: subjuntibo-zkoak. Forma bereko bi *-TZEKO* bereiziko ditugu, aski desberdinak baitira sail bion predikatu gobernatzailerak. Sail bat, errazen bereizten dena, aginduekin eta lotua da: *leihoak ixteko agindulesan du*.

Beste motako *-TZEKO* perpausak, berriz, auzoko du *-TZEKO* helburuzkoa (ikus *Helburuzko perpausak*). Labur adierazteko, guk hemen perpaus helburuzkotzat jo dezagun, eta ez osagarritzat, *asmoaren* idea da gakoa. Osagarrietan, ikusiko dugunez, bada helmuga edo *lorbizun* bat, baina ez borondatedun baten asmorik, predikatu gobernatzailerak garbi erakutsiko digutenez (*bi ordu falta dira bidaia amaitzeko*). Bi sailon arteko muga semantikoa, hala ere, esan dugunez, lauso samar gerta daiteke inoiz, eta halako muga-kasuren bat ere aipatuko dugu.

Izenlagun funtzioko *-TZEKO* perpausari atal berezi batean helduko diegu (7.3.3.6.). Egitura horrekin berarekin, perpaus osagarriak ez ezik, bestelakoak ere ageri dira, baina hemen aipatuko dira guztiak.

Perpaus jokatu gabe batzuek izenlagun-funtzioa bete dezakete, hau da, izen bati atxikiak izan daitezke, eta beraz izen-sintagmaren barneko osagaiak. Izen-sintagmaren barnean ager daitezkeen perpaus jokatu gabeek, perpaus erlatiboak alde batera utzita, *-KO* eta *-REN* atzikikiak daramatzate, *-TZE* nominalizazio-atzikiarene ondotik; beraz, *-TZEKO* eta *-TZEAREN* ditugu sail honetako formak. Ez da beti begi-bistako kontua perpaus jokatu gabea izenaren mende ala aditzaren mende dagoen ikustea. Izenaren mende dauden perpaus jokatu gabeen egitura aztertuko dugu, eta aditzaren mende daudenetatik zertan bereizten diren ikusiko. Egiturari dagokionez, eten prosodikoek, hitz-ordenak eta galde-erantzunetan gerta daitezkeen ezabaketek argi bereizten dituzte perpaus izenlagunak aditzari atxikiak diren etatik. Perpaus izenla-

gunez eratzen diren sintagmen esanahiak askotarikoak izan daitezke, haien buru den izenaren arabera: helburuzkoak, funtziozkoak, osagarriak, moduzkoak, denborazkoak... Halakoetariko batzuek, izan ere, erabilera ihartuak sortu dituzte, hala nola *-TZEKOTAN*. Ataltxoan osatzeko, *-TZEAREN* perpaus izenlagunak aipatuko ditugu: inoiz *-TZEKO* perpausen sinonimo gertatzen badira ere, badute beste erabilera berezi bat ere, zentzu burutua duena.

Hurrena, *-TZE* atzizkiak eraturiko aditz-izena ardatz duten perpaus osagarrien gainerako aukerak ikusiko ditugu. Horietatik emankorrena *-TZEA* formakoa da, eta *-TZEAK* eta *-TZEAZ* formakoak hurrenak, baina bada *-TZEARI*, *-TZEAREKIN*, *-TZETIK* eta *-TZEAN* formakorik ere. Azken horrek denborazkoaren atziki bera baliatzen du, bistan denez (“jakitean”: *noiz/zertan*).

Aurreko paragrafoan aipaturiko perpaus motek badute (*-TZEN*, *-TZERA* eta *-TZEKO* formakoek ez bezala) aldera bana, aspektu burutua zehazki adierazten duena (*-TZE* oinarrikoak ez dira markatuak aspektuari dagokionez): *Ez dio kalterik egin lagunekin egonak*. Burututasuna markatzeko, partizipioa baliatzen da oinarritzat, aditz-izenaren ordeiz. Tradizio zaharrean, bere horretan erabili izan da partizipioa: *-TUA*, *-TUAK*, *-TUAZ*, *-TUARI*, *-TUAREKIN*, *-TUAN*. Berrikiago, partizipio arruntetik aldentzen den forma pleonastikoa erabiltzen da maizenik: *-TU IZANA*, *-TU IZANAK*, *-TU IZANAZ*, *-TU IZANARI*, *-TU IZANAREKIN*, *-TU IZANEAN*.

Perpaus osagarri jokatu gabe moten artean, badira zenbait alternantzia, euskalki-aldaerei dagozkienez gainerakoak (*-TZEN/-TZERA*), eta halakoak ere aipatuko dira: *-TZEA/-TZEAZ*, *-TZEAZ/-TZEAREKIN*, *-TZEA/-TZEKO*, *-TZEA/-TZERIK*...

Izenlagun funtzioko perpaus jokatu gabeen sailtxo berezian helduko diegu *-TZEAREN* formako perpausari (7.3.3.7.), *-TZEKO* perpausen jarraian.

Perifrasiekiko mugak ere ez dira guztiz zorrotzak; kontrolaturiko perpaussek, oro har, badute horrenbestez lotura sintaktiko aski estua beren predikatu

governatzaileekin, eta semantikaz ere ia aditz laguntzaileen izaerara etorriak dira halako batzuk, aspektu-edukia baino ez baitute: *ari izan, jarraitu...* Alegia, graduazio moduko bat dagoke osagarri batzuen mekanismoan, azkenean perifrasi garbiraino eraman dezakeena; bereziki, baina ez bakarrik, *-TZEN* formakoekin gertatzen da hori.

Aspektu-perifrasien ondoan, perifrasi modalak ere ditugu; halakotzat jotzen ditugu, hots, perifrasizat, eta ez, beraz, osagarritz eratutzat: *-TU AHAL(EZIN)/BEHAR/NAHI IZAN*. *Nahi izan*, haatik, perpaus osagarri baten predikatu gobernatzaileraren ere izan daiteke, kontrolik ez den kasuan: *ekarri nahi dut* (perifrasia) / *ekartzea nahi dut* (osagarria). Horregatik aipatuko dugu bereziki kasu hori, bestelako alternantziekin batera. Gainerakoan, gure aztergaitik kanpo geratzen dira perifrasiak, eta perpaus osagarritzko antolaeretatik bereizteko baino ez ditugu aipatuko.

Beste osagarri jokatugabe mota bat zehar-galderaren moldekoa da, galdehitza baitu oinarri: *Ez dakit zer egin*. Aditz-erroaz eraten da Iparraldeko hizkeretan (*Ikusiko dut nola joka*), eta partizipioaren forma hartzen du, berriz, Hegoaldekoetan: (*Ikusiko dut nola jokatu*).

Euskalki-kontua da, beraz, hautu hori, baina antzeko aukera ematen dute perpaus jokatu sinonimoek, ahaleraz edo *behar izan* aditzaz modalizatuak izanik: *Ez dakit nola joka (dezakedan)* / *Ez dakit nola jokatu (behar dudan)*. Kontuak kontu, parafrasi batean zein bestean, erabakiak hartzearekin loturiko predikatuek soilik hartzen dute halako osagarria: *erabaki, pentsatu, ikusi, jakin...* Ezaugarri semantiko horrekin loturik, kontrolatua da beti halako osagarriaren subjektua: *Erabaki dut [*zuk] zer egin*.

BIBLIOGRAFIA

Zenbait literatura lanen izenburuen luzetasuna dela-eta, aipuen erreferentziak era laburtuan eman ditugu gramatika honetan; luzeago eta astunago egingo litzaioke irakurleari gure lana, adibide bakoitzean izenburua bere osotasunean eman izan bagenu.

Horrenbestez, honela eman dugu bibliografia: egilearen lehen deitura (letra beltzez) eta, zenbaitetan, izenaren lehen hizkia, deitura bereko egileak daudenean, edo lanaren izenburua, egile ezagunik ez badu (letra beltz etzanez); egilearen izen-deiturak; egilearen laburdura –*Orotariko Euskal Hiztegi*-koa bada–; lanaren izenburu laburra (letra beltz etzanez); lanaren laburdura –*Orotariko Euskal Hiztegi*-koa bada–; lanaren izenburu osoa eta gainerako datuak.

A. LITERATURA LANAK

Agirre = Agirre, Tomás (TAg), *Uztaro* (*Uzt*), Bilbo, 1937. 2. arg., Bilbo, 1950.

Aguirre = Aguirre, Domingo de (Ag), *Auñemendiko lorea* (*AL*), Bilbo, 1898.

▶ *Garoa* (*G*), Durango, 1912. ▶ *Kresala* (*Kr*), Durango, 1906.

Aguirre Asteasukoa = Aguirre, Juan Bautista (AA), *Eracusalldiac* (*Eracusalldiac*) = *Eracusalldiac*: I: *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusalldiac*. II: *Jaungoicoaren legueco amar*

aguinteen gañean eracusaldiac. III: Jesu-Cristo eta Virgiña chit santaren misterioen, eta beste cembait gaucen gañean eracusaldiac, Tolosa, 1850. Faksimilea: Donostia, 1978.

Aintziart = Aintziart, Piarres, *Santiago oinez*, Donostia, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Aintziburu & Etxarren = Aintziburu, Angel & Jean Baptiste Etxarren, *Luzaiden gaindi*, Donostia, 2002, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Akesolo = Akesolo, Lino (Akes), *Ipiñatarren barri (Ipiñ) = Ipiña ta ipiñatarren barri*, Bilbo, 1958.

Akizeko guiristino-doctrina (*CatLan*), *Catichima [...] Charles Auguste Le Quien de Laneufville, Aquiceco Juan Apezpicu ossoqui Illustre eta Ohoregarriaren manuz arainprimatia*, Akize, c. 1780.

Alphonsa Rodriguez (AA), *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitarren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara becic eztakitenen daco*, Aviñon, 1782.

Almanaka (ArmUs), *Armanak Uskara edo Ziberouko egunaria*, Paris, Maule, etab., 1877-1914.

Altuna = Altuna, Joseba (Altuna), *Ipuñak*, Bilbo, 1927.

Alzaga = Alzaga, Toribio de (Alz), *Bernaiño'ren larriyak (Bern)*, Donostia, 1923, 2. arg., Tolosa, 1963. ▶ *Ramuntxo (Ram)*, Donostia, c. 1930, 2. arg., Tolosa, 1961. ▶ *San Tomas-eko feriya (STFer)*, Donostia, 1894, 2. arg., Tolosa, 1963.

Alzola = Alzola Guerediaga, Nicolás (Alzola), *Atalak*, Zarautz, 1967.

Amondarain = Amondarain, Gaizka, *Non dagoz nire ardiak?*, Resurreccion Maria de Azkue saria, 1997.

Anabitarte = Anabitarte, Agustín (Anab), *Aprika-ko basamortuan* (Aprika), Zarautz, 1961. ▶ **Poli** = *Poli. Mutil umezurtz baten ibillaldiak*, Zarautz, 1958.

Anduaga = Anduaga, Graziano (And), *Aitonaren uzta* (AUzta) = *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin Aita Luis Villasantek osaturiko bilduma*, Zarautz, 1961.

Añibarro = Añibarro, Pedro Antonio (Añ), *Escu-liburua* (EL) = *Escu-liburua* I, II, Tolosa, 1802 (faksimilea: Donostia, 1978). ▶ **Guero** **Guero** (GGero), RIEV 1923, 1925. ▶ **Lora sorta espiritual** (LoraS) = *Lora sorta espiritual, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*, Tolosa, 1803.

Apaolaza = Apaolaza, Antero (Apaol), *Patxiko Txerren*, Bergara, 1890. J. San Martinen arg., Tolosa, 1962.

Arana = Arana, José Ignacio de (Aran), *San Ignacioren bicitza* (Sign) = *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz*, Bilbo, 1872.

Arana, A. = Arana, Aitor, *Bost ahizpa*, Bilbo, 2003, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Arbelbide = Arbelbide, Jean Pierre (Arb), *Igandea edo Jaunaren eguna* (Igand), Lille, 1895.

Arbelbide, X. = Arbelbide, Xipri, *Californiako Euskal Herria* = *Californiako Euskal Herria: Jean-Pierre Goytino*, Bilbo, 2003.

Aresti = Aresti, Gabriel (Arti), *Ipuinak* (Ipuin), Donostia, 1979.

Argaignarats = Argaignarats, Pierre d' (Arg), *Devoten breviariora* (DevB), Baiona, 1665 (faksimilea: Donostia, 1978).

Argi Done laburra (ArgiDL), Donostia, 1928.

Arradoy = Narbaitz, Pierre (Arradoy) (Ardoy), *San Frantses Jatsukoa* (SFran), Donostia, 1966.

Arrantzaleen bizitza (Arrantz), A. Zavalaren ed., Tolosa, 1978.

Arranz = Arranz Ibañez, Iñaki, *Hitza azti*, Irun, 2006 (EHU-ren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Arrese Beitia = Arrese Beitia, Felipe (AB), *Ama euskeriaren liburu kantaria* (AmaE), Bilbo, 1900. ▶ *Olerki berrizte* (Olerk), Bilbo, 1957.

Arrue = Arrue, Gregorio de (Arr), *Mayetceco illa* (May) = *Mayetceco ill edo Birgina chit santari consagratutaco Mayetzeco illa*, Tolosa, 1888. ▶ *Santa Genoveva* (GB) = *Santa Genovevaren vicitza antziñaco demboretaco condairan ederrenetaco bat*, Tolosa, 1868.

Astarloa = Astarloa, Pedro de (Astar), *Berbaldiak* = *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* I, II, Bilbo, 1816, 1818.

Astolasterrak (AstLas) = P. Urkizuren ed., Donostia, 1984.

Atxaga, M. = Atxaga, Miguel (MATx), *Gaztetxo* (Gazt) = *Gaztetxo. Bizitzako udaberrian*, Donostia, 1963.

Axular = Axular, Pedro de (Ax), *Guero*, Bordele, 1643.

Azcue = Azcue, Eusebio M^a (Azc), *Parnasorako bidea* (PB), Bilbo, 1896 (faksimilea: Donostia, 1979).

Azkue = Azkue, Resurrección M^a de (A), *Ardi galdua* (*Ardi*), Bilbo, 1918.
 ▶ *Batxi Guzur* (*BGuzur*) = *Batxi Guzur*, *Euskalzale*, 1897. I. Pagolaren ed., Donostia, 1986. ▶ *Bein da betiko* (*BeinB*), Bilbo, 1893. I. Pagolaren ed., Donostia, 1986. ▶ *Euskalerrriaren Yakintza I, II, III, IV* (*EY*), Madril 1935, 1942, 1945 eta 1947.

Azpeitiko premiyoaren bertsoak (*AzpPr*) = *Azpeitiko premiyoaren bertsoak* (1893-1895), A. Zavalaren ed., Tolosa, 1963.

Baraiazarra = Baraiazarra, Luis, *Kili-kili* = <<Kili-kili neska mutiko euskaldunen maisu>>, *Karmel* 1992, 6.

Barandiaran = Barandiaran, José Miguel de (JMB), *Euskalerriko Leen-Gizona* (*ELG*), Donostia, 1934.

Baratciart = Baratciart, André (Brtc), *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea*, Baiona, 1784.

Barbier = Barbier, Jean (Barb), *Légendes* (*Leg*) = *Légendes du Pays Basque*, Paris, 1931 (faksimilea: Donostia, 1983) ▶ *Supazter chokoan* (*Sup*), Baiona, 1924.

Barriola = Barriola, Avelino (ABar), *Goi-Argi* (*Goi*), Donostia, 1935.

Basarri = Eizmendi, Ignacio (Basarri), *Kantari nator*, Zarautz, 1960.

Belapeyre = Belapeyre, Athanase (Bp), *Catechima laburra* = *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, Paue, 1696.

Belaxe = Canton, B. Beatriz, *Euskal Herriko bertsolariak*, Bilbo, 1992.

Bengoetxea = Bengoetxea, J. R., *Hamahirugarren izarra...* = “Hamahirugarren izarra edo estatu ereduaren eraldaketa Europan” in *Herri-arduralaritzazko euskal aldizkaria*, 1991, 29. zk.

Beovide = Beovide, Crispín (Bv), *Asis-co Loria (AsL)*, Tolosa, 1885, Luis Villanteren ed., Tolosa, 1966.

Berrondo = Berrondo, Pedro (Berron), *Don Kijote Mantxako (Kijote)*, Zarautz, 1977.

Bertzaitz = Bertzaitz, Pierre Paul, *Allande Oihenart = Allande Oihenart... bizi ürrats*, Oihenarten 4. mendemuga kari müschildiarrek egin ikusgarrian zabaldu liburuxka.

Biguri = Biguri, Koldo (itzul.) - Jean Terlow, *Ateak zabalik dituen presondegia*, Bilbo, 1993, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Bilbao = Bilbao, Félix (Bilbao), *Ipuin-Barreka (IpuiB)*, Bilbo, 1959.

Bilintx = Bizkarrondo, Indalecio (Bilintx) (Bil), *Bertso ta lan guziak*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1962.

Birjinia = *Birjinia, edo donceil christaba*, Jose Antonio Mujikaren ed., Bilbo, 2010.

Borda = Borda, Itxaro, *Zeruetako erresuma*, Zarautz, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Bordel = Echamendi, Juan (Bordel), *Bordel bertsularia*, J. M. Satrustegiren ed., Tolosa, 1965.

Cano = Cano, Harkaitz, *Pasaia blues*, Zarautz, 1999, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Cardaberaz = Cardaberaz, Agustín (Cb), *Dotrina Cristiana (CatV) = Dotrina Cristiana edo Cristiñau Dotrinea*, Iruñea, 1762?. ▶ *Egercicioak I, II, III, IV (Eg) = Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac*, Iruñea, 1760? eta 1761. ▶ *Justuen Ispillu arguia (Just)*, Iruñea, 1764.

Casenave = Casenave-Harigile, Junes (Casve), *Santa Grazi pastoralal = Santa Grazi. Pastoralal (SGrazi)*, Donostia, 1976.

CEEN = *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, Pamplona, 1969.

Chourio = Chourio, Michel de (Ch), *Imitacionea = Jesu-Christoren Imitacionea*, Bordele, 1720.

Cillero = Cillero, Javi, *Hollywood eta biok*, Irun, 1988, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Constantin = Constantin, Jean Baptiste (Const), *Haritchabalet Jaun apezaren gainen* = <<Aipamen llabur bat Haritchabalet Jaun apezaren gainen>>, *Egan* 1985 (3-4), 13-43.

Davant = Davant, Jean Louis, *Euskal departamenduaz* = <<Euskal departamenduaz>>, *Zabal*, 12).

De la Fuente = De la Fuente, Juan Cruz (*DurPl*), *Durangoko plateroak*, Antton M^a Aldekoa-Otaloraren ed., Durango, 1984.

Dechepare = Dechepare, Bernard (E), *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele, 1545, P. Altunaren ed., Bilbo, 1980.

Diez de Ulzurrun = Diez de Ulzurrun, Pedro (itzul.) - Honoré de Balzac , *Goriot zaharra*, Bilbo, 1996.

Duhalde = Duhalde, Martin (Dh), *Meditacioneac* = *Meditacioneac gei premiatsuenen ginean*, Baiona, 1809, (faksimilea: Donostia, 1978).

Duvoisin = Duvoisin, Jean (Dv), *Bible Saindua*, Londres, 1959-1965. ▶ *Dialogues basques (Dial)*, Londres, 1857 ▶ *Laborantzako liburua (Lab)* = *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren ginean*, Baiona, 1858, (faksimilea: Donostia, 1978) ▶ *Liburu ederra (LEd)* = *Liburu ederra aita Cardaveraz Jesuistac egina, Lapurdico escarara itzulia*, Baiona, 1856, (faksimilea: Donostia, 1978). ▶ *Telemake (Telem)* = *Telemake Ulisen semearen gertakuntzak*, P. Urkizuren ed., Donostia, 1988.

Echagaray = Echagaray, José Vicente (Echag), *Festara* = *Festara. Bere bertso guzien bilduma*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1964.

Echeita = Echeita, José Manuel (Echta), *Josecho (Jos)*, Durango, 1909.

EEBS = XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, Euskaltzaindia: <http://www.euskaracorporusa.net/XXmendea/index.html>

Egaña = Egaña, Andoni, *Hogeita bina*, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Eguzkitza = Eguzkitza Meabe, Jon (Eguzk), *Gizarte-Auzia (GizAuz)* = *Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak*, Zornotza, 1935.

Elexpuru = Elexpuru, Juan Martin (itzul.), *Delituez eta zigorrez*, Bilbo, 1999, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Elissamburu = Elissamburu, Jean Baptiste (Elzb), *Piarres Adame (PAD)*, Baiona, 1946, (1. ed., Paue, 1888).

Elissamburu, M. = Elissamburu, Michel (Elsb), *Framazonak (Fram)* = *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepublikan ichtorioa laburzki*, Baiona, 1890.

Elizen arteko Biblia (BibE), Bartzelona, 1994, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Enbeita, B. = Enbeita, Balendin (BEnb), *Nere apurra (NereA)*, Tolosa, 1974.

Enbeita, K. = Enbeita, Kepa (Enb), *Bertsoak* = *Gure urretxindorra. Enbeita'tar Kepa'ren bertso lanak osorik. Aita Onaindia'k: bilduma eta itzaurrea*, Buenos Aires, 1971.

Epaltza = Epaltza, Aingeru, *Rock'n'roll*, Donostia, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Erdezainzi = Erdezainzi, A., *Gure herria*.

Erkiaga = Erkiaga, Eusebio (Erkiag), *Arranegi (Arran)*, Zarautz, 1958. ▶ *Batetik bestera (BatB)*, Zarautz, 1962.

Etchahun = Topet, Pierre (Etchahun) (Etch), *Bertsoak* = J. Haritschelhar, <<L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun>>, *Euskera* 1969-1970.

Etchamendy = Etchamendy, Mañex (Etcham), *Bertsuak* = *Mañex Etchamendy bertsularia*, Donostia, 1972, P. Lafitteren ed.

Etcheberri Sarakoa = Etcheberri, Joannes d' (ES) *Eskuararen hatsapenak* = *Eskuararen hatsapenak in Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por Julio de Urquijo*, (faksimilea: Bilbo, 1976). ▶ *Gomendiozko gutuna*.

Etcheberri Ziburukoa = Etcheberri, Joannes (Ziburukoa) (EZ), *Eliçara erabiltceco liburua* (Eliç), Bordele, 1636. ▶ *Manual devotioñezcoa* (Man), Bordele, 1627. 2. ed., Bordele (faksimilea: Donostia, 1978). ▶ *Noelac* (Noel) = *Noelac eta berce canta espiritual berriac*, Donostia, 1960. Lino Akeso-lore ed., Donostia, 1970.

Etcheberry = Etcheberry, Jean Baptiste, *Hazparneko misionestak*, 1986.

Etchepare, J. = Etchepare, Jean (JE), *Beribilez* (Ber), Baiona, 1931. ▶ *Buruçkak* (Bur), Lekorne-Aldude, 1910. ▶ *Idazlanak I* (EuskG) = *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal Gaiak*, Donostia, 1984. ▶ *Idazlanak II* (Med) = *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. II. Mediku-solas*, Donostia, 1985. *Idazlanak IV*.

Etchepare, J. B. = Etchepare, Jean Baptiste (JEtchep), *Mendekoste gereziak* = *Mendekoste gereziak eta beste*, Baiona, 1963.

Etxaide = Etxaide, Yon (Etxde), *Alos Torrea* (AlosT) = *Alos Torrea. Elezar berritua*, Zarautz, 1950. ▶ *Joanak-joan* (JJ) = *Joanak-joan. Piarres Topet Etxahun Barkoxtar kobleriari buruz egin eleberria*, Zarautz, 1955.

Etxaniz = Etxaniz, Nemesio (NEtx), *Euskal antzerkiak* (Antz) = *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, Zarautz, 1958. ▶ *Lur berri billa* (LBB), Donostia, 1967.

Etxebarria = Etxebarria, Toribio (Etxba), *Ibilarixanak* (Ibilt), Zarautz, 1967. ▶ *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* (Eib), *Euskera* 1965-1966.

Etxeberria = Etxeberria, Hasier, *Arrainak ura baino*, Donostia, 1999, (EHU-ren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Euskal Baladak (Balad), Lakarra, J. A. *et alii*, *Euskal Baladak II. Azterketa eta antologia*, Donostia, 1983.

Euskal Jokoak Bertsotan (*EusJok*) = *Euskal Jokoak Bertsotan I*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1984.

Euskal Jokoak bertsotan (II) (*EusJok II*) = *Euskal Jokoak bertsotan (II)*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1985.

Fray Bartolome = Madariaga, Bartolomé (Fr. Bartolomé de Santa Teresa) (fB), *Icasiquizunac (Ic)* = *Icasiquizunac: [I] Jaungoicoaren amar aguindubeeta-co lelengo bosteen icasiquizunac*, Iruñea, 1816. [II] *Azqueneco bosteen icasiquizunac*, Iruñea, 1817. [III] *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac*, Iruñea, 1818. ▶ **Olgueetac** (*Olg*) = *Euscal-Errijetaco Olgueeta ta Dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*, Iruñea, 1816 (faksimilea: Donostia, 1978).

Gabiria = Gabiria, Julen (itzul.) - James Matthew Barrie, **Peter Pan**, Irun, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Gachiteguy & Aguerre = Gachiteguy, Adrien & L. Aguerre, **Laborantza** = *Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko*, 1963.

Gallastegi = Gallastegi, Klaudio, **Euskerea zertarako?**, “Euskerea zertarako?”, *Zer. Bizkaitarrei bizkaieraz*, 1977-09, 2. zk., 6, 1).

Gandiaga = Gandiaga, Victoriano (Gand), **Elorri**, Oñati, 1962.

Garate = Garate, Gotzon, **Atsotitzak** = *Euskal atsotitzak*, Bilbo, 1995. ▶ **New Yorkeko kronika beltza** = *New Yorkeko kronika beltza: eta beste kontu periferiko batzuk*, Bilbo, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Garikano = Garikano, Maria (itzul.) - Robert Louis Stevenson, **Altxor uhartea**, Donostia, 2008.

Garzia, Joxerra = Garzia, Joxerra, **Egonean doazen geziak**, Irun, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Garzia, Juan = Garzia, Juan (itzul.) - François Jacob, *Sagua, eulia eta giza-
kia*, Bilbo, 2004 (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Gasteizko eliz-barrutirako bizkaierazko ikasbidea, Gasteiz, 1921.

Gasteizko eliz-barrutirako gipuzkerako ikasbidea

Gasteizko Kristau-Ikasbidea = *Gasteizko Kristau-Ikasbidea*. *Gipuzkoako
euskeraz*.

Gasteluçar = Gasteluçar, Bernard (Gç), *Eguia Catholicac*, Paue, 1686. Lino
Akesoloren ed., Bilbo, 1983.

Gaztelu = Goikoetxea, Juan Ignacio (Gaztelu) (Gazt), *Musika ixilla (MusIx)* =
*Musika ixilla. Música callada. Fray Luis Leon eta Donibane Gurutzen
olerkirik onenak, erderaz eta euskeraz*, Donostia, 1963.

Gereño = Gereño, Xabier, *Gerra ezkutua*, Bilbo, 1984.

Gipuzkoako eliz-barrutirako gipuzkerazko ikasbidea

Goikoetxea = Goikoetxea, Juan Luis, *Euskaldunaren anekdotak*, Mendebal-
de Kultura Alkartea, Ateka Aztergaiak, 2004.

Goñi = Goñi, Francisco (Goñi), *Ama Birjiñaren agertziak* = *Ama Birjiñaren
Agertziak eta gañerako Lurdes-ko gertaera gogoangarriak*, Durango,
1908, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1962.

Gonzalez = González, Maite (itzul.) - Mercé Rodoreda, *Diamantearen plaza*,
Donostia, 1994.

Gorostiza = Gorostiza Hormaetxe, Jabier, *Ipuin arinak*, Bilbo, 1989.

Goyhetché = Goyhetché, Leonce (Gy), **Fableac** = *Fableac edo aleguiac Lafontainenetaric berechiz hartuac*, Baiona, 1852, (faksimilea: Donostia, 1978).

Guerrico = Guerrico, José Ignacio de (Gco), **Sayaquera** = *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera*, Tolosa, 1858.

Haramburu = Haramburu, Jean de (Harb), **Debocino escuarra** = *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua*, Bordele, 1635.

Haraneder = Haraneder, Joannes (He), **Gudu izpirituala** (*Gudu*), Tolosa, 1750. ▶ **Testament berria** = *Iesu-Christo gure iaunaren Testament berria. Lehenago I. N. Haraneder Done Ioane Lohitsuco iaun aphez batec escuararat itçulia; orai, artha bereci batequin garbiquiago, lehembicico aldicoçat aguer-arazia, Laphurtar bi iaun aphezec*, Baiona, 1855.

Hiriart-Urruty = Hiriart-Urruty, Jean (HU), **Gontzetarik jalgiaraziak**, Donostia, 1995. ▶ **Mintzaira. Aurpegia. Gizon** (*Aurp*), Donostia, 1971. ▶ **Zezenak Errepublikan** (*Zez*), Donostia, 1972.

Hiribarren = Hiribarren, Jean Martin (Hb), **Eskaldunac** (*Esk*) = *Eskaldunac. Iberia. Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraricona*, Baiona, 1853, (faksimilea: Donostia, 1979). ▶ **Eskaraz eguia** (*Egia*), Baiona, 1858.

Ibiñagabeitia = Ibiñagabeitia, Andima (Ibiñ), **Bergiliren idazlanak osorik** (*Virgil*) = *Bergiliren Idazlanak osorik: Unai-Kantak eta Alor-Kantak*, Bilbo, 1966.

Igerabide = Igerabide, Juan Kruz, **Bularretik mintzora** = *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura*, Donostia, 1993. ▶ **Hauts bihurtu zineten**, Irun, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Iketzen = Iketzen, *Euskaldunak euskeraz* = <<Euskaldunak euskeraz>>, *Azkatasuna*.

Inchauspe = Inchauspe, Emmanuel (Ip), *Ama Birjinaren hilabetia (Hil)*, Paue, 1894. ▶ *Dialogues basques (Dial)*, L. L. Bonaparteren ed., Londres, 1857.

Iñurrieta = Iñurrieta, Iñaki (itzul.) - Montesquieu, *Legeen espirituaz II*, Bilbo, 1999, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Inza = Inza, Dámaso (Inza), *Kristau ikasbidearen azalpena (Azalp)*, Iruñea, 1924.

Iraizoz = Iraizoz, Policarpo (Ir), *Yesukristoren bizia (YKBiz)* = *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itzez atera ta*, Iruñea, 1934.

Iraola = Iraola, Victoriano (Iraola), **Oroitzak** = *Oroitzak ta beste ipui asko*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1962.

Iratzeder = Diharce, Jean Marie (Ganich Iratzeder) (Iratz), **Biziaren olerkia**, Bilbo, 1983.

Irazusta = Irazusta, Juan Antonio (JA Iraz), **Bizia garratza da (Bizia)**, Buenos Aires, 1950.

Irigaray = Irigaray, Pablo Fermín (FIr), **Nafarroako euskal idazlariak** = *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de [...] J. P. Fermín Irigaray*, A. Irigarayren ed., Iruña, 1958.

Itun Berria

Iturriaga = Iturriaga, Pascual de (It), **Diálogos (Dial)** = *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, Hernani, 1842

(faksimilea: Donostia, 1978). ▶ **Fábulas** (*Fab*) = *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado*, Donostia, 1842, Auspoaren ed., Tolosa, 1967.

Iturzaeta = Iturzaeta, Andrés (Itz), **Azalduera laburrac** (*Azald*) = *Aita Gaspar Astete-eren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*, Durango, 1899. ▶ **Berbaldiak** (*Berb*) = *Urtearen domeca guztiñetaraco berbaldia I, II*, Tolosa, 1894.

Izagirre = Izagirre, Koldo, **Agirre zaharraren kartzelaldi berriak**, Donostia, 1999 (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ Izagirre, Koldo (itzul.) - Xabier Puente Docampo, **Gauetz ate joka datozenean**, Donostia, 1996, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Izeta = Izeta, Mariano (Izeta), **Dirua galgarri** (*DirG*), Donostia, 1962.

Iztueta P. = Iztueta, Paulo (itzul.), **Gizarte-ekintzak** = *Gizarte-ekintzak* (jatorrizko izenburua: *Obras sociales*), Donostia, 1981.

Iztueta, J. I. = Iztueta, Juan Ignacio (Izt), **Guipuzcoaren condaira** (*C*) = *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*, Donostia, 1847. Faksimilea: Bilbo, 1975.

Jan-Edanaren bertsoak = *Jan-Edanaren bertsoak* (*JanEd*), [I] Tolosa, 1982. [II] Tolosa, 1985.

Jauffret = Jauffret, F. A., **Catichima** = *Catichima edo fedea laburzki François-Antoine Jauffret Baionaco Jaun Aphezpicuac publicatua* (*Cat-Jauf*), Baiona, 1902.

Jauretche = Jauretche, Abbé (Jaur), **Meditazioneac** = *Meditazioneac urtheco ebanjelioen gainean, egun guzietaco, eta Jesu-Cristo gure Jaunaren, Birjina sainduaren eta Sainduen bestetaco*, Baiona, 1840.

Jautarkol = Jauregi, Luis (Jautarkol) (Jaukol), *Biozkadak* (*Biozk*), Iruñea, 1929 (faksimilea: Donostia, 1975).

Joannateguy = Joannateguy, Basile (Jnn), *Sainduen Bizitzea* (*SBi*) = *Sainduen Bizitzea. Lehen zatia*, Baiona, 1890, *Bigarren zatia*, Baiona, 1900.

Juanena = Juanena, Agurtzane, *Esan gabe neukana*, Donostia, 2003, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Juaristi = Juaristi, Felipe, *Airezko emakumeak*, Donostia, 2003. ▶ *Ez idolorik uki*, (itzulp.), Brigitte Smadja, Bilbo, 1998, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Karrika = Mendisco Eyherabide, Bernard (Beñat Karrika), *Armendaritze haur begiez*, Tolosa, 1990.

Kirikiño = Bustintza, Evaristo (Kirikiño) (Kk), *Abarrak* (*Ab I*), Abando, 1918. ▶ *Bigarrego Abarrak* (*Ab II*), Amorebieta, 1930.

Krutwig = Krutwig, Fernando, *Igibarziaren iphuinak*, Donostia, 1981.

Labayen = Labayen, Antonio M^a (Lab), *Euskal-Eguna* (*EEguna*), Tolosa, 1931. ▶ *Su-emailleak* (*SuEm*) = <<*Su-emailleak*>>, *Egan* 1966, 165-215.

Lafitte = Lafitte, Pierre (Lf), *Murtuts eta bertze* (*Murtuts*) = *Murtuts eta bertze... Artho churitzetako zombait ichtorio chahar*, Baiona, 1945.

Laka = Laka, Itziar (itzul.) - Noam Chomsky, *Egitura sintaktikoak*, Bilbo, 2003, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Landart = Landart, Daniel, *Anaiaren azken hitzak*, Donostia, 1999 (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

- Lapeyre, E.** = Lapeyre, Étienne (Lap), *Credo* = *Credo edo sinhesten dut esplikatua*, Baiona, 1891. L. Villasanteren ed., Bilbo, 1982.
- Lapeyre, M.** = Lapeyre, Martin (Lapeyre), *Jesusen Bihotz Sakratuari (Jes-Bih)* = *Jesusen Bihotz Sakratuari giristinoen deboziona eta herrien eta familien Kontsekratziona*, Baiona, 1889.
- Laphitz** = Laphitz, Francisco (Laph), *Bi saindu hescualdunen bizia* = *Bi saindu hescualdunen bizia: San Inazio Loiolacoarena eta San Franzizco Zabierecoarena*, Baiona, 1867 (faksimilea: Donostia, 1978).
- Lardizabal** = Lardizabal, Francisco (Lard), *Testamentu Zarr. Berr. condaira* = *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, Tolosa, 1855.
- Larramendi** = Larramendi, Manuel de (Lar), *Mendibururi egindako karta (Carta Mb)* = *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, hitzaurrea. ▶ *San Agustinez (SAgust)* = *Panegirico del gran doctor de la Iglesia s. Agustín*, Azpeitia, 1885.
- Larrañaga** = Larrañaga, Mirentxu (itzul.) - Dorothy Parker, *Hona hemen gu biok*, Donostia, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).
- Larreguy** = Larreguy, Bernard (Lg), *Testamen çaharr. berr. historia* = *Testamen çaharreco eta berrico historia*, Baiona, [I], 1775, [II] 1777, (faksimilea: Donostia, 1978).
- Larzabal** = Larzabal, Pierre (Larz), *Iru ziren (Iru)*, Tolosa, 1962. ▶ *Matalas* = *Irri eta nigar Herriko bozala eta nor alkartea?*; *Matalas*, Azpeitia, 1997. ▶ *Senperen gertatua (Senper)*, Tolosa, 1964.
- Lauaxeta** = Urquiaga, Esteban (Lauaxeta) (Laux), *Arrats beran (AB)* = *Arrats-beran*, Bilbo, 1935. ▶ *Bide barriak (BBa)* = *Bide-barriak*, Bilbo, 1931.

Laudioko katetxima (*CatLlo*) = *Cristiñau Doctrinia Aita Gaspar Astetec erderaz escribedua [...] Orain eusquerara biyortuta, urteiten dau arguitara cerbaist gueiyagoturic Laudiyoco Abade Jaunen encarguz eta costuz*, Bilbo, 1828.

Lazarraga = *Juan Perez de Lazarraga Larrea Dorretzeko jaunaren eskuizkribua (1564-1567)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2004.

Legaz = Legaz, Dámaso (Legaz), **Cristauaren Icasbidea** = *Cristauaren Icasbidea Aita Gaspar Astetec egina*, Iruñea, 1880.

Leiçarraga = Leiçarraga, Joannes (Lç), **Kalendrera** (*Cal*), Arroxela, 1571 (faksimilea: Donostia, 1979). ▶ **Othoitzza Ecclesiasticoen forma** (*ABC*) = *ABC edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin*, Arroxela, 1571 (faksimilea: Donostia, 1979). ▶ **Testamentu Berria** = *Iesus Christ gure Iau-naren Testamentu Berria*, Arroxela, 1571 (faksimilea: Donostia, 1979).

Léon = Léon, Léon (Leon), **Ebanjelio Saindua** = *Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua*, Uztaritze, 1946. ▶ **Imitazionea** (*Imit*) = *Jesu-Kristoren Imitazionea*, Turnhout, 1929.

Lertxundi = Lertxundi, Anjel, **Argizariaren egunak**, Irun, 1998, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ **Azkenaz beste**, Irun, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ **Konpainia noblean**, Donostia, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Linazasoro = Linazasoro, Karlos, **Ez balego beste mundurik**, Irun, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ **Glosolaliak** = *Glosolaliak eta beste*, Donostia, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Lizardi = Agirre, Jose M^a (X. de Lizardi) (Ldi), **Biotz-begietan** (*BB*), Bilbo, 1932. ▶ **Itz-lauz** (*IL*), Donostia, 1934. ▶ **Umezurtz olerkiak** (*UO*), Donostia, 1934.

Lizarraga = Lizarraga, Joaquín (LE) = *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic* (Ong), Bilbo, 1984, F. Ondarraren ed. (1807). ▶ *Programa de vida cristiana* (Prog) = <<Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el s. XVIII>> (1780). J. Apecechearen ed., *FLV* 1975, 89-127.

Maister = Maister, Martin (Mst), *Jesu-Kristen imitacionia* = *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apheç bateç [...]* utçulia, Paue, 1757.

Markuleta = Markuleta, Gerardo, *Milesker...*, “Milesker, euskaltzain oso”, *Argia*, 1997-04-13, 1620. zk., 5.

Materre = Materre, Esteban (Mat), *Doctrina Christiana* = *Doctrina Christiana. Aita Esteve Materre San Franciscoren ordenaco Fraideac eguina*, Bordele, 1617. 2. ed. (Bordele, 1623).

Mendiburu = Mendiburu, Sebastián (Mb), *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (IArg I, II), Patxi Altunaren ed., Bilbo, 1982. ▶ *Otoitz-gaiak* = *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitz-gai*, Iruñea, 1759, 1760.

Mendiguren Bereziartu = Mendiguren Bereziartu, Xabier, *Lana eta jolasa*, Donostia, 1986.

Mendiguren Elizegi = Mendiguren Elizegi, Xabier, *Irakasle alu bat*, Donostia, 1998.

Mendizabal = Mendizabal, Fernando, *Arantzazuko Biltzarra*, *Euskera* Agerkariaren separata, 1956.

Mercy = Mercy, Alexis (Mercy), *Andere Dona Maria* = *Andere Dona Maria, Scapulariocouaren confrariaco, bulla, decreta, statutac eta maniac edo chediac*, Paue, 1870.

Micoleta = Micoleta, Rafael de (Mic), *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, F. Fitaren ed., Bartzelona, 1880.

Mihura = Mihura, Alexandre (Mih), *Andredena Mariaren Imitacionea, Andredena Mariaren Imitacionea, Jesus-Christoren Imitacionearen gañean moldatua*, Baiona, 1778.

Mintegi = Mintegi, Migel Angel, *Denak du bere prezioa*, Bilbo, 2002, (EHU-ren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Mirande = Mirande, Jean (Mde), *Haur besoetakoa (HaurB) = Haur besoetakoa. Ipuin berri bat*, G. Arestiren ed., Donostia, 1970. ▶ *Miranderen idazlan hautatuak (Pr)*, Bilbo, 1976. ▶ *Orhoituz (Po)*, A. Eguzkitzaren ed., Donostia, 1976.

Mitxelena = Mitxelena, Koldo (MEIG), *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Patxi Altunaren ed., Bilbo, 1972. ▶ *Euskal Idazlan Guztiak I-IX*, Donostia, 1988.

Mitxelena, S. = Mitxelena, Salvatore (SMitx), *Arantzazu (Aranz) = Arantzazu. Euskal-sinismenaren poema*, Oñati, 1949.

Mocoroa = Mocoroa, Valeriano (Moc), *Damuba garaiz (Damu) = Damuba... garaiz, edo Bertuteric gabeco aberastasuna iñoiz ez da eguizco zoriontasuna*, Tolosa, 1987.

Moguel, J. A. = Moguel, Juan Antonio (Mg), *Confesino ona (CO)*, Gasteiz, 1803. ▶ *Eracasteac (CC) = Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*, Iruñea, 1800. ▶ *Peru Abarca (PAb) = El doctor Peru Abarca*, Durango, 1881.

Moguel, J. J. = Moguel, Juan José (JJMg), *Baserritaar nequezaleentzaco escolia (BasEsc) = Baserritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac*,

guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exemplu ta eracutsijetan, Bilbo, 1816.

Moguel, V. = Moguel, Vicenta (VMg), *Ipui onac*, Donostia, 1984.

Mokoroa = Mokoroa, Justo (Mok), *Erraondo-ko azken danbolinteroa = Erraondo-ko azken danbolinteroa*. Arturo Campion-en ipuia, Bilbao, 1958.

Monasterio = Monasterio, Xabier, *Atzekoz aurrera*, Bilbo, 1990.

Monho = Monho, Salvat (Monho), *Poèmes basques = Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821)*. Pierre Lafitteren ed. eta itzulp., Baiona, 1972.

Montoia = Montoia, Xabier, *Baina bihotzak dio*, Donostia, 2008, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ *Elektrika*, Zarautz, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Morillo = Morillo, Fernando, *Ortzadarra sutan*, Donostia, 2003, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Mujica = Mujica, Gregorio (Muj), *Pernando Amezketarra (PAm) = Pernando Amezketarra*. Bere ateraldi ta gertaerak, Donostia, 1925. 2. ed., 1927.

Mujika = Mujika Iraola, Inazio, *Gerezi Denbora*, Irun, 1999, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Munita = Munita, Inozenzio (Munita), *Gure mendi ta oianak = Gure mendi ta oianak*. Zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek, Tolosa, 1952.

Oihenart = Oihenart, Arnaud (O), *Atsotitzak (PrASJU)*, J. Urquijoren ed., ASJU 1967, 3-44. ▶ *Les Proverbes basques (Pr) = Les Proverbes basques*

recueillis par le S. D'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur, Paris, 1657. ▶ Poésies de jeunesse (Po) = <<(Oihenarten) gastaroa neurthizetan>>, Les Proverbes basques, Paris, 1657, ASJU, 1955.

Onaindia = Onaindia, Santiago, *Esoporen ipuiñak* = “Esoporen ipuiñak”, *Olerti*, 1968-1-2).

Oñatiko eskuizkribua (*msOñ*), *Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan bere Adisquide Necazari batentzat. Eusk* 1977-1, 179-197: J. Elorzak argitaratutako zatiak.

Oñederra = Oñederra, Lourdes, *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Donostia, 1999, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ **Fonetika Fonologia hitzez hitz**, Leioa, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Orixe = Ormaechea, Nicolás (Orixe) (Or), *Aitorkizunak* (Aitork), *Agustiñ Gu-renaren aitorkizunak*, Zarautz, 1956. ▶ **Euskaldunak** (*Eus*) = <<*Euskaldunak*>> *poema eta olerki guziak*, Donostia, 1972. ▶ **Mireio** (*Mi*), Bilbo, 1930. ▶ **Olerkiak** (*Poem*) = <<*Euskaldunak*>> *poema eta olerki guziak*, Donostia, 1972. ▶ **Quito-n arrebarekin** (*QA*), I. Seguiolaren ed., Donostia, 1987. ▶ **Santa Cruz apaiza** (*SCruz*), Donostia, 1929. ▶ **Testamentu Berria**, Donostia, 1967. ▶ **Tormes-ko itsu-mutilla** (*Tormes*), Bilbo, 1929.

Ortiz de Landaluze = Ortiz de Landaluze, Agurtzane (itzul.) - Anne Finne, *Enekoren soineko arrosa*, Bilbo, 1995.

Oskillaso = Basterrechea, José de (Oskillaso) (Osk), **Kurloiak** (*Kurk*) = *Kurloiak. Kaletarren haur-zarua Bizkaian*, Zarautz, 1962.

Otxolua = Garro, Bernardo (Otxolua) (Otx), **Bertolda eta Bertoldin** = *Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barregarriak*, Bilbo, 1932.

Oxobi = Moulier, Jules (Oxobi) (Ox), *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait* = *Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait*, Baiona, 1966.

Perurena = Perurena Loiarde, Patziku, *Trapuan pupua*, Donostia, 2001 (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Pizkunde zale bizkaitarra

Pouvreau = Pouvreau, Silvain (SP), *Iesusen Imitacionea (Imit)*, Donostia, 1979. ▶ **Philotea (Phil)** = *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*, Paris, 1664.

Ramirez de Okariz = Ramirez de Okariz Telleria, Iñigo, *Oñati, gure herria*, Oñati, 1994.

Refranes y Sentencias (RS) = *Refranes y sentencias comunes en Bascuence, declarados en Romance* (1596). J. Urquijoren ed., *RIEV* 1911-1933. Baita: J. A. Lakarraren ed., Bilbo, 1996.

Saint-Pierre = Saint-Pierre, Jean (StPierre), *Ikusiak*, *Egan* 1984 (5-6), 11-40.

Saizarbitoria = Saizarbitoria, Ramon, *Gorde nazazu lurpean*, Donostia, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Salaverria = Salaverria, Sebastián (Salav), *Neronek tirako nizkin*, Tolosa, 1964.

San Martin = San Martin, Juan (SM), *Zirikadak (Zirik) = Zirikadak. Ipuin barregarri-dun liburua*, Zarautz, 1960.

Sarasola = Sarasola, Ibon, *Contribución al estudio de textos antiguos vascos* 5.1.3., 86.

Sarrionandia = Sarrionandia, Joseba, *Kolosala izango da*, Tafalla, 2003. ▶ *Lagun izoztua*, Donostia, 2001, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Segurola = Segurola, Iñaki, *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, Donostia, 2005, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Soroa = Soroa, Marcelino (Sor), *Anton Caicu (AKaik) = Anton Caicu, jostaeta jostirudicoa euscaras jarriya*, Donostia, 1882. A. Zavalaren ed., Tolosa, 1962. ▶ *Baratzan (Bar) = Baratzan, EE*, 1886. (A. Zavalaren ed., Donostia, 1962).

Tartas = Tartas, Jean de (Tt), *Occupatione devotaq (Arima) = Arima penitentaren occupatione devotaq*, Orthez, 1672. ▶ *Onsa hilceco bidia (Onsa)*, M. J. B. Darricarreren ed., Bilbo, 1987; P. Altunaren ed. (1. arg., Orthez, 1666).

Txillardegi = Alvarez Enparantza, José Luis (Txillardegi) (Txill), *Exkixu*, Donostia, 1995. ▶ *Leturiaren egunkari ezkutua (Let)*, Bilbo, 1957.

Txirrita = Lujambio, José Manuel (Txirrita) (Tx), *Bizitza eta bat bateko bertsoak (B) = A. Zavalaren ed., Tolosa, 1962. ▶ Txirritaren bertsoak (B I) = Txirritaren bertsoak I, II, III*, Tolosa, 1971, 1971, 1976.

Ubillos = Ubillos, Juan Antonio (Ub), *Cristau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa, 1785 (faksimilea: Donostia, 1978).

Udarregi = Alcain, Juan José (Udarregi) (Ud), *Udarregi bertsolaria*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1966.

Ugalde = Ugalde, Martín de (Ugalde), *Batasun eta zatiketen artean*, Donostia, 1989.

Uriarte = Uriarte, José Antonio (Ur), *Marijaren illa (MarII) = Marijaren illa edo Maijatzeco illa*, Bilbo, 1850.

Urruzuno = Urruzuno, Pedro Miguel (Urruz), *Euskal Erritik zerura* (Zer), Tolosa, 1961. A. Zavalak bilduak. ▶ *Ipui sorta* (Ipuin) = *Ipuinak*, Donostia, 1988. (L. M. Larringanen ed.). ▶ *Ur-zale baten ipuiak* (Urz), *Euskal-erritik zerura*-n A. Zavalak bilduak, Tolosa, 1961.

Uztapide = Olaizola, Manuel (Uztapide) (Uzt), *Beste bertso batzuk*. ▶ *Lengo egunak gogoan* (LEG) = *Lengo egunak gogoan* [I] Tolosa, 1975 (2. ed.) [II] Tolosa, 1974. ▶ *Noizbait* (Noiz), Tolosa, 1964. ▶ *Sasoia joan da gero* (Sas), Tolosa, 1976.

Uztarri = Segurola, J. M. (Uztarri), *Bertso zaharrak*, *Bertsolaria* (1841-1899).

Villasante = Villasante, Luis (Vill), *Euskararen auziaz*, Oñati, 1988. ▶ *Kristau fedearen sustraiak* (Jaink) = *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa*, Oñati, 1962.

Xalbador = Aire, Xalbador (Xalbador) (Xa), *Odolaren mintzoa* (Odol), Tolosa, 1976.

Xarlemaña = *La tragédie de Charlemagne, B. Oyharçabalen transkripzioa eta itzulpena* (Xarlem), ASJU 1988 hh.

Xarriton = Xarriton, Piarres (itzul.) - Spinoza, *Etika*, Donostia, 1997 (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Xenpelar = Petriarena, Juan Francisco (Xenpelar) (Xe), *Bertsoak. Xenpelar bertsolaria*, A. Zavalaren ed., Tolosa, 1969.

Zabala, J. L. = Zabala, Juan Luis, *Agur, Euzkadi*, Zarautz, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Zabala, K. = Zabala, Karlos (itzul.), *Parisen sabela*, Donostia, 2004, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Zabala, M.D. = Zabala, Alfonso M. de (Zab), *Gabon gau bat = Gabon gau bat eta beste ipui asko*, A. Zavalak bilduak, Tolosa, 1962.

Zabala, P. = Zabala, Pello, *Naturaren mintzoa = Naturaren mintzoa: egunez egun, sasoién gurgilean*, Irun, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea). ▶ **Zeruan zer berri** = *Zeruan zer berri: Arantzazuko talaiatik zeruari begira*, Donostia, 2006.

Zabaleta = Zabaleta, Iñaki, *110. Street-eko geltokia*, Donostia, 2003, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Zaitegi = Zaitegi, Jokin (Zait), *Platon'eneko atarian (Plat)*, Donostia, 1961.

Zalbide = Zalbide, Mikel, *Administrazioko hizkera = Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, Bilbo.

Zalduby = Adéma, Gratien (Zalduby) (Zby), *Atsotitz, zuhur-hitz eta erranzahar*, Baiona, 1936. ▶ **Obrak** = <<Oeuvres du chanoine Adéma>>, *RIEV* 1908.

Zapiain = Zapiain, Markos, *Errua eta maitasuna*, Donostia, 2002, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Zavala = Zavala, Juan Mateo de (Zav), *Fábulas (Fab)* = <<Fábulas en dialecto vizcaíno>>, *RIEV* 1907, 87-98 eta 529-543; 1909, 27-40.

Zerbitzari = Elissalde, Jean (Zerbitzari) (Zerb), *Atsotitz, zuhur-hitz eta erranzahar (Prov)*, Baiona, 1936. ▶ **Azkaine (Azk)** = *Azkaine gure sorterrria*, P. Xarritonen ed., Donostia, 1985. ▶ **Bahnar deitu salbaiak (Bahnar)**, Baiona, 1936. ▶ **Ichtorio Saindua (IxtS)** = *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo, Eliza*, Lille, 1943.

Zuazo = Zuazo, Koldo, *Euskararen sendabelarrak*, Irun, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

Zuberoko katexima (*CatS*), *Catichima edo Fedia laburki*, Baiona, 1872.

Zubikarai = Zubikarai, Agustín (Zubk), *Itxas-aize*, Ondarroa, 1989.

Zubiri = Zubiri, Enrique (Zub), *XX.garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak* = *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri [...]* A. Irigarairen ed., Iruña, 1958.

Zubizarreta = Zubizarreta, Patxi, *Jeans-ak hozkailuan*, Irun, 2000, (EHUren *Ereduzko Prosa Gaur* datu-basea).

B. ALDIZKARIAK, GRAMATIKAK, HIZTEGIAK...

Azkue = Azkue, Resurrección María de, *DVEF* = *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo, 1969.

Berria egunkaria

EGLU I = *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*, Iruña, 1985. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

EGLU II = *Euskaltzaindia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*, Bilbo, 1987. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

EGLU III = *Euskaltzaindia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Loka-iluak)*, Bilbo, 1990. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

EGLU IV = Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*, Bilbo, 1994. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

EGLU V = Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*, Bilbo, 1999. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

EGLU VI = Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (Mendeko perpausak-2)*, Bilbo, 2005. Baita: http://www.euskaltzaindia.net/iker_jagon/iker/gramatika

Elexpuru = Elexpuru Arregi, Juan Martin (Elexp), *Bergara aldeko lexikoa*, Bergara, 1985.

Ereduzko Prosa Gaur = Euskal Herriko Unibertsitatea, *Ereduzko Prosa Gaur*, Bilbo: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

Euskaltzaindiaren Arauak, Bilbo, 1994tik aurrera: www.euskaltzaindia.net/arauak

GAO, *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*, 1990.

Garate = Garate, Gotzon, *Erdarakadak*, Bilbo, 1988.

Herria

Hiztegi Batua = Euskaltzaindia, *Hiztegi Batua*, 3. arg., Donostia, 2010.

Ikastola aldizkaria

Jakin aldizkaria

Karmel

Lafitte = Lafitte, Pierre, *Grammaire basque* = *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*, Donostia, 1979.

OEH = Euskaltzaindia, *Orotariko Euskal Hiztegia: testu corpusa*.

Sota et alii = Sota, Manuel de la, Pierre Lafitte eta Lino de Akesolo, **DRA** = *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*, Bilbo, 1976-1989.

Trask = Trask, R. L., *The History of Basque*, London and New York, 1997.

Villasante = Villasante, Luis, *Sintaxis de la oración compuesta*, 2. ed., Oñati, 1969.

GAI-AURKIDIDEA

- aditz laguntzailearen tempusa, 190, 236
aditz modalak, 328, 345
aditz trinko puntukaria, 358, 379
aditzaren elipsia, 71, 254, 266, 294
aditzaren osagarria, 26, 162, 168, 183
aditz-izena, 7, 18, 33, 164, 168, 186, 208, 273, 306, 349, 351, 376-377, 434-435, 468, 610, 612
aditz-izena + *-AGATIK*, 164
aditz-izena + *ALDE(RA)*, 164
aditz-izena + *-ARREN*, 164
aditz-izena + *-KOTAN*, 164
aditz-izena + *-KOTZAT*, 164
aditz-izena + *-RAINO*, 164
aditz-izenaren objektua genitiboz, 444
aditzoin juntatuak edo enumeraziozkoak, 356, 378
aditzoina, 7, 31, 33, 50, 53, 68, 73, 79, 87, 93, 104, 128, 131, 133, 164, 233, 247, 259, 285, 292, 299, 306, 356-358, 378-379, 410, 420, 422, 427, 463, 561
__denborazko perpausetan, 22, 174, 237
aditzoina + ahala + aditzoin bera, 357, 378
aditzoina + *-KA* atzizkia, 357, 379
aditzoina + *-KI* atzizkia, 358, 379
aditz-partizipioa, 7, 247, 259, 261-262, 265-266, 268, 272, 283-284, 292-295, 298, 306, 328, 332, 353, 363
aditz-partizipioa + ez + agatik, 272, 295
aditz-partizipioa + ez + arren, 265, 294
adjektibo-funtzioa, 313
adjuntua, 7, 12, 14, 301, 361
adlatiboa, 31-32, 47, 50, 53, 68, 72, 76, 79, 93, 103, 110, 123, 126-129, 131-132, 454, 493
aktantea, 143
alborakuntza, 250, 283, 289
aldaera burutua, 429, 540, 543, 551, 556-557
aldiberekotasun errepikatua, 63, 65, 125, 206
aldiberekotasun estua, 43, 46, 52, 55, 60, 63, 65, 77, 122, 200
aldiberekotasuna, 28, 33-40, 43, 45-48, 52, 113-114, 119, 123-124, 132, 191, 218
aldiberekotasun-kontzeptua, 188
alegialdiko aditza, 208
alternantzia, 565, 567-569, 572, 612
anbiguotasuna, 113, 435, 497
argumentu/adjuntu bereizkuntza, 449
argumentua, 162, 169, 435, 438, 450, 452, 455
argumentu-sarea, 457
asmoa, 8, 41, 94, 121, 166, 168-169, 174-175, 228, 242, 335, 373, 449, 461, 504-505, 522
asmoa izan, 168, 461
aspektu bereizketa, 152

- aspektu burutua, 257, 398, 612
aspektu-balioa, 207
aspektu-marka, 206, 208, 212, 216, 477-478
aspektu-murritzapena, 397
aspektu-perifrasia, 596, 602-604, 607
aurkaritza-balioa, 251, 260
aurkaritza-erlazioa, 250-251, 289
aurkaritza-lokailuak, 18, 249-250, 255, 288-289, 291
aurrekotasuna, 28, 35, 37, 47-49, 52, 66-67, 69, 71, 73, 75, 77, 122-123, 125
aurretikotasuna, 444
azalpena, 21-23, 29, 33, 37, 59, 72, 80, 83, 86, 89, 98, 103, 119, 127, 140, 155, 160, 169-170, 177, 197, 220, 264, 322, 393, 400, 525, 537, 628
azalpenezko perpaus kausalak, 150
AZKERO, 92-93, 197
BA-, 32, 56, 71, 175-176, 185-186, 190, 199, 208, 214, 220, 229, 235, 252, 254, 262, 267, 277, 279-281, 298, 303, 337, 340, 346, 358, 374, 439, 442, 491, 522, 537, 551, 577
BA- ... BER, 185
BA-... ERE, 186, 252, 280-281, 298
BA-..., 32, 56, 71, 175-176, 185-186, 190, 199, 208, 214, 220, 229, 235, 252, 254, 262, 267, 277, 279-281, 298, 303, 337, 340, 346, 358, 374, 439, 442, 491, 522, 537, 551, 577
BAIT-, 146-148, 401-402, 420, 540-541, 585
baldintza, 15, 19-20, 23, 41, 45, 78, 80, 84, 86, 95, 98, 121, 127, 129, 176, 187, 190, 193, 197-203, 207-209, 211-212, 215-216, 221-226, 228, 232-233, 235-243, 252, 261, 289, 309, 562, 570, 576-577, 583
baldintza askikoa eta ezinbestekoa, 201
baldintza erreala, 190, 202, 208, 211, 236, 238-240
baldintza errearen adiera, 203, 211
baldintza irreala, 190, 202, 208, 211-212, 215, 236, 239-240
baldintza irrealaren adiera, 208, 212
baldintzadun perpausa = baldintzazko perpausa + ondore perpausa, 188
baldintza-ondore komunztadura, 202-203
baldintza-perpausa, 206
baldintza-perpauak, 6-7, 86, 91, 176, 185, 235, 247, 252, 289
—aldiberekotasuna, 28, 33-40, 43, 45-48, 52, 113-114, 119, 123-124, 132, 191, 218
—ezaugarriak, 18, 156, 177, 235, 247, 257-258, 388, 395, 406, 436, 492
—hipotesia, 190, 207, 209, 222, 227, 236, 242
—kausa eta kausa-ondorio erlazioa, 188
—semantikaren eta pragmatikaren jokoak, 192
—*TU EZEAN*, 186, 197, 215, 217-218, 238, 240-241
—*TU EZIK*, 186, 197, 210-211, 216-218, 238-241, 256, 279-280, 291, 297, 309, 344
—*TUENEAN*, 45, 186, 232
—*TUZ GERO*, 19, 33, 66, 78, 92-94, 100, 129-130, 186, 194-203, 206-208, 212-213, 215, 218-219, 221-222, 226, 237-239, 241, 246-247, 252, 256, 280-281, 285, 291, 297, 299, 326, 448
—*TZEKOTAN*, 20, 41, 174, 184, 186, 218-219, 221-222, 224-230, 240-241, 243, 355, 378, 521-522, 612
—*TZEKOTZ*, 176, 186, 227, 229-230, 240-241, 243
—*TZERA(T)*, 186, 230-232, 243, 462, 492
—*TZEZ GERO*, 186, 229, 243
—*ZER + ADITZOINA + ERE (ZER (NAHI) GERTA (ERE), ZER HEL ERE)*, 233

- baldintzazko adiera, 196, 226, 229-230
 baldintzazko perpausa, 187-188, 191, 193, 201
 balio generikoa edo gnomikoa, 203, 238
 balio murrizgarria, 393
 banakaritza, 282-283, 298
 banakaritza-egiturak, 298
 beste X-ik ezean..., 217
 besterik ezean, 148, 217
 bigarren mailako predikazioa, 304
 borondatea, 140-141, 157-158, 165-166, 180, 183, 219, 504-505, 510, 529
 borondatea, ezaugarri semantikoa, 65
 burututasuna, 541, 612
 -*DAKO*, 385
 denbora, 19, 23, 28-30, 32-37, 41-45, 49, 55, 59, 61, 78, 85-86, 92, 95, 99, 108-109, 112, 114, 121, 126, 129, 145, 158, 187, 192, 197-200, 206, 227, 238, 274, 276, 281, 401, 425, 427, 429, 439, 465, 468, 503, 511, 521, 529, 534, 541-542, 560, 600, 635
 denbora-marka, 191, 427, 429
 denborazko perpausak, 6-7, 17, 27-29, 61, 95, 119, 187, 194, 197, 522, 535
 __aldi desberdintasuna, 35, 66, 125
 __aldi desberdintasuna, aurrekotasuna, 35
 __aldi desberdintasuna, ondokotasuna, 35
 __aldiberekotasuna, 28, 33-40, 43, 45-48, 52, 113-114, 119, 123-124, 132, 191, 218
 __aldiberekotasuna, aldiberekotasun errepikatua, 37, 65
 __aldiberekotasuna, aldiberekotasun estua, 37, 65
 __aldiberekotasuna, aldiberekotasun orokorra, 37, 65
 __funtzioa, 7, 12-13, 27, 513, 517-518, 591, 609
 __iraupena, 28-29, 35, 65, 98-100, 110, 114, 130, 257, 468
 __iraupena, noizdanikoa, 35
 __iraupena, tarte osoa, 98
 __menderatzaileak, 28, 30
 __sailkapena, 13, 35, 190, 247, 460, 508
 egia-balioa, 190
 egilea, 1, 76, 143, 145, 416, 474, 485, 490
 egiletasuna, 471, 473-475, 480, 483-484, 486, 508
 egoera eta gertakariei buruzko baldintza, 209
 egoera iteratibo edo errepikatua, 191
 egoera-aditzak, 116, 397
 ekintza burutua, 206, 213
 -(e)KO, 384
 -eLA, 253, 303
 -eLAKO, 136, 139, 146-148, 180-181, 274, 385
 -ELAKO, 136, 139, 146-148, 180-181, 274, 385
 -eLAKO kausala eta -TZEAGATIK helburuzkoa, 139
 -eLARIK, 253, 303, 323
 elipsia, 71, 254, 260, 266, 290, 294
 emendiozko juntadura, 56
 -eN, 50, 54, 73, 84, 98, 101-102, 109, 111, 147, 185, 262, 264, 293, 303, 323, 328, 345, 351, 356, 371, 374, 411, 445, 469, 565, 574-575, 583, 628-629, 633, 636-637, 640-641
 -eN ANTZERA, 303
 -eN ARREN, 264, 293
 -eN ARTE, 98, 101-102
 -eN ARTINO, 101
 -eN BEZAIN LASTER, 54
 -eN BEZALA, 303, 345, 351, 374
 -eN BITARTEAN, 109
 -eN ERAN, 303, 351
 -eN LEGEZ, 303, 345, 374
 -eN MODUAN, 303, 351

- eNAGATIK, 270
 -eNEAN, 36, 38, 232
 -eNEKO, 47, 69, 72, 103-104, 203, 230, 279, 325, 640
 -eNETIK, 100
 -eNEZ GERO, 100, 146, 148
 Erdialdeko eta Ekialdeko euskalkiak, 171
 ERE lokailua, 18, 186, 200, 226, 229, 233, 247, 252-253, 256-257, 264, 275-276, 280, 289, 291, 293, 296-297
 erlatibatzeko eskala, 395, 399, 417
 erlatibo generikoak, 394, 417
 erredundantzia, 261
 erreferentziakidetasuna, 305, 318, 363, 381, 429-432, 507, 531, 550, 555-556, 580, 582, 587
 erreferentziakidetasunerako joera, 432, 507
 errepikapena, 191, 218, 224, 228, 242
 'eskerrak eman' predikatua, 144
 eta enklitikoak, 127
 ___denborazko perpausetan, 22, 174, 237
 etorkizuneko hipotesia, 218
 etorkizuneko zirkunstantzia, 223, 229, 242
 etorri izanagatik (kontzesiozkoa), 151
 euskalki-aldaerak, 468, 492, 612
 ez + aditz-partizipioa + agatik, 272, 295
 ez + aditz-partizipioa + arren, 266, 294
 EZ ...-TURIK ERE, 279-280, 297
 EZ ...-TUTA ERE, 278, 280, 297
 ez ...-turik, 279-280, 297, 309, 364
 EZEAN, 34, 41-42, 148, 186-187, 197, 215-218, 235, 238, 240-241, 427-428, 432, 466, 550, 574
 ezezko baldintza, 309
 EZIK, 36, 47-48, 52-54, 61, 65, 77, 89, 95, 102-103, 106, 113, 137, 186-189, 192, 197, 210-214, 216-218, 235, 237-241, 256, 279-280, 291, 297, 309, 314, 344, 367, 384, 389-390, 428, 432, 487, 497, 555, 570, 611
 ezintasuna, 309, 338, 373
 EZKERO, 52, 72, 89, 93-96, 101, 129, 189, 192-195, 198-206, 209-210, 230, 280-282, 298, 530
 EZKEROAN, 94, 129, 196-197
 EZKEROK, 196-197
 EZKEROZ, 94, 97, 101, 196-197, 230
 EZKEROZTIK, 94, 96-97, 101, 196-197
 EZKETINO, 196
 forma indartuak, 270, 295
 forma pleonastikoa, 612
 galdegaia, 201, 224, 228, 329, 372
 galde-hitza + aditzoina/partizipioa, 427, 463
 galde-hitza + -TUKO, 565
 -GATIK, 24, 135-136, 180-181, 247, 268-270, 274-275, 285, 294-296, 299, 387
 -GATIK postposizioa, 135-136, 180-181, 274, 296
 generikoa, 1, 191, 203, 206, 212, 216, 238, 394-395, 528, 549, 571, 577
 generikotasuna, 191, 507, 554
 GERO, 9, 12, 15, 19-22, 25, 28, 33, 44, 47, 59, 64, 66, 70, 74, 78, 80-83, 86, 91-96, 100-102, 104, 110, 114-115, 117, 127, 129-130, 138-139, 144, 146-150, 163, 173, 182, 186, 188-203, 206-210, 212-213, 215, 217-219, 221-223, 226-230, 235-239, 241, 243, 245-247, 252, 254, 256-258, 262-263, 271-272, 274, 278, 280-282, 285, 289, 291, 297-299, 312-313, 321, 324, 326-327, 331-332, 337-338, 342, 352-353, 371, 385, 388, 407-408, 413, 419, 427, 429, 436, 444-445, 448, 450, 452, 455, 459-462, 468, 482-483, 493, 498, 528, 533, 542, 546, 548, 556, 573, 639
 geroaldiko aspektu-marka, 208, 212, 216
 gertagarritasun-maila, 221
 gertakortasun-maila, 191
 gogoak, 26, 36, 42, 166, 168, 183, 205, 268, 294, 332, 341, 403, 420, 461, 522, 531, 597

- gramatikalizatu, 57, 85
 harik eta... arte / artean..., 102
 helburua, 20, 24-25, 49, 138, 140-142, 155-156, 158, 164, 167, 179-180, 183, 203, 212, 216, 238-239, 275, 296, 513, 517-520, 529
 helburua zerbaiten kausa edo arrazoi, 138
 helburuzko balioa, 219, 240, 355, 378
 helburuzko perpausak, 6-7, 86, 135, 156, 163-164, 168-171, 179, 183, 227, 274, 296, 611
 —ezaugarriak, 18, 156, 177, 235, 247, 257-258, 388, 395, 406, 436, 492
 helburuzkoa, gertakizun, 139
 helburuzkoen marka nagusia, 164
 hipotesia, 190, 207, 209, 222, 227, 236, 242
 —*IK(AK)O*, 386, 388
 —*IKAKO*, 385-386, 416
 —*IKO*, 385-386, 416
 inferentzia moduko erabilera, 207
 inferentzia-erlazioa, 247, 248, 287, 288
 inplikazioa, 21, 38, 120, 249, 288
 inplikaziozko erlazioa, 249, 288
 interpretazioa, 19, 140, 203, 206, 238, 305, 400, 411-413, 421, 429
 —aldiberekoa, 429
 —aurretikoa, 429
 iraganaldiko adizkera, 190
 iraupena, 28-29, 35, 65, 98-100, 110, 114, 130, 257, 468
IZAN EZIK, 36, 102, 192, 211, 213-214, 237, 240, 279, 314, 367, 384, 389, 428, 432, 497, 555
 izatekotan, 14, 16, 142, 182, 186, 220-223, 225-226, 232, 504, 590
 izatekotz, 229
 izenlagun funtzioko —*TZEKO* perpausa, 611
 izen-sintagma erlatibatua, 381, 399-401, 415-417
 jarduera, 468-470, 472, 477, 479, 481, 483-486, 490, 564, 578-579
 jasailea, 141, 143-145, 474, 485-486
 jasailetasuna, 474, 483, 486
 juntadura, 18, 56, 78, 81, 249, 251, 257, 283, 288-289, 324, 371, 382, 390, 516
 kausa, 21-24, 29, 37, 42, 59, 78, 83-84, 86, 89, 119, 121, 127, 138, 140, 142, 155, 159-161, 179-180, 188, 192-193, 219, 221, 223, 241-242, 275, 296, 303, 411, 445, 486, 494, 540, 549, 551
 kausa eta helburua, 138, 140, 179-180
 kausa eta helburua, hurbileko kontzeptuak, 179
 kausa eta kausa-ondorio erlazioa, 188
 kausa eta ondorioa, 159
 kausa final, 138
 kausa-balioa, 139
 kausa-ondorio erlazioa, 188, 193, 235-236
 kausa-ondorio lotura, 192
 kausa-ondorioa erlazioa, 193
 kausazko erlazioa, 191
 kausazko eta helburuzko perpaus jokatu-gabeak, 135, 522
 kausazko eta helburuzko perpausak, 7, 86, 135, 171, 179, 274, 296
 kausazko perpaus barnekoak, 146
 kausazko perpausak, 6, 135, 180
 kausazko perpausak eta galdegia, 181
 —*KI*, 358, 379, 428
 —*KO(TZAT)*, 88
 konplementazio-erlazioa, 453, 534
 kontrafaktualak, 209
 kontrola, 1, 407, 430-432, 473-474, 488, 490-491, 495-496, 498, 506-508, 525, 528-529, 531, 544-545, 555-557, 564, 569-570, 580, 587, 610-611
 kontrolatua, 430, 432, 471, 488-489, 492, 497, 545, 555, 562, 569, 587, 610, 613
 kontzesioa, 19, 23, 84, 127, 226, 247-248, 252, 256, 274-276, 281-283, 287-289, 291, 296-298

- kontzesio-balioa, 247, 251, 265, 275, 293, 296, 309, 312
- kontzesio-perpauz ezezkua, 265, 294
- kontzesio-perpauzak-, 6-7, 13-14, 18, 24, 86, 91, 153, 245, 249, 253, 255, 270, 288-290, 295
- banakaritza-egiturak-, 298
 - barne-hurrenkera, 254, 290
 - elipsia, 71, 254, 260, 266, 290, 294
 - ERE lokailua, 18, 186, 200, 226, 229, 233, 247, 252-253, 256-257, 264, 275-276, 280, 289, 291, 293, 296-297
 - erreduntzia, 261
 - erreduntziak eta lokailuak, 255, 290
 - ezezkoak, 29, 99, 218, 328, 340, 373, 396, 417
 - kokalekua, 253, 290
 - kontzesio-gailuen errepikapena, 255
 - mendeko perpauseko barne-hurrenkera, 273
 - mintzagaia, 143, 514
 - NAHIZ ETA ... -TU-*, 246, 249, 257-258, 262, 291
 - TU ARREN-*, 182, 246, 249-250, 256, 259, 263-264, 275, 285, 289, 291, 293, 296, 299
 - TUAGATIK (ERE)-*, 246, 256, 268, 270, 285, 291, 294-295, 299
 - TURIK ERE-*, 246-247, 256, 276-277, 279-280, 285, 291, 296-297, 299, 309
 - TUTA ERE-*, 246-247, 256, 276, 278, 280-281, 285, 291, 296-299, 312
 - TUZ GERO ERE-*, 246-247, 252, 256, 280-281, 285, 291, 297, 299
 - TZEAGATIK, EZ...*, 273
- kontzesio-perpauzak eta aurkaritza loka-
iluak, 288
- kontzesio-perpauzak eta aurkaritzako jun-
tadura, 288
- kontzesio-perpauzak eta baldintza-perpau-
sak, 7
- kontzesio-perpauzak eta elipsia, 290
- kontzesio-perpauzak eta ere lokailua, 291
- kontzesio-perpauzak eta erreduntziak,
290
- kontzesio-perpauzak eta ezezkotasuna, 289
- kontzesio-perpauzak eta moduzko perpau-
sak, 289
- kontzesio-perpauzen kokalekua, 253, 290
- kontzesiozko balioa, 226, 263
- korrelazioa, 228
- korrelazioa lexikoa, 228
- korrelaziozko perpauz jokatugabeak-,
383, 401, 415
- kuantifikazioa, 224, 240, 509-510
- LEGEZ*, 51, 86, 255, 266, 294, 301, 303,
312, 345, 350, 366, 374, 441, 512, 515
- lokailuen bidezko lotura, 251
- lorkizuna, 1, 503-506
- lotura semantikoa, 187
- mendeko perpauseko barne-hurrenkera, 273
- menderakuntza, 250-251, 289
- mintzagaia, 143, 514
- mintzagaiari buruzko iruzkina, 199
- modalizazio-kutsua, 241
- modua, 23, 41, 45, 59, 80, 84, 120, 127,
169-170, 187, 225, 257, 301, 303, 328,
352, 361-362, 483, 506, 521, 558
- modu-konparazioa, 55
- moduzko adberbioak, 301, 307, 364
- moduzko perpauz garbiak, 303, 362
- moduzko perpauzak-, 6-7, 91, 253, 289,
301, 303, 306, 326, 344, 535
- [-TU + postposizioa]-*, 328, 371
 - TU AHALA-*, 63-65, 113, 117, 125,
132, 303, 306, 328-331, 349, 361,
371-372
 - TU ARAU-*, 63-65, 113, 117, 125,
132, 303, 328, 331, 349, 361, 371-372

- __-TU BEHARREAN-, 303, 306, 332-333, 346-347, 361, 372-373, 375
- __-TU EZTA, 278, 280, 297, 303, 311, 340, 343-344, 349, 361, 373-374
- __-TUA(K)-, 318, 320, 366, 369
- __-TURIK-, 23, 33, 56, 66, 78, 84, 92, 97, 127-128, 130, 155, 246-247, 253, 256, 276-277, 279-280, 285, 291, 296-297, 299, 303, 306-311, 314, 317, 319-320, 338, 340, 349, 361, 363-367, 369, 374, 448
- __-TUTA-, 22-23, 33, 56, 66, 78, 83, 85-86, 92, 127-128, 246-247, 253, 256, 276, 278, 280-281, 285, 291, 296-299, 303-304, 306-308, 310-312, 314, 317, 319-320, 340-341, 343, 349, 361-367, 369, 374
- __-TUTAKO ERAN, 312, 366
- __-TUTAKO LEGEZ, 312, 366
- __-TUTAKO MODUAN, 312, 366
- __-TUZ (-TUAZ)-, 321, 327, 369
- __-TZEAREKIN/-TZEAGAZ perpaus osagarriak-, 253
- ‘motibatibo’ deitura, 136
- motibatiboa, 268, 294
- muga lausoko esanahiak, 158, 159
- nahia, 9, 137-138, 166-168, 228, 333, 335, 373, 412, 504, 559
- NAHIZ (ETA), 146, 152, 182, 245-246, 249, 254, 257-259, 261-263, 287-288, 290-293, 345, 465, 479, 500, 506, 542, 571
- NAHIZ ... -TU, 246, 250, 262, 285, 289, 299, 442
- NAHIZ ETA, 146, 152, 182, 245-246, 249, 254, 257-259, 261-263, 287-288, 290-293, 345, 465, 479, 500, 506, 542, 571
- nahiz eta ... + aditz-partizipioa + ez, 262, 293
- nahiz eta ... + ez + aditz-partizipioa, 261, 293
- NAHIZ ETA ... -TU-, 246, 249, 257-258, 262, 291
- NAHIZ... -TU, 246, 250, 262, 285, 289, 299, 442
- NAHIZIK (ETA) ...-TU, 336
- nolakotasuna, 303-304, 327, 351
- NON (ETA) EZ ... eN, 185
- Ø BAINO LEHEN, 33
- Ø ORDUKO, 33
- objektu-genitiboa, 434, 438, 610
- ondokotasuna, 28, 35, 37, 47, 55-56, 59, 66-67, 79-80, 83-84, 86, 91-92, 96-97, 100, 127-130
- ondore perpausa, 187-188, 193, 207, 219, 236, 241
- orainaldiko adizkera, 190, 204
- osagarri argumentalak, 455-457
- osagarri ez direnak, 512, 517
- osagarri zirkunstantzialak, 301, 361
- osagarriak, 6-7, 12-14, 156-157, 166, 168-170, 175, 183, 186, 201, 230, 319, 327, 369, 425, 429, 431-433, 448-451, 454-455, 458, 463, 468, 471, 475-476, 489, 492-493, 500-502, 507, 510, 512, 517-518, 523, 525-526, 531, 533, 535-537, 543, 549, 553, 555, 557, 560-561, 568, 577, 582, 609-612
- partizipioa, 7, 17, 32-33, 61, 68, 72-73, 79, 82, 87, 93, 104-105, 155, 164, 167, 186, 314-315, 335, 345, 356-357, 366-367, 372, 374, 378, 385, 390, 392, 427, 463, 561, 563-564, 581, 612
- perifrasa modalak, 613
- perifrasia, 326, 467, 500-501, 581-582, 584, 613
- perpaus erlatiboak-, 6-7, 12, 381, 383, 389-390, 392, 396-398, 403, 405, 565, 611
- __aspektu-murriztapena, 397
- __balio murrizgarria, 393
- __egoera-aditzekin, 398

- __erlatibatzeko eskala, 395, 399, 417
- __erlatibo generikoak, 394, 417
- __ez daukagu [non lo egin] galderazko izenordaina dutenak–, 403
- __ezezkoa–, 213, 240, 261, 265, 293-294, 311, 341, 344, 365, 395, 408, 547
- __*IKAKO*, 385-386, 416
- __*IKO*, 385-386, 416
- __izen bereziak, 388, 393, 417
- __izen-sintagma erlatibatua, 381, 399-401, 415-417
- __jokatugabe arruntak, 382-383, 415
- __juntaketa eta metaketa, 389
- __*TAKO*, 385-386, 388, 392, 416
- __tokia, 163, 301, 389, 391, 403
- perpaus izenlaguna, 385, 512, 513, 517, 518, 520, 522, 523, 611, 612
- perpaus osagarriak–, 6-7, 12, 156, 168-170, 175, 183, 230, 425, 431, 449-450, 454, 468, 476, 492, 501, 507, 510, 512, 518, 525-526, 531, 533, 535-536, 543, 549, 553, 561, 577, 610-611
 - __adjuntuak, 7, 12, 14, 301, 361
 - __argumentua, 162, 169, 435, 438, 450, 452, 455
 - __egiturak, 113, 124, 166-168, 241, 258, 263, 276, 282-283, 297-298, 311, 335, 365, 390, 402, 405, 434-436, 467-468, 470, 478, 485, 487
 - __erreferentziakidetasuna–, 305, 318, 363, 381, 429-432, 507, 531, 550, 555-556, 580, 582, 587
 - __interpretazio prospektiboa, 429
 - __ondotiko egoera, 429, 586
 - __osagarri jokatugabeak eskuineratzea, 588
 - __perpaus osagarri jokatugabeen eta jokatuen arteko baliokidetasunak, 585
 - __perpaus-muga kanonikoa, 588, 590-591
 - __predikatuen sareak edo irazki semantikoak, 85, 529
- __*TZEA* (*eta* *TZERIK*)–, 553
- __*TZEAK*–, 427, 448, 451, 462, 526, 540, 543, 549-551, 612
- __*TZEAN*–, 21, 30, 33, 36-38, 40-41, 44, 119, 122, 427, 448, 451, 525, 531, 543, 612
- __*TZEAREN* perpaus izenlagunak–, 523, 612
- __*TZEARI*–, 44, 121, 427, 448, 451, 462, 526, 528, 543-545, 612
- __*TZEAZ*–, 33, 60, 427, 448, 462, 526, 536-537, 539-543, 591, 612
- __*TZEKO*–, 25, 34, 41, 49, 72, 117, 126, 156-158, 164-166, 168, 170, 172-177, 183-184, 194, 218, 222, 303, 333, 346-348, 351-354, 361, 372, 375-377, 385, 427, 429, 442-443, 448-450, 459-460, 462, 481, 484, 494, 501-508, 510, 512-513, 515-526, 542-543, 545, 558, 565-575, 577, 580, 586-589, 611-612
- __*TZEKO* perpaus izenlagunak–, 512-513, 517-518, 520, 522
- __*TZEN*–, 30, 170, 209, 326-327, 371, 427, 430-431, 442-443, 453-454, 462-463, 467-469, 472, 474-476, 478-485, 487-489, 491-495, 501-503, 525, 542-543, 545, 565, 578, 589, 610, 612-613
- __*TZERA(T)*–, 186, 230-232, 243, 462, 492
- perpauzezkotasuna, 437
- pertsonarekiko komunztadura, 191
- pertsona-zehaztapena, 192
- predikatu aspektualak, 472
- predikatu gobernatzaila, 451, 458, 505, 508, 609-610, 613
- predikatu inplikatiiboak, 472
- predikatu konplexua, 520
- predikatuen sareak edo irazki semantikoak, 433
- predikazioa, 304, 362
- progresiboa, 481, 483

- prospektiboa, 138, 429, 443, 505, 543, 556, 562, 572, 587
- prozesua, 132, 331, 467, 472, 482, 486, 489-490
- RIK, 126, 307, 313, 315, 363, 366-367
- “saiatu” aditza, 170
- sare semantikoa, 609
- semantika/pragmatika jokoa, 188
- subjektu erreferentziakidea, 430
- subjektu isila, 145, 497
- subjektu zehaztugabea, 145
- subjektu-zehaztapena, 191
- subjuntibozkoak, 481, 587, 611
- [–TU + postposizioa], 328-348
- T(Z)E + –A + –REKIN, 354, 377
- T(Z)EAN, 448, 525
- osagarria, 26, 38, 42, 121, 162, 168-169, 183, 231, 245, 319, 369, 423, 427, 448-453, 458-459, 461, 463, 472, 475, 501, 504-505, 512, 524, 533-534, 539, 544, 554, 566, 583, 590, 593, 609, 613
- TA, 31-32, 38-39, 42, 45, 48-52, 54, 57-61, 63, 69-70, 72, 81-86, 88-91, 95-99, 102, 104-105, 107-108, 110-112, 115-117, 135, 137, 152, 170, 172-173, 192, 195-201, 209-210, 213-214, 216, 218, 220-222, 225, 231, 233, 250, 255, 258-262, 264, 266-269, 271-273, 276-279, 281-282, 291-294, 310-313, 315, 322-323, 325-326, 330, 333-334, 336-339, 341-342, 344-345, 348, 350, 352, 355, 366-367, 370, 374, 384-386, 390, 393-395, 397, 399, 401, 406, 408, 416, 439-441, 482, 499, 511-512, 521, 528, 530, 537, 546-548, 550, 552-553, 563-566, 582-583, 616-617, 620, 622, 625, 628, 634-635
- TAKO, 385-386, 388, 392, 416
- TEAGATIK, 171
- testuingurua, 19, 48, 52, 135, 171
- TU, 22-23, 30, 33, 35, 44, 47, 50, 52-53, 55-56, 58-59, 61-67, 71, 73, 75, 77-80, 83, 86-88, 90-92, 94, 98, 102-103, 105-110, 112-113, 115-117, 122-129, 131-133, 150, 152-153, 182, 186, 195, 197-199, 210-211, 215-218, 238-241, 246, 249-250, 256-259, 262-264, 267-268, 275, 278-280, 285, 289, 291, 293-294, 296-297, 299, 303, 306, 309, 311-312, 321, 328-349, 353, 355, 361, 363-365, 371-377, 427, 436, 442-443, 463, 467, 476-477, 490, 543, 551, 561, 563-564, 580, 582, 612-613
- TU (ETA) ONDOAN / ONDOREN / ONDOREAN..., 66
- TU (IZAN)AGATIK, 150, 152-153, 182
- TU (IZAN)-AGATIK, 153
- TU (IZAN)-AGATIK, 153
- TU + NAHIRIK, 333, 335-336, 373
- TU AGINEAN, 303, 333, 345-346, 361, 372, 375
- TU AGINIK, 346, 372
- TU AHAL(EZIN)/BEHAR/NAHI IZAN, 613
- TU AHALA–, 63-65, 113, 117, 125, 132, 303, 306, 328-331, 349, 361, 371-372
- TU AHALEAN, 329-330
- TU AITZINEAN, 66, 73, 126
- TU AITZINEAN / AITZINETIK–, 66, 73, 126
- TU ALDI(O)RO, 64
- TU ALDIRO, 63, 125
- TU ARAU–, 63-65, 113, 117, 125, 132, 303, 328, 331, 349, 361, 371-372
- TU ARREN–, 182, 246, 249-250, 256, 259, 263-264, 275, 285, 289, 291, 293, 296, 299
- TU ARREN (ERE), 256, 291
- TU ARREN BERE, 265, 293
- TU ARTE, 98, 102-103, 112, 131
- TU ARTE / ARTERAINO–, 102, 103, 104

- TU ARTEAN*, 107-109, 113, 116, 131-133
 -*TU ARTEAN / ARTERAINOKOAN*-, 102, 108, 112
 -*TU ARTEKAN*, 108, 131
 -*TU ARTEKO*, 109, 132
 -*TU ARTERAINOKOAN*, 108
 -*TU ARTINO*, 105, 131
 -*TU ARTIO*, 106, 131
 -*TU AURRETIK*, 33, 66, 71, 73, 126
 -*TU AURRETIK / AURREAN / AURREZ*-, 33, 37, 66, 73
 -*TU BAINO LEHEN*, 33, 66-67, 125
 __lehentasuna, 222
 -*TU BAKOITZEAN*, 63-64, 125
 -*TU BARIK*, 306, 309, 311, 340-341, 347, 364-365, 373-374
 -*TU BEHAR BIDEAN*, 335
 -*TU BEHARREAN*-, 303, 306, 332-333, 346-347, 361, 372-373, 375
 -*TU BEHARREZ*, 303, 333, 337, 361, 372
 -*TU BERRI(T)AN*, 61, 124
 -*TU BEZAIN AGUDO / FITE / LASTER / SARRI*-, 33, 35, 47, 52-54
 -*TU BEZALA*, 55, 123, 312, 345, 374
 -*TU BITARTEAN*, 109-110, 113, 115, 132
 -*TU BITARTEAN / BITARTEKO / BIZKI-TARTEAN*, 132
 -*TU ETA*, 22, 55-56, 58-59, 66, 78-80, 124, 127-128, 249
 __denborazko perpausetan, 22, 174, 237
 __modua, 23, 41, 45, 59, 80, 84, 120, 127, 169-170, 187, 225, 257, 301, 303, 328, 352, 361-362, 483, 506, 521, 558
 -*TU ETA BEHINGOAN*, 58
 -*TU ETA BEREHALA*-, 55-56, 59, 78, 124
 -*TU ETA GERO*-, 22, 66, 78, 80, 127
 -*TU ETA LASTER*, 55, 58-59, 78, 124
 -*TU EZEAN*-, 186, 197, 215, 217-218, 238, 240-241
 -*TU EZIK*-, 186, 197, 210-211, 216-218, 238-241, 256, 279-280, 291, 297, 309, 344
 __baldintza erreala-, 190, 202, 208, 211, 236, 238-240
 __baldintza irreal, 190, 202, 208, 211-212, 215, 236, 239-240
 __salbuespena-, 192, 211, 213-214, 237, 240, 254, 430, 489, 542
 -*TU EZIK ERE*, 256, 279-280, 291, 297
 -*TU EZINDA*, 303, 338, 349, 361, 373
 -*TU EZINEAN*, 338-339, 373
 -*TU EZINIK*, 309, 338, 373
 -*TU EZINIK eta EZIN*, 338
 -*TU EZKERO*, 94, 129, 195, 198-199, 280
 -*TU EZKERO ERE*, 280
 -*TU EZKEROZ*, 94
 -*TU EZKEROZTIK*, 94
 -*TU EZKETIÑO BE*, 280
 -*TU EZTA*, 278, 280, 297, 303, 311, 340, 343-344, 349, 361, 373-374
 -*TU EZTA ERE*, 278, 280, 297, 343, 373-374
 -*TU GABE*, 66, 75, 126, 279-280, 297, 303, 306, 309, 311, 340, 343, 349, 361, 364-365, 373-374, 376
 -*TU GABE ERE*, 279-280, 297
 -*TU GABE(RIK)*-, 126
 -*TU GABETAN*, 340, 342-343, 374
 -*TU GURAGO*, 582
 -*TU GURAN*, 336-337
 -*TU GURARIK*, 335-337, 373
 -*TU GURIAN*, 337
 -*TU GUZTIAN*, 63-64
 -*TU HURRAN*, 353, 377
 -*TU IZAN*, 150, 152-153, 182, 427, 442-443
 -*TU IZAN ARREN*, 182
 -*TU IZANA*, 442, 612
 -*TU IZANAK*, 551, 612
 -*TU IZANAREKIN*, 612

- TU IZANARI*, 612
-*TU IZANAZ*, 612
-*TU IZANEAN*, 612
-*TU LEGEZ*, 345, 374
-*TU NAHI/GURA*, 580, 582
-*TU NAHI/GURA IZAN*, 580, 582
-*TU NAHIAN*, 333, 336
-*TU NAHIRIK*, 333, 335-336, 373
-*TU NAHIZ(IK)*, 263
-*TU NAHIZIK*, 336
-*TU ONDOAN*, 22-23, 66, 78, 86, 127-128
-*TU ONDOREN*, 33, 90
-*TU ONDORENERAKO*, destinatiboa, 91
-*TU ONDOTIK*, 91
-*TU ORDE*, 347, 375
-*TU ORDEAN*, 347, 375
-*TU ORDEZ*, 303, 334, 342, 347-348, 361, 373, 375-376
-*TU ORDUKO*, 33, 47, 50, 52, 77, 123
-*TU OSTEAN*, 66, 78, 91, 127, 129
-*TU OSTEKOTZAT*, destinatiboa, 91
-*TU(IZAN)A*, 427
-*TU(IZAN)AK*, 427
-*TU(IZAN)ARI...*, 427
-*TU(A)Z*, 66, 78, 91-92, 127, 129, 321, 355, 377
-*TU(IZAN)AGATIK*, 150, 152-153, 182
-*TU(K)ERAN*, 33, 44, 122
-*TUA*, 124, 318, 320, 366, 369, 442-443, 612
-*TUA(K)-*, 318, 320, 366, 369
-*TUAGATIK*, 246, 250, 256, 259, 268-270, 273, 275, 285, 291, 294-296, 299
-*TUAGATIK (ERE)-*, 246, 256, 268, 270, 285, 291, 294-295, 299
-*TUAGATIKAN*, 269
-*TUAGAZ BATERA*, 59
-*TUAK*, 551, 612
-*TUAK / -TU IZANAK*, 551
-*TUAN*, 333, 612
-*TUAREKIN*, 612
-*TUARI*, 612
-*TUAZ*, 21, 59, 92, 113, 117, 124, 132, 197, 321-323, 325, 327, 369-370, 612
-*TUAZ BATERA*, 21, 59, 92, 113, 117, 124, 132, 325
-*TUAZ GERO*, 92, 197
-*TUENEAN-*, 45, 186, 232
-*TURIK-*, 23, 33, 56, 66, 78, 84, 92, 97, 127-128, 130, 155, 246-247, 253, 256, 276-277, 279-280, 285, 291, 296-297, 299, 303, 306-311, 314, 317, 319-320, 338, 340, 349, 361, 363-367, 369, 374, 448
-*TURIK ERE-*, 246-247, 256, 276-277, 279-280, 285, 291, 296-297, 299, 309
 __ezezko formak, 278, 297, 340, 374
-*TURIK ERE* kontzesiozkoa, 309
-*TUTA-*, 22-23, 33, 56, 66, 78, 83, 85-86, 92, 127-128, 246-247, 253, 256, 276, 278, 280-281, 285, 291, 296-299, 303-304, 306-308, 310-312, 314, 317, 319-320, 340-341, 343, 349, 361-367, 369, 374
-*TUTA ERE-*, 246-247, 256, 276, 278, 280-281, 285, 291, 296-299, 312
 __ezezko formak, 278, 297, 340, 374
-*TUTA ERE* kontzesiozkoa, 312
-*TUTAKO ERAN*, 312, 366
-*TUTAKO LEGEZ*, 312, 366
-*TUTAKO MODUAN*, 312, 366
-*TUTAKOAN*, 23, 34, 66, 78, 85, 127-128, 155
-*TUZ*, 19, 33, 66, 78, 92-94, 100-101, 129-130, 186, 194-203, 206-208, 212-213, 215, 218-219, 221-222, 226, 237-239, 241, 246-247, 252, 256, 280-282, 285, 291, 297, 299, 303, 306, 321-324, 326-327, 339, 349, 361, 369-371, 448
-*TUZ (-TUAZ)-*, 321, 327, 369
-*TUZ GERO-*, 19, 33, 66, 78, 92-94, 100, 129-130, 186, 194-203, 206-208, 212-

- 213, 215, 218-219, 221-222, 226, 237-239, 241, 246-247, 252, 256, 280-281, 285, 291, 297, 299, 326, 448
- TUZ GERO ERE-, 246-247, 252, 256, 280-281, 285, 291, 297, 299
- __bestelako balioak, 33, 80, 84
- TUZ GEROZTIK, 94, 101, 129, 196
- TUZ JOAN, 326
- TUZ JOAN / -TZEN JOAN, 326
- TZAKA, 349-350, 376
- TZE, 30, 33, 38, 47, 50, 74, 126, 173, 184, 230, 267, 355, 378, 434, 436, 438, 468, 517, 610-612
- TZE ALDE, 173, 184
- TZE ALDERA, 173, 184
- TZE EZKERO, 230
- TZE EZKEROTAN, 230
- TZE EZKEROZ, 230
- TZE ORDUKO, 33, 50
- TZE(RA)KO, 126
- TZE(RA)KOAN, 33
- TZEA, 427, 443, 448, 451, 458, 462, 464, 481, 525-526, 540, 542-543, 549, 551, 553-554, 556, 559, 567-571, 577-578, 580, 582-583, 586-588, 591, 612
- TZEA perpaus osagarriak (eta -TZE-RIK)-, 553
- TZEA/-TZERIK, 559, 612
- TZEAGATIK, 135-140, 143, 146, 148-150, 152-155, 171-172, 181-182, 184, 273, 275, 296, 448
- TZEAGATIK / -TU(IZAN)AGATIK, 153
- TZEAGATIK kausazko eta helburuzko, 155
- TZEAGATIK, EZ..., 273
- TZEAGAZ, 354-355, 377, 525, 533
- TZEAK, 427, 448, 451, 462, 526, 540, 543, 549-551, 612
- TZEAK perpaus osagarriak-, 549
- TZEAN, 21, 30, 33, 36-38, 40-41, 44, 119, 122, 427, 448, 451, 525, 531, 543, 612
- TZEAREKIN, 33, 42-43, 59-60, 121, 124, 354, 377, 427, 448, 462, 525, 533-536, 612
- __emendioa, 22
- TZEAREKIN, -TZEAGAZ, 354, 377, 525, 533
- TZEAREKINI/-TZEAGAZ perpaus osagarriak-, 533
- TZEAREN, 523-524, 526, 611-612
- TZEAREN perpaus izenlagunak-, 523, 612
- TZEARI, 44, 121, 427, 448, 451, 462, 526, 528, 543-545, 612
- TZEARI perpaus osagarriak-, 543
- TZEARI UTZI, 528
- TZEAREN, 25, 153-155, 171-172, 180, 182, 184, 267, 275, 296
- TZEAREN / -TUAREN, 153
- TZEAZ, 33, 60, 427, 448, 462, 526, 536-537, 539-543, 591, 612
- TZEAZ BAT, 33, 60
- TZEAZ perpaus osagarriak-, 536
- TZEKA, 349-350, 376
- TZEKE, 303, 340, 349-350, 361, 373, 376
- TZEKE, -TZAKA-, 349, 376
- TZEKO, 25, 34, 41, 49, 72, 117, 126, 156-158, 164-166, 168, 170, 172-177, 183-184, 194, 218, 222, 303, 333, 346-348, 351-354, 361, 372, 375-377, 385, 427, 429, 442-443, 448-450, 459-460, 462, 481, 484, 494, 501-508, 510, 512-513, 515-526, 542-543, 545, 558, 565-575, 577, 580, 586-589, 611-612
- TZEKO (zer), 507
- TZEKO ADINA, 522
- TZEKO ASMOTAN, 174-175, 522
- TZEKO AURREAN, 126
- TZEKO BESTE, 522
- TZEKO BEZAIN, 522
- TZEKO BEZAIN BESTE, 522

- TZEKO ERAN, 351-352, 377
 -TZEKO eta -TZE ALDERA, 173
 -TZEKO GISAN, 351-352, 377
 -TZEKO INTENTZIOAREKIN, 174
 -TZEKO LAIN, 522
 -TZEKO MANERAN, 352
 -TZEKO MODUAN, 351, 377
 -TZEKO MODUAN / ERAN / GISAN / MANERAN-, 351, 377
 -TZEKO ORDE / ORDEAN, 348
 -TZEKO ORDEZ, 348, 376
 -TZEKO perpaus izenlagunak-, 512-513, 517-518, 520, 522
 -TZEKO perpaus osagarriak-, 510
 -TZEKO perpausak, 459, 508, 512-513, 515-518, 521, 524, 568-569, 611
 -TZEKO ZORIAN-, 303, 333, 346, 353-354, 361, 372, 377
 -TZEKOAN, 34, 40-41, 120, 522
 -TZEKOTAN-, 20, 41, 174, 184, 186, 218-219, 221-222, 224-230, 240-241, 243, 355, 378, 521-522, 612
 __baldintza urruna, etorkizunekoa, 222, 242
 __balioak-, 33, 80, 84, 182, 219, 237, 241, 328, 371, 524
 __errepikapena, korrelazio lexikoa, 224, 242
 __helburuzkoen muga, 219, 241
 __hizpidea emateko, proposizioa bideratzeko, 225, 242
 __TUZ GERO-ren baliokide, 226
 -TZEKOTAN ERE, 226
 -TZEKOTZ-, 176, 186, 227, 229-230, 240-241, 243
 -TZEKOTZ ERE, 229
 -TZEKOTZAT, 172-173, 184
 -TZEKOZ, 227
 -TZEN, 30, 170, 209, 326-327, 371, 427, 430-431, 442-443, 453-454, 462-463, 467-469, 472, 474-476, 478-485, 487-489, 491-495, 501-503, 525, 542-543, 545, 565, 578, 589, 610, 612-613
 -TZEN AKABATU / AMAITU / BUKATU, 484
 -TZEN EGON, 483
 -TZEN JOAN, 326, 482
 -TZEN perpaus osagarriak-, 454, 468, 476
 -TZEN perpausak, 427, 467-468, 479, 488-489
 __kontrola, 1, 407, 430-432, 473-474, 488, 490-491, 495-496, 498, 506-508, 525, 528-529, 531, 544-545, 555-557, 564, 569-570, 580, 587, 610-611
 -TZENAGATIK, 274
 -TZERA, 21, 33, 50, 103, 123, 131, 186, 230-232, 243, 427, 429-431, 442-443, 451, 453-454, 458, 462-463, 465, 469, 482, 492-495, 497-503, 525-526, 530-531, 542-543, 545, 565-566, 589, 610, 612
 -TZERA ARTE, 103, 131
 -TZERA EMAN, 501, 545
 -TZERA EZKERO, 230
 -TZERA JOAN, 482, 499-500
 -TZERA ORDUKO, 33, 50
 -TZERA UTZI, 497
 -TZERA(T)-, 186, 230-232, 243, 462, 492
 -TZERA(T) perpaus osagarriak-, 492
 -TZERAINO-, 33, 111-112, 132
 -TZERAINOKOAN, 111
 -TZERAKO-, 33, 47-48, 52, 77, 122
 -TZERAKOAN, 21, 34, 38-41, 120
 -TZERAT, 44, 121, 231
 -TZERIK, 525, 553, 559, 612
 -TZETIK, 427, 462, 525-526, 528-531, 536, 542-543, 612
 -TZETIK GELDITU, 528-529
 -TZEZ, 186, 229, 243, 323, 370, 485
 -TZEZ GERO, 186, 229, 243
 -Z atzizki instrumentala, 194
 zehar-galdera, 406-408, 412, 423, 429, 457, 463, 561-562

zentzu perfektiboa, 524

ZER + ADITZOINA + ERE (zer(nahi) gerta (ere), zer hel ere-, 233

zer perpausak, 479

zertan perpausak, 479

zirkunstantzia, 187, 192, 223, 229, 242

